



Iturria: *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa).
CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala.
Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/U/UriarteItzulpenak.htm>

BESTE ZENBAIT ITZULPEN

Jose Antonio Uriarte

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

EKIALDEKO AZPI-EUSKALKIA



SAN JUAN APOSTOLUBAREN APOKALIPSIS EDO AGERTUERIA

LELENGO KAPITULUBA

Erbesteturik San Juan Patmosko ugartian, aginduten jako eskribidu dagjuezala ikusi zituzan gauzak Asiako zazpi Elexai, iruditubai zazpi kandelubetan, zeintzubekaz inguratutik ikusi eban gizonaren Semia. Erakusten dau ze iruditan agertu jakon.

1. Jesukristoren Agertueria, emon eutsana berari Jaungoikuak, agirijan iminteko bere serbitzarijai, laster egiñak izan biar daben gauzak: eta azaldau zituzan, bialdurik bere Aingerubaren bitartez bere serbitzari Juani,

2. Zeñek emon deutsan autorreria Jaungoikuaren berbiari, eta Jesukristoren autorreria, ikusi zituzan edozeintzuk gauzai.

3. Zorijonekua, irakurri ta entzuten dituzana etortekokizun onen berbak: eta gordetan dituzana, bertan eskribidutik dagozan gauzak: zerren denporia urrian da.

4. Juanek Asian dagozan zazpi Elexai. Grazija zubei, eta bakia aregandik, danagandik, zanagerandik, eta etorriko dana gandik: eta bere jarlekubaren aurrian dagozan zazpi espiritubak gandik:

5. Eta Jesukristo <...> dan autorgilla leijala, illen <...> reko erregeen buruba, zeñek maitetu ginduzan, eta garbitu ginduzan geure pekatubetatik bere odolian.

6. Eta egin ginduzan erreinuba, eta sazerdotiak Jaungoikuarentzat, ta bere Aitarentzat: berari gloria ta agintaritzia gizaldijen gizaldijetan. Alan izan dedilla.

7. Orra nun datorren odeijakaz, eta ikusiko dau begi guztijak, eta zulatuebenak. Eta bularrak joko ditube bera ikusijaz lurreko etxadi guztijak: Alan izango da: Alan izan dedilla.

8. Ni naz alfa ta omega, asieria ta amajia, diño Jaun Jaungoikuak: danak, ta zanak, eta etorriko danak, Guztijalak.

9. Ni Juan zuben anajia, ta partilla naibagian, eta erreinuban, eta erua-<...> -ren berbiagaitik, eta Jesukristoren autorreria gaitik:

10. Euki neban ikuskizun bat Domeka egun baten, eta entzun neban neure ondorik boz andi bat tronpetiarena lakua,

11. Ziñuanarena: Ikusten dozuna, eskribidu egizu liburuban: eta bialdu egjezu, Asian dagozan zazpi Elexai, Efesokuari, eta Esmirnakuari, eta Pergamokuari, eta Tiatirakuari, eta Sardiskuari, eta Filadelfiakuari, eta Laodiziakuari:

12. Eta biurtu nintzan ikusteko neugaz berba egiten eban boza. Eta biurtutik ikusi nituzan zazpi kandelu urrezkuak:

13. Eta zazpi kandelu urrezkuen erdijan gizonaren Semiaren antze bat, soñeko luziagaz, eta loturik bularrak urrezko banda bategaz.

14. Bere buruba barriz, ta uliak ziran zurijak lana zurija legez, eta edurra legez, eta bere begijak suzko garra legez.

15. Eta bere oñak latoe piñaren antzekuak <...> laba ixiotuban eta bere boza ur askoren otsa lakua:

16. Eta eukazan bere eskuman zazpi izar: eta bere aotik urteten eban, alde bijetatik zorrosturiko ezpatiak: eta bere arpegijak argi egiten dau eguzkijak bere indarrian legez.

17. Eta ikusi nebanian, jausi nintzan bere oñen aurrian illik legez. Eta imiñi eban bere eskumia nire ganian, ziñuala: Ez zaite bildur izan: ni naz lelunga, ta azkenengua,

18. Eta bizija, ta izan nintzan illa, eta orra nun bizi nazan gizaldijen gizaldijetan, eta daukadaz erijotziaren, ta infernuko giltzak.

19. Eskribidu egizuz bada ikusi dituzuzanak, eta diranak, eta oneen ondoren egiñak izan biar dabenak.

20. Nire eskuman ikusi dituzun zazpi izarren ezkutapena, eta zazpi kandelu urrezkuak: zazpi izarra dira zazpi Elexetako Aingerubak: eta zazpi kandelubak, zazpi Elexak dira.

BIGARREN KAPITULUBA

Aginduten jako Apostolu santubari adierazoteko gauza batzuk Efesoko, Esmirnako, Pergamoko, eta Tiatirako Elexai. Alabetan ditu artu ez ebenak Nikolaiten irakatsija, eta deituten deutse beste batzubei zemajakaz penitenzijara: gorrotoz begratuten deutsa gizon epelari, eta eskintzen deutse sarija garailarijai.



1. Eskribidu egijozu Efesoko Elexako Aingerubari: Oneek esaten ditu daukazanak zazpi izar bere eskuman, dabillanak urrezko zazpi kandelaruben erdijan:

2. Badakidaz zure egitadak eta zure lana, ta eruapena, eta ezin dituzula sufriu dongak: eta tentau zenduzala esaten dabenak, Apostolubak dirala eurak, ta ez diranak: eta aurkitu dituzu guzturtjak:

3. Eta daukazu eruapena, eta sufriu dozu nire izena gaitik, ta ez dozu ukatu.

4. Baña badaukat agiraka bat zuri egiteko, itxi dozula zeure lelengo karidadia.

5. Gomuta zaite bada nundik jausi zarian, eta egizu penitenzija, eta egizuz lelengo lanak: bada bestelan banatortsu, eta aldenduko dot zeure kandelera bere lekutik, ezpadozu egiten penitenzija.

6. Baña an daukazu, gorroto deutsezula Nikolaiten egitadai, zeintzubei neuk bere gorroto deusedan.

7. Belarrija daukanak, entzun begi zer esaten deuten Espiritubak Elexai: Garaituten dabenari emongo deusat jaten neure Jaungoikuaren atsegin lekuban dagan, bizitzako arbolatik.

8. Eta Esmirnako Elexako Aingeruari eskribidu egijozu: Oneek esaten ditu lelenguak, ta azkenenguak, ill zanak, ta bizi danak:

9. Badakit zure naibagia, ta zure ezeukija, baña zara aberatsa, eta deungaro esaten dabe zugaitik, Judegubak dirala diñuenak, eta ez dira, ezpada dira Satanasen batzaarra.

10. Ez egizu euki igaroko dituzun pena oneen bildurraren apurrik. Orra nun botako dituzan diabruak zeubetariko batzuk presondegira, izan zaitezen tentadubak: eta eukiko dozube naibagia amar egunian. Izan zaite leijala erijotzara giño, eta emongo deusut bizitzako koroia.

11. Belarrija daukanak, entzun begi zer esaten deuten Espiritubak Elexai: Goituten dabenari, ez deusa kalterik egingo bigarren erijotziak.

12. Eta eskribidu egijozu Pergamoko Elexako Aingerubari: Oneek esaten ditu, daukanak alde bijetatik zorrotzuriko ezpatia.

13. Badakit nun bizi zarian, nun dagan Satanasen jarlekuba: eta iraun eragiten deusazu nire izenari, eta ez dozu ukatu neure fedia. Eta egun aretan Antipas neure autorgilla leijala, illa izan zana zeuben artian, nun bizi dan Satanasek.

14. Baña badaukadaz agiraka gitxi batzuk zuri egiteko: daukazuzalako or, jarraituten deusnak Balaamen irakatzijari, zeñek erakusten eutsan Balaaki iminten estropezua Israelgo semeen aurrian, jan egijen, ta aragizko pekatuban jausi zeitezen.

15. Alan daukazuz zuk bere jarraituten deusnak Nikolaiten irakatzijari.

16. Penitenzija egizu bada: bestelan etorriko natxatsu laster, eta burruka egingo dot eurakaz neure aoko ezpatiagaz.

17. Belarrija daukanak, entzun begi dirautsana Espiritubak Elexai: Goituten dabenari emongo deusat manna ezkutuba, eta emongo deusat arritxu zuri bat, eta arritxuban izen barri bat eskribidurik, iñok ez dakijana, ezpada artuten dabenak.

18. Eta eskribidu egijozu Tiatirako Elexako Aingerubari: Oneek diñoz Jaungoikuaren Semiak, daukazanak suzko garra lako begijak, eta bere oñak latoe zurijaren antzekuak:

19. Badazaudaz zure egitadak, eta zure fedia, ta karidadia, eta zure biarra ta eruapena, eta zure azkenengo egitada, lelenguak baño geijaguak.

20. Baña badaukadaz agiraka gitxi batzuk zuri egiteko: laketuten deusazulako Jezabel emakumiari, igarlia dala esaten dabenari, irakasten, ta engañetan nire serbitzarijak, aragizko pekatubak egiten, eta jaten idolo jakijak.

21. Eta emon neutsan denporia, penitenzija egiteko: eta ez dau gura damutu bere aragizko pekatubagaz.

22. Eta orra nun imiñiko dodan oeraturik: eta beragaz pekatu egiten dabenak, ikusiko dira naibage guztiz andijan, ezpadabe egiten euren pekatuben penitenzija.

23. Eta euren semiak illgo ditut erijotziagaz, eta jakingo dabe Elexa guztijak, neu nazala aztertuten ditudazana erraijak, eta bijotzak: eta emongo deusat zubetariko baktxari bere egitaden erara. Zubei barriz dirautsubet,

24. Eta Tiatiran zagozen enparaubai: Irakatsi oni jarraituten ez deuten guztijak, eta ezagutu ez ditubezanak Satanasen sakontasunak, eurak deituten deuten legez, ez dot imiñiko zuben ganian beste kargarik:

25. Alanbere gorde egizube daukazubena natorren artian.

26. Eta goituten dabenari, eta gordetan dituzanari azkeneragiño neure egitadak, emongo deusat eskubidia jenteen ganian,

27. Eta zuzenduko ditu burdiñazko zigorragaz eta izango dira ausijak lapiko giñaren ontzija legez,

28. Neuk bere artu neban legez neure Aitagandik: eta emongo deusats egunsentiko izarra.

29. Belarrija daukanak, entzun begi zer esaten deuten Espiritubak Elexai.



IRUGARREN KAPITULUBA

Emoten deutsez irakatzu premiñazkuak Sardisko, Filadelfijako, ta Laodizeako Obispuai.

1. Eta eskribidu egijozu Sardisko Elexako Aingerubari: Oneek esaten ditu daukazanak Jaungoikuaren zazpi Espiritubak, eta zazpi izarrak. Badakidaz zure egitadak, izena daukazula bizi zariala, ta illik zagoz.
2. Izan zaite iratzarrija, eta sendatu egizuz, ilteko egozan beste gauzak. Zerren ez ditudaz aurkituten zure egitadak betiak neure Jaungoikuaren aurrian.
3. Euki egizu bada goguan zelan artu dituzun, eta entzun dituzun, eta gorde egizuz, eta penitentzia egizu. Baña baldin iratzarririk ez bazagoz, etorriko naz zugana lapurra legez, eta ez dozu jakingo ze orduten etorriko nazan zugana.
4. Baña badaukazuz lagun gitxi batzuk Sardisen, ez ditubezanak loitu euren soñekuak: eta ibilliko dira neugaz zuriz, duiñak diralako.
5. Goituten dabena, onelan izango da jantzija jantzi zuriz, eta ez dot kenduko bere izena bizitzako liburutik, eta autortuko dot bere izena neure Aitaren aurrian, ta bere Aingeruben aurrian.
6. Belarrija daukanak, entzun begi zer esaten deutesen Espiritubak Elexai.
7. Eta Filadelfijako Elexako Aingeruari eskribidu egijozu: Oneek esaten ditu Santubak eta Egjijatijak, daukanak Dabiden giltza: idigiten dabena, eta iñok itxiten ez dabena: itxiten dabena, ta iñok idigiten ez dabena:
8. Badakidaz zure egitadak. Orra nun imiñi dodan zure aurrian idigirik atia, iñok itxi ezin dabena: birtute gitxi daukazulako, eta gorde dozu nire berbia, eta ez dozu ukatu nire izena.
9. Orra emen emongo dot Satanasen batzaarretik, esaten dabena eurak dirala Judegubak, eta ez dira, ezpada guzurra diñue. Orra emen egingo dot eurak etorri ditezela, eta adoraugajijela zure oñen aurrian: eta jakingo dabe nik maitetu zaitudazala.
10. Gorde dozulako neure eruapenaren berbia, neuk bere gordeko zaitut, mundu guztira etorriko dan esetsiko ordutik, esesteko lurrian bizi diranai.
11. Begira laster natorrela: gorde egizu daukazuna, iñok artu ez dagan zeure koroia.

12. Goituten dabena, abe egingo dot neure Jaungoikuaren Elexan, eta ez dau urtengo ostera kanpora: eta eskribiduko dot bere ganian neure Jaungoikuaren izena, eta neure Jaungoikuaren urijaren izena, Jerusalem barriarena, jatzi zanarena zerutik neure Jaungoikuagandik, eta neure izen barrija.

13. Belarrija daukanak, entzun begi zer esaten deutesen Espiritubak Elexai:

14. Eta Laodiziako Elexako Aingeruari eskribidu egijozu: Oneek esaten ditu Amenak, autorgilla leijal ta egijatijak, Jaungoikuaren eginkijaren asieria danak.

15. Badakidaz zure egitadak: ez zariala otza, ez berua: arren bada bazina otza, edo berua:

16. Baña zarialakoko epela, eta ez otza, ez berua, asiko natxatsu errebesetan neure aotik.

17. Esaten dozulako: Aberatza naz, eta ondasunez betia, eta ez daukat iñoren premiñarik: eta ez dakizu zu zariala gizajua, ta errukarrija, ta ezeukija, ta itxua, ta billosa.

18. Kontzejetan zaitudaz erosi dagidazula neuri urre sutan garbituba, aberatza egin zaitian, eta soñeko zuriz jantzija izan zaitian, eta agertu ez dedin zure billostasunaren lotsarija, eta begira egijezu zeure begijai ikusi dagizun.

19. Nik agiraka egiten deutset maite ditudazanai, ta kastigetari ditut. Ixiotu zaite bada arimen gurarijan, ta penitentzia egizu.

20. Orra emen atian nago, eta ots egiten dot: baldin iñok entzuten badau nire berbia, eta idigiten badeust niri atia, sartuko naz beragana, eta apalduko dot beragaz, eta berak neugaz.

21. Goituten dabena, jarri eragingo deusat neugaz neure jarlekuban neuk bere goitu neban legez eta jarri nintzan legez neure Aitagaz bere jarlekuban.

22. Belarrija daukanak, entzun begi zer esaten deutesen Espiritubak Elexai.

LAUGARREN KAPITULUBA

Jaungoikuaren jarlekuba zeruban: ogeta lau Zaar Jaungoikua adoretan dabena: eta lau abere begiz betiak alabetan dabena.



1. Oneen ondoren begiratu neban: eta orra emen atia idigirik zeruban, eta entzun neban lelengo boza, neugaz berba egiten daben tronpetiarena lakua, ziñuala: Igon egizu ona, eta erakutsiko deutsudaz zertzuk izan biar daben egiñak oneen ondoren.

2. Eta beriala ikusi neban ikuskizun bat: eta orra emen jarleku bat eguan imiñirik zeruban, eta jarlekuaren ganian eguan bat jarririk.

3. Eta jarririk eguana, zan eretxijan arri nabarraren, ta arakar gorrijaren antzekua, eta ustarkua eguan jarlekuaren inguruan kolore berdiskiaren antzekua.

4. Eta jarlekuaren inguruan ogeta lau aulki: eta ogeta lau jarlekuben ganian zaarrak jarririk, jantzirik soñeko zurijakaz, eta euren burubetan urrezko koroiak:

5. Eta jarlekutik urteten eben oñaztubak, eta bozak, eta trumono-tsak: eta jarlekubaren aurrian zazpi argiontzi ixioturik, zeintzuben diran Jaungoikuaren zazpi Espiritubak.

6. Eta jarlekuaren ikusbegijan biderijozko itxasua lakua kristalaren antzekua: eta jarlekuaren erdijan, ta jarlekuaren inguruan lau abere aurretik ta atzetik begiz betiak.

7. Eta lelengo aberia leoiaren antzekua, eta bigarren aberia idiskua- ren antzekua, eta irugarren aberia, eukana arpegija gizonarena lakua, eta laugarren aberia, arrano egan dabilenaren antzekua.

8. Eta lau aberiak, eurentariko bakotzak eukazan sei ego: eta inguruan, ta barruan dagoz begiz beterik: eta atsedetik ez euken egunaz ta gabaz, ziñuela: Santuba, Santuba, Santuba, Jaun Jaungoiko guztijala, zana, dana, ta etortekua.

9. Eta abere areek emoten eutsenian gloriya, ta ondria, ta bendizinoia, jarririk eguanari jarlekuaren ganian, bizi zanari gizaldijen gizaldijetan.

10. Auzpaztuten ziran ogeta lau zaarrak jarlekuan jarririk eguanaren aurrian, eta adoretan eben bizi dana gizaldijen gizaldijetan, eta botaten zitubezan euren koroiak jarlekubaren aurrian, ziñuela:

11. Duin zara Jaun Jaungoiko geuria, artuteko gloriya, ta ondria, ta birtutia: zerren zuk egin zenduzan gauza guztijak, eta zure borondatiagai- tik ziran, ta izan ziran egiñak.

BOSTGARREN KAPITULUBA

San Juan negarrez eguan artian, iñok ezin ebalako idigi zazpi sillugaz itxirik eguan liburuba, idigi eban, len illa izan zan Bildo-

tsak. Orregaitik lau aberiak eta ogeta lau zarrak Aingeruakaz kantau eutsezan alabantzak.

1. Eta ikusi neban jarlekuaren ganian jarririk eguanaren eskuman, liburu bat eskribidurik barrutik eta kanpotik, silluturik zazpi sillugaz.

2. Eta ikusi neban Aingeru sendua, ziñuala diadar andijagaz: Zein da, liburu au idigiteko, eta bere sillubak askatuteko duin?

3. Eta iñok ezin eban ez zeruban, ez lurrian, ez lurraren azpijan idigi liburuba, ez begiratu berari.

4. Eta nik negar asko egiten neban, ez zalako aurkitu iñor duiñik, liburuba idigiteko, ez berari begiratuteko.

5. Eta zaarretatik batek esan eustan: Ez egizu negarrik egin: orra nun goitu daben Judako etxadiko leoiak, Dabiden sustraijak, idigiteko liburuba, eta askatuteko bere zazpi sillubak.

6. Eta begiratu neban: eta orra jarlekubaren erdijan, eta lau abereen- nian, eta zaarren erdijan, bildotza oñen ganian illa legez, eukazana zazpi adar, ta zazpi begi: zeintzuk diran Jaungoikuaren zazpi Espiritubak mundu guztira bialdubak.

7. Eta etorri zan, eta artu eban liburuba jarlekuban jarririk eguana- ren eskumatik.

8. Eta idigi ebanian liburuba, lau aberiak, eta ogeta lau zaarrak auz- pazu ziran bildotsaren aurrian, eukezala bakotzak kitarrak, eta urrezko ontzijak usaiñez betiak, zeintzuk diran santuben erregubak:

9. Eta kantetan eben kanta barri bat, ziñuela: Duin zara Jauna, artu- teko liburuba, eta idigiteko bere sillubak: izan ziñalako illa, eta erosi gen- duzuzalako Jaungoikuarentzat zeure odolagaz etxadi, eta mintzoera, eta erri, eta erreiñu guztitik:

10. Eta egin gaituzu geure Jaungoikuarentzat erreinuba, eta Sazerdo- tiak, eta agintauko dogu lurraren ganian.

11. Eta begiratu neban, eta entzun neban Aingeru askoren boza jarle- kuaren, eta abereen, eta zaarren inguruan: eta ziran eurak millen millaak,

12. Ziñuenak diadar andijagaz: Duin da Bildotsa illa izan zana, artu- teko birtutia, eta Jaungoikotasuna, eta jakiturija, eta sendotasuna, eta ondria, eta gloriya, eta bendizinoia.

13. Eta zeruban, eta lurraren ganian, eta lurraren barruban, eta itxa- suan, eta bertan dagozan guztijai: Diranai entzun neutsen ziñuela: Jarle- kuban jarririk daganari, eta Bildotsari: bendizinoia, eta ondria, eta glori- ja, eta eskubidia gizaldijen gizaldijetan.



14. Eta lau aberiak ziñuen: Alan izan dedilla. Eta ogeta lau zaarrak auzpaztu ziran, eta adorau eben bizi dana gizaldijen gizaldijetan.

SEIGARREN KAPITULUBA

Idigten dira lelengo lau sillubak: onegaitik zer jazoten dan lurraren ganian. Idigten da bostgarrena: Martirijak eskatuten dabe bengaua izan dedilla euren odola. Idigten da seigarrena: dongeen ikaria Bildotsaren aserreko egunian.

1. Eta ikusi neban Bildotsak idigi ebalaz zapi sillubetatik bat, eta entzun neutsan lau abereetatik bati, ziñuala, trumonadiarena lako boz bategaz: Erdu, ta ikusi egizu.

2. Eta begiratu neban: eta orra zaldi zuri bat, eta bere ganian eguanak eukan uztaija, eta emona izan jakon koroia, eta urten eban garailari garaituteko.

3. Eta idigi ebanian bigarren silluba, entzun neutsan bigarren aberiari, ziñuala: Erdu, ta ikusi egizu.

4. Eta urten eban beste zaldi origorri batek, eta bere ganian eguanari emona izan jakon eskubidia, kenduteko bakia lurretetik, eta alkar ill egijela, eta emona izan jakon berari ezpata andi bat.

5. Eta idigi ebanian irugarren silluba, entzun neutsan irugarren aberiari, ziñuala: Erdu, ta ikusi egizu. Eta orra emen zaldi baltz bat: eta bere ganian jarri eguanak eukan pisuba bere eskuban.

6. Eta entzun neban boza lako bat lau abereen erdijan ziñuenenian: Libra bi gari errial bijan, eta iru libra garagar errial bijan, eta ez egijozu kalterik egin ardauari ta orjuari.

7. Eta idigi ebanian laugarren silluba, entzun neban laugarren aberiaren boza, ziñuanarena: Erdu, ta ikusi egizu.

8. Eta orra zaldi zurbil bat: eta bere ganian jarri eguanak eban izena Erijotzia, eta infernubak jarraituten eutsan, eta emona izan jakon eskubidia lurreko lau aldean ganian, ilteko ezpatiagaz, gosiagaz, eta erijotziagaz, eta lurreko pistijakaz.

9. Eta idigi ebanian bostgarren silluba, ikusi nituzan altariaren azpian, illak izan ziranen arimak Jaungoikuaren berbiagaitik, eta eukan autorria gaitik,

10. Eta diadarrak egiten zitubezan, ziñuela: Noz artian Jauna, santuba, ta egijati, ez dozu juzgetan, ta ez dozu bengetan gure odola, lurrian bizi diranetatik?

11. Eta emonak izan jakezan euretariko bakotxari soñeko zurijak: eta esan jaken, atsedean egijela oraindik denpora labur baten, bete artian euren serbitzari lagunena, ta euren anaijena, illak izango ziranena eurak legez.

12. Eta begiratu neban idigi ebanian seigarren silluba: eta orra nun egia izan zan luikara andi bat, eta eguzkija baltzitu zan zurdazko euna legez, eta illargija guztija biurtu zan odola legez.

13. Eta zeruko izarrak jausi ziran lurraren ganera, pikuak jausten itxuten deuten legez piko eldu bagai, axe andijak eragiten deutenian.

14. Eta zeruba batu zan, jiran imiñiriko liburuba legez; eta mendi guztijak, eta ugartiak izan ziran aldendubak euren lekubetatik.

15. Eta lurreko erregiak, eta lenenak, eta gordetzallak, eta aberatzak, eta senduak, eta menpeko ta askatu guztijak ezkutau ziran lezetan, eta mendijetako atxetan.

16. Eta dirautse mendijai, ta atxai: Jausi zaiteze gure ganera, eta ezkutau gagizubez jarleku goratuban jarri daguanaren ikusbegitik, eta Bildotsaren aserretik.

17. Zerren elduba da euren aserriaren egun andija: eta nor da zutunik egun deitekiana?

ZAZPIGARREN KAPITULUBA

Aginduten jake lau Aingeru, lurra arrasetara datozenai, ez dagijuela ukuturik egin aurkituten ditubezanai bekokijak silluturik: au aditzen da, nai izan Judegubak, nai Jentillak. Zeintzuk diran soñeko zurijakaz jantzirik duazanak.

1. Oneen ondorik ikusi nituzan lau Aingeru egozala lurraren lau egaletan, eukezala lurreko lau axiak, ez egijen putzik egin lurraren ganian, ez itxasuaren ganian, ez arbola batera bere.

2. Eta ikusi neban beste Aingeru bat igoten ebalaz eguzkijaren urteeratik, eukana Jaungoiko bizijaren ezagungarrija: eta esan eutsen diadar andijagaz lau Aingeru, emon jakenari eskubidia kalte egiteko lurrari, ta itxasuari,



3. Ziñuala: Ez egijezube kalterik egin lurrari, ez itxasuari, ez aritxai, sillutu dagiguzan artian geure Jaungoikuaren serbitzarijak euren bekokijetan.

4. Eta entzun neban zirala markaubak, eun eta berrogeta lau milla sillutu, Israelgo semeen Etxadi guztijetatik.

5. Judaren etxaditik, amabi milla sillutu: Rubenen etxaditik, amabi milla sillutu: Gaden etxaditik, amabi milla sillutu.

6. Aserren etxaditik, amabi milla sillutu: Neptaliren etxaditik, amabi milla sillutu: Manaseren etxaditik, amabi milla sillutu.

7. Simeonen etxaditik, amabi milla sillutu: Lebiren etxaditik, amabi milla sillutu: Isakarren etxaditik, amabi milla sillutu.

8. Zabulonen etxaditik, amabi milla sillutu: Joseren etxaditik, amabi milla sillutu: Benjaminen etxaditik, amabi milla sillutu.

9. Oneen ondorik ikusi neban aldra andi, iñok zenbatu ezin eikian bat, erreñu, eta etxadi, eta erri, eta izkuntza guztijetatik: egozala zutunik jarlekubaren aurrian, eta Bildotsaren ikusbegijan, estaldurik soñeko zurijakaz, eta palmak euren eskubetan.

10. Eta egiten zitubezan diadar andijak, ziñuela: Osasuna gure Jaungoiko, jarririk daguanari jarleku gojaren ganian, ta Bildotsari.

11. Eta Aingeru guztijak egozan zutunik jarlekubaren, ta zaarren, ta lau abereen inguruan: eta auzpazu ziran jarlekubaren ikusbegijan, eta adarau eben Jaungoikua,

12. Ziñuela: Alan izan dedilla. Bendiziñoia, eta argitasuna, eta jakiturija, eta eskerrak, ondria ta birtutia, eta sendotasuna gure Jaungoikuari gizaldijen gizaldijetan. Alan izan dedilla.

13. Eta asirik berbetan zaarretatik bat, esan eustan: Oneek soñeko zurijakaz estaldurik dagozanok, zeintzuk dira? eta nundik etorri ziran?

14. Eta esan neutsan: Neure Jauna, zuk dakizu. Eta esan eustan: Oneek dira etorri ziranak naibage anditik, eta garbitu zitubezan euren soñekuak, eta zuritu zitubezan Bildotsaren odolian:

15. Orregaitik dagoz Jaungoikuaren jarlekubaren aurrian, eta dirauntse bera adoretan gau ta egun bere elezan: eta jarlekuban jarririk daguana biziko da eurakaz.

16. Ez dabe eukiko geijago goserik, ez egarririk, ez da jausiko euren ganera eguzkirik, ez beruaren apurrik.

17. Zerren jarlekubaren erdijan daguan Bildotsak, zuzenduko ditu, eta eruango ditu bizitzako uren iturrijetara, eta sikatuko dau Jaungoikuak malko guztija euren begijetatik.

ZORTZIGARREN KAPITULUBA

Idigten da zazpigarren sillua, eta eskintzen dira Santuben erregubak usain gozuakaz. Agertuten dira zazpi Aingeru tronpetakaz: joten ditube leleng laubak bakotxak beria. Jausten da sua, itxasua andituten da, urak samiñak biurtuten dira, eta izarrak galduten dabe euren argitasuna.

1. Eta idigi ebanian zazpigarren silluba, ixillik gelditu zan zerua, ordu erdi lako baten.

2. Eta ikusi nituzan zazpi Aingeru egozala zutunik Jaungoikuaren aurrian: eta emonak izan jakezan zazpi tronpeta.

3. Eta beste Aingeru bat etorri zan, eta gelditu zan altariaren aurrian, eukala urrezko intzentzonarijua: eta emonak izan jakozan usain gozoko intzentzo asko, imiñi egizan santu guztijen erregubetatik, Jaungoikuaren jarlekubaren aurrian daguan altariaren ganian.

4. Eta igon eban santuben erreguben intzentzuen keiak Aingerubaren eskutik Jaungoikuaren aurrera.

5. Eta artu eban Aingerubak intzentzonarijua, eta bete eban altarako subagaz, eta bota eban lurrera, eta egiñak izan ziran trumonadak, eta bozak, eta oñaztubak, eta luikara andija.

6. Eta zazpi Aingeru, zazpi tronpeta eukezanak, prestau ziran tronpetak joteko.

7. Eta lelengo Aingerubak jo eban tronpetia, eta egiña izan zan txingorra, eta suba, odolagaz naastauba, eta jaurtigija izan zan lurrera, eta lurraren irugarren zatija izan zan erria, eta zugatzen irugarren zatija izan zan kiskaldua, eta bedar berde guztija izan zan erria.

8. Eta bigarren Aingerubak jo eban tronpetia, eta jausi zan itxasuan mendi andi, suz ixiotuba lako bat, eta itxasuaren irugarren zatija odol biurtu zan.

9. Eta ill zan, itxasuan bizija euken patarijen irugarren zatija, eta ontzijen irugarren zatija galdu zan.

10. Eta irugarren Aingerubak jo eban tronpetia: eta jausi zan zerutik izar andi bat, ixiotuba zuzija legez, eta jausi zan ibaijen irugarren zatijan, eta urezko iturrijetan.

11. Eta izarraren izena esaten da Asentzijua: eta uren irugarren zatija asentzijo biurtu zan: eta gizon asko ill ziran urakaz, mingotx biurtu zira-lako.



12. Eta laugarren Aingerubak jo eban tronpetia: eta zaurituba izan zan eguzkijaren irugarren zatija, eta illargijaren irugarren zatija, eta izarren irugarren zatija, ain modutan ze, illundu zan euren irugarren zatija, eta ez eban argirik egiten egunaren irugarren zatijak, ta gabarenak bardin.

13. Eta ikusi neban, ta entzun neban, zerubaren erditik egan ebillen arrano baten boza, ziñuala diadar andijagaz: Ai, ai, ai, lurrian bizi diranen errukarrijak, tronpetia jotera juazan iru Aingeruben beste bozak gaitik.

BEDERATZIGARREN KAPITULUBA

Bostgarren Aingerubak joten dau bere tronpetia. Jausten da izar bat zerutik: urteten dabe langostak dongai miñ emoten deutsenak. Seigarren Aingerubak joten dau bere tronpetia: dira askatubak lau Aingeru, zeintzuben zaldizko gizon aldra bategaz amaituten dabe gizonen irugarren zatija.

1. Eta bostgarren Aingerubak jo eban tronpetia: eta ikusi neban izar bat jausi zala zerutik lurrera, eta emona izan jakon lezako pozuko giltza.

2. Eta idigi eban lezako pozua, eta igon eban pozuko keiak, laba andi bateko keiak legez: eta illundu zan eguzkija, ta airia pozuko keiagaz.

3. Eta pozuko keetik urten eben langostak lurrera: eta emon jaken eskubidia, dauken legez eskubidia lurreko lupuak.

4. Eta agindu jaken ez egijuela kalterik egin lurreko bedarrari, ez gauza berderi, ez aretx bati: ezpada bakarrik, euren bekokijetan Jaungoikuaren ezagungarrija ez euken gizonai:

5. Eta emon jaken ez ilteko: ezpada min emoteko bost illabetian: eta euren miñak lupuaren miñak lakuak zaurituten dabenian gizona.

6. Eta egun aretan billatuko dabe gizonak erijotzia, eta ez dabe aurkituko: eta ill gurako dabe, eta erijotziak iges egingo dau eurak gandik.

7. Eta langosten irudijak ziran gudarako prestaurik dagozan zaldijen antzekuak: eta euren buruben ganian koroiak lakuak urriaren antzekuak: eta euren arpegijak gizonen arpegijak lakuak.

8. Eta eukezan uliak emakumeen uliak lakuak. Eta euren agiñak, leoiñ agiñak lakuak ziran.

9. Eta eukezan loariak burdiñazko loariak lakuak: eta euren egüen otsa zaldi askoren burdijen gudara arin duazanen otsa lakua.

10. Eta eukezan buztanak lupuen antzekuak, eta eukezan eztenak euren buztanetan: eta euren ala kalte egiteko gizonai bost illa betian: eta eukezan euren ganian.

11. Erregetzat lezako Aingeruba, deritxana Hebreon Abaddon, Grijeguan Apollion, eta Latinian izena eukana Exterminans, Euskeraz Ondatzallia.

12. Ai bat igaro zan, eta orra nun datozen oraindik ai bi jazoera oneen ondorik.

13. Eta seigarren Aingerubak jo eban tronpetia: eta entzun neban boz bat, Jaungoikuaren begijen aurrian daguan urrezko altariaren lau alde-tatik,

14. Zirautsana seigarren Aingeru tronpetia eukanari: Askatu egizuz, Eufrates ibai andijan loturik dagozan lau Aingerubak. 15. Eta askatubak izan ziran lau Aingeru, prestaurik egozanak ordurako, ta egunerako, ta illerako, ta urterako: ill egijen gizonen irugarren zatija.

16. Eta zaldizkuen aldria ogei milla bidar amar bidar milla. Eta entzun neban zenbat ziran eurak.

17. Eta onelan ikusi nituzan zaldijak ikusmenian: eta euren ganian jarririk egozanak, eukezan loarika suzkuak, eta moredin kolorekuak, eta sufrezkuak: eta zaldijen burubak ziran leoiñ burubak lakuak: eta euren aotik urteten dau subak, eta keiak, eta sufriak.

18. Eta iru izurri onekaz ill zan gizonen irugarren zatija, euren aotik urteten eben subagaz, eta keiagaz, eta sufriagaz.

19. Zerren zaldijen ala dago euren aüan, ta euren buztanetan. Bada euren buztanak burubak daukezan sierpeen irudikuak: eta eurakaz kalte egiten dabe.

20. Eta beste gizon, illak izan ez ziranak izurri oneetan, ta ez ebenak penitenzija egin euren eskuben egitadak gaitik, ez adoretako demonioak, eta urrezko, ta zidarrezko, ta metalezko, ta arrizko, ta zurezko irudijak, ezin dabenak ikusi, ez entzun, ta ezin diranak ibilli.

21. Eta ez eben egin penitenzija eurak ill zitubezan gizonak gaitik, ez euren sorginkerijak gaitik, ez euren aragizko pekatua gaitik, ez euren lapurretak gaitik.

AMARGARREN KAPITULUBA

Aertuten da beste Aingeru bat, odei bategaz inguratutik liburu bat idigirik eskuan ebala. Aingerubak juramentu egiten dau ez



dala izango gejjago denporarik; ezpada zazpigarren Aingerubak bere tronpetia joten dabenian, bete izango da ezkutapen guztija. Zeruko berba batek aginduten deutsa Juani, artu dagjala liburuba, ta iruntzi dagjala.

1. Eta ikusi neban beste Aingeru sendua, jatziten zala zerutik odeijagaz estaldurik, eta ustarkuba bere buruban, eta bere arpegija zan eguzkija lakua, eta bere oñak suzko abia lakuak.
2. Eta eukan bere eskuban liburutxu bat idigirik: eta imiñi eban bere eskumako oña itxasuaren ganian, ezkerria barriz lurraren ganian.
3. Eta egin eban diadar andi bat, leoiak orrua egiten dabenian legez. Eta diadar egin ebanian, zazpi trumonadak asi ziran berbetan euren bozakaz.
4. Eta berba egin ebanian zazpi trumonadak euren bozakaz, ni niñoian eskribietara, eta entzun neban zerutik boz bat ziraustana: Maskau egizuz zazpi trumonadak esan ditubezan berbak, eta or egizuz eskribidu.
5. Eta itxasuaren ganian, ta lurraren ganian eguala ikusi neban Aingerubak, jaso eban bere eskuba zerura:
6. Eta juramentu egin eban gizaldijen gizaldijetan bizi zana gaitik, zeñek egin eban zeruba, eta bertan dagozan gauzak: eta lurra, eta bertan dagozan gauzak: eta itxasua, eta bertan dagozan gauzak: Ez dala izango gejjago denporarik.
7. Ezpada zazpigarren Aingerubaren bozaren egunetan, asiten danian tronpetia joten, amaituba izango da Jaungoikuaren ezkutapena, aurrez adierazo eban legez bere serbitzari Igarlen bitartez.
8. Eta entzun neban boza zerutik barriro berba egiten ebana neugaz, eta ziraustana: Zuaz, eta artu egizu liburu idigija, itxasuaren ganian ta lurraren ganian daguan Aingerubaren eskutik.
9. Eta jua nintzan Aingeruba gana, nirautsala, emon egidala liburuba. Eta esan eustan: Artu egizu liburuba, eta iruntzi egizu: eta egingo dau mingoztuba izan dedilla zure sabela, baña zure aian izango da gozua ezti-ja legez.
10. Eta artu neban liburuba Aingerubaren eskutik, eta iruntzi neban: eta zan nire aian ezti gozua lakua: eta iruntzi nebanian, izan zan mingoztuba nire sabela.
11. Eta esan eustan: Barriro predikau biar deutsezu jente askori, eta errijai, eta mintzoerai, ta erregiai.

AMAİKAGARREN KAPITULUBA

Aginduten jako Juani, neurtu dagjala Jaungoikuaren Elexia. Jau-nak bialduten ditu autorgilla bi: zatituten ditu itxasotik urteten daben pistijak: Jaungoikuak biztuten ditu, ta daruaz zerura. Luikara batek kenduten deutse bizitzia zazpi milla laguni. Zazpigarren Aingerubak joten dau tronpetia. Ziatz azaldetan da illen biztueria, ta azkenengo juizijua.

1. Eta emon jatan kañabera bat zigorraren irudikua, ta esan jatan: Jagi zaite, eta neurtu egizu Jaungoikuaren elexia, eta altaria, eta an adoretan dabenak.
2. Baña elixiaren kanpotik daguan ataija, bota egizu kanpora, eta ez egizu neurtu: zerren emona izan jake Jentillai, eta zapalduko dabe uri santuba berrogeta bi illa betian:
3. Eta emongo ditut neure autorgilla bijak, eta predikauko dabe milla berreun ta irurogei egunian, soñeko max ta latzakaz estaldurik.
4. Oneek dira olibo bi, ta kandeleru bi, lurreko Jaunaren aurrian dagozanak.
5. Eta baldin iñok kalterik egin gura baleutse, subak urtengo dau euren aotik, eta iruntziko ditu euren arerijuak: eta iñok gura baleutse eurai kalterik egin, onelan izan biar dau illak berak.
6. Oneek dauke eskubidia itxiteko zeruba, euririk ez dagijan egin euren erakutsijaren egunetan: eta eskubidia dauke uren ganian odol biur-tuteko, eta zaurituteko lurra izarri guztijagaz nai daben guztijan.
7. Eta amaituten dabeenian euren autorreria, burruka egingo dau eurakaz lezatic igoten daben pistijak, eta goituko ditu, eta illogo ditu.
8. Eta euren gorputzak egongo dira etzunik, uri andi, ezizenez Sodo-ma, eta Ejipto deritxanaren plazetan, nun euren Jauna bere izan zan kuruz-tzian josija.
9. Eta etxadijetakuak, eta errijetakuak, eta mintzoeretakuak eta erreñubetakuak ikusiko ditube euren gorputzak iru egun ta erdijan: eta ez dabe itxiko euren gorputzak izan ditezela imiñjak obietan.
10. Eta lurrian bizi diranak poztuko dira euren erijotziagaitik, eta gozatubak izango dira: eta oparijak bialduko deutsez alkarri, zerren Igar-la bi oneek minduten zitubezan lurraren ganian bizi ziranak.
11. Eta iru egun ta erdiren ondorik, Jaungoikuak sartu eban eurretan bizigeija. Eta jarri ziran zutunik euren oñen ganian, eta bildur andi bat jauai zan, eurak ikusi zitubezanen ganera.



12. Eta entzun eben boz andi bat zerutik, zirautsela: Igon egizube ona. Eta igon eben zerura odeijan: eta euren arerijuak ikusi zitubezan.

13. Eta ordu atan egiña izan zan luikara andi bat, eta jausi zan urijaren amargarren zatija: eta illak izan ziran luikaran zazpi milla gizonen ize-nak: eta enparaubak bildurtu ziran, eta emon eutsen glorija zeruko Jaun-goikuari.

14. Ai bigarrena igaro zan: eta orra ai irugarrena etorriko da laster.

15. Eta zazpigarren Aingerubak jo eban tronpetia: eta izan ziran boz andijak zeruban, ziñuela: Mundu onetako erreñuba biurtuba izan jako geure Jaunari, ta bere Kristuari, eta agintauko dau gizaldijen gizaldijetan: Alan izan dedilla.

16. Eta ogeta lau zaar, jarririk dagozanak euren jarlekubetan Jaun-goikuaren aurrian, auzpaztu ziran, eta adorau eben Jaungoikua ziñuela:

17. Eskerrak emoten deusuguz Jaun Jaungoiko guztijaala, zariana, ziñana, eta etorriko zariana: artu dozulako zeure eskubide andija, eta agintau dozulako.

18. Eta aserratu jake Jentiai, eta etorri da zure aserria, eta illak juzgaubak izateko denporia, eta emoteko sarija zeure serbitzarijai igarrai ta santubai, eta zeure izen santubaren bildur diranai, txikitxubai, ta andijai, eta erbestetuteko loitu ebenak lurra.

19. Eta idigi zan Jaungoikuaren elexia zeruban: eta ikusija izan zan testamentuko utxia bere elexan, eta egiñak izan ziran oñaztubak, eta bozak, eta luikaria eta arri andija.

AMABIGARREN KAPITULUBA

Emakume bat eguzkijaz jantzirik, argitara emoten dabena seme bat. Dragoiak badarua bere alliagaz, zeruko izarren irugarren zatija. Aingeru oneen ta dongen gudia. Dragoia da jaurtigija zerutik lurrera: esesten deusa emakumiari: errebesetan dau beraganuntz urezko ibaija lako bat.

1. Eta ikusgarri andi bat agertu zan zeruban: Emakume bat eguzkijagaz estaldurik, eta illargija bere oñen azpijan, eta bere buruban amabi izarrezko koroia.

2. Eta seindun egonik, diadar egiten eban seiña egiten jardunaz, eta lerr egiten eban miñez seiña egiteko.

3. Eta ikusija izan zan beste ikusgarri bat zeruban: eta orra emen dragoie andi gorri bat, eukazana zazpi buru, ta amar adar: eta bere burubetan zazpi zinta zuri zabal.

4. Eta bere alliak erakarren zeruko izarren irugarren zatija, eta bialdu zituzan lurrera: eta dragoia gelditu zan seiña egingo eban andriaren aurrian: seiña egiten ebanian, iruntziteko bere semia.

5. Eta egin eban seme arra, zuzenduko zituzana jente guztijak burdiñazko zigorragaz: eta indarrez artuba izan zan bere semia Jaungoikuarentzat, eta bere jarleku goraturako.

6. Eta andriak iges egin eban eremura, nun eukan Jaungoikuak leku-ba pretaurik, an jaten emon egijuen milla berreun ta irurogei egunian.

7. Eta izan zan guda andi bat zeruban: Migelek ta bere Aingerubak ziarduben gudan dragoiagaz, eta dragoiak ziarduban gudan, ta bere Aingerubak:

8. Eta oneek ez ziran geijago izan, eta euren lekurik ez zan aurkitu geijago zeruban.

9. Eta jaurtigija izan zan arako dragoie andija, antxiñako sierpia, deritxana diabruba, eta Satanaz engañetan dabena mundu guztija: eta jaurtigija izan zan lurrera, eta bere Aingerubak beragaz izan ziran bialdubak.

10. Eta entzun neban boz andi bat zeruban ziñuana: Orain izan da betia osasuna, ta birtutia, eta geure Jaungoikuaren erreñuba, eta bere Kristoren ala: jaurtigija izan dalako geure anaijen salatallia, salatuten zituzana geure Jaungoikuaren aurrian egunaz, ta gabaz.

11. Eta eurak goitu eben Bildotsaren odola gaitik, eta bere autorreria gaitik, eta ez zitubezan maitetu euren arimak erijotzara giño.

12. Orregaitik poztu zaiteze zerubak, eta euretan bizi zarenak. Ai lurraren, ta itxasuaren zorigaistokua, zerren jatsi da diabruba zubek gana, aserre andijagaz, jakiñik denpora gitxi daukala.

13. Eta ikusirik dragoiak, jaurtigija izan zala lurrera, esetsi eutsan, seme arra egin eban emakumiari.

14. Eta emonak izan jakozan emakumiari ego bi agila andijarenak, egan egijan eremura bere lekura, nun daguan gorderik denporan, ta denporetan, eta denporiaren erdijan, sierpiaren ikusbegitik.

15. Eta bota eban sierpiak bere aotik emakumiaren ondorik, ura ibaija legez, ibaijak erakarri egijan.

16. Eta lagundu eutsan lurrak emakumiari eta idigi eban lurrak bere aüa, eta zurrut egin eban, dragoiak bere aotik bota eban ibaija.



17. Eta aserratu zan dragoia emakumiagaz: eta juan zan gudan egite-
ra bere jatorriko enparabakaz, Jaungoikuaren agindubak gordetan ditu-
bezanakaz, eta Jesukristoren autorreria daukenakaz.

18. Eta gelditu zan zutunik itxasoko ondarraren ganian.

AMAIRUGARREN KAPITULUBA

*Itxasotik urteten daben pistijia, daukazana zazpi buru eta amar
adar amar zinta zuri zabalez apaindubak, eta diardu erneguzko
berbak esaten Jaungoikuagaitik, eta santubak gaitik, eta gizonak
adoretan dabe. Jagiten da lurretik beste pistija bat adar bigaz,
emoten deutzazana lenguari indarra ta sendotasuna.*

1. Eta ikusi neban urteten ebal itxasotik pistija batek, eukazanak
zazpi buru ta amar adar, eta bere adarren ganian amar zinta zuri zabal, eta
bere buruben ganian erneguzko berben izenak.

2. Eta ikusi neban pistijia zan leoe arriaren antzekua, eta bere oñak
artzarenak lakuak, eta bere aüa leoiaren aüa lakua. Eta emon eutsan dra-
goiak bere indarra, ta eskubide andija.

3. Eta ikusi neban bere burubetatik bat illa legez erijotzaraño: eta
bere erijotzako zaurija osatuba izan zan. Eta miraritu zan lur guztija pis-
tijiaren ondorik.

4. Eta adorau eben dragoia, emon eutsana ala pistijari: eta adorau
eben pistijia ziñuela: Zein pistijiaren antzekua? eta nok gudan jardun leike
beragaz?

5. Eta emona izan jakon aüa esaten zituzana arrokerijak, eta ernegu-
bak: eta emona izan jakon berari egiteko eskubidia berrogeta bi illa betian.

6. Eta idigi eban bere aüa erneguzko berbakaz Jaungoikuagaitik,
ernegetako bere izena gaitik, eta bere bizilekuba gaitik, eta zeruban dago-
zanak gaitik.

7. Eta emona izan jakon berari gerra egitia santubakaz, eta eurak goi-
tutia. Eta emona izan jakon eskubidia etxadi, eta erri, eta mintzoera, eta
erreñu guztijaren ganian:

8. Eta adorau eben lurrian bizi diran guztijak: zeintzuben izenak ez
dagozan eskribidurik Bildotsaren bizitzako liburuban, illa izan zanarenian
mundubaren asieratik.

9. Iñok baldin badauka belarririk entzun dagijala.

10. Katigarijora daroiana, katigarijora juango da: ezpatiagaz illten
dabenak, izan biar dau berak ezpatiaz illa. Emen dago eruapena, ta san-
tuben fedia.

11. Eta ikusi neban beste pistija bat igoten ebal lurretik, eta eukazan
adar bi Bildotsaren antzekuak, eta berba egiten eban dragoiak legez.

12. Eta lelengo pistijiaren eskubide guztija egiten eban bere aurrian:
eta egin eban lurrak, eta bertan bizi ziranak adorau egijela lelengo pistijia,
zeñen zauri illgarrija izan zan osatuba.

13. Eta egin zituzan mirari andijak, zerutik lurrera subari jatsi eragi-
teraño gizonen ikusbegijan.

14. Eta engañau zituzan lurrian bizi ziranak, pistijiaren ikusbegijan
egiten laketu jakon mirarijak gaitik, esanaz lurrian bizi ziranai, egijela pis-
tijiaren irudija, daukanarena ezpatiaren zaurija, eta bizi izan zan.

15. Eta emona izan jakon emon egijola bizigeija pistijiaren irudijari,
eta berba egijala pistijiaren irudijak: eta egijala pistijiaren irudija adoretan
ez eben edozeintzuk, illak izan ditezela.

16. Eta egingo dau euki dagijela guztijak txikijak, eta andijak, eta abe-
ratsak, eta ezeukijak, eta askatubak eta menpekuak marka bat euren esku-
mako eskuban, edo euren bekokijetan.

17. Eta ezin daikiala iñok erosi edo saldu, ezpada daukanak pistijia-
ren markia, edo izena, edo bere izenaren zenbata.

18. Emen jakiturija dago. Adiña daukanak, atera begi pistijaren zenba-
ta. Zerren gizonaren zenbata da: eta bere zenbata seireun eta irurogeta sei.

AMALAU GARREN KAPITULUBA

*Bildotsa Siongo mendijaren ganian. Gizadonzellak kantubetan
jarraituten deutse doian leku guztira. Iru Aingeruben iru berbak.
Pistijia ta bere irudija adorau ebenen kastiguba. Santuben eruape-
na. Beste Aingeru bi igitajakaz: batak ebagiten dau garija, ta
bestiak batu maatsa.*

1. Eta begiratu neban: eta orra emen Bildotsa eguan oñaz Siongo
mendijaren ganian, eta beragaz eun eta berrogeta lau milla, eukenak bere
izena, eta bere Aitaren izena eskribidurik euren bekokijetan.

2. Eta entzun neban boz bat zerutik ur askoren boza lakua, eta tru-
monada andi baten boza lakua: eta entzun neban boza zitararijena lakua
zitarak joten zitubezanena euren zitarakaz.



3. Eta kantetan eben kanta barrija lakua jarlekubaren aurrian, eta lau abereen, ta zaarren aurrian: eta iñok ezin esan eban kantia, ezpada eun eta berrogeta lau milla areek, erosijak izan ziranak lurretik.

4. Oneek dira ez ziranak izan loitubak emakumiakaz: zerren dira donzellak. Oneek jarraituten deutse Bildotsari joian edozein lekutara. Oneek izan ziran erosijak gizonetatik lenenak Jaungoikuarentzat, eta Bildotsarentzat:

5. Eta euren aüan ez zan aurkitu guzurrik: zerren orbanik baga dagoz Jaungoikuaren jarlekubaren aurrian.

6. Eta ikusi neban beste Aingeru bat egan ebillela zerubaren erditik, eukana betiko Ebanjelijua, erakusteko lurrian bizi ziranai, eta erreinu, eta etxadi, eta miin, eta erri guztijari:

7. Ziñuala diadar andijagaz: Izan zaiteze Jaunaren bildur, eta emon egijozube berari ondria, zerren eldu da bere juizijoko orduba: eta adorau egizube, egin zituzana zeruba, ta lurra, itxasua, eta urezko iturrijak.

8. Eta beste Aingeru batek jarraitu eutsan ziñuala: Jausi da, jausi da arako Babilonija andija: emon eutsena edaten jente guztijai bere aragizko pekatubaren aserreko ardaotik.

9. Eta irugarren Aingerubak jarraitu eutsen ziñuala diadar andijagaz: Baldin iñok adoretan badau pistijia, eta bere irudija, eta artuten badau ezagungarrija bere bekokijan, edo bere eskuban:

10. Onek bere edango dau Jaungoikuaren aserreko ardaotik, naas-taurik dagoanetik ardao utsagaz berberaren aserreko ontzijan, eta izango da penauba subagaz, ta sufriagaz Aingeru santuben aurrian, ta Bildotsaren aurrian.

11. Eta euren oñazen keiak igongo dau gizaldijen gizaldijetan: ez dauke bere atsedunik egunaz, ez gabaz, adorau ebenak pistijia, ta bere irudija, eta baldin iñok artuten badau bere izenaren markia.

12. Emen dago santuben eruapena, gordetan ditubezanena Jaungoikuaren agindubak, eta Jesusen fedia.

13. Eta entzun neban boza zerutik, ziraustana: Eskribidu egizu: Zori-jonekuak illak, Jaunagan ilten diranak. Oraindexek geijago diño Espiritubak atsedan dagijela euren biarretatik: zerren euren egitadak jarraituten deutse.

14. Eta begiratu neban, eta orra emen odei zuri bat: eta odeijaren ganian jarririk gizonaren Semiaren irudiko bat, eukana bere buruban urrezko koroia, eta bere eskuban igitai zorrotza.

15. Eta beste Aingeru batek urten eban elexatik, ziraustala diadar andijagaz jarririk eguanari odeijaren ganian: Beeratu egizu zeure igitaija, eta ekin egijozu ebagiten, igarturik dagualako lurreko ebagi geija.

16. Eta jarririk eguanak odeijaren ganian beeratu eban lurrera bere igitaija, eta izan zan ebagija lurreko ebagi geija.

17. Eta beste Aingeru batek urten eban elexatik, zeruban dagueanetik, eukala berak bere igitai zorrotza.

18. Eta altaratik urten eban beste Aingeru batek, eukanak eskubidia subaren gañian: eta diadar egin eutsan boz andijagaz eukanari igitai zorrotza, ziraustala: Sartu egizu zeure igitai zorrotza, eta batu egizuz lurreko maastiko morduak: zerren bere maatsak eldurik dagoz.

19. Eta sartu eban Aingerubak bere igitai zorrotza lurrian, eta mindemiñau eban lurreko maatsa, eta bota eban mindemiñia Jaungoikuaren aserreko pozu andijan.

20. Eta zapalduba izan zan pozuba uritik kanpora, eta urten eban odolak pozutik zaldijen frenuetara giño milla ta seireun estatuban.

AMABOST GARREN KAPITULUBA

*Moisesen ta Bildotsaren kanta, garailarijak kantetan dabena.
Emoten jakez zazpi Aingeruri zazpi edaontzi Jaungoikuaren aserrez betiak.*

1. Eta ikusi neban beste ikusgarri bat zeruban andija ta miragarrija, zazpi Aingeru eukezanak azkenengo zazpi plagak: zerren euretan da osotuba Jaungoikuaren aserria.

2. Eta ikusi neban biderijozko itxasua lako bat subagaz nastaubaa, eta goitu ebenak pistijia ta bere irudija, eta bere izenaren zenbata, egozala zutunik biderijozko itxasuaren ganian, eukezala Jaungoikuaren zitarak.

3. Eta kantetan ebela Moisesen Jaungoikuaren serbitzarijaren kantia, eta Bildotsaren kantia, ziñuela: Andijak eta miragarrijak dira zure egitadak, Jaun Jaungoiko Guztijala: zuzenak ta egijazkuak dira zure bidiak, gizaldijen erregia:

4. Nor ez da zure bildur izango, Jauna, eta nok ez dau goratuko zure izena? zerren bakarrik zara bijotz bigunekua: zerren jente guztijak etorriko dira, eta belaunikotuko dira zure aurrian, zure juizijuak agertu diralako.

5. Eta oneen ondorik begiratu neban, eta orra idigirik zeruban autorrerako bizilekuko elexia.



6. Eta urten eben elexatik zazpi Aingeruk, eukezanak zazpi ondamenti, liño garbijagaz ta zurijagaz jantzirik, eta loturik euren bularrak urrezko zinta zabalakaz.

7. Eta lau abereetatik batek emon eutsezan zazpi Aingerubai zazpi edontzi urrezko, Jaungoikuaren gizaldijen gizaldijetan bizi danaren ase-
rrez betiak.

8. Eta keez bete zan elexia Jaungoikuaren itzalez, eta bere birtutez: eta iñor ezin zatekian sartu elexan, amaitubak izan ziran artian zazpi Aingeruben zazpi plagak.

AMASEI GARREN KAPITULUBA

Zazpi Aingerubak utzituten ditubez euren urrezko zazpi edontzizjak, eta ikusten dira munduban plaga mueta aska.

1. Eta entzun neban boz andi bat elexatik, zirautsena zazpi Aingerubai: Zuaze, eta isuri egizubez lurraren ganian Jaungoikuaren aserriaren zazpi edaontzizjak.

2. Eta juañ zan lelengua, eta isuri eban bere edontzija lurraren ganian: eta egin jaken zauri gogor ta guztiz donga bat, pistijiaren ezagun-garrija euken gizonai: eta bere irudija adorau ebenai.

3. Eta bigarren Aingerubak isuri eban bere edontzija itxasuan, eta biurtu zan illarena lako odol: eta arima bizi guztija ill zan itxasuan.

4. Eta irugarrenak isuri eban bere edontzija ibaijen ganian, eta urrezko iturrijen ganian, eta odol biurtu ziran.

5. Eta entzun neutsan uretako Aingerubari ziñuala: Zuzena zara, Jauna, zariana, ta ziñana santuba, oneek erabagi dituzana:

6. Isuri ebelako santuben, ta igarlen odola, zeuk bere emon deutsezu edaten odola: zerren duiñak dira.

7. Eta entzun neban beste batek altaratik ziñuala: Baita, Jaun Jaungoiko Guztijala, egijazkuak, ta zuzenak zure erabagijak.

8. Eta laugarren Aingerubak isuri eban bere edontzija eguzkijan, eta emona izan jakon atsakabetutia gizonak beruagaz ta subagaz.

9. Eta berotu ziran gizonak bero andijagaz: eta deungaro esan eben Jaungoikuaren izena gaitik, eukana gaitik eskubidia plaga oneen ganian, eta ez eben egin penitenzijarik emoteko berari glorijsa.

10. Eta bost garren Aingerubak isuri eban bere edontzija pistijiaren jarlekubaren ganian: eta egiña izan zan bere erreñuba illuna, eta jan zitu-bezan euren miiñak miñez.

11. Eta deungaro esan eben zeruko Jaungoikua gaitik, euren miñen ta zaurijen indarrez, eta ez eben egin penitenzija euren egitadak gaitik.

12. Eta seigarren Aingerubak isuri eban bere edontzija arako Eufra-tes ibai andijan: eta sikatu eban bere ura, prestatako bidia eguzkijaren urteerako erregiai.

13. Eta ikusi nituzan urteten dragoiaren aotik, eta pistijiaren aotik, eta igarla guzurrezkuaren aotik iru espiritu loi ugarasijuen gisan.

14. Zerren dira demonioen espiritubak egiten ditubezanak mirarijak, eta duaz mundu guztiko erregeetara batutera gudarako, Jaungoiko guztijalaren egun andirako.

15. Orra banator lapurra legez. Zorijonekua iratzarrik daguana, eta gordetan dituzana bere soñekuak, billosik ibilli ez dedin, eta ikusi ez dagi-
jen bere ezaintasuna.

16. Eta batuko ditu, Hebreoz Armagedon deritxan lekuban.

17. Eta zazpigarren Aingerubak isuri eban bere edontzija airian, eta urten eban boz andi batek elexatik jarlekutik, ziñuala: Au egiña da.

18. Eta egiñak izan ziran oñaztubak, eta bozak, eta trumonadak, eta luikara andi bat egiña izan zan, lurraren ganian gizonak diran ezkerio iñoz izan ez dana lakua: alako luikara ain andija.

19. Eta uri andija izan zan zatituba iru zatitan: eta jenteen urijak jausi ziran, eta Babilonija andija etorri zan gomutan Jaungoikuaren aurrian, emoteko berari bere aserre sumiñaren ardoazko ontzija.

20. Eta ugarte guztijak iges egin eban, eta mendijak ez ziran izan aurkitubak.

21. Eta arri andija baxotxa eun eta ogei librakua jausi zan zerutik gizonen ganera: eta dongaro esan eben Jaungoikuagaitik gizonak arrijaren plagia gaitik: zerren izan zan guztiz andija.

AMAZAZPI GARREN KAPITULUBA

*Martirijen odolagaz orditu zan emakume galduba, jarten da zazpi buruko, ta zazpi adarreko pistijiaren ganian. Aingerubak azal-
dan dau emakume onen, ta ganian jarririk daganaren ezkutape-
na.*



1. Eta etorri zan zazpi Aingerubetik bat, eukezanetik zazpi edon-tzi, eta berba egin eban neugaz, ziñuala: Erdu, erakutziko deutsut emakume galdu andijaren, ur askoren ganian jarririk daguanaren galdumendija.
2. Zeñegaz egin eben aragizko pekatuba lurreko erregiak, eta orditu ziran lurrian bizi ziranak bere nasaikerija agiriko ardaüagaz.
3. Eta eruan ninduban espirituban eremura. Eta ikusi neban emakumia jarririk, pistija gorrijaren ganian Jaungoikua gaitik esaten zituzan izen gaistoz betia, eukazala zazpi buru ta amar adar.
4. Eta emakumia eguan inguraturik purpuraz ta eskarlataz, eta apaindurik urrez, eta arri balijotzuz, eta perlaz, eukala bere eskuban urrezko edontzi bat beterik izugarritz, ta bere aragizko pekatubaren zikinkerijaz.
5. Eta bere bekokijan eskribidurik: Ezkutapena: Babilonija andija, aragizko pekatuben ta lurreko izugarrijen ama.
6. Eta ikusi neban emakumia orditurik santuben odolagaz, eta Jesusen martirijen odolagaz. Eta miraritu nintzan ikusi nebanian mirari andijagaz.
7. Eta esan eustan Aingerubak: Zergaitik mirarituten zara? Neuk esango deusut emakumiaren, eta bera darabilen pistijaren zazpi buru ta zazpi adar daukazanaren erakuspene.
8. Ikusi zenduban pistijia, bazan, ta ez da, eta igongo dau lezatic, eta erijotzara juango da: eta mirarituko dira lurrian bizi diranak, zeintzuben izenak ez dagozan eskribidurik bizitzako liburuban mundubaren asieratik, ikusten dabenian, bazan, ta ez dan pistijia.
9. Eta emen badago, jakiturija daukan ezagüeria: zazpi burubak zazpi mendi dira, zeintzuben ganian emakumia daguan jarririk, eta zazpi errege dira.
10. Bost ill ziran, bat bada, eta bestia ez da etorri: eta datorrenian, iraun biar dau berak denpora laburrian.
11. Eta pistijia zana, ta ez dana: eta bera zortzigarrena da: eta da zazpiretatikua, eta galdumendira dua.
12. Eta amar adar ikusi dituzunak, amar arrege dira: zeintzuben ez eben artu erreinuba, ezpada artuko dabe eskubidia erregiak legez ordu batian pistijaren ondorik.
13. Oneek asmo bat dauke, eta emongo deutse pistijari bere indarra ta eskubidia.
14. Oneek burruka egingo dabe Bildotsagaz, eta Bildotsak goituko ditu: zerren da Jaunen Jauna, ta erregeen erregia: eta beragaz dagozanak, dira deitubak, autubak, eta lejalak.

15. Eta esan eustan: Ikusi dituzun urak, nun daguan jarririk emakume galduba, erriak dira, eta jentiak, eta miñiak.

16. Eta amar adarrak, ikusi dituzunak pistijiagan, oneek gorroto izango deutse emakume galdubari, eta egingo dabe solla eta billosa, eta bere aragijak jango ditube, eta subagaz erreko dabe.

17. Zerren Jaungoikuak imiñi dau euren bijotzetan, egin dagijela berari deritxana: emon dagijuen bere erreñuba pistijari bete ditezen artian Jaungoikuaren berbak.

18. Eta ikusi dozun emakumia, da uri andija, agintaritzia daukana lurreko erregeen ganian.

AMAZORTZI GARREN KAPITULUBA

Kontubak artuten jakoz Babilonijari: Jaunaren aserria bere ganian: bere ondamendija: bere jarraitzallak eurak egiten ditube negar mingotxak bere ganian: barriz santubak koruban kantauko ditube garaitzak.

1. Eta oneen ondorik ikusi neban beste Aingeru bat jatzen zala zerutik, eukana al andija: eta lurra izan zan argituba bere glorijaz.

2. Eta sendo diadar egin eban, ziñuala: Jausi zan, jausi zan arako Babilonija andija: eta biurtu da demonioen bizileku, eta espiritu loi guztijaren igesleku, eta egazti loi ta gorrotagarri guztijaren igesleku:

3. Zerren jente guztijak edan eben bere aserreko aragizko pekatubaren ardaotik: eta lurreko merkatarjak aberastu dira bere atsegiñen indarraz.

4. Eta entzun neban beste boz bat zerutik ziñuana: Urten egizube beratatik, neure errija, izan ez zaitezen bere gaistakerijen partill, eta artu ez dagizuben bere plagetatik.

5. Zerren bere pekatubak eldu dira zeruragiño, eta gomutau da Jauna bere gaistakerijakaz.

6. Biurtu egijezube berari, berak bere zeubei emon deusuben legez: eta pagau egijezube berak emonagaz ta beste ainbeste geijagogaz bere egi-taden erara: berak edaten emon eusuben ontzijan, emon egijezube berari ainbeste ta beste ainbeste.

7. Zenbat gozatu zan, eta atsegiñetan egon zan: ainbeste oñaz ta negar emon egijezube: zerren bere bijotzian diño: Jarririk nago erregiña: eta ez naz alarguna: eta ez dot ikusiko negarrik.



8. Orregaitik egun batian etorriko dira bere plagak, erijotzia, eta negarra eta gosia, eta subagaz erria izango da: zerren sendua da, berari kontubak artuko deutzazan Jaungoikua.

9. Eta negar egingo dabe, eta emongo deutsez otsak bularrai bere ganian lurreko erregiak, beragaz aragizko pekatuban jausi ziranak, eta gozotasunetan bizi izan ziranak ikusten dabenian bere garren keia:

10. Urrin dagozala bere oñazen bildurragaitik diñuela: Ai, ai arako Babilonija uri andijaren, arako uri senduaren errukarrija: zerren ordu batian etorri zan zure galdumendija.

11. Eta lurreko merkatarijak negar egingo dabe ta uluka jardungo dabe bere ganian: zerren iñok ez ditu geijago erosiko euren merkaderijak.

12. Eta urrezko, ta zidarrezko, ta arri balijotzuzko, eta perlazko, eta sedazko, ta granazko merkaderijak, eta zur usaintsu guztija, eta marfilezko ontzi guztijak eta arri balijotzuzko eta kobrezko, eta burdiñazko, eta marmolezko ontzi guztijak,

13. Eta kanelia, eta usaiñezkuak, eta ujentuazkua, eta intzentzozkua, eta ardoazkua, eta orijozkua, eta urun lorazkua, eta garizkua, eta kargako aberezkua eta ardizkua eta zaldizkua, eta kotxezkua, eta mendekozkua, eta gizonen arimazkua.

14. Eta zure arimiaren gurarijaren frutak alde egin eben zugandik, eta gauza gizen ta eder guztijak iges dabe zugandik, eta onezkero ez dituzu geijago aurkituko.

15. Eta gauza oneen merkatarijak, aberastu ziranak, beragandik urrin egongo dira bere oñazen bildurra gaitik, negarrez, ta uluz,

16. Eta diñuela: Ai, ai, uri andi aren errukarrija, estaldurik eguanarena liño piñez, eta eskarlataz, eta granaz, eta urreturik eguana urrez, eta arri balijotzuz, eta perlaz.

17. Zerren ordu batian alde dabe ainbeste ondasunek. Eta gobernari guztija, eta itxasuan dabillen guztija, eta itxas gizonak, eta itxasoz saldu erosijak daukezanak, urrindik egon ziran.

18. Eta ikusirik bere garraren lekuba diadar egin eben ziñuela: Zein uri andi onen antzekua?

19. Eta bota eben autsa euren buruben ganera, eta diadarrak egin zitubezan negarrez ta uluz, ziñuela: Ai, ai uri andi aren errukarrija, zeñetan aberastu ziran, itxasuan ontzizjak eukezan guztijak, bere prezijuakaz: zerren ordu batian izan da arrasauba.

20. Poztu zaite bere ganian zeruba, eta Apostolu santubak, eta Igarlak: zerren juzgau dau Jaungoikuak zuben juizijua beragandik.

21. Eta jaso eban Aingeru sendo batek arri bat errota arri andi baten gisakua, eta bota eban itxasora, ziñuala: Onelako bultzakadiagaz izango da botia arako uri andija, eta ez da onezkero geijago aurkituko.

22. Eta ez da iñoz zugan entzungo zitararijen boza, eta soñularijena, eta txillibituba joten dabenena, eta tronpetia: eta langilla guztijen irakaslari ez da aurkituko zugan geijago: eta errota arrijen otsik ez da entzungo zugan geijago:

23. Eta argijaren argik ez dau argi egingo geijago zugan: eta ezkonbarrijen bozik ez da izango entzuna onezkero zugan: zerren zure merkatarijak ziran lurreko andikijak: zerren zeure sorginkerijetan uts egin eben jente guztijak.

24. Eta beratana izan da aurkituba igarlen ta santuben odola: eta lurrian illak izan diran guztijena.

EMERETZI GARREN KAPITULUBA

Santuben garaitza ta kantia Babilonijaren ondamendija gaitik, Jaungoikuaren erreinuba gaitik, eta Bildotsaren eztegabak gaitik. Jaungoikuaren semia zaldi zuri baten ganian, zeruko aldrak jarraituten deutzela. Pistijaren ta Jaungoikuaren Semiaren gudia.

1. Oneen ondorik entzun neban aldra askoren boza lakua zeruban, ziñuenena: Osasuna, ta glorijsa, ta indarra gure Jaungoikuarentzat da.

2. Zerren bere erabagijak dira egijazkuak, ta zuzenak, zeñek kondena daben bordion andija, gaistotu dabena lurra bere nasaikerija agirijan eta bengau daben bere serbitzarijen odola bere eskubetatik.

3. Eta bigarrenez esan eben: Alleluia. Eta bere keiak igoten dau gizaldijen gizaldijetan.

4. Eta auzpaztu ziran ogeta lau zaarrak, eta lau aberiak, eta adorau eben Jaungoikua jarririk eguana jarlekubaren ganian, ziñuela: Amen: Alleluia.

5. Eta bozak jarlekutik urten eban, ziñuala: Alabantzia esan egijejube gure Jaungoikuari bere serbitzari guztijak: eta bere bildur zareenak, txikijak ta andijak.

6. Eta entzun neban aldra andi baten boza lakua, eta ur askoren boza lakua, eta tromonada andijen boza lakua, ziñuenena: Alleluia: zerren agintau dau gure Jaungoiko guztijalak.



7. Poztu gaitian, eta goratu gaitian, eta emon dagijogun gloria bera-ri: zerren etorri ziran Bildotsaren eztegebak, eta bere ezkongeiya apaindu da.

8. Eta emona izan jakon, estaldu dedilla liño argitsu ta zurijagaz. Zerren liño argitsu au santuben birtutiak dira.

9. Eta esan eustan: Eskribidu egizu: Zorijonekuak Bildotsaren ezte- gubetako aparira deitubak izan diranak, eta esan eustan: Jaungoikuaren berba oneek egijazkuak dira.

10. Eta auzpaztu nintzan bere oñetan, bera adoretako. Eta esan eus- tan: Begira, ez dagizula egin: naz zure serbitzari laguna, eta zure anaijena, daukenena Jesusen autorreria. Jaungoikua adorau egizu. Zerren Jesusen autorreria da profezijako espiritu.

11. Eta ikusi neban zeruba idigirik, eta orra zaldi zuri bat, eta bere ganian jarrirek eguanari eritxan: Berbakua, ta Egijatia, eta zuzentasunagaz juzgetan dau, eta diardu gudan.

12. Bere begijak barriz suzko garra lakuak, eta bere buruban zinta zuri zabal asko, eta eukan izen bat eskribidurik iñok ezagutu ez dabena ezpada berak.

13. Eta jantzirik eguan odol txipristiñez beteriko soñekuagaz: eta dei- tuten jako bere izena Jaungoikuaren Semia.

14. Eta zeruban dagozan aldrak, jarraituten eutsen zaldi zurijetan, jantzirik liño piñ zuri ta garbiz.

15. Eta bere aotik urtetan eban alde bijetatik zorrotzuriko ezpata batek: beragaz zaurituteko jentia. Eta berak zuzenduko ditu burdiñazko zigorragaz, eta berak zapalduten dau Jaungoiko guztijalaren aserreko sumintasunaren ardaiaren dolaria.

16. Eta dauka soñekuan eta bere istarran eskribidurik: Erregeen erregia ta agintetan dabenen Jauna.

17. Eta ikusi neban Aingeru bat eguala eguzkijan, eta egin eban dia- dar andi bat, zirautsela zerubaren erditik egaan ebiltzazan egazti guztijai: Erdube, ta batu zaitze Jaungoikuaren aparti andirako:

18. Jan dagizubezan erregeen aragijak, eta uri gordetzallen aragijak eta senduen aragijak, eta zaldijen ta euretan jarrirek dagozanen aragijak, eta guztijen aragijak, askatuben ta mendekuen, ta txikijen ta andijenak.

19. Eta ikusi neban pistijia, eta lurreko erregeak, ta euren gudaritegi- jak gudan egiteko zaldi ganian jarrirek eguanagaz ta bere gudaritegiakaz.

20. Eta atrapaüba izan zan pistijia, eta beragan igarla guzurrezkua: egin zituzana bere aurrian ezagungarriak, zeintzubekez engañau zituzan,

artu ebenak pistijiaren markia, eta adorau ebenak bere irudija. Bizirik izan ziran jaurtigijak oneek bijok sufrez ixioturik daguan suzko lekuban.

21. Eta enparaubak illak izan ziran, zaldijaren ganian jarrirek eguana- ren ezpata, bere aotik urtetan dabena: eta egazti guztijak ase ziran euren aragijakaz.

OGEI GARREN KAPITULUBA

Aingerubak lotuten dau kateiagaz Satanas milla urterako, eta askaturik gero, zirikatuten ditu Gog eta Magog esesteko uri mai- tiari: baña Jaunaren kastigubak gelditu eragiten deusa euren azar- kerijari. Gero idigiten dira liburubak, zeintzubeatik artuko deu- tsezan kontubak guztijai euren egitaden erara, jarrirek daguanak jarlekubaren ganian.

1. Eta ikusi neban Aingeru bat jatziten zala zerutik, eukana lezako giltza, eta kateia andi bat bere eskuban.

2. Eta eldu eutsan dragoiari, antxiñako sierpiari, zein dan diabruba ta Satanas, eta lotu eban milla urterako:

3. Eta sartu eban lezan, eta itxi eban, eta sillutu eban bere ganian, ez egizan engañau geijago jentia, bete artian milla urte: eta oneen ondorik askatubak izan biar dau denpora gitxijan.

4. Eta ikusi nituzan jarlekubak, eta jarri ziran euren ganian, eta emon jaken kontubak artuteko eskubidia: eta Jesukristoren autorreria gaitik, eta Jaungoikuaren berbia gaitik samiak ebagijak izan jakezanen arimak, eta ez ebenak adorau pistijia, ez bere irudija, ta ez ebenak artu bere markia beko- kijetan, edo euren eskubetan, eta bizi ziran, eta agintau eben Kristogaz milla urtian.

5. Illen enparaubak ez ziran sartu bizitzan, bete artian milla urte. Au da lelengo biztuera barrija.

6. Zorijonekua ta santuba partill dana lelengo biztuera barrijan: oneek gan bigarren eriotziak ez dauka eskubiderik: ezpada izango dira Jaungoikuaren ta Kristoren Sazerdotiak, eta agintauko dabe beragaz milla urtian:

7. Eta amaitubak diranian milla urtiak, askatuba izango da Satanas bere presondegitik, eta urtengo dau, eta engañauko ditu lurraren lau ega- letan dagozan jentia, Gog eta Magog, eta batuko ditu gudarako, zeintzu- ben zenbata da itxasoko ondarra legez.



8. Eta igon eben lurraren zabaleriaren ganera, eta inguratu zitubezan santuben gudalekubak, eta uri maitatuba.

9. Eta jatzi zan suba Jaungoikuagandik zerutik, eta iruntzi zituzan: eta diabrua, eurak engañetan zituzana, izan zan sartuba suzko ta sufrezko lekuban: nun pistijia bere,

10. Eta guzurrezko igarlia izango dira penaubak gau ta egun gizaldijen gizaldijetan.

11. Eta ikusi neban jarleku andi bat zurija, eta bat jarririk bere ganian, zeñen ikusbegitik iges egin eban lurra eta zerubak, eta lekurik ez zan aurkitu eurenik.

12. Eta ikusi nituzan illak, andijak eta txikijak, egozala zutunik jarlekubaren ikusbegijan, eta liburubak izan ziran idigijak: eta beste liburu bat izan zan idigija, zein dan bizitzakua: eta juzgaubak izan ziran illak liburu-betan eskribidurik egozan gauzeetatik, euren egitaden erara.

13. Eta emon zituzan itxasuak beragan egozan illak: eta erijotziak eta infernubak emon zitubezan euretan egozan euren illak: eta euretariko bakotxaren juizijua izan zan egiña euren egitaden erara.

14. Eta infernuba eta erijotzia izan ziran jaurtigijak suzko lekura. Au da bigarren erijotzia.

15. Eta aurkitu ez zana bizitzako liburuban eskribidurik, izan zan jaurtigija suzko lekura.

OGETA BAT GARREN KAPITULUBA

Oneen azken ta egoera zorijonekua, eta dongen errukarria juizijua ondorik. Zelakua dan Jerusalem zerukua, Bildotsaren laguna. Jaungoikua da bere elexia: Bildotsa bere eguzkija. An ez dago gaurik, ez da sartuko garbija ez dan gauzarik.

1. Eta ikusi neban zero barrija ta lur barrija. Zerren leleno zeruba ta leleno lurra juan zan, eta itxasua ez da onezkeru.

2. Eta nik Juan ikusi neban uri santu Jerusalem barrija jatziten zala zerutik Jaungoikua gandik, pretaurik, andra ezkonbarri apainduba bere senarrentzat legez.

3. Eta entzun neban boz andi bat jarlekutik ziñuala: Orra emen Jaungoikuaren egolekuba gizonakaz, eta biziko da eurakaz. Eta eurak, bere errija izango dira: eta Jaungoikua bera eurakaz izango da euren Jaungoikua:

4. Eta garbituko dau Jaungoikuak malko guztija euren begijetatik: eta erijotzarik ez da geijago izango: ez negarrik ez diadarrik, ez miñik izango da geijago, zerren lelenoak igaro ziran.

5. Eta esan eban jarlekuban jarririk eguanak: Orra emen barriak egiten ditudaz guztijak. Eta esan eustan: Eskribidu egizu, zerren berba oneek guztiz ziurak dira ta egijazkuak.

6. Eta esan eustan: Egin zan: Ni naz, alfa eta omega: asieria ta amaija. Nik egarri danari emongo deusat bizitzako ureko iturritik duarik.

7. Goituten dabenak, eukiko ditu oneek, eta izango natxako Jaungoikua, eta bera izango da niretzat semia.

8. Barriz koldarrentzat, eta siniste bagentzat, eta madarikatubentzat, eta erallentzat, eta nasaijentzat, eta sorgiñentzat, eta idoluak adoretan ditubezanentzat, eta guzurti guztijentzat, eurak partill izango dira suz ta sufrez ixioturiko lekuban: zein dan bigarren erijotzia.

9. Eta etorri zan zazpi Aingerubetatik bat, eukezanetatik edontzijak, zazpi azkenengo plagaz betiak, eta berba egin eban neugaz, ziñuala: Erdu ta erakutsiko deusut andra ezkonbarrija Bildotsaren emaztia.

10. Eta eruan ninduban adiñez mendi andi ta altu batera, eta erakutzi eustan Jerusalem uri santuba jatziten zala zerutik Jaungoikuagandik,

11. Eukana Jaungoikuaren argitasuna: eta bere argija arri balijotsubaren irudikua, jaspezko arrija lakua, kristalaren gisakua.

12. Eta eukan moralla andija ta altuba, eukazana amabi ate: eta atetan amabi Aingeru, eta izenak eskribidurik, zeintzuk diran Israelgo semeen amabi etxadijen izenak.

13. Urteeratik iru ate, eta Ifarretik iru ate, eta Egoetik iru ate, eta Sarreratik iru ate.

14. Eta urijaren morallia, eukazana amabi zimentarri, eta amabi oneetan Bildotsaren amabi Apostoluen izenak.

15. Eta berba egiten ebanak nigaz eukan neurri bat urrezko kañaberrazkua, neurtuteko urija, ta bere atiak ta morallia.

16. Eta urija lau alde bardiñetakua da, eta bere luzeeria ainbeste da, zenbat bere dan zabaleria: eta neurtu eban urija urrezko kañaberiagaz amabi milla estadu: eta bere luzeeria, ta altueria, ta zabaleria bardiñak dira,

17. Eta neurtu eban bere morallia eun eta berrogeta lau beso, gizonaren neurrikua, zein dan Aingerubarena.

18. Eta bere morallia zan arri nabarrezkua: urija bera barriz urre garbija, biderijo garbijaren antzekua.



19. Eta uriko moralliaren zimendubak, arri balijotsu guztijaz apaindubak. Lelengo zimenduba arri nabarra: bigarrena zeruarrija: irugarrena arri urdiña: laugarrena berdizkia.

20. Bostgarrena arrigorrija: seigarrena zurizkia: zortzigarrena berde argija: bederatzi garrena berde orija: amargarrena berde illuna: amaikagarrena berde zurija: amabigarrena moraubia.

21. Eta amabi atiak amabi perla dira, baktotxian bat: eta ate baktotxa zan perla baktotxekua: eta uriko plazia urre utsa, biderijo argitsuba lakua.

22. Eta elexarik ez neban ikusi bertan. Zerren Jaun Jaungoiko guztijala da bere elexia, ta Bildotsa.

23. Eta urijak ez dauka eguzkijaren, ez illargijaren premiñarik, argi egiteko bertan: zerren Jaungoikuaren argitasunak argitu eban, eta bere argija da Bildotsa.

24. Eta ibilliko dira jentia bere argijan: eta lurreko erregiak ekarriko dabe bertara euren gloriya ta ondria.

25. Eta bere atiak ez dira izango itxijak egunaz: zerren gaurik ez da izango an.

26. Eta bertara eruango dabe erreinuben gloriya ta ondria.

OGETA BI GARREN KAPITULUBA

Ur bizizko ibai, Jaungoikuaren jarlekutik urteten dabena. Aingerubak ez dau gura izan adorauba. Zorijonekua garbituten dana Bildotsaren odolian. Jesusek emoten dau liburu onen autorreria, eta diño laster etorriko dala. Emakume lagunak ta San Juanek gura dabe etorri deitiala.

1. Eta erakutzi eustan ur bizizko ibai bat, argija kristala legez, urteten ebalta Jaungoikuaren ta Bildotsaren jarlekutik.

2. Bere plaziaren erdijan eta ibaijaren alde bijetatik bizitzako arbolia, ekazana amabi frutu, emoten dabena ill baktotxian bere frutuba, eta arbolia orrijak jenteen osasunerako.

3. Eta madarikaziñoiaren kimetzik ez da an izango geijago: ezpada Jaungoikuaren ta Bildotsaren jarlekubak egongo dira an, eta bere serbitzarijak serbiuko dabe.

4. Eta ikusiko dabe bere arpegija: eta bere izena euren bekokijetan.

5. Eta gaurik geijago ez da izango, eta ez dabe eukiko zuzijaren argijaren, ez eguzkijaren argijaren premiñarik: zerren Jaun Jaungoikuak argi egingo deutse, eta agintauko dabe gizaldijen gizaldijetan.

6. Eta esan eustan: Berba oneek guztiz ziurrak dira ta egjazkuak. Eta Igarlen espirituben Jaun Jaungoikuak bialdu eban bere Aingeruba agertutera bere serbitzarijai, laster egiñak izan biar daben gauzak.

7. Eta ona nun natorren guztiz arin. Zorijonekua gordetan dituzana liburu onen geroko barrijen berbak.

8. Eta ni Juan, entzun nituzana ta ikusi nituzana oneek. Eta entzun ta ikusi ezker, auzpazu nintzan, oneek erakusten eustazan Aingerubaren oñetan, bera adoretako:

9. Eta esan eustan: Begira ez dagizula egin: zerren naz zure serbitzari laguna, eta zeure anaija igarlana, eta liburu onen etorkizunen barrijaren berbak gordetan ditubezanena: Jaungoikua adoraug ezizu.

10. Eta esan eustan: Ez egizuz sillutu liburu onen etorkizunen barrijen berbak: zerren denporia urrian da.

11. Kalte egiten dabena, kalte egin dagijala oraindik: eta loikerijetan daguana, loitu dedilla oraindik: eta justuba dana, justutu dedilla oraindik: eta santuba, santutu dedilla oraindik.

12. Orra nun nator laster, eta nire sarija neugaz da, biurtuteko baktotxari bere egitaden erara.

13. Ni naz alfa eta omega, lelunga ta azkenengua, asieria ta amaija.

14. Zorijonekuak, garbituten ditubezanak euren soñekuak Bildotsaren odolian izan ditezen eurak partill bizitzako arbolan, eta ateetatik sartu ditezen urijan.

15. Kanpora txakurrak, eta sorgiñak, eta nasaijak, eta erallak, eta idoloen serbitzarijak, eta guzurra maitetu, ta egiten daben guztija.

16. Nik Jesus bialdu dot neure Aingeruba, adierazotera zubei oneek elexetan. Ni naz sustraija, eta Dabiden jatorrija, izar argitsuba ta goxekua.

17. Eta Espiritubak eta Lagunak diñue: Erdu. Eta entzuten dabena esan begi: Erdu. Eta egarri dana, betor: eta gura dabena, artu begi bizitzako ura duarik.

18. Zerren dirausat liburu onen etorkizunen barrijaren berbak entzuten dituzan guztijari: Baldin iñok irakasten badeutse eurai ezer, imiñiko dituzala Jaungoikuak bere ganian, liburu onetan eskribidurik dagozan plagak.

19. Eta baldin iñok gitxituko balitu etorkizunen barri onen liburuko berbak, kenduko dau Jaungoikuak bere partiltasuna bizitzako liburutik, eta liburu onetan eskribidurik dagozan gauzetatik.



20. Diño oneen autorreria emoten dabenak: Egijaz banator laster. Alan izan dedilla. Erdu, Jaun Jesus.
21. Jesukristo gure Jaunaren grazija zubekaz guztijokaz. Alan izan dedilla.

JONASEN PROFEZIJA

LELENGO KAPITULUBA

1. Eta Jaunak berba egin eutsan Jonas, Amatiren semiari, eta esan eutsan:
 2. Jagi zaitte, eta zuaz Ninibeko uri andira, eta an predikau egizu: zerren bere gaiztakerijen diadarrak igon dau nire aurreraño.
 3. Eta jagi zan Jonas, Tarsisa iges egiteko Jaunaren aurretik, eta jatsi zan Jopera, eta aurkitu eban Tarsisa joian ontzi bat: eta pagau eban eruan sarija, eta sartu zan ontzijan, juateko eurakaz Tarsisa Jaunagandik igesi.
 4. Baña Jaunak atera eban axe andi bat itxasuan: eta itxasandi ikaragarri bat jagi zan, eta ontzija eguan apurtuteko arriskuban.
 5. Eta itxasgizonak bildurtu ziran, eta bakotxak diadarrez deitu eutsan bere Jaungoikuari; eta bota zitubezan itxasora ontzijan ekardezan trastiak, arindu zedin bere pisuba: baña Jonas jatsija zan ontzijaren barrura, eta lo gogorrian eguan.
 6. Eta juan zan beragana ontzi gobernarija, eta esan eutsan: Zelan zagoz zu ain lo gogorrian? Jagi zaitte, dei egijozu zure Jaungoikuari, gugaz gomutau nai ete daben, eta galdu bagarik geldituten ete garian.
 7. Eta esan eutsen alkarri: Erdube, eta zotzak atera deiguzan, jakiteko zegaitik jatorkun zorigaistotasun au. Eta atera zitubezan zotzak, eta urten eutsan suertiak Jonasi.
 8. Eta esan eutsen: Esan egiguzu, zegaitik gertau jaku gatx au? Ze langintzatakua zara? Nungua zara, eta nora zuaz? Ze erritakua zara zu?
 9. Eta Jonasek erantzun eutseen: Ni naz hebreotarra, eta itxasua eta lurra egin zituzen zeruko Jaun eta Jaungoikuaren bildurra daukat.
 10. Eta guztiz bildurturik gelditu ziran jente areek, eta esan eutsen: Zegaitik egin dozu au? (Zegaitik eze, ezagutu eben gizon areek, Jaungoikuagandik igesi joiala, zerren berak adierazo eutseen.)
 11. Eta esan eutsen: Zer egingo ete dogu zugaz, itxasua baretu daki-gun? Bada itxasandija joian geruago geitubaguaz.
 12. Eta Jonasek erantzun eutseen: Eldu egidazube, eta bota nagizube itxasora, eta itxasua baretuko jatsube; zerren nik ondo dakit, nigaitik etorri dala zuben gañera itxasandi ikaragarri au.
 13. Bitartian itxasgizonak erremuban ziarduben, liorrera biurtuteko; baña ezin zirian; zerren itxasoko olatubak juazan geruago gorago jagijaz euren ganian.



14. Eta diadarrez deitu eutseen Jaunari, esaten ebeela: Erregututen deitsugu, ó Jauna, ez gaitiala galdu, gizon au ilten dogulako, eta odol errubagiari ez egjozu jausi eragin gure ganera: zerren zuk, Jauna, egin dozu, gura izan dozun moduban.

15. Eta eldu eutseen Jonasi, eta bota eben itxasora: eta itxasua bare-tu zan.

16. Eta gizon areek artu eben Jaunaren bildur andija, eta eskiñi eutseezan oparijak, eta egin zitubezan botuak.

BIGARREN KAPITULUBA

1. Eta Jaunak pretauta eukan arrain andi bat, zeñek iruntzi eban Jonas: eta egon zan Jonas arraiñaren sabelian iru egunian eta iru gautan.

2. Eta arrañaren sabeletik egin eutsan Jonasek oraziñua bere Jaun eta Jaungoikuari.

3. Eta esan eban: Neure naibagian deitu neutsan Jaunari, eta entzun eustan: obijaren barrutik diadar egin neban, eta entzun zenduban nire boza.

4. Eta bota ninduzon oxinera itxasuaren bijotzera, eta urak inguratu ninduben: nire ganetik igaro dira zure ur jira bira guztijak, eta zure olatu guztijak.

5. Eta nik esan neban: Jaurtigija izan naz zure begijen aurretik: baña oraindik barriri bere ikusiko dot zure elexa santuba.

6. Inguratu ninduben urak arimaraño; leza baten sartuta ikusi naz; itxasuak estaldu dau nire buruba.

7. Jatsi naz mendijen sustraijetaraño, lurreko morrollubak zarratu ninduben an barruban betiko: baña zuk, ó neure Jaun eta Jangoikoa atarako dozu nire bizitzia usteltasuneko lekutik.

8. Nire arimia estututen zanian nire barruban, gomutau nintzan Jaunagaz; eldu dedin zugana nire erreguba zure elexa santura.

9. Alperrik arrokerijako gauzetan diardubenak, itxiten dabe bere errukitasuna.

10. Baña nik alabanzako bozagaz egingo deitsut eskiñija: pagauko deitsat Jaunari neure osasunagaitik eskiñi dodan guztija.

11. Eta Jaunak agindu eutsan arraiñari eta errebesau eban Jonas erri-beran.

IRUGARREN KAPITULUBA

1. Eta Jaunak bigarrenez berba egin eutsan Jonasi, esaten utsala.

2. Jagi zaitte, eta zuaz Ninibeko uri andira, eta predikau egizu an nik esaten deitsudan sermoia.

3. Eta jagi zan Jonas, eta juan zan Ninibera Jaunak esan eutsan legez: eta Ninibe zan uri guztiz andi bat, iru eguneko bidia eukana.

4. Eta asi zan Jonas urijan sartuten, eta ibilli zan bertan egun baten, eta diadar eginik, esan eban: Emendik berrogei egunera Ninibe izango da desegiña.

5. Eta Ninibetarrak sinistu eben Jaungoikuagan, eta predikau eben baru egiteko, eta guztijak andijak eta txikijak jantzi zitubezan penitenzijako soñekuak.

6. Eta eldu zan barri au Ninibeko erregiagana, eta jagi zan bere tronutik, eta erantzirik bere soñekuak, zilizijoz jantzi zan, eta jarri zan autsaren ganian.

7. Eta emon eutsan diadarrari, eta esan eban Niniben bere, eta bere prinzippeen aginduz: Gizonak, eta zamarijak, eta idijak eta aberiak ez begije ezerbere jan: eta ez bediz atera bere larrara jatera, eta urik bere ez begije edan.

8. Gizonak eta aberiak soñeko latz eta maxez jantzi bitez, eta diadarrez ta gogotik eskatu begijue Jaunari, eta itxi begijo baktokak bere bide txarrari, eta euren eskuetan dagan gaiztakerijari.

9. Nok daki aldatuko ete dituzan Jaungoikuak bere asmuak, eta parkatuko ete deuskun; eta bigunduko ete dan bere aserriaren sumintasuna, eta onelan galdu bagarik geldituko ete garian?

10. Eta ikusi zituzan Jaungoikuak egiten zitubezan obrak, eta zelan itxi eutsen euren bizitza txarrari: eta errukitu zan, eta ez eutsezan bialdu, erabagita eukazan gatxak.

LAUGARREN KAPITULUBA

1. Eta Jonasek artu eban naibage guztiz andija, eta aserratu zan.

2. Eta erregutu eutsan Jaunari, eta esan eban: Esan egidazu arren, Jauna, onexen bildur ez al nintzan ni, oraindik neure errijan nenguala? Orregaitik aurreratu nintzan iges egiñaz Tarsisa: zerren nik badakit zu zariala Jaungoiko bigun, eta errukior, sufritzalla, eta samurtasun andiko, eta pekatuben parkatzalla bat.

3. Eta orain Jauna erregututen deitsut, kendu dagidazula bizitzia: zerren oba da niretzat erijotzia, bizitzia baño.

4. Eta esan eutsan Jaunak: Sinistuten dozu, errazoia daukazula ase-rratuteko?



5. Eta urten eban Jonasek uritik, eta jarri zan uriko eguzkialdeko atia-
ren aurrian: eta egin eban an txabola bat, eta egon oi zan jarririk bere
azpijan kerizpian, ikusi artian zer jazoko ete jakon urijari.

6. Eta prestau eban Jaun eta Jaungoikuak untz bat, eta igon eban
Jonasen burubaren ganera, kerizia egiteko bere burubari, eta bera estal-
duteko; zergaitik eze, guztiz eguan nekatuba: eta Jonasek euki eban poz
guztiz andija untz aregaitik.

7. Eta bijaramonian egusentijaren asieran bialdu eban Jaungoikuak
ar bat, eta aginka egin eutsan untzari, eta igartu zan.

8. Eta eguzkijak urten ebanian, Jaunak urten eragin eutsan axe bero
eta erregarri bati: eta eguzkijak joten eban Jonas burubaren ganian, eta
erretan zan: eta eskatu eban bere arima guztitik erijotzia, eta esan eban:
Oba da niretzat iltia, bizitia baño.

9. Eta esan eutsan Jaunak Jonasi: Sinistuten dozu zuk errazoia dau-
kazula aserratuteko untzagaitik? Eta esan eban: Errazoia daukat aserratu-
ta egoteko erijotzia opa izateraño.

10. Eta Jaunak esan eban: Zu zagoz untzaren damuz, zeñegaitik ez
zenduban biarrrik egin, eta ez zeuntzan azi eragin bere: bada gau baten azi
zan, eta gau baten galdu da.

11. Eta ez deusatz nik parkatuko Ninibeko uri andijari, zeñetan dago-
zan eun eta ogei milla gizon baño geijago, ez dakijenak zein dan euren
eskumako eskuba, eta zein ezkerrekua, eta abere asko?

RUTEN LIBURUBA

LELENGO KAPITULUBA

1. Juez baten egunetan, juezak Israel gobernetan ebenian, izan zan
gosete andi bat lurrian. Eta Judako Belengo gizon bat juan zan Moabko
lurrera arrotza legez bizitera bere emazte, eta seme bigaz.

2. Bere izena zan Elimelek, eta bere emaztiarena Noemi: eta seme
bijena, batarena Mahalon eta bestiarena Zelion, Judako Belengo Efrata-
rrak. Eta sarturik Moabko lurrian, an bizi ziran.

3. Eta il zan Elimelek Noemiren senarra, eta gelditu zan Noemi bere
semiakaz:

4. Zeintzubez ezkondu ziran Moabko neskatillakaz, zeintzubez
batari eritxan Orfa, eta bestiari Rut. Eta bizi izan ziran an amar urtian.

5. Eta bijak il ziran, au da, Mahalon eta Zelion: eta gelditu zan
Noemi seme bijak eta senarra bagarik.

6. Eta erabagi eban Moabko lurretik bere errira biurtutia bere erreñ
bijakaz: entzun ebalako esaten, Jaunak biurtu zituzala begijak bere erri-
runtz, eta zer jan emon eutsela.

7. Urten eban bada arrotza legez bizi izan zan lekutik erreñ bijakaz:
eta Judako lurrera biurtuteko bidian eguanian,

8. Esan eutsen: Zuaze zuen amen etxeetara; Jaunak egin dagijala
erukija zubekaz, zubek egin zenduben legez illakaz eta nigaz.

9. Atsegiña aurkitu eragin dagizubela, adu onak emoten deustubezan
senarren etxeetan. Eta laztandu zituzan. Eurak jasorik boza, asi ziran
negar egiten,

10. Eta esaten: Zugaz juango gara zure errira.

11. Zeintzubei Noemik erantzun eutsen: Biurtu zaitze, ene alabak,
zegaitik zatoze nigaz? Seme geijago al daukat nik neure sabelian, nigandik
beste senar batzuk itxaron daikezubezan?

12. Biurtu zaitze, ene alabak, eta zuaze: zerren ni zartzaz amaituba
nago, eta ez naz gauza matrimoniorako; eta gaur gabian seindun gelditu,
eta semiak egin al banitu bere,

13. Eta itxaron gura bazeuzkijue bere, ezkontzeko edadera eurak alle-
gau ditezen artian, lenago zartuko zintzatekeze ezkondu baño. Ez egizu-
be arren, ene alabak, onelakorik egin: zerren zuben naibagiak geituten dau
niria, eta Jaunaren eskua dago jasorik nire kontra.



14. Orduban eurak barriro asi ziran didarrez (sic) eta negarrez: Orfak laztandu eban bere amaginarreba, eta biurtu zan: Baña Rut gelditu zan bere amaginarrebagaz.

15. Zeñi esan eutsan Noemik: Orra nun zure kuñatia biurtu dan bere errira eta bere jaungoikuak gana: zuaz beragaz.

16. Rutek erantzun eban: Ez zakidaz geiyago jarki itxi zaidazan, eta juan nadin: zerren juango naz zuazan leku guztijetara: eta zu bizi zarian lekuban, ni bere biziko naz. Zure errija izango da nire errija, eta zure Jaungoikua izango da nire Jaungoikua.

17. Zu ilten zarian lurrian, an ilgo naz ni bere: eta an eukiko dot nire sepulturako lekuba. Jangoikuak kastigau nagijala, erijotziak baño beste gauzak zugandik aldunduten banau.

18. Ikusirik bada Noemik, Rutek ain gogo senduagaz erabagi ebala beragaz juatia, ez jakon geiyago jarki nai, ez beriakgana juateko esan eutsan ezer.

19. Eta bijak batera juan ziran, eta eldu ziran Belena. Sartu ziranian urijan, beriala zabaldu zan barrija guztijen artian: eta emakumiak esaten eben: Au da arako Noemi.

20. Zeintzubei esan eutsen: Ez egidazube deitu Noemi (au da, ederra) ezpadabere deitu egidazube Mara (au da, mingotxa) zerren guztija dakijanak mingoztasunez guztiz bete nau.

21. Urten neban beterik, eta Jaunak biurteragin deust utsik. Zegaitik bada deituten deustazube Noemi, Jaunak umillau naben ezkerro, eta Guztija daikianak naibagetu?

22. Biurtu zan bada Noemi Rut Moabtar, bere erreñagaz arrotza legez bizi izan zan lurretik: eta eldu zan Belena, garagarak ebagiten asten ziranian.

BIGARREN KAPITULUBA

1. Eta Elimelek bere senarrak eukan senide bat, gizon altsua, eta guztiz aberatsa, Booz eritxana.

2. Eta Rut Moabtarak esan eutsan bere amagiñarrebari: Aginduten badeustazu, juango naz kanpora, eta batuko ditut garagar epallen eskue-tatik iges egiten dabeen garagar burubak, arrera ona aurkituten dodan edozein lekutan, familijako guraso, niganako errukiorra agertuten danen bategan. Erantzun eutsan Noemik: Zuaz, ene alabia.

3. Juan zan bada, eta batuten zituzan garagar burubak epallen oste-tik. Eta ain zuzen, kanpo aren jaubia zan Booz, Elimelek-en senitartekua.

4. Eta Ona nun Booz bera eldu zan Belendik, eta agur egin eutsen garagar epallai, esaten ebala: Jaungoikua izan dedilla zubekaz: eurak erantzun eutsen: Jaunak bedekatu zaizala.

5. Eta esan eutsan Boozek, garagar epallak zaintzen zituen mutil gaztiari: Zeñena da neskatilla au?

6. Zeñi erantzun eutsan: Au da arako Moabtar, Noemigaz Moabko eritik etorri zana,

7. Eta eskatu dau, itxi dakijola ibilten garagar epallen ostetik, geldituten diran garagar burubak batuten; eta goxetik orain artian dago kanpuan, une bakar baten bere, biurtu bagarik bere etxera.

8. Esan eutsan orduban Boozek Ruti: Entzun egizu, ene alabia, ez zaitte juan beste solotara garagar burubak batutera, eta ez zaitte bere alden-du leku onetatik, ezpada ibilli zaitte otsein neskatillakaz batera,

9. Eta jarraitu egjezu garagarra ebagiten diarduben lekura: zerren agindu deutseet neure otsein mutillai, ez dedilla inor ezetan sartu zugaz; baitabere egarrituko baziña, zuaz ornija dagan lekura, eta edan egizu, nire otsein mutillak bere, edaten dabeen uretik.

10. Orduban Rutek makurturik arpegijaz lurreraño, agur andi bat egin eutsan, eta esan eban: Nundik eta nora niri, zure begijetan grazija aurkitu izateko, eta izanik ni emakume arrotz bat, nor nazan jakin gura izatia ontzat zuk eukiteko zorijontasun au?

11. Zeñi berak erantzun eutsan: Kontau deuste zer egin dozun zure amagiñarrebiagaz zure senarra il jatsun ezkerro; eta zelan itxi dituzun zure gurasuak, eta jaio ziñan errija, eta etorri zarian, len ezagututen ez zendu-ban errira.

12. Jaunak emon dagizula zure egite orren sarija, eta artu dagizula aloger osua Israelgo Jaun eta Jaungoikuagandik, zeñegana etorri zarian, eta zeñen egen azpijan jarri zarian.

13. Erantzun eutsan Rutek: Aurkitu dot grazija zure begijetan, ó neure Jauna, bada poztu nozu, eta berba egin dozu zure serbitzari onen bijotzera, zein ez dan zure otsein neskatilletatik bategaz bere bardindute-ko duin.

14. Eta Boozek esan eutsan: Bazkalduteko orduba danian, etorri zaitte ona, eta jan egizu ogija, eta busti egizu zeure kopaua binagrian. Jarri zan bada garagar epallen albo baten, eta artu eban beretzat aijaren zati bat, eta jan eban, eta ase zan, eta sobrau zana gorde eban.

15. Eta jagi zan andik garagar burubak batutera, oi eban legez. Eta Boozek agindu eutsen bere otsein mutillai, esaten ebala: Berak zubekaz garagarra ebagiten jardun nai badau bere, ez egijozube galerazo.



16. Eta zuben eskumenetik bere, itxi egijezube berariz jausten garagar buru batzubei, lurrian egonik, batu dagizan lotsa bagarik, eta batuten dituzanian ez begijo inok agirakarik egin.

17. Egon zan bada garagar burubak batuten kanpua arratsalderaño: eta astindurik eta zigor bategaz jorik batu ebana, aurkitu eban garagar ephi baten neurrija legez, au da, iru modio.

18. Eta arturik eurak, biurtu zan urira, eta erakutsi eutsazan bere amagiñarrebari: onezaz ganera atera eban, eta emon eutsan, bera aseta gelditu zan janaritik, sobrau jakona.

19. Eta esan eutsan amagiñarrebiak: Nun ibilli zara gaur garagar burubak batuten, eta nun biar egin dozu? Bedeinkatuba izan dedilla zugaz errukija euki dabena. Eta adierazo eutsan nogaz biar egin eban, eta esan eutsan gizonaren izena, zeñi eritxan Booz.

20. Eta Noemik erantzun eutsan: Jaungoikuak bedeinkatuba izan dedilla, bada bizijentzat euki eban borondate ona, axe bera dauka oraindik illentzat bere. Baitabere esan eban: Gizon ori gure senidia da.

21. Eta Rutek esan eutsan: Baitabere agindu deust batu nadilla garagar epallakaz, garagarrak ebagiteko denporiak dirauben artian.

22. Erantzun eutsan amagiñarrebiak: Oba da, ene alabia, jua zaitiala garagar burubak batutera bere otsein neskatillakaz: besteren baten garagar ondora juaten bazara, norbaitek galerazo ez dagizun garagar burubak batutia.

23. Batu zan bada Boozen otsein neskatillakaz, eta ibilli zan eurakaz garagar buruben billa denpora guztijan, arik eta garagarrak eta garijak troxetan gorde zitubezan artian.

IRUGARREN KAPITULUBA

1. Eta bere amagiñarrebagana biurtu ezkeru entzun eutsan oni: Ene alabia, zuri atsegiña billatu biar deustut, eta zu ondo izateko moduba egin biar dot.

2. Booz ori, zeñen otsein neskatillakaz zabiltzan kanpua, gure senidia da, eta gaur gabian axetuten dau garagarra bere larriñian.

3. Garbitu zaite bada, eta igortzi, eta jantzi egizuz soñekorik oneenak, eta zuaz larriñera. Ez zaizala gizon orrek ikusi, jatia eta edatia amaituten daben artian.

4. Eta lotara juaten danian, begiratu eikezu ondo zein lekutan lo egiten daben: eta juango zara, eta jasoko dozu bera estalduta daguan kapia oñen aldetik, eta etzungo zara, eta etzango zara an: eta berak esango deustu zer egin biar dozun.

5. Rutek erantzun eutsan: Egingo dot, aginduten deustazun guztija.

6. Eta jua zan larriñera, eta egin eban amagiñarrebak agindu eutsan guztija.

7. Eta Boozek jan eta edan ebanian, eta poztubago gelditu zanian, eta jua zanian lotara eskumen meta baten ondora, eldu zan Rut ixiltxurik, eta jasorik kapia bere oñen aldetik, etzun zan.

8. Eta orra nun gaberdijan iratzartu zan gizona ikaraturik eta izuturik, ikusirik emakume bat eguala etzunda bere oñetan.

9. Eta Boozek esan eutsan: Zeñ zara? Eta berak erantzun eutsan: Rut zure menpekua naz: zabaldu egizu zure mantuba zure serbitzarijaren ganian, zerren nire senidia zara.

10. Eta Boozek esan eutsan: Jaunak bedeinkatuba izan zaitiala, ene alabia, lengo zure ontasuna oraingugaz goitu dozulako: ez zarialako jua mutil gazte pobre, ez aberatsen billa.

11. Ez egizu bada bildurrik euki, bada nik egingo dot zugaz, esaten deustazun guztija. Zegaitik eze, nire uriko ateen barruban bizi dan jente guztijak daki, zu zariala emakume birtutetsu bat.

12. Ez dot ukatu bere egiten zure senidia nazala, baña badago ni baño urragokua dan beste bat.

13. Atsedan egizu gaur gabian; eta eguna argituten dabenian, berak nai badau zugaz gelditu senitasun urkuaren eskubidez, izan dedilla ordu onian: barriz arek gura ez badau, Jaungoikua bizi dan legez dirautsut, duda bagarik neuk artuko zaitudazala. Lo egizu goxera artian.

14. Lo egin eban bada bere oñetan gaba igaro zan artian. Eta jagi zan, gizonak alkar ezagutu al euken baño lenago, eta Boozek esan eutsan: Begira ez dagijala inok jakin ona etorri zariala.

15. Baitabere esan eutsan: Zabaldu egizu mantuba, zeñegaz estalduten zarian, eta eldu egijozu esku bijakin. Rutek zabaldu eban, eta eukirik elduta, neurtu zituzan sei modio garagar, eta imiñi eutsazan ganian. Bera eurakaz kargauta sartu zan urijan,

16. Eta jua zan bere amagiñarreba gana, zeñek esan eutsan: Zer egin dozu, ene alabia? Eta Rutek kontau eutsan, Boozek beragaitik egin eban guztija.

17. Eta esan eban: Orra emen sei modio garagar emon deustazanak, esaten deustala: Ez dot gura biurtu zaitezala zeure amagiñarrebagana esku utsakaz.

18. Eta Noemik esan eutsan: Itxaron egizu, ene alabia, ikusi dagizun artian zetan geldituten dan gauza au: zerren Booz da gizon bat, geldituko ez dana, esan dabena kunplidu artian.



LAUGARREN KAPITULUBA

1. Igon eban bada Boozek uriko atera, eta jarri zan an. Eta ikusirik igaroten zala arako senidia, zeñegaitik berba egin dan goijan, deitu eutsan bere izenez, eta esan eutsan: Erdu ona puska baten, eta jarri zaite emen. Bera juan, eta jarri zan.

2. Eta arturik Boozek uriko zarretatik amar gizon, esan eutseen: Jarri zaiteze emen.

3. Jarri ziranian, esan eutsan bere senidiari: Noemi Moabko erritik biurtu danak, dauka salgei, Elimelek gure anaijiaren kanpuaren zati bat:

4. Gura izan dot zuk au entzun dagizula, eta esan inguruban dagozan guztijen, eta neure erriko zarren aurrian. Gura baldin badozu zuk bere jaube izan senitasunaren eskubidez, erosi egizu, eta izan zaite bere jaube: barriz ori egin gura ezpadozu, adierazo egidazu, jakin dagidan zer egin biar dodan; ez daguan ezkerro beste seniderik zu baño, zein zarian lelengua, eta ni bigarrena nazana.

5. Eta Boozek esan eutsan: Erosten dozunian Noemiren kanpua, ezkondu bere biar zara Rut Moabtarragaz, zein izan zan bere senar zananen emaztia, biztu eragiteko zure senide zanaren izenari bere herenzijan.

6. Berak erantzun eban: Itxiten deusat senitasunaren eskubidiari: zerren ez ditut nik amaitu biar neure familijako ondorengiak. Zuk artu, eta euki egizu nire eskubidia, zeñi borondate osuagaz itxiten deusadala autortuten dot.

7. Eguan Israelen senideen artian antxiñako usadijo bat, bakotxak itxiten eutsanian bestiari bere eskubidia, itxiera onek balijoko beban, kenduten eban arek bere oñetakua, eta emoten eutsan bere senidiari. Au zan zerbait itxiten zanaren ezagungarrija Israelen.

8. Esan eutsan bada Boozek bere senidiari: Kendu egizu zure zapatia. Eta berak beriala kendu eban bere oñetik.

9. Eta Boozek esan eutseen zarrai eta erri guztijari: Zuek zare gaur testigu, zelan egiten nazan Elimelenenak, eta Zelionenak, eta Mahalonenak izan ziran gauza guztijen jaube, emoten deustazala Noemik:

10. Eta artuten dodala emaztetzat Rut Moabtar, Mahalon zanaren emazte izan zana, gizon il zanaren izena biztuteko bere herenzijan, amaitu ez dedin bere izena bere familijatik, anaiakgandik eta erritik. Zuek, diñot barriro, zare gauza onen testigu.

11. Atian eguan erri guztijak, eta zarrak erantzun ebeen: Geu gara testigu. Jaunak egin dagijala, zure etxian sartuten dozun emakume ori, izan dedilla Rakel eta Lia lakua, zeintzuek egin eben Israelgo etxia; izan

dedin birtutiaren ejenpluba Efratan, eta euki dagijan izen ospetsu bat Belenen:

12. Eta izan bedi zure etxia Fares, Tamarren eta Judaren semearen etxia lakua, Jaunak emakume gazte ona gandik emon leuskizuzan ondorengiak gaitik.

13. Artu eban bada Boozek Rut, eta ezkondu zan beragaz, eta bizi izan zan Rutegaz, eta Jaunak emon eutsan grazija seindun geldituteko, eta seme bat egiteko.

14. Eta emakumiak esaten eutsen Noemiri: Bedeinkatuba izan dedilla Jauna, zeñek ez daben itxi, gelditu zedilla zure familija ondorengo bagarik, bere izenak iraun egijan Israelen;

15. Euki dagizun zuk bere, nok poztu dagijan zure arimia, eta nok lagundu zure zartzan. Bada jaijo jatzu seme bat zeure erreñagandik, zeñek maite zaituzan, eta zuretzat askozaz obiago da, zazpi seme bazeunkaz baño.

16. Noemik arturik umia, imiñi eban bere altzuan, egiten zituzala beragaz iñude baten eta umezain baten lanak.

17. Eta bere auzuetako emakumiak poztuten zirala beragaz batera, esaten eben: Seme bat jaijo jako Noemiri, eta imiñi deuten izena da Obed. Au izan zan Isairen aita, eta au izan zan Dabidena.

18. Orra emen Faresen gizadijak. Faresgandik izan zan sortuba Esron,

19. Errongandik izan zan sortuba Aram, Aramgandik izan zan sortuba Aminadab,

20. Aminadabgandik izan zan sortuba Nahason, Nahasongandik izan zan sortuba Salmon,

21. Salmongandik izan zan sortuba Booz, Boozgandik izan zan sortuba Obed,

22. Obedgandik izan zan sortuba Isai, Isaigandik izan zan sortuba Dabid.



SALOMONEN KANTEN KANTEA

LELENGO KAPITULUA

1. Mosu emon begit bere agoko mosuagaz: zegaiti zure (ire) bularrak ardaoa baño obeak dira (dozak).
2. Usaingozodunak ubienturik onenak legez. Orio isuria da (dok) zure (ire) uzena: orregaiti neskato gazteak maitetu zenduezan (enduen).
3. Ekarri nagizu (nagik), zure (ire) atzean karraka joango gara (gozak) zure (ire) ubientuen usainera. Sartu nendun (najendun) erregek bere geletan: gozatuko eta poztuko gara (gozak) zuga (igan), gomutaurik zure (ire) bularrak ardaoa baño obeak: artezak maite zaitue (aue).
4. Baltza naz, baia ederra, Jerusalem alabak, Zedarko dendak legez, Salomonen narruak legez.
5. Ez kontsiderau baltzerana nazala, zegaiti eguzkiak deskoloretu nenduen: neure amaren semeak gudatu euden nire kontra, ifiñi nenduen mastien jagolatzat: neure mastia ez neuan jagon.
6. Erakutsi egidazu (egidak), zuk (ik) nire arimeak maite dauenak (joanak), non larratuten dozun (doan), non eguerdierea egiten dozun (doan), asi ez nadin (najadin) orron ibilten zure (ire) lagunen aldren atzean.
7. Ez badakizu (badakina), ó emakumeen artean guztiz ederra, urten egizu (egina) eta zoaz (oa) aldren oñatzen atzean, eta larratu egizuz (egizana) zeure (eure) aumeak artzañen txabolen ondoan.
8. Irudierazo zindudazan (indunadana), neure adiskidea, neure zaldidiari Faraonen gurdietan.
9. Ederrak dira (dozana) zure (ire) matrallak usatortolearenak legez: zure (ire) iduna lepandak legez.
10. Urregorizko katetxuak egingo deusuguz (deunaguz), urrezurizko artxuz marganduak.
11. Errege bere etxun lekuan egoan artean, nire nardoak emon euan bere usaina.
12. Mirrazko txortatxua da nire lastana niretzat, nire bularren artean geratuko da.
13. Ziprozko mordea da nire lastana niretzako, Engadiko mastietan.
14. Ai ze ederra zarean (azan) neure adiskidea, ai ze ederra zarean (azan)! Zure (ire) begiak usoenak dira.
15. Ai ze ederra zarean (azan), neure maitea, eta abegi samurrekoa! Gure oea loratsua da (dok).

16. Gure etzean kapiroak zedrozkoak dira (dozak) goiaspillatuak zipresezkoak.

BIGARREN KAPITULUA

1. Ni naz kanpoko lorea, eta ibarretako lirioa.
2. Zelan lirioa arantzen artean, alan nire adiskidea alaben artean.
3. Zelan sagarrondoa basoetako aretxen artean, alan nire lastana semeen artean. Gura izan neuanaren gereshearen azpian, jarri nintzan: eta aren fruitua gozoa da nire samearentzako.
4. Sartu nendun ardaoarean gelan, arteztu eban nigan karidadea.
5. Sendotu nagizue lorakaz, inguratu nagizue sagarrez: zegaiti amodioz kordebagatuten naz.
6. Aren ezkerre nire buruaren azpian, eta bere eskoak lastanduko nau.
7. Erregututen deusuet Jerusalem alabak, kanpoetako basauntzak, eta oreinak gaiti, arren ez dagizuela erantau, ez iratzartu eragin bere lastana berak gura dauen artean.
8. Nire lastanaren boza, ara emen non saltuka datorren mendietati, muruak igaroz:
9. Basauntzaren, ta oreinkumearen antzekoa da nire lastana: ara emen non dagoan gure ormearen atzean, mentanetati adi, zulsareetati zorotz.
10. Ara emen neure lastanak berba egiten deust: Jaigi zaitte (adi), zabiltz (abil) arin, neure adiskidea, neure usoa, neure ederra, eta erdu (ator).
11. Zegaiti onezkero negua igaro zan (zonana), euria joan zan (zonana), eta aldendu.
12. Lorak agertu ziran (zonazana) gure lurrean, podearen denporea etorri da (dona): usatortolearen boza entzuna izan da (dona) gure errian.
13. Ikondoak motatu zituzan (zozanana) bere uztaiakoak: mastiak loretan emon euden (joena) euren usaina. Jaigi zaitte (adi), neure adiskidea, neure ederra eta erdu (ator).
14. Nire usoa atxeko zuloetan, arriesiko utsunean, erakutsi egidazu (egidana) zure (ire) arpegia, soñu egin begi zure (ire) bozak nire belarrietan: zegaiti zure (ire) boza gozoa da (dona), eta zure (ire) arpegia ederra.
15. Koshi egiguzuez mastiak lurreratuten dituezan luki txikertxuak: bada gure mastia loratu da.
16. Nire lastana niretzako, eta ni neure lastanarentzako lirioen artean larratuten dan arentzako,



17. Eguna zabaldu, eta gereshak jausi ditezan artean. Biurtu zaite (adi): iruditu zakioz (akioe), neure laztana, basauntzari, eta oreinkumeari Beterko mendien ganean.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Neure oean billatu neuan gauetan neure arimeak maite dauena: billatu neuan, eta ez neuan aurkitu.

2. Jaigiko naz, eta inguratuko dot erria: kalleetatik eta plazetatik billatuko dot neure arimeak maite dauena: billatu neuan, eta ez neuan aurkitu.

3. Aurkitu nenduen erria jagoten dauden jagolak: Ikusi bozue nire arimeak maite dauena?

4. Piskatxu bat igaro nenduzanean, aurkitu neuan neure arimeak maite dauena: oratu neutsan: eta ez deusatz itxiko, arik eta sartu dagidan artean neure amaren etzean, eta neu egin nenduenaren gelan.

5. Erregututen deusuet, Jerusalem alabak, kanpoetako basauntzak, eta oreinak gaiti, arren ez dagizuela erantau, ez iratzartu eragin bere maitari, berak gura dauen artean.

6. Nor da igoten dauen au basamortutik mirrazko, eta intzentsozko, eta usaingozogillearen auts guztiko aromen keezko zigortxua legez?

7. Ara emen non inguratuten dauden Salomonen oea irurogei sendok Israelgo sendoentariakoak:

8. Guztiak daukezala ezpatak, eta gudetarako guztiz ondo ikasiak: bakotxaren ezpatea bere isterraren ganean gauetako bildurrak gaiti.

9. Bidekoe bat egin euan beretzat Salomon erregeak Libanoko zulkaz.

10. Bere abeak egin zituzan urrezurizkoak, etxunlekua urregorritzkoa, igoerea purpurazkoa: erdikoa ezkutau euan amodioz Jerusalem alabak gaiti:

11. Urten egizue, eta ikusi, Siongo alabak, Salomon erregea bere amak ifiñi eutsan koroeagaz aren ezkontza berbako, eta bere biotzaren pozeko egunean.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Ze ederra zarean (azan), neure adiskidea, ze ederra zarean (azan)! Zure (ire) begiak usoenak dira (dozana), barruan ezkutaunik dagoana (jagonana) baga. Zure (ire) ulliak Galaadko menditik igon euden (jone-nan) auntz aldrak langoak.

2. Zure (ire) agiñak garbilekutik igon euden (jone-nan) artalde motsituak langoak, guztiak ume bikotxakaz, eta umebagarik ez da (dona) euren artean.

3. Zure (ire) ezpanak, granazko estugarria langoak: eta zure (ire) berbaerea, gozoa. Granadearen akatsa legez, alan dira (dozana) zure (ire) matrallak, barruan ezkutaunik dagoana (jagonana) baga.

4. Dabiden torrea legez zure (ire) iduna, eginik dagoana (jagonana) baluarteakaz: milla ezkutu dagoz (jagozana) dingilizka beratatik, sendoen armapillo guztia.

5. Zure (ire) bular biak, lirieo artean larratuten diran (dozanan) basauntzkume bikotxa biak langoak.

6. Eguna argitu, eta gereshak alde dagien (jagien) artean, joango naz (nona) mirrako mendira, eta intzentsoaren murura.

7. Guztiori zara ederra neure adiskidea, eta orbanik ez dago (etxagona) zugar (igan).

8. Erdu (ator) Libanotik, neure ezkongea, erdu (ator) Libanotik, erdu (ator): izango zara (az) koronaua Amanako buruagaz, Samir eta Hormongo tontorragaz, leoen kobakaz, eta leoearren mendiakaz.

9. Zauritu dozu (dona) nire biotza, neure arreba ezkongea, zauritu dozu (dona) nire biotza zure (ire) begietarik bategaz, eta zure (ire) iduneko ulle bategaz.

10. Ze ederrak direan (dozanan) zure (ire) bularrak, neure arreba ezkongea! Ederragoak dira (dozana) zure (ire) titiak ardao baño, eta zure (ire) ubientuen usaina aroma guztien ganetikoa.

11. Zure (ire) ezpanak ezkongea abau erioa daukenak (jaukenak), ezta eta eznea zure (ire) miiñaren azpian: eta zure (ire) soñekoen usaina intzentsoaren usaina langoa.

12. Ortu itxia zara (az), neure arreba ezkongea, ortu itxia, iturri sillutua.

13. Zure (ire) moteak granadazko berjela sagarren frutuakaz. Ziprak nardoagaz,

14. Nardoa eta azafraia, kañabera usaintsua, eta kanelea, Libanoko zul guztiakaz, mirrea eta zabala ubienturik onen guztiakaz.

15. Ortuetak iturria: Libanotik bultzadaka dozan (joazanan) ur bizen pozoa.

16. Jaigi zaite (adi), Ifarra, eta erdu (ator) Egoea zabiltz (abil) nire ortutik, eta erio beitez beraren aromak.



BOSTGARREN KAPITULUA

1. Betor nire laztana bere ortura, ta jan begi bere sagarren frutua. Etorri naz (nona) neure ortura, neure arrea ezkongea, igeteitu dot (jonat) neure mirrea neure aromakaz: jan dot (jonat) abaoa neure eztiagaz, edan dot (jonat) neure ardaoa neure ezneagaz: jan egizue, adiskidea, eta edan egizue, eta orditu zaiteze, guztiz laztanak.

2. Ni lo nago, eta nire biotza iratzarturik dago: nire laztan ots egiten dauenaren boza: Idigi egidazu (egidan) neure arrebea, neure adiskidea, neure usoa, neure orbanbagea: zegaiti nire burua dago (jagon) inontzez beterik, eta nire griñak gauetako tangaz.

3. Erantzi dot (joat) neure tunikea, zelan jantziko dot (joat)? Garbitu dodaz (joadaz) neure oñak, zelan loituko dodaz (joadaz)?

4. Nire laztanak sartu euan bere eskua zulotik, eta nire erraiak ikaratu ziran bere ukutuagaz.

5. Jaigi nintzan, idigiteko neure laztanari: nire eskuai erien mirrea, eta nire atzamarrak mirra guztiz autuz beteak.

6. Idigi neutsan neure laztanari neure atearen txingeta: baia berak alde egin euan, eta igaro zan. Nire arimea urtu zan, berba egin euaneko: billatu neuan, eta ez neuan aurkitu: deitu neutsan, eta ez eustan erantzun.

7. Aurkitu nenduen erria inguratuten dauden jagolak: jo nenduen, eta zauritu nenduen: eroan eusten neure mantua murlan jagolak.

8. Erregututen deusuet Jerusalengo alabak, aurkituten badozue nire laztana, arren adierazo dagiozuela amudioz kordebagatuten nazala.

9. Zelangoa da (dona) zure (ire) laztanen laztana, ó emakumeen artean ederrena? Zelangoa da (dona) zure (ire) laztanen laztana alango arrenakaz guri erregututeko?

10. Nire laztana da zuria, eta gorria, millen artean autua.

11. Bere burua urregorri guztiz ona: bere ulleak palmen moteak legez, baltzak belea legez.

12. Bere begiak, usoak ur errekatxuen ganean legez, zeintzuk dagozan ezneagaz garbituta, eta egoten direan ur ugari arin doazanen ondoan.

13. Bere matrallak aromen larrintxu, usaingozogilleak imiñirikoak legez. Bere ezpanak lirio mirrarik garbiena darienak.

14. Bere eskuak urregorrikoak tornutuak, jazintoz beteak. Bere sabela marfillezkoa, zafiroz apaindua.

15. Bere kaderak marmolezko abeak, ifinirik dagozanak urregorriko ondopeen ganean. Bere edertasuna Libanorena, autua zedroak legez.

16. Bere samea guztiz gozoa, eta guztia deseagarria. Alangoa da nire laztana, eta bera da nire adiskidea, Jerusalengo alabak.

17. Nora joan da (dona) zure (ire) laztana, ó emakumeen artean ederrena? nora alde egin dau (jona) zure (ire) laztanak, eta billatuko dogu (jonagu) zeugaz?

SEIGARREN KAPITULUA

1. Nire laztana jatsi zan bere ortura, usain gozozko larrintxura, ortuetan larratuteko, eta lirioak ikusteko.

2. Ni neure laztanarentzako, eta nire laztana, lirioen artean larratuten dauena, niretzako.

3. Ederra zara (az), nire adiskidea, biguna, eta abegi gozokoa Jerusalem legez: ikaragarria ejerzitu gertua legez.

4. Aldendu egizuz (egizana) zure (ire) begiak ni gandik, zerren eurak egaz eragin eusten (jeustena). Zure (ire) ulliak dira (dozana) Galaaditik agertu ziran (zonazanan) auntzen aldrea legez.

5. Zure (ire) agiñak garbiletutik igon euden (jonenan) ardien aldrea legez, guztiak ume bikotxakaz, eta umebagakorik ez da (dona) euren artean.

6. Granadearen azala legez, alan zure (ire) matrallak zure (ire) ezkutuak bagarik.

7. Irurogei dira (dozana) erregiñak, eta laurogei oelagunak, eta neskatu gazteen zenbatik ez da (dona).

8. Bat bakarrik da nire usoa, nire onosoa, bakarra da bere amarena, egin euanarentzako autua. Ikusi euden alabak, eta guztiz zorionekoa predikau euden: erreginak eta oelagunak bere alabau euden.

9. Nor da doean au, egunsentia jagiten dan legez, ederra irargia legez, autua eguzkia legez, ikaragarria ejerzitu gertua legez?

10. Jatsi nintzan intxaurren ortura, ibarretako sagarrak ikusteko, eta loratu ete zan mastia, eta moteak urten ete eutsen granadai begiratuteko.

11. Ez neuan jakin: nire arimeak ikaratu nendun Aminadaben gurdia gaiti.

12. Biurtu zaite (adi), biurtu zaite (adi), Sulamitea: biurtu zaite (adi), biurtu zaite (adi), begiratu dagizugun (daigunan).

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Zer ikusiko dozu Sulamiteagan, gudarien aldrak baño? Ze ederrak direan (dozanan) zure (ire) pausuk oñetakoetan, Prinzipearen alabea! Zure (ire) isterren giltzak, langillearen eskuz egiñak izan diran (dozanan) eskubitorrekoak legez.

2. Zure (ire) zilla urraska tornuan egiña, edari бага iñoz ez dagoana (jagonana). Zure (ire) sabela gari montoia langoa, lirioz inguratua.



3. Zure (ire) bular biak basauntzkume bikotxa bi langoak.
4. Zure (ire) iduna marfilezko torrea langoa. Zure (ire) begiak Esebonen arrantzategiak legez, zeintzuk dagozan (jagozanan) aldrearen alabearen atean. Zure (ire) surra Libanoko torre Damaskorantza adi dagoana (jagonana) legez.
5. Zure (ire) burua Karmelo langoa: eta zure (ire) buruko ulleak, erregeren purpura erreketan estua legez.
6. Ze ederra zarean (azan) eta ze abegi gozokoa, guztiz laztana atseginetan!
7. Zure (ire) luzeerea irudituten jako (jakona) palmearenari, eta zure (ire) bularrak mordai.
8. Esan neuan (naionan): Igongo dot (jonat) palmara, eta artuko dodaz (jonadaz) beraren frutuak: eta izango dira (dozana) zure (ire) bularrak mastiko mordak legez: eta zure agoko usaina sagarrena langoa.
9. Zure (ire) samea ardaorik onena langoa, nire laztanak edateko, eta beraren ezpan eta agiñakaz txupetako duiña.
10. Ni neure laztanarena, eta bere biarrerea niganantz.
11. Erdu (ator) neure laztana, urten daigun (jaiagun) kanpora, bizi gaitzean (gaiadizan) baserrietan.
12. Jaigi gaitzean (gaiadizan) gosheti mastietarako, ikusi daigun (jaiagun) mastia loratu ete dan (doan), lorak garautu, granadak loratu badira (badozak): an emongo deustudaz (deudaz) neure bularrak.
13. Urriloak emon euden (joen) usaina. Gure atetan fruta guztiak dagoz (jagozak): barriak eta zarrak, neure laztana, gorde deustudaz (deudaz).

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Nok emon ziñaike (eunke) niri neure nebea, neure amaren bularrak artuten, aurkitu zaidazala (aidala) eta kanpoan, mosu emon dagizudala (aiadala), eta onezkero ez naiala (najaiala) iñok despreziau?
2. Oratuko deustut (deuat), eta eroango zaitut (aut) neure amaren etzera: an irakatsiko deustazu (deustak), eta emongo deustut (deuat) ardao onduaren edaria, eta neure granaden mostoa.
3. Beraren ezkerra nire buruaren azpian, eta aren eskoeak laztanduko nau.
4. Erregututen deustuet, Jerusalengo alabak, arren ez dagizuera erantau, eta ez iratzartu eragin bere laztana, berak gura dauen artean.
5. Nor da igoten dauen au basamortutik gozotasunez beterik, bere laztanari oraturik? Sagarrondo baten azpian iratzartu zendudazan (indu-

nadana): an izan zan (zonana) galdua zure (ire) ama: an izan zan (zonana) indarrez galdua egin zenduzana (indunanana).

6. Ifiñi nagizu (nagina) sillua legez zure (ire) biotzaren ganean: sillua legez zure (ire) besoaren ganean: zegaiti sendoa da (dona) amodioa erioztza legez, gogorra zela infernua legez: bere lanparak dira (dozana) suzkoak eta garrezkoak.

7. Ur askok ezin euden (jonena) amatau karidadea, eta ibaiak bere ez daude (joena) urpetuko: emongo baleu (balajona) bere gizonak bere etzeko izate guztia amodioa gaiti, arean ez legez despreziau dau (jona).

8. Gure aiztea txikerra da (dok), eta ez dauko (jaukak) bularrak. Zer egingo deustazu (jeustazu) gure aizteari berba egingo jakon (jakoan) egunean?

9. Murallea bada (badona), egin daiguzan (jaiaguzan) bere ganean urrezko torretxuak: atea bada (badona) apaindu daigun (jaiagun) zedrozko olakaz.

10. Ni naz (nok) murallea: eta nire bularrak dira (dozak) torrea legez izan nazan (noan) ezker bere aurrean bakea aurkitu dauena (joana) legez.

11. Baketsuak euki euan (joan) mastia, erriak daukazan (jaukazan) agan: emon eutsen (jeutsen) jagolai; gizonak dakaz (jakazak) beraren frutua gaiti milla diru urrezurizko.

12. Nire mastia nire aurrean dago (jagok). Zure (ire) millak bakesuarenak, eta berreun beraren frutuak gordetan dituezanentzat (jituezanentzako).

13. O zu (i) ortuetan bizi zareana (azana), adiskideak entzuten daude (ioena): entzun eragidazu (eragidan) zure (ire) boza.

14. Iñes egizu (egik), neure laztana, eta iruditu zakioz (akioe) basauntzari eta oreinkumetxuari usain gozoen mendien ganean.



EUSKALDUNAK MORUEN KONTRAKO GERRAN SENDATUTEKO EUSKERAZKO BERSUAK

Guazan guazan mutillak
Guazan Afrikara
Moruakaz indarrak
Antxe neurtutera:
Agertu biar dogu
Marruekos aldiari
Antxiñako euskaldunen
Seme ete garian.

Gaztelako mutillak
Moruakaz gerran,
Ta euskaldunak geldirik
Etxian jan ta edan?
Ez ez orrelakorik
Biar dogu izan
Aurrerenguak beti
Afrikako gerran.

Ikusten dan orduko
Morua aurrian
Sartu baijonetia
Bere bularrian:
Ta ez barriz gelditu
Imiñi artian
Danak luze luzerik
Lurraren ganian.

Zelako triskantzia
Moruen artian
Iminten bogu oñik
Guk ango lurrian!

Ikusirik bidetan
Moro aldrak illak
Diadar egin sendo:
Aurrera mutillak...

Ez bekijo besterik
Entzun gaur iñori
Berba bakar au baño:
Gerra moruari.
Ta ez baijonetia
Iñok sartu lekan
Mororen bat zutunik
Dagoan artian.

Ez dau biar atzera
Iñok begiratu
ezpada garianok
Ill, edo garaitu:
Milla arraijuetan...
Oraingo aldiari
Garai biar juagu
Europa guztijan.

Ez euki ez bildurrik
Euskaldun senduak
Lastertxu daukazubez
Goiturik moruak:
Areek baño soldadu
Errutsubagorik
Itxi dozube sarri
Lurrian etzunik.

Baldin gure artian
Badago koldarrik
Bijua bere etxera
Armia itxirik
Ez dogu emen biar
Mutil ollokirik
Morua ikusita
Bildurtuko danik.



Zubekgan imiñirik
 Ta ondo josijak
 Bere begijak daukaz
 Gaur mundu guztijak
 Zertzuk Afrika aldian
 Ikusiko diran
 Asirik euskaldunak
 Moruakaz gerran.

Franzijako zuabuak
 Laster dira Afrikan
 Ikasten zubek gandik
 Zelan egin gerran:
 Vincennesko eiztari
 Astin ta errutsubak
 Gelditu biar dabe
 Orain baztertubak.

Baña ez da egin biar
 Gerria gorrotoz
 Ezpada mesediak
 Egiteko asmoz:
 Orregaitik goiturik
 Afrikan moruak
 Egin biar ditugu
 Zorijonekuak.

Erakutsirik eurai
 Jesusen legia
 Ta beragaz batera
 Zeruko bidia:
 Au egiten badogu
 Orain moruakaz
 Laster ditugu esker,
 Ta eskumunakaz.

Denpora gitxi barru
 Moruak goiturik
 Etxeetara gara
 Arro eta pozik
 Geure garaitza andijak
 Kontetara etxian
 Etxeko ta auzokuai
 Geure eskaratzian.

Zetarako da bada
 Neure ama maitia
 Ni juatia gaitik
 Negar egitia?
 Laster izango dozu
 Semia etxian
 Jaungoikoak nai badau
 Umore onian.

Alanbere ez aztu
 Iños bere nigaz
 Bada nik besteainbeste
 Egingo dot zugaz:
 Sarri Jaungoikuari
 Nigaitik eskatu
 Len baño len gagizan
 Alkarregaz batu.

Agur euskalerrija
 Baguaz emendik
 Etortia uste dogu
 Garaitzaz beterik
 Ementxe biziteko
 Geure erri maitian
 Pozik, gozaro eta
 bake ederrian.



PLENTZIAKO DOTRINA

Catecismo bascongado
Dialecto de Vizcaya
Variedad de Plencia

Sarrerea

Kristiñeu fiel guztiek
dagoz guztiz obligaurik
deboziñoa artutera
euren biotz guztirik
Jesus gure argiaren
Kurtze santuegaz
non il gure izan eban
gu ateratearren
pekatuaren azpitik
ta arerio deungetatik.
Orregaitik bada zu
akostunbrauko zara
alan ziñatutera
zelan santigetara
iru kurtze eginegaz
lelengoa bekokian
Jaungoikoak librau gaizan
pentzamentu txarretarik:
bigarrena aoan
Jaungoikoak librau gaizan,
berba deungetarik:
irugarrena bulerrear
Jaungoikoak librau gaizan
obra ta desio deungetatik.
Onan esanagaz:
Kurtze + santearen
señaleagaitik,
geure + arerioetarik

MENDEBALDEKO AZPI-EUSKALKIA



librau gaizuz
geure + Jaune ta Jaungoikoa.
Aitearen + Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Kredoa

Sinistuten dot Aite Jaungoiko, guztiz poderoso, zeruen ta lurren kriedoreagan, eta bere seme bakar Jesukristo gure Jaunegan, zein sortu zen Espiritu Santuen obraz ta graziez; iaio zan Marie Birjineaganik, padezidu eban Ponzio Pilatosen poderearen bean, izen zan kurtzifikedue, ille eta enterradue: iatzi zen infernuetara; arik irugarren egunean biztu zen illen arterik, igon eban zeruetara, an dago iarririk Aite Jangoiko, guztiz poderosoen eskumako aldetik: andik etorriko da biziek eta illek juzgetara. Sinistuten dot Espiritu Santuegan, Elexa Santa Katolikea, Santuen komuniñoa, pekatuen parkaziñoa, aragien erresurreziñoa, sekuleko bizitzea. Amen.

Fedeko artikuluek

Fedeko artikuluek dire amalau. Lelengo zazpirek pertenezietan iakoz, Jangoikotasuneri; eta beste zazpirek, Jesukristo gure Jaun, Jaungoiko ta gizon egiezkoen gizontasun santueri.

Jaungoikotasuneri pertenezietan iakozanak, dire oneik:
Lelengoa sinistu Jaungoiko guztiz poderoso bakar bategan.
Bigarrena sinistu dala Aitea.
Irugarrena sinistu dala Semea.
Laugarrena sinistu dala Espiritu Santue.
Bostgarrena sinistu dala Kriedorea.
Seigarrena sinistu dala Salbadorea.
Zazpigarrena sinistu dala Glorifikedorea.

Gizontasun santueri pertenezietan iakosanak dire oneik;
Lelengoa sinistu, Jesukristo gure Jaune, gizona dan aldeti sortue izen zala Espiritu Santuen graziez ta birtutez.

Bigarrena sinistu iaio zala Andra Marie beti Birjineaganik, donzelle geldituten zala semea iaio baño lenago, iaio keran, da iaio azkero.

Irugarrena sinistu artu zituzala pasiñoa ta eriotzea, gu pekatariok salbetearren.

Laugarrena sinistu iatsi zela infernuetara, eta andik atera zituzela, bere etorrera santueri itxoten egozan gureso santuen arimak.

Bostgarrena sinistu irugarren egunean biztu zala illen arterik.

Seigarrena sinistu igon ebal zeruetara, eta an dagoala iarririk Aite Jaungoiko guztiz poderosoen eskumako aldetik. Zazpigarrena sinistu etorriko dala biziek, eta illek iuzgetara, au da, onai emoitera betiko glorie, bere mandamentu santuek gorde zituezalako, eta deungai betiko penak gorde ez zituezalako.

Aite gurea

Aite gurea, zeruetan zagozana, santifikedu bedi zure izena, betor gugena zure erreinue, egin bedi zure borondatea, zelan zeruen, alan lurrean. Egunean eguneango geure ogie emon egiguzu gaur; eta parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunei parkatuten deutsegezan legez; eta itxi ez egiguzu tentaziñoan iausten, baie libredu gaizuz gatxerik. Amen.

Abe Marie

Abe Marie, graziez betea, Jaune da zugez, bedeinketea zara zu Andra guztien artean, eta bedeinketue da zure sabeleko frutue, Jesus.

Santa Marie, Jaungoikoaren Ama, erregutu egizu gu pekatariokgaitik orain eta geure eriotzako orduen. Amen.

Salbea

Salbe, Erregiñe, Miserikordiezko Ama: bizitze, gozotasun, eta Espe-rantz geurea, Salbe. Zuri deiez gagoz Ebaren ume desterraduok. Zuga-na gagoz zizpuruz ta negarrez, negarrezko erri onetan. Ea bada, Andrea, bitarteko geurea, biurtu egizuz gugana zure begi errukitsu orreek; eta



erbeste au igarota, erakutsi egiguzu Jesus zure sabeleko frutu bedeinketue. O klementisima! O piadosa! O dulce Birjiñe Marie! Erregutu egizu gugaitik Jaungoikoaren Ama Santea, merezidu daigun alkantzetea Jesukristoren promesak. Amen.

Jaungoikoaren legeko mandamentuek:

Jaungoikoaren legeko mandamentuek dire amar. Lelengo irurek pertenezietan iakoz Jaungoikoaren onreari; eta beste zazpirek projimuen probetxuari.

Lelengoa Jaungoikoa ametea gauze guztien ganean.

Bigarrena bere izen santuegaitik arpelik ez egitea juramenturik.

Irugarrena domekak, eta iaiek gordetea.

Laugarrena aite eta ama onretea.

Bostgarrena iñor ez iltea.

Seigarrena aragizko pekaturik ez egitea.

Zazpigarrena iñori ezer ez ostutea.

Zortzigarrena faltzo testimoniñorik iñori ez eregitea, ta guzurrik ez esatea.

Bederatzigarrena, projimuaren emaztearen deseorik ez eukitea.

Amargarrena, iñoren ondasunen deseo txarrik ez eukitea.

Amar mandamentu oneik sartuten dire biten. Lelengoa, Jaungoikoa ametea ta serbiete gauza guztien ganean. Bigarrena ametea geure projimue geure burue legez. Amen.

Kristiñeuen dotrinearen esplikaziñoa pregunta eta errespuestetan

PREGUNTETAN DOT. Kristiñae zara?

ERRESPUESTEA. Bai, Jaungoikoaren graziegaz.

PREGUNTEA. Kristiñauaren izen ori norganik iatortzu?.

ERRESPUESTEA. Jesukristo gure Jauneganik.

P. Zer esan gure dau Kristiñauak?

E. Kristoren gizona.

P. Zer ulertuten dozu Kristoren gizonagaz?

E. Jesukristoren fedea daukan gizona, zein artu eban bautismuan, eta bera serbietara obligedurik dagoana.

P. Zein da Kristiñauaren señailea?

E. Kurtze Santea.

P. Zegaitik?

E. Dalako Kristo kruzifikeduen irudie, zeñetan erredimidu genduzen.

P. Zeinbet moduten egiten dau kristiñauak señaile ori?

E. Modu biten.

P. Zeintzuk dire?

E. Ziñetutea, eta santigüetea.

P. Zer da ziñetutea?

E. Da eskumako eskuko erkoroagaz iru kurtze egitea. Lelengoa bekokien; bigarrena agoan; irugarrena bulerrear, gure Jaun eta Jaungoikoagaz berba egiten dogule.

P. Erakutsi zelan?

E. Kurtze santearen + señailegaitik geure + arerioetarik; libradu gaizuz + geure Jaune, ta Jaungoikoa.

P. Zegaitik zeñatuten zara bekokien?

E. Jaungoikoak libradu gagizen pensamentu deungetatik.

P. Zegaitik agoan?

E. Jaungoikoak librau gagizen berba gaiztoetatik.

P. Zegaitik bulerrear?

E. Jaungoikoak librau gagizen obra, eta deseo txarretatik.

P. Zer da Santigüetea?

E. Da eskumako eskuko atzamar lodiaren urrengo biekaz krutze bat egitea, bekokitik bulerrera, eta ezkerreko sorbaldatik eskumakora, Trinidadade guttiz santeagaz berba egiten dogule.

P. Erakutsi zelan?

E. Aitearen + eta Semearen, eta Espiritu Santuen izenean. Amen.

P. Nox egin bear dogu krutze ori?

P. Obra onen bat asiten dogun guztien, edo premiña, tentaziño, edo arriskuren baten gagozanean. Batez bere oetik iaikiten gareanean; etsetik urteiten dogunean; elexan sartuten gareanean; iatera goazanean; eta ioaten gareanean oera lo egitera.

P. Zegaitik ainbeste bider?

E. Zegaitik eze, denpora guztietan, eta leku guztietan gure arerioak tentau, eta persegetan gaituezan.

P. Ze arerio dire orreik?

E. Demoniñoa, mundue, eta aragie.



- P. Eta krutzeak, arerio erreik benziatiko inderra dauko ala?
 E. Bai Jaune.
 P. Nondik dauko kurtzeak inder ori?
 E. Kristok bere eriotzeagaz, antxe benzidu zituzelako.
 P. Kurtzea adoretan dozunean zelan esaten dozu?
 E. Adoretan zaituguz, Kristo, eta bedeinketuten zaituguz, zeure kurtze santueguz mundue erredimidu zenduelako.

Kristiñauen dotriñearen dibisiñoa

Ikusi dogu Kristiñaue zareala, alan izenean, zelan señailean: orain esan egidez:

- P. Zeinbet gauze iakin bear ditu Kristiñeuek usu errazoezkora alle-gaten danean?
 E. Lau gauze , Jaune.
 P. Zeintzuk dire?
 E. Lelengoa, zer sinistu bear daben iakitea.
 Bigarrena, zer eskatu bear daben iakitea.
 Irugarrena, zer egin bear daben iakitea.
 Laugarrena, zer artu bear daben iakitea.
 P. Zelan iakingo dau zer sinistu bear daben?
 E. Iakiñegaz kredoa, eta fedeko artikuluek.
 P. Zelan iakingo dau zer eskatu bear daben?
 E. Iakiñegaz Aite gurea, eta Elexako beste oraziñoak.
 P. Zelan iakingo dau zer egin bear daben?
 E. Iakiñegaz Jaungoikoaren legeko amar mandamentuek, bost Ele-xakoak, eta amalau obra miserikordiezkoak.
 P. Zelan iakingo dau zer artu bear daben?
 E. Iakiñegaz Elexa ama santearen zazpi sakramentuek.

Kristiñauen dotrinearen lelengo partea, zeinetan espliketean direan Kredoa, eta Fedeko artikuluek

Lelengotik asiten gareala, esan egidez:

- P. Nok esan eban Kredoa?

- E. Apostoluek.
 P. Zetarako?
 E. Guri Fedeko gauzak irekasteko.
 P. Eta zuk zetarako esaten dozu?
 E. Kristiñauok daukagun fedea konfesetako.
 P. Zer da fedea?
 E. Ikusi ez dogune sinistutea.
 P. Ikusi zenduen iaoteren Jesukristo?
 E. Ez Jaune.
 P. Ikusi zenduen ilten, edo zerure igoten?
 E. Ez Jaune.
 P. Sinistuten dozu?
 E. Bai Jaune.
 P. Zegaitik sinistuten dozu?
 E. Jaungoikoak Elexa Ama santeari alan agertu deuselako; eta Elexa Ama Santeak alan erakusten deuskuleko.
 P. Ze gauze dire Kristiñaue legez daukezuzenak, eta sinistuten dozu-zenak?
 E. Erromako Elexa Ama santeak daukezanak, ta sinistuten dituzenak.
 P. Eta ze gauze dire erreik?
 E. Fedeko artikuluek, Kredoa dagozan legez.
 P. Ze gauze dire Fedeko artikuluek?
 E. Dire Fedeko misteriorik andienak.
 P. Zetarako dire Fedeko artikuluek?
 E. Geure Jaungoikoen, eta Jesukristo gure Erredentorearen barri, ta ezaüera argiagoa emoiteko.
 P. Nor da gure Jaungoikoa?
 E. Da gauze bat, esan ta pensau al leitekeanik andiena ta miragarriena: Jaun bat, ezingeagoan ona, poderoso, iakintsua, justoa, gauze guztien asierea, ta azkena.
 P. Trinidad gurtiz Santue, nor da?
 E. Da Jaungoikoa bera, Aitea, Semea, eta Espiritu Santue, iru persona distinta eta banak, eta Jaungoiko egiezko bakar bat.
 P. Aitea Jaungoikoa da?
 E. Bai Jaune.
 P. Semea Jaungoikoa da?
 E. Bai Jaune.
 P. Espiritu Santue, Jaungoikoa da?
 E. Bai Jaune.



P. Iru Jaungoiko dire?

E. Ez Jaune, ezpada Jaungoiko egiezkoko bakar bat.

P. Aite Semea da?

E. Ez Jaune.

P. Espiritu Santue Aite, edo Semea da?

E. Ez Jaune.

P. Zegaitik?

E. Iru personak distintoak direlako, izen arren Jaungoiko egiezkoko bakar bat.

P. Orreik orrela direala: zeinbet izate, entendimentu, eta borondate dagoz Jaungoikoagan?

E. Izate bakar bat, entendimentu bakar bat, eta borondate bakar bat.

P. Eta zeinbet persona?

E. Iru diferenteak, Aita, Semea, eta Espiritu Santue.

P. Jaungoikoa zelan da guztiz poderoso?

E. Bere borondateagaz bakarrik, gure daben guztie egiten dauelako.

P. Zelan da Kriedorea?

E. Gauze guztiak ezerberezetik egin zituzelako.

P. Zetarako egin eban Jaungoikoak gizona?

E. Bera ezagututeko, ametako, eta serbietako mundu onetan, eta gero beti zeruen bera gozetako.

P. Zelan da Salbadorea?

E. Emoiten dabelako grazie, eta pekatuek parkatuten dituzelako.

P. Zelan da Glorifikedorea?

E. Bere grazien irauten dauenari, emoiten deuselako betiko glorie.

P. Bauko Jaungoikoak, guk legez, gorputzik?

E. Jaungoikoa dan aldetik, ez; dalako Espiritu utze; baña bai gizona dan aldetik.

P. Iru personetarik zein egin zan gizon?

E. Bigarrena, zein dan Semea.

P. Aitea egin zan gizon?

E. Ez, Jaune.

P. Espiritu Santue egin zen gizon?

E. Ez, jaune.

P. Zein bada?

E. Bakarrik Semea, zeñeri, gizon eginik, deretxon Jesukristo.

P. Orlan nor da Jesukristo?

E. Da Jaungoiko bizien semea, gu erredimietarren, eta guri zelan bizi erakustearren gizon egin zana.

P. Eta zeinbet izate, entendimentu, eta borondate dagoz Jesukristogan?

E. Izate bi, bata Jaungoikoa dan aldetik, eta bestea gizona dan aldetik: entendimentu bi, bata Jaungoikoa dan aldetik, eta bestea gizona dan aldetik: borondate bi, Jaungoikoa dan aldetik bata, gizona dan aldetik bestea.

P. Eta zeinbet persona ta memorie?

E. Persona Jaungoikozko bakar bat, zein dan Trinitade guztiz santuko bigarren personea; eta memorie bakar bat, bada Jaungoikoa dan aldetik ez dauko memorierik.

P. Zer esan gure dau Jesusen izenak?

E. Salbadorea.

P. Zetatik salbau genduzen?

E. Geure pekatuetatik, eta demoniñoaren kautiberiotik.

P. Zer esan gure dau Kristok?

E. Unjidue.

P. Zegaz unjidue izen zan?

E. Espiritu Santuen graziez eta doez.

P. Jesukristo gure Jaune zelan sortu eta iaio zan, Amak donzella izatea galdu bagarik?

E. Jaungoikoak ori millegroz egiten ebal.

P. Zegaitik diñozu: «Jaungoikoak ori millegroz egiten ebal»?

E. Jesukristo gure Jaune ez zalako sortue izan, eta ez zalako iaio beste gizonak legez.

P. Zelan iazo zan Enkarnaziñoako misterioa?

E. Lenengo Ama Birjinearen errai garbieten formau eban Espiritu Santuek, Andra onen odol garbiegaz gorputz guztiz eder bat. Bigarren, egin eban arime bat ezerezetik, eta sartu eban gorputz atan. Irugarren, orduentxe gorputz eta arime aekgaz batu zan Jaungoikoaren semea. Lau garren, onelan len Jaungoiko bakarrik zana, Jaungoiko izateari itxi bagarik, geratu zan gizon eginik, eta deritxo Jesukristo.

P. Eta zelan iaio zan millegroz?

E. Urteiten ebal Ama Birjinearen sabeletik, bere donzellatasunaren kalte bagarik, eguzkien argi errañue igeroten dan legez kristel batetik, ausi ez loitu bagarik kristela.

P. Eta bere Ama gero beti dontzellatasunean bizi izan ete zan?

E. Bai, Jaune, beti.

P. Zegaitik kurtzean illa izan gura eban?

E. Gu libretearren pekatutik eta betiko eriotzatik.

P. Zegaitik geunken bada guk, betiko eriotzako sentenzie?



E. Pekatu egin ebalako gure lelenko guraso Adanek, zeñegan guztiok pekatu egin genduen.

P. Zein da, Jesukristo il eta gero iatsi zan infernue?

E. Ez kondenaduen lekue, ezpada linboa, non egozan justoak.

P. Infernu bat baño geiago dago ala?

E. Bai Jaune, dagoz lau lurren barruen, eta deritxoe kondenaduen infernue, purgatorioa; seiñen linboa, justoen linboa, edo Abrahamen senoa.

P. Eta ze gauze dire orreik?

E. Kondenaduen infernue da leku bat, zeñetara doazan pekatu mortalean ilten direanak, an beti beti penaduek izateko. Purgatorioa da leku bat, zeñetara doazan, grazian ilten direanen arimak, euren pekatuen zor guztie pagau bagarik, an pena ikaragarriekaz garbituek izateko. Seiñen linboa da leku bat, zeñetara doazan, batietuek izen bagarik, usuerrazoezkora eldu baño lenago ilten direanen arimak. Eta justoen linboa, edo Abrahamen senoa da leku bat, zeñetara ioaten zirean, Jesusek gu pekatutik atera baño lenago, Jaungoikoaren grazian ilten zireanen arimak, guztiz garbituek egon ezker; eta berau da Jesukristo gure Jaune egiaz eta benetan iatsi zana.

P. Zelan iatsi zan?

E. Arimea Jaungoikotasunegaz beragaz baturik.

P. Eta bere gorputza zelan gelditu zan?

E. Jaungoikotasunegaz beragaz baturik.

P. Irugarren egunean, zelan biztu zan?

E. Bere gorputz eta arime gloriáz beteak barriri batuten zireala, ostera iñoz ez ilteko.

P. Zelan igon eban zeruetara?

E. Berez.

P. Zer esan gure dau: Aite Jaungoikoaren eskumeko aldetik iarririk egoteak?

E. Kristok, Jaungoikoa dan aldetik, Aitek lainbeste glorie daukala, eta gizona dan alde, beste edozeñek baño geiago.

P. Noix etorriko da biziak eta illek juzgetan?

E. Munduaren azkenean.

P. Eta orduen biztuko ete dire illek guztiak?

E. Bai Jaune, len euki zituezan gorputzekaz eta arimekaz eurekaz.

P. Eta munduaren atzena baño lenago, juzgauak izango ete gara?

E. Bai Jaune, guztiok geure bizitzaren azkenean juzgauko gaitu Jaungoikoak, eta emongo deusku sentenzie, onai, zeruen bera beti gozeta, eta deungai, infernuen beti penetan egoteko.

P. Zer sinistuten dozu, esaten dozunean: «Santuen Komunioa»?

E. Kristiñau fielak partea daukeela besteen gauze oneetan, gorputz baten zatiek legez, zeñ dan Elexea.

P. Zer da Elexea?

E. Da Kristiñau fiel guztiak, batera arturik, egiten dauden batzarra, zeñen burue dan Aite Santue.

P. Nor da Aite Santue?

E. Da Erromako Obispo nagusi, lurrean Kristoren ordekoa, zeñeri guztiok obedezidu bear deusagun.

P. Kredoaz, eta artikuluek ganera, beste gauzerik sinistuten dozu?

E. Bai Jaune, liburu santuetan dagoan guztie, eta Jaungoikoak bere Elexeari agertu deusan guztie.

P. Ze gauze dire orreek?

E. Ori ez niri preguntau iakiturie gitxikoa nasalako: baukaz Elexa Santeak, erantzuten iaking daudien iakintsu eta Irakaslak.

MAEXUEK. Ondo diñozu. Irakaslai toketan iakee, eta ez zuri, gure fedeko gauze guztien kontue banan eta argiro emotea. Zuretzat asko da iakitea fedeko artikuluek kredoan dagozan legez, eta eurek sinistutea.

Kristiñauaren dotrinearen bigarren partea, zeñetan espliketan dan zer eskatu bear dan, eta Elexa Santearen oraziñoak

Ikusi dogu zelan dakizun sinistu bear dana, zein dan lelenkoa. Gatozan bigarrenean, zein dan eskatu bear dana:

Esan egidezu:

P. Nok esan eban Aite Gurea?

E. Jesukristok.

P. Zetarako?

E. Guri oraziño egiten irakasteko.

P. Zer da oraziño egitea?

E. Da Jaungoikoagana biotza altzau, eta mesedeak eskatutea.

P. Zeinbet modutekoa da oraziñoa?



E. Modu bitekoa; mentala eta bokala; edo buruz egiten dana; eta aoz egiten dana.

P. Zer da oraziño mentala?

E. Da arimako almen, edo potenziekaz egiten dana: memoriegaz akordetan gareala gauze onen bategaz. Entendimentuegaz gauza on au buruen darabilgule. Eta borondateagaz propositu onen batzuk egiten doguzela; esaterako, lengo pekatuekaz damutu; ez geiago pekatuek egiteko gogo sendoa artu; baitabere konfesiño on bat egiteko, eta gero andik aurrera, bizitza on baten irauteko... eta onelangoak.

P. Zer da oraziño bokala?

E. Da berbakaz eta miiñagaz egiten dana; esaterako Aite gurea erretzetan dogunean egiten dogune.

P. Eta zelan egin bear da oraziñoa?

E. Atenziñoagaz, umiltasunegaz, itxaropenagaz, eta iraupenagaz.

P. Aite gurea esaten dozunean, nogaz berba egiten dozu?

E. Geure Jaun, eta Jaungoikoagaz.

P. Non dago gure Jaun, eta Jaungoikoa?

E. Leku guztietan, batez bere zeruen, eta Altarako Sakramentu guztiz santuen.

P. Eta Jesukristo, gizona dan aldetik, non dago?

E. Bakarrik zeruen, eta Altarako Sakramentu guztiz santuen.

P. Oraziño guztien artean, zein da oneena?

E. Aite gurea.

P. Zegaitik?

E. Dalako Jesukristok bere aoz esana, Apostoluen eskariz.

P. Zegaitik geiago?

E. Daukezalako zazpi eskari, karidade osoan sustraia daukenak.

P. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa santifikedu bedi zure izena.

P. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Ezagutue eta onradue izan dedilla Jaungoikoaren izena mundu guztian.

P. Zein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erreinue.

P. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Erreiñau dagiela Jaungoikoak gure arimetan, emen lurrean grazie, eta gero emon daigule glorie.

P. Zein da irugarrena?

E. Egin bedi zure borondatea zelan zeruan, alan lurrean.

P. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Egin dagigule, Jaungoikoaren borondatea, lurrean gagozanok, zeruan zorionekoak egiten dauden legez.

P. Zein da laugarrena?

E. Egunean eguneango geure ogie emon egiguzu gaur.

P. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Emon dagigule Jaungoikoak, gorputzek bear daben ianarie; arimeko ianarie, zein dan grazie; eta Sakramentuek arimearentzat beretzat.

P. Zein da bostgarrena?

P. Parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parkatuten deutsegezan legez.

P. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Parkatu dagiguzela Jaungoikoak geure pekatuek geuk parkatuten deutsegun legez, atsekaberen bat emon deuskuneri; edo gatxen bat egin deuskuneri.

P. Zein da seigarrena?

E. Ez egiguzu itxi tentaziñoan iausten.

P. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jaungoikoak ez dagigule itxi iausten, diabruak guri iausi eragiteko dakarguzan pensamentu zitel eta tentaziñoetan, eta ez eurei lekuri emoten.

P. Zein da zazpigarrena?

E. Baña libredu gagizuz gatxerik.

P. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Librau gagizela Jaungoikoak arimeko, eta gorputzeko gatx guztietarik.

P. Zegaitik esaten dozu asieran: «Aite gurea, zeruetan zagozana»? E. Altzauteko biotza Jaungoikoagana, eta eskatuteko mesedeak humiltasunegaz, eta ustebeteagaz.

P. Akaberen esaten dozun berba onek: Amen: zer esan gure dau?

E. Alan izan dedille.

P. Zeintzuk dire Ama Birjiñeari erregututeko orazinorik oneenak?

E. Abe Marie eta Salbea.

P. Nok esan eban Abe Marie?

E. San Grabieli Angeruek, Ama Birjiñeari barri onak emotera etorri zanean.

P. Nok esan eban Salbea?

E. Elexa Ama Santuak dauko beretuta.

P. Zetarako?



- E. Ama Birjiñeari mesedeak eskatuteko.
 P. Abe Marie edo Salbea esaten dozuzenean nogaz berba egiten dozu?
 E. Geure Ama Birjiña guztiz onagaz.
 P. Nor da Ama Birjiña?
 E. Da birtutez beteriko andra bat, Jaungoikoaren Ama, eta zeruen dagoana.
 P. Eta altaran dagoana nor da?
 E. Zeruen dagoanaren irudi bat.
 P. Zetarako dago altaran?
 E. Gu, au ikusite, akordau gaitezan zeruen dagoanagaz; eta bere irudie dalako, erreberentziau dagigun.
MAEXUEK. Bada beste santuen irudi, eta imajiñai bere, alantxe egin bear deutsezu.
 P. Aingeruei eta Santuei bere errezau eta erregutu biar ete deutsege?
 E. Bai, Jaune, geure bitartekoai legez.
 P. Ze gauze dire Angeruek?
 E. Dire Jaungoikoa ikusten dagozan espiritu zorioneko batzuk.
 P. Zetarako egin zituzen Jaungoikoak?
 E. Bera beti alabau, eta bedeinketu dagien.
 P. Zetarako geiago?
 E. Bere Ministroak legez, Elexea gobernetako, eta gizonak iagoteko.
 P. Orrelan zuk bere baukezu zeure Angeru Guardakoa?
 E. Bai, Jaune, bauket, eta gizon bakotxak dauko berea.
MAIXUEK. Bada euki egiozu deboziño andie; eta egunean egunean berari errezau eikiozu.

Irugarren partea, zeñetan espliketari dan, zer egin bear dan

- Ikusi dogu, sinistu eta eskatu bear dozune; dakuskun zelan dakizun egin bear dozune. Esan egizu:
 P. Zein da Jaungoikoaren legeko lelengo mandamentue?
 E. Jaungoikoa amatea gauze guztien ganean.
 P. Nok amaten dau Jaungoikoa?
 E. Bere mandamentu santuek gordetan dituzenak.
 P. Zer da Jaungoikoa amatea gauze guztien ganean?

- E. Gurago izatea gauze guztiek galdu, bera ofendidu baño.
 P. Zetara geiago obligaten gaitu mandamentu onek?
 E. Gorputzeko, eta arimeko alegin guztiekaz bera bakarrik adoretara, beragan sinistu eta itxaroten dogule fede biziegaz.
 P. Nok egiten dau pekatu onen kontra?
 E. Idolo, edo guzurrezko Jaungoikoak adoretan dituzenak; edo eurekgan sinistuten dabenak; edo fedeko misterioaren baten ganean dudararen bat daukanak; edo dotrinea bear dan legez ez dakienak; fede, esperantza, eta karidadeko aktoak bear danean egiten ez dituzenak; edo Jaungoikoaren miseriakorian itxaroten ez dauenak; edo prestaera txarragaz sakramenturen bat artuten dabenak.
 P. Nok geiago?
 E. Aztuai sinistea emoten deutseenak, edo sorginkerietan dabiltenak; edo okerreko gauzakaz, edo oker Jaungoikoa adoretan dabeenak.
 P. Zein da bigarren mandamentue?
 E. Ez juramenturik egitea alperrik.
 P. Nortzuk alperrik juramentu egiten dabe?
 E. Egie baga, justizie baga, edo premiñe baga juramentu egiten dabeenak.
 P. Zer da egie baga juramentu egitea?
 E. Da juramentu egitea, norberaren eretxiaren kontra, edo guzurregaz.
 P. Eta egie bagarik, edo dudan dagoala juramentu egitea, ze pekatu da?
 E. Pekatu mortala, juramentue gauze txikerraren ganean izan arren bere.
 P. Zer da justizie bagarik juramentu egitea?
 E. Da juramentu egitea gauza txarren baterako, esaterako, projimueri gatxen bat egiteko.
 P. Eta ze pekatu da, justizie bagarik juramentu egitea?
 E. Juramentue gauze andiaren ganean bada, pekatu mortala; eta gauze txikerraren ganean bada, pekatu beniala.
 P. Zer da premiñe bagarik juramentu egitea?
 E. Da juramentu egitea, balio gitxiko gauzakgaitik, edo ezeri ez dagokala.
 P. Ze pekatu da au?
 E. Pekatu beniala, egiek eta justiziek lagunduten badeutse.
 P. Eta egiten dabenak boto, juramentu, edo promesen bat, gauza onen bat egiteko, kunplidu biar ete dau?
 E. Bai Jaune, eta ez kunplidutea, edo kunplidu bagarik luzaro eukitea, pekatu mortala da, gauza astunaren ganean izan ezkeru.



P. Eta Jaungoikoak eginiko gauzakgaitik alperrik juramentu egitea, pekatu ete da?

E. Bai Jaune, zegaitik eze, eurretan egiten iako, euren Kriedore Jaungoikoari.

P. Ze moduten juramentu egiten da Jaungoikoak eginiko gauzakgaitik?

E. Esaten dala, kontureko: Neure arimeagaitik, zeruegaitik, lurregaitik juramentu egiten dot; au, edo bestea onelan, edo alan dala.

P. Ze neurri artu giñaike juramentu arpelik ez egiteko?

E. Artu ekandue esateko: Bai, edo ez: onezaz ganera ezerbere esan bagarik, Jesukristok erakusten deuskun legez.

P. Eta mandamentu onetan beste gauzarik galerazoten bada?

E. Bai Jaune, galerazoten da blasfemia bere, zein dan, esatea berba txarrak Jaungoikoagaitik, edo bere santuekgaitik; eta au pekatu mortala da.

P. Zein da irugarrena?

E. Domekak eta iaiek gordetea.

P. Nok gordetan ditu iaiek?

E. Meza osoa entzun, eta premiñe bagarik biarrik egiten ez dabeenak.

P. Eta ze pekatu da domeka eta iaietan premiñe bagarik bear egitea?

E. Ordu bian, edo andik gora bear egiten bada, pekatu mortala: eta ordu bitik beerakoa bada, geienez pekatu beniala.

P. Zein da laugarrena?

E. Aite eta ama onretea.

P. Nok onretan ditu guresoak?

E. Euren esanak egiten dituezanak, euri lagundu, ta lotsea gordeetan deutseenak.

P. Nortzuk egiten dabe pekatu mortala oneen kontra?

E. Etxearen eta arimearen onerako direan gauzetan, gurasoen esanak egiten ez dituezan seme alabak; gurasoi euren premiñetan lagunduten ez deutesanak; erantzuten deutesanak; erremuskadak egiten deutseezanak; eskua jasoten deutseenak; tematuten dituezanak; burla egiten deutesanak; eta ezkondu teko neurri ta asmoetan dabiltzanak, euren barri ta borondate baga.

P. Nortzuk besterik entendietan dira gurasuen izenagaz?

E. Nagosiagoak edadean, onran, eta agintaritzan.

P. Eta mandamentu onetan sartuten ete dire seme alabak gurasoak-ganako daukezan obligaziñoiez ganera, besteren batzuk?

E. Bai Jaune, nagusiagoak euren agindupean daukeezanak ganakoak; eta gurasoak euren seme alabakganako daukeezanak.

P. Zeintzuk dire orreek?

E. Emotea janarie; irakastea dotrinea; kastigetea okerreriaren batzuk egiten dituezeanean; emotea ejenplu ona; eta eurai iagokeen estadua, bere denporan.

P. Ze pekatu egiten dabe, onetan uts egin, edo faltaten dabeenak?

E. Geienez pekatu mortala.

P. Zein da bostgarrena?

E. Ez iñor iltea.

P. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez egitea iñori bere gatxik ez egitez, ez esatez, ezta gurariz bere.

P. Nok egiten dau pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Bere burueri, edo iñorenari eriotzea edo gatxen bat deseaten deutseenak; norbait il, edo zaurituten dauenak; iñor ioten dauenak; osasunean kalte egingo deutesn gauzak iaten dituzenak; bere bizitzea galtzeko arriskuan iarten danak; edo norberaren burue ilten dauenak; eta norberari edo besteri birao egiten deutesanak.

P. Zer da birao egitea?

E. Da eskatutea gatxen bat norberarentzat, edo besterentzat, esango baleu: «Arren bada milla demoniñok infernure eroango al naioek», «Arren bada ortxe illik geldituko al az».

P. Ze pekatu da birao egitea?

E. Gatx andie deseaten baiako, pekatu mortala.

P. Eta gatx andirik deseaten ez baiako?

E. Pekatu beniala, beti ezpada bere.

P. Nortzuk pekatu mortala egiten dabe birao andie eginagaz deseoa txar bagarik?

E. Geienez gurasoak eta nagusiagoak, euren agindupekoen aurrean biraoak egiten dituezanak; biraoak botateko ekandu txarra daukeanak; eta kenduten aleginik egiten ez dabeenak.

P. Zegaitik ori?

E. Euren berba txaar, eta ejenplu deungakaz, besteai pekaturako bidea emoten deutseelako, eta oneri deritxo eskandalue.

P. Zein da seigarrena?

E. Aragizko pekaturik ez egitea.

P. Zer aginduten iaku mandamentu onetan?

E. Izan gaitezala garbiek, pensamentu, berba, eta obretan.

P. Nortzuk egiten dabe pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Borondatez pensamentu loiek daukeezanak, gauze txarrik egin ezarren, eta egiteko deseorik bere euki ezarren; berba loiek esaten dituezanak; kanta zikinek kantaten dituezanak; edo borondatez entzuten ditue-



zanak; besteai tokamentu loiek egiten deutsezanak; euren buruekaz biar ez dan lekuetan nabarmenkeriak egiten dituezanak; edo egiteko gurari ta deseo txarrak eukiten dituezanak.

P. Zein da zazpigarrena?

E. Ez iñori ezer ostutea.

P. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez dagigule kendu, ez euki, ez gure izan iñoren gauzerik iaubea borondatearen kontra.

P. Nortzuk egiten dabe pekatu mortala oneen kontra?

E. Oneetariko edozeinbere gauze egiten dabenak; edo beste moduren baten projimueri kalte egiten deutseenak, dan moduen dala, bere ondasunetan, gauze astunean.

P. Eta oneetan projimueri kalte egiten deutsanak edozeinbere moduten, bauke ezer egin bearrik?

E. Bai Jaune, ainbat lasterren biurtu bear deutse iaubeari, ostu deutsen gauzea; eta osotu, egin deutsezan kalte guztiek.

P. Zein da zortzigarrena?

E. Iñori falso testimoniñorik ez eregitea, eta guzurrik ez esatea.

P. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez egitea projimuagaitik juizio txarrik arin, au da, bide eta motibu bagarik; eta bere txarto eginak ez iñori esatea; eta ez egotea borondatez entzuten.

P. Nok ausiten dau mandamentu au?

E. Juizio txarra errazoiaren kontra, au da, atarako bear dau lainbeste bide, edo motiburik euki baga, projimuegaitik egiten dabenak: iñori kleitue kenduten deutsanak; gauze ixil, ta ezkutukoa agertuten dabenak; eta guzurre esaten dabenak.

P. Eta projimueri kleitue gauza astunean kenduten deutsanak, esanagaz beragaitik egin ez daben gauzeren bat; edo egin dabena, baña ixillean eta ezkutuan dagozana; edo bere utsegite, eta txarto eginakaz arpegian emoten deutsanak, zer egin bear dau?

E. Biurta bear deutso kendu deutsan kleitu, eta onrea.

P. Zer da galarazoten dana bederatzigarren, eta amargarren mandamentuetan?

E. Aragizko atsegiñen, eta iñoren ondasunen gurari, edo deseo bidebagakoak.

ELEXA AMA SANTEAREN MANDAMENTUEK

P. Elexa Ama santearen mandamentuak, zenbat dire?

E. Bost.

P. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa meza osoa entzutea domeka eta iai guztietan.

Bigarrena urtean bein edolabere konfesetea; edo lenago eriotzako peligrurik badago; edo komulgau bear badau.

Irugarrena Garizumako paskoetan komulgetea.

Laugarrena Elexa Ama Santeak aginduten dabenean barau egitea.

Bostgarrena amarrenak eta premeziak Jaungoikoaren Elexeari pagetea.

P. Zetarako dire mandamentu oneek?

E. Jaungoikoaren legekoak obeto gordetako.

P. Eta lelengo mandamentue, zein dan mezea entzutea, nortzuk gorde bear dabe?

E. Uso errazoezkora eldu direan kristiñau guztiek.

P. Zelan entzun bear da mezea?

E. Egonik atenziño, deboziño eta errespeto andiegaz; Jesukristo gure Jaunaren pasiñoa, edo beste gauze onen batzuk buruen darabilguze-la; edo zerbait errezetan, kontureko ogeta amairu Aite gurea, Abe Marie, eta Glorie.

P. Eta motibu andirik euki baga mezea entzuten ez dabenak; edo dagoanak meza guztien, edo zati andien atenziño baga; edo mezarik ez entzuteko arriskuan iarten danak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala.

P. Eta bigarrena eta irugarrena, zeintzuk direan konfesetea eta komulgetea, nortzuk gorde bear dituez?

E. Pekatu mortalaren bean, usu errazoezkora eldu direan kristiñau guztiek.

P. Eta pekatu mortalean komulgetan direanak, mandamentu oneek kunplietan ete dituez?

E. Ezelanbere ez, Jauna; eta Sakramentu bi oneetatik bakotxa, deungaro artuten dabenean, pekatu mortala egiten dabe.

P. Ilteko arriskuen aurkituten danak, konfesorerik ez badauko, zer egin bear dau?

E. Akto kontriziñoeko bat, Neure Jesukristo Jaune biotzez esaten dauela, konfesetako proposituegaz.

P. Eta laugarrena, zein dan barau egitea, nortzuk gorde bear dabe?

E. Ogeta bat urte kunplidu dituezanak.

P. Eta zelan barau egin bear da?

E. Egunean janaldi bat baño egiten ez dala, eragotzirik ez dagozan ianariekaz; eta janaldi au egerdien egin bear da.



P. Eta barau e ausi bagarik, goxean ezer artu ete leike?
E. Bai Jaune, ontza bat legez artu leike, motiburik badago, au txikerra izan arren.

P. Eta gaubean?
E. Artu leike kolaziñotzat, kristiñau oneen artean artu oi dana, itandurik onen ganean, dudarik badago, konfessore iakintsu bateri.

P. Eta nortzuk dauke galerazorik aragie jatea bijilie ta barau eguntan; oneetan nastitutea okelea eta arraiñe iatordu baten; eta iatea arrontzak eta ezneiakiak garizuman, bulderik euki baga?

E. Usu errazozkora eldu direan guztiek.

P. Eta ze pekatu egiten daude, oneek gordetan ez dituezanak?

E. Pekatu mortala, alango egunetan iaten dauden guztietan, eta bakotxean.

OBRA MISERIKORDIEZKOAK

P. Zeinbet dire obra miserikordiezkoak?

E. Amalau: zazpi arimeari, eta beste zazpi gorputzeri iagokazanak.

Arimeari iagokazanak dire oneek:

Lelengoa, ez dakienari irekatzitea.

Bigarrena, bear dabenari, konseju ona emotea.

Irugarrena, erratuten dabena, arteztutea.

Laugarrena, gatx eginak parkatutea.

Bostgarrena, triste dagoana poztutea.

Seigarrena, projimuen utsegite eta argaltasunek, onean igarotea.

Zazpigarrena bizek eta illekgaitik Jaungoikoari erregututea.

Gorputzeri iagokazanak dire oneek:

Lelengoa, gaixoak bisitetea.

Bigarrena, gose danari iaten emotea.

Irugarrena egarri danari edaten emotea.

Laugarrena kautiboak erreskatetea.

Bostgarrena billosak iantzitea.

Seigarrena peregrinuai ostatu emotea.

Zazpigarrena illak enterretea.

P. Zegaitik deritxe miserikordiazkoak?

E. Justiziaz zor ez direalako.

P. Nox dire obligaziñoak?

E. Gizon iakintzuen eretxian, premiñe andikoak direanean.

P. Eta kristiñauak egiten dituzen obra miserikordiezko onekgaitik; eta beste gauze onakgaitik; nai izan premiñazkoak, nai borondatezkoak, zer irabazten dau?

E. Jaungoikoaren grazian badago, euren bitartez geitutea emen grazie ta gero glorie; pagau Jaungoikoari bere pekatuen zorra; eta alkantzau Jaungoikoagandik arimako onera eta mesedeak; baita gorputzekoak bere, arimearen kaltean izango ez badire.

P. Zetarako esaten dozu «Jaungoikoaren grazian badago»?

E. Pekatu mortalean dagozanak egiten dituezan obra onakaz, ez dagoalako irabazirik, ez pekatuen zorra pagetarik; baña alanbere euren bitartez, Jaungoikoagandik mesederen batzuk alkantzau giñekez.

Dotrinearen laugarren partea, zeñetan espliketari direan Sakramentu Santuek

Ikusi dogu zelan dakizun zer sinistu, zer eskatu, eta zer egin bear dozun: dakuskun orain zelan dakizun, zer artu bear dozun, zein dan azkenekoa. Esan egizuz Sakramentu Santuek.

Elexa Ama Santearen Sakramentu santuek dire zazpi. Lelengo bostak dire nai, ta naietzkoak, izatez edo borondatez, zeintzuk baga salbau ezin leitekean, itxiten baditu nagitasunez, edo ezetan ez eukiz: beste biek dire borondatezkoak.

Lelengoa, Bautismue.

Bigarrena, Konfirmazinoia.

Irugarrena, Konfesinoia.

Laugarrena, Komuniñoa.

Bostgarrena Oleaziño santue.

Seigarrena Ordea sagradue.

Zazpigarrena, Matrimoniñoa.

P. Ze gauze dire Sakramentuek?

E. Dire Jesukristo gure Jaunek itxiriko señaile agiri batzuk, euren bitartez emoteko guri grazie ta birtuteak.

P. Zer da grazie?

E. Da izate Jaungoikozko bat, zeñek egiten gaituzen Jaungoikoaren seme, ta zeruko herederu.

P. Eta grazie oneri zelan deritxo?

E. Santututzallea.



P. Eta grazia onezaz ganera, badago beste grazia modurik?

E. Bai Jaune, bagoz beste batzuk, orduberekoak esaten iakeenak, edo laguntasun batzuk, edo argitasun batzuk, zeintzuk bagarik ezin giñaikean asi, ez berari iarraitu, ez bera akabau, betiko bizitza irabazteko gauzerik.

P. Eta ze gauze dire orreek?

E. Dire Jaungoikoak emoten deuskuzen laguntasun batzuk, gauze txarretatik apartetako, eta gauze onak egiteko; esaterako, sermoak entzutea; ejenplu onak ikustea; uste bagako eriotzen barrie artutea; eta argitasun batzuk, zeintzuekaz argituten dituzen Jaungoikoak gure entendimentuek; eta gurari eta deseo santu batzuk, zeintzuekaz mobietan dituzen gure borondateak gauze onetarako.

P. Ze birtute emoten dabe Sakramentuek graziegaz batera?

E. Batez bere iru Jaungoikozkoak.

P. Zeintzuk dire?

E. Fedea, Esperantzea, ta Karidadea.

P. Zer da Fedea?

E. Ikusi ez dogune sinistutea, Jaungoikoak alan agertu dabelako.

P. Zer da Esperantzea?

E. Esperatea zeruko glorie, Jaungoikoaren laguntasunaren, eta geure obra onen bitartez.

P. Zer da Karidadea?

E. Jaungoikoa ametea gauze guztien ganean, eta geure projimue geure burue legez, eurei egiten deutsegule, eurek geuri egitea gure geunkeana.

P. Zetarako da Bautismuko Sakramentu Santue?

E. Kenduteko pekatu orijinala, eta bateatuten danak besterik baleuko bere.

P. Zer da pekatu orijinala?

E. Da ia ioten gareanean, geure lelengo gurasoetatik heredauta dakargune.

P. Premiñeko denporan nok bateatu leike?

E. Edozein bere gizakume, edo emakume, entendimentuko argitasune daukenak.

P. Zelan bateatu bear da?

E. Ure botaten dala seiñaren buruaren ganera, eta onegaz batera esaten dala; bateatuteko gogoagaz: «Nik bateatuten zaitut, Aitearen, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

P. Zetarako da Konfirmaziñoeko Sakramentu Santue?

E. Bautismuen artu genduzen fedean konfirmatu eta sendatuteko.

P. Usu errazoezkora elduta, Sakramentu Santu au pekatu mortalean artuten dabenak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatua mortala.

P. Zer egingo dau bada artuten dauenean, pekatu rik ez egiteko?

E. Aurrez prestau, konfesiño on bat eginik.

P. Zetarako da Konfesiñoeko Sakramentu Santue?

E. Bateatu ezkeru eginiko pekatuek parkatuteko.

P. Ze pekatu dire orreek?

E. Mortalak, eta benialak.

P. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatea, egitea, pensatea, edo deseatea zerbait Jaungoikoaren legearen kontra gauza astunaren ganean.

P. Zegaitik deritxu mortala?

E. Ilten dabelako egiten dabenaren arimea.

P. Nox artuten dogu konfesiñoeko Sakramentu Santuba?

E. Ondo konfesaute absoluziñoa artuten dogunean.

P. Konfessore Jaunak konfesetan danari absoluziñoa emoten deusanean, ze berba esaten deus?

E. «Nik parkatuten deusudaz zure pekatubak».

P. Eta parkatuten ete iakoz?

E. Ondo prestanta badoa konfesetan dana, bai: ain ziur, zein parkatua iakozan Madaleneari, Jesukristok esan eutsanean: Remittuntur tibi pekata tua.

P. Zeinbet gauze bear dire Konfesiñoa ona izateko?

E. Bost Jaune.

P. Zeintzuk dire?

Lelengoa Esaminea.

Bigarrena lengo pekatuen damua.

Irugarrena, ez geiago pekatu rik egiteko propositua.

Laugarrena pekatu guztiek konfesetea.

Bostgarrena Satisfakzinoa.

P. Zer da Esamiñea?

E. Da aleginek egitea pekatuek burure ta gogora ekarteko; edo zeinbet pekatu egin deuen iakiteko.

P. Nondik egingo da Esamiñea?

E. Jaungoikoaren legero amar mandamentu santuetatik; bost Elexakoetatik; amalau obra miserikordiezkoetatik; pekatu kapitaletatik; eta bakotxaren obligazinoetatik.

P. Zer da esamiñea aurrean egin bear dana?



E. Jaungoikoari argitasune eskatu bere pekatuek ezagututeko.
P. Zer da damue?
 E. Artutea biotzean egin dan pekatuaren garbai, pena, eta atsekabea.
P. Zeinbet modutekoa da damue?
 E. Modu bitekoa.
P. Zeintzuk dire?
 E. Amodiozko, edo Kontriziñokoa bata; eta bildurrezkoa, edo Atriziñokoa bestea.
P. Amodiozko, edo Kontriziñoko damue zer da?
 E. Da artutea damu bizi bat, ofendidu dabelako Jaungoikoa, izanik ain ona; konfesetako, onduteko eta penitentie kunplietako intenziñoagaz.
P. Zer da Bildurrezko, edo Atriziñoko damue?
 E. Da eukitea damu bizi bat Jaungoikoa ofendidu dabelako; edo pekatuen ezaintasunegaitik; edo infernuen bildurregaitik; edo Zeruko glorie galdu dabelako; edo bere arimea guztiz ezaindu dabelako, konfesetako, onduteko, eta penitentie kunplietako intenziñoagaz.
P. Damu bi oneetatik oneena zein da?
 E. Amodiozko, edo Kontriziñokoa.
P. Zegaitik?
 E. Kontriziñokoa datorrelako amodiotik, eta Atriziñokoa bildurretik: Kontriziñoko damuegaz konfesau baño lenago parkatuten dire pekatu mortalak, eta geldituten da Jaungoikoaren grazian; baño atriziñoagaz bakarrik, ez dire alkantzetan arimako ondasun andi oneek.
P. Konfesiñoa ona izateko asko ete da atriziñoko damue, ala kontriziñokoa bear ete da?
 E. Geienak diño, asko dala atriziñokoa; baño obetuago eta segu-ruago dala kontriziñokoa; eta au eukiteko alegiñe egin bear dabela konfesetan danak.
P. Nox euki bear da damue?
 E. Konfesoreak absoluziñoa emon baño lenago.
P. Zer da Propositue?
 E. Da artutea intenziño edo borondate sendo ta firme bat, ez iñoz geiago pekatu mortalik egiteko.
P. Zer da Konfesiñoa?
 E. Da esatea ziatz eta argiro konfesoreari pekatu mortal guztiek, penitentie kunplietako borondateagaz.
P. Itxiten dabenak lotsaz konfesau bagarik pekatu mortalen bat; edo konfesetan dabenak egin ez daben pekatu andiren bat; edo konfesetan

danak damu baga; propositu baga; edo penitentie kunplietako borondate baga, konfesiño ona egiten ete dau?
 E. Ez Jaune, egiten dau Sakrilejioko pekatu mortal andi bat; eta konfesau bear ditu barrero, len konfesauak, eta konfesau bagakoak; baitabere konfesiño ta komuniñu txarrakaz egin dituzen sakrilejioko pekatuek.
P. Nortzuk uste izan leike ez dabeela euki damurik, ez propositurik euren konfesiñoetan?
 E. Pekatuko okasiñoetatik alde egiten ez dabeenak; eta konfesiño batetik bestera, leengo pekatuetara biurtuten direanak.
P. Eta damu ta, propositu egiazkoa artuten lagunduteko zer egitea ondo izengo da?
 E. Konfesau baño leenago eskatu Jaungoikoari, konfesiño on bat egiteko laguntasuna; erabili gogoan Jaunak egin deutzazan mesedeak; edo bere pasiñoa; edo bere eriotzea; edo bere ontasune; eta esan bein, birriten, eta geiagotan: Neure Jesukristo Jaune.
P. Zer da Satisfakziñoa?
 E. Da pagetea Jaungoikoari geure pekatuen zorra, kunplietan dogule konfesoreak iminten deuskun penitentie.
P. Eta, ze pekatu egiten dau penitentie kunplietan ez dabenak, edo luzaro kunplidu bagarik daukanak?
 E. Pekatu mortala, penitentie andie bada.
P. Pagau ete ginaikeo Jaungoikoari geure pekatuen zorra, konfesoreak iminten deuskun penitentie ganera, beste gauzegaz?
 E. Bai Jaune, Jaungoikoaren grazian gagozala egiñiko obra on guztiakaz, eta induljenziak irebaziegaz.
P. Zer dire Induljenziak?
 E. Dire Elexa Ama Santeak emoten dituzen grazie batzuk, zeintzuekgaitik parkatuten dan, pekatuakgaitik mundu onetan, edo bestean igaro bearko litekean pena eta kastinge.
P. Zelan irebaziko dire?
 E. Eginik Jaungoikoaren grazian, onetarako aginduten dana.
P. Mundu onetan euren pekatuen zorra pagau ez ebelako purgatoriora doazanai, guk lagundu ete ginaikete?
 E. Bai Jaune, geure pekatuen zorra pagau ginaikean obra onakaz eurakaz.
P. Eta norbait pekatu mortalean iausten danean, konfesau bear ete dau laster bereala, parkatua izan dakion?



E. Guztiz ondo izango litzate; baña ez dago berarizko agindurik. Alanbere iakin bear da, pekatu mortalean lo egitea, infernuko atetan lo egitea legez dala.

P. Zer da pekatu beniala?

E. Da esatea, egitea, pensatea, edo gurea izatea zerbait Jaungoikoaren legearen kontra txikiaren ganean.

P. Zegaitik deritxo beniala, edo ariña?

E. Arin eta erraz beratan iausten garealako, eta arin eta erraz parkatuten iakuleko.

P. Zeinbet gauzegaitik parkatuten da pekatu beniala?

E. Bederatzigaitik.

P. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa meza entzuteagaitik.

Bigarrena, komulgeteagaitik.

Irugarrena, Ni pekarie esateagaitik.

Laugarrena Obispo Jaunaren bendiziñoagaitik.

Bostgarrena ur bedeinketuegaitik.

Seigarrena ogi bedeinketuegaitik.

Zazpigarrena, Aite gurea esateagaitik.

Zortzigarrena sermoea entzuteagaitik.

Bederatzigarrena, bulerra ioteagaitik Jaungoikoari parka eskatuten iakola.

P. Zegaitik esaten dozu: «Jaungoikoari parka eskatuten iakola?»

E. Adierazoteko, pekatu benialen parkaziñoa alkantzauko bada gauze oneen bitartez, euki bear dogule euren damu onen bat.

P. Konfesau bear ete doguz pekatu benialak?

E. Ondo litzateke, baña ez da premiñezko gauzea.

P. Eta orainengo konfesinotik ona pekatu benielak baño ez daukezanak, zer egin leike, damue ta propositue obetoago eukiteko?

E. Konfesau lelengo, orainengo konfesinotik onako pekatu benielak; eta gero leengo bizitzeko pekatu mortalen bat.

P. Zetarako da Sakramentu santu Komuniñoakoa?

E. Ondo prestaute artuten bada, izan dedin gure arimen ianarie, eta grazie geitu dagigun.

P. Zegaitik diñozu: «Ondo prestaute artuten bada?»

E. Adierazoteko, Sakramentu santu au ez dala izango gure arimen ianarie, artuten ez badogu bear direan prestaerakaz, bai arimearen aldetik, bai gorputzaren aldetik.

P. Ze prestaera bear da bada arimearen aldetik?

E. Jaungoikoaren grazian egotea.

P. Eta pekatu mortalean iausi dana, zelan prestauko da Komulgetako?

E. Konfesiño on baten bitartez.

P. Eta konfesiño ostean pekatu mortalen bat akordetan iakonak, zer egin bear dau?

E. Konfesau barrero, Komulgau baño lenago.

P. Gorputzaren aldetik ze prestaera bear da?

E. Baraurik egotea (Komuniño Santue Elexakoak artuteko ez danean) ezerbere ian ez edan bagarik, igaro dan gabeko amabietatik aurrera.

P. Komuniñoako Sakramentu Santuen zer artuten dozu?

E. Jesukristo, Jaungoiko ta gizon egiezkio, Altarako Sakramentu Santuen egie guztiegaz dagoana.

P. Nor dago ostriyan Konsagraziñoako berbak esan ezkerio?

E. Jesukristoren gorputze, bere odol, arime, eta Jaungoikotasunegaz batera.

P. Eta kalizan?

E. Jesukristoren odola, bere gorputz, arime ta Jaungoikotasunegaz batera.

P. Orrelan Jesukristo guztie dago ostriyan, eta guztie Kalizan?

E. Bai Jaune, Jesukristo guztie dago ostriye guztien, guztie ostriyearen edozein zatiten, eta bardin kalizean.

P. Konsagraziñoako berbak esan ezkerio, ete dago ostriyan ogirik; edo kalizan ardaorik?

E. Ez Jaune, ezpada ogiaren eta ardaoaren antz eta irudiak, zeintzuk direan, useine, kolorea, guztue.

P. Eta zatituten bada ostriyea, edo erdibituten bada kalizan dagoana, zatituten, edo erdibituten da Jesukristo?

E. Ez Jaune, guztie osorik geldituten da zati guztietan, eta bakotxean.

P. Pekatu mortalean komulgetan danak, artuten ete dau Jesukristo?

E. Bai Jaune, baña bere kaltean; bada egiten dau Sakrilejioko pekatu mortal ikaragarri bat.

P. Eta ondo prestaute artuten dabeenak, zer egin legie, grazie andiegoak artuteko?

E. Komulgau baño lenago gogoan erabilli, nor dan eurekgana datorren Jaune; egin sarriten fede, esperantza, eta karidadeko aktoak; Komulgau umiltasun, fede bizi, ta deboziño andiegaz; eta gero emon eskerrak Jesuseri, egin deutzan mesede ain andiegaitik.

P. Zetarako da Oleaziñoako Sakramentu Santue?



E. Iru gauzetarako.

P. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa, lenagoko bizitze txarreko errastuek eta apurrek kendu-
teko.

Bigarrena, sendotuteko arimea deabruaren esetsi eta tentaziñoen
kontra.

Irugarrena, emoteko gorputzeko osasune, arimearen kaltean izango
ez bada.

P. Ezauerara eldute, ilteko arriskuen gaixorik dagozanak, artu bear
ete dabe Sakramentu santu au?

E. Bai Jaune, eta pekatu mortala egiten dabe, al dabeela, artuten ez
badabe, edo artuten badabe pekatu mortalean.

P. Zer egingo dau bada pekatu mortalean dagoanak, ondo prestaurik
artuteko?

E. Konfesiño on bategaz garbitu bere arimea, eta ezin bada konfe-
sau, egin akto kontrizino bat, edo batzuk.

P. Zetarako da Sakramentu Santu ordeakoa?

E. Konsagrateko, eta ordenduteko elesgizon duiñak, zelan direan
Sazerdote Jaunak, Diakonuak, eta Subdiakonuak.

P. Eta elezgizonai, eta batez bere Sazerdote Jaunai, gorde bear ete
iake berarizko lotsa, itzal, eta errespetoa?

E. Bai Jaune.

P. Zetarako da Sakramentu santu Matrimoniokoa?

E. Ezkonduteko, eta emoteko grazie ezkonduai, euren artean bake
santu baten biziteko, eta seme alabak zerureko aziteko.

P. Eta Sakramentu santu au ondo artuteko, ezkonduten direanak
egon bear ete dabe Jaungoikoaren grazian?

E. Bai Jaune.

P. Eta Jaungoikoaren grazian ez dagozanak, zelan prestau bear dabe,
ondo artuteko?

E. Konfesino on bategaz.

PEKATU KAPITALAK DIRE ZAZPI

Lelengoa, Arrokerie.

Bigarrena, Abarizie.

Irugarrena, Lujurie.

Laugarrena, Aserre txarra.

Bostgarrena, Gulerie.

Seigarrena onaren damue.

Zazpigarrena gauze onetarako nagitasune.

P. Zegaitik deituten deutsezu Kapitalak, geienean mortalak esaten
iakeen zazpi pekatu oneiri?

E. Deituten iakee Kapitalak, direalako, euretatik urteten dauden beste
pekatuen buru, iturri eta sustraiek legez: etxatorkee barriz ain ondo mor-
talen izena; bada askotan ez dire benielak baño.

P. Nox dire mortalak?

E. Jaungoikoaren edo projimuaren karidadearen kontra diranean.

P. Nox dire karidadearen kontrakoak?

E. Euren bitartez ausiten danean Jaungoikoaren legeko, edo Elexa
santearen mandamenturen bat gauze astunean.

P. Zer da arrokerie?

E. Da besteak baño geiago izateko gurari edo deseo bidebagako bat.

P. Zer da abarizie?

E. Da munduko ondasunen gurari, edo deseo larregi bat.

P. Zer da lujurie?

E. Da gorputzeko atsegin loien gurari edo deseo bidebagako bat.

P. Zer da ira, edo aserre txarra?

E. Da projimueri bengetako gurari edo deseo txar bat.

P. Zer da gulerie?

E. Da ondo ian, ondo edan, eta gorputze larregi gozatu eta eregeta-
ko gurari geiegi bat.

P. Zer da Inbidie, edo ondamue?

E. Besteen ona ikusi eziñe.

P. Zer da nagitasune?

E. Da gauze onetarako iausitasune, astuntasune, eta narrastasune.

ZAZPI PEKATU ONEEN KONTRA DAGOZ ZAZPI BIRTUTE

Arrokeriaren kontra Humiltasune.

Abariziaren kontra Prestutasune.

Lujuriaren kontra Kastidatea.

Ira, edo aserre txarraren kontra Pazienzie.

Guleriaren kontra Tenplantzea.

Enbidiaren kontra Karidadea.

Nagitasunaren kontra Prestatasune, edo Bizkortasune.

IÑES EGIN BEAR DEUTSEGÜEN ARIMEKO ARERIOAK DIRE IRU



Lelengoa mundue. Bigarrena Démoniñoa. Irugarrena Aragie.

P. Zein da Mundue?

E. Dire gizon mundutar, gaisto, eta deungak.

P. Zein da Démoniñoa?

E. Da Jaungoikoak zeruen egin eban Aingeru bat, baña Jaungoikoaren kontra iaiki zalako, Jaungoikoak beste askogaz bota eban infernuetara, bere gaiztakerieko lagunekaz, zeintzuei deituten deutsegen Démoniñoak.

P. Zein da Aragie?.

E. Da geure gorputza bera, bere griña ta pasiño txar, eta gurari edo deseoa zitalakaz.

P. Zelan azporetuten da mundue, eta iñes egiten da beragandik?

E. Beragandik iñes egiten dala; eta bere arrokerie ta zorakeriak despreziauagaz.

P. Zelan azporetuten da demoniñoa, eta iñes egiten da beragandik?.

E. Oraziñoagaz eta Humildadeagaz.

P. Zelan azporetuten da aragia, ta iñes egiten da beragandik?.

E. Barauekaz, zilizioakaz, azoteakaz, eta lastasunekaz. Au da gure areriorik andiena, bada ezin bota ginaike geugandik: mundue, eta demoniñoa bai.

BIRTUTE TEOLOGALAK, EDO JAUNGOIKOAGANANTZ-KOAK DIRE IRU

Lelengoa Fedea. Bigarrena Esperantzea. Irugarrena Karidada.

P. Zelan egongo gara utsik egin baga, birtute oneen aktoak egiteko daukegun obligaziñoan?

E. Errezetan doguzela sarritan eta deboziñoz (edozein kristiñauk bear daben legez) Kredoa, Aite gurea, eta biotzetik esanagaz: Neure Jesukristo Jaune. Alanbere guztiz ondo da, aktoak eurak sarriten egitea.

BIRTUTE KARDINALAK DIRE LAU

Lelengoa, Prudenzie. Bigarrena, Justizie. Irugarrena Sendotasune. Laugarrena Tenplanzie.

GORPUTZEKO SENTIDUEK DIRE BOST

Lelengoa, begiekaz ikustea.

Bigarrena, belarriekaz entzutea.

Irugarrena aoagaz guztue artutea.

Laugarrena surregaz usein egitea.

Bostgarrena eskuekaz ukututea.

P. Zetarako emon euskuzen Jaungoikoak sentiduek, eta gorputzaren beste zatiek?

E. Guztiekaz, eta gauze guztietan bera serbidu ginaien.

ARIMEKO POTENZIARIK DIRE IRU

Memorie: Entendimentue: ta Borondatea.

P. Zetarako emon euskun Jaungoikoak Memorie?

E. Akordau giñaitez beragaz, eta bere mesedeakaz.

P. Zetarako emon euskun Entendimentue?

E. Bera ezagututeko, eta bera sarriten gogoan erabilteko.

P. Zetarako emon euskun Jaungoikoak borondatea?

E. Amau giñaien ontasun osoa legez, eta projimue beragaitik.

P. Zer da gure arimea?

E. Da Espiritu bat, il ezin leitekeana, Jaungoikoak ezerezetik bere antz, eta irudira egia.

ESPIRITU SANTUAREN DOEAK DIRA ZAZPI

Lelengoa Iakituriako doa.

Bigarrena Entendimentuko doa.

Irugarrena Konsejuko doa.

Laugarren Iakituriako doa.

Bostgarren Sendotasuneko doa.

Seigarren Piedadeko doa.

Zazpigarrena Jaungoikoaren bildur santuko doa.

ESPIRITU SANTUAREN FRUTUEK DIRE AMABI

Lelengoa Karidada. Bigarrena Bakea. Irugarrena Biotzeko anditasune. Laugarrena Biguntasune. Bostgarrena Fedea. Seigarrena Kontinenzie. Zazpigarrena Arimeko Poza. Zortzigarrena Pazienzie. Bederatzigarrena Ontasune. Amargarrena Otsantasune. Amaikagarrena Modestie. Amabigarrena Kastidada.

ZORTZI ZORIONTASUNEK

1. Zorionekuak espirituz pobreak direanak, euren dalako zeruetako erreinue.

2. Zorionekuak otsanak edo mansoak lurraren iaubeak eurek izango direalako.



3. Zorionekoak negar egiten dabeenak, eurek poztuek izango dire-lako.
4. Zorionekoak gauze onen eta santuen gose ta egarri direanak, eurak ase ta beteak izango direlako.
5. Zorionekoak errukiorrak, bada eurentzat Jaungoikoaren errukie izango da.
6. Zorionekoak biotz garbikoak, eurak Jaungoikoa ikusiko dabeelako.
7. Zorionekoak baketsuak, zegaitik eze eurai Jaungoikoaren semeen izena emongo iakee.
8. Zorionekoak, gauza onakgaitik persekuziñoa igaroten dabeenak; bada eurena izango da zeruetako erreinue.
- P. Zertzuk esan doguz orain?
- E. Zortzi zoriontasunek.
- P. Ze gauze dire zortzi zoriontasun oneek?
- E. Espiritu Santuaren birtute eta doien obrarik oneenak.
- P. Nortzuk dire espirituz pobreak?
- E. Ez dabeenak gura munduko onrarik, ez aberastasunik, bere terzio ta neurrikorik bere, edolabere biotza euretan imiñirik ez daukeenak.
- P. Nortzuk dire otsanak?
- E. Aserrerik iñoz bere ez daukeenak, ez da piske piskerik bere.
- P. Zelan izango dire lurraren iaubeak?
- E. Euren buruen iaube izanagaz.
- P. Nortzuk dire negar egiten dabeenak?
- E. Atsegirik laburrenak bere itxiten dituezanak.
- P. Nortzuk dire gauze onen eta santuen gose eta egarri direanak?
- E. Euren obligaziño guztiek, guztiz ardure ta kontu andiegaz kunpliduten dituezanak.
- P. Nortzuk dire errukiorrak?
- E. Iñori bere ondo baño besterik gure ez deutenak.
- P. Nortzuk dire biotz garbikoak?
- E. Euren gurari ta deseo txar guztiek guztiz azpiratu, ta berpertatik botatzen dituezanak.
- P. Nortzuk dire baketsuak?
- E. Euren buruen, eta besteen arteko bakegillak.
- P. Nortzuk dire justiziegaitik persekuziñoa sufrietan dabeenak?
- E. Gauze on guztietan gogor ta sendo dagozanak, persegiduek izan arren.
- P. Zegaitik deritxoe oneiri zoriontasunek?

E. Euretán dagoalako bizitze onetakoa, eta beste bizitzakoaren itxaropena.

P. Zeinbet dire gizonen azkenak?

E. Lau. Eriotzea, Juizioa, Infernue, ta Glorie.

P. Zer da Glorie?

E. Da bizitze bat, atsegin eta gozotasun guztiek oso osorik dagozana; eta zeñetan aurkituten direan zoriontasun guztiek, gatxaren apurrik ere baga: infernuen dagozan legez gatx eta pena guztiek, gauze onik bat bere baga.

P. Eta infernue ez ioateko, eta zerue irebazteko, zer egin bear dogu?

E. Gorde mandamentu Santuek.

P. Eta, ete dagoz beste neurriren batzuk, errazago gordetako mandamentu santuek, eta euretán ez utsik egiteko?

E. Bai Jaune.

P. Zeintzuk dire?

E. Sarritan konfesetea, eta komulgetea; egun guztietako lanak eta bearrak goxean goxean Jaunari eskiñitea; egun guztietan aleginaz meza entzutea; gau guztietan errosarioa errezetea; lau azkenak sarritan gogoan erabiltea, liburu onak irakurtea, gau bakotxean egun atako esamiñea egitea....eta baten asko esateko, artutea konfessore on bat, iakintsu, eta begiratua, eta berak aginduten deusn guztie egitea.

MAIXUAK. Ondo diñozu; bada San Franzisko Salesek dinuan legez, salbetako bear diren konseju guztiek dagoz sartute, konfessore on bat artutean. Egizu bada zuk bere alantxe; bada bera izango da zuretzat angeru bat legez, zuzenduko zaituzana, neurri oneekaz, eta beste, berari deritxazanakaz, iarraitu dagiozun sendo, ta firme zeruko bideari, eta gero eldu zaitezán Jaungoikoa ikustera betiko zoriontasunean, zeñetarako egiñek izan giñean.

Jaungoikoak guztiok ara eroan gagizela. Alan izan dedilla.

NI PEKATARIE

Ni pekatari au konfesetan natxako Jaungoiko guztiz poderosoari, Andra Marie beti Birjiñeari, San Migel Angerueri, San Juan Bautisteari, San Pedro ta San Pablo Apostolu santuai, Santu guztiai, ta zeuri neure ari-meko aite, egin dodala pekatu pensamentuz, berbaz eta obraz, neure erruz, neure erruz, neure erru andiegaz. Orregaitik erregututen deutset Andra Marie beti Birjiñeari, San Migel Aingerueri, San Juan Bautisteari, San Pedro ta San Pablo Apostolu santuei, Santu guztiei, ta zeuri neure ari-meko aite, erregutu dagiozule nigaitik neure Jaun eta Jaungoikoari. Amen.



NEURE JESUKRISTO JAUNE

Neure Jesukristo Jaune, Jaungoiko, ta gizon egiezkua, neure Egillea ta neure Salbagillea, zareana zarealako, eta ametan zaitudazalako gauze guztien ganean, damu dot Jaune, damu dot biotz guztitik zu ofendidu zaitudazalako; artuten dot propositu firme bat, ez geiago pekatu egiteko, konfesetako; iminten iatan penitentie kunpletako, pekatuko bide guztietatik alde egiteko. Eskintzen deusudaz, Jaune, neure bizitze, obra eta neke guztiek, neure pekatu guztien satisfakziñorako: eta itxaroten dot zure ontasun, eta erruki amaibagakoan, parkatuko deustazuzela zeure odol guztiz prezioso pasiño, ta eriotzeagaitik; eta emongo deustezule grazie onduteko, eta zeu serbietan irauteko neure eriotzako ordura artean. Amen.

OROZKOKO DOTRINA

Orozkoko euskeran

Sarrerea

Kristiñau fiel guztiak
 Dagoz guztiz obligaurik,
 Deboziño artutera
 Euren biotz guztirik;
 Jesus gure argiaren
 Kurtze santuari,
 Non il gura izan eban
 Gu ateratearren
 Gure pekatuaren
 ta arerio gaistobaren
 menpetasunetik.
 Orregaitarren bada
 usau bear zara,
 Bai ziñatutera, ta
 Bai santigetara:
 Eginik iru kurtze
 Bata bekokiin,
 Jaunak librau gaizan
 Pensamentu deungetarik.
 Bigarrena aoban
 berba deungetarik.
 Irugarrena bularrean
 Jainkobak librau gaizan
 Obra, gogo txarretarik.
 Onantxe esanik:
 Kurtze Santearen + señaileagaitik,
 Geure + arerioetarik
 Libradu gaizuz + geure Jauna,
 Eta Jaungoikoba.
 Aitearen + ta Semearen, ta Espiritu Santuaren izenean. Amen.



Aita Gurea

Aita gurea, zeruetan zagozana: santifikedu bedi zure izena: betor gugana zure erreinua: egin bedi zure borondatea, zelan zeruin, alan lurrean. Emon egiguzu gaur geure egunean eguneango ogia; eta parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parketan deutsegüezan legez: eta ez egiguzu itxi tentaziñoban iausten: baia libradu gagizuz gatxerik.Amen.

Abe Maria

Abe Maria, graziaz betea, Jauna da zugaz, bedeinkatua zara zu andra guztien artean, ta bedeinkatua da zure sabeleko frutua, Jesus.- Santa Maria, Jaungoikobaren Ama, erregutu egizugu pekatariokgaitik, orain, eta geure eriotzako orduin. Amen.

Kredoba

Sinistuten dot Jaungoiko Aita guztiz poderoso Zeruaeren ta lurraren Kreadoreagan, eta bere seme bakar Jesukristo gure Jaunagan, zein sortu zan Espiritu santuaren obraz ta graziaz; iaio zan Maria Birjineaganik; padezidu euen Ponzio Pilatosen aginduaren bean: izan zan kurtzean iosia, illa, eta enterradua; iatsi infernuetara; arik irugarren egunean erresuzitau zan illen arterik, igon euen zeruetara, an dago iarririk Aita Jangoiko guztiz poderosobaren alde eskomatatik: arik etorriko da biziak eta illak juzgetan. Sinistuten dot Espiritu Santuagan, Elexa Santa Katolikea, Santuen Komuniñoba pekatuen parkaziñoba, aragiaren erresurreziñoba, sekulako bizitzea. Amen.

Salbea

Salbe Erregiña, ta Ama errukizkoba, bizitza; gozotasun ta esperanza geurea: Salbe. Zuri deiez gagoz Ebaren ume desterraduok: zugana

gagoz zizpuruz, llantuz, eta negarrez, negarrezko erri onetan. Ea bada, Andrea, bitarteko geurea, biurtu egizuz guganantxa zure begi errukitsu orreek; eta destierruan igarota, erakutsi egiguzu Jesus, zeure sabeleko frutu bedeinkatua. O biotz biguna! O errukiorra! O Maria, Birjina gozoba! Erregutu egizu gugaitik Jangoikoaren Ama Santea; merezidu daigun alkantzetea Jesukristoren promesak. Amen Jesus.

Jaungoikoaren legeko mandamentuak dira amar:

lelengo irurak pertenezietan iaokoz Jaungoikoaren onreari: eta beste zazpirak projimuaren probetxuari.

Lelengoa Jaungoikoa ametea gauza guztien ganean.

Bigarrena, bere izen santuagaitik ez egitea jurementu arpelik.

Irugarrena, domekak eta iaiak santututea.

Laugarrena, Aita eta Ama onretea.

Bostgarrena, ez iñor iltea.

Seigarrena, aragizko pekatuak ez egitea.

Zazpigarrena, iñori ezer ez ostutea.

Zortzigarrena, iñori falso testimoniorik ez eregitea, ta guzurrik ez esatea.

Bederatzigarrena, lagunaren emazterik ez deseetea.

Amargarrena, iñoren ondasunen deseo bidebagakorik ez eukitea.

Amar mandamentu oneek sartuten dira bitan: Jaungoikoba amau ta serbiete gauza guztien ganean, eta guztiak baño geiago, eta projimua geure burua legez. Amen.

Fedeko artikulua

Fedeko artikulua dira amalau: lelengo zazpirak dira Jaungoikotasunaren ganean: ta beste zazpirak, Jesukristo gure Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazkobaren gizontasun santuaren ganean.

Jaungoikotasunaren ganekobak dira oneek

Lelengoa, sinistu Jaungoiko guztiz poderoso bakar bategan.

Bigarrena, sinistu dala Aitea.

Irugarrena, sinistu dala Semea.

Laugarrena, sinistu dala Espiritu Santua.



Bostgarrena, sinistu dala Kreadorea.
Seigarrena, sinistu dala Salbadorea.
Zazpigarrena, sinistu dala Glorifikadorea.

Gizontasunaren ganekoak dira oneek.

Lelengoa ,sinistu Jesukristo gure Jauna, gizona dan partez, sortua izan zala Espiritu Santuaren obraz ta graziaz.

Bigarrena, sinistu iaio zala Maria Birjineaganik, andra au donzella geldituten zala, semea iaio baño lenago, iaiokeran, eta iaio azkeru.

Irugarrena, sinistu artu zituzala eriotzea ta pasiñoa, gu pekatariok salbetarren.

Laugarrena, sinistu iatsi zala infernuetara, eta atera zituzala, bere etorrera santuaren begira egozan arimak, Guraso Santuenak.

Bostgarrena, sinistu irugarren egunean biztu zala illen artetik.

Seigarrena, sinistu igon ebal Zerueta eta an dagobala iarririk Aita Jaungoiko guztiz poderosobaren eskomatatik.

Zazpigarrena, sinistu arik etorriko dala biziak eta illak juzgetan: onai emoitiko betiko gloria, bere mandamentu Santuak gorde zituezalako: eta deungai betiko infernua gorde etzituezalako.

Kristiñauen doktrinearen esplikaziñoa itandu, ta erantzuten dala

Itanduten dot: Kristiñaua zara?

Erantzuten dot: Bai Jauna, Jangoikobaren graziagaitik.

I. Kristiñauaren izen ori noganik iatortzu?

E. Kristo geure Jaunaganik.

I. Zer esan gura dau Kristiñauik?

E. Kristoren gizona.

I. Eta zer esan gura dau Kristoren gizonak?

E. Jesukristoren fedea daukan gizona, zein artu eban bautismu santuin, eta Jesukristo bera serbietako ofrezidurik dagobana.

I. Zein da Kristiñauaren señaleara?

E. Kurtze santua.

I. Zegaitik?

E. Dalako Kristo kurtzifikaduaren irudia zeñetan erredimidu ginduzan.

I. Zeinbat modutan egiten dau Kristiñauik señaleara?

E. Bitan.

I. Zeintzuk dira?

E. Ziñatutea, eta santigetea.

I. Zer da ziñatutea?

E. Da egitea iru kurtze eskomako eskuko orkorobagaz: lelengoba bekokiin: bigarrena agoban: irugarrena bularrean, geure Jaungoikobagaz berba egiten dogula.

I. Erakutsi zelan?

E. Kurtze santearen señalearagaitik geure arerioetarik, libradu gagizuz geure Jauna, ta Jaungoikoa.

I. Zegaitik zeñatuten zara bekokiin?

E. Jaungoikobak librau gagizantzat pensamentu deungetarik.

I. Zegaitik aoan?

E. Jaungoikobak librau gagizantzat berba deungetarik.

I. Zegaitik bularrean?

E. Jaungoikoa librau gagizantzat obra ta deseo deungetarik.

I. Zer da santigüetea?

E. Da egitea kurtze bat eskomako eskuko orkorotik urrengo atz biakaz, bekokirik bularrera, ta ezkerreko sorbaldarik eskomakora, Trinide guztiz santua aitatuten dogula.

I. Erakutsi zelan?

E. Aitearen eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

I. Nois egin bear dozu señaleara?

E. Obra onen bat asiten dogun guztian, edo tentaziñoren baten, premiña, edo arriskuren baten aurkituten gareanean: batez bere oera gozanean, oetik iakitorduin; etsetik urteitorduin, Elexan sartuten gareanean, eta iatera gozanean.

I. Zegaitik orrenbeste bider?

E. Zegaitik denpora ta leku guztietan, tentau ta persegetian gaituezan geure areribak.

I. Ze arerio dira orreek?

E. Demoniñoa, Mundua, ta Aragia.

I. Eta kurtzeak ete dauko orreen kontra indarrik?

E. Bai Jauna.

I. Nondi dauko kurtzeak indar ori?

E. Kristok beratan bere eriotzeagaz benzidu zituzalako.

I. Kurtzea adoretan dozunean, zelan esaten dozu?

E. Adoretan zaituguz, eta bedeinkatuten zaituguz, zeure kurtze santueguz mundua erredimidu zendualako.



Kristiñauak iakin bear dituzan gauzak

Ekusi dogu kristiñaua zareala, Kristiñauaren izeneti, ta señaleti: Esan egidazu orain:

I. Zeinbat gauza iakin, ta entendidu bear dituz Kristiñauak, usu errazoezkora eltzaiten danean?

E. Lau gauza.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengoa, iakitea zer sinistuko dauen: bigarrena zer eskatuko dauen: irugarrena zer egin edo obrauko dauen: eta laugarrena, zer artu edo errezibiduko dauen.

I. Zelan iakingo dau zer sinistuko dauen?

E. Iakinik, eta entendidurik Kredoa, edo Artikulu fedekoak.

I. Zelan iakingo dau zer eskatuko dauen?

E. Iakinik eta entendidurik Aita gurea, eta Elexa Ama Santearen beste oraziñobak.

I. Zelan iakingo dau zer obrauko dauen?

E. Iakinik eta entendidurik Jaungoikoaren legeko amar mandamentuak, bost Elexakoak, eta obra miserikordiazkoak.

I. Zelan iakingo dau, zer errezibiduko dauen?

E. Iakinik eta entendidurik zazpi sakramentuik.

Kristiñauen doktriñiaren lelengo partea, zeñetan espliketan direan Kredoa, ta Artikulu Fedekoak

I. Nok esan eban Kredoba?

E. Apostoluik.

I. Zetarako?

E. Guri fede santuko gauzak irakasteko

I. Eta zuk; zetarako esaten dozu?

E- Kristiñauok daukagun fede au konfesetako.

I. Zer da Fedea?

E. Ikusi ez doguna sinistutea.

I. Ekusi zendun zuk iaioen Jesu Kristo?

E. Ez Jauna.

I. Ekusi zendun ilten, edo Zerura igoiten?

E. Ez Jauna.

I. Eta sinistuten dozu?

E. Bai, Jauna, sinistuten dot.

I. Zegaitik sinistuten dozu?

E. Jaungoikoak alan agertu deusalako Elexa Ama Santeari, ta onek alan irakasten deuskulako.

I. Ze gauza dira kristiñaua legez daukazuzanak, eta sinistuten dozu-zanak?

E. Erromako Elexa Ama Santeak daukazanak, eta sinistuten dituzanak.

I. Eta zertzu dira orreek?

E. Fedeko Artikuluak, Kredoa dagozan legez.

I. Ze gauza dira Fedeko Artikuluak?

E. Dira Fedeko misteriorik prinzipalenak.

I. Zetarako dira Fedeko Artikuluak?

E. Geure Jaungoikoaren, eta Jesukristo geure Erredentorearen barri eta ezauera argiakoak emoiteko.

I. Nor da gure Jaungoikoa?

E. Da gauza bat, esan eta pensau al leitekeanik andiena ta miragarriena: Jaun bat ezingeiagoan ona, indar guztiz andikoa, iakintsua, justoa, gauza guztien asierea, eta akabua.

I. Trinitade guztiz Santua, nor da?

E. Da Jaungoikoa bera, Aitea, Semea, eta Espiritu Santua; iru persona distinta, eta Jaungoiko egiazko bakar bat.

I. Aita Jaungoikoa da?

E. Bai Jauna.

I. Semea Jaungoikoa da?

E. Bai Jauna.

I. Espiritu Santua Jaungoikoa da?

E. Bai Jauna.

I. Iru Jaungoiko dira?

E. Ez jauna, ezpada Jangoiko bakar bat.

I. Aita, Semea da?

E. Ez Jauna.

I. Espiritu Santua Aitea, edo Semea da?

E. Ez Jauna.

I. Zegaitik?



E. Dorealako personak diferenteak, izan arren Jaungoiko egiazko bakar bat.

I. Orlan zeinbat izaite, edo naturaleza, entendimentu eta borondate dauko Jaungoikoak?

E. Naturaleza bakar bat, entendimentu bat eta borondate bat.

I. Eta zeinbat persona?

E. Iru distinta, zeintzuk direan Aitea, Semea, ta Espiritu Santua.

I. Zelan da Jaungoikoa guztiz poderosoa?

E. Bere gura izanagaz bakarrik, egiten dabelako gura daben guztia.

I. Zelan da Kreadorea?

E. Gauza guztiak egin zituzalako ezerbereezetik.

I. Eta zeu zetarako egin zinduzan Jaungoikoak?

E. Bera bizitza onetan ametako eta serbietako, eta gero zeruin beti beragaz gozatuteko.

I. Zelan da Salbadorea?

E. Grazia emoten dabelako, eta pekatuik parkatuten dituzalako.

I. Zelan da Glorifikadorea?

E. Bere grazian ilten danari, gloria emoiten deutsalako.

I. Bauko Jaungoikoak, guk legez, gorputzik?

E. Jaungoikoa dan partez, ez Jauna, espiritu utsa dalako: baña bai gizona dan partez.

I. Iru personetarik zein egin zan gizon?

E. Bigarrena, zein dan Semea

I. Aita egin zan gizon?

E. Ez Jauna.

I. Espiritu Santua egin zan gizon?

E. Ez Jauna.

I. Zein bada?

E. Bakarrik Semea, zeineri, gizon egin azkero, deretxo Jesukristo.

I. Orlan bada, nor da Jesukristo?

E. Da Jaungoiko biziaren Semea, gizon egin zana, gu erredimietarren, eta guri zelan bizi erakustearren.

I. Eta, zeinbat izaite, edo naturaleza, entendimentu, eta borondate dauko Jesukristok?

E. Naturaleza bi, bata Jaungoikoa dan partez, eta bestea gizona dan partez: entendimentu bi, Jaungoiko dan partez bata, eta gizon dan partez bestea: eta borondate bi, bata Jaungoikoa dan partez, eta bestea gizon dan partez.

I. Eta zeinbat persona eta memoria dauko?

E. Persona Jaungoikozko bat bakarrik, zein dan Trinidad egiazko santuko bigarren personea; eta memoria bat bakarrik gizon dan partez, bada Jaungoiko dan partez eztau bear memoriarik, gauza guztiak bere aurrean daukazalako.

I. Zer esan gura dau Jesusek?

E. Salbadorea.

I. Zetarik salbau ginduzan?

E. Geure pekatuetatik, eta deabruaren kautiberiorik.

I. Zer esan gura dau Kristok?

E. Unjidua.

I. Zegaz izan zan unjidua?

E. Espiritu Santuaren graziaz eta doez.

I. Kristo gure Jauna zelan sortu zan, eta zelan iaio zan Donzella zan ama ganik?

E. Jaungoikoak orreek milagroez egiten zituzala.

I. Ze misterio da ori?

E. Enkarnazinoko misterioa.

I. Zer sinistuten dozu Enkarnaziñoko misterioan?

E. Trinidad egiazko santuko bigarren personea, zein dan Semea, gizon egin zala Ama Birjinearen errai guztiz garbietan ez gizonaren obraz, ezpada Espiritu Santuaren birtutez, bere donzellatasunaren kalte bage.

I. Zeinbat gauza obrau zituzan bada Espiritu Santuak Enkarnaziñoko misterioan?

E. Lau gauza.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengoa, formau euen gorputz bat. Ama Birjinearen sabel guztiz garbian, bere odol mantxa bagakoagaz. Bigarrena, egin eban arima bat ezerezerik. Irugarrena gorputza ta arimea batu zituzen alkarregaz. Laugarrena, Trinidad egiazko santuko bigarren personeak beragan artu, eta beragaz batu zituzan gorputz ta arima oneek; eta alan len Jaungoiko baño etzana, Jaungoiko izaitia galdu bage, geratu zan gizon eginik; zeinari deritxo Jesukristo.

I. Eta zelan iaio zan milagroez?

E. Urteiten eba Maria Santisimaren sabelarik, bere donzellatasunaren kalte bagarik, eguzkiaren argiak kristal batetik urteiten daben legez, kristala urratu ta loitu bagarik.

I. Bere ama gero beti donzella bizi izan zan?

E. Bai Jauna, beti.

I. Zegaitik kurtzean il gura izan eban?



E. Gu libretarren pekaturik, eta betiko eriotzarik.

I. Zelan bada gelditu gñian betiko eriotza orren sentenziaren azpian?

E. Pekatu egiten ebala Adan, gure leleno gurasoak, zeinegan guztiok egin genduin pekatu.

I. Banko Kristok Aitarik, edo Amarik?

E. Jaungoikoa dan partez dauko Aita, zein dan Aita eternoa, eta eztauko Amarik: eta gizon dan partez dauko Ama, zein dan Ama Birjinia, eta eztauko Aitarik.

I. Eta nosik onakoa da Jesu Kristo?

E. Jaungoiko dan partez beti betikoa Aita Eternoa ta Espiritu Santua legez; baia gizon dan partez, Ama Birjinearen sabel garbian sortu zanik onakoa.

I. Zer deretxazu dala, Kristo geure Jauna, il azkero, iatsi zan Infernua?

E. Ez kondenaduen lekua, ezpada Justoak egozan Linboa.

I. Infernu bat baño geiago, dago ala?

E. Bai Jauna, lau dagoz lurraren barruan: eta deretxoe: Kondenaduen infernua:Purgatorioa: Seiñen Linboa: Justoen Linboa, edo Abrahamen Senoa.

I. Eta zertzuk dira orreek?

E. Kondenaduen infernua da leku bat, zeñetara ioaten direan pekatu mortalean ilten direanak, an pena eta tormentu guztiz andien artean beti egoteko. Purgatorioa da leku bat, zeinetara ioaten direan grazian ilten direanen arimak, baña pagau bagarik guztiz euren pekatuen zorra, an pena ikaragarriakaz garbituak izaiteko. Seiñen Linboa da leku bat, zeñetara ioaten direan, usu errazoezkora eldu baño lenago, batiatuak izan bagarik ilten direanen arimak, an beti egoteko, Jaungoikoa eguno bere ekusi bagarik. Justoena, edo Abrahamen Senoa da leku bat zeinetara ioaten zirean, Jesukristok gu erredimidu baño lenago, grazian ilten zireanen arimak, guztiz garbituta egozanak:eta au da lekua, zeñetara egiaz eta benetan iatsi zan Jesukristo gure Jauna.

I. Zelan iatsi zan?

E. Bere arimea Jaungoikotasunagaz baturik.

I. Eta bere gorputza zelan geratu zan?

E. Jaungoikotasunagaz beragaz baturik.

I. Zelan biztu zan irugarren egunean?

E. Barriro batuten zireala bere gorputz ta arima gloriuz betea ostera iñois ez ilteko.

I. Zeinbatgarren egunean igon eban Zeruetara?

E. Berrogeigarren egunean.

I. Ze modutan?

E. Bere poderioz eta birtutez.

I. Zer esan gura dau iarririk egoiteak Aita Jaungoiko guztiz podero-soaren eskomako aldetik?

E. Jesukristok, Jaungoiko dan partez, daukala gloria bardina Aiteagaz, ta Espiritu Santuagaz: eta gizon dan partez beste guztiak baño geiago.

I. Nois etorriko da biziak, eta ilak juzgetan?

E. Munduaren akabuin.

I. Eta orduin biztuko ete dira il guztiak?

E. Bai Jauna, len eukezan gorputz, ta arima eurekaz.

I. Eta munduaren akabua baño lenago juzgaduak izango ete gara?

E. Bai Jauna, guztiak ilten direanean, juzgadu ta sentenziaduko dituz Jaungoikoak: onak Zeruko gloria gozetara, eta deungak betiko penak padezietara infernuan.

I. Nor da Espiritu Santua?

E. Trinitate guztiz santuko irugarren Personea: Aitea, eta semea legez, Jaungoiko egiazkoa dana.

I. Zer sinistuten dozu esaten dozunean: sinistuten dot santuen komuniñoa?

E. Kristiñau fiel guztiak daukeela parte bata bestearen obra onetan, gorputz baten zatiak legez, zein dan Elexea.

I. Zer da Elexea?

E. Da Kristinau fiel guztiak batera egiten daudeen gorputza, zeinen burua dan Aita Santua.

I. Nor da Aita Santua?

E. Da sumo Pontifize Erromakoa, Kristoren Bikario edo ordeko mundu onetan, zeineri guztiok obediu bear deutzagun.

I. Zer esan gura dau pekatuen parkaziñoak?

E. Elexa Santan dagozala pekatuak parketako medioak, zeintzuk direan Sakramentu Santuak.

I. Zer esan gura dau aragiaren erresurreziñoak?

E. Juizioko egunean guztiok biztuko gareala, orain daukaguzan gorputz ta arima eurakaz: artzaiteko bakotxak mereziduin dauen alogera, edo kastigua.

I. Zer esan gura dau sekulako bizitzeak?

E. Bizitza au akabau azkero, izango dala beste betiko bat, edo iñois akabauko ez dana: zeinetan egongo direan, Jaungoikoa Jaungoiko dan



arte guztian, onak zeruin gloria gozetan; eta deungak infernuin pena ikaragarriak, padezietan.

I. Kredoa, ta Fedeko artikuluez ganera, beste gauzarik sinistuten dozu?

E. Bai Jauna, Eskritura Santan dagoana, eta Jaungoikoak bere Ele-xeari erakutsi deusant guztia.

I. Ze gauza dira orreek?

E- Ez ori itaundu niri, nasalako iakituria bagakoa: Doktoreak daukaz Elexa Ama Santeak, erantzuten iakingo daudeanak.

MAESUAK. Ondo diñozu, bada Doktoreai iagoke, ta ez zuri, gure fede santuko gauza guztien kontua emoitea: zuretzat asko da artikuluen Kredoan dagozan legez emoitea.

Kristiñauen Doktrinearen bigarren partea, zeinetan espliketetan dan, zer eskatu bear dan; eta Elexa Ama Santearen oraziñobak

Ekusi dogu zelan dakizun, zer sinistu bear dozun, zein dan lelengoa: dogozan bigarrenera, zein dan, zer eskatu bear dan iakitea.

Esan egidazu:

I. Nok esan eban Aita gurea?

E. Jesukristok.

I. Zetarako?

E. Guri orazino egiten erakusteko.

I. Zer da orazino egitea?

E. Da Jaungoikoagana biotza eregitea, ta berari mesedeak eskatutea.

I. Zeinbat modutakoa da orazino?

E. Bitakoa.

I. Zeintzuk dira?

E. Gogoagazkoa, edo mentala; eta aogazkoa, edo bokala.

I. Zer da orazino mentala?

E. Da arimako zentzun edo potenziakaz egiten dana: gogoagaz, memoriara gauza onen bat ekarten dogula: entendmentuagaz, gogoan gauza ori darabilgula, eta bere ganean pensetan dogula: eta borondateagaz, afektoak, eta dese santuen frutu onak ateraten doguzala: kontu daigun, pekatuen gorrotoa humiltasuna, edo gogo onen batzuk artzaiten

doguzala, zelangoak direan, ondo konfesetako gogoa, bizitzea obaturko....edo oneelako besteren batzuk.

I. Zer da oraziño bokala?

E. Da berbakaz egiten dana, zelango dan, Aita gurea esaten dogunean egiten doguna.

I. Eta zelan egin bear da oraziñoa?

E. Atenziñoagaz, humildadeagaz, konfiantzeagaz, eta perseberantzeagaz.

I. Aita gurea esaten dozunean, nogaz berba egiten dozu?

E. Geure Jaun eta Jaungoikoagaz.

I. Non dago gure Jaungoikoa?

E. Leku guztian, batez bere Zeruin, eta Santisimo Sakramentu Altarakoan.

I. Eta Jesukristo non dago?

E. Jaungoiko dan partez, leku guztietan, eta gizon dan partez, baka- rrik dago zeruin, eta Santisimo Sakramentu Altarakoan.

I. Zein da orazino guztien artean onena?

E. Aita gurea.

I. Zegaitik?

E. Kristok bere aoz esan ebalako Apostuluen eskariz.

I. Zegaitik geiago?

E. Daukazalako zazpi eskari karidade guztitik datozenak.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengoa da, santifikadu bedi zure izena.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jaungoikoaren izena izan dila (sic) ezagutua ta onradua mundu guztian.

I. Zein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erreinua.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Erreinau daiala Jangoikoak gure arimetan emen lurrean graziaz, eta gero emon daigula gloria.

I. Zein da irugarrena?

E. Egin bedi zure borondatea, zelan Zeruin, alan lurrean.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Egin daigula Jaungoikoaren borondatea lurrean gagozanok, Zeruin dagozanak egiten daudeen legez.

I. Zein da laugarrena?

E. Emon egiguzu gaur geure egunean eguneango ogia.



- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Emon daigula Jaungoikoak gorputzerako mantenimentua, eta ari-mako grazia, ta Sakramentuak.
- I. Zein da bostgarrena?
 E. Parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parketan deutseguzan legez.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Jaungoikoak parkatu daiguzala geure pekatuak, geuk parkatu deustsegezan legez gatx egin deuskuenai, edo injuriaren bat emon deuskuenai.
- I. Zein da seigarrena?
 E. Itxi ez egiguzu tentaziñoan iausten.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Jaungoikoak ez dagigula itxi iausten ez konsentietan pensamentu ta tentazino deungetan, zeintzuekaz demoniñoak pekatuen iausi eragin gura deuskun.
- I. Zein da zazpigarrena?
 E. Baña libradu gagizuz gatxerik.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Jaungoikoak libradu gaizala arimako ta gorputzeko gatx, eta peligrugu guztietatik.
- I. Zegaitik diñozu asikeran, Aita gurea, zeruetan zagozana?
 E. Jaungoikoagana biotza eregiteko, eta eskatuteko mesedeak humil-dadeagaz, ta konfiantzeagaz.
- I. Zer esan gura dau akabuin esaten dozun berbeak: Amen?
 E. Alan izan dedilla.
- I. Zeintzuk dira Ama Birjineari esaten deustazuzan orazinorik onenak?
 E. Abe Maria, eta Salbea.
- I. Nok esan eban Abe Maria?
 E. Angeru San Gabrielelek Ama Birjineari barri onak emoiten etorri zanean.
- I. Nok esan eban Salbea?
 E. Elexa Ama Santeak dauko beretzat artuta.
- I. Zetarako?
 E. Ama Birjineari mesedeak eskatuteko.
- I. Abe Maria, edo Salbea esaten dozuzanean nogaz berba egiten dozu?
 E. Ama Birjineagaz.
- I. Nor da Ama Birjinea?

- E. Da Señora bat, birtutez eta graziaz betea, Jaungoikoaren ama, eta zeruin dagobana.
- I. Eta altaran dagobana nor da?
 E. Da zeruin dagoanaren imajina, eta irudi bat.
- I. Zetarako dago an?
 E. Guri akordarazoteko zeruin dagobana, eta bere imajinea dalako erreberenzia egin daioguntzat.
- MAESUAK.** Bada beste ainbeste egin bear deutsezu, beste santuen imajinai, eta gorputzen zatiai bere.
- I. Egin bear deutsegu oraziño Angeruai eta Santuai bere?
 E. Bai Jauna, geure bitertekoai legez.
- I. Ze gauza dira Angeruik?
 E. Dira Zeruin Jaungoikoa gozetan dagozan Espiritu zorioneko batzuk.
- I. Zetarako egin zituzan Jaungoikoak?
 E. Bera beti alabadu, eta bedeinkatu dagientzat.
- I. Zetarako geiago?
 E. Bere Ministroak legez Elexea gobernetako, eta gizonak iagoteko.
- I. Orlan zuk bere baukazu Angeru guardakoa?
 E. Bai Jauna, baukat, eta bakotxak dauko beria.
- MAESUAK.** Bada artu egiozu deboziño andi bat, eta egunean egunean enkomendau zakioz.

**Irugarren partea,
 zeñetan espliketan dan,
 zer egin, edo obrau bear dan**

- Ekusi dogu zelan dakizun zer sinistu,ta zer eskatu bear dozun: dakusgun orain zelan dakizun zer obrau bear dozun.
- I. Esan egizu: zein da Jaungoikoaren legeko lelengo mandamentua?
 E. Jaungoikoa ametea gauza guztien ganean.
- I. Nok ametan dau Jaungoikoa?
 E. Bere mandamentuak gordetan dituzanak.
- I. Zer da Jaungoikoa ametea gauza guztien ganean?
 E. Gurago izaitia gauza guztiak galdu bera ofendidu baño.
- I. Zetara geiago obligetan gaituz mandamentu onek?
 E. Bera bakarrik adoretara gorputzeko eta arimako erreberenzia guz-tiagaz, beragan sinistu ta esperetan dogula fede biziagaz.



I. Nok egiten dau pekatu onen kontra?

E. Idolo, edo jangoiko falsoak adoretan dituzanak, edo eurretan sinistuten dabenak: fedearen kontrako gauzaren bat sinistuten dauenak: edo fedeko misterio santuren baten dudetan dabenak: edo doktrinea bear dan legez ez dakianak: Fedeko, Esperanzako, eta Karidadeko aktoak, bear direanetan egiten ez dituzanak: Jaungoikoagan euki bear dan esperantzea galtzaiten dabenak; edo Sakramenturen bat disposiziño txarragaz artzaiten dabenak.

I. Nok geiago?

E. Aztuen kontuik, ta barri emonak sinistuten dituzanak: eta sorgin-keriak, edo beste onelango bidebagako gauzaren batzuk egiten dituezanak.

I. Zein da bigarrena?

E. Bere izen santuagaitik juramentu alperrik ez egitea.

I. Nok egiten dau juramentu alperrik?

E. Juramentu egiten dabenak, egia bagarik, justizia bagarik, eta premiña bagarik.

I. Zer da juramentu egitea egia bagarizeragin?

E. Da juramentu egitea guzurragaz, edo batek uste dabenaren kontra.

I. Eta ze pekatu da, egia bagarik, edo duedeagaz juramentu egitea?

E. Pekatu mortala, Jauna, gauza txiker baten ganean bada bere.

I. Eta iñori on egitearren, edo iñoren erregiügaitik, egin lei guzurragaz juramentu?

E. Ez da mundu guztiagaitik bere.

I. Zer da juramentu egitea justizia bagarik?

E. Da juramentu egitea, gauza gaizto, edo txarren bat egingo dala, kontu daigun, projimuari gatxen bat egingo deusala.

I. Eta ze pekatu da justizia bagarik juramentu egitea?

E. Pekatu mortala, gauza txarra pisuzkoa bada: eta arima bada, pekatu beniala.

I. Zer da, premiña bagarik juramentu egitea?

E. Da juramentu egitea, eginbear andi bagarik, edo ezerezkeriügaitik,

I. Eta ze pekatu da ori?

E. Pekatu beniala, ez faltau azkero juramentuaren egiak, ez justiziak.

I. Eta gauza onen bat egiteko juramentu, boto, edo promesa daukanak, kunplidu bear dau?

E. Bai Jauna, eta ez kunplietea, edo lar luzetutea, da pekatu mortala, gauza pisuzkoaren ganean izan azkero.

I. Eta pekatu da kriaturügaitik juramentu alperrik egitea?

E. Bai Jauna, eurretan euren Kriadoriari juramentu egiten iakolako.

I. Ze modutan egiten da juramentu kriaturügaitik?

E. Esaten dala, kontu daigun, neure arimiügaitik, Zeruügaitik, lurragaitik, au alan da.

I. Ze erremedio dago juramentu alperrik ez egiteko?

E. Artutea usua, esateko: bai, edo ez, Kristot erakusten deuskun legez.

I. Eta mandamentu onetan eragozten da beste gauzaren bat geiago?

E. Bai Jauna, eragozten da blasfemia bere, zein eztan besterik, ezpabere berba lotsagarriren batzuk Jaungoikoaren, edo bere santuen kontra esatea; eta da pekatu mortala.

I. Zein da irugarrena?

E. Domekak eta iaiak gordetea.

I. Nok gordetan ditu Iaiak?

E. Meza osoa entzun, eta bearrik egiten ez daudenak premiña бага eurretan.

I. Eta ze pekatu da jai egunetan, nezesidade бага bear egitea?

E. Pekatu mortala, ordu biz gora egiten bada; eta aez beera bada, pekatu beniala geien partez.

I. Zein da laugarrena?

E. Aita eta Ama onretea.

I. Nok onretan ditu gurasobak?

E. Obezidu, sokorridu, eta erreberentzietan dituezanak.

I. Nok egiten dau onen kontra pekatu mortala?

E. Eteko gobernuko, eta aziera oneko gauzetan, gurasoen esanik egin gura eztaudeen humiak: euren nezesidadetan sokorridu, edo lagundu gura ezteutseenak; birao, barre, edo burla egiten deutseenak; eskua erantzi, edo zematuten dituezanak; eta euren conseju, ta baiezkoa bagarik, ezkontzarako bideak artzaiten dituezanak.

I. Nortzuk besterik sartzaitzen dira gurasoen izenean?

E. Nagosiagoak edadean, dignidadean, eta gobernuin.

I. Eta mandamentu onetan sartzaitzen dira umeak euren gurasoen alderako daukiezan obligaziñoiak baño geiago?

E. Bai Jauna, nagusiagobak euren azpien alderako, eta gurasobak euren umeen alderako daukeezanak bere.

I. Eta zeintzuk dira orreek?

E. Emoitea ian edana, doktrina ona, ejenplu ona, eta bere denporan ondo iagokeen estadia.

I. Eta ze pekatu da orretan faltetea?

E. Geien partez pekatu mortala.



I. Zein da bostgarrena?

E. Iñor ez iltea.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez iñori gatzik egitea ez obraz, ez berbaz, ezta deseoz bere.

I. Nok egiten dau pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Bere buruari, edo projimuari eriotzea, edo beste gatx andiren bat deseetan deutsanak; edo gorroto deutsanak; eta norbera il, eridu, edo manatuten dabenak; ordituten danak; osasunean gatx andia egingo deuseen gauzak iaten dituzanak; bere burua il, edo peligruan iminten dabenak; eta norberari, edo besteri birao egiten deutsanak.

I. Zer da birao egitea?

E. Da batek norberaren buruarentzako, edo besterentzako gatxen bat eskatutea.

I. Eta ze pekatu da birao egitea?

E. Pekatu mortala, Jauna, gatx andiaren deseogaz egiten bada; eta alango deseo bagarik bada, pekatu beniala, beti ez arren.

I. Nortzuk bada egiten daude pekatu mortala, alango deseo bagako biraoakaz?

E. Geien partez gurasoak, eta nagusienak, euren azpikoen aurrean birao egiten daudenak; eta birao egiteko ekandua daukienak, ekandu au etxiteko aleginak egiten ezpadituez.

I. Eta zegaitik ori?

E. Zegaitik euren esate, eta ejenplu deungakaz, emoiten deutseen besteai, Jaungoikoa ofendietako bidea, zeineri deritxon eskandalua.

I. Zein da seigarrena?

E. Aragizko pekaturik ez egitea.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Izan gaitetzala kastoak, eta garbiak, pensamentuetan, berbetan, eta obretan.

I. Nok egiten dau pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Ezagüera osoagaz pensamentu loietan gustu artzaiten dabenak, obrazko gauzarik egiteko gogorik euki ez arren; gauza loiak kantau, esan, edo gustuz entzuten dituzanak; edo norberagaz, edo bestegaz eskuka loiak, edo gauza desonestuak daukezanak, edo euki gura dituzanak.

I. Zein da zazpigarrena?

E. Iñori ezer ostu ez eitea.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez kendu, ez euki, ta ez gura izaitea besteren gauzarik, iaubearen borondatearen kontra.

I. Nok egiten dau pekatu mortala onen kontra?

E. Gauza oneatarik edozein egiten dabenak;edo beste moduren baten projimuari bere ondasunetan kalte andia egiten deutsanak.

I. Eta projimuari bere ondasunetan dan moduin dala, kalte egiten deutsanak, ze obligaziño dauko?

E. Dauko obligazino estua, guztien erreskata al bait leen egiteko.

I. Zein da zortzigarrena?

E. Iñori falso testimoniorik ez eregitea, ta guzurrik ez esatea.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Projimuagaitik juzgu txarrik ez egitea arin; eta bere faltak ez esatea, ta ez entzutea.

I. Nok austen dau mandamentu au?

E. Errazoe andi bagarik, juzgu deungea egiten dabenak, kreitua kendu, ixil gauzea agertu, edo guzurra esaten dabenak.

I. Eta ze obligaziño dauko, projimuari kreitua kentzaiten deutsanak, esaten dabela beragaitik egin eztaben pekatoren bat, edo egin badau bere, zabal ez dabilena, edo aurpegira bere faltak ezarten deutsazanak?

E. Dauko obligaziñoa, lengo moduin iminteko galdu eragin deusnan kreitua, edo estimazinoa.

I. Zer eragozten da bederatzigarren eta amargarren mandamentuetan?

E. Aragizko atseginen, eta iñoren ondasunen desio bidebagakoak.

MAESUAK. Esan egizuz Elexa Ama Santearen mandamentuik.

ELEXA AMA SANTEAREN MANDAMENTUIK DIRA BOST

Lelengoa, Meza osoa entzutea domeka eta ialetan.

Bigarrena, urtean bein edolabere konfesetea, edo leenago eriotzako peligrurik badago, edo komulgauko bada.

Irugarrena, Paskoa Erresurrekziñoakoetan komulgetea.

Laugarrena, Elexa Ama Santeak aginduten dabenean baru egitea.

Bostgarrena, Amarrenak eta primiziak Elexa Ama Santeari pagetea.

I. Zetarako dira mandamentu oneek?

E. Jaungoikoaren legekoak obeto gordetako.

I. Eta lelengora, zein dan meza entzutea, nortzuk dagoz obligaurik?

E. Usu errazoezkora eldu direan kristiñau guztiak.

I. Eta zelan entzun bear da?

E. Atenziño, errespeto, eta debozinoe andiagaz: Kristoren pasiño santuin, edo beste gauza onen baten pensetan dogula; edo deboziñoz errezetan dogula.



I. Eta ze pekatu egiten dau, motibo, edo errazoe on bagarik meza entzuten eztabenak, edo Meza guztiin, edo zati andiin atenziño бага dagoanak, edo Mezia uts egiteko peligruiñ iarten danak?

E. Pekatu mortala.

I. Eta bigarrenera eta irugarrenera, zeintzuk direan konfesetea ta komulgetea, nortzuk dagoz obligaurik?

E. Usu errazoezkoa daukeen kristiñau guztiak.

I. Eta deungaro konfesetan direanak gordetan dituez mandamentu orreek?

E. Ez Jauna; eta konfesiño ta komuniño baktxean, pekatu mortal bi egiten dituez.

I. Eta ilteko peligruiñ konfesore bagarik ekusten danak, zer egin bear dau?

E. Kontriziñozko akto bat, konfesetako gogoagaz.

I. Eta laugarrenera, zein dan barau egitea, nortzuk dagoz obligaurik?

E. Ogeta bat urte kunplidu dituezanak.

I. Eta zelan egin bear da barau?

E. Egerdiin, eragotzi bagako ianariakaz, bazkari bakar bat egiten dala.

I. Eta onetan faltau bagarik, goxean ezer artu lei?

E. Bai, Jauna, artu lei ontza bat legez motibo arinen bat badago.

I. Eta gaubean zer artu lei?

E. Artu lei Kolaziñoan, konzienzia oneko jente artean usetan dana.

I. Eta motibo, edo errazoe on bagarik barau egiten eztabenak ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala.

I. Eta nortzuk dagoz obligaurik, bijilia ta barau egunetan okelarik ian ez eiten: eurretan okelea ta peska gauzea nasteen iatordu baten ian ez eiten; eta okelarik ian ez eiten bijilia ta barau egunetan: eta arrauntzarik eta esne gauzarik garizuman, bulda bagarik, ian ez eiten?

E. Usu errazoezkoa daukeen guztiak.

I. Eta ze pekatu egiten daudee gordetan ezituezanak?

E. Pekatu mortala, orretarikoren bat austen daudeen baktxean.

MISERIKORDIAZKO OBRAK

Miserikordiazko obrak dira amalau.

Zazpi espiritualak, edo arimakoak eta beste zazpi korporalak, edo gorputzekoak.

Espiritualak dira oneek.

Lelengoa, eztakianari irakastea.

Bigarrena, bear dabenari konseju ona emotea.

Irugarrena, erratuten dabena zuzendutea.

Laugarrena, injuriak parkatutea.

Bostgarrena, triste dagoana konsoletea.

Seigarrena, projimuaren faltak, ta argaltasunak pazienziatan eroatea.

Zazpigarrena, ilai lurra emoitea.

I. Zegaitik deretxe miserikordiazkoak?

E. Justiziaz zor eztiREALAKO.

I. Nois obligetan daude pekatueren beian?

E. Gizon iakinen eretxian nezesidade andia dagoanean.

I. Eta zer alkantzetañ dau batek miserikordiako obra oneekaz, eta egiten dituzan beste obra onakaz, nai aginduak direala, nai borondatezkoak?

E. Jaungoikoaren grazian badago, merezietan dau arimako grazia, eta zeruko gloria geiagotea; pagetan dituz bere pekatuen zorrak, eta alkantzetañ dituz Jaungoikoaganik ondasun andiak, alan bere ariman, zein bere gauzetan, konbenietan baiakaz.

I. Zegaitik diñozu: Jaungoikoaren grazian badago?

E. Zegaitik pekatu mortalien batek egiten dituzan obra onakaz, ezin merezidu lei, ta ezin pagau lei pekatuen zorrik; ta bai bakarrik alkantzau leiz, edozelanbere, Jaungoikoagandik mesederen batzuk.

Laugarren partea, zeñetan artu bear direan Sakramentuik

Ekusi dogu zelan dakizun zer sinistu, zer eskatu, ta zer obrau bear dozun. Dakuskun orain, zelan dakizun zer errezibidu bear dozun; zein dan azkenengoba.

Esan egizuz Sakramentuik.

Elexa Ama Santearen Sakramentuik dira zazpi: lelengo bostak dira bear bearrak izatez edo borondatez, zeintzuk бага ezin salbau leiteke gizona etxiten badituz desprezioz: beste biak dira borondatezkoak.

Lelengoa, Bautismua.

Bigarrena, Konfirmaziñoa.

Irugarrena, Penitenzia.

Laugarrena, Komuniñoa.

Bostgarrena, Extremaunziñoa.



Seigarrena, Ordea.

Zazpigarrena, Matrimoninoa.

I. Ze gauza dira Sakramentuik?

E. Dira señale agiri batzuk, Jesu Kristo gure Jaunak egin, ta imiñi zituzanak, euren medioz emoitako guri bere grazia, ta birtuteak.

I. Zer da grazia?

E. Da izaita Jaungoikozko bat, zeñiek egiten dabon gizona Jaungoikoaren seme, ta Zeruko herederu.

I. Eta zelan deretxo grazia oneri?

E. Santifikantea, edo santuten dauena.

I. Eta bagoz onez ostean beste grazia moduren batzuk?

E. Bai Jauna, bagoz beste batzuk, zeintzuei deretxee grazia lagungarriak, eta arimako argialdiak, zeintzuk bagarik, ezin asi, ezin aurrera eroan, ta ezin akabau giñaikean salbaziñoerako gauzarik.

I. Eta onek zertzuk dira?

E. Jaungoikoak pekatuen iausi ez eiteko, eta obra onak egiteko emoi-ten deuskuzan sokorru, edo laguntasun batzuk, zelangoak direan sermo-
eak, ejenplu onak, ustez uste bagako eriotzak; eta argi aldi batzuk, zeintzuzak, Jaungoikoak argituten dituzan gure entendimentuik; eta dese-
o santu batzuk zeintzuzak bizkortuten dituzan onerako gure borondateak.

I. Ze birtute emoi-ten daude Sakramentuik graziagaz batera?

E. Prinzipalena dira iru Teologalak eta Jaungoikozkobak.

I. Zeintzuk dira?

E. Fedea, Esperantzea, ta Karidadea.

I. Zer da Fedea?

E. Ekusi eztoguna sinistutea Jaungoikoak alan agertu dabelako.

I. Zer da Esperantzea?

E. Esperatea Zeruko gloria Jaungoikoaren grazia, eta geure obra onak direala medio.

I. Zer da Karidadea?

E. Jaungoikoa ametea gauza guztien ganean, eta geure projimua geure burua legez, eurakaz egiten dogula, eurak geugaz egin dagien gurako geunkean legez.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Bautismukoba?

E. Kentzaitako pekatu orijinala, eta besterik aurkituko balitz bere bateatuten danagan.

I. Zer da pekatu orijinala?

E. Da arako pekatua, zeñegaz iaio-ten garean guztiok, eta iatorkun geure lelen-
go gurasoetarik.

I. Nondik sartzaiten da Elexara?

E. Bautismu santutik.

I. Eta badago zerurik bateatuik izan ez diranentzat?

E. Ez Jauna.

I. Bada nora doaz bateatuik izan bagarik ilten direan seintxuik?

E. Linbora.

I. Eta ze pena dauke leku atan?

E. Eztauke gorputzeko penarik infernukoak legez: baia bai Jaungoikoaren arpegia iñoz ikusi ezina.

I. Orlan pekatu andia da seinari bautismoa galerazotea?

E. Bai Jauna, norberen erruz izan azkero.

I. Nortzuk euki daroe bada onetan errua?

E. Zerbaist egiten daudenak sortuta dagoan seintxua galtzaitako, eta bardin onetarako konseju deungea emoi-ten daudeenak.

I. Zelango pekatua da au?

E. Zerura gedar egin daroban pekatua, eta Jangoikoak aserreagaz kastigau daroana.

I. Nortzuk geiago dauke onetan errua?

E. Iarten direanak, sabelean daukeen seiña galduteko arriskuan.

I. Nok bateatu lei seiña, ilteko peligrui-
n dagoanean?

E. Edozeñiek, ondo bateatuten iakin azkero.

I. Zelan ondo bateatuten da?

E. Ezarten iakala seiñari ura, albadedi burura, ta ezpabere gorputzeko zatirik andienara, eta ura ezartordu-
in esaten direala, bateatuko inten-
ziñoagaz, berba onek: Nik bateatuten zaitudaz Aitearen; eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

I. Eta zer egin bear da seina iaio-ten bada il etxureagaz, edo ezeri eragiten ezteutsala?

E. Bateatu badaezpadan, ustelduta urten ezpadau, eztalako ilik dagoanen señale ziertoa mobimenturik ez egitea; eta esaten da alangoan: Bizi bazara; nik bateatuten zaitudaz, Aitearen, eta Semearen; eta Espiritu Santuaren izenean. Amen. Eta bota ura berbakaz batera.

I. Eta zer egingo da galtzaiten, edo botetan dan seiña bada denpora bakoa, eta guztiz txikerra?

E. Bateatu ardura бага, ura ezarten iakala berbakaz batera, len esan dan legez.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Konfirmaziño-
koba?

E. Konfirmetako eta indartuteko Bautismu santu-
in artu gendun fedean.



I. Eta uso-errazozkora eldu danak ze pekatu egiten dau, Sakramentu au pekatu in artzaiten dabela?

E. Pekatu mortala.

I. Bada zer egingo dau pekatu ez egiteko?

E. Konfesau ondo lenago.

I. Zetarako da Sakramentu Santu penitenziakoba?

E. Bateatu azkeroko pekatu in parkatuteko.

I. Ze pekatu dira orreek?

E. Mortalak, eta benialak bere bai.

I. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatea, egitea, pensetea, edo gura izatea zerbaist Jaungoikobaren legearen kontra gauza pisuzkoban.

I. Zegaitik deretxo mortala?

E. Ilten dabelako egiten dabenaren arimea.

I. Zelan ilten dau?

E. Graziaren bizitzea kenduta.

I. Eta nois artzaiten dogu Sakramentu Penitenziakoba?

E. Ondo konfesadu, ta ausoluziñoa artzaiten dogunean.

I. Eta zeinbat gauza bear dira ondo konfesetako?

E. Bost Jauna.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengoba, esamina konzienziakoba egitea. Bigarrena, artzaita damu egiazko bat Jaungoikoa ofendidu dabelako. Irugarrena, eukitea propositu firme bat, pekatu rik geiago ez egiteko. Laugarrena, Konfesoareari bere pekatu guztiak artez esatea. Bostgarrena, Konfesoareak emoitzen dauen penitentzia kunplietako gogoba eukitea.

I. Zer da esamiña konzienziakoba?

E. Leen ondo konfesau zanik, eta denpora ataraño egin dituzan pekatu in memoriara ekarte.

I. Nondi egiten da esaminea?

E. Jaungoikoaren legek mandamentuetati, bost elexakoetati, eta obra miserikordiazkoetati: kontua ateraten dabela batek mandamentu bakotxean zetan uts egin daben obraz, berbaz, pensamentuz, edo deseoz: begiratuden dala norberen bizimodu, ofizio eta estaduko obligazinoetara bere: eskatu azkeroko lenago Jaungoikoari norberen pekatu in ezaututeko argia.

I. Zenbat modutakoba da damua?

E. Bitakoba.

I. Zeintzuk dira?

E. Kontriziñozkoa, edo amodiozkoa: eta Atriziñozkoa, edo bildurrezkoa.

I. Zer da Kontriziñozko damua?

E. Da sentimentu, pena, garbai, ta atsekabe bat, pekatariak bere biotzean artzaiten dabena, Jaungoikoa ofendidu dabelako izanik ain ona: proposituagaz konfesetako, emendetako, eta kunplietako penitentzia.

I. Zer da atriziñozko damua?

E. Da sentimentu, pena, ta atsekabe bat, egiazkoa, pekatariak bere biotzean artzaiten dabena, Jaungoikoa ofendidu dabelako, edo infernuren bildurrez, edo pekatuaren ezaintasunagaitik; edo grazia eta gloria galdu dituzalako; proposituagaz konfesetako, emendetako, eta kunplietako penitentzia.

I. Eta damu bioetatik zein da onena?

E. Kontriziñozkoa.

I. Zegaitik?

E. Kontriziñozkoa, amore garbiti datorrelako, atriziñozkoa barriz bildurretik: Kontriziñozko damueguz, konfesau baño lenago parkatuten iakoz bateri pekatu mortalak, eta iarten da Jaungoikoaren grazian: baño atriziñozko bakarraguz ez, konfesiñoaguz batera ezipada.

I. Eta damu bioetatik zein euki biar da ondo konfesetako?

E. Geienak esaten daude, atriziñozkoa asko dala; baño obetoago ta seguruago da kontriziñozkoa eroatea: eta au eukitearren egingo dau konfesetan danak.

I. Eta nos euki bear da damua?

E. Konfesoareak ausoluziñoa emon baño lenago.

I. Zer da propositua?

E. Da gogo firme bat, sekula geiago Jaungoikoa pekatu mortalguz ez ofendietako.

I. Zer da aozko konfesiñoa?

E. Da esatea Konfesoareari pekatu mortalak guztiak, engaño bagarik, ta guzur bagarik.

I. Eta pekatu mortalen bat, konfesaugabarik etxiten dabenak, konfesiño ona egiten dau?

E. Etxiten badau lotsaz, bildurrez, edo esamina faltaz, ez Jauna; baño bai aitztuta etxiten badau, edo bere erru bagarik.

I. Eta akordetan baiako gero, zer egin bear dau?

E. Urrengo konfesiñoan konfesau.

I. Eta pekatu mortalen bat lotsaz konfesau bagarik etxi dabena, salbau leiteke penitentzia eginda?



E. Ez Jauna, Santuak baño penitentzia geiago balegi bere, konfesetan ezpadau pekatua.

I. Eta ondo konfesetan dira, euren pekatuik gitxituta, edo edertuta legez esaten dituezanak?

E. Ez Jauna, esan bear direalako daukeen gaiztotasun guztiagaz, eta konzienziak erakusten daben legez.

I. Eta konfesetan danak damu bagarik, propositu bagarik, edo penitentzia kunplietako gogo bagarik, konfesino ona egiten ete dau?

E. Ez Jauna; egiten dau, bai, sakrilejiozko pekatu mortal andi bat; eta barriro konfesau bear dituz, esan zituzan pekatu guztiak, egin eban sakrilejiozkoagaz batera.

I. Eta nortzuk egin daroetz euren konfesiñoak damu bagarik, eta propositu bagarik?

E. Okasiñoetarik apartetan ez tireanak, eta emendiorik eztaukeenak.

I. Eta damu egiazkoa ta propositua artzaiteko, zer egin bear da?

E. Konfesetara ioan baño lenago, Jaungoikoari eskatu, arren lagundu dakiola: gogora ekarri, bere Majestadeak egin deutzazan mesedeak; edo bere pasiño ta eriotzea, edo bere ontasun parebakoba; eta biotz biotzetik esan akto kontriziñozkoba.

I. Zer da penitentzia, edo satisfaziñoa?

E. Da pagetea pekatuikgaitik zor dan penea, kunplietan dala, konfesoreak emoniko penitentzia.

I. Eta penitentzia kunplietan eztabenak egiten dau konfesiño ona?

E. Konfesoreak emoitzen deutzanean badauko kunplietako gogoa, bai Jauna:baia konfesoreak emoitzen deutzanean ezpadauko kunplietako gogorik, orduin ez Jauna; gero kunpliduarren bere.

I. Eta ze pekatu da penitentzia ez kunplietea, edo lar luzatutea?

E. Pekatu mortala, Jauna, pisuzkoa bada penitentzia ori.

I. Eta pekatuakgaitik zor dan penea ezin pagau lei penitentiagaz ezpada?

E. Bai Jauna, pagetan da Jaungoikobaren grazian egiten direan obra on guztiakaz bere, eta induljenziak irabaziagaz.

I. Zer dira induljenziak?

E. Dira grazia batzuk, zeñen bitartez parkatuten dan, mundu onetan, edo Purgatorioan pekatuakgaitik pagau bear dan penea.

I. Eta zelan irabaziko dira?

E. Egiten direala estatu graziazkoan onetarako aginduten direan gauzak.

I. Eta Purgatoriora doazanak, mundu onetan pagau eztaudelako euren pekatuen zorra, guk sokorridu giñaiz?

E. Bai, Jauna, gure pekatuen zorra pagetako egiten doguzan obra onakaz eurakaz, arimen onerako egiten badoguz.

I. Eta pekatu mortalean iausten dan guztian, bear dau batek bertatik konfesau, parkatu dakiontzat?

E. Ondo litzateke, baia ez dago obligaziñorik.

I. Zer egin bear dau bada?

E. Artu pekatu egin dabelako kontriziñozko damu egiazkoa, proposituagaz emendetako, ta konfesetako Elexa Ama Santeak aginduten dabe-nean.

I. Zer da pekatu beniala?

E. Da pekatu mortalerako prestaera bat.

I. Zegaitik deretxo beniala?

E. Arin iausten dalako beratan gizona, eta arin parkatuten iakolako.

I. Zeinbat gauzagaitik parkatuten iako?

E. Bederatzigaitik.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengoa, meza entzuteagaitik.

Bigarrena, Komulgeteagaitik.

Irugarrena, ni bekatari au, esateagaitik.

Laugarrena, Obispoaren bendiziñoagaitik.

Bostgarrena, ur bedeinkatuagaitik.

Seigarrena, ogi bedeinkatuagaitik.

Zazpigarrena, Aita gurea esateagaitik.

Zortzigarrena, sermoea entzuteagaitik.

Bederatzigarrena, bularra ioa gaitik Jaungoikoari parka eskatuten iakola.

I. Zegaitik diñozu: Jaungoikoari parka eskatuten iakola?

E. Erakusteko artu bear dogula pekatu benialen damu santu bat, euren parkaziñoa gauza oneekaz alkantzau gura badogu.

I. Eta pekatu benialak konfesau bear dira?

E. Ondo da konfesetea, baño ez dago obligaziñorik.

I. Eta pekatu benialak baño ezpadaukaz konfesetan doianak, zer egin bear dau, damua ta propositua segurututeko?

E. Konfesau benialakaz batera, leenago konfesauta daukan pekatu mortalen bat bere.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Komuniñoekoa?



E. Bear dan legez errezibidu azkero, izan dintzat geure arimeen manimentua, eta grazia azi, ta geiagotu deiguntzat.

I. Zeinbat gauza bear dira, bada, ondo komulgetako?

E. Iru Jauna.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengoa, barau naturalean egotea, Bigarrena, Jaungoikoaren grazian egotea. Irugarrena, zer errezibietan dan iakitea.

I. Zer da barau naturala?

E. Gaberdiko amabietarik, eta komulgau artean, ezer artu bagarik egotea.

I. Eta zelan iarriko da grazian komulgetako, pekatu mortalean aurkituten dana?

E. Ondo konfesauta, Jauna.

I. Eta konfesau azkero gogora baiatorko pekatu mortalen bat, zer egin bear dau?

E. Barriro konfesau, komulgau baño lenago.

I. Zer artzaiten dozu komulgetan zareanean?

E. Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiazkoa, zein dagoan bene benetan Sakramentu Santu Altarakoban.

I. Zer da Sakramentu Santu Altarakoa?

E. Ostia konsagrada, eta Kaliz konsagrada.

I. Nos iminten da Jesukristo ostian, eta Kalizean?

E. Sazerdoteak konsagraziñoko berbak esaten dituzanean.

I. Eta berba santu aek esan baño lenago, zer dago Ostian, eta zer Kalizean?

E. Ostian dago ogi piska bat, eta Kalizean ardao piska bat, ur tanga bategaz.

I. Eta konsagraziñoko berbak esan azkero; zer dago?

E. Ostian Jesukristoren gorputza; eta Kalizan Jesukristoren odola.

I. Ostia konsagraduin bago gorputza baño beste gauzarik?

E. Bai Jauna, an dago Jesukristoren gorputzagaz batera bere odola, arimea ta Jaungoikotasuna, eta bardin Kaliz konsagraduin, Jesukristoren odolagaz batera dago, bere gorputza, arimea, eta Jaungoikotasuna.

I. Konsagraziñoko berbak esan azkero, bago Ostian ogirik, edo Kalizean ardaorik?

E. Ez Jauna, ezpada ogiaren eta ardaobaren irudia, edo akzidenteak; zeintzuk direan usaiña, kolorea, gustua, eta ganeakoak.

I. Bizirik ala ilik dago Jesukristo ostia eta kaliz konsagraduin?

E. Bizirik, Jauna, zeruin dagoan legez; baña estalduta ogiaren, eta ardaoaren irudiakaz, edo akzidenteakaz.

I. Ostia konsagrada erdibituten, edo apurtuten bada, erdibituten ete da Kristoren gorputza?

E. Ez Jauna, bada ain osorik dago zati batean, zein bestean; ain osorik ostia txikian, zein andian; eta ostiaren apurrik txikerreanean, zein ostia osoban dagobalako Jesukristo, guztia ostia guztian, eta guztia ostiaren edozein zatitan edo apurretan.

I. Pekatu mortalean komulgetan danak artzaiten dau Jesukristo?

E. Bai Jauna, baia ez bere onerako, ezpada bere kaltean; egiten dabelako sakrilejio ikaragarri bat, eta Judasen pekatua.

I. Eta bear dan moduin Komulgetan direanak, zer geiago egin bear daude frutu andiagobak alkantzetako?

E. Komulgau baño lenago pensau ondo, nor dan euren biotzetara datorren Jaun andia, egin Fedeko Esperantzako, eta Karidadeko aktobak; artu umiltasun, eta bildur santu andiagaz; eta komulgau azkero, esker onak emon, mesede ain andiakgaitik, urten bagarik bertati (Judasek legez) Elexarik kanpora.

I. Eta zer egin bear da esker onak emoiteko?

E. Munduko ardurak, eta zeregin guztiak alde batera itxi; zentzunak, eta biotza batu, eta egon pensetan: Nor etorri da nigana? Nor da Jesukristo? Eta, nor naz ni? Eskatu gero gura dan guztia, bada, ondo komulgau bazara; ez dago mesedeak alkantzetako era ederragorik.

I. Orlan ez da ondo komulgau, ta bertatik Altarak bisitetea, Errosario errezetetea, edo penitentzia, Konfesorik emanikoa, kunplietan egotea?

E. Ez Jauna, bada orreek onak izan arren, eztira orduin egin bear direanak: orduin egon bear dau batek, ordu lauren baten gitxienez, leen esan doguzan gauzak gogoan darabiltzala.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Extremaunziñoekoba?

E. Iru gauzatarako.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengoa, leengo bizitza gaiztobaren errastu ta ondakinak kentzaiteko. Bigarrena, arimeari inderra emoiteko demoniñobaren tentaziñoen kontra.

Irugarrena, gorputzari osasuna emoiteko, arimearen kalterako izango ezpada.

I. Eta uso errazoezkora eldu zireanak, gaixo peligruzkoak dagozanean, ete dauke Sakramentu Santuan artzaiteko obligaziñorik?



E. Bai, Jauna, eta pekatu mortala egiten daudee, aleginez artzaiten ezpadaudee, edo pekatu mortalean egiten badaudee.

I. Bada zer egingo dau pekatu mortalean dagoanak ondo artzaiteko?

E. Konfesau leenago, ta ezin konfesau bada, artu kontriziñozko damua.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Ordeakoa?

E. Konsagretako, ta ordenduteko Elexako Ministro dignobak, zelan direan Sazerdoteak, Diakonuak eta besteak.

I. Eta Elexako ministroai, besteen artean bere, sazerdoteai, zor iake errespeto andiagoga?

E. Bai Jauna.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Matrimoniokoa?

E. Ezkonduteko, ta ezkonduerik grazia emoteko bitartez alkarregaz bakean bizi ditezan, eta Zerureko azi dagiezan seme alabak.

I. Eta Sakramentu Santu au artzaiteko, grazian egon bear daude ezkonduten direanak?

E. Bai Jauna, pekatu mortalaren bean.

I. Eta grazian eztagozanak zelan prestauko dira ezkonduteko?

E. Ondo konfesauta.

PEKATU KAPITALAK DIRA ZAZPI

Lelengoa, Soberbia.

Bigarrena, Abarizia.

Irugarrena, Luxuria.

Laugarrena, Iria, edo aserrakuntzia.

Bostgarrena, Guleria.

Seigarrena, Enbidia.

Zazpigarrena, Nagitasuna.

I. Zegaitik emoitentzuzko pekatu onei pekatu kapitalen izena, geienean pekatu mortalaren izena emoitentzuzko baiake?

E. Emoitentzuzko iake pekatu kapitalen izena, direalako beste pekatuentzuzko buru, iturri, eta sustraiake legez: eta pekatu mortalaren izena etxatorke ain ondo, bada askotan benialak baño eztira.

I. Nos dira mortalak?

E. Jangoikoaren eta projimoaren karidadearen kontra diranean.

I. Nos dira karidadearen kontra?

E. Eurakgaitik austen danean Jaungoikoaren, edo Elexa Santearen mandamenturen bat gauza pisuzkoan.

I. Zer da soberbia?

E. Besteak baño geiago izateko gurari larregi bat.

I. Zer da Abarizia?

E. Da ondasunen gurari larregi bat

I. Zer da Luxuria?

E. Gorputzeko gustu loien gurari txar bat.

I. Zer da Iria, edo Aserrakuntzea?

E. Bengetako gurari zital bat.

I. Zer da Guleria?

E. Iateko ta edateko gurari larregi bat.

I. Zer da enbidia?

E. Besteen ona ekusi ezina.

I. Zer da Nagitasuna?

E. Gauza onerako iausitasun, edo atzerakuntza bat.

ZAZPI PEKATU ONEEN KONTRA DAGOZ ZAZPI BIRTUTE

Soberbiaren kontra, humildadea. Abariziaren kontra, prestutasuna.

Luxuriaren kontra, kastidadea.

Aserrakuntzearen kontra, pazientzia.

Guleriaren kontra, ian edanean begiratua izatea.

Enbidiaaren kontra, karidadea.

Nagitasunaren kontra, bizkortasuna.

ARIMEAREN ARERIOBAK, ZEINTZUKGANIK IÑES EGIN BEAR DOGUN, DIRA IRU

Lelengoa, Mundua.

Bigarrena Demonioa.

Irugarrena, Aragia.

I. Nor da mundua?

E. Gizon mundu zaleak, ta gaistoak.

I. Nor da Demonioa?

E. Da Jaungoikoak zeruan egin eban Angeru bat, zein iaigi zalako beste askogaz batera, bere Majestadearen kontra, bota ebana infernura, bere gaiztakeriako lagunakaz, zeintzuei emoten deutsegun Demonioen izena.

I. Nor da Aragia?

E. Da geure gorputza bera, bere gurari deungakaz.

I. Zelan benzidu ta iñes egiten da mundua ganik?

E. Bere andikeriai ta banidadeai iaramonik ez eginagaz.



I. Zelan benzidu ta iges egiten da demonioagandik?

E. Oraziñoagaz ta humildadeagaz.

I. Zelan benzidu ta inñes egiten da aragiaganik?

E. Oneganik inñes egiten da ta au benzietan da, gorputza nekepean erabiliagaz, bere gustuak ukatuagaz, ta barau eginagaz. Au da areriorik andiena, zegaitik eze ezin geuganik bota giñai aragia: mundua ta demoniñoa bai.

BIRTUTE TEOLOGALAK DIRA IRU

Lelengoa, Fedea.

Bigarrena, Esperanza.

Iruugarrena, Karidadea.

I. Eta zelan ez dogu utsik egingo, iru birtute oneen aktoak egiteko daukagun obligaziñoban?

E. Deboziñoz ta sarri errezetan dogula (edozein kristiñauk egin bear leukean legez) Kredoa, ta Aita gurea: eta biotzerik esaten dogula: Neure Jesukristo Jauna.

BIRTUTE KARDINALAK DIRA LAU

Lelengoa, Prudenzia.

Bigarrena, Justizia.

Iruugarrena, Fortalezia, edo sendotasuna.

Laugarrena, Tenplanzia, edo ianedanean begiratua izaita.

GORPUTZEKO ZENTZUNAK DIRA BOST

Lelengoa, begiakaz ekustea.

Bigarrena, belarriakaz entzutea.

Iruugarrena Aoagaz gustu artzaita.

Laugarrena surrakaz usain egitea.

Bostgarrena eskuakaz ukututea.

I. Zetarako emon euskuzan Jaungoikoak zentzunak, eta gorputzeko alde guztiak?

E. Guztiakaz eta gauza guztietan bera serbietako.

ARIMAKO POTENZIAK DIRA IRU:

Memoria: Entendimentua: ta Borondatea.

I. Zetarako emon euskun Jaungoikoak memoria?

E. Bera, ta bere mesedeak gogoan erabilteko.

I. Zetarako emon euskun entendimentua?

E. Ezaguteko geure Jauna, eta beragan pensetako.

I. Zetarako emon euskun borondatea?

E. Bera ametako ontasunik andiena legez, eta beragaitik projimua.

I. Eta, zer da gure arimea, zeñenak diran potentzia oneek?

E. Da Espiritu bat innoz bere ilgo eztana, zein egin eban ezerbere eze-rik Jaungoikoak bere antz eta irudira.

ESPIRITU SANTUAREN DOEAK DIRA ZAZPI

Lelengoa, Iakituriako Doea.

Bigarrena, Entendimentuko Doea.

Iruugarrena, Konsejuko Doea.

Laugarrena, Zienziako Doea.

Bostgarrena, Sendotasuneko Doea.

Seigarrena, Errukiko Doea.

Zazpigarrena, Jangoikoaren bildurreko Doea.

ESPIRITU SANTUAREN FRUTUAK DIRA AMABI

Lelengoa, Karidadea.

Bigarrena, Bakea.

Iruugarrena, biotzeko anditasuna.

Laugarrena, Benignidadea, edo errukitasuna.

Bostgarrena, Fedea.

Seigarrena, Kontinenzia.

Zazpigarrena, Arimako poza.

Zortzigarrena, Paziencia.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, Mansotasuna.

Amakagarrena, Modu ona.

Amabigarrena, Kastidadea.

BIENABENTURANZAK, EDO ZORIONTASUNAK DIRA ZORTZI

1. Zorionekoak biotzeti pobre direanak; bada euren da Zeruko Erreinua.

2. Zorionekoak mansoak, bada eurak izango dira lurraren iaube.

3. Zorionekoak negar egiten daudeenak, bada eurak izango dira poztuak.

4. Zorionekoak onaren gose ta egarri direanak, bada eurak aseak izango dira.

5. Zorionekoak errukiorrak, bada eurentzako bere, errukia izango da.



6. Zorionekoak biotz garbikoak, bada eurak ekusiko daude (sic) Jaungoikoa.

7. Zorionekoak baketsuak, bada eurei emongo iake Jangoikoaren semeen izena.

8. Zorionekoak, onak izanagaitik persekuziñoa daroienak, bada eurena izango da Zeruetako Erreinua.

I. Zer esan dogu orain?

E. Zortzi Bienabenturantz, edo Zoriontasunak.

I. Ze gauza dira zoriontasun oneek?

E. Dira Espiritu Santuaren birtuteetarik, eta doetarik datozen obrarik onenak.

I. Nortzuk dira biotzetik pobreak?

E. Eztaudenak gura munduko onrarik, ez aberastasunik, ezta laburrenik bere: edo beintzat eurretan biotza ifini eztaudenak.

I. Nortzuk dira mansoak?

E. Aserririk artzaiten eztakienak, ezta apurrik bere.

I. Zelan izango dira lurraren iaube?

E. Euren buruben iaube izanda.

I. Nortzuk dira negar egiten daudenak? (sic)

E. Atseginik laburrenak bere etxiten dituezanak.

I. Nortzuk dira, onaren gose, ta egarri direanak?

E. Alegiñaz ezetan bere utsik egin gura ez leukeenak.

I. Nortzuk dira errukiorrak?

E. Iñori bere, on baño besterik, egin gura ezteutsenak.

I. Nortzuk dira baketsubak?

E. Euren buruai ta besteenai bake ona emon daroioenak.

I. Nortzuk dira onak izanagaitik persekuziñoa daroienak?

E. Gauza on guztietan firme ta sendo dagozanak, persegiduak izan arren.

I. Zegaitik deretxe onei zoriontasunak?

E. Eurretan dagobalako bizitza onetan zorionekoak izaita, eta Zeruaeren esperantza menetakoba.

I. Zeinbat dira gizonaren akabuko gauzak?

E. Lau Jauna.

I. Zeintzuk dira?

E. Eriotzea, Juizioba, Infernua, ta Gloria.

I. Zer da Gloria?

E. Da estadu, edo bizimodu bat alde guztietatik egin egina, zeinetan dagozan on guztiak, gatzik batbere bagarik: infernuin barriz gatz guztiak onik bapere bagarik aurkituten direan legez.

I. Eta infernuti librau, eta Zeruko gloria alkantzetako, zer egin bear da?

E. Mandamentuik gorde.

I. Eta bagoz bideren batzuk mandamentuek errazago gordetako?

E. Bai Jauna.

I. Zeintzuk dira?

E. Sarri Konfesetea ta Komulgetea; goxean egun atako obra guztiak Jaungoikoari eskiñitea eta ofrezietea; egunean egunean meza entzutea; Ama Birjineari Errosarioa errezetea; liburu onak irakurtea; orazino mentala; gaubean gaubean konzienzia esaminetea, eta guztia baten esatearren, Konfessore iakitun, birtute andiko ta ondo begiratu bat artutea, ta gauza guztietan bere esanera egotea.

MAESUAK. Ondo diñozu zuk ori, bada Jaungoikoa serbidu ta bizitza onean irauteko, laguntasun on, ta andia da, Konfessore on bat eukitea. Egizuz bada zuk bere aletin guztiak topetako, San Franzisko Salesek, eta Santa Teresak dinuen legez, zeñek mandamentu santuen bidetik erobango zaituzan Zeruko gloriara, an betiko gozotasunetan egoteko.

MAESUAK. Jaungoikobak guztiok ara eroan gaizala. Amen.

KONFESIÑO JENERALA

Ni pekatari au, konfesetan natxako Jaungoiko guztiz poderosoari, Santa Maria beti Birjineari, San Migel Arkanjeluari, San Juan Bautisteari, San Pedro, ta San Paulo Apostoluari, santu guztiak, ta zeuri neure Aita espirituala, egin dodala pekatu pensamentuegaz, berbeagaz, ta obreagaz; neure erruz, neure erruz neure erru andiagaz; orregaitik erregututen deustat Santa Maria beti Birjineari, San Migel Arkanjeluari, San Juan Bautisteari, San Pedro ta San Pablo Apostoluari, santu guztiak, ta zeuri neure Aita espirituala, erregutu dagiozula geure Jaun eta Jaungoikobari. Amen.

AKTO KONTRIZIÑOZKOKA

Neure Jesukristo Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoba, neure Kreadorea ta Erredentorea, zareana zarealako, ta ametan zaitudazalako gauza guztien ganean, damu dot, Jauna, damu dot biotz guztirik zu ofendidua, propositu sendo bategaz ez geiago pekatu egiteko, eta apartetako zu ofendidu ziñakedazan okasino guztietati, neure pekatuak konfesetako; ta kunplietako emoitien iatan penitentzia. Ofrezietan deustudaz, Jauna, neure bizitzea, obrak eta trabajuak neure pekatuen pagureko; eta konfietan dot



zeure ontasun, ta miserikordia akabubakoagan, parkatuko deustazuzala zeure odol guztiz preziosoagaitik, eta zeure pasino ta eriotzeagaitik, eta emongo deustazula grazia emendetako eta irauteko zeure serbizio santuin neure bizitzearen akaburagiño. Amen.

AKABEREA

ARRIGORRIAGAKO DOTRINA

Catecismo bascongado
Dialecto Vizcaino
Variedad de Arrigorriaga

Sarrerie

Kristiñeu fiel guztijek
Dagoz guztiz obligeurik
Deboziño artutera
Euren bijotz guztirik,
Jesus geure argijen
Kurtze santueri,
Non il gure izen euen
Gu ateratiarren
Pekatuen azpitik
Ta arerijo deungetarik.

Orregaitik bada zu
Akostunbrauko zara
Alan zeñatutera
Zelan Aitien egitera
Iru kurtze eginagaz
Lelengoa bekokijen
Jaungoikoak librau gaizen
Pensamentu txarretarik:
Bigarrena agoan
Jaungoikoak librau gaizen
Berba deungetarik.
Irugarrena bulerrien
Jaungoikoak librau gaizen
Obra ta deseo txarretatik
Onantxe esanagaz:
Kurtze + Santien
Señaliegaitik,



Geure + arerijoetarik

Libreu gaizuz

Geure Jaune + ta Jangoikoa.

Aitien + Semien, ta Espiritu Santuen uzien. Amen.

Kredoa

Sinistuten dot Aite Jaungoiko guztiz poderoso, zeruen ta lurren kri-dedoriegan, eta bere seme bakar Jesukristo gure Jaunegan, zein sortu zen Espiritu Santuen obraz ta grazijez, iaiyo zan Marije Birjiñieganik, padezi-du euen Ponzio Pilatosen poderien bien, izen zan kurzifikedue, ille eta enterradue; iatsi zen infernuetara; arik irugarren egunien erresuzitau zen ilen arterik, igon euen zeruetara, an dago iarririk Aite Jangoiko guztiz poderosoen eskoako aldetik: arik etorriko da biziyek eta illek juzgetan. Sinistuten dot Espiritu Santuegan, Elexa Santa Katolikie, Santuen komu-niñoa, pekatuen parkaziñoa, aragijen erresurreziñoa, eta sekuleko bizitzie. Amen.

Fedeko artikuluek

Fedeko artikuluek dire amalau. Lelengo zazpirek pertenezietan iakoz Jangoikotasuneri; eta beste zazpirek Jesukristo gure Jaun, Jangoiko ta gizon egijezkoen gizontasun santueri.

Jangoikotasuneri pertenezietan iakozanak dire oneik.

Lelengoa sinistu Jangoiko guztiz poderoso bakar bategan.

Bigarrena sinistu dala Aitie.

Irugarrena sinistu dala semie.

Laugarrena sinistu dala Espiritu Santue.

Bostgarrena sinistu dala kriyedorie.

Seigarrena sinistu dala Salbadorie.

Zazpigarrena sinistu dala Glorifikedorie.

Gizontasun santueri pertenezietan iakozanak dire oneik.

Lelengoa sinistu Jesukristo gure Jaune, gizona dan partez, sortue izen zala Espiritu Santuen graziyetz ta birtutez.

Bigarrena sinistu iaiyo zala Andra Marije beti Birjiñieganik, donzelle geldituten zala semie iaiyo baño lenago, iaiyokeran, da iaiyo azkero.

Irugarrena sinistu artu zituzela pasiñoa ta erijotzie, gu pekatarijok salbetiarren.

Laugarrena sinistu iatsi zela infernuetara, eta atara zituzela bere eto-rrera santuen begire egozan gureso santuen arimak.

Bostgarrena sinistu irugarren egunien biztu zela illen arterik.

Seigarrena sinistu igon euela zeruetara eta an dagoala iarririk Aite Jangoiko guztiz poderosoen eskoako aldetik.

Zazpigarrena sinistu etorriko dala biziyek eta illek juzgetara, au da, onai emotera betiko gloriye, bere mandamintu santuek gorde zituezalako; eta deungai betiko penak, gorde etzituezalako.

Aite gurie

Aite gurie, zeruetan zagozana, santifikedu bedi zure uzena, betor gugana zure erreinue, egin bedi zure borondatie, zelan zeruen, alan lurrien. Egunien eguniengo geure ogije emon egiguzu gaur, eta parkatu egiguzuz geure zorrak geuk geure zordunei parkatuten deutseguzan legez, eta itxi ez egiguzu tentaziñoan iausten, baie libreu gaizuz gatxerik. Amen.

Abe Marije

Abe Marije, grazijez betie, Jaune da zugez, bedeinketie zara zu andra guztijen artien, eta bedeinketue da zure sabeleko frutue, Jesus.

Santa Marije, Jaungoikoen Ama, erregutu egizu gu pekatarijok gaitik orain, eta geure erijotzako orduen. Amen.

Salbie

Salbe Erregiñe, miserikordijezko Ama, bizitze, dultzure, eta geure Esperantzie, Salbe. Zuri geiyez gagoz Ebaren ume desterraduok. Zugana gagoz zizpuruz, ta negarrez negarrezko balle onetan. Ea bada Andrie, Abogada geurie, biortu egizuz gugana zure begi miserikordijazko orreik, eta destieru au igarota, erakutsi egiguzu Jesus zure sabeleko frutu bedeinketue. O Klementisima!, O Piadosa! O dulce birjiña Marije! Erre-



gutu egizu gugaitik Jaungoikoaren Ama Santie, merezidu daigun alkan-
tzetie Jesukristoren promesak. Amen.

Jangoikoen legeko mandamintuek

Jangoikoen legeko mandamintuek dire amar: lelengo irurek pertene-
zietan iakoz Jangoikoen onrieri: eta beste zazpirek projimuen probetxueri.
Lelengoa Jangoikoa ametie gauze guztiyen ganien
Bigarrena bere uzen santuegaitik ez jureminturik egitie arpelik.
Irugarrena domekak eta iaiyek gordetie.
Laugarrena aite eta ama onretie.
Bostgarrena ez ñnor iltie.
Seigarrena aragizko pekaturik ez egitie.
Zazpigarrena ñnori ezer ez ostutie.
Zortzigarrena falso testimoniñorik ñnori ez eregitie, ta guzurrik ez
esatie.

Bederatzigarrena projimuen emazterik ez desietie.
Amargarrena ñnoren ondasunen desio txarrik ez eukitie.

Amar mandamintu oneik sartuten dire biten. Lelengoa Jaungoikoa
ametrie, ta serbietie gauze guztijen gañien. Bigarrena ametie geure proj-
mue geure burue legez. Amen.

Kristiñeuen dotriniien esplikeziñoa pregunte eta errespuestakaz

PREGUNTETAN DOT. Kristiñeue zara?

ERRESPUESTIE. Bai Jangoikoen grazijegaz.

P. Kristiñeuen uzen ori nogandik iatortzu?

E. Jesukristo gure Jauneganik.

P. Zer esan gure dau Kristiñeuek?

E. Kristoren gizona.

P. Zer entendietan dozu Kristoren gizonagaz?

E. Jesukristoren fedie dauken gizona, zein artu euen bautismuen, eta
bera serbietako obligedurik dagoana.

P. Zein de Kristiñeuen señaie?

E. Kurtze santie.

P. Zegaitik?

E. Dalako Kristo kruzifikeduen irudije, zeñetan erredimidu gendu-
zen.

P. Zeinbet moduten egiten deu kristiñeuek señaie ori?

E. Modu biten.

P. Zeintzuk dire?

E. Ziñetutie, eta santigüetie.

P. Zer da ziñetutie?

P. Da eskoako eskuko orkoloagaz iru kurtze egitie. Lelengoa beko-
kijen, bigarrena agoan, irugarrena bulerrien, gure Jaun, eta Jangoikoagaz
berba egiten dogule.

P. Erakutsi zelan?

E. Kurtze santien + señaiegaitik, geure + arerijoetarik, libredu gai-
zuz + geure Jaune ta Jangoikoa.

P. Zegaitik zeñatuten zara bekokijen?

E. Jangoikoak libreu gaizen pensamintu txarretarik.

P. Zegaitik agoan?

E. Jangoikoak libreu gaizen berba txarretarik.

P. Zegaitik bulerrien?

E. Jangoikoak libreu gaizen obra eta desio txarretarik.

P. Zer da santigetie?

E. Da eskoako eskuko atzamar lodijen urrengo bijekaz kurtze bat
egitie bekokitik bulerrera, ta ezkerreko sorbaldatik eskoakora, Trinitade
guztiz santiégaz berba egiten dogule.

P. Erakutsi zelan?

E. Aitien + eta Semien, eta Espiritu Santuen uzenien. Amen.

P. Nos egin bier dogu kurtze ori?

E. Obra onen bat asten dogun guztijen, edo nezesidade, tentaziño,
edo peligruren baten gagozanién. Batez bere oitik iaigiten gariénien, etse-
tik urteiten dogunien, elexan sartuten gariénien, iatera goazanién, eta oira
lo egitera goazanién.

P. Zegaitik ainbeste bider?

E. Zegaitik eze, denpora guztijetan, eta leku guztijetan gure arerijo-
ak esetsiten deuskuen, eta persegiatan gaituezan.

P. Ze arerijo dire orreik?

E. Démoniñoa, mundue eta aragije.

P. Arerijo orreik benziatiko inderra dauko kurtziek ala?

E. Bai Jaune.

P. Nondi dauko kurtziek inder ori?



- E. Kristok bere erijotziegaz antxe benzidu zituzelako.
 P. Kurtzie adoretan dozunien zelan esaten dozu?
 E. Adoretan zaituguz, Kristo, eta bedeinketuten zaituguz, zeure kur-
 tze santueguz mundue erredimidu zenduelako.

Kristiñauen dotrinien dibisiñoa

Ikusi dogu kristiñeue zariela alan izenien, zelan señalien: esan egide-
 zu orain:

- P. Zeinbet gauze iakin bier dituz Kristiñeuek usu errazoezkora eldu-
 ten danien?
 E. Lau gauze.
 P. Zeintzuk dire?
 E. Lelengoa zer sinistu bier dauen iakitie.
 Bigarrena zer eskatu bier dauen iakitie.
 Irugarren zer egin bier dauen iakitie.
 Laugarrena zer artu bier dauen iakitie.
 P. Zelan iakingo deu zer sinistu bier dauen?
 E. Iakineguz Kredoa, eta Fedeko artikuluek.
 P. Zelan iakingo deu zer eskatu bier dauen?
 E. Iakineguz Aite gurie, eta Elexako beste oraziñoak.
 P. Zelan iakingo deu zer egin bier dauen?
 E. Iakiñeguz Jaungoikoaren legeko amar mandamintuek, bost elexa-
 koak, eta amalau obra miserikordijezkoak.
 P. Zelan iakingo deu zer artu bier dauen?
 E. Iakiñeguz Elexa Ama santien zazpi Sakramentuek.

Kristiñeuen dotriñien lelengo partie, zeinnetan espliketari dirien Kredoa, eta Fedeko artikuluek

Lelengotik asiten gariela, esan egidezu:

- P. Nok esan euen Kredoa?
 E. Apostoluek.
 P. Zetarako?
 E. Guri fedeko gauzak irekasteko.

- P. Eta zuk zetarako esaten dozu?
 E. Kristineuok daukegun fedie konfesetako.
 P. Zer da Fedie?
 E. Ikusi ez dogune sinistutie.
 P. Ikusi zenduen iaiyoten Jesukristo?
 E. Ez Jaune.
 P. Ikusi zenduen ilten, edo zerure igoten?
 E. Ez Jaune.
 P. Sinistuten dozu?
 E. Bai Jaune.
 P. Zegaitik sinistuten dozu?
 E. Jaungoikoak Elexa Ama Santieri alan agertu deuselako, eta Elexa
 Ama Santiek alan erakusten deuskuleko.
 P. Ze gauze dire Kristiñeue legez daukezuzenak, eta sinistuten dozu-
 zenak?
 E. Erromako Elexa Ama Santiek daukezanak, ta sinistuten dituzenak.
 P. Ta, zertzuk dire orreik?
 E. Fedeko artikuluek Kredoa dagozan legez.
 P. Ze gauze dire Fedeko artikuluek?
 E. Dire fedeko misterijorik andijenak.
 P. Zetako dire Fedeko artikuluek?
 E. Geure Jangoikoen, eta Jesukristo gure Erredendorien barri, ta
 ezauera argijegoa emoiteko.
 P. Nor da gure Jangoikoa?
 E. Da gauze bat esan eta pensau al leitekienik andijena ta miragarri-
 jena: Jaun bet, ezin geijegoan ona, poderoso, sabiyoa, justoa, gauze guz-
 tijen prinzipijoa eta fine.
 P. Trinitade guztiz Santue nor da?
 E. Da Jaungoikoa bera, Aitie, Semie, ta Espiritu Santue, iru persona
 distinta eta Jangoiko egijezko bakar bat.
 P. Aite Jangoikoa da?
 E. Bai, Jaune.
 P. Semie Jangoikoa da?
 E. Bai, Jaune.
 P. Espiritu Santue Jangoikoa da?
 E. Bai Jaune.
 P. Iru Jangoiko dire?
 E. Ez Jaune, ezpada Jaungoiko egijezko bakar bat.
 P. Aitie Semie da?



- E. Ez Jaune.
 P. Espiritu Santue Aitie edo Semie da?
 E. Ez Jaune.
 P. Zegaitik?
 E. Iru personak distintoak dirielako, izen arren Jangoiko egijezko bakar bat.
 P. Orreik orlan dirielako: Zeinbet izete, entendimintu eta borondate dagoz Jangoikoagan?
 E. Izeite bakar bat, entendimintu bakar bat, eta borondate bakar bat.
 P. Eta zeinbet persona?
 E. Iru diferentiek, Aitie, Semie eta Espiritu Santue.
 P. Jangoikoa zelán da guztiz poderoso?
 E. Bere gure izenagaz bakarrik, gure dauen guztije egiten dauelako.
 P. Zelán da Krijedorie?
 E. Gauze guztijek ezerbere ezetik egin zituzelako.
 P. Zetarako egin euen Jangoikoak gizona?
 E. Bera ezaututeko, ametako eta serbietako mundu onetan eta gero zeruen gozetako.
 P. Zelán da Salbadorie?
 E. Emoiten dauelako grazije eta pekatuek parkatuten dituzelako.
 P. Zelán da Glorifikadorie?
 E. Bere grazijen ireuten dauenari, emoten deuselako betiko glorie.
 P. Bauko Jangoikoak guk legez gorputzik?
 E. Jangoikoa dan partez, ez; dalako espiritu purue; baie gizona dan partez, bai.
 P. Iru personetarik zein egin zen gizon?
 E. Bigarrena, zein den Semie.
 P. Aite egin zen gizon?
 E. Ez Jaune.
 P. Espiritu Santue egin zen gizon?
 E. Ez Jaune.
 P. Zein bada?
 E. Bakarrik Semie, zeñeri, gizon eginik, deretxon Jesukristo.
 P. Orlan nor da Jesukristo?
 E. Da Jangoiko bizijen semie, gu erredimietarren, eta guri zelán bizi erakustiarren gizon egin zena.
 P. Eta zeinbet izete, entendimintu eta borondate dagoz Jesukristogan?.

- E. Izete bi, bata Jangoikoa dan partez, eta bestie gizona dan partez; entendimintu bi, bata Jangoikoa dan partez, eta bestie gizona dan partez; borondate bi, bata Jangoikoa dan partez, eta bestie gizona dan partez.
 P. Eta zeinbet persona eta memoriye?
 E. Persona Jangoikozko bakar bat, zein den Trinitade guztiz santuko bigarren personie; eta memoriye bakar bat, bada Jangoikoa dan partez ez dauko memoriyerik.
 P. Zer esan gure dau Jesusen uzenak?
 E. Salbadorie.
 P. Zetatik salbau genduzen?
 E. Geure pekatuetatik, eta demoniñoaren kautiberijotik.
 P. Zer esan gure dau Kristok?
 E. Unjidue.
 P. Zegaz unjidue izen zan?
 E. Espiritu Santuen graziyez eta doiez.
 P. Jesukristo gure Jaune zelán sortu eta iaiyo zan, Amak donzelle ize-tie galdu bagarik?
 E. Jangoikoak ori millegroz egiten euela.
 P. Zegaitik diñozu: «Jangoikoak ori millegroz egiten euela»?
 E. Jesukristo gure Jaune, ez zalako izen sortue, ez iaiyoa beste gizonak legez.
 P. Zelán iazo zan Enkarnaziñoko misterijoa?
 E. Lelengo, Ama Birjiñien errai garbijetan formau euen Espiritu Santuek Andra onen odol garbijegaz gorputz guztiz eder bat. Bigarren egin euen ezerezetik arime bat, eta sartu euen gorputz atan. Irugarren orduentxe gorputz eta arime akgaz batu zen Jangoikoen semie. Laugarren, onan, len Jangoiko bakarrik zena, Jaungoiko izetieri itxi bagarik, geratu zen gizon eginik, eta deritxo Jesukristo.
 P. Eta zelán iaiyo zan millegroz?
 E. Urteiten euela Ama Birjinien sabeleti bere donzellekasunen kalte bagarik, eguzkien argi errañue igeroten dan legez kristel bateti, kristela ausi, ez loitu bagarik.
 P. Eta bere Ama bizi izen ete zan gero beti donzelle?
 E. Bai Jaune beti.
 P. Zegaitik kurtzien il gure izen euen?
 E. Gu libretiarren pekatutik, eta betiko erijotzati.
 P. Zegaitik geunken betiko erijotzako sentenzije?
 E. Pekatu egin euelako gure lelengo gureso Adanek, zeñegan guztijok pekatu egin genduen.



P. Zein de, Jesukristo il ezkeru iatsi zen infernue?

E. Ez kondenaduen lekue, ezpada linboa, non egozan justoak.

P. Infernu bet baño geijego dago ala?

E. Bai, Jaune, dagoz lau lurren barruen, eta deritxoe, kondenaduen infernue; purgatorijoa; seiñen linboa; justoen linboa, edo Abrahamen senoa.

P. Eta ze gauze dire orreik?

E. Kondenaduen infernue da leku bet, zeñetara doazan pekatu mortalien ilten dirienak, an beti beti penaduek izeteko. Purgatorijoa da leku bet, zeñetara doazan grazijen ilten dirien arimak, euren pekatuen zor guztije pagau bagarik, an pena ikaragarrijekaz garbituek izeiteko. Seiñen linboa da leku bet, zeñetara doazan, batietuek izen bagarik uso errazoez-kora eldu baño lenago ilten dirien arimak. Eta justoen linboa, edo Abrahamen senoa da leku bet, zeñetara ioaten zirien, Jesusek gu pekatu-tik atara baño lenago, Jangoikoen grazijen ilten zirien arimak, guztiz garbituek egon ezkeru; eta berau de, Jesukristo gure Jaune egijez eta bene-tan iatsi zena.

P. Zelan iatsi zen?

E. Arimie Jangoikotasunegaz baturik.

P. Eta bere gorputze zelan gelditu zen?

E. Jangoikotasunegaz beragaz baturik.

P. Zelan biztu zen irugarren egunien?

E. Bere gorputz eta arime glorijez betie barriro batuten ziriela, oste-ra iñoz ez ilteko.

P. Zelan igon euen zeruetara?

E. Berez.

P. Zer esan gure dau Aite Jangoikoen eskoako aldetik iarririk ego-tiek?

E. Kristok Jangoikoa dan partez, Aitek lainbeste gloriye daukela; eta gizona dan partez, beste edozeñek baño geijago.

P. Nois etorriko da bizijek, eta illek juzgetan?

E. Munduen akabuen.

P. Eta orduen biztuko dire illek guztijek ala?

E. Bai Jaune, len euki zituezan gorputz eta arimakaz eurekaz.

P. Eta munduen akabue baño lenago juzgauek izengo ete gara?

E. Bai Jaune, guztijok geure bizitzien akabuen juzgeuko gaitu Jan-goikoak, eta emongo deusku sentenzije, onai zeruen beti gozetako, eta deungai infernuen beti penetan egoteko.

P. Zer sinistuten dozu, esaten dozunien «Santuen Komuniñoa»?

E. Kristiñeu fijelak partie daukiela bestien gauze oneetan, gorputz baten zatijek legez, zein den Elexie.

P. Zer da Elexie?

E. Da kristiñeu fijel guztijek batera arturik egiten daudien gorputze, zeñen burue dan Aite Santue.

P. Nor da Aite Santue?

E. Da Erromako Obispo nagusi, lurrien Kristoren Ordekoa, zeñeri guztijok obedezidu bier deutsegun.

P. Kredoaz eta artikuluek ganera, beste gauzerik sinistuten bozu?

E. Bai Jaune, liburu santuetan dagoan guztije, eta Jangoikoak bere Elexieri agertu deuten guztije.

P. Ze gauze dire orreik?

E. Ori ez niri pregunteu, iakiturije bakoa nasalako: baukez Elexa Santiek erakuslak, erantzuten iakingo daudienak.

MAIXUEK. Ondo diñozu. Maixuei toketan iakie, eta ez zuri, gure fedeko gauze guztijen kontue banan eta argiro emotie. Zuretzat asko da, iakitie fedeko artikuluek kredoan dagozan legez, ta eurek sinistutie.

Kristiñeuen Dotrinien bigarren partie, zeñetan espliketan dan, zer eskatu bier dan, eta Elexa Santien oraziñoak

Ikusi dogu zelan dakizun sinistu bier dana, zein dan lelengoa. Gato-zan bigarrenera, zein dan eskatu bier dana:

Esan egidezu

P. Nok esan euen Aite gurie?

E. Jesukristok.

P. Zetarako?

E. Guri oraziño egiten irakasteko.

P. Zer da oraziño egitie?

E. Da Jangoikoagana bijotza altzau, eta mesedik eskatutie.

P. Zeinbet modutekoa da oraziñoa?

E. Modu bitekoa, mentala, eta bokala.

P. Zer da oraziño mentala?

E. Da arimeko potenzijekaz egiten dana: memorijegaz akordetan gariela gauze onen bategaz. Entendimintuegaz gauze ori buruen erabilten dogule, eta bere gainien pensamintue darabilgule. Eta borondatiegaz pro-



positu onen batzuk egiten doguzela, esaterako, lengo pekatuekaz damutu, ez geijago pekatuik egiteko, eta konfesiño on bat egiteko, eta gero bizi-tze on bat egiteko...eta onelangoak.

P. Zer da oraziño bokala?

E. Da berbakaz eta miñegaz egiten dana, esaterako, Aite gurie erre-tzetan dogunien egiten dogune.

P. Eta oraziñoa zelan egin bier da?

E. Atenziñoagaz, umiltasunegaz, eta Esperantziegaz, onan oraziño-an luzero ireuten dogule.

P. Aite gurie esaten dozunien nogaz berba egiten dozu?

E. Geure Jaun, eta Jaungoikoagaz.

P. Non dago gure Jaun eta Jaungoikoa?

E. Leku guztijetan, batezbera zeruen, eta altarako sakramentu guztiz santuen.

P. Eta Jesukristo, gizona dan partez, non dago?

E. Bakarrik zeruen, eta Altarako sakramentu guztiz santuen.

P. Oraziño guztijen artien, zein de onena?

E. Aite gurie.

P. Zegaitik?

E. Dalako Jesukristo bere agoz esana. Apostoluek eskatute.

P. Zegaitik geijago?

E. Daukezalako zazpi petizino karidade guztijen fundeuek.

P. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa santifikedu bedi zure uzena.

P. Zer eskatuten dozu petiziño orretan?

E. Ezagutue, eta onradue izen dedille Jangoikoen uzena mundu guz-tijen.

P. Zein de bigarrena?

E. Betor gugena zure erreiñue.

P. Zer eskatuten dozu petiziño orretan?

E. Erreiñau dagijela Jangoikoak gure arimetan, emen lurrien grazijez, eta gero emon daigule gloriye.

P. Zein de irugarrena?

E. Egin bedi zure borondatie, zelan zeruen, alan lurrien.

P. Zer eskatuten dozu petiziño orretan?

E. Egin daigule Jaungoikoen borondatie lurrien gagozanok, zeruen zorijonekoak egiten dauden legez.

P. Zein de laugarrena?

E. Egunien eguniengo geure ogije emon egiguzu gaur.

P. Zer eskatuten dozu petiziño orretan?

E. Emon dagigule, gorputzek bier dauen ianariye, arimientzat grazi-ye ta Sakramentuek.

P. Zein de bostgarrena?

E. Parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunei parkatuten deutseguzen legez.

P. Zer eskatuten dozu petiziño orretan?

E. Parkatu daiguzela Jaungoikoak geure pekatuek, geuk atsekaberen bat emon deuskuneri, edo gatxen bat egin deuskuneri parkatuten deutse-gun legez.

P. Zein de seigarrena?

E. Ez egiguzu itxi tentaziñoan iausten.

P. Zer eskatuten dozu petizino orretan?

E. Jangoikoak ez daigule itxi iausten, diabruak iausi eragiteko dakar-guzen pensamintu zitel eta tentaziñoetan, ta ez eurei lekuri emoiten.

P. Zein de zazpigarrena?

E. Baie libreu gaizuz gatxerik.

P. Zer eskatuten dozu petiziño orretan?

E. Libreu gagizela Jangoikoak arimeko ta gorputzeko gatx guztietarik.

P. Zegaitik esaten dozu asieran: Aite gurie zeruetan zagozana?

E. Altzetako bijotza Jangoikoagana, ta eskatuteko mesediek umilta-sunegaz, eta konfilyentziegaz.

P. Akaberan esaten dozun berbiek: Amen, zer esan gure dau?

E. Alan izen dedille.

P. Zeintzuk dire Ama Birjiñieri erregututeko orazinorik onenak?

E. Abe Marije eta Salbie.

P. Nok esan euen Abe Marije?

E. Angeru San Grabielek Ama Birjinieri barri onak emoten etorri zanian.

P. Nok esan euen Salbie?

E. Elexa Ama Santiek dauko bereturik.

P. Zetarako?

E. Ama Birjiñieri mesediek eskatuteko.

P. Abe Marije, edo Salbie esaten dozuzenien, nori berba egiten deu-tsezu?

E. Geure Ama Birjiñe guztiz onari.

P. Nor da Ama Birjiñie?

E. Da birtutez beteriko andra bat, Jangoikoen Ama, ta zeruen dagoana.

P. Ta altaran dagoana nor da?



E. Zeruen dagoanen irudi bet.

P. Zetarako dago altaran?

E. Gu au ikusite, akordau gaitazan zeruen dagoanagaz, eta bere irudije dalako, erreberentzije daigun.

IRAK. Bada beste Santuen irudi ta imajiñei bere, alan egin biar deutsezu.

P. Angeruei eta Santuei bere erregutu biar ete deutsegu?

E. Bai, Jaune, geure bitartekoai legez.

P. Zer dire Angeruek?

E. Dire Jaungoikoa ikusten dagozan espiritu zorijoneko batzuk.

P. Zetarako egin zituzen Jangoikoak?

E. Bera beti alabau eta bedeinketu dagijen.

P. Zetarako geiyago?

E. Bere Ministroak legez, Elexie gobernetako eta gizonak iagoteko.

P. Orlan zuk ere baukezu zeure Angeru Guardakoa?

E. Bai, Jaune, bauket, eta gizon bakotxak dauko berie.

IRAK. Bada euki egijozu deboziño andije, eta egunien egunien bera-ri erreza eukijozu.

Irugarren partie, zeñetan espliketan dan zer egin bier dan

Ikusi dogu sinistu eta eskatu bier dozune, dakuskun zelan dakizun egin bier dozune. Esaizu.

P. Zein de Jaungoikoen legeko lelengo mandamintue?

E. Jangoikoa ametie gauze guztijen ganien.

P. Nok ametan dau Jangoikoa?

E. Bere mandamintu santuek gordetan dituzenak.

P. Zer da Jaungoikoa ametie gauze guztijen ganien?

E. Gauze guztijek galdu gurago izetie, bera ofendidu baño.

P. Zetara geiyago obligetan gaitu mandamintu onek?

E. Gorputzeko ta arimeko alegin guztijekaz bera bakarrik adoretara, bieran sinistu ta esperetan dogule fede bizi bategaz.

P. Nok egiten deu pekatu, onen kontra?

E. Idolo, edo guzurrezko Jangoikoak adoretan dituzenak, edo euren sinistuten dauenak; fedien kontrako gauzeren bat sinistuten dauenak, edo fedeko misterijoren baten ganien duderan bat daukenak; edo dotrinie

bier dan legez ez dakijenak; fede, esperantza, eta karidadeko aktoak bier dirienien egiten ezituzenak; edo Jangoikoen miserikordijan esperetan ez dauenak; edo prestaera txarragaz Sakramenturen bat artuten dauenak.

P. Nok geiyago?

E. Aztuei sinistie emoten deusienak; edo sorginkerijetan dabilteza-
nak; edo okerreko gauzakaz, edo oker Jaungoikoa adoretan daudienak.

P. Zein de bigarren mandamintue?

E. Ez jureminturik egitie arpelik.

P. Nortzuk arpelik juremintu egiten daude?

E. Egije baga, justizije baga, edo nezesidade baga juremintu egiten daudenak.

P. Zer da egije bagarik juremintu egitie?

E. Da juremintu egitie norberen eretxijen kontra, edo guzurregaz.

P. Eta egije bagarik, edo dudan dagoala juremintu egitie, ze pekatu de?

E. Pekatu mortala, juremintue gauze txikerren ganien izen arren bere.

P. Zer da justizije bagarik juremintu egitie?

E. Da juremintu egitie gauze txarren bat egiteko; esaterako, projimueri gatzen bat egiteko.

P. Eta ze pekatu de justizije bagarik juremintu egitie?

E. Juremintue gauze andijen ganien bada, pekatu mortala; eta gauze txikerren ganien bada, pekatu beniel.

P. Zer da nezesidade bagarik juremintu egitie?

E. Da juremintu egitie balijo gitxiko gauzak gaitik, edo ezerizaoko (sic).

P. Ze pekatu de au?

E. Pekatu beniel, egijek, eta justizijek lagunduten badeutse.

P. Eta egiten dauenak boto, juremintu, edo promesen bat, gauza onen bat egiteko, kunplidu biar ete dau?

E. Bai Jaune, eta ez kunplietie, edo kunplidu bagarik luzero eukitie, pekatu mortala da, gauze astunen ganien izan ezker.

P. Eta Jangoikoak egiñiko gauzakgaitik arpelik juremintu egitie, pekatu ete da?

E. Bai Jaune, zegaitik eze, euretan egiten iako, euren Krijedore Jangoikoari.

P. Ze moduten juremintu egiten da Jaungoikoak egiñiko gauzak gaitik?

E. Esaten dala, kontureko, neure arimiegaitik, zeruegaitik, lurregaitik juremintu egiten dot, au, edo bestie, onan edo alan dala.

P. Ze neurri artu giñaike juremintu arpelik ez egiteko?



- E. Artu ekandue, esateko: Bai, edo ez: onez ganera ezerbere esan bagarik, Jesukristok erakusten deuskun legez.
- P. Eta agindu onetan beste gauzerik galerazoten bada?
- E. Bai, Jaune, galerazoten da blasfemije bere, zein den, esatje berba txarrak Jaungoikoagaitik, edo bere santuekgaitik; eta au pekatu mortala da
- P. Zein de irugarrena?
- E. Domekak eta iaiyek gordetie.
- P. Nok gordetan ditu iaiyek?
- E. Meza osoa entzun, eta premiñe bagarik, biarrik egiten ez daudenak.
- P. Eta ze pekatu de domeka eta iaiyetan premiñe бага biar egitie?
- E. Ordu birik gora biar egiten bada, pekatu mortala: eta ordu birik beerakoa bada, geijenez pekatu beniola.
- P. Zein de laugarrena?
- E. Aite eta ama onretie.
- P. Nok onretan ditu guresoak?
- E. Euren esanak egiten dituezanak, eurei lagundu, ta lotsie gordetan deutsienak.
- P. Nortzuk egiten daude pekatu mortala onein kontra?
- E. Etxien, eta arimien onerako dirien gauzetan, guresoen esanak egiten eztituezan seme alabak; guresoai euren premiñetan lagunduten ezteutsienak; biraoak botaten deutsiezanak; burle egiten deutsienak; eta ezkondupeko biarretan dabiltezanak euren barri ta borondate bagarik.
- P. Nortzuk besterik entdietan dire guresoen uzengaz?
- E. Nagosijagoak edadien, onran eta agintaritzan.
- P. Eta mandamintu onetan sartuten ete dire seme alabak gurasoak-ganako daukiezan obligazioiez ganera, besteren batzuk?
- E. Bai Jaune, nagosijagoak euren agindupien daukiezanaganakoak, eta gurasoak euren seme alabaganakoak.
- P. Zeintzuk dire orreik?
- E. Emotie ianarije, irakatsi dotrinie, kastigau okerrerijak egiten dituezanien, ejenplu ona, eta iagokien estadue bere denporan.
- P. Ze pekatu egiten daude, onetan faltetan daudienak?
- E. Geijenez pekatu mortala.
- P. Zein de bostgarrena?
- E. Ez iñor iltie.
- P. Zer aginduten da mandamintu onetan?
- E. Ez egitie iñori gatxik ez egitez, ez esatez, ez desioz bere.
- P. Nok egiten dau pekatu mortala mandamintu onen kontra?

E. Bere burueri, edo iñorenari erijotzie, edo gatx andiren bat desietan deutsienak; norbait il, edo zaurituten dauenak; iñor ioten dauenak; osanunien kalte andije egingo deutsien gauzak iaten dituezanak; bere bizitzie galduteko arriskuen iarten danak; edo norbere burue ilten dauenak, eta norberari edo besteri birao egiten deutsenak.

P. Zer da birao egitie?

E. Da eskatutie gatxen bat norberentzat, edo besterentzat, esango baleu legez: Arren bada mille demoniñok infernure eroango al naijoek. Arren bada, Ortze illik iausiko al az.

P. Ze pekatu de birao, egitie?

E. Gatx andije desietan baiyako, pekatu mortala.

P. Eta gatx andirik desietan ez baiako?

E. Pekatue beniola, beti ezpada bere.

P. Nortzuk pekatu mortala egiten daude birao andije eginegaz desio txar bagarik?

E. Geijenez gurasoak eta nagosijagoak, euren agindupekoen aurrien biraoak botaten dituezanak; biraoak botateko ekandu txarra daukienak, eta kenduteko aleginik egiten ez daudenak.

P. Zegaitik ori?

E. Euren berba txar, eta ejenplu gaiztoakaz bestie pekatueko bidie emoiten deutsielako; eta oneri deritxo eskandalue.

P. Zein de seigarrena?

E. Aragizko pekatuek ez egitie.

P. Zer aginduten iaku mandamintu onetan?

E. Izen gaitezala garbijek pentzamentu, berba eta obretan.

P. Nortzuk egiten daude pekatu mortala mandamintu onen kontra?

E. Borondatez pensamintu loijek daukiezanak, gauze txarrak egin ez arren, eta egiteko deseorik bere euki ez arren; berba loijek esaten dituezanak; kanta zikiñek kantetan dituezanak; edo borondatez entzuten dituezanak; bestie tokamintu loijek egiten deutsiezanak; euren buruekaz biar ez dan lekuetan nabarmenkerijak egiten dituezanak; edo egiteko deseorik txarrak daukiezanak.

P. Zein de zazpigarrena?

E. Ez iñori ezer ostutie.

P. Zer aginduten da mandamintu onetan?

E. Ez dagigule kendu, ez euki, ez gure izen iñoren gauzerik iaubien borondatien kontra.

P. Nortzuk egiten daude pekatu mortala onein kontra?



E. Oneitariko edozeinbere gauze egiten daudenak; edo beste moduren baten projimueri kalte egiten deutesenak, dan moduen dala, bere ondasunetan, gauze astunien.

P. Eta oneitan projimueri kalte egiten deutesenak edozeinbere moduten, baukie ezer egin biarrik?

E. Bai Jaune, ainbet lasterren biurtu biar deutsie iaubieri ostu deutsen gauzie; eta osotu, egin deutesiezan kalte guztijek.

P. Zein de zortzigarrena?

E. Iñori faltso testimoniñorik ez eregitie, eta guzurrik ez esatie.

P. Zer aginduten da mandamintu onetan?

E. Ez egitie projimuegaitik juizijo txarrik arin, au de, motibu bagarik; eta bere faltak ez esatie, ez borondatez entzuten egotie.

P. Nok ausiten dau mandamintu au?

E. Juizijo txarra errazoen kontra, au de, atarako biar dan lainbesteko motiburik euki baga projimuegaitik egiten dauenak, iñori kleitue kenduten deutesenak; gauze ixil, ta ezkutukoa agertuten dauenak; eta guzurre esaten dauenak.

P. Eta projimueri kleitue gauza astunien kenduten deutesenak, esanagaz beragaitik egin ez dauen gauzaren bat; edo egin dauena, baña ixillien eta ezkutuen dagoana; edo bere faltakaz arpegijen emoten deutesenak, zer egin biar dau?

E. Biurtu biar deutso kendu deutesen kleitue, eta onrie.

P. Zer da galarazoten dana bederatzigarren eta amargarren mandamintuetan?

E. Aragizko atseginen eta iñoren ondasunen desio txarrak.

ELEXA AMA SANTIEN MANDAMINTUEK

P. Elexa ama Santien mandamintuek, zeinbet dire?

E. Bost.

P. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa meza osoa entzutie domeka eta iai guztijetan.

Bigarrena, urtien bein gitxijenez konfesetie; edo lenago erijotzako peligrurik badago; edo komulgau biar badau.

Irugarrena Garizumeko Paskoetan komulgetie.

Laugarrena Elexa Ama Santiek aginduten dauenien barau egitie.

Bostgarrena amarrenak, eta premezijak Jaungoikoen Elexieri pagetie.

P. Zetarako dire mandamintu oneik?

E. Jangoikoen legekoak obato gordetako.

P. Eta lelengo mandamintue, zein den mezie entzuteko, nortzuk gorde bier daude?

E. Uso errazozkora eldu dirien kristiñau guztijek.

P. Zelan entzun biar da mezie?

E. Egonik atenziño, deboziño, eta errespeto andijegaz, Jesukristo gure Jaunen pasiñoa, edo beste gauze onen batzuk buruen darabilguzela; edo zerbaist errezetan.

P. Eta motibu andirik euki baga mezie entzuten ez dauenak; edo dagoanak meza guztijen, edo zati andijen atenziño baga; edo mezarik ez entzuteko arriskuen iarten danak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala.

P. Eta bigarrena eta irugarrena, zeintzuk dirien konfesetie eta Komulgetie, nortzuk gorde biar dituez?

E. Pekatu mortalen bien, uso errazozkora eldu dirien kristiñeu guztijek.

P. Eta pekatu mortalien komulgetan dirienak, mandamintu oneik kunprietan ete dituez?

E. Ezelanbere ez Jaune; eta Sakramentu bi oneitatik baxotxa deungero artuten deudenien, pekatu mortala egiten daudie.

P. Ilteko arriskuen aurkituten danak, konfesorerik ez badauko, zer egin biar dau?

E. Akto kontriziñoko bat, Neure Jesukristo Jaune bijotzez esaten dauela, konfesetako proposituegaz.

P. Eta laugarrena, zein den barau egitie, nortzuk gorde biar daude?

E. Ogeta bat urte kunplidu dituezanak.

P. Eta zelan egin biar da barau?

E. Egunian jatealdi bat baño egiten ez dala, eragotzirik ez dagozan janarijekaz, eta jatealdi au egerdijen egin biar da.

P. Eta barau ausi bagarik, artu ete leike ezer goxien?

E. Bai Jaune, artu leike ontza bat legez, motiburik badago, motibu au txikerra izen arren bere.

P. Eta gaubien?

E. Artu leike kolaziñotzat, kristineu onen artien artu oi dana, preguntaurik onen ganien, duderik badauko, konfessore iakintsu bateri.

P. Eta nortzuek daukie galerazorik aragije jatie bijilije ta barau egunetan; oneitan nastitutie okelie ta arraiñe iatordu baten, eta iatie arrontzak, eta ezneiagijek garizuman, bulderik euki baga?

E. Uso errazozkora eldu dirien guztijek.

P. Eta ze pekatu egiten daude, oneik gordetan ezituezanak?



E. Pekatu mortala, alango egunetan iaten dauden guztijetan, eta bakotxien.

OBRA MISERIKORDIJEZKOAK

P. Zeinbet dire Obra miserikordijezkoak?

E. Amalau: zazpi arimieri, eta beste zazpi gorputzeri iaokazanak.

Arimieri iagokazanak dire oneik.

Lelengoa ez dakienari irekastie.

Bigarrena biar dauenari konseju ona emotie.

Irugarrena erratuten dauena arteztutie.

Laugarrena gatx eginek parkatutie.

Bostgarrena triste dagoana poztutie.

Seigarrena projimuen utsegite ta argaltasunek pazienzijegaz igerotie.

Zazpigarrena bizijek eta illegaitik Jaungoikoari erregututie.

Gorputzeri iagokazanak dire oneik.

Lelengoa geixoak bisitetie.

Bigarrena gose danari iaten emotie.

Irugarrena egarri danari edaten emotie.

Laugarrena kautiboak erreskatetie.

Bostgarrena billosak iantzitue.

Seigarrena peregrinoai ostatua emotie.

Zazpigarrena illek enterretie.

P. Zegaitik deritxoie miserikordijezkoak?

E. Justizijez zor ez dirielako.

P. Nos dire obligeziñoakoak?

E. Gizon entendiduen eretxijen, premiñe andikoak dirienien.

P. Eta kristiñeuek egiten dituzen obra miserikordijezko oneikgaitik, eta beste gauze onakgaitik; nai izen agindute dagozanak, nai borondatezkoak, zer irepaziten dau?

E. Jangoikoen grazijan badago, euren bitartez geitutie emen grazije ta gero gloriye; pagau Jaungoikoari bere pekatuen zorra; eta alkantzau Jangoikoaganik arimeko onera ta mesediek; baita gorputzekoak bere, arimien kaltien izengo eypadire.

P. Zetarako esaten dozu: «Jangoikoaren grazijan badago?»

E. Pekatu mortalien dagozanak egiten dituezan obra onakaz, ez dagoalako irepaziterik, ez pekatuen zorra pagetarik; baie alanbere euren bitartez Jaungoikoaganik mesederen batzuk alkantzau giñeikez.

Dotrinien laugarren partie, zeñetan espliketari dirien Sakramentu Santuek

Ikusi dogu zelan dakizun zer sinistu, zer eskatu, eta zer egin biar dozun: dakuzkun orain zelan dakizun zer artu biar dozun, zein den azkeneoa. Esan egizuz Sakramentu Santuek.

Elexa Ama Santien Sakramentu Santuek dire zazpi. Lelengo bostak dire gure, ta gure-ezkoak, izetex edo borondatez, zeintzuk бага salbau ezin leitekien, itxiten baditu nagitasunez, edo ezetan ez eukiz: beste bijek dire borondatezkoak.

Lelengoa Bautismue.

Bigarrena Konfirmaziñoa.

Irugarrena Konfesiñoa.

Laugarrena Komuniñoa.

Bostgarrena Oliaziñoa.

Seigarrena Ordia Sagradua.

Zazpigarrena Matrimoniñoa.

P. Ze gauze dire Sakramentuek?

E. Dire Jesukristo gure Jaunek itxiriko señaie agiri batzuk, euren bitartez emoteko guri bere grazije eta birtutiek.

P. Zer da grazije?

E. Da izate Jangoikozko bat, zeñek egiten gaituzen Jangoikoen seme ta zeruko herederu, edo iaubegi.

P. Eta zelan deritxo grazije oneri?

E. Santututzallie.

P. Eta onezaz ganera, ete dago beste grazije modurik?

E. Bai, Jaune, bagoz beste batzuk, orduberekoak esaten iakienak, edo laguntasun batzuk, edo argitasun batzuk, zeintzuk bagarik ezin giñaikien asi, ez berari iarraitu, ez bera akabau, betiko bizitzie irebazteko gauzerik.

P. Eta ze gauze dire orreik?

E. Dire Jaungoikoak emoitene deuskuzen laguntasun batzuk, gauza txarretatik apartetako, eta gauze onak egiteko; esaterako, sermoiek entzute; ejenplu onak ikustie; uste bagako erijotzen barrije artutie; eta argita-



sun batzuk, zeintzukaz argituten dituzen Jaungoikoak gure entendimientuek; eta desio santu batzuk, zeintzuekaz mobietan dituzen gure borondateiek onerako.

P. Ze birtute emoitena daude Sakramentuek, grazijegaz batera?

E. Batez bere iru Jaungoikozkoak.

P. Zeintzuk dire?

E. Fedie, Esperantzie, eta Karidadie.

P. Zer da Fedie?

E. Ikusi eztogune sinistutia, Jangoikoak alana agertu dauelako.

P. Zer da Esperantzie?

E. Esperetia zeruko glorie, Jangoikoen laguntasunen, eta geure obranonen bitertez.

P. Zer da Karidadie?

E. Jaungoikoa ametia gauze guztien ganien, eta geure proiektuek geure burue legez, euren egiten deusegule, euren geuri egitia gureko geunkiena.

P. Zetarako da Bautismuko Sakramentu Santue?

E. Kenduteko pekatu orijinala, eta batiatutena danak besterik baleuko bere.

P. Zer da pekatu orijinala?

E. Da ia iyoten garienien geure leengo gurasoetatik heredatutadakargune.

P. Premiñeko denporan, nok batiatu leike?

E. Edozein bere gizakume, edo emakume, entendimintuko argitasune daukenak.

P. Eta zelan batiatu biar da?

E. Ure botatena dala seiñen buruen ganera, eta onegaz batera esatena dala, batiatuteko intenzioagaz: Nik batiatutena zaitut, Aitien, eta Semien, eta Espiritu Santuen uzienien. Amen.

P. Zetarako da Konfirmaziñoko Sakramentu Santue?

E. Bautismuen artu genduen fedien konfirmatua eta sendotuteko.

P. Usu errazoezkora eldute, Sakramentu Santu au pekatu mortalien artutena dauenak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatut mortala.

P. Zer egingo dau bada artutena dauenien, pekatuturik ez egiteko?

E. Aurrez prestatu, eginik Konfesio on bat.

P. Zetarako da Konfesiñoko Sakramentu Santue?

E. Batiatu ezkeru eginiko pekatuek partatuteko.

P. Ze pekatu dire orreik?

E. Mortalak, eta benielak.

P. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatia, egitia, pensetia, edo desetia zerbaist Jangoikoen legien kontra gauze astunien.

P. Zegaitik deritxu mortala?

E. Ilten dauelako egiten dauenen arimie.

P. Nos artutena dogu Konfesiñoko Sakramentu Santue?

E. Ondo konfesaute, absoluziñoa artutena dogunien.

P. Zeinbet gauze bier dire Konfesiñoa ona izeiteko?

E. Bost gauze, Jaune.

P. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa Esamiñie.

Bigarrena Damue.

Irugarrena Propositue.

Laugarrena Pekatuen Konfesiñoa.

Bostgarrena Satisfaziñoa.

P. Zer da Esamiñie?

E. Da alegiñek egitia pekatuek burure ekarteko; edo zeinbet pekatu egin deuen iakiteko.

P. Nondi egingo da Esamiñie?

E. Jangoikoen legeko amar mandamintu santuetati, bost Elexakoetati, amalau obra miserikordije zkoetati, pekatu kapitaletati, eta baktaxaren obligaziñoetati.

P. Zer da esamiñie aurrien egin biar dana?

E. Jaungoikoari argitasune eskatu, bere pekatuek ezaututeko.

P. Zer da damue?

E. Artutie bijotzien egin den pekatuen garbai, pena, eta atsekabie.

P. Zeinbet modutekoa da damue?

E. Modu bitekoa.

P. Zeintzuk dire?

E. Amodijozko, edo Kontriziñoko bata; eta bildurrezko, edo Atrizinokoa bestie.

P. Amodijozko, edo Kontriziñoko damue zer da?

E. Da artutie damu bizi bet, ofendidu dauelako Jaungoikoa, izenik aйна, konfesetako, onduteko, eta penitenzije kunpletako intenziñoagaz.

P. Zer da Bildurrezko, edo Atrizinoko damue?

E. Da eukitie damu bizi bet, Jangoikoa ofendidu dauelako, edo pekatuen ezaintasunegaitik; edo infernuen bildurregaitik, edo Zeruko glorie



galdu dauelako; edo bere arimie guztiz ezaindu dauelako, konfesetako, onduteko, eta penitentzije kunplietako intenziñoagaz.

P. Damu bi oneitatik oneena zein de?

E. Amodijozko, edo Kontriziniñoa.

P. Zegaitik?

E. Kontriziniñoa datorrelako amodijoti, eta Atriziniñoa bildurreti: Kontriziniñoa damuegaz, konfesau baño lenago parkatuten dire pekatu mortalak, eta geldituten da Jangoikoen grazijan; baie atriziniñoagaz bakarririk, ez dire alkantzetan arimeko zorijontasun oneik.

P. Konfesioa ona izateko, asko ete da atriziniñoa damue, ala kontriziniñoa biar ete da?

E. Geijenak diño, asko dala atriziniñoa, baie obetoago eta segurua-go dala kontriziniñoa; eta au eukiteko alegiñe egin biar dauela konfesetan danak.

P. Nos euki biar da damue?

E. Konfesoriek absoluziñoie emon baño lenago.

P. Zer da Propositue?

E. Da artutia intenziño, eta borondate firme bat, ez iñoz geiyego pekatu mortalik egiteko.

P. Zer da Konfesiñoa?

E. Da esatie zietz eta argiro pekatu mortal guztijek Konfesorieri, penitentzije kunplietako borondatiegaz.

P. Itxiten dauenak lotsaz konfesau bagarik pekatu mortalen bat; edo konfesetan dauenak egin ez dauen pekatu andiren bat; edo konfesetan danak damu бага, propositu бага, edo penitentzije kunplietako borondate бага, konfesiño ona egiten ete dau?

E. Ez Jaune, egiten dau sakrilejijoko pekatu mortal andi bet, eta konfesau bier ditu barriro, len konfesauak, eta konfesau bakoak, baitebere konfesiño ta komuniño txarrakaz egin dituzen sakrilejijoko pekatuek.

P. Nortzuk sinistu leikie ez daudela euki damurik, ez propositurik euren konfesinoietan?

E. Pekatuko okasiñoietatik apartetan ez dirienak, eta konfesiño bate-rik bestera lengo pekatuetara biurtuten dirienak.

P. Eta damu ta propositu egijezkoa artuten lagunduteko, zer egitie ondo izengo da?

E. Konfesau baño lenago eskatu Jaungoikoari, konfesiño on bat egiteko laguntasuna emon dakijola; erabilli gogoan Jaunak egin deutsezan mesediek; edo bere pasiñoa eta erijotzie, edo bere ontasune; eta esan bein, birriten, eta geijagotan: «Neure Jesukristo Jaune».

P. Zer da Satisfaziñoa?

E. Da pagetie Jangoikoari geure pekatuen zorra, kunplietan dogue konfesoriek iminten deuskun penitentzije.

P. Eta ze pekatu egiten dau penitentzije kunplietan ez dauenak, edo luzero kunplidu bagarik dauenak?

E. Pekatu mortala, penitentzije andije bada.

P. Pagau ete ginaikijo Jaungoikoari geure pekatuen zorra, iminten deuskuen penitentzijeze genero beste gauzegaz?

E. Bai Jaune, Jaungoikoen grazijan gagozala egiñiko obra on guztijekaz, eta induljenzijak irebazijegaz.

P. Zertzuk dira Induljenzijak?

E. Dire Elexa Santieki emoten dituzen grazije batzuk, zeintzuekigaitik parkatuten dan, pekatuakgaitik mundu onetan edo bestien igaro biar-ko litzatekien pena eta kastige.

P. Zelan irebaziko dire?

E. Eginik Jangoikoen grazijan, onetarako aginduten dana.

P. Mundu onetan euren pekatuen zorra pagau ez eudielako purgatorijora doazanai, guk lagundu ete ginaikijagüe?

E. Bai, Jaune, geure pekatuen zorra pagau gineikien obra onakaz eurekaz.

P. Eta norbait pekatu mortalien iausten danien, konfesau bier ete dau laster beriel, parkatua izen dakijon?

E. Guztiz ondo izengo litzateke; baña ez dago aparteko agindurik. Iakin biar da pekatu mortalien lo egitie, infernuko atetan lo egitie legez dala.

P. Zer da pekatu beniela?

E. Da esatie, egitie, pensetie, edo desietie zerbaist Jangoikoen legien kontra gauze txikerren gani.

P. Zegaitik deritxo beniela?

E. Arin eta erraz beratan iausten garielako, eta arin eta erraz parkatuten iakuleko.

P. Zeinbet gauzegaitik parkatuten da pekatu beniela?

E. Bederatzigaitik.

P. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa meza entzutiegaitik.

Bigarrena komulgetiegaitik.

Irugarrena Ni pekatarije esatiegaitik.

Laugarrena Obispo Jaunen bendiziñoagaitik.

Bostgarrena ur bedeinketuegaitik.



Seigarrena ogi bedeinketuegaitik.

Zazpigarrena Aite gurie esatiegaitik.

Zortzigarrena sermoie entzutiagaitik.

Bederatzigarrena bulerra jotiegaitik Jangoikoari parka eskatuten deutsegule.

P. Zegaitik esaten dozu: «Jangoikoari parka eskatuten deutsegule?»

E. Adierazoteko, pekatu benialen parkaziñoa alkantzauko bada, gauze onein bitartez, euki bier dogule euren damu onen bat.

P. Konfesau biar ete doguz pekatu benielak?

E. Ondo litzateke, baie ez da premiñezkoa.

P. Eta orainengo konfesiñotik ona, pekatu benielak baño eztaukezanak, zer egin leike, damue ta propositue ziertuego eukiteko?

E. Konfesau lelengo orainengo konfesiñoti onako pekatu benielak; eta gero lengo bizitzeko pekatu mortalen bat.

P. Zetarako da Sakramentu Santu Komuniñoakoa?

E. Ondo prestaute artuten bada, izen dedin gure arimen ianarije, eta grazije geitu daigun.

P. Zegaitik diñozu: Ondo prestaute artuten bada?

E. Adierazoteko, Sakramentu Santu au ez dala izengo gure arimen ianarije, artuten ezpadogu bier dirien prestaerakaz, bai arimien aldeti, eta bai gorputzen aldeti.

P. Ze prestaera bier da bada arimien aldeti?

E. Jangoikoen grazijan egotie.

P. Eta pekatu mortalien iausi dana, zelan prestauko da komulgetako?

E. Konfesiño on baten bitertez.

P. Eta kofesiño ostien pekatu mortalen bat akordetan iakonak, zer egin bier dau?

E. Konfesau barriro, komulgau baño lenago.

P. Gorputzen aldeti, ze prestaera bier da?

E. Baraurik egotie (Komuniño santue Elexakoak artuteko eztanien) ezberbere ian, ez edan bagarik, igaro dan gaueko amabijetati aurrera.

P. Komuniñoako sakramentu santuen zer artuten dozu?

E. Jesukristo, Jangoiko ta gizon egijecko, Altarako Sakramentu santuen egije guztijegaz dagoana.

P. Nor dago ostrijan konsagraziñoako berbak esan ezkeroko?

E. Jesukristoren gorputze, bere odol, arime, eta Jaungoikotasunegaz batera.

P. Eta kalizan?

E. Jesukristoren odola, bere gorputz, arime, ta Jaungoikotasunegaz batera.

P. Onan Jesukristo guztije dago ostrijan eta Kalizien?

E. Bai Jaune, Jesukristo guztije dago ostrije guztijen, guztije ostrijen edozein zatiten, eta bardin Kalizien.

P. Konsagraziñoako berbak esan azkero ete dago ostrijan ogirik, edo kalizan ardaorik?

E. Ez Jaune, ezpada ogijen eta ardaoen antz eta irudijak, zeintzuk dirien useiñe, kolorie, gustue.

P. Eta zatituten bada ostrije, edo erdibitu kalizan dagoana, zatituten, edo erdibituten ete da Jesukristo?

E. Ez Jaune, guztije osorik geldituten da zati guztijetan eta bakotxien.

P. Pekatu mortalien komulgetan danak, artuten ete dau Jesukristo?

E. Bai Jaune, baie bere kaltien; bada egiten dau Sakrilejijoko pekatu mortal ikeragarri bet.

P. Eta ondo prestaute artuten dauenak, zer egin legije grazije andijegoak artuteko?

E. Komulgau baño lenago gogoan erabili, nor dan eurekgana datoren Jaune; egin sarriten fede, esperantza, ta karidadeko aktoak; komulgau umiltasun, fede bizi, ta deboziño andijegaz, eta gero emon eskerrak Jesu-seri, egin deutesen mesede ain andijegaitik.

P. Zetarako da Olieziñoako Sakramentu Santue?

E. Iru gauzetarako.

P. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa, lenagoko bizitze txarreko errastu eta apurrek kenduteko. Bigarrena sendotuteko arimie diabruen tentaziñoen kontra.

Irugarrena emoteko gorputzeko osasune, arimien kaltien izengo ezpada.

P. Ezauerara eldute, ilteko arriskuen gaixorik dagozanak artu bier ete daude Sakramentu Santu au?

E. Bai Jaune, eta pekatu mortala egiten daude, al daudela, artuten ezpadaude, edo artuten badaude pekatu mortalien.

P. Zer egingo dau bada pekatu mortalien dagoanak, ondo prestaunik artuteko?

E. Konfesiño on bategaz garbitu bere arimie, eta ezin bada konfesau, egin akto kontriziñoako bat, edo batzuk.

P. Zetarako da Sakramentu Santu Ordiekoa?

E. Konsagretako eta ordenututeko elegizton duiñek, zelan dirien Sazerdote Jaunek, Diakonuek, eta Subdiakonuek.



P. Eta Elesgizonai, eta batezbera Sazerdote Jaunei, gorde bier ete iakie berarizko lotsa, itzal, eta erreberenzije?

E. Bai Jaune.

P. Zetarako da Sakramentu Santu Matrimoniñoakoa?

E. Ezkonduteko, eta emoiteko grazije ezkonduer, euren artien bake santu baten biziteko, eta seme alabak zerureko aziteko.

P. Eta Sakramentu Santu au ondo artuteko, ezkonduten dirienak egon bier ete daudie Jangoikoen grazijan?

E. Bai Jaune.

P. Eta Jaungoikoen grazijan ez dagozanak, zelan prestau bier daude ondo artuteko?

E. Konfesiño on bategaz.

PEKATU KAPITALAK DIRE ZAZPI

Lelengoa Arrokerije. Bigarrena. Abarizije. Irugarrena Lujurije. Lau-garrena Aserre txarra. Bostgarrena Gulerije. Seigarrena Bestien onaren damue. Zazpigarrena Gauze onetarako nagitasune.

P. Zegaitik deituten deutsezu Kapitalak, geijenien mortalak esaten iakien zazpi pekatu oneiri?

E. Deituten iakie Kapitalak, dirielako euretarik urteiten daudien beste pekatuen buru, iturri, eta sustraijek legez; etxatorkie barriz ain ondo mortalen izena; bada askotan ez tire benielak baño.

P. Nos dire mortalak?

P. Jangoikoen eta projimuen karidadien kontra dirienien.

P. Nos dire karidadien kontrakoak?

E. Euren bitartez ausiten daniel Jaungoikoen legeko, edo Elexa Santien mandaminturen bat gauze astunien.

P. Zer da Arrokerije?

E. Bestiek baño geiyago izeteko desio bidebagako bat.

P. Zer da Abarizije?

E. Da munduko ondasunen desio lar bat.

P. Zer da Lujurije?

E. Da gorputzeko atsegin loijen desio bidebagako bat.

P. Zer da Ira, edo Aserre txarra?

E. Da projimueri bengetako desio txar bat.

P. Zer da Gulerije?

E. Da ondo ian, edan, eta gorputze eregetako desio geijegi bat.

P. Zer da Inbidije, edo Ondamue?

E. Bestien ona ikusi eziñe.

P. Zer da Nagitasune?

E. Da gauze onetarako iausitasune, astuntasune, eta narrastasune.

ZAZPI PEKATU ONEIN KONTRA DAGOZ ZAZPI BIRTUTE

Arrokerijen kontra Humiltasune

Abarizijen kontra Prestutasune.

Lujurijen kontra Kastidadie.

Aserre txarren kontra Pazienzije.

Gulerijen kontra Tenplantzie.

Inbidijen kontra Karidadie.

Nagitasunen kontra, Prestatasune, edo Bizkortasune.

IÑES EGIN BIAR DEUTSEGÛEN ARIMEKO ARERIJOK DIRE IRU

Lelengoa Mundue. Bigarrena Demoniñoa. Irugarrena Geure aragije.

P. Zein de Mundue?

E. Dire gizon mundutar, gaisto, eta deungak.

P. Zein de Demoniñoa?

E. Da Jangoikoak zeruen egin euen angeru bet; baie Jaungoikoari kontra egin eutselako, Jangoikoak beste askogaz bota eban infernuetara bere gaiztakerijeko lagunekaz, zeintzuei deituten deutsegen demoniñoak.

P. Zein de Aragije?

E. Da geure gorputze bera, bere pasiño txar, eta desio zitelakaz.

P. Zelan azpiretuten da Mundue, eta iñes egiten da beragandik?

E. Beragandik iñes egiten dala; eta bere arrokerije, eta zorakerijak desprezijeuegaz.

P. Zelan azpiretuten da Demoniñoa, eta iñes egiten da beragandik?

E. Oraziñoagaz, eta Humiltasunegaz.

P. Zelan azpiretuten da aragije, eta iñes egiten da beragandik?

E. Barauekaz, zilizjoakaz, azotiekaz, eta lastasunekaz. Au de gure arerijorik andijena, bada ezin bota giñeike geuganik; Mundue, eta Demoniñoa bai.

BIRTUTE TEOLOGALAK, EDO JAUNGOIKOAGANANTXA- KOAK DIRE IRU

Lelengoa Fedie. Bigarrena Esperantzje. Irugarrena Karidadie.

P. Zelan egongo gara faltau bagarik, birtute onein aktoak egiteko daukegun obligaziñoa?



E. Errezetan doguzela sarriten eta deboziñoz (edozein kristiñeuk bier dauen legez) Kredoa, Aite gurie, eta bijotzetik esanagaz: Neure Jesu-kristo Jaune. Alanbere guztiz ondo da, aktoak eurek egitie sarri.

BIRTUTE KARDINALAK DIRE LAU

Lelengoa Prudentzije. Bigarrena Justizije. Irugarrena Sendotasune. Laugarrena Tenplanzie.

GORPUTZEKO SENTIDUEK DIRE BOST

Lelengoa begijekaz ikustie.

Bigarrena belarrijekaz entzutie.

Irugarrena agoagaz gustue artutie.

Laugarrena surregaz usein egitie.

Bostgarrena eskuekaz ukututie.

P. Zetarako emon euskuzen Jangoikoak sentiduek, eta gorputzen beste zatijek?

E. Guztijekaz, eta gauze guztijetan bera serbidu giñeijen.

ARIMEKO POTENZIJEK DIRE IRU

Memorije: Entendimentue, eta Borondatie.

P. Zetarako emon euskun Jangoikoak Memorije?

E. Akordau giñaitazan beragaz, eta bere mesedikaz.

P. Zetarako emon euskun Entendimintue?

E. Bera ezagututeko, eta bera sarriten gogoan erabilteko.

P. Zetarako emon euskun Jangoikoak Borondatie?

E. Amau ginaijen Ontasun osoa legez, eta projimue beragaitik.

P. Zer da gure arimie?

E. Da espiritu bet, il ezin leitekiena, Jangoikoak ezerezetik bere antz eta irudire egiñe.

ESPIRITU SANTUEN DOIEK DIRE ZAZPI

Lelengoa Iagiturijeko Doie.

Bigarrena Entendimintuko Doie.

Irugarrena Konsejuko Doie.

Laugarrena Iakiturijeko Doie.

Bostgarrena Sendotasuneko Doie.

Seigarrena Piedadeko Doie.

Zazpigarrena Jaungoikoaren bildur santuko Doie.

ESPIRITU SANTUEN FRUTUEK DIRE AMABI

Lelengoa Karidadie. Bigarrena Bakie. Irugarrena Bijotzeko anditasune. Laugarna Biguntasune. Bostgarrena Fedie. Seigarrena Kontinenzije. Zazpigarrena Arimeko Poza. Zortzigarrena Pazienzije. Bederatzigarrena Ontasune. Amargarrena Otsantasune. Amakagarrena Modestije. Amabigarrena Kastidadie.

ZORTZI ZORIJONTASUNEK

1. Zorijonekoak espirituz pobriek dirienak, eurena dalako zeruetako erreñue.

2. Zorijonekoak otsanak, lurren iaubiek eurek izengo dirielako.

3. Zorijonekoak negar egiten daudenak, eurek poztuek izengo dirielako.

4. Zorijonekoak gauze onen eta santuen gose, ta egarri dirienak, eurek ase ta betiek izengo dirielako.

5. Zorijonekoak errukiorrak, bada eurentzat bere errukije izengo da.

6. Zorijonekoak bijotz garbikoak, eurek Jangoikoa ikusiko daudielako.

7. Zorijonekoak baketsuek, zegaitik eze eurei Jangoikoen semien izena emongo iakie.

8. Zorijonekoak persekuziñoie igaroten daudenak gauze onakgaitik; bada eurena izengo da zeruetako erreñue.

P. Zertzuk esan doguz orain?

E. Zortzi zorijontasunek.

P. Ze gauze dire zortzi zorijontasun oneik?

E. Espiritu Santuen birtute eta doien obrarik onenak.

P. Nortzuk dire espirituz pobriek?

E. Eztaudenak gure munduko onrarik, ez aberastasunik, bere tertzi-jokorik bere; edotabere euretan bijotza imiñirik eztaukenak.

P. Nortzuk dire Otsanak?

E. Asererrik iñozbere eztaukienak, ezta piske piskerik bere.

P. Zelan izengo dire lurren iaube?

E. Euren buruen iaube izeitiegaz.

P. Nortzuk dire negar egiten daudenak?

E. Atseginik laburrenak bere itxiten dituezanak.

P. Nortzuk dire gauze onen, eta Santuen gose eta egarri dirienak?

E. Euren obligaziño guztijek, guztiz ardure andijegaz kunplietan dituezanak.

P. Nortzuk dire errukiorrak?

E. Iñori bere, ondo baño besterik desietan ez deutsienak.

P. Nortzuk dire bijotz garbikoak?



E. Euren desio txar guztijek, guztiz azpiretu, eta berpertatik botaten dituezanak.

P. Nortzuk dire baketsuek?

E. Euren buruen eta besteen bakegillak.

P. Nortzuk dire justizijegatik persekuziñoa sufrietan daudenak?

E. Gauz on guztijen gogor eta firme dagozanak, persegiduek izen arren.

P. Zegaitik deritxoe oneiri zorijontasunek?

E. Eurretan dagoalako bizitze onetakoa, eta bestekoaren esperantzie.

P. Zeinbet dire gizonen azkenak?

E. Lau: Erijotzie, Juizijoa, Infernue, ta Glorije.

P. Zer da glorije?

E. Da bizitze bat, atsegin eta gozotasun guztijek oso osorik dagozana, eta zeñetan aurkituten dirien zorijontasun guztijek gatzaren apurrik bere baga: infernuen dagozan legez gatz guztijek, onik bat bere baga.

P. Eta infernure ez ioateko, eta zerue irebazteko, zer egin biar dogu?

E. Gorde mandamintu Santuek.

P. Eta ete dagoz beste neurriren batzuk errazago gordetako mandamintu santuek, eta eurretan ez faltarik egiteko?

E. Bai Jaune.

P. Zeintzuk dire?

E. Sarriten konfesetie ta komulgetie; egun bakotxeko lanak eta biarrak egun guztijetan Jangoikoari ofrezietie, egun guztijetan mezie entzuetie, egun guztijetan Errosarijoa errezetie; liburu onak irekurtie; oraziño egitie; gau bakotxien egun atako esamiñie egitie,... eta baten asko esateko, artutie konfesore on, iakintsu eta begiratu bat, eta berak aginduten deustsen guztije egitie.

IRAK. Ondo diñozu; bada San Franzisko Salesek diñuan legez, salbetako bier dirien konseju guztijek dagoz sartute, konfesore on bat artutien. Egizu bada zuk bere alantxe; bada bera izengo da zuretzat angeru bat legez, zuzenduko zaituzana neurri oneekaz, eta beste, berari deritxazanakaz, iarraitu dakijozun firme zeruko bidieri, eta gero eldu zaitezcan Jangoikoa ikustera betiko zorijontasunien, zeñetarako egiñek izen ginien.

Jaungoikoak guztijok ara eroan gagizela. Alan izen dedille.

NI PEKATARIJE

Ni pekatari au konfesetan natxako Jangoiko guztiz poderosoari, Andra Marije beti Birjinieri, San Migel Angerueri, San Juan Bautistieri, San Pedro ta San Pablo Apostoluei, Santu guztijei, ta zeuri neure arimeko aite, egin dodala pekatu pensamintuz, berbaz, eta obraz, neure erruz, neure erruz, neure erru andijegaz. Orregaitik erregututen deutset Andra Marije beti Birjinieri, San Migel Angerueri, San Juan Bautistieri, San Pedro ta San Pablo Apostoluei, Santu guztijei, ta zeuri neure arimeko aite, erregutu dagijozule nigaitik neure Jaun eta Jangoikoari. Amen.

NEURE JESUKRISTO JAUNE

Neure Jesukristo Jaune, Jaungoiko ta gizon egjiezkoa, neure Krijedorie, ta Salbadorie, zariena zarielako, eta ametan zaitudezalako gauze guztijen ganien, damu dot Jaune, damu dot bijotz guztitik zu ofendidu zaitudezalako; artuten dot propositu firme bat, ez geijago pekatu egiteko, konfesetako, iminten iatan penitenzije kunplietako, pekatuko bide guztijetatik apartetako. Ofrezietan deustsudez, Jaune, neure bizitze, obra eta neke guztijek, neure pekatu guztijen satisfazinorako: eta esperetan dot zure ontasun eta erruki amaibagakoan, parkatuko deustazuzela zeure odol guztiz prezioso, pasiño, eta erijotziegaitik; eta emongo deustezule grazije onduteko, eta zeu serbietan ireuteko neure erijotzako ordura artien. Amen.



ARRATIAKO DOTRINA

Arratia

Kristiñeu fiel guztiek
dagoz guztiz obligeurik
deboziño artutera
euren biotz guztirik
Jesus gure argien
kurutze santuegaz
bada an ill gure izen eüen
gu ateratearren
pekatuen menderik
ta arerio deungetarik.

Orregaitik bada
egin bear zara
alan zeñatutera
zelan Aitearen egitera
iru kurutze egiñegaz.
Lenengoa bekokien
Jaungoikoak libreu gaizen
pensamintu txarretarik.
Bigarrena agoan
Jaungoikoak libreu gaizen
berba deungetarik.
Irugarrena bulerrear
Jaungoikoak libreu gaizen
egite ta gogo txarretarik.
Onetara esanagaz:
Kurutze Santearen+ señailea gaitik
geure+arerioetarik
libredu gaizuz
geure Jaune+ ta Jaungoikoa.
Aitearen+ ta Semearen
ta Espiritu Santueren izenean. Amen.

Kredoa

Sinistuten dot Aite Jaungoiko guztiz poderoso zeruen ta lurren Egi-
lleagan, ta bere seme bakar Jesukristo gure Jaunegan, zein sortu zen Espi-
ritu Santueren egitez ta graziez. Jaio zan Marie Birjiniegandik, padezidu
euen Ponzio Pilatosen aginduen bean, izen zan kurutzean josie, ill, ta
enterradue, jatzi zen infenuetara, irugarren egunean biztu zen illen arte-
rik, igon euen zeruetara, an dago jasarririk Aite Jaungoiko guztiz podero-
soaren eskoako aldeti, árik etorriko da biziek eta illek juzgetan. Sinistuten
dot Espiritu Santuegan, elexa santa katolikea, santuen komuniñoa, peka-
tuen parkaziñoa, aragien biztuera barrie, betiko bizitzea. Amen.

Fedeko artikuluek

Fedeko artikuluek dire amalau. Lenengo zazpirek jagokaz Jaungoi-
kotasuneri, eta beste zazpirek Jesukristo gure Jaun Jaungoiko ta gizon
egiezkorearen Gizontasun santueri.

Jaungoikotasuneri jagokazanak dire oneik.

Lenengoa sinistu Jaungoiko bakar guztiz poderosoagan.

Bigarrena sinistu dala Aitea.

Irugarrena sinistu dala Semea.

Laugarrena sinistu dala Espiritu Santue.

Bostgarrena sinistu dala gauze guztien Egillea.

Seigarrena sinistu dala Salbagillea.

Zazpigarrena sinistu dala glorie emollea.

Gizontasun santueri jagokazanak dire oneik.

Lenengoa sinistu Jesukristo gure Jaune gizona danez sortue izen zala
Espiritu Santuen egitez ta graziez.

Bigarrena sinistu jaijo zala Santa Marie Birjineagandik, geldituten
zala donzelle semea jaijo baño lenago, jaiotzan ta jaijo azkero.

Irugarrena sinistu artu zituzela eriotzea ta pasiñoa gu pekatariok sal-
betearren.

Laugarrena sinistu jatzi zela infenuetara, eta atera zituzela bere eto-
rrera santuen begire egozan Gureso santuen arimeek.

Bostgarrena sinistu irugarren egunean biztu zela illen arterik.



Seigarrena sinistu igon euela zeruetara eta dagoala jasarrite Aite Jaungoiko guztiz poderosen eskoako aldeti.

Zazpigarrena sinistu etorriko dala biziek eta illek juzgetan, au de, onai emoten glorie bere agindu santuek gorde zituezalako; eta deungai betiko infernue, gorde ez zituezalako.

Aite gurea

Aite gurea zeruetan zagozana, santifikedu bedi zure izena, betor gurena zure erreñue, egin bedi zure borondatea, zelan zeruen, alan lurrean.

Egunean eguneango geure ogie gaur emon egiguzu, eta parkatu egiguz geure zorrak geuk geure zordunei parketan deutseguzen legez, eta itxi ez egiguzu tentaziñoan jausten, baie libredu gaguzuz gatxerik. Amen.

Abe Marie

Abe Marie graziez betea, Jaune da zugez, bedeinkatue zara zu andra guztien artean, eta bedeinkatue da zure sabeleko frutue Jesus.

Santa Marie Jaungoikoen Ama, erregutu egizu gu pekatariok gaitik orain eta geure eriotzako orduen. Amen.

Salbea

Jaungoikoak gorde zaizela Erregiñe, errukiz beteriko Ama, bizitze, gozotasun, ta esperanza geurea, Jaungoikoak gorde zaizela. Zuri deiez gagoz Ebaren ume erbestetuok, zugana gagoz zizpuruz ta negarrez negarrezko leku onetan. Ea bada andrea, geure bitartekoa, biurtu egizuz guganantz zure begi errukitsu orreik; eta erbeste au igarota, erakutsi egiguzu Jesus zure sabeleko frutu bedeinketue. O guztiz bigune! O errukiorra! O Marie Birjiñe gozoa! Erregutu egizu gugaitik Jaungoikoaren ama santea, izen gaitazan Jesukristoren agintzariek alkantzetako duin. Amen.

Jaungoikoaren legeko aginduek

Jaungoikoaren legeko aginduek dire amar.

Lelengo irurek jagokaz Jaungoikoaren honrieri, beste zazpirek projimuen probetxueri.

Lelegoa Jaungoikoa ametea gauze guztien ganean.

Bigarrena Jaungoikoaren izenean juremintu apelik ez egitea.

Irugarrena domekak eta jaiek santututea.

Laugarrena aite eta ama honretea.

Bostgarrena ez iñor iltea.

Seigarrena aragizko pekatuik ez egitea.

Zazpigarrena ez iñori ezer ostutea.

Zortzigarrena egin eztauen gauzerik iñori ez ezartea, ta guzurrik ez esatea.

Bederatzigarrena projimuen emazterik ez gure izetea.

Amargarrena iñoren ondasunen gureri bidebagakorik ez eukitea.

Amar agindu oneik sartuten dire biten: Jaungoikoa serbidu eta ametean gauze guztiek baño geiego eta projimue geure burue legez. Amen.

Kristiñeuen dotriñearen azaldaerea iteune ta erantzueretan

ITENDUTEN DOT. Kristiñeue zara?

ERANTZUTEN DOT. Bai Jaune, Jaungoikoaren graziez.

I. Nondi jatortsu kristiñeuen izen ori?

E. Jesukristo gure Jaune ganik.

I. Zer esan gure dau kristiñeuek?

E. Kristoren gizona.

I. Zer adituten dozu kristoren gizonaz?

E. Jesukristoren fede, bateoan artu euen dauken gizona, eta bera serbietako eskiñirik dagoana.

I. Zein de kristiñeuen señaleara?

E. Kurtze santea.

I. Zegaitik?

E. Dalako Kristo kurutzean josien irudie, zeñetan erredimidu genduzen.

I. Zeinbet moduten egiten deu kristiñeuek señaleara?

E. Modu biten.

I. Zeintzuk dire?

E. Zeñatutea eta Aitearen egitea.

I. Zer da zeñatutea?



E. Eskoako eskuko orkoloagaz iru kurtze egitea. Lenengoa beko-
kien, bigarrena aoan, irugarrena bullerrea (sic) geure Jaun Jaungoikoagaz
berba egiten dogule.

I. Erakutsi zelan?

E. Kurtze santearen+ señaletatik, geure+ arerioetarik, libredu gai-
zuz+ geure Jaune ta Jaungoikoa.

I. Zegaitik zeñatuten zara bekokien?

E. Jaungoikoak libreu gaizen pensamintu txarretarik.

I. Zegaitik aoan?

E. Jaungoikoak libreu gaizen berba txarretarik.

I. Zegaitik bulerrea?

E. Jaungoikoak libreu gaizen egite ta gureri txarretarik.

I. Zer da Aitearen egitea?

E. Da eskoako eskuko atz biekaz kurtze bat egitea, bekokitik bule-
rrera, eta ezkerreko sorbaldatik eskoakora Trinitate guztiz santue izente-
tan dogule.

I. Erakutsi zelan?

E. Aitearen+ ta Semearen ta Espiritu Santueren izenean. Amen.

I. Nos egin bear dogu kurutzearen señaletan ori?

E. Egite onen bat asten dogun guztien, edo premiñe, tentaziño, edo
arriskuren baten aurkituten gareanean, batezbera oetik jaigitean, etsetik
urteieran, elexan sartutortuen, eta oera goazanean.

I. Zegaitik ainbeste bider?

E. Beti ta leku guztietan geure arerioak esetsiten deuskuelako ta per-
segietan gaituezalako.

I. Ze arerio dire orreik?

E. Demoniñoa, mundue, ta aragie.

I. Arerio orrei geiege egiteko krutzeak dauko inderra ala?

E. Bai jaune.

I. Nondi dauko kurutzeak inder ori?

E. Kristok bere eriotzeagaz aintxe azpiretu zituzelako.

I. Kurutzea adoretan dozunean zelan esaten dozu?

E. Adoretan eta bedeinketuten zaituguz Kristo, zeure kurtze santuen
bitertez mundue erredimidu zenduelako.

Kristiñeuek jakin bear dituzenak

Ikusi dogu kristiñeue zareana alan izenean, zelan señaletan: esan egi-
dezu orain: Zeinbet gauze jakin ta aditu bear ditu kristiñeuek adimenera,
edo ezauerara elduten danean?

E. Lau gauze.

I. Zeintzuk dire?

E. Jakitea zer sinistuko dauen, zer eskatuko dauen, zer egingo dauen,
eta zer artuko dauen.

I. Zelan jakingo dau zer sinistuko dauen?

E. Jakiñaz kredoa, edo fedeko artikuluek.

I. Zelan jakingo dau zer eskatuko dauen?

E. Jakiñegaz Aite gurea, ta elexako beste oraziñoak.

I. Zelan jakingo dau zer egingo dauen?

E. Jakiñegaz Jaungoikoaren legeko aginduek, Elexa ama santearenak,
eta obra miserikordiezekoak.

I. Zelan jakingo dau zer artuko dauen?

E. Jakiñegaz Elexa ama santearen sakramentuek.

Dotriñearen lelengo partea, zeñetan adierazoten direan Kredoa, eta Fedeko artikuluek

Lelengotik asiten gareala esan egidezu:

I. Nok esan euen kredoa?

E. Apostoluek.

I. Zetako?

E. Guri fede santuko gauzak irakasteko.

I. Eta zuk zetako esaten dozu?

E. Kristiñeuek daukegun fede au konfesetako.

I. Zer da fedea?

E. Ikusi eztogune sinistutea.

I. Ikusi zenduen jaijoten Jesukristo?

E. Ez Jaune.

I. Ikusi zenduen ilten, edo zerure igoten?

E. Ez Jaune.

I. Sinistuten dozu?

E. Bai Jaune.



- I. Zegaitik sinistuten dozu?
 E. Jaungoikoak alan agertu deuselako Elexa Ama santeari, ta onek alan erakusten deuskuleko.
 I. Ze gauze dire kristiñeue zareanez daukezuzenak, eta sinistuten dozuzenak?
 E. Erromako Elexa santeak daukezanak, eta sinistuten dituzenak.
 I. Eta zertzuk dire zuk eta berak daukezuezanak, eta sinistuten dozuezanak?
 E. Fedeko artikuluek, batezbera kredoan dagozan legez.
 I. Ze gauze dire fedeko artikuluek?
 E. Dire fedeko misteriorik andienak.
 I. Zetako dire fedeko artikuluek?
 E. Emoteko gure Jaungoikoaren eta Jesukristo gure Salbagillearen ezauera argie.
 I. Zein da gure Jaun Jaungoikoa?
 E. Da esan ta asmau al leitekean gauzerik andi ta miragarriena: Jaun bat amaibagarik ona, altsue, jakintsue, arteza, gauze guztien asierea, eta azkena.
 I. Zein da Trinitate guztiz santea?
 E. Da Jaungoikoa bera Aitea, Semea, ta Espiritu santue, iru persona banak eta Jaungoiko egiezko bakar bat.
 I. Aitea Jaungoikoa da?
 E. Bai Jaune.
 I. Semea Jaungoikoa da?
 E. Bai Jaune.
 I. Espiritu Santue Jaungoikoa da?
 E. Bai Jaune
 I. Iru Jaungoiko dire?
 E. Ez Jaune, ezpada Jaungoiko egiezko bakar bat; dan legez guztiz altsu bakar bat, betiko bakar bat, eta Jaun bakar bat.
 I. Aitea Semea da?
 E. Ez Jaune.
 I. Espiritu Santue Aitea edo Semea da?
 E. Ez Jaune.
 I. Zegaitik?
 E. Iru personak banák direalako, izen arren Jaungoiko egiezko bakar bat.
 I. Au onelan dala, zeinbet izete, adimentu, eta borondate dagoz Jaungoikoagan?

- E. Izete bakar bat, adimentu bakar bat, eta borondate bakar bat.
 I. Eta zeinbet persona?
 E. Iru banak, zeintzuk direan Aitea, Semea, eta Espiritu Santue.
 I. Zelan da Jaungoikoa guztiz altsue?
 E. Bere eskubide bakarragaz egiten deuelako gure deuen guztie.
 I. Zelan da Egillea?
 E. Guztie ezerezetik egin euelako.
 I. Zetarako egin euen Jaungoikoak gizona?
 E. Bizitze onetan Jaungoikoa bera serbietako, eta gero betikoan bera gozetako.
 I. Zelan da Salbagillea?
 E. Grazie emon, eta pekatuek parkatuten dituzelako
 I. Zelan da Glorie-emollea?
 E. Bere grazian irauten dauenari, betiko glorie emoten deuselako.
 I. Jaungoikoak ete dauko guk legez gorputzen irudirik?
 E. Ez Jaune, Jaungoikoa danez, dalako Espiritu utse, baie bai gizona danez.
 I. Jaungoikozko iru personetarik zein egin zen gizon?
 E. Bigarrena, zein dan Semea.
 I. Aite egin zen gizon?
 E. Ez Jaune.
 I. Espiritu Santue egin zen gizon?
 E. Ez Jaune.
 I. Zein bada?
 E. Bakarrik Semea, zeñeri gizon egiñik deretxon Jesukristo.
 I. Orrelan zein da Jesukristo?
 E. Da Jaungoiko bizien semea, gizon egin zana gu erredimietarren eta guri zelan bizi erakustearren.
 I. Eta zeinbet izete, adimentu, eta borondate dagoz Jesukristogan?
 E. Izete bi, bata Jaungoikoa danez eta bestea gizona danez: borondate bi, Jaungoikoa danez bata, eta gizona danez bestea: adimentu bi, bata Jaungoikoa danez, eta bestea gizona danez.
 I. Eta zeinbet persona eta gogamen?
 E. Persona Jaungoikozko bakar bat, zein dan Trinitate guztiz Santuko bigarrena, eta gogamen bakar bat, bada Jaungoikoa danez eztauko gogamenik.
 I. Zer esan gure dau Jesusek?
 E. Salbagillea.
 I. Zetarik salbau genduzen?



- I. Geure pekatutik eta demoniñoaren mendetik.
- I. Zer esan gure dau Kristok?
- E. Unjidue.
- I. Zegaz izen zan unjidue?
- E. Espiritu Santuen grazie ta doeakaz.
- I. Jesukristo gure Jaune zelan sortu zen eta jaio ama donzelleaganik?
- E. Jaungoikoak gauze orreek egiten zituzela gure ganetiko inderragaz, eta mireriz.
- I. Zegaiti diñozu: «gure ganetiko inderragaz eta mireriz?»
- E. Jesukristo sortu ez zalako, ezda jaio bere, beste gizonak legez.
- I. Zelan deituten joko gauze orreetan aurkituten dan misterioari?
- E. Enkarnaziñoako misterioa.
- I. Zer da sinistuten dozune Enkarnaziñoako misterioan?
- E. Trinitate guztiz santuko bigarren personea, zein dan semea, gizon egin zala Birjiñe Marien errai garbietan, bere donzelletasunen kalte baga, ez gizonen obraz, ezpada Espiritu Santuen obraz.
- I. Zeinbet gauze bada egin zituzen Espiritu Santuek Enkarnaziñoako misterioan?
- E. Lau gauze Jaune.
- I. Zeintzuk dire?
- E. Lelengoa, Ama Birjiñearen errai guztiz garbietan formau eban gorputz bat bere odol guztiz garbiegaz. Bigarrena, egin euen arime bat ezerezetik. Irugarrena, gorputz ta arimea batu zituzen arkalegaz. Laugarrena, gorputz ta arime oneekaz batu zen Jaungoikoaren semea. Eta onan len Jaungoiko bakarrrik zana, Jaungoiko izeteari itxi bagarik, gelditu zen gizon egiñik.
- I. Eta zelan jaio zan mireriz?
- E. Urteten euela Ama Birjiñearen sabeletik bere donzelletasunen kalte baga, eguzkien argi errañue igaroten dan legez kristel batetik, kristela ausi, ez loitu bagarik.
- I. Eta bere ama bizi ete zan gero beti donzelle?
- E. Bai Jaune beti.
- I. Zegaitik kurtzean il gure izen euen?
- E. Gu libretearren pekatutik, eta betiko eriotzatik.
- I. Zelan bada egin ete giñean eriotza orren errudun?
- E. Pekatu egiñik gure lelengo gureso Adanek, zeñegan guztiok pekatu egin genduen.
- I. Zer adituten dozu Jesukristo ill ezkerro jatsi zen infernure esanagaz?
- E. Ez kondenaduen lekue, ezpada justuek egozan linbue.

- I. Infernu bat baño geiago dago ala?
- E. Bai Jaune, dagoz lau lurren barruen eta deretxoe kondenaduen infernue, purgatorioa, seiñen linboa, justoen linboa, edo Abrahamen lekue.
- I. Zein da kondenaduen infernue?
- E. Pekatu mortalean ilten direanen arimak, betiko nekatuek izeteko joaten direan lekue.
- I. Zein da Purgatorioa?
- E. Jaungoikoaren grazien, baie euren pekatuen zor guztie pagau bagarik ilten direanen arimak joaten direan lekue, an pena gogorrakaz guztiz garbituek izeteko.
- I. Zein da seiñen linboa?
- E. Bateatu bagarik adimenera eldu baño lenago ilten direanen arimak joaten direan lekue.
- I. Zein da justoen linboa, edo Abrahamen lekue?
- E. Jesukristo gure Jaune mundure etorri eta il baño lenago, Jaungoikoaren grazian il, eta guztiz garbitute egozanen arimak joaten zirean lekue, eta leku au da Jesukristo egiez eta benetan jatsi zana.
- I. Zelan jatsi zan?
- E. Arimea jaungoikotasunegaz baturik.
- I. Eta bere gorputze zelan gelditu zan?
- E. Jaungoikotasunegaz beragaz baturik.
- I. Zelan biztu zan irugarren egunean?
- E. Barriro batuten zireala bere gorputz eta arime gloriez betea ostera iñoz ez ilteko.
- I. Zelan igon euen zeruetara?
- E. Berez.
- I. Zer esan gure dau Aite Jaungoikoaren eskoatati jarrite egoteak?
- E. Kristok Jaungoikoa danez, Aitek lainbeste glorie daukela, eta beste edozeñek baño geiego gizona danez.
- I. Noz etorriko da biziiek eta illek juzgetan?
- E. Munduen azkenean.
- I. Eta orduen biztuko ete dire illek guztiiek?
- E. Bai jaune, len euki zituezan gorputz eta arimakaz eurekaz.
- I. Eta munduen azkena baño lenago izengo ete gara juzgeuek?
- E. Bai jaune, geure bizitzearen azkenean guztiok juzgeuko gaitu Jaunek, eta emongo deusku sentenzie, onai Jaungoikoa glorian beti gozeta-ko; eta deungai infernuen beti penetan egoteko.



I. Zer sinistuten dozu esaten dozunean: «Sinistuten dot santuen komuniñoa?»

E. Kristiñeu fielak partea daukeela besteen gauze oneetan, gorputz baten zatiek legez, gorputz au da Elexea.

I. Zer da Elexea?

E. Da kristiñeu fiel guztiek batera arturik egiten dauden gorputze, zeñen burue dan Aite Santue.

I. Nor da Aite Santue?

E. Da Erromako Sazerdote nagosi, lurrean Kristoren ordeko, guztio obedezidu bear deutsegune.

I. Kredoaz eta artikuluez ganera, beste gauzerik sinistuten dozu?

E. Bai Jaune, liburu santuetan dagoan guztie, eta Jaungoikoak bere Elexeari agerturik deuten guztie.

I. Ze gauze dire orreek?

E. Ori ez niri itendu jakiturie bagakoa nasalako: baukez Elexa ama Santeak Irekaslak erantzuten jakingo daudenak.

IREKASLEAK. Ondo diñozu: Ireksalari jagoke eta zuri ez, fedeko gauzen kontu zeatza emotea: asko da zuretzat jakitea fedeko artikuluek kredoan dagozan legez, ta eurek sinistutea.

**Dotriñearen bigarren partea,
non adierazoten dan zer eskatu bear dan,
eta Elexa ama santearen oraziñoak**

Ikusi dogu zelan dakizun sinistu bear dozune, zein dan lelengoa: gatozan bigarrenera, zein dan eskatu bear dana.

Esan egidezu:

I. Nok esan euen Aite gurea?

E. Jesukristok.

I. Zetarako?

E. Guri oraziño egiten irekasteko.

I. Zer da oraziñoa?

E. Da Jaungoikoagana biotza eregi, eta mesedeak eskatutea.

I. Zeinbet modutekoa da oraziñoa?

E. Modu bitekoa, mentala eta bokala.

I. Zer da oraziño mentala?

E. Da arimeko almenakaz egiten dana; memoriegaz, gauze onen bat gogora ekarten dogule; adimintuegaz, gauze ori gogoan darabilgule, eta bere ganean pensetan dogule; eta borondateagaz, gogo ta gureri onak artuten doguzela, esaterako, pekatuekaz damutu, konfesau, ondu, obatu, eta aurrerantzean bizitze on bat egitea.

I. Zer da oraziño bokala?

E. Da berbakaz eta miñiegaz egiten dana, esaterako, egiten dogune, Aite gurea errezetan dogunean.

I. Eta zelan egin bear da oraziñoa?

E. Gogotik, humiltasunegaz, itxeropenagaz, eta ireupenagaz.

I. Aite gurea esaten dozunean, nogaz berba egiten dozu?

E. Jaungoiko gure Jaunegaz.

I. Non dago Jaungoiko gure Jaune?

E. Leku guztietan, batez bere zeruen eta altarako sakramentu guztiz santuen.

I. Eta Jesukristo gizona danez non dago?

E. Bakarrik zeruen eta altarako sakramentu guztiz santuen.

I. Oraziño guztietarik zein da oneena?

E. Aite gurea.

I. Zegaitik?

E. Jesukristok bere aoz esan euelako Apostoluen eskariz.

I. Zegaitik geiago?

E. Daukezala zazpi eskari, karidade osotik datozeanak.

I. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa da: Santifikedu bedi zure izena.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jaungoikoaren izena izen dedille ezagutue eta onradue mundu guztien.

I. Zein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erreñue.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Erreñue dagiela Jaungoikoak gure arimetan, emen lurrean graziez, eta gero emon dagigule glorie.

I. Zein da irugarrena?

E. Egin bedi zure borondatea, zelan zeruen alan lurrean.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Egin dagigule Jaungoikoaren borondatea lurrean gagozanok, zeruen zorionekoak egiten dauden legez.

I. Zein da laugarrena?



- E. Egunean eguneango geure ogie gaur emon egiguzu.
 I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Emon dagigule Jaungoikoak gorputzeri jagokan janarie, arimea-
 rentzat grazie eta sakramentuek.
 I. Zein da bostgarrena?
 E. Parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunei parkatuten
 deutseguzen legez.
 I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Jaungoikoak parkatu dagiguzela geure pekatuek, geuk parkatu
 deutsegun legez naibageren bat emon, edo gatx egin deuskuenai.
 I. Zein da seigarrena?
 E. Itxi ez egiguzu jausten tentaziñoan.
 I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Ez dagigule itxi Jaungoikoak jausten, deabrupek pekatuen jausi era-
 giteko ekarten deuskuzen pensamintu txar, eta tentaziñoetan, ez eurei
 lekurik emoten.
 I. Zein da zazpigarrena?
 E. Baie libredu gagizuz gatxerik.
 I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Jaungoikoak libreu gagizela arimeko eta gorputzeko gatx, ta arris-
 ku guztietarik.
 I. Zegaitik asieran esaten dozu: «Aite gurea zeruetan zagozana»?
 E. Eregiteko biotza Jaungoikoagana, eta eskatuteko mesedeak
 humiltasunegaz eta ustebeteagaz.
 I. Arako berba: «Amen», azkenean esaten dozunek, zer esan gure
 dau?
 E. Alan izen dedille.
 I. Zeintzuk dire Ama Birjiñeari erregututeko oraziñorik oneenak?
 E. Abe Marie eta Salbea.
 I. Nok esan euen Abe Marie?
 E. San Gabriel angeruek Ama Birjiñe Marieri barri onak emoten eto-
 rri zanean.
 I. Nok esan euen Salbea?
 E. Elexa ama Santeak dauko beretzat artute.
 I. Zetarako?
 E. Ama Birjiñeari mesedeak eskatuteko.
 I. Abe Marie, edo Salbea esaten dozuzenean, nogaz berba egiten
 dozu?
 E. Andra Marie geure amagaz.

- I. Nor da Andra Marie geure ama?
 E. Da birtutez beteriko Andra bat, Jaungoikoaren ama, zeruen dago-
 ana.
 I. Eta altaran dagoana nor da?
 E. Zeruen dagoanaren irudi bat.
 I. Zetarako dago an?
 E. Bera ikusite, akordau gaitezzen zeruen dagoanagaz, eta onen iru-
 die dalako, lotsa ta itzalez begiratu dagiogun.
IREKASLEAK. Bada bardin egingo deutsezu santuen irudiei, ta euren
 errelikiei.
 I. Angeru eta santuei bere, erregutu bear ete deutsegu?
 E. Bai jaune, geure bitartekoai legez.
 I. Zer dire angeruek?
 E. Dire, zeruen Jaungoikoa gozetan dagozan espiritu zorioneko batzuk.
 I. Zetarako egin zituzen Jaungoikoak?
 E. Bera beti alabau, eta bedeinketu egien.
 I. Zetarako geiego?
 E. Bere serbitzariak legez, elexea gobernau, eta gizonak gordetako.
 I. Orrelan zuk bere baukezu angeru jagolea?
 E. Bai jaune, bauket, eta gizon bakotxak dauko berea.
IREKASLEA. Bada euki egiozu deboziño andi bat, eta errezaue eikio-
 zu egunean egunean.

Irugarren partea, zeñetan adierazoten dan zer egin bear dan

- Ikusi dogu, zer sinistu, ta zer eskatu bear dozun: dakuskun zelan
 dakizun zer egin bear dozun: esan egiguzu:
 I. Zein da Jaungoikoaren legeko lelengo mandamentue?
 E. Jaungoikoa ametea gauze guztien ganean.
 I. Nok ametan dau Jaungoikua?
 E. Bere mandamendu santuek gordetan dituzenak.
 I. Zer da Jaungoikoa ametea gauza guztien ganean?
 E. Gurago izetea gauze guztiek galdu, bera ofendidu baño.
 I. Zetan geiago obligetan gaitu mandamentu onek?
 E. Bera bakarrik adoretara gorputzeko eta arimeko alegin guztiegaz,
 beragan sinistu eta itxeroten dogule fede biziegaz.



I. Nok pekatu egiten dau onen kontra?

E. Idolo, edo guzurrezko jaungoikoak adoretan dituzenak, edo eurakgan sinistuten dauenak; fedearen kontrako gauzeren bat sinistuten dauenak; edo fedeko misterioaren baten dueda daukanak; edo bear dan dotrinea ez dakienak; fede, esperanza, eta karidadeko aktoak bear direanean egiten ez dituzenak; edo Jaungoikoaren errukiegan itxeroten ez dauenak; edo prestaera txarragaz sakramenturen bat artuten dauenak.

I. Nok geiago?

E. Aztuei sinistea emoten deutenak; edo sorginkerietan dabillenenak; edo okerreko elesgauzakaz, edo oker Jaungoikoa adoretan dauenak.

I. Zein da bigarrena?

E. Juremintu arpelik ez egitea.

I. Nok arpelik juremintu egiten dau?

E. Juremintu egiten dauenak egie бага, zuzentasun бага, eta premiñe бага.

I. Zer da egie бага juremintu egitea?

E. Da juremintu egitea norberen eretxien kontra, edo guzurregaz.

I. Eta egie бага, edo dudan dagoala juremintu egiten dauenak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala, juremintue gauze txikerren ganean izen arren.

I. Zer da zuzentasun bagarik juremintu egitea?

E. Juremintu egitea, gauze bidebagako, edo deungeren bat egiteko, esaterako, projimueri gatxen bat egiteko.

I. Eta zuzentasun бага juremintu egiten dauenak, ze pekatu egiten dau?

E. Juremintue gauze astunen ganean bada, pekatu mortala; eta ariñen ganean bada, pekatu beniela.

I. Zer da premiñe бага juremintu egitea?

E. Da juremintu egitea eginbear andi bagarik, edo ezereziarako.

I. Ze pekatu da au?

E. Pekatu beniela, lagundu ezkeru juremintueri egiak eta zuzentasunak.

I. Eta egiten dauenak juremintu, boto, edo promesen bat gauze onen bat egiteko, kunplidu bear ete dau?

E. Bai jaune, eta ez kunplidutea, edo kunplidu bagarik luzero eukitea da pekatu mortala, gauze astunen ganean izen ezkeru.

I. Eta Jaungoikoak eginiko gauzak gaitik arpelik juremintu egitea pekatu ete da?

E. Bai jaune, eurretan egiten jakolako euren egille Jaungoikoari.

I. Ze moduten juremintu egiten da, Jaungoikoak eginiko gauzak gaitik?

E. Esaten dala, kontureko, neure arimeagaitik, zeruegaitik, lurregaitik diñot, au, edo bestea alan dala.

I. Ze neurri artu giñeike, juremintu arpelik ez egiteko?

E. Ekandu esaten: bai, edo ez, Jesukristok erakusten deuskun legez.

I. Eta mandamintu onetan beste gauzerik galerazoten ete da?

E. Bai jaune, galerazoten bere da blasfemie, zein dan esatea berba txarrak Jaungoikoagaitik, edo bere santuegaitik, zein dan pekatu mortala.

I. Zein da irugarrena?

E. Domekak eta jaiek gordetea.

I. Nok gordetan ditu domekak eta jaiek?

E. Meza osoa entzun eta premiñe бага bearrik egiten ez deuenak.

I. Eta ze pekatu da domeka eta jaietan premiñe бага bear egitea?

E. Ordu birik gora bear egiten bada, pekatu mortala; eta ordu birik beera bada, geiñean pekatu beniela.

I. Zein da laugarrena?

E. Aita eta ama honretea.

I. Nok honretan ditu guresoak?

E. Euren esanak egiten dituzenak; euri lagundu, eta lotsea gordetan deutenak.

I. Nortzuk egiten daude pekatu mortala onen kontra?

E. Etsearen eta arimearen onerako gauzetan guresoen esanak egiten ez dituezan seme alabak; guresoai euren premiñetan lagunduten ez deutenak; biraoak botaten deutsezanak; edo burle egiten deutenak; eta ezkon-duteko gogo ta lanetan dabiltzenak euren barri ta borondate bagarik.

I. Nortzuk besterik adituten dire guresoen izenagaz?

E. Nagosiagoak edadean, honran ta agintaritzan.

I. Eta agindu onetan sartuten ete dire, seme alabak guresoakganako daukeezan eginbearrez ganera, besteren batzuk?

E. Bai jaune, nagosiagoak mendekoakganako daukeezanak, eta guresoenak euren seme alabak ganako.

I. Zeintzuk dire oneik?

E. Emotea janarie, irekatsi ona, kastige, ejenplu ona eta jagokeen estadue bere denporan.

I. Ze pekatu egiten daude, oneetan uts egiten daudenak?

E. Geiñean pekatu mortala.

I. Zein da bostgarrena?

E. Ez iñor iltea.

I. Zer aginduten da mandamintu onetan?

E. Iñori ez gatzik egitea, ez egitez, ez esatez, ezta gurerez bere.



I. Eta nok egiten dau pekatu mortala agindu onen kontra?

E. Bere burueri, edo iñori opa deutsanak eriotzea, edo gatx andiren bat; edo iñori gorroto deutsanak; iñor il, zauritu, edo joten dauenak; ordituten danak; osasunean gatx andie egingo deutsen gauzak jaten dituzanak; bere bizitzea galduteko arriskuen paretan danak; edo norberen burue ilten dauenak; eta norberari edo besteri birao egiten deutsanak.

I. Zer da birao egitea?

E. Da eskatutea gatxen bat norberentzat, edo besterentzat, esango balitz legez: «Arren bada, ortxe illik jausiko al az».

I. Eta ze pekatu da birao egitea?

E. Gatx andie opa bajako, pekatu mortala.

I. Eta alangorik opa ez bajako?

E. Beniela, beti ez bada bere.

I. Nortzuk bada egiten daude pekatu mortala, birao egiñegaz gatx andirik opa izen baga?

E. Geienean gureso, eta nagosiego, mendepekoen aurrean biraoak botaten dituzanak; biraoak botateko ekandue daukeenak, eta kenduteko alegiñik egiten ez daudenak.

I. Eta zegaitik ori?

E. Euren esate eta ejenplu txarrakaz emoten deutseelako besteai, Jaungoikoa gauze astunean ofendietako bidea; eta oneri deretxo eskandalue.

I. Zein da seigarrena?

E. Aragizko pekatuak ez egitea.

I. Zer aginduten da mandamintu onetan?

E. Izen gaitezela garbiek gogo, esate eta egitetan.

I. Nortzuk egiten daude pekatu mortala mandamintu onen kontra?

E. Ezaueraz gozatuten direanak gogoraziño loietan, gauze txar aik egin ez arren, eta egiteko gureririk bere euki ez arren; berba loiek esan, eta kanta nabarmenak kantetan dituzanak; edo gogoz entzuten dituzanak; edo euren buruekaz, edo besteakaz eskuke zikin; edo gauze loiek egiten dituzanak, edo egin gure leukeezanak.

I. Zein da zazpigarrena?

E. Ez iñori ezer ostutea.

I. Zer aginduten da mandamintu onetan?

E. Ez dagigule kendu, ez euki, ez gure izen iñoren gauzerik, bere jau-bearen borondatearen kontra.

I. Nortzuk egiten daude pekatu mortala onen kontra?

E. Oneetariko edozeinbere gauze egiten daudenak; edo beste moduren baten kalte egiten deutsenak projimueri bere ondasunetan gauze astunean.

I. Eta onetan kalte egiten deutsenak projimueri, dan moduen dala, bauko ezer egin bearrik?

E. Bai jaune, al bait lasterren biurtu bear deutso jaubeari bere gauzea, eta osotu egin deutzazan kalte guztiek.

I. Zein da zortzigarrena?

E. Egin ez dauen gauze txarrik iñori ez ezartea, ta guzurrik ez esatea.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez egitea projimuegaitik juzgu txarrik arin, au da, bide ta errazoe bagarik; ta ez esan, ez entzutea bere utsegiteak.

I. Nok austen dau agindu au?

E. Juzgu txarra egiten dauenak errazoearen kontra, au da, atarako bear dan besteko bide edo motibu bagarik; iñori kleitue kenduten deutsanak; gauze ixile agertu; edo guzurre esaten dauenak.

I. Eta projimueri kleitue kenduten deutsanak, esanagaz beragaitik egin ez dauen gauze txar andiren bat; edo egin dauena, baie ezkutuen dagoana; edo arpegien emonik bere utsegiteakaz, bauko ezer egin bearrik?

E. Bai jaune, bada biurtu bear deutso kendu deutsan honra edo kleitue.

I. Zer da galerazoten dana bederatzigarren eta amargarren mandamintuetan?

E. Aragizko atsegiñen, eta iñoen ondasunen gureri bidebagakoak.

IREKASL. Esan egizuz elexa ama santearen mandamentuek.

ELEXA AMA SANTEAREN MANDAMENTUEK DIRE BOST

Lelengoa meza osoa entzutea domeka eta jai guztietan.

Bigarrena konfesetea gitxienez urtean bein, edo lenago eriotzako peligrurik badago, edo komulgau bear badau.

Irugarrena garizumeko paskoetan komulgetea bere parrokien.

Laugarrena barau egitea elexa ama santeak aginduten dauenean.

Bostgarrena amarrenak, eta primiziek zuzen pagatea Jaungoikoaren elexeari.

I. Zetarako dire mandamentu oneek?

E. Jaungoikoaren legekoak obeto gordetako.

I. Eta lelengoa, zein dan meza entzutea, nortzuk gorde bear daude?

E. Ezauerara eldu direan, ta bateaturik dagozan guztiek.

I. Zelan entzun bear da mezea?



E. Egonik mezea esaten dan lekuen, gauze onen batzuk gogoan dituzela, edo Jesukristoren pasiaoa; edo errezuren batzuk egiten.

I. Eta galerazokizun andirik euki бага entzuten ez dauenak; edo dagoanak guztien, edo zati andien beste gauzeren batzuk gogoan dituzela; edo ez entzuteko arriskuen jarten danak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala.

I. Eta bigarrena ta irugarrena, zeintzuk direan konfesetea, eta komulgetea, nortzuk gorde bear dituez?

E. Pekatu mortalaren bean, ezauerara eldu direan kristiñeu guztiek.

I. Eta deungero konfesetan eta komulgetan direanak, betetan ete dituez agindu oneek?

E. Ezelanbere ez jaune, eta sakramentu bi oneetariko bakoxta artu-tan daudenean, egiten dituez pekatu mortal bi.

I. Eta ilteko arriskuen konfesore bagarik aurkituten danak, zer egin bear dau?

E. Akto kontriziñoko bat, konfesetako proposituegaz.

I. Eta laugarrena, zein dan barau egitea, nortzuk gorde bear daude?

E. Ogeta bat urte oso daukeezanak.

I. Eta zelan barau egin bear da?

E. Galerazorik ez dagozan janarietakaz, bazkalduten dala egerdien, eta bestetan jan бага.

I. Eta onetan uts egin bagarik, artu ete leike goxean ezer?

E. Motiburen bat badago, txikerra izen arren, artu leike ontza bat inguru.

I. Eta gaubean?

E. Artu leike kolaziñotzat, kristiñeu oneen artean artu oi dana, iteundurik onen ganean, duderik dagoanean, konfesore jakintsu bategaz.

I. Eta galerazokizunik euki бага barau egiten ez daudenak, ze pekatu egiten daude?

E. Pekatu mortala.

I. Eta nortzuei jagoke eragotzite okelea jatea bijilie eta barau eguntan; oneetan nastitutea okelea eta arraiñe; eta jatea arrontze eta eznejakiek garizuman, bulderik euki бага?

E. Ezauerara eldu direan guztiei.

I. Eta ze pekatu egiten daude gordetan ez dituezanak?

E. Pekatu mortala, egunean zeinbet bider eurretan uts egiten dauden.

IREKASL. Esan egizuz errukizko egitada, edo miserikordiezko obrak.

ERRUKIZKO EGITADA, EDO MISERIKORDIEZKO OBRAK

DIRE AMALAU:

zazpi arimeari, eta beste zazpi gorputzeri jagokazanak.

Arimeari jagokazanak dire oneek.

Lelengoa eztakienari irekastea.

Bigarrena bear dauenari konseju ona emotea.

Irugarrena uts egiten dauena aztertutea.

Laugarrena deungero egiñek parkatutea.

Bostgarrena triste dagoana poztutea.

Seigarrena geure lagunek emoten deuskuezan naibage ta argaltasunek eroapenagaz igerotea.

Zazpigarrena biziek eta illek gaitik Jaungoikoari erregututea.

Gorputzeri jagokazanak dire oneek.

Lelengoa gaixoak bisitetea.

Bigarrena gose danari jaten emotea.

Irugarrena egarri danari edaten emotea.

Laugarrena kastigek askatutea.

Bostgarrena billosak jantzitea.

Seigarrena bidazti eskekoai ostatu emotea.

Zazpigarrena illei lurre emotea.

I. Zegaitik deretxoe errukizkoak?

E. Justiziez zor ez direalako.

I. Nos dire aginduek eta obligaziñokoak?

E. Gizon jakintsuen eretxien, andiek direan premiñetan.

I. Eta kristiñeuek egiten dituzen errukizko egite oneegaitik, eta beste gauze onak gaitik, nai izen agindurik dagozanak, nai borondatezkoak, zer irebazten dau?

E. Jaungoikoaren grazien badago, euren bitertez egiten da, grazie eta glorie geituteko duin; eurekaz pagetan dau bere pekatuen zorra; eta alkantzetan ditu Jaungoikoaganik arimeko mesedeak, baite gorputzekoak bere, arimearen kaltean izengo ezpadire.

I. Eta zegaitik esaten dozu: «Jaungoikoaren grazien badago»?

E. Pekatu mortalean dagozanak egiten dituezan obra onakaz ez dagoalako irebazirik, ez pekatuen zorra pagetarik; baie alanbere zelan edo alan alkantzau giñeikez Jaungoikoaganik onera, eta mesederen batzuk.



Laugarren partea, zeñetan adierazoten direan artu bear direan sakramentuek

Ikusi dogu zelan dakizun zer sinistu, zer eskatu, eta zer egin bear dozun; dakuskun zelan dakizun zer artu bear dozun, zein dan azkenen-goa. Esan egizuz elexa ama santearen Sakramentuek.

ELEXA AMA SANTEAREN SAKRAMENTUEK DIRE ZAZPI:

Lelengo bostak dire gure ta gurezkoak izetez, edo borondatez, zeintzuk baga salbau ezin leiteke, itxiten baditu nagitasunez, edo ezetan ez eukiz: beste biek dire borondatezkoak.

Lelengoa Bautismue.

Bigarrena Konfirmaziñoa.

Irugarrena Konfesiñoa.

Laugarrena Komuniñoa.

Bostgarrena Oleaziñoa.

Seigarrena Ordea.

Zazpigarrena Matrimoniñoa.

I. Ze gauze dire Sakramentuek?

E. Dire Jesukristo geure Jaunek itxiriko señale agiri batzuk, euren bitertez emoteko guri grazie, ta birtuteak.

I. Zer da grazie?

E. Da izete Jaungoikozko bat, zeñek egiten gaituzen Jaungoikoaren seme, eta zeruko herederu edo jaubegei.

I. Ze birtute emoten daude Sakramentuek graziegaz batera?

E. Batez bere iru jaungoikozkoak.

I. Zeintzuk dire?

E. Fedea, Esperantzea, eta Karidadea.

E. Zer da Fedea?

E. Ikusi eztozguna sinistutea, Jaungoikoak alan agertu dauelako.

I. Zer da Esperantzea?

E. Itxerotea zeruko glorie, Jaungoikoaren laguntasunen, eta geure obra oneen bitertez.

I. Zer da Karidadea?

E. Jaungoikoa ametea gauze guztien ganean, ta geure projimuek geure burue legez, euri egiten deutsegule, eurek geuri egitea gureko gendukeana.

I. Zetarako da Bateoko Sakramentu santue?

E. Kenduteko jatorrizko pekatue, eta bateatue danak beste edozein baleuko bere.

I. Zer da jatorrizko pekatue?

E. Da jaijotzan dakargune, zein jatorkun geure lelengo guresoetarik.

I. Eta premiñeko denporan, nok bateatu leike?

E. Edozeinbere gizekume, edo emakume, adimena daukenak.

I. Zelan bateatu bear da?

E. Ure botaten dala seiñen buruen ganera, eta esaten dala bateatuteko gogoagaz: Nik bateatuten zaitudez, Aitearen eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

I. Zetarako da Konfirmaziñoako Sakramentu santue?

E. Bateoan artu genduen fedean indertu, eta sendatuteko.

I. Eta adimenera eldu ezkerko Sakramentu santu au pekatu mortalean artuten dauenak, pekatu rik egiten ete dau?

E. Bai jaune, ta pekatu mortala.

I. Zer egingo dau bada artuten dauenean, pekatu rik ez egiteko?

E. Aurrez prestau, egiñik konfesiño on bat.

I. Zetarako da Konfesiñoako Sakramentue?

E. Bateatu ezkerko egiñiko pekatuek parkatuteko.

I. Ze pekatu dire orreik?

E. Mortalak, baitebere benielak.

I. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatea, egitea, pensetea, edo gure izetea zerbaist Jaungoikoaren legearen kontra gauze astunean.

I. Zergaitik deritxo mortala?

E. Ilten dauelako egiten dauenaren arimea.

I. Eta noz artuten dogu konfesiñoako Sakramentu santue?

E. Ondo konfesaute, absoluziñoa artuten dogunean.

I. Zeinbet gauze bear dire konfesiño on bat egiteko?

E. Bost gauze jaune.

I. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa, alegiñez, egin dituzen pekatuek gogora ekarte.

Bigarrena artutea damu bizi bat Jaungoikoa ofendidu dauelako.

Irugarrena eukitea propositu sendo bat ez geiago pekatu rik egiteko, eta alde egiteko pekatu reko bide urreko ta okasiñoetarik.

Laugarrena esatea pekatu mortal guztiek konfesoeari, jakiñek jakiñek legez, dudekoak dudekoak legez, ez geitu, ez gitxitu bagarik.

Bostgarrena konfesoarek emoten deuen penitentie kunplietea.

Laburrego:



Lelengoa esamiñe konzienziakoa.

Bigarrena pekatuen damue.

Irugarrena propositue.

Laugarrena aozko konfesiñoa.

Bostgarrena satisfaziñoa.

I. Zer da esamiñe konzienziakoa?

E. Egin dituzen pekatuek gogora ekarte.

I. Nondik egingo da esamiñea?

E. Jaungoikoaren legero amar mandamentuetatik, bost elexakoetatik, ta bakotzak bere estaduko obligaziñoetatik.

I. Damue zeinbet modutekoa da?

E. Modu bitekoa; amodiozko, edo kontriziñoakoa bata; eta bildurrezko, edo atriziñoakoa bestea.

I. Zer da amodiozko, edo kontriziñoakoa damue?

E. Da artutea damu bizi bat Jaungoikoa ofendidu deuelako izenik ain ona, konfesetako, onduteko, eta penitenzie kunplietako gogoagaz.

I. Zer da bildurrezko, edo atriziñoakoa damue?

E. Da eukitea damu bizi bat Jaungoikoa ofendidu deuelako, edo pekatuen ezaintasunegaitik; edo infernuen bildurregaitik; edo zeruko glorie galdu deuelako, konfesetako, onduteko, eta penitenzie kunplietako gogoagaz.

I. Damu bi oneitarik, zein da oneena?

E. Amodiozko, edo kontriziñoakoa.

I. Zergaitik?

E. Kontriziñoakoa datorrelako amodiotik, eta atriziñoakoa bildurretik; kontriziñoakoa damueguz konfesau baño lenago parkatuten dire pekatu mortalak, eta geratuten da Jaungoikoaren grazien; barriz atriziñoakoz bakarrik, ez dire alkantzetan mesede oneik.

I. Konfesiño ona egiteko asko ete da atriziñoakoa damue, ala bear ete da kontriziñoakoa?

E. Jakintsurik geien geienak esaten daude asko dala atriziñoakoa; baie obetoago eta seguruego da eroatea kontriziñoakoa, eta au eukiteko alegiñe egin bear dau konfesetan danak.

I. Noz euki bear da damue?

E. Konfesoreak absoluziñoa emon baño lenago.

I. Zer da propositue?

E. Erabagi sendo bat ez iñoz geiego Jaungoikoa ofendietako pekatu mortalagaz.

I. Zer da aozko konfesiñoa?

E. Da agertutea argiro konfessoreari pekatu mortal guztiek, penitenzie kunplietako gogoagaz.

I. Eta itxiren deuenak lotsaz konfesau бага pekatu mortalen bat, edo konfesetan deuenak egin eztauen pekatu andiren bat, edo konfesetan danak damu бага, propositu бага, edo penitenzie kunplietako borondate бага, konfesiño ona egiten ete dau?

E. Ez jaune, egiten dau sakrilejioko pekatu mortal andi bat, eta konfesau bear ditu barriro len konfesauek, eta konfesau bagakoak; baitebere egin deuen sakrilejioko pekatue.

I. Eta nortzuk sinistu legie ez deudela euki damurik, ez propositurik euren konfesiñoetan?

E. Pekatuko okasiñoetarik alde egiten ez daudenak, eta konfesiño batetik bestera lengo pekatuetan jausten direanak.

I. Eta damu eta propositu egiezkua errezago eukiteko, zer egitea ondo izengo da?

E. Konfesetara eldu baño lenago eskatu Jaungoikoari emon dagiozala bere laguntasunak; erabilli gogoan aldi baten Jaunek egin deutsezan mesedeak; edo bere pasiño, ta eriotzea; edo bere ontasune; eta bein eta geiagotan esan: Neure Jesukristo Jaune.

I. Zer da satisfaziñoa?

E. Da pagetea Jaungoikoari pekatuekgaitik deuszan zorra, konfesoreak iminten deuszen penitenzie betetan deuela.

I. Ete pekatu egiten dau penitenzie kunplietan ez deuenak; edo kunplidu бага luzero daukenak?

E. Pekatu mortala, penitenzie andie bada.

I. Pagau ete giñeikio Jaungoikoari pekatuen zorra, iminten jakun penitenzieguz baño beste gauzegaz?

E. Bai jaune, Jaungoikoaren grazien egiñiko obra on guztiekaz eta induljenziek irebaziegaz.

I. Ze gauze dire induljenziek?

E. Grazie batzuk, zeintzuek gaitik parkatuten dan, pekatuek gaitik mundu onetan, edo bestean igero bearko litzetekean penea.

I. Zelan irebaziko dire?

E. Egiñik Jaungoikoaren grazien, onetarako aginduten dana.

I. Eta mundu onetan euren pekatuen zorra ez pageteagaitik purgatoria doazanai, guk lagundu ete giñeikioe?

E. Bai jaune, geure pekatuen zorra pagau giñeikien obrakaz eurekaz.

I. Eta norbait pekatu mortalean jausten dan guztien konfesau bear ete dau laster, parkatu dakion?



E. Berariz agindute ezpadago bere, guztiz ondo litzateke alan egitea, Jaungoikoaren aserrean eriotza zorigaistoko batek koxi ez dagien, eta egiten dituzen obra onakaz ezer irebazi bagarik geratu ez dedin. Euki egizu bada beti, alan egiteko ardurea.

I. Orainengo konfesiñotik ona bakarrik pekatu benielak daukezanari, zer egitea ondo izengo jako, damue ta propositue errazago eukiteko?

E. Konfesau lelengo orainengo konfesiñotik onako pekatu benielak, eta gero bizitzeko pekatu mortalen bat.

I. Zetarako da sakramentu santu komuniñokoa?

E. Ondo prestaute artuten bada, izen dedin gure arimen janarie, eta geitu dagigun grazie.

I. Zergaitik diñozu: «Ondo prestaute artuten bada?»

E. Adierazoteko, sakramentu santu au ez dala izengo gure arimen janarie, artuten ezpadogu bear direan prestaerakaz, bai arimearen aldetik, eta bai gorputzen aldetik.

I. Ze prestaera bear da bada arimearen aldetik?

E. Jaungoikoaren grazien egotea.

I. Pekatu mortalean jausi dana, zelan prestauko da komulgetako?

E. Konfesiño on baten bitertez.

I. Konfesau ezkeroko pekatu mortalen bat gogoratuten jakonak, zer egin bear dau?

E. Konfesau barriro komulgau baño lenago.

I. Gorputzen aldetik ze prestaera bear da?

E. Egotea baraurik (komuniño santue eztanean elexakoak artuteko) ezer jan, ez edan bagarik, igaro dan gaueko amabietatik aurrera.

E. Komuniñoko sakramentu guztiz santuen, zer artuten dozu?

E. Jesukristo Jaungoiko, ta gizon egiezko, altarako sakramentu santuen egiez dagoana.

I. Orrelan nor dago hostrien konsagraziñoko berbak esan ezkeroko?

E. Jesukristo gure Jaunen gorputze, bere odol, arime, ta jaungoikotasunegaz batera.

I. Eta kalizean?

E. Jesukristoren odola, bere gorputz, arime ta jaungoikotasunegaz batera.

I. Onelan Jesukristo guztie dago hostrien, eta guztie kalizean?

E. Bai jaune, Jesukristo guztie dago hostrie guztien, guztie hostriearen edozein zatiten, eta bardin kalizean.

I. Eta konsagraziñoko berbak esan ezkeroko, ete dago hostrien ogirik, edo kalizean ardaorik?

E. Ez jaune, ezpada ogien ta ardaoen irudiek, zeintzuk direan useiñe, kolorea, gustue.

I. Eta zatituten bada hostriea, edo erdibitu kalizean dagoana, zatituten edo erdibituten ete da Jesukristo?

E. Ez jaune, guztie osorik geratuten da zati guztietan eta bakotxean.

I. Eta komulgetan danak esan direan prestaerak bagarik, artuten ete dau Jesukristo?

E. Bai jaune, baie bere kaltean, zergaitik eze egiten dau pekatu guztiz andi bat.

I. Eta euren onerako artuten daudenak, zer egin leie esan danez ganera, alkantzau dagiezan onera andieagoak?

E. Konfesau baño lenago gogoan erabilli, nor dan eurekgana datarren Jaune; bizitu euren biotzetan fedea, itxeropena, eta karidadea, komulgau humiltasun ta itzel andiegaz, eta gero emon eskerrak, Jesusek egin deuten mesede andiegaitik.

I. Zetarako da Oleaziñoko sakramentu santue?

E. Iru gauzetarako.

I. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa lenagoko bizitze gaistoko errastu eta enparauek kenduteko. Bigarrena sendatuteko arimea deabruen tentaziñoen kontra.

Irugarrena emoteko gorputzeri osasune, arimearen kaltean izengo ezpada.

I. Ezauerara eldute, ilteko arriskuen gaixorik dagozanak, artu bear ete daude sakramentu santu au?

E. Bai jaune, eta pekatu mortala egiten daude, al daudela, artuten ezpadaude, edo artuten badaude pekatu mortalean.

I. Zer egingo dau bada pekatu mortalean aurkituten danak, prestaera onagaz artuteko?

E. Konfesiño on bat egin, eta ezin balitz konfesau, prestau akto kontriziñoko bat egiñegaz.

I. Zetarako da sakramentu santu Ordeakoa?

E. Konsagretako eta ordenduteko elesgizon duiñek, zelan direan sazerdoteak, ebanjeliokoak, eta epistolakoak.

I. Elesgizonai, batez bere sazerdote jaunei, gorde bear ete jake berarizko lotsa, itzel eta erreberenzie?

E. Bai jaune.

I. Zetarako da Matrimoniñoko sakramentu santue?

E. Ezkonduteko, eta emoteko grazie ezkonduei, euren artean bakean biziteko, eta seme alabak zerureko aziteko.



I. Eta sakramentu santu au ondo artuteko, ezkonduen direanak egon bear ete daude Jaungoikoaren grazien?

E. Bai jaune, pekatu mortalaren bean.

I. Eta Jaungoikoaren grazien ez dagozanak, zelan prestau bear daude, ondo artuteko?

E. Konfesiño on bategaz.

PEKATU KAPITALAK DIRE ZAZPI

Lelengoa Arrokerie.

Bigarrena Abarizie.

Irugarrena Loikerie.

Laugarrena Aserrea.

Bostgarrena Gulerie.

Seigarrena Inbidie.

Zazpigarrena Nagitasune.

I. Zergaitik deituten deutsezu kapitalak, geienean mortalak esaten jaken zazpi pekatuei?

E. Deituten jake kapitalak, direalako buruek, euretatik jaijoten direan pekatuen iturri eta sustraiek legez; ez jatorke barriz ain ondo mortalen izena, bada askotan ez dire benielak baño.

I. Noz dire mortalak?

E. Jaungoikoaren eta projimuen karidadearen kontra direanean.

I. Noz dire karidadearen kontra?

E. Eurekaz austen danean Jaungoikoaren, edo elexa santearen agin-duren bat gauze astunean.

I. Zer da arrokerie?

E. Besteak baño geiago izeteko gureri bidebagako bat.

I. Zer da abarizie?

E. Da ondasunen gureri lar bat.

I. Zer da loikerie?

E. Da aragien atsegin nabarmenen gureri bidebagako bat.

I. Zer da aserrea?

E. Da bengetako gureri bidebagako bat.

I. Zer da gulerie?

E. Da jateko eta edateko gogo lar bat.

I. Zer da inbidie?

E. Besteen ona ikusi eziñe.

I. Zer da nagitasune?

E. Gauze onak egitean astun egotea.

ZAZPI PEKATU ONEEN KONTRA DAGOZ ZAZPI BIRTUTE

Arrokerien kontra humiltasune.

Abarizien kontra prestutasune.

Loikerien kontra garbitasune.

Aserrearen kontra pazienze.

Gulerien kontra jan edanean begiretue izeteta.

Inbidien kontra karidadea.

Nagitasunen kontra prestatasune.

IÑES EGIN BEAR DEUTSEGEN ARIMEKO ARERIOAK DIRE IRU

Lelengoa mundue.

Bigarrena demoniñoa.

Irugarrena aragie.

I. Zein da mundue?

E. Dire mundutar gaisto ta deungak.

I. Zein da demoniñoa?

E. Da Jaungoikoak zeruen egin euen angeru bat; baie jaigi zalako Jaungoikoaren beraren kontra beste askogaz, bota euen infernuetara bere gaistakerieko lagunekaz, zeintzuei deituten deutsegu demoniñoak.

I. Zein da aragie?

E. Da geure gorputze bera, bere griñe ta etsigitasun deungakaz.

I. Zelan azporetuten da mundue, ta iñes egiten beragandik?

E. Bere andikerie, ta arrokerien desprezijoagaz.

I. Zelan azporetuten da demoniñoa, ta iñes egiten da beraganik?

E. Oraziñoagaz ta humiltasunegaz.

I. Zelan azporetuten da aragie, ta iñes egiten da beraganik?

E. Laztasun, azote, ta baraukaz; au da areriorik andiena, zegaitik eze, aragie ezin bota giñeike geuganik, mundue ta demoniñoa bai.

BIRTUTE TEOLOGALAK, EDO JAUNGOIKOAGANANTZ-KOAK DIRE IRU

Lelengoa Fedea.

Bigarrena Esperantzea.

Irugarrena Karidadea.

I. Birtute oneek barrizteu bear doguzen ezkeru, zelan egongo gara, onetan utsik egin bagoa?



E. Errezaurik deboziño eta sarriten (edozein kristiñeuk egin bear dauen legez) kredoa, ta aite gurea, eta biotzetik esanagaz: Neure Jesukris-ta Jaune.

BIRTUTE KARDINALAK DIRE LAU

Lelengoa Prudenzie.
Bigarrena Justizie.
Irugarrena Sendotasune.
Laugarrena Tenplanzea.

GORPUTZEKO ZENTZUNEK DIRE BOST

Lelengoa begiekaz ikustea.
Bigarrena belarriekaz entzutea.
Irugarrena aoagaz gustu artutea.
Laugarrena surregaz useñ egitea.
Bostgarrena eskuekaz ukututea.

I. Zetarako emon euskuzen Jaungoikoak zentzunek, eta gorputzeko beste zatiek?

E. Guztiekaz gauze guztietan bera serbidu giñeien.

ARIMEKO ALMENAK DIRE IRU

Memorie, entendimintue ta borondatea.

I. Zetarako emon euskun Jaungoikoak memorie?

E. Akordau giñeitez beragaz, ta bere mesedeakaz.

I. Zetarako emon euskun entendimintue?

E. Ezagutu giñeien gure Jaune, ta bere gogoan erabilli.

I. Zetarako emon euskun borondatea?

E. Ontasan osoa legez amau dagigun eta projimue beragaitik.

I. Ze gauze da gure arimea, zeñenak direan almen oneek?

E. Da Jaungoikoak bere antz eta irudire egiñiko espiritu illezin bat.

ESPIRITU SANTUEREN DOEAK DIRE ZAZPI

Lelengoa Iakiturieko Doea.
Bigarrena Entendimintuko Doea.
Irugarrena Konseju oneko Doea.
Laugarrena Ezauerako Doea.
Bostgarrena Sendotasuneko Doea.
Seigarrena Errukitasuneko Doea.
Zazpigarrena Jaungoikoaren bildurreko Doea.

ESPIRITU SANTUEREN FRUTUEK DIRE AMABI

Lelengoa Karidadea.
Bigarrena Bakea.
Irugarrena Biotzeko anditasune.
Laugarrena Biguntasune.
Bostgarrena Fedea.
Seigarrena Kontinenzie.
Zazpigarrena Arimeko poza.
Zortzigarrena Pazienze.
Bederatzigarrena Ontasune.
Amargarrena Otsantasune.
Amakagarrena Modestie.
Amabigarrena Garbitasune.

ZORIONTASUNEK DIRE ZORTZI

1. Zorionekoak biotzetik pobre direanak, eurena dalako zeruetako erreñue.

2. Zorionekoak otsanak, eurek izengo direalako lurren jaubeak.

3. Zorionekoak negar egiten daudenak, eurek izengo direalako poz-tuek.

4. Zorionekoak onaren gose ta egarri direanak, eurek izengo direa-lako asaskauek.

5. Zorionekoak errukiorrak, eurek alkantzauko daudelako errukie.

6. Zorionekoak biotz garbikoak, eurek ikusiko daudelako Jaungoikoa.

7. Zorionekoak baketsuek, Jaungoikoaren semeen izena emongo jakelako.

8. Zorionekoak persekuziñoa daroenak onak direalako, bada eure-na izengo da zeruetako erreñue.

I. Zer esan dogu orain?

E. Zortzi zoriontasunek.

I. Ze gauze dire zortzi zoriontasunek?

E. Espiritu Santueren birtute eta doeen egitekorik oneenak.

I. Nortzuk dire biotzetik pobreak?

E. Lurreko andiuste, ta ondasunen gurerririk ez daukenak.

I. Nortzuk dire otsanak?

E. Aserrerik ez daukenak, ezta apurrik bere.

I. Zelan izengo dire lurren jaube?

E. Euren buruen jaube izenagaz.



- I. Nortzuk dire negar egiten daudenak?
 E. Deungak ez direan atsegiñek bere, itxiten dituezanak.
 I. Nortzuk dire onaren gosea ta egarrie daukeenak?
 E. Alegiñez ezetanbere utsik egin gure ez leukeenak.
 I. Nortzuk dire errukiorrak?
 E. Iñori bere on baño egin gure ezteutsenak.
 I. Zer da pekatu beniela?
 E. Pekatu mortalerako prestaera bat.
 I. Zegaitik deritxo beniela?
 E. Arin, au da, erraz gizona beratan jausten dalako, eta erraz parka-
 tuten jakolako.
 I. Zeinbet gauzegaitik parkatuten jako?
 E. Bederatzigaitik.
 I. Zeintzuk dire?
 E. Lelengoa meza entzuteagaitik.
 Bigarrena Komulgetegaitik.
 Irugarrena Ni bekatarie esateagaitik.
 Laugarrena Obispo jaunen bendiziñoagaitik.
 Bostgarrena ur bedeinketue gaitik.
 Seigarrena ogi bedeinketue jateagaitik.
 Zazpigarrena Aite gurea esatea gaitik.
 Zortzigarrena sermoa entzuteagaitik.
 Bederatzigarrena bulerra joteagaitik Jaungoikoari parka eskatuten
 jakola.
 I. Zergaitik diñozu: «Jaungoikoari parka eskatuten jakola?»
 E. Adierazoteko, alkantzauko bada gauze oneen bitertez pekatu
 benielen parkaziñoa, euki bear dogule euren damu santuren bat.
 I. Konfesau bear ete doguz pekatu benielak?
 E. Ez da jaune premiñezkoa, baie da gauze ona ta mesedegarrie.
 I. Nortzuk dire biotz garbikoak?
 E. Euren barruko gureri gaistoak azpiretuten dituezanak.
 I. Nortzuk dire baketsuek?
 E. Euren eta besteen arteko bakegillak.
 I. Nortzuk dire, onak direalako persekuziñoa igaroten daudenak?
 E. Esetsirik gogorrenen artean beti sendo dagozanak.
 I. Zegaitik deituten jake onei zoriontasunak?
 E. Eurretan dagoalako bizitze onetako zoriontasuna, eta bestekoaren
 itxeropena.
 I. Zeinbet dire gizonen azkenak?

E. Lau.

I. Zeintzuk dire?

E. Eriotzea, juizioa, infernue eta glorie.

I. Zer da glorie?

E. Da bizitze guztiz zorioneko bat, zeñetan aurkituten direan onera
 guztiek, gatzik batbere baga; infernuen dagozan legez gatz guztiek, one-
 rarik batbere baga.

I. Infernutik libretako eta zeruko glorie alkantzetako, zer egin bear
 dogu?

E. Gorde Jaungoikoaren agindu santuek.

I. Ete dagoz beste neurriren batzuk, errezagotako agindu san-
 tuek, eta eurretan utsik ez egiteko?

E. Bai jaune.

I. Zeintzuk dire?

E. Sarriten konfesetea, ta komulgetea; goxean goxean Jaungoikoari
 eskiñitea egun atako lan, eta berrak; egun guztietan errosarioa errezetea;
 liburu onak irekurtea; oraziño egitea; gaubean gaubean konzienzie esa-
 miñitea; eta baten asko esateko, artutea konfessore jakintsu, on, begiretu
 eta arduretsu bat, eta egitea berak aginduten deusantuek.

IRAK. Ondo diñozu: zegaitik eze, San Franzisko Salesek diñoan
 legez, konfessore on bat artutea da salbetako neurri guztien neurrie. Egizu
 bada zuk bere alantxe, bada berak, angeru batek legez, zuzenduko zaitu
 irekatsi onekaz, eta beste bear direanakaz Jaungoikoaren agindu santueta-
 ko bidetik, eldu zaitez Jaungoikoa ikusten zeruko glorien, bada oneta-
 rako ekarri genduzen mundure. Jaunek ara eroan gagizela guztiok. Amen.

NI PEKATARIE

Ni pekatarieu konfesetan natxako Jaungoiko guztiz poderosoari,
 Andra Marie beti Birjiñeari, San Migel angerueri, San Juan Bautisteari,
 San Pedro eta San Pablo Apostoluei, Santu guztiei, eta zuri neure aite
 espirituala, egin dodala pekatu pensamentuz, berbaz, eta obraz, neure
 erruz, neure erruz, neure erru andiegaz. Orregaitik erregututen deutset
 Andra Marie beti Birjiñeari, San Migel angerueri, San Juan Bautisteari,
 San Pedro eta San Pablo Apostoluei, Santu guztiei, eta zuri neure aite
 espirituala, erregutu dagiozula nigaitik neure Jaun eta Jaungoikoari.
 Amen.



NEURE JESUKRISTO JAUNE

Neure Jesukristo Jaune, Jaungoiko ta gizon egiezkua, neure Egillea ta Salbagillea, zareana zarealako, eta ametan zaitudezalako gauze guztien ganean, damu dot Jaune, damu dot biotz guztirik zu ofendidue, artuten dot gogo sendo bat ez geiago pekatu egiteko, konfesetako, iminten jatan penitentie kunplietako, eta pekatuko bide guztietarik alde egiteko. Opa deusudez, Jaune, neure bizitze, egite ta neke guztiek neure pekatu guztien pagureko, eta itxeroten dot zure ontasun, eta erruki amaibagan, parkatuko deustezuzela zeure odol guztiz baliotsu, pasiño, ta eriotzeagaitik, eta emongo deustezule grazie onduteko, ta zeu serbietan ireuteko neure eriotzako ordura artean. Amen.

AZKENA

OTXANDIOKO DOTRINA

Ochandiano

Kristiñeu fiel guztijek
dagoz guztiz obligeurik
deboziñue artuten
euren bijotz guztirik
Jesus geure argijen
kurutze santubegaz
bada an ill gure izen eban
gu ateratien
pekatuben mendetik
ta arerijo deungetatik.

Orregaitik bada
egin bier zara
alan zeñatuten
zelan Aitieren egiten
iru kurutze egiñegaz.
Lenenge bekokijen
Jaungoikuek libreu gaizen
pensamentu txarretarik.
Bigarrena agen
Jaungoikuek libreu gaizen
berba deungetarik.
Irugarrena bulerrien
Jaungoikuek libreu gaizen
egite ta gogo txarretarik.
Onetara esanagaz:
Kurutze Santuben + señalie gaitik
geure + arerijuetatik
libredu gaizuz
geure Jaune + ta Jaungoikue.
Aitieren + ta Semieren
ta Espiritu Santuberen izenien. Amen.



Kredoa

Sinistuten dot Aite Jaungoiko guztiz poderoso, zeruben ta lurren Egilliegan, ta bere seme bakar Jesukristo gure Jaunegan, zein sortu zen Espiritu Santueren egitez ta grazijez. Jaijo zan Marije Birjiñieganik, padeziu eban Ponzio Pilatosen aginduen beien, izen zan kurutzien josije, ill, ta enterradube, jatzi zen infernubetara, irugarren egunien biztu zen illen artetik, igo eban zerubetara, an dago jasarrite Aite Jaungoiko guztiz poderosuen eskumeko aldeti, andik etorriko da bizijek eta illek juzgetan. Sinistuten dot Espiritu Santubegan, Elexa santa katolikie, Santuben komuniñue, pekatuben parkaziñue, aragijen biztuera barrije, betiko bizitzie. Amen.

Fedeko artikulubek

Fedeko artikulubek dire amalau. Lelengo zazpirek jagokaz Jaungoikotasuneri, eta beste zazpirek Jesukristo gure Jaun Jaungoiko ta gizon egi-jezkoen Gizontasun santuberi.

Jaungoikotasuneri jagokazanak dire oneik.

Lelenge sinistu Jaungoiko bakar guztiz poderosoagan.

Bigarrena sinistu dala Aitie.

Irugarrena sinistu dala Semie.

Laugarrena sinistu dala Espiritu Santube.

Bostgarrena sinistu dala gauze guztijen Egillie.

Seigarrena sinistu dala Salbagillie.

Zazpigarrena sinistu dala glorije emollie.

Gizontasun santuberi jagokazanak dire oneik.

Lelenge sinistu Jesukristo gure Jaune gizona danez sortube izen zala Espiritu Santuben egitez ta grazijez.

Bigarrena sinistu jaijo zala Santa Marije Birjiñiegandik, geldituten zala donzelle semie jaijo baño lenago, jaijotzan ta jaijo azkero.

Irugarrena sinistu artu zituzela erijotzie ta pasiñue gu pekatarijok salbetiarren.

Laugarrena sinistu jatzi zela infernubetara eta atera zituzela bere etorrera santuben begire egozan Gureso santuben arimeek.

Bostgarrena sinistu irugarren egunien biztu zela illen artetik.

Seigarrena sinistu igo ebala zerubetara, eta dagela jasarrite Aite Jaungoiko guztiz poderosuen eskumeko aldetik.

Zazpigarrena sinistu etorriko dala bizijek eta illek juzgetan, au de, onai emoten glorije bere agindu santubek gorde zitubezalako; eta deungai betiko infernube, gorde ez zitubezalako.

Aite gurie

Aite gurie zerubetan zagozana, santifikedu bedi zure izena, betor gugena zure erreiñube, egin bedi zure borondatie, zelan zeruben alan lurrien.

Egunien eguniengo geure ogije gaur emon egiguzu, eta parkatu egiguzur geure zorrak geuk geure zordunei parketan deutseguzen legez, eta itxi ez egiguzu tentazinuen jausten, baie libredu gagizuz gatxetik. Amen.

Abe Marije

Abe Marije, grazijez betie, Jaune da zugez, bedeinkatube zara zu andra guztijen artien, eta bedeinkatube da zure sabeleko frutube, Jesus.

Santa Marije Jaungoikoen Ama, erregutu egizu gu pekatarijok gaitik orain eta geure erijotzako orduben. Amen.

Salbie

Jaungoikuek gorde zaizela Erregiñe, errukiz beteriko Ama, bizitze, gozotasun ta esperanza geurie, Jaungoikuek gorde zaizela.

Zuri deije z gagoz Ebaren ume erbestetubok, zugana gagoz zizpuruz ta negarrez negarrezko leku onetan. Ea bada andrie, geure bitartekue, bijortu egizuz gudanantz zure begi errukitsu orreik; eta erbeste au igarota, erakutsi egiguzu Jesus zure sabeleko frutu bedeinketue. O guztiz bigune! O errukiorra O Marije Birjiñe gozue! Erregutu egizu gugaitik Jaungoikueren ama santie, izen gaitazan Jesukristoren agintzarijek alkantzeta-ko duin. Amen.



Jaungoikueren legeko agindubek

Jaungoikueren legeko agindubek dire amar:

Lelengo irurek jagokaz Jangoikueren honrieri, beste zazpirek projimuben probetxuberi.

Lelenge Jaungoikue ametie gauze guztijen ganien.

Bigarrena Jaungoikueren izenien jurementu alperrik ez egitie.

Irugarrena domekak eta egusajek santututie.

Laugarrena aite eta ama honretie.

Bostgarrena ez iñor iltie.

Seigarrena aragizko pekaturik ez egitie.

Zazpigarrena ez iñori ezer ostutie.

Zortzigarrena egin eztauben gauzerik iñori ez ezartie ta guzurrik ez esatie.

Bederatzigarrena projimuben emazterik ez gure izetie.

Amargarrena iñoren ondasunen gureri bidebagakorik ez eukitie.

Amar agindu oneik sartuten dire biten; Jaungoikue serbidu eta amietien gauze guztijek baño geijego eta projimube geure burube legez. Amen.

Kristiñeuben dotriñien azaldaerie iteune ta erantzueretan

ITENDUTEN DOT. Kristiñeube zara?

ERANTZUTEN DOT. Bai Jaune, Jaungoikueren grazijez.

I. Nondi jatortsu kristineuben izen ori?

E. Jesukristo gure Jauneganik.

I. Zer esan gure dau kristiñeubek?

E. Kristoren gizona.

I. Zer adituten dozu kristoren gizonaz?

E. Jesukristoren fede, batiuen artu ebana dauken gizona, eta bera serbietako eskinite dagena.

I. Zein da Kristiñeuben señalie?

E. Kurutze santube.

I. Zegaitik?

E. Dalako Kristo kurutzien josijen irudije, zeñetan erredimidu genduzen.

I. Zeinbet moduten egiten deu kristiñeubek señale ori?

E. Modu biten.

I. Zeintzuk dire?

E. Zeñatutie eta Aitieren egitie.

I. Zer da zeñatutie?

E. Eskumako eskuko orkoluegaz iru kurutze egitie. Lelenge bekokijen, bigarrena agüen, irugarrena bulerrien, geure Jaungoikuegaz berba egiten dogule.

I. Erakutsi zelan?

E. Kurutze santuben + señalie gaitik, geure + arerioetarik, libredu gaizuz + geure Jaune ta Jaungoikue.

I. Zegaitik zeñatuten zara bekokijen?

E. Jaungoikuek libreu gaizen pensamentu txarretatik.

I. Zegaitik agüen?

E. Jaungoikuek libreu gaizen berba txarretatik.

I. Zegaitik bulerrien?

E. Jaungoikuek libreu gaizen egite ta gureri txarretatik.

I. Zer da Aitieren egitie?

E. Da eskumako eskuko atz bijekaz kurutze bat egitie, bekokitik bulerrera, eta ezkerreko sorbaldatik eskumakora Trinitate gutziz santube izentetan dogule.

I. Erakutsi zelan?

E. Aitieren + ta Semieren ta Espiritu Santuberen izenien. Amen.

I. Nos egin bier dogu kurutzien señale ori?

E. Egite onen bat asiten dogun guztijen, edo premiñe, tentaziño, edo arriskuren baten aurkituten garienien, batez bere oitik jaigitorduben, etsetik urtejeran, elexan sartutorduben, eta oira gezanien.

I. Zegaitik ainbeste bider?

E. Beti ta leku guztijetan gure arerijuek esetsiten deuskubelako ta persegiuten gaitubezalako.

I. Ze arerijo dire orreek?

E. Demoniñue, mundube ta aragije.

I. Kurutziek dauko ala inderra arerijo orreek goituteko?

E. Bai jaune.

I. Nundik dauko Kurutziek inder ori?

E. Kristok bere erijotziegaz aintxe azpiretu ebazalako.

I. Kurutzie adoretan dozunen zelan esaten dozu?

E. Adoretan eta bedeinketuten zaituguz Kristo, zeure kurutze santuben bitertez mundube erredimidu zendubelako



Kristineubek jakin bier daubezanak

Ikusi dogu kristiñeube zariena alan izenien, zelan señaalien: esan egidezu orain: Zeinbet gauze jakin ta aditu biar ditu kristiñeubek adimenera, edo ezauberara elduten danielen?

E. Lau gauze.

I. Zeintzuk dire?

E. Jakitie zer sinistuko dauben, zer eskatuko dauben, zer egingo dauben, eta zer artuko dauben.

I. Zelan jakingo dau zer sinistuko dauben?

E. Jakiñegaz kredue, edo fedeko artikulubek.

I. Zelan jakingo dau zer eskatuko dauben?

E. Jakiñegaz Aite gurie, ta elexako beste oraziñuek.

I. Zelan jakingo dau zer egingo dauben?

E. Jakiñegaz Jaungoikueren legeko agindubek, elexa ama santienak, eta obra miserikordijezkuak.

I. Zelan jakingo dau zer artuko dauben?

E. Jakiñegaz elexa ama santien sakramentubek.

Dotriñien lelengo partie, zeñetan adierazoten dirien Kredu eta Fedeko artikulubek

Lelengotik asiten gariela esan egidezu:

I. Nok esan eban Kredue?

E. Apostolubek.

I. Zetako?

E. Guri fede santuko gauzak irakasteko.

I. Eta zuk zetako esaten dozu?

E. Kristiñeubek daukegun fede au konfesetako.

I. Zer da fedie?

E. Ikusi eztogune sinistutie.

I. Ikusi zenduben jaijoten Jesukristo?

E. Ez Jaune.

I. Ikusi zenduben ilten, edo zerure igoten?

E. Ez Jaune.

I. Sinistuten dozu?

E. Bai Jaune.

I. Zegaitik sinistuten dozu?

E. Jaungoikuek alan agertu deutsalako Elexa Ama santieri, ta onek alan erakusten deuskuleko.

I. Ze gauze dire kristiñaube zarienez daukezuzenak, eta sinistuten dozuzenak?

E. Erromako Elexa santiek daukezanak, eta sinistuten daubezanak.

I. Eta zertzuk dire zuk eta berak daukezubezanak, eta sinistuten dozubezanak?

E. Fedeko artikulubek, batezbera kreduen dagozan legez.

I. Ze gauze dire fedeko artikulubek?

E. Dire fedeko misterijorik andijenak.

I. Zetako dire fedeko artikulubek?

E. Emoteko gure Jaungoikuen eta Jesukristo gure Salbagillien ezaubera argije.

I. Zein da gure Jaun Jaungoikue?

E. Da esan ta asmau al leitekien gauzerik andi ta miragarriena: Jaune bat amaibagarik ona, alsube, jakintzube, arteza, gauze guztijen asikerie ata azkena.

I. Zein da Trinitade guztiz santube?

E. Da Jaungoikue bera Aitie, Semie ta Espiritu Santube, iru persona banak eta Jaungoiko egijecko bakar bat.

I. Aitie Jaungoikue da?

E. Bai Jaune.

I. Semie Jaungoikue da?

E. Bai Jaune.

I. Espiritu Santube Jaungoikue da?

E. Bai Jaune.

I. Iru Jaungoiko dire?

E. Ez Jaune, ezpada Jaungoiko egijecko bakar bat; dan legez guztiz altsu bakar bat, betiko bakar bat, eta Jaun bakar bat.

I. Aitie Semie da?

E. Ez Jaune.

I. Espiritu Santube Aitie edo Semie da?

E. Ez Jaune.

I. Zegaitik?



E. Iru pertsona banak dirielako, izen arren Jaungoiko egiezko bakar bat.

I. Au onelan dala, zeinbet izete, adimentu eta borondate dagoz Jaungoikuegan?

E. Izete bakar bat, adimentu bakar bat, eta borondate bakar bat.

I. Eta zeinbet persona?

E. Iru banak, zeintzuk dirien Aitie, Semie, eta Espiritu Santube.

I. Zelan da Jaungoikue guztiz altsube?

E. Bere eskubide bakarragaz egiten daubelako gure dauben guztije.

I. Zelan da Egillie?

E. Guztije ezerezetik egin eubelako.

I. Zetako egin euben Jaungoikuek gizona?

E. Bizitze onetan Jaungoikue bera serbietako, eta gero betikuen bera gozetako.

I. Zelan da Salbagillie?

E. Grazije emon, eta pekatubek parkatuten daubezalako.

I. Zelan da Glorije-emollie?

E. Bere grazijan irauten daubenari, betiko gloriye emoten dautselako.

I. Jaungoikuek ete dauko guk legez gorputzen irudirik?

E. Ez Jaune, Jaungoikue danez, dalako Espiritu utse, baie bai gizona danez.

I. Jaungoikozko iru pertsonetatik, zein egin zan gizon?

E. Bigarrena, zein dan Semie.

I. Aite egin zen gizon?

E. Ez Jaune.

I. Espiritu Santube egin zen gizon?

E. Ez Jaune.

I. Zein bada?

E. Bakarrik Semie, zeñeri gizon egiñik deretxon Jesukristo.

I. Orrelan zein da Jesukristo?

E. Da Jaungoiko bizijen semie, gizon egin zena gu erredimidutierren, eta guri zelan bizi erakustiarren.

I. Eta zeinbet izete, adimentu, eta borondate dagoz Jesukristogan?

E. Izete bi, bata Jaungoikue danez eta bestie gizona danez: borondate bi, Jaungoikue danez bata, eta gizona danez bestie: adimentu bi, bata Jaungoikue danez, eta bestie gizona danez.

I. Eta zeinbet persona eta gogamen?

E. Persona Jaungoikozko bakar bat, zein dan Trinitade guztiz santuko bigarrena, eta gogamen bakar bat, bada Jaungoikue danez eztauko gogamenik.

I. Zer esan gure dau Jesusek?

E. Salbagillie.

I. Zetarik salbau genduzen?

E. Geure pekatutik eta demoniñuen mendetik.

I. Zer esan gure dau Kristok?

E. Unjidube.

I. Zegaz izen zan unjidube?

E. Espiritu Santuben grazije ta doiekaz.

I. Jesukristo gure Jaune zelan sortu zan eta jaijo ama donzelliganik?

E. Jaungoikuek gauze orreik egiten zituzela gure ganetiko inderragaz, eta mireriz.

I. Zegaitik diñozu: «gure ganetiko inderragaz eta mireriz?»

E. Jesukristo sortu ez zalako, ezta jaijo bere, beste gizonak legez.

I. Zelan deituten jako gauze orreetan aurkituten dan misterijueri?

E. Enkarnaziñoko misterijue.

I. Zer da sinistuten dozune Enkarnazinoko misterijuen?

E. Trinitade guztiz santuko bigarren personie, zein dan semie, gizon egin zala Birjiñie Marijen errai garbijetan, bere donzelletasunen kalte baga, ez gizonen obraz, ezpada Espiritu Santuben obraz.

I. Zeinbet gauze bada egin zituzen Espiritu Santubek Enkarnaziñoko misterijuen?

E. Lau gauze Jaune.

I. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa, Ama Birjiñien errai guztiz garbijetan formau eban gorputz bat bere odol guztiz garbijegaz. Bigarrena, egin eban arime bat ezezetetik. Irugarrena, gorputz ta arimie batu zituzen arkalegaz. Laugarrena, gorputz ta arime oneekaz batu zen Jaungoikuen semie. Eta onan len Jaungoiko bakarrik zana, Jaungoiko izetieri itxi bagarik gelditu zan gizon egiñik.

I. Eta zelan jaijo zan mireriz?

E. Urteiten eubela Ama Birjiñien sabeletik bere donzelletasunen kalte baga, eguzkijen argi errañue igeroten dan legez kristel batetik, kristela ausi ez loitu bagarik.

I. Eta bere ama bizi ete zan gero beti donzelle?

E. Bai Jaune beti.

I. Zegaitik kurutzien il gure izen eban?



E. Gu libretiarren pekatutik, eta betiko erijotzatik.
 I. Zelan bada egin ete giñien erijotza orren errudun?
 E. Pekatu egiñik gure lelengo gureso Adanek, zeñegan guztijok pekatu egin genduben.
 I. Zer adituten dozu Jesukristo ill ezkeru jatsi zen infernure esanagaz?
 E. Ez kondenaduben lekue, ezpada justubek egozan linbue.
 I. Infernu bat baño geijago dago ala?
 E. Bai Jaune, dagoz lau lurren barruben, eta deretxoie kondenaduben infernube, purgatorijue, seiñen linbue, justuen linbue, edo Abrahamen lekube.
 I. Zein da kondenaduben infernube?
 E. Pekatu mortalien ilten dirien arimak, betiko nekatubek izeteko jueten dirien lekube.
 I. Zein da Purgatorijue?
 E. Jaungoikuen grazijen, baie euren pekatuben zor guztije pagau bagarik ilten dirien arimak jueten dirien lekube, an pena gogorraz guztiz garbitubek izeteko.
 I. Zein da seiñen linbue?
 E. Batietu bagarik adimenera eldu baño lenago ilten dirien arimak jueten dirien lekube.
 I. Zein da justuen linbue, edo Abrahamen lekube?
 E. Jesukristo gure Jaune mundure etorri, eta il baño lenago Jaungoikuen grazijan il, eta guztiz garbitute egozaren arimak jueten zirien lekube, eta leku au da Jesukristo egijez eta benetan jatsi zena.
 I. Zelan jatsi zen?
 E. Arimie jaungoikotasunegaz baturik.
 I. Eta bere gorputze zelan gelditu zen?
 E. Jaungoikotasunegaz beragaz baturik.
 I. Zelan biztu zen irugarren egunien?
 E. Barriro batuten ziriela bere gorputz eta arime glorijez betie ostera iñoz ez ilteko.
 I. Zelan igon eban zerubetara?
 E. Berez.
 E. Zer esan gure dau Aite Jaungoikuen eskumatati jasarrite egotiek?
 E. Kristok Jaungoikue danez Aitek beste glorije daukela, eta beste edozeñek baño geijago gizona danez.
 I. Noz etorriko da bizijek eta illek juzgetan?
 E. Munduben azkenien.
 I. Eta orduben biztuko ete dire illek guztijek?

E. Bai Jaune, len euki eudezan gorputz eta arimakaz eurekaz.
 I. Eta munduben azkena baño lenago izengo ete gara juzgedubek?
 E. Bai Jaune. geure bizitzien azkenien guztijok juzgeduko gaitu Jaunek, eta emongo deusku sentenzije, onai Jaungoikue glorijan beti gozeta-ko; eta deungai infernuben beti penetan egoteko.
 I. Zer sinistuten dozu esaten dozunien: «Sinistuten dot santuben komuniñue?»
 E. Kristiñeu fijelak partie daukiela bestien gauze oneetan, gorputz baten zatijek legez, gorputz au da Elexie.
 I. Zer da Elexie?
 E. Da kristiñeu fijel guztijek batera artute egiten dauden gorputze, zeñen burube dan Aite Santube.
 I. Nor da Aite Santube?
 E. Da Erromako Sazerdote nagosi, lurrien Kristoren ordeko, guztijok obedezidu bier deutsegune.
 I. Kreduez eta artikulubez ganera, beste gauzerik sinistuten dozu?
 E. Bai Jaune, liburu santubetan dagen guztije, eta Jaungoikuek bere Elexieri agertute deuten guztije.
 I. Ze gauze dire orreik?
 E. Ori ez niri itendu jakiturije bagakue nasalako: baukez Elexa ama Santiek Irekaslak, erantzuten jakingo daudenak.
IREKASLIEK. Ondo diñozu: Irakaslai jagoke eta zuri ez fedeko gauzen kontu zietza emotie: asko da zuretzat jakitie fedeko artikulubek kreduen dagozan legez, ta eurek sinistutie.

**Dotriñien bigarren partie,
 non adierazoten dan, zer eskatu bier dan,
 eta Elexa ama santien oraziñuek**

Ikusi dogu zelan dakizun sinistu bier dozune, zein dan lelenge: gatozan bigarrenera, zein dan eskatu bier dana.
 Esan egidezu:
 I. Nok esan eban Aite gurie?
 E. Jesukristok.
 I. Zetarako?
 E. Guri oraziño egiten irekasteko.
 I. Zer da oraziñue?



E. Da Jaungoikuegana bijotza eregi, eta mesediek eskatutie.

I. Zeinbet modutekue da oraziñue?

E. Modu bitekue, mentala eta bokala.

I. Zer da oraziño mentala?

E. Da arimeko almenakaz egiten dana; memorijegaz, gauze onen bat gogora ekarten dogule; adimentubegaz, gauze ori gogen darabilgule, eta bere ganien pensetan dogule; eta borondatiegaz, gogo ta gureri onak artuten doguzela, esaterako, pekatubekaz damutu, konfesau, ondu, obatu, eta aurrerantzien bizitze on bat egitie.

I. Zer da oraziño bokala?

E. Da berbakaz eta miiñegaz egiten dana, esaterako, egiten dogune, Aite gurie errezetan dogunien.

I. Eta zelan egin bier da oraziñue?

E. Gogotik, humiltasunegaz, itxeropenagaz, eta ireupenagaz.

I. Aite gurie esaten dozunien, nogaz berba egiten dozu?

E. Jaungoiko gure Jaunegaz.

I. Non dago Jaungoiko gure Jaune?

E. Leku guztijetan, batez bere zeruben eta altarako sakramentu guztiz santuben.

I. Eta Jesukristo gizona danez non dago?

E. Bakarrik zeruben eta altarako Sakramentu guztiz santuben.

I. Oraziño guztijetarik zein da oneena?

E. Aite gurie.

I. Zegaitik?

E. Jesukristok bere agoz esan ebalako Apostoluben eskariz.

I. Zegaitik geijego?

E. Daukezalako zazpi eskari karidade osotik datozenak.

I. Zeintzuk dire?

E. Lelenge da: Santifikedu bedi zure izena.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jaungoikueren izena izen dedille ezagutube eta honradube mundu guztijen.

I. Zein da bigarrena?

E. Betor gugena zure erreñube.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Erreñue dagijela Jaungoikuek gure arimetan, emen lurrien grazijegaz, eta gero emon dagigule gloriye.

I. Zein da irugarrena?

E. Egin bedi zure borondatie, zelan zeruben alan lurrien.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Egin dagigule Jaungoikueren borondatie lurrien gagozanok, zeruben zorijonekuek egiten dauden legez.

I. Zein da laugarrena?

E. Egunien eguniengo geure ogije gaur emon egiguzu.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Emon dagigule Jaungoikuek gorputzeri jagokan janariye, arimientzat grazije eta sakramentubek.

I. Zein da bostgarrena?

E. Parkatu egiguzuz geure zorrak geuk geure zordunei parkatuten deutseguzen legez.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jaungoikuek parkatu dagiguzela geure pekatubek, geuk parkatu deutsegun legez naibageren bat emon, edo gatx egin deuskubenai.

I. Zein da seiagarrena?

E. Itxi ez egiguzu jausten tentaziñuen.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Ez dagigule itxi Jaungoikuek jausten, diabrubek pekatuben jausi eragiteko ekarten deuskuzen pensamintu txar eta tentaziñuetan, ez eurei lekuri emoten.

I. Zein da zazpigarrena?

E. Baije libreu gagizuz gatxerik.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jaungoikuek libreu gagizela arimeko eta gorputzeko gatx, ta arrisku guztijetarik.

I. Zegaitik asikera esaten dozu: «Aite gurie zerubetan zagozana?»

E. Eregiteko bijotza Jaungoikuegana, ta eskatuteko mesediek humiltasunegaz, eta ustebetiegaz.

I. Arako berba: «Amen», azkenien esaten dozunek, zer esan gure dau?

E. Alan izen dedille.

I. Zeintzuk dire Ama Bijiñieri erregututeko oraziñorik oneenak?

E. Abe Marije eta Salbie.

I. Nok esan eban Abe Marije?

E. San Gabriel angerubek Ama Birjiñe Marijeri barri onak emoten etorri zanian.

I. Nok esan eban Salbie?

E. Elexa ama santiek dauko beretzat artute.

I. Zetarako?

E. Ama Birjiñieri mesediek eskatuteko.



I. Abe Marije, edo Salbie esaten dozuzenien, nogaz berba egiten dozu?

E. Andra Marije geure amagaz.

I. Nor da Andra Marije geure ama?

E. Da birtutez beteriko Andra bat, Jaungoikueren ama, zeruben darena.

I. Eta altaran darena nor da?

E. Zeruben dargenen irudi bat.

I. Zetarako dago an?

E. Bera ikusite, akordau gaitazan zeruben dargenagaz, eta onen irudije dalako, lotsa eta itzalez begiratu gagijogun.

IREKASLIEK. Bada bardin egingo deutsezu santuben irudije, ta euren errelikije.

I. Angeru eta santubei bere erregutu bier ete dotsegu?

E. Bai jaune, geure bitartekuei legez.

I. Zer dire angerubek?

E. Dire zeruben Jaungoikoe gozetan dagozan espiritu zorijoneko batzuk.

I. Zetarako egin zituzen Jaungoikuek?

E. Bera beti alabau, eta bedeinketu egijen.

I. Zetarako geijago?

E. Bere zerbitzarijek legez, Elexie gobernau, eta gizonak gordetako.

I. Orretara zuk bere baukezu angeru jagolie?

E. Bai jaune, bauket, eta gizon bakoxtak dauko berie.

IREKASLIEK. Bada euki egijozu deboziño andi bat, eta errezaugijozu egunien egunien.

Irugarren partie, zeñetan adierazoten dan zer egin bier dan

Ikusi dogu, zer sinistu, ta zer eskatu bier dozun: dakuskun zelan dakizun zer egin bier dozun: esan egizu:

I. Zein da Jaungoikueren legekolelengo mandamentube?

E. Jaungoikue ametie gauza guztijen ganien.

I. Nok ametan dau Jaungoikue?

E. Bere mandamentu santubek gordetan daubezanak.

I. Zer da Jaungoikue ametie gauza guztijen ganien?

E. Gurago izetie gauze guztijek galdu, bera ofendiu baño.

I. Zetarako geijago obligetan gaitu mandamentu onek?

E. Bera bakarrik adoretara gorputzeko eta arimeko alegin guztijegaz, beragan sinistu eta itxeroten dogule fede bizijegaz.

I. Nok pekatu egiten dau onen kontra?

E. Idolo, edo guzurrezko Jaungoikuek adoretan daubezanak, edo eurakgan sinistuten daubenak; fedien kontrako gauzeren bat sinistuten daubenak; edo fedeko misterijoren baten dudie daukenak; edo bier dan dotriñie ez dakijenak; fede, esperanza, eta karidadeko aktuek bier dirienien egiten ez daubezanak; edo Jaungoikueren errukijegan itxeroten ez daubenak; edo prestaera txarragaz sakramenturen bat artuten daubenak.

I. Nok geijago?

E. Aztrubai sinistie emoten dotsanak; edo sorginkerijetan dabillenak; edo okerreko elesgauzakaz, edo oker Jaungoikue adoretan daubenak.

I. Zein da bigarrena?

E. Jurementu alperrik ez egitie.

I. Nok alperrik jurementu egiten dau?

E. Jurementu egiten daubenak egije baga, zuzentasun baga, eta premiñe baga.

I. Zer da egije baga jurementu egitie?

E. Da jurementu egitie norberen eretxijen kontra, edo guzurregaz.

I. Eta egije baga, edo dudan dagela jurementu egiten daubenak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala, jurementube gauza txikerren ganien izen arren.

I. Zer da zuzentasun bagarik jurementu egitie?

E. Jurementu egitie, gauza bidebagako, edo deungeren bat egiteko, esaterako, projimueri gatzen bat egiteko.

I. Eta zuzentasun baga jurementu egiten daubenak, ze pekatu egiten dau?

E. Jurementube gauza astunen ganien bada, pekatu mortala, eta ariñen ganien bada, pekatu beniel.

I. Zer da premiñe baga jurementu egitie?

E. Da jurementu egitie eginbier andi bagarik, edo ezerezkerijak gaitik.

I. Ze pekatu da au?

E. Pekatu beniel, lagundu ezkeru jurementuberi egijek, eta justizijek.

I. Eta egiten daubenak jurementu, boto, edo promesen bat gauze onen bat egiteko kunplidu bier ete dau?

E. Bai jaune, eta ez kunplidutie, edo kunplidu bagarik luzero eukitie, da pekatu mortala, gauze astunen ganien izen ezkeru.



- I. Eta Jaungoikuek egiñiko gauzakgaitik arpelik jurementu egitie pekatu ete da?
- E. Bai jaune, euretan egiten jakolako euren egille Jaungoikuerei.
- I. Ze moduten jurementu egiten da Jaungoikuek egiñiko gauzakgaitik?
- E. Esaten dala, kontureko, neure arimiegaitik, zerubegaitik, lurregaitik, diñot, au edo bestie alan dala.
- I. Ze neurri artu giñeike, jurementu arpelik ez egiteko?
- E. Ekandutu esaten bai, edo ez. Jesukristok erakusten deuskun legez.
- I. Eta mandamentu onetan beste gauzerik galerazoten ete da?
- E. Bai Jaune, galerazoten bere da blasfemije, zein dan esatie berba txarrak Jaungoikuegaitik, edo bere santubek gaitik, zein dan pekatu mortala.
- I. Zein da irugarrena?
- E. Domekak eta egusajek gordetie.
- I. Nok gordetan dauz domekak eta egusajek?
- E. Meza osue entzun, eta premiñe baga bierrik egiten ez daubenak.
- I. Eta ze pekatu da domeka eta egusajetan premiñe baga bier egitie?
- E. Ordu birik gora bier egiten bada, pekatu mortala; eta ordu birik beera bada geijenien pekatu beniela.
- I. Zein da laugarrena?
- E. Aite eta ama honretie.
- I. Nok honretan dauz guresuek?
- E. Euren esanak egiten daubezanak; eurei lagundu eta lotsie gordetan dotsanak.
- I. Nortzuk egiten daube pekatu onen kontra?
- E. Etsien eta arimien onerako gauzetan guresuen esanak egiten ez daubezan seme alabak; guresuei euren premiñetan lagunduten ez dotseanak; bireuek botaten dotsezanak; edo burle egiten dotsanak; eta ezkonduko gogo ta lanetan dabiltenak euren barri ta borondate bagarik.
- I. Nortzuk besterik adituten dire guresuen izenagaz?
- E. Nagusijegubek edadien, honran ta agintaritzan.
- I. Eta agindu onetan sartuten ete dire, seme alabak guresuekganako daukiezan eginbierrez ganera besteren batzuk?
- I. Bai Jaune, nagusijegek mendekuekganako daukiezanak, eta guresuenak euren seme alabakganako.
- I. Zeintzuk dire oneik?
- E. Emotie janarije, irekatsi ona, kastigube, ejenplu ona, eta jagokien estadube bere denporan.
- I. Ze pekatu egiten daube, oneitan uts egiten daubenak?

- E. Geijenien pekatu mortala.
- I. Zein da bostgarrena?
- E. Ez iñor iltie.
- I. Zer aginduten da mandamentu onetan?
- E. Iñori ez gatzik egitie, ez egitez, ez esatez, ezta gureriz bere.
- I. Eta nok egiten dau pekatu mortala agindu onen kontra?
- E. Bere buruberi; edo iñori opa dotsanak erijotzie, edo gatz andiren bat; edo iñori gorroto dotsanak; iñor il, zauritu, edo joten daubenak; ordituten danak; osasunien gatz andije egingo dotsen gauzak jaten daubezanak; bere bizitzie galduteko arriskuben paretan danak; edo norberen burube ilten daubenak; eta norberari edo besteri birao egiten dotsanak.
- I. Zer da birao egitie?
- E. Da eskatutie gatxen bat norberentzat, edo besterentzat, esango balitz legez: «Arren bada, ortxe illik jausiko al az».
- I. Eta ze pekatu da birao egitie?
- E. Gatz andije opa bajako, pekatu mortala.
- I. Eta alangorik opa ez bajako?
- E. Beniela, beti ez bada bere.
- I. Nortzuk bada egiten daube pekatu mortala, birao egiñegaz gatz andirik opa izen baga?
- E. Geijenien gureso, eta nagusijego, mendepekuen aurrien birauek botaten daubezanak; birauek botateko ekandube daukienak, eta kenduteko alegiñik egiten ez daubeenak.
- I. Eta zegaitik ori?
- E. Euren esate eta ejenplu txarrakaz emoiten deustielako bestie, Jaungoikue gauze astunien ofendietako bidie; eta oneri deretxo eskandalube.
- E. Zein da seigarrena?
- E. Aragizko pekatu rik ez egitie.
- I. Zer aginduten da mandamentu onetan?
- E. Izen gaitezala garbijek gogo, esate, eta egitetan.
- I. Nortzuk egiten daube pekatu mortala mandamentu onen kontra?
- E. Ezauberaz gozatuten dirienak gogoraziño loijetan, gauze txar aik egin ez arren, eta egiteko gureririk bere euki ez arren; berba loijek esan, eta kanta nabarmenak kantetan ditubezanak; edo gogoz entzuten daubezanak; edo euren burubekaz, edo bestiekaz eskuke zikin; edo gauze loijek egiten daubezanak, edo egin gure leukiezanak.
- I. Zein da zazpigarrena?
- E. Ez iñori ezer ostutie.



I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez dagigule kendu, ez euki, ez gure izen inuen gauzerik bere jaubien borondatien kontra.

I. Nortzuk egiten daube pekatu mortala onen kontra?

E. Oneetariko edozeinbere gauze egiten daubeenak; edo beste moduren baten kalte egiten dotsanak projimuberi bere ondasunetan gauze astunien.

I. Eta onetan kalte egiten dotsanak projimuberi, dan moduben dala, bauko ezer egin bierrik?

E. Bai jaune, albait lasterren bijortu bier deutso jaubieri bere gauzie, eta osotu egin dotsazan kalte guztijek.

I. Zein da zortzigarrena?

E. Egin ez dauben gauze txarrik iniori ez ezartie, ta guzurrik ez esatie.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez egitie projimubegaitik juzgu txarrik arin, au da, bide ta errazoi bagarik; ta ez esan, ez entzun bere utsegitiek.

I. Nok austen dau agindu au?

E. Juzgu txarra egiten daubenak errazoien kontra, au da, atarako biar dan besteko bide edo motibu bagarik; iniori kreitube kenduten dotsanak; gauze ixille agertu; edo guzurre esaten daubenak.

I. Eta projimuberi kreitube kenduten dotsanak, esanagaz beragaitik egin ez dauben gauze txar andiren bat; edo egin daubena, baije ezkutuben dagna; edo arpegijen emonik bere utsegitiekaz, bauko ezer egin bierrik?

E. Bai jaune, bada bijortu bier dotsa kendu dotsan honra, edo kreitube.

I. Zer da galarazoten dana bederatzigarren eta amargarren mandamentubetan?

E. Aragizko atsegiñen eta inuen ondasunen gureri bidebagakuek.

IREKASL. Esan egizuz elexa ama santien mandamentubek.

ELEXA AMA SANTIEN MANDAMENTUBEK DIRE BOST

Lelenge meza osue entzutie domeka eta egusaijetan.

Bigarrena konfesetie gitxijenez urtien bein, edo lenago erijotzako peligrurik badago, edo komulgau bier badau.

Irugarrena garizumeko paskuetan komulgetie bere parrokijen.

Laugarrena baru egitie elexa ama santiek aginduten daubenien.

Bostgarrena amarrenak eta primizijak zuzen pagetie Jaungoikueren elexieri.

I. Zetarako dire mandamentu oneik?

E. Jaungoikueren legekuek obeto gordetako.

I. Eta lelenge, zein dan meza entzutie, nortzuk gorde bier daude?

E. Ezauberara eldu dirien, ta batietute dagozan guztijek.

I. Zelan entzun bier da mezie?

E. Egonik mezie esaten dan lekuben, gauze onen batzuk gogen dituzela, edo Jesukristoren pasiñue, edo erreuzeren batzuk egiten.

I. Eta galerazokizun andirik euki baga entzuten ez daubenak; edo daganak guztijen, edo zati andijen beste gauzeren batzuk gogen daubezala; edo ez entzuteko arriskuben jarten danak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala.

I. Eta bigarrena eta irugarrena, zeintzuk dirien konfesetie, eta komulgetie, nortzuk gorde bier daubez?

E. Pekatu mortalen bien, ezauberara eldu dirien kristiñue guztijek.

I. Eta deungero konfesetan eta komulgetan dirienak, betetan ete daubez agindu oneik?

E. Ezelanbere ez jaune, eta sakramentu bi onetariko bakotxa artuten daubeenien, egiten daubez pekatu mortal bi.

I. Eta ilteko arriskuben konfesore bagarik aurkituten danak; zer egin bier dau?

E. Akto kontriziñoko bat, konfesetako propositubegaz.

I. Eta laugarrena, zein dan baru egitie, nortzuk gorde bier daube?

E. Ogeta bat urte oso daukiezanak.

I. Eta zelan baru egin bier da?

E. Galarazorik ez dagozan janarijekaz, bazkalduten dala eguberdijen, eta bestetan jan baga.

I. Eta onetan uts egin bagarik, artu ete leike goxien ezer?

E. Motiburen bat badago, txikerra izen arren, artu leike ontza bat inguru.

I. Eta gaubien?

E. Artu leike kolaziñotzat, kristiñue oneen artien artu oi dana, itundurik onen ganien, duderik dagenien, konfesore jakintsu bategaz.

I. Eta galarazokizunik euki baga baru egiten ez daubeenak, ze pekatu egiten daube?

E. Pekatu mortala.

I. Eta nortzubei jagokie eragotzite okelie jatie bijilije eta baru egunetan; oneitan nastitutie okelie eta arraiñe; eta jatie arrontze eta eznejakijek garizuman, bulderik euki baga?

E. Ezauberara eldu dirien guztijei.

I. Eta ze pekatu egiten daube, gordetan ez daubezanak?



E. Pekatu mortala, egunien zeinbet bider euretan uts egiten daubeen.
IREKASL. Esan egizuz errukizko egitada, edo miserikordijezko obrak.

**ERRUKIZKO EGITADA EDO MISERIKORDIJEZKO OBRAK
 DIRE AMALAU:**

zazpi arimieri, eta beste zazpi gorputzeri jagokazanak.
 Arimieri jagokazanak dire oneik:
 Lelenge eztakijenari irekastie.
 Bigarrena bier daubenari konseju ona emotie.
 Irugarrena uts egiten daubena arteztutie.
 Laugarrena deungero egiñek parkatutie.
 Bostgarrena triste darena poztutie.
 Seigarrena geure lagunek emoten doskubezan naibage ta argaltasunek eruepenagaz igerotie.
 Zazpigarrena bizijek eta illekgaitik Jaungoikueri erregututie.
 Gorputzeri jagokazanak dire oneik:
 Lelenge gexuek bisitetie.
 Bigarrena gose danari jaten emotie.
 Irugarrena egarri danari edaten emotie.
 Laugarrena katigubek askatutie.
 Bostgarrena billosak jantzitie.
 Seigarrena peregrinubei ostatu emotie.
 Zazpigarrena illei lurre emotie.
 I. Zegaitik deituten jake miserikordijezko obrak?
 E. Justizijaz zor ez dirielako.
 I. Nos dire agindubek eta obligaziñokuek?
 E. Gizon jakintsuen eretxijen, andijek dirien premiñetan.
 I. Eta kristiñubek egiten dituzen errukizko egite oneikgaitik; eta beste gauze onak gaitik, nai izen agindurik dagozanak, nai borondatezkuek, zer irebazten dau?
 E. Jaungoikuen grazijan badago, euren bitertez egiten da grazije, ta gloriye geituteko duin; eurekaz pagetan dau bere pekatuben zorra; eta alkantzetan dauz Jaungoikueganik arimeko mesediek baite gorputzekuek bere, arimien kaltien izengo ezpadire.
 I. Eta zegaitik esaten dozu: «Jaungoikuen grazijan badago?»

E. Pekatu mortalien dagozanak egiten daubezan obra onakaz ez dagelako irebazirik, ez pekatuben zorra pagetarik; baije alanbere zelan edo alan alkantzau giñeikez Jaungoikueganik onera, eta mesederen batzuk.

**Laugarren partie,
 zeñetan adierazoten dirien
 artu bier dirien Sakramentubek**

Ikusi dogu zelan dakizun zer sinistu, zer eskatu, eta zer egin bier dozun; dakuskun zelan dakizun zer artu bier dozun, zein dan azkenenge. Esan egizuz elexa ama santien Sakramentubek.

ELEXA AMA SANTIEN SAKRAMENTUBEK DIRE ZAZPI:

lelengo bostak dire gure ta gureezekuek izetez, edo borondatez, zeintzuk бага salbau ezin leiteke, itxiten badauz nagitasunez, edo ezetan ez eukiz: beste bijek dire borondatezkuek.
 Lelenge Bautismue.
 Bigarrena Konfirmaziñue.
 Irugarrena Konfesiñue.
 Laugarrena Komuniñue.
 Bostgarrena Olieziñue.
 Seigarrena Ordie.
 Zazpigarrena Matrimoniñue.
 I. Ze gauze dire Sakramentubek?
 E. Dire Jesukristo gure Jaunek itxiriko señaile agiri batzuk, euren bitertez emoteko guri grazije, ta birtutiek.
 I. Zer da grazije?
 E. Da izete Jaungoikozko bat, zeñek egiten gaituzen Jaungoikueren seme, eta zeruko herederu, edo jaubegei.
 I. Ze birtute emoten daude Sakramentubek grazijegaz batera?
 E. Batezbera iru jaungoikozkuek.
 I. Zeintzuk dire?
 E. Fedie, Esperantzie, eta Karidadie.
 I. Zer da Fedie?
 E. Ikusi eztozguna sinistutie, Jaungoikuek alan agertu daubelako.
 I. Zer da Esperantzie?



E. Itxerotie zeruko gloriye Jaungoikueren laguntasunen, eta geure obra oneen bitertez.

I. Zer da Karidadie?

E. Jaungoikue ametie gauze guztijen ganien, ta geure projimubek geure burubek legez, eurei egiten deutsegule, eurek geuri egitie gureko gendukiena.

I. Zetarako da Bautismoko Sakramentu Santube?

E. Kenduteko jatorrizko pekatube, eta batiatube danak beste edo-zein baleuko bere.

I. Zer da jatorrizko pekatube?

E. Da jaiotzan dakargune, zein jatorkun geure lelengo guresuetatik.

I. Eta premiñeko denporan nok batiatu leike?

E. Edozeinbere gizekume, edo emakume, adimena daukenak.

I. Zelan batiatu bier da?

E. Ure botaten dala seiñen buruben ganera, eta esaten dala batiatuteko gogegaz: Nik batiatuten zaitudez Aitieren, eta Semieren eta Espiritu Santuberen izenien.

I. Zetarako da Konfirmaziñoko Sakramentu santube?

E. Bautismuen artu genduben fedien indertu, eta sendatuteko.

I. Eta adimenera eldu azkero Sakramentu santu au pekatu mortalien artuten daubenak, pekatu rik egiten ete dau?

E. Bai jaune, ta pekatu mortala.

I. Zer egingo dau bada artuten daubenien, pekatu rik ez egiteko?

E. Aurrez prestau, egiñik konfesiño on bat.

I. Zetarako da Konfesiñoko Sakramentube?

E. Batiatu azkero egiñiko pekatubek parkatuteko.

I. Ze pekatu dire orreik?

E. Mortalak, baitebere benielak.

I. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatie, egitie, pensetie, edo gure izetie zerbait Jaungoikueren legien kontra gauze astunien.

I. Zergaitik esaten jako mortala?

E. Ilten daubelako egiten daubenaren arimie.

I. Eta noz artuten dogu Konfesiñoko sakramentu santube?

E. Ondo konfesaute, absoluziñue artuten dogunien.

I. Zeinbet gauze bier dire konfesiño on bat egiteko?

E. Bost gauze jaune.

I. Zeintzuk dire?

E. Lelenge, alegiñez, egin daubezan pekatubek gogora ekartie.

Bigarrena artutie damu bizi bat Jaungoikue ofendidu daubelako.

Irugarrena eukitie propositu sendo bat ez geijago pekatu rik egiteko, eta alde egiteko pekatu reko bide urreko ta okasiñuetatik.

Laugarrena esatie pekatu mortal guztijek konfesorieri, jakiñek jakiñek legez, dudekuek dudekuek legez, ez geitu, ez gitxitu bagarik.

Bostgarrena Konfesoriek emoten dauben penitenzije kunplietie.

Laburrego:

Lelenge esamiñe konzienzijekue.

Bigarrena pekatuben damube.

Irugarrena propositube.

Laugarrena aozko konfesiñue.

Bostgarrena satisfaziñue.

I. Zer da esamiñe konzienzijekue?

E. Egin daubezan pekatubek gogora ekartie.

I. Nondik egingo da esamiñe?

E. Jaungoikueren legeko amar mandamentubetatik, bost elexakueta-tik, eta baktzak bere estaduko obligaziñuetatik.

I. Damube zeinbet modutekue da?

E. Modu bitekue; amodijozko, edo kontriziñokue bata; eta bildurrezko edo atriziñokue bestie.

I. Zer da amodijozko, edo kontriziñoko damube?

E. Da artutie damu bizi bat Jaungoikue ofendidu daubelako izenik ain ona, konfesetako, onduteko, eta penitenzije kunplietako gogegaz.

I. Zer da bildurrezko, edo atriziñoko damube?

E. Da eukitie damu bizi bat Jaungoikue ofendidu daubelako, edo pekatuben ezaintasunegaitik, edo infernuben bildurregaitik, edo zeruko gloriye galdu daubelako, konfesetako, onduteko, eta penitenzije kunplietako gogegaz.

I. Damu bi oneitarik, zein da oneena?

E. Amodijozko, edo kontriziñokue.

I. Zergaitik?

E. Kontriziñokue datorrelako amodijotik, eta atriziñokue bildurretik; kontriziñoko damubegaz konfesau baño lenago parkatuten dire pekatu mortalak, eta geratuten da Jaungoikueren grazijan; barriz atriziñokue-gaz bakarrik ez dire alkantzetan mesede oneik.

I. Konfesiño ona egiteko asko ete da atriziñoko damube, ala bier ete da kontriziñokue?



E. Jakintsurik geijen geijenak esaten daude asko dala atriziñokue; baije obetoago eta seguruego da eruetie kontriziñokue, eta au eukiteko alegiñe egin bier dau konfesetan danak.

I. Noz euki bier da damube?

E. Konfesoriek absoluziñue emon baño lenago.

I. Zer da propositube?

E. Erabagi sendo bat ez iñoz geijago Jaungoikue ofendietako pekatu mortalagaz.

I. Zer da aozko konfesiñue?

E. Da agertutie argiro konfesorieri pekatu mortal guztijek; penitentzije kunplietako gogegaz.

I. Eta itxiten daubenak lotsaz konfesau baga pekatu mortalen bat; edo konfesetan daubenak egin eztauben pekatu andiren bat, edo konfesetan danak damu baga, propositu baga, edo penitentzije kunplietako borondate baga, konfesiño ona egiten ete dau?

E. Ez jaune, egiten dau sakrilejijoko pekatu mortal andi bat, eta konfesau bier ditu barriro len konfesaubek, eta konfesau bagakuek; baitebere egin dauben sakrilejijoko pekatube.

I. Eta nortzuk sinistu legije ez daudela euki damurik, ez propositurik euren konfesiñuetan?

E. Pekatuko okasiñuetatik alde egiten ez daudenak, eta konfesiño batetik bestera lengo pekatubetan jausten dirienak.

I. Eta damu ta propositu egijezkue errazago eukiteko, zer egitie ondo izengo da?

E. Konfesetara eldu baño lenago eskatu Jaungoikuerei emon dagijozala bere laguntasunak; erabilli gogen aldi baten Jaunek egin dotsazan mesediek; edo bere pasiño ta erijotzie; edo bere ontasune; eta bein eta geijagotan esan: Neure Jesukristo Jaune.

I. Zer da satisfaziñue?

E. Da pagetie Jaungoikuerei pekatubek gaitik dotsan zorra, konfesoriek iminten dotsan penitentzije betetan daubela.

I. Ze pekatu egiten dau penitentzije kunpliduten ez daubenak; edo kunplidu baga luzero daukenak?

E. Pekatua mortala, penitentzije andije bada.

I. Pagau ete giñeikijo Jaungoikuerei pekatuben zorra, iminten jakun penitentzjegaz baño beste gauzegaz?

E. Bai jaune, Jaungoikuereen grazijen egiñiko obra on guztijekaz, eta induljenzijak irebazijegaz.

I. Ze gauze dire induljenzijak?

E. Grazije batzuk, zeintzuek gaitik parkatuten dan, pekatubek gaitik mundu onetan, edo bestien igero bierko litzetekien penie.

I. Zelan irebaziko dire?

E. Egiñik Jaungoikuereen grazijan, onetarako aginduten dana.

I. Eta mundu onetan euren pekatuben zorra ez pagetie gaitik purgatorijori duezanai, guk lagundu ete giñeikijue?

E. Bai jaune, geure pekatuben zorra pagau giñeikien obrakaz eurekaz.

I. Eta norbait pekatu mortalien jausten dan guztijen konfesau bier ete dau laster, parkatube izen dakijon?

E. Berariz agindute ezpadago bere, guztiz ondo litzateke alan egitie, Jaungoikuereen aserrien erijotza zorigaistoko batek artu ez dagijen, eta egiten dauzen obra onakaz ezer irebazi bagarik geratu ez dedin. Euki egizu bada beti, alan egiteko ardurie.

I. Orainengo konfesiñotik ona bakarrik pekatu benielak daukezanari, zer egitie ondo izengo jako, damube ta propositube errazago eukiteko?

E. Konfesau lelengo orainengo konfesiñotik onako pekatu benielak, eta gero lengo bizitzeko pekatu mortalen bat.

I. Zetarako da Sakramentu santu komuniñokoe?

E. Ondo prestaute artuten bada, izen dedin gure arimen janarije, eta geitu dagigun grazije.

I. Zergaitik diñozu: «Ondo prestaute artuten bada?»

E. Adierazoteko, sakramentu santu au ez dala izengo gure arimen janarije, artuten ezpadogu bier dirien prestaerakaz, bai arimien aldetik eta bai gorputzen aldetik.

I. Ze prestaera bier da bada arimien aldetik?

E. Jaungoikuereen grazijen egotie.

I. Pekatua mortalien jausi dana, zelan prestaerako da komulgetako?

E. Konfesiño on baten bitertez.

I. Konfesau azkeroko pekatu mortalen bat gogoratuten jakonak, zer egin bier dau?

E. Konfesau barriro komulgau baño lenago.

I. Gorputzen aldetik ze prestaera bier da?

E. Egotie barurik (komuniño santube eztanien elexakuek artuteko) ezer jan, ez edan bagarik, igero dan gabeko amabijetatik aurrera.

I. Komuniñoko sakramentu guztiz santuben, zer artuten dozu?

E. Jesukristo Jaungoiko, ta gizon egijezko, altarako sakramentu santuben egijez dagena.

I. Orrelan nor dago ostrijan konsagraziñoko berbak esan azkeroko?



E. Jesukristo gure Jaunen gorputze, bere odol, arime ta jaungoikota-suniegaz batera.

I. Eta kalizan?

E. Jesukristoren odola, bere gorputz, arime, ta jaungoikotasunegaz batera.

I. Onelan Jesukristo guztije dago ostrijan eta guztije kalizan?

E. Bai jaune, Jesukristo guztije dago ostria guztijen, guztije ostrijien edozein zatiten, eta bardin kalizan.

I. Eta konsagraziñooko berbak esan azkero, ete dago ostrijan ogirik, edo kalizan ardaorik?

E. Ez jaune, ezpada ogijen ta ardauen irudijek, zeintzuk dirien usaiñe, kolorie, gustube.

I. Eta zatituten bada ostrijie, edo erdibitu kalizan darena, zatituten edo erdibituten ete da Jesukristo?

E. Ez jaune, guztije osorik geratuten da zati guztijetan eta bakotxien.

I. Eta komulgetan danak esan dirien prestaerak bagarik, artuten ete dau Jesukristo?

E. Bai jaune, baije bere kaltien, zergaitik eze egiten dau pekatu guztiz andi bat.

I. Eta euren onerako artuten daudenak, zer egin legije, esan danez ganera, alkantzau dagijezen mesede andijegek?

E. Konfesau baño lenago gogen erabili nor dan eurekgana datorren Jaune; biztu euren bijotzetan fedie, itxeropena, eta karidadie, komulgau humiltasun eta itzel andijegaz, eta gero emon eskerrak, Jesusek egin deustsen mesede andijegaitik.

I. Zetarako da Olieziñooko sakramentu santube?

E. Iru gauzetarako.

I. Zeintzuk dire?

E. Lelenge lenagoko bizitze txarreko errastu ta enparaubek kenduteko.

Bigarra sendatuteko arimie diebruben tentaziñuen kontra.

Irugarrena emoteko gorputzeri osasune, arimien kaltien izengo ezpada.

I. Ezauberara eldute, ilteko arriskuben gaixorik dagozanak, artu bier ete daude sakramentu santu au?

E. Bai jaune, eta pekatu mortala egiten daude, al daudela, artuten ezpadaude, edo artuten badaude pekatu mortalien.

I. Zer egingo dau bada pekatu mortalien aurkituten danak, prestaera onagaz artuteko?

E. Konfesiño on bat egin, eta ezin balitz konfesau, prestau akto kontriziñooko bat egiñegaz.

I. Zetarako da Sakramentu santu Ordiakue?

E. Konsagretako, eta ordenduteko elesgizon duiñek, zelan dirien sazerdotiek, ebanjelijokuek, eta epistolakuek.

I. Elesgizonai, batez bere sazerdote jaunai, gorde bier ete jakie berrizko lotsa, itzel, eta erreberenzije?

E. Bai jaune.

I. Zetarako da Matrimoniñooko sakramentu santube?

E. Ezkunduteko eta emoteko grazije ezkundubai, euren artien bakien biziteko, eta seme alabak zerureko aziteko.

I. Eta sakramentu santu au ondo artuteko, ezkunduten dirienak egon bier ete daude Jaungoikueren grazijan?

E. Bai jaune, pekatu mortalaren bien.

I. Eta Jaungoikueren grazijan ez dagozanak, zelan prestau bier daude ondo artuteko?

E. Konfesiño on bategaz.

PEKATU KAPITALAK DIRE ZAZPI

Lelenge Arrokerije.

Bigarra Abarizije.

Irugarrena Loikerije.

Laugarrena Aserrie.

Bostgarrena Gulerije.

Seigarrena Inbidije.

Zazpigarra Nagitasune.

I. Zergaitik deituten dotsezu kapitalak, geijenien mortalak esaten jakien zazpi pekatubei?

E. Deituten jakie kapitalak, dirielako burubek, euretatik jaijoten dirien pekatuben iturri eta sustraijek legez; ez jatorkie barriz ain ondo mortalen izena, bada askotan ez dire benielak baño.

I. Noz dire mortalak?

E. Jaungoikueren eta projimuben karidadien kontra dirienien.

I. Noz dire karidadien kontra?

E. Eurekaz ausiten danien Jaungoikueren, edo elexa santien aginduren bat gauza astunien.

I. Zer da arrokerije?

E. Bestiek baño geijago izeteko gururi bidebagako bat.

I. Zer da abarizije?



- E. Da ondasunen gureri larregi bat.
 I. Zer da loikerije?
 E. Da aragjien atsegin nabarmenen gureri bidebagako bat.
 I. Zer da aserrie?
 E. Da bengetako gureri bidebagako bat.
 I. Zer da gulerije?
 E. Da jateko ta edateko gogo larregi bat.
 I. Zer da inbidije?
 E. Bestien ona ikusi eziñe.
 I. Zer da nagitasune?
 E. Gauze onak egiten dirienien astun egotie.

ZAZPI PEKATU ONEEN KONTRA DAGOZ ZAZPI BIRTUTE

- Arrokerijen kontra humiltasune.
 Abarizijen kontra prestutasune.
 Loikerijen kontra garbitasune.
 Aserrien kontra pazienzije.
 Gulerijen kontra jan edanien begiretube izetie.
 Inbidijen kontra karidadie.
 Nagitasunen kontra prestatasune.

IÑES EGIN BIER DOTSEGUBEN ARIMEKO ARERIJUEK DIRE IRU

- Lelenge mundube.
 Bigarrena demoniñue.
 Irugarrena aragije.
 I. Zein da mundube?
 E. Dire mundutar gaisto, ta deungak.
 I. Zein da demoniñue?
 E. Da, Jaungoikuek zeruben egin euben angeru bat; baije jaigi zala-ko Jaungoikueren beraren kontra beste askogaz, bota euben infernubeta-
 ra bere gaistakerijeko lagunekaz, zeintzubei deituten dotsegu demoniñuek.
 I. Zein da aragije?
 E. Da geure gorputze bera, bere griñe ta etsigitasun deungakaz.
 I. Zelan azpiretuten da mundube, ta iñes egiten da beragandik?
 E. Bere andikerije ta arrokerijen desprezijuegaz.
 I. Zelan azpiretuten da demoninue, ta iñes egiten da beragandik?

- E. Oraziñuegaz, ta humiltasunegaz.
 I. Zelan azpiretuten da aragije ta iñes egiten da beragandik?
 E. Laztasun, azote ta barubekaz; au da arerijorik andijena, zegaitik eze, aragije ezin bota giñeike geugandik, mundube ta demoniñue bai.

BIRTUTE TEOLOGALAK, EDO JAUNGOIKUEGANANTZ- KUEK DIRE IRU

- Lelenge Fedie.
 Bigarrena Esperantzie.
 Irugarrena Karidadie.
 I. Birtute oneik barritzete bier doguzen ezkeru, zelan egongo gara, onetan utsik egin baga?
 E. Errezaurik deboziñoz eta sarriten (edozein kristiñeuk egin bier dauben legez) kredue ta aite gurie, eta bijotzetik esanagaz: Neure Jesu-kristo Jaune.

BIRTUTE KARDINALAK DIRE LAU

- Lelenge Prudenzije.
 Bigarrena Justuzije.
 Irugarrena Sendotasune.
 Laugarrena Tenplanzie.

GORPUTZEKO ZENTZUNEK DIRE BOST

- Lelenge begijekaz ikustie.
 Bigarrena belarriekaz entzutie.
 Irugarrena agegaz gustu artutie.
 Laugarrena surregaz useñ egitie.
 Bostgarrena eskuekaz ukututie.
 I. Zetarako emon euskuzen Jaungoikuek zentzunek, eta gorputzeko beste zatijek?
 E. Guztijekaz gauze guztijetan bera serbidu giñeijen.

ARIMEKO ALMENAK DIRE IRU

- Memorije, ententimentube, eta borondatie.
 I. Zetarako emon euskun Jaungoikuek memorije?
 E. Akordau giñeitezan beragaz, ta bere mesediekaz.
 I. Zetarako emon euskun ententimentube?
 E. Ezagutu giñeijen gure Jaune, ta bera gogen erabilli.
 I. Zetarako emon euskun borondatie?



- E. Ontasan osue legez amau dagigun eta projimube beragaitik.
 I. Ze gauze da gure arimie, zeñenak dirien almen oneik?
 E. Da Jaungoikuek bere antz eta irudire egiñiko espiritu illezin bat.

ESPIRITU SANTUBEREN DOIEK DIRE ZAZPI

- Lelenge Iakiturijeko Doie.
 Bigarrena Entendimentuko Doie.
 Irugarrena Konseju oneko Doie.
 Laugarrena Ezauberako Doie.
 Bostgarrena Sendotasuneko Doie.
 Seigarrena Errukitasuneko Doie.
 Zazpigarrena Jaunkoikuereen bildurreko Doie.

ESPIRITU SANTUBEREN FRUTUBEK DIRE AMABI

- Lelenge Karidadie.
 Bigarrena Bakie.
 Irugarrena Bijotzeko anditasune.
 Laugarrena Biguntasune.
 Bostgarrena Fedie.
 Seigarrena Kontinenzije.
 Zazpigarrena Arimeko poza.
 Zortzigarrena Pazienzije.
 Bederatzigarrena Ontasune.
 Amargarrena Otsantasune.
 Amakagarrena Modestije.
 Amabigarrena Garbitasune.

ZORIJONTASUNEK DIRE ZORTZI

1. Zorijonekuek bijotzetik pobre dirienak, eurena dalako zerubetako erreiñube.
2. Zorijonekuek otsanak, eurek izengo dirielako lurren jaubiek.
3. Zorijonekuek negar egiten daudenak, eurek izengo dirielako poz-tubek.
4. Zorijonekuek onaren gose ta egarri dirienak, eurek izengo dirielako asaskaubek.
5. Zorijonekuek errukiorrak, eurek alkantzauko daudelako errukije.
6. Zorijonekuek bijotz garbikuek, eurek ikusiko daudelako Jaungoikue.
7. Zorijonekuek baketsubek, Jaungoikuereen semenen izena emongo jakelako.

8. Zorijonekuek persekuziñue daruenak onak dirielako, bada eurena izengo da zerubetako erreiñube.
 - I. Zer esan dogu orain?
 - E. Zortzi zorijontasunek.
 - I. Ze gauze dire zortzi zorijontasunek?
 - E. Espiritu santuberen birtute eta doietatik egitekorik oneenak.
 - I. Nortzuk dire bijotzetik pobriek?
 - E. Lurreko andiuste, ta ondasunen gurerririk ez daukienak.
 - I. Nortzuk dire otsanak?
 - E. Aserrerik ez daukienak, ezta apurrik bere.
 - I. Zelan izengo dire lurren jaube?
 - E. Euren buruben jaube izenagaz.
 - I. Nortzuk dire negar egiten daudenak?
 - E. Deungak ez dirien atseginek bere itxiten daubezanak.
 - I. Nortzuk dire onaren gosie ta egarrije daukienak?
 - E. Alegiñez ezetan bere utsik egin gure ez leukienak.
 - I. Nortzuk dire errukiorrak?
 - E. Iñori bere on baño egin gure ezteutsenak.
 - I. Zer da pekatu beniala?
 - E. Pekatu mortalerako prestaera bat.
 - I. Zergaitik deritxo beniala?
 - E. Arin, au da, erraz gizona beratan jausten dalako, eta erraz parkatuten jakolako.
 - I. Zeinbet gauzegaitik parkatuten jako?
 - E. Bederatzigaitik.
 - I. Zeintzuk dire?
 - E. Lelenge meza entzutiegaitik.
 - Bigarrena komulgetie gaitik.
 - Irugarrena Ni pekatarije esatie gaitik.
 - Laugarrena Obispo jaunen bendiziñuegaitik.
 - Bostgarrena ur bedeinketubegaitik.
 - Seigarrena ogi bedeinketube jatiegaitik.
 - Zazpigarrena Aite gurie esatiegaitik.
 - Zortzigarrena sermoie entzutiegaitik.
 - Bederatzigarrena bulerra jotiegaitik Jaungoikuerei parka eskatuten jakola.
 - I. Zergaitik diñozu: «Jaungoikuerei parka eskatuten jakola?»
 - E. Adierazoteko, alkantzauko bada gauze oneen bitertez pekatu benialen parkaziñue, euki bier dogule euren damu santuren bat.



I. Konfesau bier ete doguz pekatu benialak?

E. Ez da Jaune premiñezkue; baie da gauze ona ta mesedegarrije.

I. Nortzuk dire bijotz garbikuek?

E. Euren barruko gureri gaistuek azpiretuten daubezanak.

I. Nortzuk dire baketsubek?

E. Euren eta bestien arteko bakegillak.

I. Nortzuk dire, onak dirielako persekuziñue igeroten daudenak?

E. Persekuziñorik gogorrenen artien beti sendo dagozanak.

I. Zergaitik deituten jakie oneiri zorijontasunek?

E. Eurretan dagelako bizitze onetako zorijontasune, eta bestekuen itxeropena.

I. Zeinbet dire gizonen azkenak?

E. Lau.

I. Zeintzuk dire?

E. Erijotzie, juizijue, infernube eta gloriye.

I. Zer da gloriye?

E. Da bizitze guztiz zorijoneko bat, zeñetan aurkituten dirien onera guztijek, gatzik batbere baga; infernuben dagozan legez gatz guztijek, onerarik batbere baga.

I. Infernutik libretako, eta zeruko gloriye alkantzetako, zer egin bier dogu?

E. Gorde Jaungoikuereen agindu santubek.

I. Ete dagoz beste neurriren batzuk, errazago gordetako agindu santubek, eta eurretan utsik ez egiteko?

E. Bai jaune.

I. Zeintzuk dire?

E. Sarriten konfesetie, ta komulgetie; goxien goxien Jaungoikuerei eskiñitie egun atako lan eta bierrak; egun guztijetan errosarijue errezetie; liburu onak irekurtie; oraziño egitie; gabien gabien konzienzije esamiñetie; eta baten asko esateko, artutie konfesore jakintsu, on, begiretu eta arduretsua bat, eta egitie berak aginduten dotsan guztije.

IREKASL. Ondo diñozu: zergaitik eze, San Franzisko Salesek diñuen legez, konfesore on bat artutie da salbetako neurri guztijen neurrije. Egizu bada zuk bere alantxe, bada berak, angeru batek legez, zuzenduko zaitu irekatsi oneikaz, eta beste bier dirienakaz Jaungoikuereen agindu santubetako bidetik, eldu zaitezana Jaungoikue ikusten zeruko gloriyan, bada onetarako ekarri genduzen mundure. Jaunek ara eruen gazigela guztijok. Amen.

NI PEKATARIJE

Ni pekatarije konfesetan najako Jaungoiko guztiz poderosuerei, Andra Marije beti Birjiñieri, San Migel angeruberi, San Juan Bautistieri, San Pedro eta San Pablo Apostolubei, santu guztijai, eta zeuri aite espiritual orri, egin dodala pekatu pensamentuz, berbaz eta obraz, neure erruz, neure erruz, neure erru andijegaz.

Orregaitik erregututen dotsat Andra Marije beti Birjiñieri, San Migel angeruberi, San Juan Bautistieri, San Pedro eta San Pablo Apostolubei, santu guztijei, eta zuri neure aite espiritual orri, erregutu dagijozula nigaitik neure Jaun eta Jaungoikuerei. Amen.

NEURE JESUKRISTO JAUNE

Neure Jesukristo Jaune, Jaungoiko ta gizon egijezkue, neure Egillie ta Salbagillie, zariena zarielako, eta ametan zaitudezalako gauze guztijek baño geijago, damu dot Jaune, damu dot bijotz guztitik zu ofendidube, artuten dot propositu sendo bat ez geijago pekatu egiteko, konfesetako, iminten jatan penitenzije kunpluteko, eta pekatuko bide guztijetatik alde egiteko. Opa dotsudaz, Jaune, neure bizitze, egite ta neke guztijek neure pekatu guztijen pagareko, eta itxeroten dot zure ontasan, eta erruki amaibagan, parkatuko dostezuzela zeure odol guztiz balijotzu, pasiño ta erijotziegaitik, eta emongo dostazule grazije onduteko, ta zeu serbietan ireuteko neure erijotzako ordure artien. Amen.

AZKENA



GERNIKAKO DOTRINA

Central

Kristiñeu fiel guztijek
dagoz guztiz obligeurik
deboziño artutera
euren bijotz guztirik
Jesus gure argjien
kurutze santuegaz
bada an ill gure izen euen
gu ateratiarren
pekatuen menderik
ta arerijo deungetarik.

Orregaitik bada
egin bier zara
alan zeñatutera
zelan Aitieren egitera
iru kurutze egiñegaz.
Lenengoa bekokijen
Jaungoikoak libreu gaizen
pensamintu txarretarik.
Bigarrena agoan
Jaungoikoak libreu gaizen
berba deungetarik.
Irugarrena bulerrien
Jaungoikoak libreu gaizen
egite ta gogo txarretarik.

Onetara esanagaz:
Kurutze Santieren + señalie gaitik
geure + arerijoetarik
libredu gaizuz
geure Jaune + ta Jaungoikoa.
Aitieren + ta Semieren
ta Espiritu Santueren izenien. Amen.

Kredoa

Sinistuten dot Aite Jaungoiko guztiz poderoso zeruen ta lurren Egi-lliegan, ta bere seme bakar Jesukristo gure Jaunegan, zein sortu zen Espiritu Santueren egitez ta grazijez. Jaijo zan Marije Birjiñiegandik; padezidu euen Ponzio Pilatosen aginduen bien; izen zan kurutzien josije, ill, ta enterradue, jatzi zen infenuetara, irugarren egunien biztu zen illen arterik, igon euen zeruetara, an dago jarririk Aite Jaungoiko guztiz poderosoaren eskoiko aldetik, arik etorriko da biziziek eta illek juzgetan. Sinistuten dot Espiritu Santuegan, elexa Santa katolikie, santuen komuniñoa, pekatuen parkaziñoa, aragijen biztuera barrije, betiko bizitzie. Amen.

Fedeko artikuluek

Fedeko artikuluek dire amalau. Lenengo zazpirek jagokaz Jaungoikotasuneri; eta beste zazpirek Jesukristo gure Jaun Jaungoiko ta gizon egijeckoaren Gizatasun santueri. Jaungoikotasuneri jagokazanak dire oneik. Lenengoa sinistu Jaungoiko bakar guztiz poderosoagan. Bigarrena sinistu dala Aitie. Irugarrena sinistu dala Semie. Laugarrena sinistu dala Espiritu Santue. Bostgarrena sinistu dala gauze guztijen Egillie. Seigarrena sinistu dala Salbagillie. Zazpigarrena sinistu dala glorije emollie. Gizontasun santueri jagokazanak dire oneik. Lenengoa sinistu Jesukristo gure Jaune gizona danez sortue izen zala Espiritu Santuen egitez ta grazijez. Bigarrena sinistu jaijo zala Santa Marije Birjiñieganik, geldituten zala donzelle semie jaijo baño lenago, jaijotzan ta jaijo azkero. Irugarrena sinistu artu zituzela erijotzie ta pasiñoa gu pekatarijok salbetiarren. Laugarrena sinistu jatzi zela infenuetara, eta atera zituzela bere etorrera santuen begire egozan Gureso santuen arimeek. Bostgarrena sinistu irugarren egunien biztu zela illen arterik.



Seigarrena sinistu igon euela zeruetara eta dagoala jasarririk Aite Jaungoiko guztiz poderosen eskoiko aldeti.

Zazpigarrena sinistu etorriko dala bizijek eta illek juzgetan, au de, onai emoten glorije bere agindu santuek gorde zituezalako; eta deungai betiko infernue, gorde ez zituezalako.

Aite gurie

Aite gurie zeruetan zagozana, santifikedu bedi zure izena, betor gugena zure erreñue, egin bedi zure borondatie zelan zeruen, alan lurrien.

Egunien eguniengo geure ogije gaur emon egiguzu, eta parkatu egiguz geure zorrak geuk geure zordunei parketan deutseguzen legez, eta itxi ez egiguzu tentaziñoan jausten, baie libredu gagizuz gatxerik. Amen.

Abe Marije

Abe Marije, grazijez betie, Jaune da zugez, bedeinkatue zara zu andra guztijen artien, eta bedeinkatue da zure sabeleko frutue Jesus.

Santa Marije Jaungoikoen Ama, erregutu egizu gu pekatarijok gaitik orain eta geure erijotzako orduen. Amen.

Salbie

Jaungoikoak gorde zaizela Erregiñe, errukiz beteriko Ama, bizitze, gozotasun, ta esperantza geurie, Jaungoikoak gorde zaizela. Zuri deijez gagoz Ebaren ume erbestetuok, zugana gagoz zizpuruz ta negarrez negarrezko leku onetan. Ea bada andrie, geure bitartekoa, biurtu egizuz gaganantz zure begi errukitsu orreik; eta erbeste au igarota, erakutsi egiguzu Jesus zure sabeleko frutu bedeinketue. O guztiz bigune! O errukiorra! O Marije Birjiñe gozoa! Erregutu egizu gugaitik Jaungoikoaren ama santie, izen gaitezan Jesukristoren agintzarijek alkantzetako duin. Amen.

Jaungoikoaren legeko aginduek

Jaungoikoaren legeko aginduek dire amar.

Leengo irurek jagokaz Jaungoikoaren honrieri, beste zazpirek projimuen probetxueri.

Lelengoa Jaungoikoa ametie gauze guztijen ganien.

Bigarrena Jaungoikoaren izenien jurementu alperrik ez egitie.

Irugarrena domekak eta jaijek santututie.

Laugarrena aite eta ama honretie.

Bostgarrena ez iñor iltie.

Seigarrena aragizko pekaturik ez egitie.

Zazpigarrena ez iñori ezer ostutie.

Zortzigarrena egin eztauen gauzerik iñori ez ezartie, ta guzurrik ez esatie.

Bederatzigarrena projimuen emazterik ez gure izetie.

Amargarrena iñoren ondasunen gureri bidebagakorik ez eukitie.

Amar agindu oneik sartuten dire biten; Jaungoikoa serbidu eta ametien gauze guztijek baño geijego eta projimue geure burue legez. Amen.

Kristiñeuen dotriñien azaldaerie iteune ta erantzueretan

ITEUNDUTEN DOT. Kristiñeue zara?

ERANTZUTEN DOT. Bai Jaune, Jaungoikoaren grazijez.

I. Nondi jatortsu kristiñeuen izen ori?

E. Jesukristo gure Jauneganik.

I. Zer esan gure dau kristiñeuek?

E. Kristoren gizona.

I. Zer adituten dozu kristoren gizonaz?

E. Jesukristoren fede, batioan artu euna dauken gizona, eta bera serbietako eskiñirik dagoana.

I. Zein de Kristiñeuen señalie?

E. Kurutze santue.

I. Zegaitik?

E. Dalako Kristo kurutzien josijen irudije, zeñetan erredimidu genduzen.

I. Zeinbet moduten egiten dau kristiñeuek señale ori?



E. Modu biten.

I. Zeintzuk dire?

E. Zeñatutie ta Aitieren egitie.

I. Zer da zeñatutie?

E. Eskoiko eskuko orkoloagaz iru kurutze egitie. Lenengoa bekokijen, bigarrena aoan, irugarrena bulerrien, geure Jaun Jaungoikoagaz berba egiten dogule.

I. Erakutsi zelan?

E. Kurutze santieren + señaiegaitik, geure + arerijoetarik, libredu gaizuz + geure Jaune ta Jangoikoa.

I. Zegaitik zeñatuten zara bekokijen?

E. Jaungoikoak libreu gaizen pensamentu txarretarik.

I. Zegaitik aoan?

E. Jaungoikoak libreu gaizen berba txarretarik.

I. Zegaitik bulerrien?

E. Jaungoikoak libreu gaizen egite ta gureri txarretarik.

I. Zer da Aitieren egitie?

E. Da eskoiko eskuko atz bijekaz kurutze bat egitie, bekokitik bule-rrera, eta ezkerreko sorbaldatik eskoakora, Trinitade guztiz santue izen-tetan dogule.

I. Erakutsi zelan?

E. Aitieren + ta Semieren, ta Espiritu Santueren izenien. Amen.

I. Nos egin bier dogu kurutzieren señaie ori?

E. Egite onen bat asten dogun guztijen, edo premiñe, tentaziño, edo arriskuren baten aurkituten garienien, batezbera oitik jaikieran, etsetik urteijeran, elexan sartutorduen, jatorduen, eta oira goazanien.

I. Zegaitik ainbeste bider?

E. Beti ta leku guztijetan geure arerijoak esetsiten deuskuelako ta persegietan gaituezalako.

I. Ze arerijo dire orreik?

E. Demoniñoa, mundue, ta aragije.

I. Kurutziek arerijo orreik goituteko inderra dauko ala?

E. Bai Jaune.

I. Nondik dauko kurutziek inder ori?

E. Kristok bere erijotziegaz aintxe goitu zituzelako.

I. Kurutzie adoretan dozunien zelan esaten dozu?

E. Adoretan eta bedeinketuten zaituguz Kristo, zeure kurutze san-tuen bitertez mundue erredimidu zenduelako.

Kristiñeuek jakin bier dituzenak

Ikusi dogu kristiñeue zariena alan izenien, zelan señaalien: esan egi-dezu orain: Zeinbet gauze jakin ta aditu bier ditu kristiñeuek adimenera, edo ezauerara elduten danien?

E. Lau gauze.

I. Zeintzuk dire?

E. Jakitie zer sinistuko dauen, zer eskatuko dauen, zer egingo dauen, eta zer artuko dauen.

I. Zelan jakingo dau zer sinistuko dauen?

E. Jakiñaz kredoa, edo Fedeko artikuluek.

I. Zelan jakingo dau zer eskatuko dauen?

E. Jakiñaz Aite gurie, ta elexako beste oraziñoak.

I. Zelan jakingo dau zer egingo dauen?

E. Jakiñaz Jaungoikoaren legeko aginduek, Elexa Ama santienak, eta obra miserikordijezkoak.

I. Zelan jakingo dau zer artuko dauen?

E. Jakiñaz Elexa Ama santien sakramentuek.

Dotriñien lelengo partie, zeñetan adierazoten dirien kredoa, eta Fedeko artikuluek

Lelengotik asiten gariela esan egidezu:

I. Nok esan euen Kredoa?

E. Apostoluek.

I. Zetako?

E. Guri fede santuko gauzak irakasteko.

I. Eta zuk zetako esaten dozu?

E. Kristiñeuek daukegun fede au konfesetako.

I. Zer da fedie?

E. Ikusi eztogune sinistutie.

I. Ikusi zenduen jaijoten Jesukristo?

E. Ez Jaune.

I. Ikusi zenduen ilten, edo zerure igoten?

E. Ez Jaune.

I. Sinistuten dozu?



E. Bai Jaune.
 I. Zegaitik sinistuten dozu?
 E. Jaungoikoak alan agertu deutsalako Elexa Ama santieri, ta onek alan erakusten deuskuleko.
 I. Ze gauze dire kristiñeue zarienez daukezuzenak, eta sinistuten dozuzenak?
 E. Erromako Elexa santiek daukezanak, eta sinistuten dituzenak.
 I. Eta zertzuk dire zuk eta berak daukezuezanak, eta sinistuten dozuezanak?
 E. Fedeko artikuluek, batez bere kredoan dagozan legez.
 I. Ze gauze dire fedeko artikuluek?
 E. Dire fedeko misterijorik andijenak.
 I. Zetako dire fedeko artikuluek?
 E. Emoiteko gure Jaungoikoaren eta Jesukristo gure Salbagillien ezaukera argije.
 I. Zein da gure Jaun Jaungoikoa?
 E. Da esan ta asmau al leitekien gauzerik andi ta miragarriena: Jaun bat amaibagarik ona, altsue, jakintsue, arteza, gauze guztijen aserie eta azkena.
 I. Zein da Trinitate guztiz santue?
 E. Da Jaungoikoa bera Aitie, Semie ta Espiritu Santue, iru persona banak eta Jaungoiko egijecko bakar bat.
 I. Aitie Jaungoikoa da?
 E. Bai Jaune.
 I. Semie Jaungoikoa da?
 E. Bai Jaune.
 I. Espiritu Santue Jaungoikoa da?
 E. Bai Jaune.
 I. Iru Jaungoiko dire?
 E. Ez Jaune, ezpada Jaungoiko egijecko bakar bat, dan legez guztiz altsu bakar bat, betiko bakar bat, eta Jaun bakar bat.
 I. Aite Semie da?
 E. Ez Jaune.
 I. Espiritu Santue Aitie edo Semie da?
 E. Ez Jaune.
 I. Zegaitik?
 E. Iru personak banák dirielako, izen arren Jaungoiko egijecko bakar bat.

I. Au onan dala, zeinbet izete, adimen, eta borondate dagoz Jaungoikoagan?
 E. Izete bakar bat, adimen bakar bat, eta borondate bakar bat.
 I. Eta zeinbet persona?
 E. Iru banák, zeintzuk dirien Aitie, Semie, eta Espiritu Santue.
 I. Zelan da Jaungoikoa guztiz altsue?
 E. Bere eskubide bakarragaz egiten dauelako gure dauen guztije.
 I. Zelan da Egillie?
 E. Guztije ezerezetik egin euelako.
 I. Zetako egin euen Jaungoikoak gizona?
 E. Bizitze onetan Jaungoikoa bera serbietako, eta gero betikoan bera gozetako.
 I. Zelan da Salbagillie?
 E. Grazije emon, eta pekatuek parkatuten dituzelako.
 I. Zelan da Glorije-emollie?
 E. Bere grazijan irauten dauenari, betiko gloriye emoten deutsalako.
 I. Jaungoikoak ete dauko guk legez gorputzen irudirik?
 E. Ez Jaune, Jaungoikoa danez, dalako Espiritu utse, baie bai gizona danez.
 I. Jaungoikoazko iru personetarik, zein egin zen gizon?
 E. Bigarrena, zein den Semie.
 I. Aite egin zen gizon?
 E. Ez Jaune.
 I. Espiritu Santue egin zen gizon?
 E. Ez Jaune.
 I. Zein bada?
 E. Bakarrik Semie, zeñeri gizon eginik deretxon Jesukristo.
 I. Orrelan zein da Jesukristo?
 E. Da Jaungoiko bizijen semie, gizon egin zana gu erredimietarren eta guri zelan bizi erakustiarren.
 I. Eta zeinbet izete, adimen eta borondate dagoz Jesukristogan?
 E. Izete bi, bata Jaungoikoa danez, eta bestie gizona danez: borondate bi, Jaungoikoa danez bata, eta gizona danez bestie: adimen bi, bata Jaungoikoa danez, eta bestie gizona danez.
 I. Eta zeinbet persona eta gomute?
 E. Persona Jaungoikoazko bakar bat, zein den Trinitate guztiz santuko bigarrena; eta gomute bakar bat, bada Jaungoikoa danez eztauko gomuterik.
 I. Zer esan gure dau Jesusek?



E. Salbagillie.
 I. Zetarik salbau genduzen?
 E. Geure pekatutik eta demoniñoen mendetik.
 I. Zer esan gure dau Kristok?
 E. Unjidue.
 I. Zegaz izen zan unjidue?
 E. Espiritu Santueren grazije ta doiekaz.
 I. Jesukristo gure Jaune zelan sortu zen eta jaijo ama donzellieganik?
 E. Jaungoikoak gauze orreik egiten zituzela gure ganetiko inderragaz eta mireriz.
 I. Zegaitik diñozu: «gure ganetiko inderragaz eta mireriz?»
 E. Jesukristo sortu ez zalako ez jaijo bere, beste gizonak legez.
 I. Zelan deituten joko gauze orreitan aurkituten dan misterijoari?
 E. Enkarnaziñoko misterijoa.
 I. Zer da sinistuten dozune Enkarnaziñoko misterijoan?
 E. Trinitade guztiz santuko bigarren personie, zein dan semie, gizon egin zala Birjiñe Marijen errai garbijetan, bere donzellatasunen kalte бага, ez gizonen obraz, ezpada Espiritu Santuen obraz.
 I. Zeinbet gauza bada egin zituzen Espiritu Santuek Enkarnaziñoko misterijoan?
 E. Lau gauze Jaune.
 I. Zeintzuk dire?
 E. Lelengoa Ama birjiñien errai guztiz garbijetan formau eban gorputz bat bere odol guztiz garbijegaz. Bigarrena, egin eban arime bat eze-rezetik. Irugarrena, gorputz ta arimie batu zituzen alkarregaz. Laugarrena, gorputz ta arima oneikaz batu zen Jaungoikoaren semie. Eta onan len Jaungoiko bakarrik zana, Jaungoiko izeteieri itxi bagarik, gelditu zen gizon egiñik.
 I. Eta zelan jaijo zan mireriz?
 E. Urteiten euela Ama Birjiñien sabeletik, bere donzelletasunen kalte бага, eguzkijen argi errañue igaroten dan legez kristel batetik, kristela ausi, ez loitu bagarik.
 I. Eta bere ama bizi ete zan gero beti donzelle?
 E. Bai Jaune beti.
 I. Zegaitik kurtzien il gure izen euen?
 E. Gu libretiarren pekatutik eta betiko erijotzatik.
 I. Zelan bada egin ete giñen erijotza orren errudun?
 E. Pekatu egiñik gure lelengo gureso Adanek, zeñegan guztijok pekatu egin genduen.

I. Zer adituten dozu Jesukristo ill ezkeru jatsi zen infernure esanagaz?
 E. Ez kondenaen lekue, ezpada linbue, non egozan justuek.
 I. Infernu bat baño geijago dago ala?
 E. Bai Jaune, dagoz lau lurren barruen, eta deretxoie kondenaen infernue, purgatorijoa, seiñen linboa, justoen linboa, edo Abrahamen lekue.
 I. Zein da kondenaen infernue?
 E. Pekatu mortalien ilten dirienen arimak, betiko nekatuek izeiteko joaten dirien lekue.
 I. Zein da Purgatorijoa?
 E. Jaungoikoen grazijan, baie euren pekatuen zor guztije pagau bagarik, ilten dirienen arimak joaten dirien lekue, an pena gogorraz guztiz garbituek izeiteko.
 I. Zein da seiñen linboa?
 E. Batieta bagarik adimenera eldu baño lenago ilten dirienen arimak joaten dirien lekue.
 I. Zein da justoen linboa, edo Abrahamen lekue?
 E. Jesukristo gure Jaune mundure etorri eta il baño lenago, Jaungoikoen grazijan il eta guztiz garbitute egozanan arimak joaten zirien lekue, eta leku au da Jesukristo egijez eta benetan jatsi zana.
 I. Zelan jatsi zan?
 E. Arimie jaungoikotasunegaz baturik.
 I. Eta bere gorputze zelan gelditu zan?
 E. Jaungoikotasunegaz beragaz baturik.
 I. Zelan biztu zan irugarren egunien?
 E. Barriro batuten ziriela bere gorputz eta arime glorijez betie, ostera iños ez ilteko.
 I. Zelan igon euen zeruetara?
 E. Berez.
 I. Zer esan gure dau Aite Jaungoikoaren eskoatati jarrite egotiek?
 E. Kristok Jaungoikoa danez, Aitek lainbeste glorije daukela, eta beste edozeñek baño geijego gizona danez.
 I. Nos etorriko da bizijek eta illek juzgetan?
 E. Munduen azkenien.
 I. Eta orduen biztuko ete dire illek guztijek?
 E. Bai jaune, len euki zituezan gorputz eta arimakaz eurekaz.
 I. Eta munduen azkena baño lenago izengo ete gara juzgauek?



E. Bai jaune, geure bizitzien azkenien guztijok juzgauko gaitu Jau-nek, eta emongo deusku sentenzije, onai Jaungoikoa glorijan beti gozeta-ko; eta deungai infernuen beti penetan egoteko.

I. Zer sinistuten dozu esaten dozunien: «Sinistuten dot santuen komuniñoa?»

E. Kristiñeu fielak partie daukiela besten gauze onetan, gorputz baten zatijek legez, gorputz au da Elexie.

I. Zer da Elexie?

E. Da kristiñeu fiel guztijek batera arturik egiten dauden gorputze, zeñen burue dan Aite Santue.

I. Nor da Aite Santue?

E. Da Erromako Sazerdote nagosi, lurrien Kristoren ordeko guzti-jok obedezidu bier deutsegune.

I. Kredoaz eta artikuluez ganera, beste gauzerik sinistuten dozu?

E. Bai Jaune, liburu santuetan dagoan guztije, eta Jaungoikoak bere Elexieri agerturik deuten guztije.

I. Ze gauze dire orreik?

E. Ori ez niri itendu jakiturije bagakoa nasalako; baukez Elexa ama Santiek Irekaslak, erantzuten jakingo daudenak.

IREKASLIEK. Ondo diñozu: Irekaslai jagokie eta zuri ez, fedeko gau-zen kontu zietza emotie: asko da zuretzat jakitie fedeko artikuluek kredo-an dagozan legez, ta eurek sinistutie.

Dotriñieren bigarren partie, non adierazoten dan zer eskatu bier dan, eta Elexa ama santieren oraziñoak

Ikusi dogu zelan dakizun sinistu bier dozune, zein dan lelengoa: gatozan bigarrenera, zein dan eskatu bier dana. Esan egidez:

I. Nok esan euen Aite gurie?

E. Jesukristok.

I. Zetarako?

E. Guri oraziño egiten irekasteko.

I. Zer da oraziñoa?

E. Da Jaungoikoagana bijotza eregi, eta mesediek eskatutie.

I. Zeinbet modutekoa da oraziñoa?

E. Modu bitekoa, mentala eta bokala.

I. Zer da oraziño mentala?

E. Da arimeko almenakaz egiten dana; memorijegaz, gauze onen bat gogora ekarten dogule; adimentuegaz, gauze ori gogoan darabilgule, eta bere ganien pensetan dogule; eta borondatiegaz gogo ta gureri onak artu-ten doguzela, esaterako, pekatuekaz damutu, konfesau, ondu, obatu, eta aurrerantzien bizitze on bat egitie.

I. Zer da oraziño bokala?

E. Da berbakaz ta miñegaz egiten dana, esaterako, egiten dogune Aite gurie errezetan dogunien.

I. Eta zelan egin bier da oraziñoa?

E. Gogotik, humiltasunegaz, itxropenagaz, eta ireupenagaz.

I. Aite gurie esaten dozunien, nogaz berba egiten dozu?

E. Jaungoiko gure Jaunegaz.

I. Non dago Jaungoiko gure Jaune?

E. Leku guztijetan, batezbere zeruen eta altarako sakramentu guztiz santuen.

I. Eta Jesukristo gizona danez non dago?

E. Bakarrik zeruen eta altarako sakramentu guztiz santuen.

I. Oraziño guztietarik zein da oneena?

E. Aite gurie.

I. Zegaitik?

E. Jesukristok bere aoz esan euelako Apostoluen eskariz.

I. Zegaitik geijago?

E. Daukezalako zazpi eskari, karidade osotik datozeanak.

I. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa da: Santifikedu bedi zure izena.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jaungoikoaren izena izan dedille ezagutue eta onradue mundu guztijen.

I. Zein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erreñue.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Erreñue dagijela Jaungoikoak gure arimetan, emen lurrien grazi-jez, eta gero emon dagigule gloriye.

I. Zein da irugarrena?

E. Egin bedi zure borondatie, zelan zeruen alan lurrien.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Egin dagigule Jaungoikoaren borondatie lurrien gagozanok, zeruen zoriñonekoak egiten daudien legez.



- I. Zein da laugarrena?
 E. Egunien eguniengo geure ogije gaur emon egiguzu.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Emon dagigule Jaungoikoak gorputzeri jagokan janarije, arimie-
 rentzat grazije eta sakramentuek.
- I. Zein da bostgarrena?
 E. Parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunei parkatuten
 deutseguzen legez.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Jaungoikoak parkatu dagiguzela geure pekatuek, geuk parkatu
 deutsegun legez naibageren bat emon edo gatx egin deuskuenai.
- I. Zein da seigarrena?
 E. Itxi ez egiguzu jausten tentaziñoan.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Ez dagigule itxi Jaungoikoak jausten, diabruiek pekatuen jausi era-
 giteko ekarten deuskuzen pensamintu txar, eta tentaziñoetan, ez eurei
 lekurik emoten.
- I. Zein da zazpigarrena?
 E. Baie libredu gagizuz gatxerik.
- I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?
 E. Jaungoikoak libreu gagizela arimeko eta gorputzeko gatx ta arris-
 ku guztijetarik.
- I. Zegaitik asieran esaten dozu: «Aite gurie zeruetan zagozana?»
 E. Eregiteko bijotza Jaungoikoagana, eta eskatuteko mesedik
 humiltasunegaz eta ustebetiegaz.
- I. Arako berba: Amen: azkenien esaten dozunek, zer esan gure dau?
 E. Alan izen dedille.
- I. Zeintzuk dire Ama Birjiñieri erregututeko oraziñorik oneenak?
 E. Abe Marije eta Salbie.
- I. Nok esan euen Abe Marije?
 E. San Gabriel angeruek Ama Birjiñe Marijeri barri onak emoten
 etorri zanian.
- I. Nok esan euen Salbie?
 E. Elexa ama santiek dauko beretzat artute.
- I. Zetarako?
 E. Ama Birjiñieri mesedik eskatuteko.
- I. Abe Marije, edo Salbie esaten dozuzenien, nogaz berba egiten
 dozu?
 E. Andra Marije geure amagaz.

- I. Nor da Andra Marije geure ama?
 E. Da birtutez beteriko Andra bat, Jaungoikoaren ama, zeruen dago-
 ana.
- I. Eta altaran dagoana, nor da?
 E. Zeruen dagoanen irudi bat.
- I. Zetarako dago an?
 E. Bera ikusite, akordau gaitezana zeruen dagoanagaz, eta onen iru-
 dije dalako, lotsa eta itzalez begiretu dagijogun.
- IREKASLIEK.** Bada bardin egingo deutsezu santuen irudijei, ta euren
 errelikijei.
- I. Angeru eta santuei bere, erregutu bier ete deutsegu?
 E. Bai jaune, geure bitartekoai legez.
- I. Zer dire angeruek?
 E. Dire, zeruen Jaungoikoa gozetan dagozan espiritu zorijoneko batzuk.
- I. Zetarako egin zituzen Jaungoikoak?
 E. Bera beti alabau eta bedeinketu egijen.
- I. Zetarako geijego?
 E. Bere serbitzarijek legez, Elexie gobernau, eta gizonak gordetako.
- I. Orrelan zuk bere baukezu angeru jagolie?
 E. Bai jaune, bauket, eta gizon bakotxak dauko berie.
- IREKASLIEK.** Bada euki egijozu deboziño andi bat, eta erreza eiki-
 jozu egunien egunien.

Irugarren partie, zeñetan adierazoten dan zer egin bier dan

- Ikusi dogu, zer sinistu, ta zer eskatu bier dozun: dakuskun zelan
 dakizun zer egin bier dozun: esan egizu :
- I. Zein da Jaungoikoaren legeko lelengo mandamentue?
 E. Jaungoikoa ametie gauze guztijen ganien.
- I. Nok ametan dau Jaungoikoa?
 E. Bere mandamentu santuek gordetan dituzenak.
- I. Zer da Jaungoikoa ametie gauza guztijen ganien?
 E. Gurago izetie gauze guztijek galdu, bera ofendidu baño.
- I. Zetara geijago obligetan gaitu mandamentu onek?
 E. Bera bakarrik adoretara gorputzeko eta arimeko alegin guztijegaz,
 beragan sinistu eta itxeroten dogule fede bizijegaz.



I. Nok pekatu egiten dau onen kontra?

E. Idolo, edo guzurrezko jaungoikoak adoretan dituzenak, edo eurakgan sinistuten dauenak; fedieren kontrako gauzeren bat sinistuten dauenak; edo fedeko misterijoren baten dudie daukanak; edo bier dan dotrinie ez dakijenak; fede, esperanza eta karidadeko aktoak bier dirienien egiten ez dituzenak; edo Jaungoikoaren errukijegan itxeroten ez dauenak; edo prestaera txarragaz sakramenturen bat artuten dauenak.

I. Nok geijago?

E. Aztuei sinistie emoten deutenak, edo sorginkerijetan dabillenenak; edo okerreko elesgauzakaz, edo oker Jaungoikoa adoretan dauenak.

I. Zein da bigarrena?

E. Juramentu alperrik ez egitie.

I. Nok alperrik juramentu egiten dau?

E. Juramentu egiten dauenak egije бага, zuzentasun бага, eta premiñe бага.

I. Zer da egije бага juramentu egitie?

E. Da juramentu egitie norberen eretxijen kontra, edo guzurregaz.

I. Eta egije бага, edo dudan dagoala juramentu egiten dauenak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala, juramentue gauze txikerraren ganien izen arren.

I. Zer da zuzentasun bagarik juramentu egitie?

E. Juramentu egitie, gauze bidebagako, edo deungeren bat egiteko; esaterako, projimueri gatxen bat egiteko.

I. Eta zuzentasun бага juramentu egiten dauenak, ze pekatu egiten dau?

E. Juramentue gauze astunen ganien bada, pekatu mortala; eta ariñen ganien bada, pekatu beniela.

I. Zer da premiñe бага juramentu egitie?

E. Da juramentu egitie eginbier andi bagarik, edo ezerezkerijak gaitik.

I. Ze pekatu da au?

E. Pekatu beniela, lagundu ezkeru juramentuerei egijak eta zuzentasunak.

I. Eta egiten dabenak juramentu, boto, edo promesen bat gauze onen bat egiteko, kunplidu bier ete dau?

E. Bai jaune, eta ez kunplidutie, edo kunplidu bagarik luzero eukitie, da pekatu mortala, gauze astunen ganien izen ezkeru.

I. Eta Jaungoikoak eginiko gauzakgaitik, alperrik jurementu egitie, pekatu ete da?

E. Bai jaune, eurretan egiten jakolako euren egille Jaungoikoari.

I. Ze moduten jurementu egiten da, Jaungoikoak egiñiko gauzak gaitik?

E. Esaten dala, kontureko, neure arimiegaitik, zeruegaitik, lurregaitik, diñot, au, edo bestie alan dala.

I. Ze neurri artu giñeike, juramentu alperrik ez egiteko?

E. Ekandutu esaten: bai, edo ez, Jesukristok erakusten deuskun legez.

I. Eta mandamentu onetan beste gauzerik galerazoten ete da?

E. Bai jaune, galerazoten bere da blasfemiñe, zein dan esatie, berba txarrak Jaungoikoagaitik, edo bere santuekgaitik, zein dan pekatu mortala.

I. Zein da irugarrena?

E. Domekak eta jaijek gordetie.

I. Nok gordetan ditu domekak eta jaijek?

E. Meza osoa entzun, eta premiñe бага bierrik egiten ez dauenak.

I. Eta ze pekatu da, domeka eta jaijetan premiñe бага biar egitie?

E. Ordu bitik gora bier egiten bada, pekatu mortala; eta ordu bitik beera bada, geijenien pekatu beniela.

I. Zein da laugarrena?

E. Aita eta ama honretie.

I. Nok honretan ditu guresoak?

E. Euren esanak egiten dituzenak; euri lagundu, eta lotsie gordetan deutenak.

I. Nortzuk egiten dabe pekatu mortala onen kontra?

E. Etsien eta arimien onerako gauzetan guresoen esanak egiten ez dituezan seme alabak; guresoai euren premiñetan lagunduten ez deutesnak; biraoak botaten deuteszanak; edo burle egiten deutesnak; eta ezkon-duteko gogo ta lanetan dabiltzenak euren barri ta borondate bagarik.

I. Nortzuk besterik adituten dire guresoen izenagaz?

E. Nagosijagoak edadien, honran ta agintaritzan.

I. Eta agindu onetan sartuten ete dire, seme alabak guresoakganako daukiezan eginbierrez ganera, besteren batzuk?

E. Bai jaune, nagosijagoak mendekoak ganako daukiezanak, eta guresoenak euren seme alabak ganako.

I. Zeintzuk dire oneik?

E. Emotie janarije, irekatsi ona, kastige, ejenplu ona, eta jagokien estadue bere denporan.

I. Ze pekatu egiten daude, oneitan uts egiten daudenak?

E. Geijenien pekatu mortala.

I. Zein da bostgarrena?

E. Ez iñor iltie.



I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Iñori ez gatzik egitie, ez egitez, ez esatez, ezta gureriz bere.

I. Eta nok egiten dau pekatu mortala agindu onen kontra?

E. Bere burueri edo iñori opa deutsanak erijotzie, edo gatz andiren bat; edo iñori gorroto deutsanak; iñor il, zauritu, edo joten dauenak; ordituten danak; osasunien gatz andije egingo deutsen gauzak jaten dituzenak; bere bizitzie galduteko arriskuen jarten danak; edo norberen burue ilten dauenak; eta norberari edo besteri birao egiten deutsanak.

I. Zer da birao egitie?

E. Da eskatutie gaxten bat norberentzat edo besterentzat, esango balitz legez: «Arren bada, ortxe illik jausiko al az»

I. Eta ze pekatu da birao egitie?

E. Gatz andije opa bajako, pekatu mortala.

I. Eta alangorik opa ez bajako?

E. Beniela, beti ez bada bere.

I. Nortzuk bada egiten daude pekatu mortala, birao egiñegaz gatz andirik opa izen baga?

E. Geijenien gureso, eta nagosijago, euren menpekoen aurrien biraoak botaten dituezanak; biraoak botateko iskunie daukienak; eta kenduteko alegiñik egiten ez dauenak.

I. Eta zegaitik ori?

E. Euren esate eta ejenplu txarrakaz emoiten deustielako bestiei, Jaungoikoa gauze astunien ofendietako bidie; eta oneri deretxo eskandalue.

I. Zein da seigarrena?

E. Aragizko pekaturik ez egitie.

I. Zer aginduten da mandamintu onetan?

E. Izen gaitetzala garbijek gogo, esate eta egitetan.

I. Nortzuk egiten daude pekatu mortala mandamintu onen kontra?

E. Ezaueraz gozatuten dirienak gogoraziño loijetan, gauze txar aik egin ez arren, eta egiteko gureririk bere euki ez arren; bereba loijek esan, eta kanta nabarmenak kantetan dituezanak; edo gogoz entzuten dituezanak; edo euren buruekaz, edo bestiekaz eskuke zikin edo gauze loijek egiten dituezanak, edo egin gure leukiezanak.

I. Zein da zazpigarrena?

E. Ez iñori ezer ostutie.

I. Zer agunduten da mandamentu onetan?

E. Ez dagigule kendu, ez euki, ez gure izen iñoen gauzerik, bere jaubien borondatien kontra.

I. Nortzuk egiten daude pekatu mortala onen kontra?

E. Oneitariko edozeinbere gauze egiten daudenak; edo beste moduren baten kalte egiten deutsenak projimueri bere ondasunetan gauze astunien.

I. Eta onetan kalte egiten deutsenak projimueri, dan moduen dala, bauko ezer egin bierririk?

E. Bai jaune, al bait lasterren biurtu bier deutso jaubieri bere gauzie, eta osotu egin deutsezan kalte guztijek.

I. Zein da zortzigarrena?

E. Egin ez dauen gauze txarrik iñori ez ezartie, ta guzurrik ez esatie.

I. Zer aginduten da mandamintu onetan?

E. Ez egitie projimuegaitik juzgu txarrik arin, au da, bide ta errazoi bagarik; ta ez esan, ez entzutie bere utsegitiek.

I. Nok austen dau agindu au?

E. Juzgu txarra egiten dauenak errazoien kontra; au da, atarako bier dan besteko bide, edo motibu bagarik; iñori kleitue kenduten deutsenak; gauze ixille agertu; edo guzurre esaten dauenak.

I. Eta projimueri kleitue kenduten deutsenak, esanagaz beragaitik egin ez dauen gauze txar andiren bat; edo egin dauena, baie ezkutuen dagoana; edo arpegijen emonik bere utsegitiekaz, bauko ezer egin bierririk?

E. Bai jaune, bada biurtu bier deutso kendu deutsan honra edo kleitue.

I. Zer da galarazoten dana bederatzigarren eta amargarren mandamintuetan?

E. Aragizko atsegiñen, eta iñoen ondasunen gureri bidebagakoak.

IREKASL. Esan egizuz elexa ama santien mandamintuek.

ELEXA AMA SANTIEN MANDAMINTUEK DIRE BOST

Lelengoa meza osoa entzutie domeka eta jai guztijetan.

Bigarrena konfesetie gitxijenez urtien bein, edo lenago erijotzako peligrurik badago, edo komulgau bier badau.

Irugarrena garizumeko paskoetan komulgetie bere parrokijen.

Laugarrena barau egitie elexa ama santiek aginduten dauenien.

Bostgarrena amarrenak eta primizijek zuzen pagetie Jaungoikoaren elexieri.

I. Zetarako dire mandamintu oneik?

E. Jaungoikoaren legekoak obeto gordetako.

I. Eta lelengoa, zein dan mezie entzutie, nortzuk gorde bier daude?

E. Ezauerara eldu dirien, ta batiaturik dagozan guztijek.

I. Zelan entzun bier da mezie?



E. Egonik mezie esaten dan lekuen, gauze onen batzuk gogoan dituzela, edo Jesukristoren pasiñoa; edo errezuren batzuk egiten.

I. Eta galerazokizun andirik euki baga entzuten ez dauenak; edo dagoanak guztijen, edo zati andijen beste gauzeren batzuk gogoan dituzela; edo ez entzuteko arriskuen jarten danak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala.

I. Eta bigarrena eta irugarrena, zeintzuk dirien konfesetie, eta komulgetie, nortzuk gorde bier dituez?

E. Pekatu mortalaren bien, ezauerara eldu dirien kristiñeu guztijek.

I. Eta deungero konfesetan eta komulgetan dirienak, betetan ete dituez agindu oneik?

E. Ezelanbere ez jaune, eta sakramentu bi oneitariko bakotxa artu-ten daudenien, egiten dituez pekatu mortal bi.

I. Eta ilteko arriskuen konfesore bagarik aurkituten danak, zer egin bier dau?

E. Akto kontriziñoko bat, konfesetako proposituegaz.

I. Eta laugarrena, zein dan barau egitie, nortzuk gorde bier daude?

E. Ogeta bat urte oso daukiezanak.

I. Eta zelan barau egin bier da?

E. Galerazorik ez dagozan janarijekaz, bazkalduten dala egerdijen, eta bestetan jan baga.

I. Eta onetan uts egin bagarik, artu ete leike goxien ezer?

E. Motiburen bat badago, txikerra izen arren, artu leike ontza bat inguru.

I. Eta gaubien?

E. Artu leike kolaziñotzat, kristiñeu oneen artien artu oi dana, itundurik (sic) onen ganien, duderik dagoanien, konfesore jakintsu bategaz.

I. Eta galerazokizunik euki baga barau egiten ez daudenak, ze pekatu egiten daude.

E. Pekatu mortala.

I. Eta nortzuei jagokie eragotzite, okelie jatie bijilije eta barau egu-netan; oneitan nastitutie okelie eta arraiñe; eta jatie arrontze eta eznejagiek garizuman, bulderik euki baga?

E. Ezauerara eldu dirien guztijei.

I. Eta ze pekatu egiten daude gordetan ez dituezanak?

E. Pekatu mortala, egunien zeinbet bider euretan uts egiten dauden.

IREKASL. Esan egizuz errukizko egitada, edo miserikordijezko obrak.

Erukizko egitadak, edo miserikordijezko obrak dire amalau: zazpi arimieri, eta beste zazpi gorputzeri jagokazanak.

Arimieri jagokazanak dire oneik.

Lelengoa eztakijenari irekastie.

Bigarrena bier dauenari konseju ona emotie.

Irugarrena uts egiten dauena arzetutie.

Laugarrena deungero egiñek parkatutie.

Bostgarrena triste dagoana poztutie.

Seigarrena geure lagunek emoten deuskuezan naibage ta argaltasunek eroapenagaz igerotie.

Zazpigarrena bizijek eta illek gaitik Jaungoikoari erregututie.

Gorputzeri jagokazanak dire oneik.

Lelengoa gaixoak bisitetie.

Bigarrena gose danari jaten emotie.

Irugarrena egarri danari edaten emotie.

Laugarrena katigek askatutie.

Bostgarrena billosak jantzitie.

Seigarrena bidazti eskekoai ostatu emotie.

Zazpigarrena illei lurre emotie.

I. Zegaitik deretxoie errukizkoak?

E. Justizijez zor ez dirielako.

I. Nos dire aginduek eta obligaziñokoak?

E. Gizon jakintsuen eretxijen, andijek dirien premiñetan.

I. Eta kristiñeuek egiten dituzen errukizko egite oneik gaitik; eta beste gauze onak gaitik, nai izen agindurik dagozanak, nai borondatezkoak, zer irebazten dau?

E. Jaungoikoaren grazijan badago, euren bitertez egiten da, grazije eta gloriye geituteko duin; eurekaz pagetan dau bere pekatuen zorra; eta alkantzetan ditu Jaungoikoagandik arimeko mesediek, baite gorputzekoak bere, arimien kaltien izengo ezpadire.

I. Eta zegaitik esaten dozu: «Jaungoikoaren grazijan badago?»

E. Pekatu mortalien dagozanak egiten dituezan obra onakaz ez dagoalako irebazirik, ez pekatuen zorra pagetarik; baie alanbere zelan edo alan alkantzau giñeikez Jaungoikoagandik onera eta mesederen batzuk.



Laugarren partie, **zeñetan adierazoten dirien artu bier dirien Sakramentuek**

Ikusi dogu zelan dakizun zer sinistu, zer eskatu, eta zer egin bier dozun; dakuskun zelan dakizun zer artu bier dozun, zein dan azkenengoa. Esan egizuz elexa ama santien Sakramentuek.

Elexa ama santien sakramentuek dire zazpi. Lelengo bostak dire gure ta gurezkoak izetez, edo borondatez, zeintzuk бага salbau ezin leiteke, itxiten baditu nagitasunez, edo ezetan ez eukiz: beste bijek dire borondatezkoak.

Lelengoa Bautismue.

Bigarrena Konfirmaziñoa.

Irugarrena Konfesiñoa.

Laugarrena Komuniñoa.

Bostgarrena Oliaziñoa.

Seigarrena Ordie.

Zazpigarrena Matrimoniñoa.

I. Ze gauze dire Sakramentuek?

E. Dire Jesukristo gure Jaunek itxiriko señaile agiri batzuk, euren bitertez emoteko guri bere grazije, ta birtutiek.

I. Zer da grazije?

E. Da izete Jaungoikozko bat, zeñek egiten gaituzen Jaungoikoaren seme eta zeruko herederu edo jaubegei.

I. Ze birtute emoten daude sakramentuek grazijegaz batera?

E. Batez bere iru jaungoikozkoak.

I. Zeintzuk dire?

E. Fedie, Esperantzie, eta Karidadie.

I. Zer da Fedie?

E. Ikusi eztogune sinistutie, Jaungoikoak alan agertu dauelako.

I. Zer da Esperantzie?

E. Itxerotie zeruko gloriye, Jaungoikoaren laguntasunen eta geure egite onen bitertez.

I. Zer da Karidadie?

E. Jaungoikoa ametie gauze guztijen ganien, ta geure projimuek geure buruek legez, eurei egiten deutsegule, eurek geuri egitie gureko gendukiena.

I. Zetarako da Batioko sakramentu santue?

E. Kenduteko jatorrizko pekatue, eta batiotue danak beste edozein baleuko bere.

I. Zer da jatorrizko pekatue?

E. Da jaijotzan dakargune, zein jatorkun geure lelengo guresoetarik.

I. Eta premiñoen denporan, nok batiotue leike?

E. Edozeinbere gizekume, edo emakume, adimena daukenak.

I. Zelan batiotue bier da?

E. Ure botaten dala seiñen buruen ganera, eta esaten dala batiotutueko gogoagaz: Nik batiotuten zaitudez Aitieren, eta Semieren eta Espiritu Santueren izenien.

I. Zetarako da Konfirmaziñoako Sakramentu santue?

E. Batioan artu genduen fedien indertu, eta sendatuteko.

I. Eta adimenera eldu ezkerko Sakramentu santuau pekatu mortalien artuten dauenak, pekatu rik egiten ete dau?

E. Bai jaune, ta pekatu mortala.

I. Zer egingo dau bada artuten dauenien, pekatu rik ez egiteko?

E. Aurrez prestau, egiñik konfesiño on bat.

I. Zetarako da Konfesiñoako Sakramentue?

E. Batiotue ezkerko egiñiko pekatuek parkatuteko.

I. Ze pekatu dire orreik?

E. Mortalak, baitebere benielak.

I. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatie, egitie, pensetie, edo gure izetie zerbaist Jaungoikoaren legien kontra gauze astunien.

I. Zegaitik deritxo mortala?

E. Ilten dauelako egiten dauenen arimie.

I. Eta noz artuten dogu konfesiñoako sakramentu santue?

E. Ondo konfesaute, absoluziñoa artuten dogunien.

I. Zeinbet gauze bier dire konfesiño on bat egiteko?

E. Bost gauze jaune.

I. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa, alegiñez, egin dituzen pekatuek gogora ekartie.

Bigarrena artutie damu bizi bat Jaungoikoa ofendidu dauelako.

Irugarrena eukitie propositu sendo bat ez geijego pekatu rik egiteko, eta alde egiteko pekatu reko bide urreko ta okasiñoetarik.

Laugarrena adierazotie pekatu mortal guztijek konfesorieri, jakiñek jakiñek legez, dudekoak dudekoak legez, ez geitu, ez gitxitu bagarik.

Bostgarrena konfesoriek emoten dauen penitenzije kunpletie.

Laburrego:



Lelengoa esamiñe konzienzijekoa.

Bigarrena pekatuen damue.

Irugarrena propositue.

Laugarrena aozko konfesiñoa.

Bostgarrena satisfaziñoa.

I. Zer da esamiñe konzienzijekoa?

E. Egin dituzen pekatuek gogora ekartie.

I. Nondik egingo da esamiñe?

E. Jaungoikoaren legera amar mandamentuetatik, bost elexakoetatik, ta bakotzak bere estaduko obligaziñoetatik.

I. Damue zeinbet modutekoa da?

E. Modu bitekoa; amodijozko, edo kontriziñoa bata; eta bildurrezko, edo atriziñoa bestie.

I. Zer da amodijozko, edo kontriziñoa damue?

E. Da artutie damu bizi bat Jaungoikoa ofendidu dauelako izenik ain ona, konfesetako, onduteko, eta penitenzije kunplietako gogoagaz.

I. Zer da bildurrezko, edo atriziñoa damue?

E. Da eukitie damu bizi bat Jaungoikoa ofendidu dauelako, edo pekatuen ezaintasunegaitik; edo infernuen bildurregaitik; edo zeruko glorie galdu dauelako, konfesetako, onduteko, eta penitenzije kunplietako gogoagaz.

I. Damu bi oneitatik, zein da oneena?

E. Amodijozko, edo kontriziñoa.

I. Zergaitik?

E. Kontriziñoa datorrelako amodijotik, eta atriziñoa bildurretik; kontriziñoa damueguz konfesau baño lenago parkatuten dira pekatu mortalak, eta geratuten da Jaungoikoaren grazijan; barriz atriziñoa-gaz bakarrik, ez dire alkantzetan mesede oneik.

I. Konfesiño ona egiteko asko ete da atriziñoa damue, ala bier ete da kontriziñoa?

E. Jakintsurik geijen geijenak diñoie asko dala atriziñoa; baie obatoago eta ziertuago da erotie kontriziñoa; eta au eukiteko alegiñe egin bier dau konfesetan danak.

I. Noz euki bier da damue?

E. Konfesoriek absoluziñoa emon baño lenago.

I. Zer da propositue?

E. Erabagi sendo bat ez iñoz geijego Jaungoikoa ofendietako pekatu mortalagaz.

I. Zer da aozko konfesiñoa?

E. Da agertutie argiro konfesorieri pekatu mortal guztijek, penitenzije kunplietako gogoagaz.

I. Eta itxiten dauenak lotsaz konfesau baga pekatu mortalen bat, edo konfesetan dauenak egin eztauen pekatu andiren bat; edo konfesetan danak damu baga, propositu baga, edo penitenzije kunplietako borondate baga, konfesiño ona egiten ete dau?

E. Ez jaune, egiten dau sakrilejijoko pekatu mortal andi bat, eta konfesau biar ditu barrero len konfesauek eta konfesau bagakoak; baitebere egin dauen sakrilejijoko pekatue.

I. Eta nortzuk sinistu legije ez daudela euki damurik, ez propositurik euren konfesiñoetan?

E. Pekatuko okasiñoetatik alde egiten ez dauenak, eta konfesiño batetik bestera lengo pekatuetan jausten dirienak.

I. Eta damu ta propositu egjezkoa errazago eukiteko, zer egitie ondo izengo da?

E. Konfesetera eldu baño lenago eskatu Jaungoikoari emon dagjizala bere laguntasunak; erabilli gogoan aldi baten Jaunek egin deutsezan mesediek; edo bere pasiño, ta erijotzie; edo bere ontasune; eta bein eta geijegotan esan: Neure Jesukristo Jaune.

I. Zer da satisfaziñoa?

E. Da pagetie Jaungoikoari pekatuek gaitik deusnan zorra, konfesoriek iminten deusnan penitenzije betetan dauela.

I. Ze pekatu egiten dau penitenzije kunplietan ez dauenak; edo kunplidu baga luzero dauenak?

E. Pekatu mortala, penitenzije andije bada.

I. Pagau ete giñeikijo Jaungoikoari pekatuen zorra, iminten jakun penitenzijegaz baño beste gauzegaz?

E. Bai jaune, Jaungoikoaren grazijan egiñiko obra on guztijekaz eta induljenzijak irebazijegaz.

I. Ze gauze dire induljenzijak?

E. Grazije batzuk, zeintzuekgaitik parkatuten dan, pekatuek gaitik mundu onetan, edo bestien igaro bierko litzatekien penie.

I. Zelan irebaziko dire?

E. Egiñik Jaungoikoaren grazijan, onetarako aginduten dana.

I. Eta mundu onetan euren pekatuen zorra ez pagetiegaitik purgatorijora doazanai, guk lagundu ete giñeikijoe?

E. Bai jaune, geure pekatuen zorra pagau giñeikien obrakaz eurekaz.

I. Eta norbait pekatu mortalien jausten dan guztijen konfesau bier ete dau laster, parkatue izen dakijon?



E. Berariz agindute ezpadago bere, guztiz ondo litzateke alan egitie, Jaungoikoaren aserrien erijotza zorigaistoko batek koxi ez dagijen, eta egiten dituzen obra onakaz ezer irebazi bagarik geratu ez dedin. Euki egizu bada beti, alan egiteko ardurie.

I. Orainengo konfesiñotik ona bakarrik pekatu benielak daukazanari, zer egitie ondo izengo jako, damue ta propositue errezago eukiteko?

E. Konfesau lelengo orainengo konfesiñotik onako pekatu benielak, eta gero lengo bizitzeko pekatu mortalen bat.

I. Zetarako da Sakramentu santu komuniñokoa?

E. Ondo prestaute artuten bada, izen dedin gure arimen janarije, eta geitu dagigun grazije.

I. Zergaitik diñozu: «Ondo prestaute artuten bada»?

E. Adierazoteko, Sakramentu santu au ez dala izengo gure arimen janarije, artuten ezpadogu bier dirien prestaerakaz, bai arimien aldetik, eta bai gorputzen aldetik.

I. Ze prestaera bier da bada arimien aldetik?

E. Jaungoikoaren grazijan egotie.

I. Pekatu mortalien jausi dana, zelan prestauko da komulgetako?

E. Konfesiño on baten bitertez.

I. Konfesau ezkeru pekatu mortalen bat gogoratuten jakonak, zer egin bier dau?

E. Konfesau barrero komulgau baño lenago.

I. Gorputzen aldetik ze prestaera bier da?

E. Egote baraurik (komuniño santue eztanien elexakoak artuteko) ezer jan, ez edan bagarik, igero dan gaueko amabijetatik aurrera.

I. Komuniñoko sakramentu guztiz santuen, zer artuten dozu?

E. Jesukristo Jaungoiko, ta gizon egijezko, altarako sakramentu santuen egijez dagoana.

I. Orrelan nor dago hostrijan konsagraziñoko berbak esan ezkeru?

E. Jesukristo gure Jaunen gorputze, bere odol, arime, ta jaungoikotasunegaz batera.

I. Eta kalizien?

E. Jesukristoren odola, bere gorputz, arime ta jaungoikotasunegaz batera.

I. Onelan Jesukristo guztije dago hostrijan, eta guztije kalizien?

E. Bai Jaune, Jesukristo guztije dago hostrije guztijen, guztije hostrijen edozein zatiten, eta bardin kalizien.

I. Eta konsagraziñoko berbak esan ezkeru, ete dago hostrijan ogirik, edo kalizien ardaorik?

E. Ez jaune, ezpada ogijen ta ardaoen irudijek, zeintzuk dirien, useiñe, kolorie, gustue.

I. Eta zatituten bada hostrijie, edo erdibitu kalizien dagoana, zatituten edo erdibituten ete da Jesukristo?

E. Ez jaune, guztije osorik geratuten da zati guztijetan eta bakotxien.

I. Eta komulgetan danak esan dirien prestaerak bagarik, artuten ete dau Jesukristo?

E. Bai jaune, baie bere kaltien, zergaitik eze egiten dau pekatu guztiz andi bat.

I. Eta euren onerako artuten daudenak, zer egin legije esan danez ganera, alkantzau dagijezan onera andijegoak?

E. Konfesau baño lenago gogoan erabilli, nor dan eurekgana datoren Jaune; biztu euren bijotzetan fedie, itxeropena, eta karidadie, komulgau humiltasun ta itzel andijegaz, eta gero emon eskerrak, Jesusek egin deusien mesede ain andijegaitik.

I. Zetarako da Olieziñoko sakramentu santue?

E. Iru gauzetarako.

I. Zeintzuk dire?

E. Lelengoa lenagoko bizitze gaistoko errastu eta enparauek kenduteko.

Bigarrena sendatuteko arimie diebruen tentaziñoen kontra.

Iruugarrena emoteko gorputzeri osasune, arimien kaltien izengo ezpada.

I. Adimenera eldute, ilteko arriskuen gaixorik dagozanak, artu bier ete daude sakramentu santu au?

E. Bai jaune, eta pekatu mortala egiten daude, al daudela, artuten ezpadaude, edo artuten badaude pekatu mortalien.

I. Zer egingo dau bada, pekatu mortalien aurkituten danak, prestaera onagaz artuteko?

E. Konfesiño on bat egin, eta ezin balitz konfesau, prestau akto kontriziñoko bat egiñegaz.

I. Zetarako da sakramentu santu Ordiekoa?

E. Konsagretako eta ordenduteko elesgizon duiñek, zelan dirien sazerdotiek, ebanjelijokoak, eta epistolakoak.

I. Elesgizonai, batez bere sazerdote jaunei, gorde bier ete jakie berarizko lotsa, itzel eta erreberenzije?

E. Bai jaune.

I. Zetarako da Matrimoniñoko sakramentu santue?



E. Ezkonduteko, eta emoteko grazije ezkonduer, euren artien bakien biziteko, eta seme alabak zerureko aziteko.

I. Eta sakramentu santu au ondo artuteko, ezkonduen dirienak egon bier ete daude Jaungoikoaren grazijan?

E. Bai jaune, pekatu mortalaren bien.

I. Eta Jaungoikueren grazijan ez dagozanak, zelan prestau bier daude, ondo artuteko?

E. Konfesiño on bategaz.

PEKATU KAPITALAK DIRE ZAZPI

Lelengoa Arrokerije.

Bigarrena Abarizije.

Irugarrena Loikerije.

Laugarrena Aserrie.

Bostgarrena Gulerije.

Seigarrena Inbidije.

Zazpigarrena Nagitasune.

I. Zergaitik deituten deutsezu kapitalak, geijenien mortalak esaten jaken zazpi pekatuei?

E. Deituten jake kapitalak, dirielako buruek, euretatik jaijoten dirien pekatuen iturri eta sustraijek legez; ez jatorkie barriz ain egoki mortalen izena, bada askotan ez dire benielak baño.

I. Noz dire mortalak?

E. Jaungoikoaren eta projimuen karidadien kontra dirienien.

I. Noz dire karidadien kontra?

E. Eurekaz austen daniel Jaungoikoaren, edo Elexa santien aginduren bat gauze astunien.

I. Zer da arrokerije?

E. Bestiek baño geijago izeteko gureri bidebagako bat.

I. Zer da abarizije?

E. Da ondasunen gureri lar bat.

I. Zer da loikerije?

E. Da aragijen atsegin nabarmenen gureri bidebagako bat.

I. Zer da aserrie?

E. Da bengetako gureri bidebagako bat.

I. Zer da gulerije?

E. Da jateko ta edateko gogo lar bat.

I. Zer da inbidije?

E. Bestien ona ikusi eziñe.

I. Zer da nagitasune?

E. Gauze onak egiten astun egotie.

ZAZPI PEKATU ONEEN KONTRA DAGOZ ZAZPI BIRTUTE

Arrokerijen kontra humiltasune.

Abarizijen kontra prestutasune.

Loikerijen kontra garbitasune.

Aserrien kontra pazienzija.

Gulerijen kontra jan edanien begiretue izetie.

Inbidijen kontra karidadie.

Nagitasunen kontra prestatasune.

IÑES EGIN BIER DEUTSEGUN ARIMEKO ARERIJOAK DIRE IRU

Lelengoa mundue.

Bigarrena demoniñoa.

Irugarrena aragije.

I. Zein da mundue?

E. Dire mundutar gaisto ta deungak.

I. Zein da demoniñoa?

E. Da Jaungoikoak zeruen egin euen angeru bat; baie jaiki zalako Jaungoikoaren beraren kontra beste askogaz, bota euen infernuetara bere gaistakerijeko lagunekaz, zeintzuei deituten deutsegu demoniñoak.

I. Zein da aragije?

E. Da geure gorputze bera, bere griñe ta etsigitasun deungakaz.

I. Zelan azporetuten da mundue, ta iñes egiten da beragandik?

E. Bere andikerije ta arrokerijen desprezijoegaz.

I. Zelan azporetuten da demoniñoa ta iñes egiten da beragandik?

E. Oraziñoagaz ta humiltasunegaz.

I. Zelan azporetuten da aragije, ta iñes egiten da beragandik?

E. Laztasun, azote, ta barauekaz; au da arerijorik andijena, zergaitik eze, aragije ezin bota giñeike geuganik, mundue ta demoniñoa bai.

BIRTUTE TEOLOGALAK, EDO JAUNGOIKOAGANAINTXA-KOAK (sic) DIRE IRU

Lelengoa Fedie.

Bigarrena Esperantzie.

Irugarrena Karidadie.



I. Birtute oneik barrizteu bier doguzen ezkerro, zelan egongo gara, onetan utsik egin baga?

E. Errezaurik deboziñoiz eta sarriten (edozein kristiñeuk egin bier dauen legez) kredoa ta aite gurie, eta bijotzetik esanagaz: Neure Jesukris-to Jaune.

BIRTUTE KARDINALAK DIRE LAU

Lelengoa Prudenzije.

Bigarrena Justizije.

Irugarrena Sendotasune.

Laugarrena Tenplanzie.

GORPUTZEKO ZENTZUNEK DIRE BOST

Lelengoa begijekaz ikustie.

Bigarrena belarrijekaz entzutie.

Irugarrena aoagaz gustu artutie.

Laugarrena surregaz useñ egitie.

Bostgarrena eskuekaz ukututie.

I. Zetarako emon euskuzen Jaungoikoak zentzunek, eta gorputzeko beste zatijek?

E. Guztijekaz gauze guztijetan bera serbidu gineijen.

ARIMEKO ALMENAK DIRE IRU

Memorije, entendimentue, ta borondatie.

I. Zetarako emon euskun Jaungoikoak memorije?

E. Akordau giñeitezan beragaz, ta bere mesedikaz.

I. Zetarako emon euskun entendimentue?

E. Ezagutu giñeijen gure Jaune, ta bera gogoan erabilli.

I. Zetarako emon euskun borondatie?

E. Ontasan osoa legez amau dagigun, eta projimue beragaitik.

I. Ze gauze da gure arimie, zeñenak dirien almen oneik?

E. Da Jaungoikoak bere antz eta irudire egiñiko espiritu illezin bat.

ESPIRITU SANTUEREN DOIEK DIRE ZAZPI

Lelengoa Iakiturijeko Doie.

Bigarrena Adimeneko Doie.

Irugarrena konseju oneko Doie.

Laugarrena Ezauerako Doie.

Bostgarrena Sendotasuneko Doie.

Seigarrena Errukitasuneko Doie.

Zazpigarrena Jaungoikoaren bildurreko Doie.

ESPIRITU SANTUEREN FRUTUEK DIRE AMABI

Lelengoa Karidadie.

Bigarrena Bakie.

Irugarrena Bijotzeko anditasune.

Laugarrena Biguntasune.

Bostgarrena Fedie.

Seigarrena Kontinenzije.

Zazpigarrena Arimeko poza.

Zortzigarrena Pazienzije.

Bederatzigarrena Ontasune.

Amargarrena Otsantasune.

Amakagarrena Modestije.

Amabigarrena Garbitasune.

ZORIJONTASUNEK DIRE ZORTZI

1. Zorijonekoak bijotzetik pobre dirienak, euren dalako zeruetako erreñue.

2. Zorijonekoak otsanak, euren izengo dirielako lurren jaubiek.

3. Zorijonekoak negar egiten daudenak, euren izengo dirielako poz-tuek.

4. Zorijonekoak onaren gose ta egarri dirienak, euren izengo dirielako asaskauek.

5. Zorijonekoak errukiorrak, euren alkantzauko daudelako errukije.

6. Zorijonekoak bijotz garbikoak, euren ikusiko daudelako Jaungoikoa.

7. Zorijonekoak baketsuek, Jaungoikoaren semen izena emongo jakelako.

8. Zorijonekoak persekuziñoa daroienak onak dirielako, bada euren izengo da zeruetako erreñue.

I. Zer esan dogu orain?

E. Zortzi zorijontasunek.

I. Ze gauze dire zortzi zorijontasunek?

E. Espiritu Santueren birtute eta doien egitekorik oneenak.

I. Nortzuk dire bijotzetik pobriek?

E. Lurreko andiuste, ta ondasunen gureririk ez daukenak.

I. Nortzuk dire otsanak?

E. Asererik ez daukenak, ezta apurrik bere.



- I. Zelan izengo dire lurren jaube?
 E. Euren buruen jaube izenagaz.
 I. Nortzuk dire negar egiten daudenak?
 E. Deungak ez dirien atsegiñek bere, itxiten dituezanak.
 I. Nortzuk dire onaren gosie ta egarrije daukienak?
 E. Alegiñez ezetan bere utsik egin gure ez leukienak.
 I. Nortzuk dire errukiorrak?
 E. Iñori bere on baño egin gure ezteutsenak.
 I. Zer da pekatu beniela?
 E. Pekatu mortalerako prestaera bat.
 I. Zergaitik deritxo beniela?
 E. Arin, au da, erraz gizona beratan jausten dalako, eta erraz parkatuten jakolako.
 I. Zeinbet gauzegaitik parkatuten jako?
 E. Bederatzigaitik.
 I. Zeintzuk dire?
 E. Lelengoa meza entzutiegaitik.
 Bigarrena komulgetiegaitik.
 Irugarrena Ni pekatarije esatiegaitik.
 Laugarrena Obispo jaunen bendiziñoagaitik.
 Bostgarrena ur bedeinketuegaitik.
 Seigarrena ogi bedeinketue jatiegaitik.
 Zazpigarrena. Aite gurie esatie gaitik.
 Zortzigarrena sermoie entzutiegaitik.
 Bederatzigarrena bulerra jotiegaitik Jaungoikoari parka eskatuten deutsalala.
 I. Zergaitik diñozu: «Jaungoikoari parka eskatuten deutsalala?»
 E. Adierazoteko, alkantzauko bada gauze oneen bitertez pekatu benielen parkaziñoa, euki bier dogule euren damu santuren bat
 I. Konfesau biar ete doguz pekatu benielak?
 E. Ez da jaune premiñezkoa, baie da gauze ona ta mesedegarrije.
 I. Nortzuk dire bijotz garbikoak?
 E. Euren barruko gureri deungak goituten dituezanak.
 I. Nortzuk dire baketsuek?
 E. Euren eta besteen arteko bakegillak.
 I. Nortzuk dire, onak dirielako persekuziñoa daroienak?
 E. Esetsirik gogorrenen artien beti sendo dagozanak.
 I. Zegaitik deituten jake onei zorijontasunak?

- E. Eurretan dagoalako bizitze onetako zorijontasuna, eta bestekoaren itxeropena.
 I. Zeinbet dire gizonen azkenak?
 E. Lau.
 I. Zeintzuk dire?
 E. Erijotzie, juizioa, infernue eta gloriye.
 I. Zer da gloriye?
 E. Da bizitze guztiz zorijoneko bat, zeñetan aurkituten dirien onera guztijek, gatzik batbere baga; infernuen dagozan legez gatz guztijek, onerarik batbere baga.
 I. Infernutik libretako eta zeruko gloriye alkantzetako, zer egin bier dogu?
 E. Gorde Jaungoikoaren agindu santuek.
 I. Ete dagoz beste neurriren batzuk, errazago gordetako agindu santuek, eta eurretan utsik ez egiteko?
 E. Bai jaune.
 I. Zeintzuk dire?
 E. Sarriten konfesetie ta komulgetie; goxien goxien Jaungoikoari eskiñitie egun atako lan eta bierrak; egun guztijetan errosarijoa errezetie; liburu onak irekurtie; oraziño egitie; gaubien gaubien konzienziye esamiñetie; eta baten asko esateko, artutie konfessore jakintsu, on, begiretu eta arduretsu bat, eta egitie berak aginduten deuten guztije.
IRAK. Ondo diñozu: zegaitik eze, San Franzisko Salesek dinoan legez, konfessore on bat artutie da salbetako neurri guztijen neurrije. Egizu bada zuk bere alantxe, bada berak, angeru batek legez, zuzenduko zaitu irekatsi oneikaz, eta beste bier dirienakaz, Jaungoikoaren agindu santuaren bidetik, eldu zaitez, Jaungoikoa ikusten zeruko gloriyan, bada onetarako ekarri genduzen mundure. Jaunek ara eroan gaizela guztijok. Amen.
- NI PEKATARIJE**
- Ni pekatari au konfesetan natxako Jaungoiko guztiz poderosoari, Andra Marije beti Birjiñieri, San Migel angerueri, San Juan Bautistieri, San Pedro eta San Pablo Apostoluei, Santu guztijei, eta zuri neure arimeko aite, egin dodala pekatu pensamentuz, berbaz eta obraz, neure erruz, neure erruz, neure erru andijegaz. Orregaitik erregututen deutset Andra Marije beti Birjiñieri, San Migel angerueri, San Juan Bautistieri, San Pedro eta San Pablo Apostoluei, Santu guztijei, eta zeuri neure arimeko aite, erregutu dagijozula nigaitik neure Jaun eta Jaungoikoari. Amen.



NEURE JESUKRISTO JAUNE

Neure Jesukristo Jaune, Jaungoiko ta gizon egijezkoa, neure Egillie ta Salbagillie, zariena zarielako, eta ametan zaitudezalako gauze guztijen ganien, damu dot Jaune, damu dot bijotz guztirik zu ofendidue, artuten dot gogo sendo bat ez geijego pekatu rik egiteko, konfesetako, iminten jatan penitenzije kunplietako, eta pekatuko bide guztijetarik alde egiteko. Opa deusudez, Jaune, neure bizitze, egite, ta neke guztijek, neure pekatu guztijen pagureko, eta itxeroten dot zure ontasun eta erruki amaibagan, parkatuko deustezuzela zeure odol guztiz balijotsu, pasiño, ta erijotziegaitik, eta emongo deustezule grazije onduteko, ta zeu serbietan ireuteko neure erijotzako ordura artien. Amen.

AZKENA

BERMEOKO DOTRINA

Bermeo

Kristiñau fiel guztijak
dagoz guztiz obligaurik
deboziñua artutera
euren bijotz guztitik
Jesus gure argijaren
kurutze santuagaz
bada an ill gura izan eban
gu ateratiarren
pekatuaren mendetik
ta arerijo deungetatik.

Orregaitik bada
egin biar zara
alan zeñatutera
zelan Aitiaren egitera
iru kurutze egiñagaz.

Lenengua bekokijan
Jaungoikuak librau gaizan
pensamentu txarretatik.

Bigarrena auan
Jaungoikuak librau gaizan
berba deungetatik.

Irugarrena bularrian
Jaungoikuak librau gaizan
egite ta gogo txarretatik.

Onetara esanagaz:
Kurutze santiaren+ señalia gaitik
geure+ arerijuetatik
libradu gaizuz



geure Jauna+ ta Jaungoikua.
Aitiaren ta Semiaren
ta Espiritu Santuaren izenian.
Amen.

Kredua

Sinistuten dot Aita Jaungoiko guztiz poderoso, zeruaren ta lurraren egilliagan, ta bere seme bakar Jesukristo gure Jaunagan, zein sortu zan Espiritu Santuaren egitez, ta grazijaz. Jaijo zan Marija Birjiñiagandik; padezidu eban Ponzio Pilatosen aginduaren beian; izan zan kurutzian josija, ill ta enterradua, jatsi zan infernuetara irugarren egunian biztu zan illen artetik, igon eban zeruetara, an dago jarririk Aita Jaungoiko guztiz poderosuaren eskomako aldetik, arik etorriko da bizijak eta illak juzgetara. Sinistuten dot Espiritu Santuagan, Elexa santa katolikia, santuen komuniñua, pekatuen parkaziñua, aragijaren biztuera barrija, betiko bizitzia. Amen.

Fedeko artikuluak

Fedeko artikuluak dira amalau. Lenengo zazpirak jagokaz Jaungoikotasunari eta beste zazpirak Jesukristo gure Jaun Jaungoiko ta gizon egizkuaren Gizatasun santuari.

Jaungoikotasunari jagokazanak dira oneek.

Lenengua sinistu Jaungoiko bakar guztija daikianagan.

Bigarrena sinistu dala Aita.

Irugarrena sinistu dala Semia.

Laugarrena sinistu dala Espiritu Santua.

Bostgarrena sinistu dala gauza guztijen Egillia.

Seigarrena sinistu dala Salbagillia.

Zazpigarrena sinistu dala gloriya emolia.

Gizatasun santuari jagokazanak dira oneek.

Lenengua sinistu Jesukristo gure Jauna gizona danez sortua izan zala Espiritu Santuaren egitez ta grazijaz.

Bigarrena sinistu jaijo zala Santa Marija Birjiniagandik, geldituten zala donzella semia jaijo baño lenago, jaijotzan ta jaijo ezkeru.

Irugarrena sinistu artu zituzala erijotzia ta pasiñua gu pekatarijok salbetiarren.

Laugarrena sinistu jatzi zala infernuetara, eta atera zituzala bere etorrera santuaren begira egozan Guraso santuen arimak.

Bostgarrena sinistu irugarren egunian biztu zala illen artetik.

Seigarrena sinistu igon ebalu zeruetara eta daguala jarririk Aita Jaungoiko guztija daikianaren eskomako aldetik.

Zazpigarrena sinistu etorriko dala bizijak eta illak juzgetara, au da, onai emotera gloriya bere agindu santuak gorde zituezalako; eta deungai betiko infernua, gorde ez zituezalako.

Aita guria

Aita guria zeruetan zagozana, santifikadu bedi zure izena, betor gugana zure erreñua, egin bedi zure borondatia zelau zeruan alan lurrian.

Egunian eguniango geure ogija gaur emon egiguzu, eta parkatu egiguz geure zorrak geuk geure zordunai parketan deutseguzan legez, eta itxi ez egiguzu tentaziñuan jausten, baño libradu gagizuz gatxetik. Amen.

Abe Marija

Abe Marija, grazijaz betia, Jauna da zugaz, bedeinkatua zara zu andra guztijen artian, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua Jesus.

Santa Marija Jaungoikuaren Ama, erregutu egizu gu pekatarijok gaitik orain eta geure erijotzako orduan. Amen.

Salbia

Jaungoikuak gorde zaizala Erregiña, errukiz beteriko Ama, bizitza, gozotasun, ta esperanza geuria, Jaungoikuak gorde zaizala. Zuri deijej gagoz Ebaren ume erbestetuok, zugana gagoz zizpuruz ta negarrez negarrezko leku onetan. Ea bada andria, geure bitartekua, biurtu egizuz guganantz zure begi errukitsu orreek; eta erbeste au igarota, erakutsi egiguzu Jesus zure sabeleko frutu bedeinkatua. O guztiz biguna! O errukiorra! O



Marija Birjiña gozua! Erregutu egizu gugaitik Jaungoikuaren Ama santia, izan gaitian Jesukristoren agintzarriak alkantzetako duin. Amen.

Jaungoikuaren legeko aginduak

Jaungoikuaren legeko aginduak dira amar. Lelengo irurak jagokaz Jaungoikuaren honriari; beste zazpirak projimuaren probetxuari.

Lelengua Jaungoikua ametia gauza guztijen ganian.

Bigarrena Jaungoikuaren izenian juramentu alperrik ez egitia.

Irugarrena domekak eta jaijak santututia.

Laugarrena aita eta ama honretia.

Bostgarrena ez iñor iltia.

Seigarrena aragizko pekatuak ez egitia.

Zazpigarrena ez iñori ezer ostutia.

Zortzigarrena egin eztaben gauzarik iñori ez ezartia, ta guzurrik ez esatia.

Bederatzigarrena projimuaren emazterik ez gura izatia.

Amargarrena iñoren ondasunen gurari bidebagakorik ez eukitia.

Amar agindu oneek sartuten dira bitan; Jaungoikua serbidu eta amedian gauza guztijak baño geijago, eta projimua geure burua legez. Amen.

Kristiñauen dotriñaren azaldaeria itaune ta erantzueretan

ITANDUTEN DOT. Kristiñaua zara?

ERANTZUTEN DOT. Bai Jauna, Jaungoikuaren grazijaz.

I. Nondik jatortsu kristiñauaren izen ori?

E. Jesukristo gure Jauna gandik.

I. Zer esan gura dau Kristiñauak?

E. Kristoren gizona.

I. Zer adituten dozu Kristoren gizonaz?

E. Jesukristoren fede, batiuan artu ebana daukan gizona, eta bera serbietako eskiñirik daguana.

I. Zein da Kristiñauaren señaia?

E. Kurutze santua.

I. Zergaitik?

E. Dalako Kristo kurutzian josijaren irudija, zeñetan erredimidu genduzan.

I. Zeinbat modutan egiten dau kristiñauak señaie ori?

E. Modu bitan.

I. Zeintzuk dira?

E. Zeñatutia, ta Aitiaren egitia.

I. Zer da zeñatutia?

E. Eskomako eskuko erkoruagaz iru kurutze egitia.

Lenengua bekokijan, bigarrena auan, irugarrena bularran, geure Jaun Jaungoikuagaz berba egiten dogula.

I. Erakutsi zelan?

E. Kurutze santiaren+ señaiaegaitik, geure+ arerijuetatik, libradu gaizuz+ geure Jauna ta Jaungoikua.

I. Zergaitik zeñatuten zara bekokijan?

E. Jaungoikuak librau gaizan pensamentu gaistuetatik.

I. Zergaitik auan?

E. Jaungoikuak librau gaizan berba gaistuetatik.

I. Zergaitik bularran?

E. Jaungoikuak librau gaizan egite ta gurari gaistuetatik.

I. Zer da Aitiaren egitia?

E. Da eskomako eskuko atz bijakaz kurutze bat egitia, bekokitik bularrera, eta ezkerreko sorbaldatik eskomakora, Trinitade guztiz santuari gagokazala.

I. Erakutsi zelan?

E. Aitiaren, ta Semiaren+ ta Espiritu Santuaren izenian. Amen.

I. Noz egin biar dogu kurutzaren señaie ori?

E. Egite onen bat asten dogun guztijan, edo premiña tentaziño, edo arriskuren baten aurkituten garianian, batezbera oetik iagieran, etxetik urteeran, Elexan sartzeian, iatorduan, eta oera guzian.

I. Zergaitik ainbeste bidar?

E. Beti ta leku guztijetan geure arerijuak esetsiten deuskuelako ta persegietan gaituezalako.

I. Ze arerijo dira orreek?

E. Demoniñua, mundua ta aragija.

I. Kurutzia al dauka indarra arerijo orreek goituteko?

E. Bai jauna.

I. Nundik dauka kurutzia indar ori?

E. Kristok bere erijotziagaz antxe goitu ebalako.

I. Kurutzia adoretan dozunian zelan esaten dozu?



E. Adoretan eta bedeinkatuten zaituguz Kristo, zeure kurutze santuaren bitartez mundua erredimidu zendualako.

Kristiñauak jakin biar dituzanak

Ikusi dogu kristiñaua zariana alan izenian, zelan señalian: esan egidazu orain: Zeinbat gauza jakin ta aditu biar ditu kristiñauak adimenera, edo ezauerara elduten danian?

E. Lau gauza.

I. Zeintzuk dira?

E. Jakitia zer sinistuko daben, zer eskatuko daben, zer egingo daben, eta zer artuko daben.

I. Zelan jakingo dau zer sinistuko daben?

E. Jakiñaz kredua edo Fedeko artikulua.

I. Zelan jakingo dau zer eskatuko daben?

E. Jakiñaz Aita guria, ta elexako beste oraziñauak.

I. Zelan jakingo dau zer egingo daben?

E. Jakiñaz Jaungoikuaren legeko aginduak, Elexa Ama santiarenak, eta obra miserikordijazkuak.

I. Zelan jakingo dau zer artuko daben?

E. Jakiñaz Elexa Ama Santiaren Sakramentuak.

Doktriniaren lelengo partia,

zeñetan adierazoten dirian kredua ta Fedeko artikulua

Lelengotik asiten gariala esan egidazu:

E. Nok esan eban kredua?

E. Apostoluak.

I. Zetarako?

E. Guri fede santuko gauzak irakasteko.

I. Eta zuk zetarako esaten dozu?

E. Kristiñauak daukagun fede au konfesetako.

I. Zer da fedia?

E. Ikusi ez doguna sinistutia.

I. Ikusi zenduan jaijoten Jesukristo?

E. Ez Jauna.

I. Ikusi zenduan ilten, edo zerura igoten?

E. Ez Jauna.

I. Sinistuten dozu?

E. Bai Jauna.

I. Zegaitik sinistuten dozu?

E. Jaungoikuak alan agertu deusalako Elexa Ama santiari, ta onek alan erakusten deuskulako.

I. Ze gauza dira kristiñaua zarianez daukazuzanak, eta sinistuten dozuzanak?

E. Erromako Elexa santiak daukazanak, eta sinistuten dituzanak.

I. Ta zertzuk dira zuk eta berak daukazuezanak, eta sinistuten dozuezanak?

E. Fedeko artikulua batez bere kreduan dagozan legez.

I. Ze gauza dira fedeko artikulua?

E. Dira fedeko misterijorik andijenak.

I. Zetarako dira fedeko artikulua?

E. Emoteko geure Jaungoikuaren, eta Jesukristo geure Salbagilliaren ezauera argija.

I. Zein da gure Jaun Jangoikua?

E. Da esan ta asmau al leitekian gauzarik andi ta miragarriena. Jaun bat amaibagarik ona, altsua, jakintsua, arteza, gauza guztijen asieria eta azkena.

I. Zein da Trinitate guztiz santua?

E. Da Jaungoikua bera Aita, Semia, ta Espiritu Santua, iru persona banak, eta Jaungoiko egijazko bakar bat.

I. Aita Jaungoikua da?

E. Bai Jauna.

I. Semia Jaungoikua da?

E. Bai Jauna.

I. Espiritu Santua Jaungoikua da?

E. Bai Jauna.

I. Iru Jaungoiko dira?

E. Ez Jauna, ezpada Jaungoiko egijazko bakar bat, dan legez guztiz altsu bakar bat, betiko bakar bat, eta Jaun bakar bat.

I. Aita Semia da?

E. Ez Jauna.

I. Espiritu Santua Aita, edo Semia da?

E. Ez Jauna.

I. Zegaitik?



E. Iru personak banak dirialako, izan arren Jaungoiko egjazko bakar bat.

I. Au onelan dala, zeinbat izate, adimen, eta borondate dagoz Jaungoikuagan?

E. Izate bakar bat, adimen bakar bat, eta borondate bakar bat.

I. Eta zeinbat persona?

E. Iru banák, zeintzuk dirian Aita, Semia, eta Espiritu Santua.

I. Zelan da Jaungoikua guztiz altsua?

E. Bere eskubide bakarragaz egiten dabelako gura daben guztija.

I. Zelan da Egillia?

E. Guztija ezerezetik egin ebalako.

I. Zetarako egin eban Jaungoikuak gizona?

E. Bizitza onetan Jaungoikua bera serbietako, eta gero betikuan bera gozetako.

I. Zelan da Salbagillia?

E. Grazija emon eta pekatuak parkatuten dituzalako.

I. Zelan da Glorija emollia?

E. Bere grazijan irauten dabenari, betiko glorija emoten deutsalako.

I. Jaungoikuak ete dauka guk legez gorputzaren irudirik?

E. Ez Jauna, Jaungoikua danez, dalako espiritu utsa; baña bai gizona danez.

I. Jaungoikozko iru personetatik, zein egin zan gizon?

E. Bigarrena, zein dan Semia?.

I. Aita egin zan gizon?

E. Ez Jauna.

I. Espiritu Santua egin zan gizon?

E. Ez Jauna.

I. Zein bada?

E. Bakarrik Semia, zeñeri gizon egiñik deritxon Jesukristo.

I. Orrelan zein da Jesukristo?

E. Da Jaungoiko bizijaren semia gizon egin zana gu erredimietarren, eta guri zelan bizi erakustiarren.

I. Eta zeinbat izate, adimen eta borondate dagoz Jesukristogan?

E. Izate bi, bata Jaungoikua danez, eta bestia gizona danez: borondate bi, Jaungoikua danez bata, eta gizona danez bestia: adimen bi, bata Jaungoikua danez, eta bestia gizona danez.

I. Eta zeinbat persona eta gomuta?

E. Persona jaungoikozko bakar bat, zein dan Trinitade guztiz santuko bigarrena; eta gomuta bakar bat, bada Jaungoikua danez ez dauka gomutarik.

I. Zer esan gura dau Jesusek?

E. Salbagillia.

I. Zetatik salbau genduzan?

E. Geure pekatutik eta demoniñuaren mendetik.

I. Zer esan gura dau Kristok?

E. Unjidua.

I. Zegaz izan zan unjidua?

E. Espiritu Santuaren grazija ta doiakaz.

I. Jesukristo gure Jauna zelan sortu zan eta jaijo ama donzelliagandik?

E. Jaungoikuak gauza orreek egiten zituzala, izatiaz ganeko indarragaz eta mirariz.

I. Zegaitik diñozu «izatiaz ganeko indarragaz eta mirariz?»

E. Jesukristo sortu ez zalako, ez jaijo bere, beste gizonak legez.

I. Zelan deituten jako gauza orreetan aurkituten dan misterijuari?

E. Enkarnaziñoeko misterijua.

I. Zer da sinistuten dozuna Enkarnaziñoeko misterijuan?

E. Trinitade guztiz santuko bigarren personia, zein dan semia, gizon egin zala Birjiña Marijaren errai garbijetan, bere donzellatasunaren kalte бага, ez gizonaren obraz, ezpada Espiritu Santuaren obraz.

I. Zeinbat gauza bada egin zituzan Espiritu Santuak Enkarnaziñoeko misterijuan?

E. Lau gauza Jauna.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengua, Ama Birjiñiaren errai guztiz garbijetan formau eban gorputz bat bere odol guztiz garbijagaz. Bigarrena, egin eban arima bat ezerezetik. Irugarrena gorputza ta arima batu zituzan alkarregaz. Laugarrena, gorputz ta arima oneekaz batu zan Jaungoikuaren semia. Eta onelan, len Jaungoiko bakarrik zana, Jaungoiko izatiari itxi bagarik, gelditu zan gizon egiñik.

I. Eta zelan jaijo zan mirariz?

E. Urteten ebalta Ama birjiniaren sabeletik bere donzellatasunaren kalte бага, eguzkijaren argi errañua igaroten dan legez kristal batetik, kristala ausi, ez loitu bagarik.

I. Eta bere ama bizi ete zan gero beti donzella?

E. Bai Jauna beti.

I. Zegaitik kurutzian il gura izan eban?



- E. Gu libretiarren pekatutik, eta betiko erijotzatik.
 I. Zelan bada egin ete giñan erijotza orren errudun?
 E. Pekatu egiñik gure lelengo guraso Adanek, zeñegan guztijok pekatu egin genduan.
 I. Zer adituten dozu Jesukristo ill ezkeru jatsi zan infernura esanagaz?
 E. Ez kondenuen lekua, ezpada linbua, nun egozan justuak.
 I. Infernu bat baño geijago al dago?
 E. Bai Jauna, dagoz lau lurraren barruan, eta deritxe kondenuen infernua, purgatorijua, seiñen linbua, justuen linbua, edo Abrahamen lekua.
 I. Zein da kondenuen infernua?
 E. Pekatu mortalien ilten dirianen arimak, betiko nekatuak izateko, juaten dirian lekua.
 I. Zein da Purgatorijua?
 E. Jaungoikuaren grazijan, baño euren pekatuen zor guztija, pagau bagarik, ilten dirianen arimak juaten dirian lekua, an pena gogorakaz guztiz garbituak izateko.
 I. Zein da seiñen linbua?
 E. Batiatu bagarik, adimenera eldu baño lenago ilten dirianen arimak juaten dirian lekua.
 I. Zein da justuen linbua, edo Abrahamen lekua?
 E. Jesukristo gure Jauna mundura etorri, eta il baño lenago, Jaungoikuaren grazijan il eta guztiz garbituta egozaten arimak juaten zirian lekua, eta leku au da Jesukristo egijaz eta benetan jatsi zana.
 I. Zelan jatsi zan?
 E. Arimia Jaungoikotasunagaz baturik.
 I. Eta bere gorputza zelan gelditu zan?
 E. Jaungoikotasunagaz beragaz baturik.
 I. Zelan biztu zan irugarren egunian?
 E. Barriro batuten ziriala bere gorputz eta arima glorijaz betia, ostera iñoz ez ilteko.
 I. Zelan igon eban zeruetara?
 E. Berez.
 I. Zer esan gura dau Aita Jaungoikuaren eskomatatik jarrita egotiak?
 E. Kristok Jaungoikua danez Aitak beste glorijs daukala, eta beste edozeñek baño geijago gizona danez.
 I. Noz etorriko da bizijak eta illak juzgetara?
 E. Munduaren azkenian.

- I. Eta orduan biztuko ete dira illak guztijak?
 E. Bai Jauna, len euki zituezan gorputz eta arimakaz eurakaz.
 I. Eta munduaren azkena baño lenago izango ete gara juzgauk?
 E. Bai jauna, geure bizitzaren azkenian, guztijok juzgauko gaitu Jaunak, eta emongo deusku sentenzija, onai Jaungoikua glorijsan beti gozeta-ko; eta deungai infernuan beti penetan egoteko.
 I. Zer sinistuten dozu esaten dozunian: «Sinistuten dot santuen komuniñua?»
 E. Kristiñau fielak partia daukeela besteen gauza oneetan gorputz baten zatijak legez, gorputz au da Elexia.
 I. Zer da Elexia?
 E. Da kristiñau fiel guztijak batera arturik egiten dabeen gorputza, zeñen burua dan Aita Santua.
 I. Zein da Aita Santua?
 E. Da Erromako Sazerdote nagusi, lurrian Kristoren ordeko, guztijok obedezidu biar deusaguna.
 I. Kreduaz ta artikuluez ganera, beste gauzarik sinistuten badozu?
 E. Bai Jauna, liburu santuetan dagan guztija, eta Jaungoikuak bere Elexiari agerturik deusan guztija.
 I. Ze gauza dira orreek?
 E. Ori ez niri itandu jakiturija bagakua nasalako; badaukaz Elexa ama Santiak Irakaslak, erantzuten jakingo dabeenak.
IRAKASLIAK. Ondo diñozu: Irakaslai jagoke ta zuri ez, fedeko gauzen kontu ziatza emotia: asko da zuretzat jakitia Fedeko artikulua kereduan dagozan legez, ta eurak sinistutia.

**Dotriñiaren bigarren partia,
 non adierazoten dan zer eskatu biar dan,
 eta Elexa ama santiaren oraziñuak**

- Ikusi dogu zelan dakizun sinistu biar dozuna, zein dan lelengua: gatozan bigarreneza, zein dan eskatu biar dana. Esan egidazu:
 I. Nok esan eban Aita guria?
 E. Jesukristok.
 I. Zetarako?
 E. Guri oraziño egiten irakasteko.
 I. Zer da oraziñua?



E. Da Jaungoikuagana bijotza eregi eta mesediak eskatutia.

I. Zeinbat modutakua da oraziñua?

E. Modu bitakua, mentala eta bokala.

I. Zer da oraziño mentala?

E. Da arimako almenakaz egiten dana: memorijagaz, gauza onen bat gogora ekarten dogula: adimenagaz, gauza ori goguan darabilgula, eta bere ganian pensetan dogula: eta borondatiagaz, gogo ta gurari onak artuten doguzala, esaterako, pekatuakaz damutu, konfesau, ondu, obatu, eta aurrerantzian bizitza on bat egitia.

I. Zer da oraziño bokala?

E. Da berbakaz ta miiñagaz egiten dana, esaterako, egiten doguna Aita guria errezetan dogunian.

I. Eta zelan egin biar da oraziñua?

E. Gogotik, humiltasunagaz, itxaropenagaz, eta iraupenagaz.

I. Aita guria esaten dozunian, nogaz berba egiten dozu?

E. Jaungoiko gure Jaunagaz.

I. Non dago Jaungoiko gure Jauna?

E. Leku guztijetan, batez bere zeruan eta altarako sakramentu guztiz santuan.

I. Eta Jesukristo gizona danez non dago?

E. Bakarrik zeruan eta Altarako Sakramentu guztiz santuan.

I. Oraziño guztijetatik zein da oneena?

E. Aita guria.

I. Zegaitik?

E. Jesukristok bere aoz esan ebalako Apostoluen eskariz.

I. Zegaitik geijago?

E. Daukazalako zazpi eskaari (sic) karidade osotik datozenak.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengua da: Santifikadu bedi zure izena.

I. Zer eskatuten dozu eskaari (sic) orretan?

E. Jaungoikuaren izena izan dedilla ezagutua eta honradua mundu guztijan.

I. Zein da bigarena?

E. Betor gugana zure erreñua.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Erreñau dagijala Jaungoikuak gure arimetan, emen lurrian grazijaz, eta gero emon dagigula glorija.

I. Zein da irugarrena?

E. Egin bedi zure borondatia, zelan zeruan, alan lurrian.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Egin dagigula Jaungoikuaren borondatia lurrian gagozanok, zeruan zorijonekuak egiten dabeen legez.

I. Zein da laugarrena?

E. Egunian eguniango geure ogija gaur emon egiguzu.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Emon dagigula Jaungoikuak gorputzari dagokan janarija, arimiarrentzat grazija eta sakramentuak.

I. Zein da bostgarrena?

E. Parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parkatuten deutseguzan legez.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jaungoikuak parkatu dagiguzala geure pekatuak, geuk parkatu deutsegun legez, naibageren bat emon, edo gatx egin deuskuenai.

I. Zein da seigarrena?

E. Itxi ez egiguzu jausten tentaziñuan.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Ez dagigula itxi Jaungoikuak jausten, diabruak pekatuan jausi eragiteko ekarten deuskuzan pensamentu txar, eta tentaziñuetan, ez eurai lekurik emoten.

I. Zein da zazpigarrena?

E. Baña libradu gagizuz gatxetik.

I. Zer eskatuten dozu eskari orretan?

E. Jaungoikuak librau gagizala arimako eta gorputzeko gatx eta arrisku guztijetatik.

I. Zegaitik asieran esaten dozu: «Aita guria zeruetan zagozana?»

E. Eregeteko bijotza Jaungoikuagana, eta eskatuteko mesediak humiltasunagaz eta ustebetiagaz.

I. Arako berba: Amen, azkenian esaten dozunak, zer esan gura dau?

E. Alan izan dedilla.

I. Zeintzuk dira Ama Birjiñiari erregututeko oraziñorik oneenak?

E. Abe Marija eta Salbia.

I. Nok esan eban Abe Marija?

E. San Gabriel ingeruak Ama Birjiña Marijari barri onak emotera etorri zanian.

I. Nok esan eban salbia?

E. Elexa Ama Santiak dauka beretzat artuta.

I. Zetarako?

E. Ama Birjiniari mesediak eskatuteko.



I. Abe Marija edo Salbia esaten dozuzanian, nogaz berba egiten dozu?

E. Andra Marija geure amagaz.

I. Nor da Andra Marija geure ama?

E. Da birtutez beteriko Andra bat, Jaungoikuaren ama, zeruan daguana.

I. Eta altaran daguana, nor da?

E. Zeruan daganaren irudi bat.

I. Zetarako dago an?

E. Bera ikusita, akordau gaitez an zeruan daganagaz, eta onen irudija dalako, lotsa eta itzalez begiratu dagijogun.

IRAKASLIAK. Bada bardin egingo deutsezu santuen irudijai ta euren erlikijai .

I. Aingeru eta santuai bere, erregutu biar ete deutsegu?

E. Bai jauna, geure bitartekuai legez

I. Zer dira aingeruak?

E. Dira, zeruan Jaungoikua gozetan dagozan espiritu zorijoneko batzuk.

I. Zetarako egin zituzan Jaungoikuak?

E. Bera beti alabau eta bedeinkatu egjen.

I. Zetarako geijago?

E. Bere serbitzarijak legez, Elexia gobernau eta gizonak gordetako.

I. Orrelan zuk bere badaukazu aingeru jagolia?

E. Bai jauna, badaukat, eta gizon bakotxak dauka beria.

IRAKASLIAK. Bada euki egjjozu deboziño andi bat, eta errezaue eiki-jozu egunian egunian.

Irugarren partia, zeñetan adierazoten dan zer egin biar dan

Ikusi dogu, zer sinistu ta zer eskatu biar dozun: dakuskun zelan dakizun zer egin biar dozun: esan egizu:

I. Zein da Jaungoikuaren legeko leleno mandamentua?

E. Jaungoikua amautia gauza guztijen ganian.

I. Nok amaten dau Jaungoikua?

E. Bere mandamentu santuak gordetan dituzanak.

I. Zer da Jaungoikua amautia gauza guztijen ganian?

E. Gurago izatia gauza guztijak galdu, bera ofendidu baño.

I. Zetara geijago obligetan gaitu mandamentu onek?

E. Bera bakarrik adoretara gorputzeko eta arimako alegin guztijagaz, beragan sinistu eta itxaroten dogula fede bizijagaz.

I. Nok pekatu egiten dau onen kontra?

E. Idolo, edo guzurrezko jaungoikuak adoretan dituzanak, edo eurakgan sinistuten dabenak; fediaren kontrako gauzaren bat sinistuten dabenak; edo fedeko misterijoren baten dudia daukanak; edo biar dan dotrinia ez dakijanak; fede, esperanza eta karidadeko aktuak biar diranian egiten ez dituzanak; edo Jaungoikuaren errukijagan itxaroten ez dabenak; edo prestaera txarragaz sakramenturen bat artuten dabenak.

I. Nok geijago?

E. Aztuei sinistia emoten deutesenak, edo sorginkerijetan dabiltzanak, edo okerreko elesgauzakaz, edo oker Jaungoikua adoretan dabeenak.

I. Zein da bigarrena?

E. Juramentu alperrik ez egitia.

I. Nok alperrik juramentu egiten dau?

E. Juramentu egiten dabenak egija бага, zuzentasun бага, eta premiña бага.

I. Zer da egija бага juramentu egitia?

E. Da juramentu egitia norberaren eretxijaren kontra, edo guzurragaz.

I. Eta egija бага, edo dudan daguala juramentu egiten dabenak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala, juramentua gauza txikijaren ganian izan arren.

I. Zer da zuzentasun bagarik juramentu egitia?

E. Juramentu egitia gauza bidebagako eta deungaren bat egiteko; esaterako, projimuari gatzen bat egiteko.

I. Eta zuzentasun бага juramentu egiten dabenak, ze pekatu egiten dau?

E. Juramentua gauza astunaren ganian bada, pekatu mortala; eta ariñaren ganian bada, pekatu beniala.

I. Zer da premiña бага juramentu egitia?

E. Da juramentu egitia egin biar andi bagarik, edo ezer balijo ez dabeen gauzak gaitik.

I. Ze pekatu da au?

E. Pekatu beniala, lagundu ezkeru juramentuari egijak, eta zuzentasunak.

I. Eta egiten dabenak juramentu, boto, edo promesen bat gauza onen bat egiteko, kunplidu biar ete dau?



E. Bai jauna, eta ez kunplidutia, edo kunplidu bagarik luzaro eukitia, da pekatu mortala, gauza astunaren ganian izan ezkeron.

I. Eta Jaungoikuak egiñiko gauzakgaitik, alperrik juramentu egitia, pekatu ete da?

E. Bai jauna, eurretan egiten jakolako euren egilla Jaungoikuari.

I. Ze modutan juramentu egiten da, Jaungoikuak egiñiko gauzak gaitik?

E. Esaten dala, konturako, neure arimiagaitik, zeruagaitik, lurragaitik diñot, au edo bestia alan dala.

I. Ze neurri artu giñaike juramentu alperrik ez egiteko?

E. Ekandutu esatera: bai, edo ez, Jesukristok erakusten deuskun legez.

I. Eta mandamentu onetan beste gauzarik galerazoten ete da?

E. Bai jauna, galerazoten bere da blasfemija, zein dan, esatia berba txarrak Jaungoikuagaitik, edo bere santuakgaitik, zein dan pekatu mortala.

I. Zein da irugarrena?

E. Domekak eta jaijak gordetia.

I. Nok gordetan ditu domekak eta jaijak?

E. Meza osua entzun, eta premiña бага biarrik egiten ez dabenak.

I. Eta ze pekatu da, domeka eta jaijetan premiña бага biar egitia?

E. Ordu bitik gora biar egiten bada, pekatu mortala; eta ordu bitik beera bada, geijenian pekatu beniala.

I. Zein da laugarrena?

E. Aita eta ama honretia.

I. Nok honretan ditu gurasuak?

E. Euren esanak egiten dituzanak, eurai lagundu eta lotsia gordetan deutsenak.

I. Nortzuk egiten dabe pekatu mortala onen kontra?

E. Etxiaren eta arimiaren onerako gauzetan gurasuen esanak egiten ez dituezan seme alabak, gurasuai euren premiñetan lagunduten ez deutsenak; birauak botaten deutsezanak; edo burla egiten deutsenak; edo eskua eregiten deutsenak; eta ezkonduko gogo ta lanetan dabiltzanak, euren barri, ta borondate bagarik.

I. Nortzuk besterik adituten dira gurasuen izenagaz?

E. Nagusijaguak edadian, honran ta agintaritzan.

I. Eta agindu onetan sartuten ete dira, seme alabak gurasuakganako daukezan eginbiarrez ganera, besteren batzuk?

E. Bai jauna, nagusijaguak mendekuakganako daukezanak; eta gurasuenak euren seme alabakganako.

I. Zeintzuk dira oneek?

E. Emotia janarija, irakatsi ona, kastigua, ejenplu ona, eta jaoken estadia bere denporan.

I. Ze pekatu egiten dabe, oneetan uts egiten dabeenak?

E. Geijenian pekatu mortala.

I. Zein da bostgarrena?

E. Ez iñor iltia.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Iñori ez gatzik egitia, ez egitez, ez esatez, ezta gurariz bere.

I. Eta nok egiten dau pekatu mortala agindu onen kontra?

E. Bere buruari, edo iñori opa deutsanak erijotzia; edo gatz andiren bat; edo iñori gorroto deutsanak; iñor il, zauritu edo josten dabenak; ordituten danak; osasunian gatz andija egingo deutsen gauzak jaten dituzanak; bere bizitzia galduteko arriskuan jarten danak; edo norberaren burua iltan dabenak; eta norberari edo besteri birao egiten deutsanak.

I. Zer da birao egitia?

E. Da eskatutia gatxen bat norberarentzat, edo besterentzat, esango balitz legez: Arren, bada, ortxe illik jausiko al az.

I. Eta ze pekatu da birao egitia?

E. Gatz andija opa bajako, pekatu mortala.

I. Eta alakorik opa ez bajako?

E. Beniala, beti ez bada bere.

I. Nortzuk bada egiten dabe pekatu mortala, birao egiñagaz gatz andirik opa izan baga?

E. Geijenian guraso, eta nagusijago, euren mendekuen aurrian birauak botaten dituezanak; birao egiteko ekandua daukeenak; eta kenduteko alegiñik egiten ez dabeenak.

I. Eta zergaitik ori?

E. Euren esate eta ejenplu txarrakaz emoten deuselako bestiai, Jaungoikua gauza astunian ofendietako bidia, eta oneri deritxo eskandalua.

I. Zein da seigarrena?

E. Aragizko pekaturik ez egitia.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Izan gaitezala garbijak gogo, esate eta egitetan.

I. Nortzuk egiten dabe pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Ezagüeraz gozatuten dirianak gogoraziño loijetan gauza txar areek egin ez arren, eta egiteko guraririk bere euki ez arren; berba loijak esan, edo kanta nabarmenak kantetan ditubezanak; edo gogoz entzuten ditubezanak; edo euren buruakaz, edo bestiakaz eskuka zikin, edo gauza loijak egiten dituezanak; edo egin gura litukezanak.



I. Zein da zazpigarrena?
 E. Ez iñori ezer ostutia.
 I. Zer aginduten da mandamentu onetan?
 E. Ez dagigula kendu; ez euki, ez gura izan iñoren gauzarik, bere jau-
 biaren borondatiaren kontra.
 I. Nortzuk egiten dabe pekatu mortala onen kontra?
 E. Oneetariko edozeinbere gauza egiten dabeenak; edo beste modu-
 ren baten, kalte egiten deutesnak projimuari bere ondasunetan gauza
 astunian.
 I. Eta onetan kalte egiten deutesnak projimuari, dan moduan dala,
 badauke ezer egin biarrik?
 E. Bai jauna, albait lasterren biurtu biar deutse jaubiari bere gauzia,
 eta osotu egin deutsezan kalte guztijak.
 I. Zein da zortzigarrena?
 E. Egin ez daben gauza txarrik iñori ez ezartia, ta guzurrik ez esatia.
 I. Zer aginduten da mandamentu onetan?
 E. Ez egitia projimuagaitik juzgu txarrik arin, au da, bide ta errazoe
 bagarik; ta ez esan, ez entzutia bere utsegitiak.
 I. Nok austen dau agindu au?
 E. Juzgu txarra egiten dabenak errazoiaren kontra; au da, atarako
 biar dan besteko bide, edo motibu bagarik; iñori kleituba kenduten deu-
 tsanak; gauza ixilla agertu; edo guzurra esaten dabenak.
 I. Eta projimuari kleitua kenduten deutesanak, esanagaz beragaitik egin
 ez daben gauza txar andiren bat, edo egin dabena, baña ezkutuan daguana;
 edo arpegijan emonik bere utsegitiakaz, badauka ezer egin biarrik?
 E. Bai jauna, bada biurtu biar deutsa kendu deutsan honra edo klei-
 tua.
 I. Zer da galerazoten dana bederatzigarren eta amargarren manda-
 mentuetan?
 E. Aragizko atsegiñen eta iñoren ondasunen gurari bidebagakuak.
IRAKASL. Esan egizuz elexa ama santiaren aginduak.
 Elexa ama santiaren aginduak dira bost.
 Lelengua meza osua entzutia domeka eta jai guztijetan.
 Bigarrena konfesetia gitxijenez urtian bein, edo lenago erijotzako
 peligrurik badago, edo komulgau biar badau.
 Irugarrena garizumako paskuetan komulgetia bere parrokijan.
 Laugarrena barau egitia elexa ama santiak aginduten dabenian.
 Bostgarrena amarrenak eta primizijak zuzen pagetia Jaungoikuaren
 elexiari.

I. Zetarako dira agindu oneek?
 E. Jaungoikuaren legekuak obeto gordetako.
 I. Eta lelengua, zein dan meza entzutia, nortzuk gorde biar dabe?
 E. Ezauerara eldu dirian, ta batiaturik dagozan guztijak.
 I. Zelan entzun biar da mezia?
 E. Egonik mezia esaten dan lekuan, gauza onen batzuk goguan ditu-
 zala; edo Jesukristoren pasinua; edo erreuren batzuk egiten.
 I. Eta galerazokizun andirik euki baga entzuten ez dabenak; edo
 daganak guztijan, edo zati andijan beste gauzaren batzuk goguan ditu-
 zala; edo ez entzuteko arriskuan jarten danak, ze pekatu egiten dau?
 E. Pekatu mortala.
 I. Eta bigarrena, eta irugarrena, zeintzuk dirian konfesetia, eta
 komulgetia, nortzuk gorde biar dituez?
 E. Pekatu mortalaren beian, ezauerara eldu dirian kristiñau guztijak.
 I. Eta deungaro konfesetan eta komulgetan dirianak, betetan ete
 dituez agindu oneek?
 E. Ezelanbere ez jauna, eta sakramentu bi oneetatiko bakotxa artu-
 ten dabeenian, egiten ditue pekatu mortal bi.
 I. Eta ilteko arriskuan konfesore bagarik aurkituten danak, zer egin
 biar dau?
 E. Akto kontriziñoko bat, konfesetako proposituagaz.
 I. Eta laugarrena, zein dan barau egitia, nortzuk gorde biar dabe?
 E. Ogeta bat urte oso daukezanak.
 I. Eta zelan barau egin biar da?
 E. Galerazorik ez dagozan janarijakaz, bazkalduten dala egerdijan,
 eta bestetan jan baga.
 I. Eta onetan uts egin bagarik, artu ete leike goxian ezer?
 E. Motiburen bat badago, txikija izan arren, artu leike ontza bat
 inguru.
 I. Eta gaubian?
 E. Artu leike kolaziñotzat, kristiñau oneen artian artu oi dana, itun-
 durik onen ganian, dudarik daganian, konfesore jakintsu bategaz.
 I. Eta galerazokizunik euki baga barau egiten ez dabeenak, ze peka-
 tu egiten dabe?
 E. Pekatu mortala.
 I. Eta nortzuei jaoke eragotzita, aragija jatia bijilija eta barau egune-
 tan; oneetan nastetia aragija eta arraiña; eta jatia arrautza, eta eznejakijak
 garizuman buldarik euki baga?
 E. Ezauerara eldu dirian guztijai.



- I. Eta ze pekatu egiten dabe gordetan ez dituezanak?
E. Pekatu mortala, egunian zeinbat bidar eurretan uts egiten dabeen.

IRAKASL. Esan egizuz errukizko egitada, edo miserikordijazko obrak.

Errukizko egitadak, edo miserikordijazko obrak dira amalau: zazpi arimiari, eta beste zazpi gorputzari dagokozanak.

Arimiari dagokozanak dira oneek.

Lelengua eztakijanari irakastia.

Bigarrena biar dabenari konseju ona emotia.

Irugarrena uts egiten dabena zuzendutia.

Laugarrena deungaro egiñak parkatutia.

Bostgarrena triste daguana poztutia

Seigarrena geure lagunak emoten deuskuezan naibage ta argaltasunak erupenagaz igarotia.

Zazpigarrena bizijak eta illakgaitik Jaunogikuari erregututia.

Gorputzari dagokozanak dira oneek.

Lelengua gaixuak bisitetia.

Bigarrena gose danari jaten emotia.

Irugarrena egarri danari edaten emotia.

Laugarrena katiguak askatutia.

Bostgarrena billosak jantzitia.

Seigarrena bidazti eskekuai ostatu emotia.

Zazpigarrena illai lurra emotia.

I. Zegaitik deritxe errukizkuak?

E. Justizijaz zor ez dirialako.

I. Nos dira aginduak eta obligaziñokuak?

E. Gizon jakintsuen eretxijan, andijak dirian premiñetan.

I. Eta kristiñauak egiten dituzan errukizko egite oneek gaitik; eta beste gauza onakgaitik, nai izan agindurik dagozanak, nai borondatezkuak, zer irabazten dau?

E. Jaungoikuaren grazijan badago, euren bitartez egiten da, grazija eta gloriya geituteko duin; eurakaz pagetan dau bere pekatuen zorra; eta alkantzetan ditu Jaungoikuagandik arimako mesediak, baita gorputzuak bere, arimiaren kaltian izango ez badira.

I. Eta zergaitik esaten dozu: «Jaungoikuaren grazijan badago?»

E. Pekatu mortalian dagozanak egiten dituezan obra onakaz ez dagualako irabazirik, ez pekatuen zorra pagetarik; baña alanbere euren

bitartez, zelanbait alkantzau giñaikez Jaungoikuagandik onera eta mesederen batzuk.

Laugarren partia, zeñetan adierazoten dirian, artu biar dirian sakramentuak

Ikusi dogu zelan dakizun zer sinistu, zer eskatu, eta zer egin biar dozun; dakuskun zelan dakizun zer artu biar dozun, zein dan azkenengua. Esan egizuz elexa ama santiaren sakramentuak.

Elexa ama santiaren sakramentuak dira zazpi. Lelengo bostak dira gura ta gurazkuak izatez, edo borondatez, zeintzuk baga salbau ezin leiteke, itxiten baditu nagitasunez, edo ezetan ez eukiz; beste bijak dira borondatezkuak.

Lelengua Bautismua.

Bigarrena Konfirmaziñua.

Irugarrena Konfesiñua.

Laugarrena Komuniñua.

Bostgarrena Oliaziñua.

Seigarrena Ordia.

Zazpigarrena Matrimoniñua.

I. Ze gauza dira Sakramentuak?

E. Dira Jesukristo gure Jaunak itxiriko señaile agiri batzuk, euren bitartez emoteko guri bere grazija ta birtutiak.

I. Zer da grazija?

E. Da izate Jaungoikozko bat, zeñek egiten gaituzan Jaungoikuaren seme eta zeruko herederu edo jaubegei.

I. Ze birtute emoten dabe sakramentuak grazijagaz batera?

E. Batez bere iru jaungoikozkuak.

I. Zeintzuk dira?

E. Fedia, Esperantzia, eta Karidadia.

I. Zer da Fedia?

E. Ikusi ez doguna sinistutia, Jaungoikuak alan agertu dabelako.

I. Zer da Esperantzia?

E. Itxarotia zeruko gloriya, Jaungoikuaren laguntasunaren ta geure egite oneen bitartez.

I. Zer da Karidadia?



E. Jaungoikua ametia gauza guztijen ganian, ta geure projimuak geure buruak legez, eurai egiten deutsegula, eurak geuri egitia gurako gendukiana.

I. Zetarako da Batioko sakramentu santua?

E. Kenduteko jatorrizko pekatua, eta batiatua danak beste edozein baleuka bere.

I. Zer da jatorrizko pekatua?

E. Da jaijotzan dakarguna, zein jatorkun geure lelengo gurasuetatik.

I. Eta premiñako denporan, nok batiatu leike?

E. Edozeinbere gizakume, edo emakume, adimena daukanak.

I. Zelan batiatu biar da?

E. Ura botaten dala seiñaren buruaren ganera, eta esaten dala batiatuteko goguagaz: Nik batiatuten zaitudaz Aitiaren eta Semiaren eta Espiritu Santuaren izenian.

I. Zetarako da Konfirmaziñoko Sakramentu santua?

E. Batiuan artu genduan fedian indartu eta sendatuteko.

I. Eta adimenera eldu ezkerro Sakramentu santu au pekatu mortalian artuten dabenak, pekatu egiten ete dau?

E. Bai jauna, ta pekatu mortala.

I. Zer egingo dau bada artuten dabenian, pekatu ez egiteko?

E. Aurrez prestatu egiñik konfesiño on bat.

I. Zetarako da konfesiño sakramentua?

E. Batiatu ezkerro egiñiko pekatuak parkatuteko.

I. Ze pekatu dira orrek?

E. Mortalak, baitabere benialak.

I. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatia, egitia, pensetia, edo gura izatia zerbait Jaungoikuaren legiaren kontra gauza astunian.

I. Zegaitik deritxo mortala?

E. Ilten dabelako egiten dabenaren arimia.

I. Eta noz artuten dogu konfesiño sakramentu santua?

E. Ondo konfesauta, absoluzinua artuten dogunian.

I. Zeinbat gauza biar dira konfesiño on bat egiteko?

E. Bost gauza jauna.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengua alegiñaz egin dituzan pekatuak gogora ekartia.

Bigarra artutia damu bizi bat Jaungoikua ofendidu dabelako.

Irugarrena eukitia propositu sendo bat ez geijago pekatu egiteko, ta alde egiteko pekatu bide urreko, ta okasiñuetatik.

Laugarrena adierazotia pekatu mortal guztijak konfesoriarri, jakiñak jakiñak legez, dudakuak dudakuak legez, ez geitu, ez gitxitu bagarik.

Bostgarrena konfesoriarri emoten daben penitentsija kunpletia.

Laburrago:

Lelengua esamiña konfesiñakua.

Bigarra pekatuen damua.

Irugarrena propositua.

Laugarrena aozko konfesiñua.

Bostgarrena satisfaziñua.

I. Zer da esamiña konfesiñakua?

E. Egin dituzan pekatuak gogora ekartia.

I. Nundik egingo da esamiña?

E. Jaungoikuaren legeko amar mandamentuetatik, bost elexakuetatik, ta bakotzak bere estaduko obligaziñuetatik.

I. Damua zenbat modutakua da?

E. Modu bitakua: amodijozko, edo kontriziñokua bata; eta bildurrezko, edo atriziñokua bestia.

I. Zer da amodijozko edo kontriziñoko damua?

E. Da artutia damu bizi bat Jaungoikua ofendidu dabelako izanik ain ona, konfesetako, onduteko eta penitentsija kunpletitako goguagaz.

I. Zer da bildurrezko, edo atriziñoko damua?

E. Da eukitia damu bizi bat Jaungoikua ofendidu dabelako, edo pekatuaren ezaintasunagaitik; edo infernuaren bildurragaitik; edo zeruko gloriya galdu dabelako, konfesetako, onduteko, eta penitentsija kunpletitako goguagaz.

I. Damu bi oneetatik zein da oneena?

E. Amodijozko, edo kontriziñokua.

I. Zergaitik?

E. Kontriziñokua datorrelako amodijotik, eta atriziñokua bildurretik; kontriziñoko damuagaz konfesau baño lenago parkatuten dira pekatu mortalak, eta jarten da Jaungoikuaren grazijan; barriz atriziñokuagaz bakarrik ez dira alkantzetan mesede oneek.

I. Konfesiño ona egiteko asko ete da atriziñoko damua, ala biar ete da kontriziñokua?

E. Jakintsurik geijen geijenak diñue asko dala atriziñokua; baño obetuago eta ziurrago da eruatia kontriziñokua, eta au eukiteko alegiña egin biar dau konfesetan danak.

I. Noz euki biar da damua?

E. Konfesoriarri absoluziñua emon baño lenago.



I. Zer da Propositua?

E. Erabagi sendo bat ez inoz geijago Jaungoikua ofendietako pekatu mortalagaz.

I. Zer da aozko konfesiñua?

E. Da agertutia argiro konfesoriarri pekatu mortal guztijak; penitentzija kunplietako gogugaz.

I. Eta itxiten dabenak lotsaz konfesau baga pekatu mortalen bat; edo konfesetan dabenak egin ez daben pekatu andiren bat; edo konfesetan danak damu baga, propositu baga, edo penitentzija kunplietako borondate baga, konfesiño ona egiten ete dau?

E. Ez jauna, egiten dau sakrilejijoko pekatu mortal andi bat; eta konfesau biar ditu barriro len konfesauak, eta konfesau bagak; baitabere egin daben sakrilejijoko pekatua.

I. Eta nortzuk sinistu legije ez dabeela euki damurik, ez propositurik euren konfesiñuetan?

E. Pekatuko okasiñuetatik alde egiten ez dabeenak, eta konfesiño batetik bestera, lengo pekatuetan jausten dirianak.

I. Eta damu ta propositu egijazkua errazago eukiteko, zer egitia ondo izango da?

E. Konfesetara eldu baño lenago eskatu Jaungoikuari emon dagijozala bere laguntasunak erabili goguan aldi baten Jaunak egin deutzazan mesediak; edo bere pasiño ta erijotzia; edo bere ontasuna; eta bein eta geijagotan esan: Neure Jesukristo Jauna.

I. Zer da satisfaziñua?

E. Da pagetia Jaungoikuari pekatuakgaitik deutzan zorra, konfesoriarri iminten deutzan penitentzija betetan dabela.

I. Ze pekatu egiten dau penitentzija kunplietan ez dabenak, edo kunplidu baga luzaro daukanak?

E. Pekatu mortala, penitentzija andija bada.

I. Pagau ete giñaikijo Jaungoikuari pekatuen zorra, iminten jakun penitentzijagaz baño beste gauzagaz?

E. Bai jauna, Jaungoikuaren grazijan egiñiko obra on guztijakaz, eta induljenzijak irabazijagaz.

I. Ze gauza dira induljenzijak?

E. Grazija batzuk, zeintzuekgaitik parkatuten dan, pekatuak gaitik mundu onetan, edo bestian igaro biarko litzatekian penia.

I. Zelan irabaziko dira?

E. Egiñik Jaungoikuaren grazijan, onetarako aginduten dana.

I. Eta mundu onetan euren pekatuen zorra ez paketiagaitik purgatorijora duazanai, guk lagundu ete giñaikijue?

E. Bai jauna, geure pekatuen zorra pagau giñaikian obrakaz eurakaz.

I. Eta norbait pekatu mortalian jausten dan guztijan konfesau biar ete dau laster, parkatua izan dakijon?

E. Berariz aginduta ez badago bere, guztiz ondo litzateke alan egitia, Jaungoikuaren aserrian erijotza zorigaistoko batek atrapau ez dagijan; eta egiten dituzan obra onakaz ezer irabazi bagarik gelditu ez dedin. Euki egizu bada beti alan egiteko arduria.

I. Azkenengo konfesiñotik ona bakarrik pekatu benialak daukazanari, zer egitia ondo izango jako, damua ta propositua errazago eukiteko?

E. Konfesau lelengo oraiñengo konfesiñotik onako pekatu benialak, eta gero lengo bizitzako pekatu mortalen bat.

I. Zetarako da Sakramentu santu Komuniñokua?

E. Ondo prestuata artuten bada, izan dedin gure arimen janarija, eta geitu dagigun grazija.

I. Zergaitik diñozu: «Ondo prestauta artuten bada?»

E. Adierazoteko, Sakramentu santu au ez dala izango gure arimen janarija, artuten ez badogu biar dirian prestaerakaz, bai arimiaren aldetik, eta bai gorputzaren aldetik.

I. Ze prestaera biar da bada arimiaren aldetik?

E. Jaungoikuaren grazijan egotia.

I. Pekatu mortalian jausi dana, zelan prestauko da komulgetako?

E. Konfesiño on baten bitartez.

I. Konfesau ezkeru pekatu mortalen bat gogoratuten jakonak, zer egin biar dau?

E. Konfesau barriro komulgau baño lenago.

I. Gorputzaren aldetik ze prestaera biar da?

E. Egotia baraurik (komuniño santua ez danielan elexakuak artuteko) ezer jan, ez edan bagarik, igaro dan gaeko amabijetatik aurrera.

I. Komuniñoko sakramentu guztiz santuan, zer artuten dozu?

E. Jesukristo Jaungoiko ta gizon egijazko, altarako sakramentu santuan egijaz daguana.

I. Orrelan nor dago hostrijan konsagraziñoko berbak esan ezkeru?

E. Jesukristo gure Jaunaren gorputza bere odol, arima ta jaungoikotasunagaz batera.

I. Eta kalizan?

E. Jesukristoren odola bere gorputz, arima ta jaungoikotasunagaz batera.



I. Onelan Jesukristo guztija dago hostrijan, eta guztija kalizan?

E. Bai jauna, Jesukristo guztija dago hostrija guztijan, guztija hostri-jaren edozein zatitan eta bardin kalizian.

I. Eta konsagraziñoko berbak esan ezkeru ete dago hostrijan ogirik, edo kalizan ardaorik?

E. Ez jauna, ezpada ogijaren ta ardauaren irudijak, zeintzuk dirian usaiña, koloria, gustua.

I. Eta zatituten bada ostrija, edo erdibitu kalizan daguana, zatituten, edo erdibituten ete da Jesukristo?

E. Ez jauna, guztija osorik geldituten da zati guztijetan, eta bako-txian.

I. Eta komulgetan danak esan dirian prestaerak bagarik, artuten ete dau Jesukristo?

E. Bai jauna, baña bere kaltian, zergaitik eze egiten dau pekatu guz-tiz andi bat.

I. Eta euren onerako artuten dabeenak, zer egin legije esan danez ganera, alkantzau dagijezen onera andijaguak?

E. Komulgau baño lenago goguan erabili, nor dan eurakgana dato-rren Jauna, biztu euren bijotzetan fedia, itxaropena, eta karidadia, komul-gau humiltasun ta itzal andijagaz, eta gero emon eskerrak, Jesusek egin deuts en mesede ain andijagaitik.

I. Zetarako da Oliaziñoko sakramentu santua?

E. Iru gauzatarako.

I. Zeintzuk dira?

E. Lelengua lenagoko bizitza gaistoko errastu eta enparauak kendu-teko.

Bigarrena sendatuteko arimia diabruaren tentaziñoen kontra.

Irugarrena emoteko gorputzari osasuna arimiaren kaltian izango ezpada.

I. Adimenera elduta, ilteko arriskuan gaixorik dagozanak, artu biar ete dabe sakramentu santu au?

E. Bai jauna, eta pekatu mortala egiten dabe, al dabeela, artuten ezpadabe, edo artuten badabe pekatu mortalian.

I. Zer egingo dau bada, pekatu mortalian aurkituten danak, pretae-ra onagaz artuteko?

E. Konfesiño on bat egin, eta ezin balitz konfesau, prestau akto kon-triziñoko bat egiñagaz.

I. Zetarako da sakramentu santu Ordiakua?

E. Konsagretako eta ordenduteko elesgizon duiñak, zelan dirian sazerdotiak, ebanjelijokuak eta epistolakuak.

I. Elesgizonai, batez bere sazerdote jaunai gorde biar ete jake bera-rizko lotsa, itzal eta erreberenzija?

E. Bai jauna.

I. Zetarako da Matrimoniñoko sakramentu santua?

E. Ezkonduteko, eta emoteko grazija ezkonduai, euren artian bakian biziteko, eta seme alabak zerurako aziteko.

I. Eta sakramentu santu au ondo artuteko, ezkonduten dirianak egon biar ete dabe Jaungoikuaren grazijan?

E. Bai jauna, pekatu mortalaren beian.

I. Eta Jaungoikuaren grazijan ez dagozanak, zelan prestau biar dabe, ondo artuteko?

E. Konfesiño on bategaz.

PEKATU KAPITALAK DIRA ZAZPI

Lelengua Arrokerija.

Bigarrena Abarizija.

Irugarrena Loikerija.

Laugarrena Aserria.

Bostgarrena Gulerija.

Seigarrena Inbidija.

Zazpigarrena Nagitasuna.

I. Zergaitik deituten deutsezu kapitalak, geijenian mortalak esan oi jaken zazpi pekatu ai?

E. Deituten jake kapitalak dirialako buruak, euretatik jaijoten dirian beste pekatuen iturri eta sustraijak legez; ez jatorke barriz ain egoki mor-talen izena, bada askotan ez dira benialak baño.

I. Noz dira mortalak?

E. Jaungoikuaren eta projimuaren karidadiaren kontra dirianian.

I. Noz dira karidadiaren kontra?

E. Eurakaz austen danian Jaungoikuaren edo Elexa santiaren agin-duren bat gauza astunian.

I. Zer da arrokerija?

E. Bestiak baño geijago izateko gurari bidebagako bat.

I. Zer da Abarizija?

E. Da ondasunen gurari larregi bat.

I. Zer da loikerija?

E. Da aragijaren atsegin nabarmenen gurari bidebagako bat.



- I. Zer da aserria?
 E. Da bengetako gurari bidebagako bat.
 I. Zer da gulerija?
 E. Da jateko ta edateko gogo larregi bat.
 I. Zer da Inbidija?
 E. Besteen ona ikusi eziña.
 I. Zer da nagitasuna?
 E. Gauza onak egitian astun egotia.

ZAZPI PEKATU ONEEN KONTRA DAGOZ ZAZPI BIRTUTE

- Arrokerijaren kontra humiltasuna.
 Abarizijaren kontra prestutasuna.
 Loikerijaren kontra garbitasuna.
 Aserriaren kontra pazienzija.
 Gulerijaren kontra jan edanian begiratu izatia.
 Inbidijaren kontra karidadia.
 Nagitasunaren kontra prestatasuna.

IGES EGIN BIAR DEUTSEGUN ARIMAKO ARERIJUAK DIRA IRU

- Lelengua mundua.
 Bigarrena demoniñua.
 Irugarrena aragija.
 I. Zein da mundua?
 E. Dira mundutar gaisto ta deungak.
 I. Zein da demoniñua?
 E. Da Jaungoikuak zeruan egin eban aingeru bat; baña jaigi zalako Jaungoikuaren beraren kontra beste askogaz, bota eban infernuetara, bere gaistakerijako lagunakaz, zeintzuei deitzen deutsegu demoniñuak.
 I. Zein da aragija?
 E. Da geure gorputza bera, bera griña ta etsigitasun deungakaz.
 I. Zelan azpiratuten da mundua, ta iges egiten da beragandik?
 E. Bere andikerija ta arrokerijen desprezijoagaz.
 I. Zelan azpiratuten da demoniñua ta iges egiten da beragandik?
 E. Oraziñuagaz ta humiltasunagaz.
 I. Zelan azpiratuten da aragija ta iges egiten da beragandik?
 E. Laztasun, azote ta baruakaz: au da arerijorik andijena, zergaitik eze aragija ezin bota giñaike geugandik; mundua ta demoniñua bai.

BIRTUTE TEOLOGALAK EDO JAUNGOIKUAGANANTZ- KUAK DIRA IRU

- Lelengua Fedia.
 Bigarrena Esperantzia.
 Irugarrena Karidadia.
 I. Birtute oneek barriztau biar doguzan ezkeru, zelan egongo gara, onetan utsik egin baga?
 E. Errezaurik deboziñoiz eta sarritan (edozein kristiñuak egin biar daben legez) kredua, aita guria, eta bijotzetik esanagaz: Neure Jesukristo Jauna.

BIRTUTE KARDINALAK DIRA LAU

- Lelengua Prudenzija.
 Bigarrena Justizija.
 Irugarrena Sendotasuna.
 Laugarrena Tenplanzia.

GORPUTZEKO ZENTZUNAK DIRA BOST

- Lelengua begiakaz ikustia.
 Bigarrena belarriakaz entzutia.
 Irugarrena auagaz gustu artutia.
 Laugarrena surragaz usain egitia.
 Bostgarrena eskuakaz ukututia.
 I. Zetarako emon euskuzan Jaunogikuak zentzunak, eta gorputzeko beste zatijak?
 E. Guztijakaz gauza guztijetan bera serbidu giñaijan.

ARIMAKO ALMENAK DIRA IRU

- Memorija, adimena, ta borondatia.
 I. Zetarako emon euskun Jaungoikuak memorija?
 E. Akordau giñaitzean beragaz ta bere mesediakaz.
 I. Zetarako emon euskun adimena?
 E. Ezagutu giñaijan gure Jauna, eta bera goguan erabilli.
 I. Zetarako emon euskun borondatia?
 E. Ontasun osua legez maitetu dagigun, eta projimua beragaitik.
 I. Ze gauza da gure arimia, zeñenak dirian almen oneek?
 E. Da Jaungoikuak bere antz eta irudira egiñiko espiritu illezin bat.



ESPIRITU SANTUAREN DOIAK DIRA ZAZPI

Lelengua Iakiturijako Doia.
 Bigarrena Adimeneko Doia.
 Irugarrena Konseju oneko Doia.
 Laugarrena Ezauerako Doia.
 Bostgarrean Sendotasuneko Doia.
 Seigarrena Errukitasuneko Doia.
 Zazpigarrena Jaungoikuaren bildurreko Doia.

ESPIRITU SANTUAREN FRUTUAK DIRA AMABI

Lelengua Karidadia.
 Bigarrena Bakia.
 Irugarrena Bijotzeko anditasuna.
 Laugarrena Biguntasuna.
 Bostgarrena Fedia.
 Seigarrena Kontinenzija.
 Zazpigarrena Arimako poza.
 Zortzigarrena Pazienzija.
 Bederatzigarrena Ontasuna.
 Amargarrena Otsantasuna.
 Amaikagarrena Modestija.
 Amabigarrean Garbitasuna.

ZORIJONTASUNAK DIRA ZORTZI

1. Zorijonekuak bijotzetik pobre dirianak, eurena dalako zeruetako erreinua.
2. Zorijonekuak otsanak, eurak izango dirialako lurraren jaubiak.
3. Zorijonekuak negar egiten dabeenak, eurak izango dirialako poztuak.
4. Zorijonekuak onaren gose ta egarri dirianak, eurak izango dirialako asiak.
5. Zorijonekuak eurrukiorrak, eurak alkantzauko dabeelako errukija.
6. Zorijonekuak bijotz garbikuak, eurak ikusiko dabeelako Jaungoikua.
7. Zorijonekuak baketsuak, Jaungoikuaren semeen izena emongo jakeelako.
8. Zorijonekuak persekuziñoia daruenak onak dirialako, bada euren izango da zeruetako erreinua.
 - I. Zer esan dogu orain?
 - E. Zortzi zorijontasunak.
 - I. Ze gauza dira zortzi zorijontasunak?

E. Espiritu Santuaren birtute eta doien egitekorik onenak.
 I. Nortzuk dira bijotzetik pobriak?
 E. Lurreko andiuste, ta ondasunen guraririk ez daukeenak.

I. Nortzuk dira otsanak?
 E. Aserrerik ez daukenak ezta apurrik bere.
 I. Zelan izango dira lurraren jaube?
 E. Euren buruen jaube izanagaz.
 I. Nortzuk dira negar egiten dabenak?
 E. Deungak ez dirian atseginak bere itxiten dituezanak.
 I. Nortzuk dira onaren gosia ta egarrija daukenak?
 E. Alegiñez ezetan bere utsik egin gura ez leukenak.
 I. Nortzuk dira errukiorrak?
 E. Iñori bere on baño egin gura ezteutsenak.
 I. Zer da pekatu beniala?
 E. Pekatua mortalerako prestaera bat.
 I. Zergaitik deritxu beniala?
 E. Arin, au da, erraz gizona beratan jausten dalako, eta erraz parkatuten jakolako.

I. Zenbat gauzagaitik parkatuten jako?

E. Bederatzigaitik.

E. Zeintzuk dira?

E. Lelengua meza entzutiagaitik.

Bigarrena komulgetiagaitik.

Irugarrena: Ni pekatarija esatia gaitik.

Laugarrena Obispo jaunaren bedeinkaziñuagaitik.

Bostgarrena ur bedeinkatuagaitik.

Seigarrena ogi bedeinkatua jatiagaitik.

Zazpigarrena Aita guria esatiagaitik.

Zortzigarrena semoia entzutiagaitik.

Bederatzigarrena bularra jotiagaitik Jaungoikuari parka eske jaokala.

I. Zergaitik diñozu: «Jaungoikuari parka eske jaokala?»

E. Adierazoteko, alkantzauko bada gauza oneen bitartez pekatu benialen parkaziñua, euki biar dogula euren damu santuren bat.

I. Konfesau biar ete doguz pekatu benialak?

E. Ez da jauna premiñazkua; baño da gauza ona ta mesedegarrija.

I. Nortzuk dira bijotz garbikuak?

E. Euren barruko gurari deungak goituten dituezanak.

I. Nortzuk dira baketsuak?

E. Euren eta besteen arteko bakegillak.



I. Nortzuk dira onak dirialako persekuziñua daruenak?

E. Esetsirik gogorrenen artian beti sendo dagozanak.

I. Zergaitik deituten jake onei zorijontasunak?

E. Eurretan dagualako bizitza onetako zorijontasuna, eta bestekuaren itxaropena.

I. Zenbat dira gizonaren azkenak?

E. Lau.

I. Zeintzuk dira?

E. Erijotzia, juizijua infernua eta gloriya.

I. Zer da gloriya?

E. Da bizitza guztiz zorijoneko bat, zeñetan aurkituten dirian onera guztijak, gatzik batbere baga: infernuan dagozan legez gatz guztijak, onerarik batbere baga.

I. Infernutik libretako eta zeruko gloriya alkantzetako, zer egin biar dogu?

E. Gorde Jaungoikuaren agindu santuak.

I. Ete dagoz beste neurriren batzuk, errazago gordetako agindu santuak eta eurretan utsik ez egiteko?

E. Bai jauna.

I. Zeintzuk dira?

E. Sarritan konfesetia, ta komulgetia; goxian goxian Jaungoikuari eskiñitia egun atako lan, eta biarrak; egun guztijetan errosarijua errezetia; liburu onak irakurtia oraziño egitia; gabian gabian konzienzija esamiñetia; eta baten asko esateko, artutia konfesore jakintsu, on, begiratu, ta arduratsa bat, eta egitia berak aginduten deustan guztija.

IRAK. Ondo diñozu: zergaitik eze, San Franzisko Salesek diñuan legez, Konfesore on bat artutia da salbetako neurri guztijen neurrija. Egizu bada zuk bere alantxe; bada berak aingeru batek legez, zuzenduko zaitu irakatsi oneekaz eta beste biar dirianakaz, Jaungoikuaren agindu santuen bidetik, eldu zaitian Jaungoikua zeruko gloriyan ikustera, bada onetarako ekarri genduzan mundura. Jaunak ara eruan gaizala guztijok. Amen.

NI PEKATARIJA

Ni pekatarija konfesetan natxako Jaungoiko guztija daikianari, Andra Marija beti Birjiñiari, San Migel aingeruari, San Juan Bautistiari, San Pedro eta San Pablo

Apostoluai, santu guztijai, eta zeuri neure arimako aita egin dodala pekatu gogoz, berbaz eta obraz, neure erruz, neure erruz, neure erru

andijagaz. Orregaitik erregututen deustat Andra Marija beti Birjiñiari, San Migel aingeruari, San Juan Bautistiari, San Pedro eta San Pablo Apostoluai, santu guztijai, eta zeuri neure arimako aita, erregutu dagijozula nigaitik neure Jaun eta Jaungoikuari. Amen.

NEURE JESUKRISTO JAUNA

Neure Jesukristo Jauna, Jaungoiko ta gizon egijazkua, neure Egillia ta Salbagillia zariana zarialako, eta maite zaitudazalako gauza guztijen ganian, damu dot Jauna, damu dot bijotz guztitik zu ofendidua, artuten dot gogo sendo bat ez geijago pekatu egiteko, konfesetako, iminten jatan penitenzija kunpletako, eta pekatuko bide guztijetik alde egiteko. Opa deustaduz, Jauna, neure bizitza, egite, ta neke guztijak neure pekatu guztijen pagurako, eta uste dot zure ontasun, eta erruki amaibagan, parakatuko deustazuzala zeure odol guztiz balijotsu, pasiño, ta erijotziagaitik; eta emongo deustazuzala grazija onduteko, ta zeu serbietan irauteko neure erijotzako orduraño. Amen.

AZKENA



SAN JUAN APOSTOLUBAREN APOKALIPSISA

LELENGO KAPITULUBA

1. Jesukristoren Apokalipsisa, Jaungoikuak emon eutsana, laster jazo biar dabenak agertuteko bere serbitzarijai: eta ezagutueraso eutsana, bialdurik bere aingerubaren bitartez bere serbitzari Juani.

2. Zeñek emon eutsan autorreria Jaungoikuaren berbiari, eta Jesukristoren autorreria, ikusi zituzan guztijai.

3. Zorijonekua profezija onetako berbak irakurten ta entzuten dituzana: eta onetan eskribidurik dagozanak gordetan dituzana: zerren denporia urrian da.

4. Juanek Asijan dagozan zazpi eleshai. Grazija zubei, eta bakia dana gandik, zana gandik, ta etorriko dana gandik: eta aren tronubaren aurrian dagozan zazpi espiritubak gandik:

5. Eta Jesukristo gandik, zein dan autorgilla leijala, illetatik lelengo sortuba, eta lurreko erregeen andijena, zeñek maitetu genduzan, eta garbitu genduzan gure pekatubetatik bere odolian.

6. Eta egin gaitu Jaungoikuaren, ta bere Aitaren erreinu eta sazerdote: ari glorijsa, ta agintaritzia gizaldijen gizaldijetan: Alan izan dedilla.

7. Ona nun etorten dan odeijakaz, eta ikusiko dabe begi guztijak, eta bera zulatu ebenak. Eta bularrak joko ditube bera ikusijaz lurreko erri guztijak: Bai: Alan izan dedilla.

8. Ni naz alfa ta omega, asieria, ta amaija, diño Jaun Jaungoikuak: danak, eta zanak, eta etorriko danak, guztijalak.

9. Ni Juan zuben anaijsa, ta partilla naibagian, eta erreinuban eta igaropenian Jesukristogan: izan nintzan Patmos deituten jakon ugartian, Jaungoikuaren berbia gaitik, eta Jesusen autorreria gaitik:

10. Izan nintzan gogoz eruana domeka egun baten, eta entzun neban neure ondoren boz sendo bat tronpetiaren irudikua,

11. Ziñuana: Ikusten dozuna, eskribidu egizu liburu baten: eta bialdu egijezu zazpi eleshai, zeintzuk dagozan Asijan; Efeson, eta Esmirnan, eta Pergamon, eta Tiatiran, eta Sardisen, eta Filadelfijan, eta Laodizijan.

12. Eta biurtu nintzan berba egiten eustan boza ikusteko: ta biurtu nintzanean ikusi nituen zazpi urrezko kandeluru:

OROKORRAK



13. Eta zazpi urrezko kandeleruben erdijan gizonaren Semia lako bat, soñeko luze bategaz jantzirik, eta urrezko gerriko bategaz bularronduak loturik:

14. Aren buruba barriz, eta uliak zurijak ziran lana zurija legez, eta edurra legez; eta aren begijak su garra lakuak ziran:

15. Eta aren oñak zirudijen latoe zurija, laba gorrijan, eta aren berbak zirudijen ur andijen abarrotsa:

16. Eta eukazan bere eskumako eskuban zazpi izar: eta aren aotik ezpata batek alde bijetatik zorroztabak urtetan eban: eta aren arpegijak argi egiten dau eguzkijak bere indarrarian legez.

17. Eta ikusi nebanian, jausi nintzan aren oñetan illik legez. Eta imiñi eban bere eskumako eskuba nire ganian, ziñuala: Ez zaite bildur izan: ni naz lelunga, ta azkenengua,

18. Bizi nazana, eta izan naz illa, eta orra nun bizi nazan gizaldijen gizaldijetan, eta daukadaz erijotziaren giltzak, eta infernukuak.

19. Eskribidu egizuz bada ikusi dituzunak, eta diranak, eta jazo biar dabenak oneen ondoren.

20. Orra nire eskumako eskuban ikusi dituzun zazpi izarren ezkuta-pena, eta zazpi urrezko kandelerubena: zazpi izarrek dira, zazpi eleshen aingerubak: eta zazpi kandelerubak, zazpi eleshak dira.

BIGARREN KAPITULUBA

1. Eskribidu egijozu Efesoko eleshiaren aingerubari: oneek esaten ditu, daukazanaz zazpi izarrek bere eskumako eskuban, eta zazpi urrezko kandeleruben erdijan dabilenak:

2. Badakidaz zure egitadak, eta zure nekia, ta eruapena, ta ezin dituzula sufriu dongak: eta aztertu dituzula apostolu dirala esaliak, ez izanik: eta guzurti aurkitu dituzu:

3. Eta eruapena badaukazu, ta sufriu dozu nire izena gaitik, eta ez dozu ukatu.

4. Baña badaukat zertxubait esateko zure kontra, zure lelengo karidadia itxi dozula.

5. Gomuta zaite bada nundik jausi zarian: eta egizu penitentzija, eta egizuz leengo obrak. Zerren bestelan, etorten natxatsu, eta alde eragingo deusatz zure kandelerubari bere lekutik, ez badozu penitentzija egiten.

6. Baña au badozu, gorroto deutsezula Nikolaiten egitadai, zeintzubei nik ere gorroto deusedan.

7. Belarrija daukanak, entzun begi izpiritubak zer dirautsen eleshai: goituten dabenari emongo deusatz jaten bizitzako zugatzetik, zein dagan nire Jaungoikuaren paradisuban.

8. Eta Esmirnako eleshiaren aingerubari eskribidu egijozu: oneek esaten ditu lelungak, eta azkenak, ill zanak, eta bizi danak:

9. Badakit zure naibagia, eta zure premiñia, baña aberatsa zara: eta Judegubak dirala esaten dabenen gaizkijak, eta ez dira alan, baña bai Sata-nasen batzarra.

10. Ez euki igarotera zuazanen bildurrik. Orra nun diabrubak sartuko dituzan zubetariko batzuben presondegijan, tentadubak izateko: eta naibagia izango dozube amar egunian. Izan zaite leijala ill arteraño, eta emongo deusatz bizitzako koroia.

11. Daukanak belarrija, entzun begi zer dirautsen Espiritubak eleshai: goituten dabena, ez da bigarren erijotziak ukutuba izango.

12. Eta Pergamoko eleshiaren aingerubari eskribidu egijozu: Oneek esaten ditu daukanak ezpatia alde bijetatik zorroztaba:

13. Badakit nun zagozan, Satanasen jartokija dan lekuban: eta dauka-zu nire izena, eta ez dozu ukatu nire sinistia. Ez da egun areetan, zeintzubetan Antipas nire autorgilla leijala illa izan zan zuben artian, nun dagan Satanas.

14. Baña badaukat zure kontra zertxubait: badituzu or jarraituten deusenzak Balaamen irakatsijari, zeñek irakasten eutsan Balaki galbidia emoten Israelgo semiai, bidezko ez ziranak janerasoten, eta zikinkerijan nastuerasoten.

15. Alan daukazuz zuk bere Nikolaiten irakatsijari jarraituten deusenzak.

16. Egizu arren penitentzija: bestelan etorriko natxatzu beriala, eta gudaduko dot areekin neure aoko ezpatiagaz.

17. Daukanak belarrija, entzun begi zer esaten deusenz Espiritubak eleshai: Goituten dabenari emongo deusatz mana gordia, eta emongo deusatz arri zuri bat: eta arrijan izen barri bat eskribidurik, iñok ez dakijana artzalliak baño.

18. Eta Tiatirako eleshiaren aingerubari eskribidu egijozu: oneek esaten ditu Jaungoikuaren Semiak, zeñen begijak su garraren antzekuak diran, eta oñak latoe zurijaren irudikoak:

19. Ezagututen ditut zure egitadak, eta sinistia, eta zure karidadia, eta lanbidia, eta zure igaropena, eta zure azkenengo egitadak lelungak baño geijaguak.

20. Baña badaukat zure kontra zertxubait: itxiten deusatzula Jezabel, emakume igarlia dala berak diñoan bati, irakasten, eta neure serbitzarijak



engañetan, loikerijara oneek erakarten, eta Jaungoiko guzurrezkoai eskiñi-rikoetatik janerasoten.

21. Eta denporia emon deusat penitentzija egiteko: eta ez dau nai damutu bere zikinkerijaz.

22. Orregaitik ezarriko dot oian: eta aregaz naastau diranak, egongo dira naibagerik andijenian, ez badabe egiten euren egitaden penitentzija.

23. Eta aren semiak illgo ditut, eta jakingo dabe elesha guztijak, ni nazala errajen, eta bijotzen azterlarija: eta emongo deusat zubetariko bakotxari bere egitaden erara. Zubei barriz dirautsubet.

24. Eta beste Tiadiran zagozenai: Irakatsi oni jarraituten ez deuten guztijak, eta ezagututen ez ditubezanak Satanasen sakontasunak, areek diñuen legez, ez dot ezarriko zuben ganian beste kargarik:

25. Alanbere daukazubena gorde egizube ni natorren artian.

26. Eta goituten dabenari, eta nire azkeneko egitadak gordetan dituzanari, eskubidia emongo deusat errijen ganian.

27. Eta erabilliko ditu burdiñazko zigorragaz, eta lurrezko ontzi bat legez izango dira ausijak,

28. Nik bere artu neban legez neure Aita gandik: eta emongo deusat egunsentiko izarra.

29. Belarrija daukanak, entzun begi zer dirautsen Espiritubak eleshai.

IRUGARREN KAPITULUBA

1. Eta Sardisko eleshiaren aingerubari eskribidu egijozu: Oneek esaten ditu daukazanak Jaungoikuaren zazpi espiritubak, eta zazpi izarrak: Badakidaz zure egitadak, badozula bizi zarialako izena, eta illik zagozala.

2. Izan zaite iratzarrija, eta sendatu egizuz beste iltera juazanak. Zerren ez ditut aurkituten zure egitada betiak neure Jaungoikuaren aurrian.

3. Goguan bada artu egizu zer izan dozun, eta entzun, eta gorde egizu, eta egin penitentzija. Ez bazagoz barriz iratzarririk, etorriko natxatzu lapurra legez, eta ez dozu jakingo ze ordutan etorriko natxatzun.

4. Agaitik badituzu izen banaka batzuk Sardisen, euren soñekuak zikindu ez ditubezanak: eta ibilliko dira nigaz zuriz jantzirik, zeren duiñak diran.

5. Goituten dabena, onelan izango da zuriz jantzija, eta ez dot kendo areen izena bizitzako Liburutik: eta autortuko dot areen izena neure Aitaren aurrian, eta areen aingeruben aurrian.

6. Belarrija daukanak, entzun begi zer esaten deuten Espiritubak eleshai.

7. Eta eskribidu egijozu Filadelfijako eleshako aingerubari: Oneek esaten ditu Santubak eta Egijatijak, Dabiden giltza daukanak: zeñek idigiten dau, eta iñok ez dau itxiten: zeñek itxiten dau, eta iñok ez dau idigiten:

8. Badakidaz zure egitadak. Orra imiñi deusut aurrian ate idigija, iñok itxi ezin daikiana: indar gitxi daukazulako, eta gorde dozulako nire berbia, eta ez dozulako nire izena ukatu.

9. Orra nun emongo deusudan Satanasen batzarretik, Judegubak dirala esaten daben batzubek, eta ez dira alan, baña guzurra diñue: orra nun etorri-eragingo deusedan, eta belaunikotuko dira zure oñetan: eta jakingo dabe maite zaitudala.

10. Gorde dozulako neure igaropeneko berbia, nik bere gordeko zaitut tentaziñoko orduban, zein etorriko dan mundu guztira, lurrian bizi diranak probetara.

11. Orra nun natorren beriala: gorde egizu daukazuna, iñok artu ez dagijan zure korroia.

12. Goituten dabenagaz egingo dot abe bat neure Jaungoikuaren tenpluban, eta kanpora ez dau ostera urtengo: eta eskribiduko dot areen ganian neure Jaungoikuaren izena, eta neure Jaungoikuaren erriaren izena Jerusalem barriarena, zein jatsiten dan zerutik neure Jaungoikua gandik, eta neure izen barrija.

13. Daukanak belarrija, entzun begi zer esaten deuten Espiritubak eleshai:

14. Laodizijako eleshiaren aingerubari bere eskribidu egijozu: Oneek esaten ditu: Egijak, testigu leijalak eta egijazkuak, zein dan Jaungoikuaren eginen asieria.

15. Badakidaz zure egitadak: ez zariala ez otza, ez berua: arren bada baziña otza, edo berua:

16. Baña epela zarialako, eta ez otza, ez berua, asiko natxatzu jaurtigiten neure aotik.

17. Esaten dozulako: Aberatsa naz, eta ondasuntsua, eta ez naz iñoren biar eta ez dakizu zariala guztiz premiñatsua, eta zorigaiztokua, eta ezerbagia, eta itxuba, eta billosa.

18. Konsejetan zaitut erosi dagidazula sutan garbituriko urria aberastu zaitezana, eta jantzi dagizuzan soñeko zurijak, agertu ez dedin zure billostasunaren lotsarrija; eta begi uragaz igortzi egizuz zeure begijak ikusi dagizun.

19. Nik maite ditudanak zuzenduten ditut, eta kastigetana. Biztu zaite bada, eta egizu penitentzija.



20. Orra nun naguan atian, eta joten dot: baldin iñok entzuten badau nire boza, eta idigiten badeust atia, sartuko naz beragana, eta apalduko dot aregaz, eta arek nigaz.

21. Goituten dabenari, jarri-eragingo deusat neugaz nire tronuban: nik bere goitu neban legez, eta jarri nintzan legez neure Aitagaz tronuban.

22. Daukanak belarrija, entzun begi zer dirautsen Espiritubak eleshai.

LAUGARREN KAPITULUBA

1. Oneen ondoren ikusi neban: eta orra ate bat idigirik zeruban; eta lelengo entzun neban bozak, tronpeta bat legez niri berba egiten, esan eustan: Igon egizu ona, eta erakutsiko deusdaz gero jazo biar dabenak.

2. Eta beriala izan nintzan gogoz eruana: eta orra jarleku bat imiñirik eguan zeruban, eta jarlekuren ganian jarririk;

3. Eta jarririk eguana, zan jaspe ta sardonis arrijen irudikua: eta ustarku bat eguan jarlekubaren inguruan, esmeralduarenekua (sic).

4. Eta jarlekubaren inguruan ogeta lau jarleku: eta tronuben ganian ogeta lau zar jarririk,soñeko zuriz inguraturik, eta areen burubetan urrezko koroiak.

5. Eta tronutik urteten eben oñaztubak, eta diadarrak, eta trumono-tsak: eta egozan tronubaren aurrian zazpi argi bizturik, zeintzuk diran Jaungoikuaren zazpi espiritubak.

6. Eta tronubaren aurrian biderijozko itxaso bat legez kristalaren irudikua: eta jarlekubaren erdijan, eta jarlekubaren inguruban, lau abere begiz betiak aurretik eta atzetik.

7. Eta lelengo aberia zan leoiaren irudikua, eta bigarren aberia zan idiskuaren irudikua, eta irugarren aberiak eukan arpegi bat gizonaren irudikua, eta laugarren aberiak zirudijan egan doian arranua.

8. Eta lau aberiak eukezan seina ego: eta inguruban, eta barruban beterik egozan begiz: eta atsedetik artu baga gabaz ez egunaz,esaten eben: Santuba,Santuba,Santuba, Jaun Jaungoiko guztijala, zein zan, eta zein da, eta zein etorriko da.

9. Eta ziardubela abere arek glorija, eta ondria eta bedeinkaziñoia emoten jarririk eguanari tronubaren ganian, bizi danari gizaldijen gizaldijetan.

10. Auzpaz jausten ziran ogeta lau zarrak tronuban jarririk eguanaren aurrian, eta botaten zitubezan euren koroiak tronubaren aurrian ziñuela:

11. Duin zara, gure Jaun Jaungoikua, artuteko glorija, eta ondria, eta birtutia: zerren zuk egin dituzu guztijak, eta zure najagaz ziran, eta egiñak izan dira.

BOSTGARREN KAPITULUBA

1. Eta ikusi neban tronuban jarririk eguanaren eskumako eskuban, liburu bat barrutik eta kanpotik eskribidurik, eta zazpi sillugaz itxirik.

2. Eta ikusi neban aingeru errutsu bat, sendo diadar egiten ebal: Nor da duiñ liburuba zabaltzeko, eta sillubak kenduteko?

3. Eta iñok ezin eban, ez zeruban, ez lurrian, ez lurpian zabaldu liburuba, ez berari begiratu.

4. Eta ni negar erijuan nenguan, iñor ez zalako duin aurkitu, zabal-duteko liburuba, eta bera ikusteko.

5. Eta zarretatik batek esan eustan: Ez dagizula egin negarrik: orra irabazi dau Judaren tribuko leoiak, Dabiden sustraijak, liburuba zabaldu-tia, eta zazpi sillubak kendutia.

6. Eta ikusi neban: eta orra tronubaren eta lau abereen erdijan, eta zarren erdijan, Bildots bat zutunik illik legez, eukazana zazpi adar, eta zazpi begi: zeintzuk diran Jaungoikuaren zazpi espiritu, lur guztira bialdubak.

7. Eta etorri zan: eta artu eban liburuba tronuban jarririk eguanaren eskumako eskutik.

8. Eta zabaldu ebanian liburuba lau aberiak, eta ogeta lau zarrak auzpazu ziran Bildotsaren aurrian, eukezala bakotxak arpak, eta urrezko ontzi batzuk usain onez betiak, onek dira santuben erregubak:

9. Eta kantetan eben kanta barri bat, ziñuela: Duin zara, Jauna, liburuba artuteko, eta aren sillubak kenduteko: zerren illa izan zara, eta erosi gaituzu Jaungoikuarentzat zure odolagaz tribu, eta mintzoera, eta erri, eta erreinu guztitik:

10. Eta egin gaituzu gure Jaungoikoaren errege ta sazerdote: eta erreinauko dogu lurrian.

11. Eta ikusi neban, eta entzun neban aingeru askoren boza tronubaren, eta abereen, eta zarren inguruban: eta ziran milla millaka,

12. Diadar andijagaz ziñuenak: Duin da, illa izan dan Bildotsa, artuteko birtutia, eta Jaungoikotasuna, eta jakiturija, eta indarra, eta ondria, eta glorija, eta bedeinkaziñoia.

13. Eta zeruban, eta lurraren gañian, eta lurpian, diran guztijai, eta itxasuan, eta atan barruban diranai: guztijai entzun neutsen esaten: Tronuban jarririk daganari, eta Bildotsari:bedeinkaziñoia, eta ondria, eta glorija, eta ala gizaldijen gizaldijetan.

14. Eta lau aberiak esaten eben: Alan izan dedilla: Eta ogetalau zarrak auzpaz jausi ziran: eta adorau eben bizi dana gizaldijen gizaldijetan.



SEIGARREN KAPITULUBA

1. Eta ikusi neban Bildotsak idigi ebala zazpi sillubetatik bat, eta entzun neutsan lau abereetatik bati, esaten, trumonadiaren boza lako bategaz: Erdu, eta ikusi egizu.

2. Eta ikusi neban: eta orra zaldi zuri bat, eta aren gañian jarririk eguanak eukan ballesta bat: eta emon eutson koroe bat, eta abijau zan garaitzalla garaituteko.

3. Eta idigi ebanian bigarren silluba, entzun neutsan bigarren aberiarri esaten: Erdu, eta ikusi egizu.

4. Eta urten eban beste zaldi origorri batek: eta aren gañian jarririk eguanari, emona izan jakon, bakia lurretik kendutia, eta alkar iltia eta emon eutsen ezpata andi bat.

5. Eta idigi ebanian irugarren silluba, entzun neutsan irugarren aberiarri, esaten: Erdu, eta ikusi egizu. Eta orra zaldi baltz bat: eta aren gañian jarririk eguanak, eukan balantza bat bere eskuban.

6. Eta entzun neban boz bat leguez lau abereen artetik, esaten: Libra bi ogi diruban, eta iru libra garagar diruban, eta arduari, eta orijuari ez ukutu.

7. Eta idigi ebanian laugarren silluba, entzun neban laugarren aberiarren boza, esaten: Erdu, eta ikusi egizu.

8. Eta orra zaldi zurbil bat: eta aren gañian jarririk eguanak, eban izena Erijotzia, eta jarraituten eutsan infernubak, eta eskubidia emona izan jakon lurraren lau ertzetan, ilteko ezpatiagaz, gosetiagaz, eta erijotziagaz, eta lurreko pistijakaz.

9. Eta idigui ebanian bostgarren silluba: ikusi nituzan altarepian, Jaungoikuaren berbia gaitik, eta ekarri eutsen autorreria gaitik illak izan ziranen arimak,

10. Eta diadarrez zirauntzen sendo, ziñuela: Noiz artian, Jauna, santuba eta egijatija, ez dozu juzgetan, eta ez dozu bengetan gure odola lurrian dagozan areetatik?

11. Eta emonak izan jakezan soñeko zurijak: eta esana izan jaken itxaron egijela oraindik piska bat, bete artian eureen serbitzari lagunak, eta eurak legez illak izan biar dabenen aldria.

12. Eta ikusi neban idigi ebanian seigarren silluba: eta orra luikara andi bat izan zan, eta eguzkija baltzitu zan zurdazko zaku bat legez: eta illargi guztija odol biurtu zan:

13. Eta izarrak zerutik jausi ziran lurrera, pikonduak isuritzen dituban legez bere pikukak, ashe andi batek astinduten dabengan.

14. Eta zeruba batu zan liburu bat biribilduten dan legez: eta mendi guztjak, eta ugartiak euren lekubetatik jausi ziran:

15. Eta lurreko erregiak, eta andijenak, eta ejerzitubetako agintaririk, eta aberatsak, eta senduak, eta menpeko diran guztjak, eta jaubiak ezkutu ziran arzuluetan, eta mendijetako atx bitartetan:

16. Eta esaten deutse mendijai, eta atxai: Jausi zaiteze gure ganera, eta ezkutu gaizubez tronuban jarririk daganaren ikusbegitik, eta Bildotsaren aserretik:

17. Zerren eldu da areen aserriaren egun andija: eta nor egon leiteke zutunik?

ZAZPIGARREN KAPITULUBA

1. Oneen onduan ikusi nituzan lau aingeru zutunik lurraren lau ertzetan, lurreko lau ashiak eukezala, ibilli ez zitezen lurrian, ez itxasuan, ez zugatz batian bere.

2. Eta ikusi neban beste aingeru bat igoten eguzkijaren urteeratik, zeñek eukan Jaungoiko bizijaren señalía: eta sendo diadar egin eutsen lau aingerubai, zeintzubei eskubidia emona

jaken lurrari, ta itxasuari kalte egiteko.

3. Zirautsela: Ez egin kalterik lurrari, ez itxasuari, ezta zugatzai, markau daiguzan artian gure Jaungoikuaren serbitzarijak euren bekokijetan.

4. Eta entzun neban markauben zenbata, eun eta berrogueta lau milla markaubak: Israelgo semeen tribu guztitik.

5. Judaren tributik amabi milla markaubak: Rubenen tributik amabi milla markaubak: Saden tributik, amabi milla markaubak:

6. Aserren tributik amabi milla markaubak: Neptaliren tributik amabi milla markaubak: Manaseren tributik amabi milla markaubak:

7. Simeonen tributik amabi milla markaubak: Lebien tributik amabi milla markaubak: Isakarren tributik amabi milla markaubak:

8. Zabulonen tributik amabi milla markaubak: Joseren tributik, amabi milla markaubak: Benjaminen tributik amabi milla markaubak.

9. Oneen ondoren ikusi neban aldria andi bat, iñok kontau ezin leikiana erreinu, eta tribu, eta erri, eta berbeta guztijetatik, zutunik tronubaren aurrian, eta Bildotsaren ikusbegijan, soñeko zuriz estaldurik, eta palmak euren eskubetan.

10. Eta sendo diadar egiten eben ziñuela: Agur gure Jaungoiko, tronuban jarririk daganari, eta Bildotsari.



11. Eta aingeru guztijak egozan zutunik tronubaren, eta zarren, eta lau aberen inguruban: eta auzpaz jausi ziran tronubaren aurrian, eta adorau eben Jaungoikua,

12. Ziñuela, Bai Bedeinkaziñoia, eta ospia, eta jakiturija, eta eskerra, eta ondria, eta birtutia, eta indarra gure Jaungoikuari gizaldijen gizaldijetan, Alan izan dedilla.

13. Eta erantzun eustan zarretatik batek, eta esan eustan: Nortzuk dira soñeko zuriz jantzirik dagozan orreek? Eta nundik etorri dira?

14. Eta esan neutsan: Neure Jauna, zuk dakizu. Eta esan eustan: Oneek dira, etorri diranak naibage anditik, eta euren soñekuak garbitu ditubezanak, eta eurak zuritu Bildotsaren odolian.

15. Agaitik dagoz Jaungoikuaren tronubaren aurrian, eta serbieten dabe gau ta egun aren tenpluban: eta tronuban jarririk daguana, egongo da aren gañian.

16. Ez dabe goserik, ez egarririk izango geijago, eta ez ditu joko eguzkijak, ez beste beroerrek:

17. Zerren Bildots, tronubaren erdijan daguanak, zainduko ditu, eta ots egingo deutse bizitzako iturri uretara, eta liortuko ditu Jaungoikuak malko guztijak areen begijetatik.

ZORTZIGARREN KAPITULUBA

1. Eta idigi ebanian zazpigarren silluba, ishildu zan zeruba, ordu erdi baten inguruban.

2. Eta ikusi nituzan Jaungoikuaren aurrian dagozan zazpi aingerubak; eta emonak izan jakezan zazpi tronpeta.

3. Eta beste aingeru bat etorri zan, eta gelditu zan altariaren aurrian intzentzonarijo bat eukala: eta emon jakozan intzentzo asko, ezarri egizan santu guztijen erregubetatik urrezko altariaren gañian, zein dan Jaungoikuaren tronubaren aurrian.

4. Eta igon eban intzentzuen keiak santuben erregubakaz egiñak aingerubaren eskutik Jaungoikuaren aurrera.

5. Eta artu eban aingerubak intzentzonarijua, eta bete eban altarako sutatik, eta jaurtigi eban lurrera, eta egin zan trumonots, eta diadar, eta oñaztu, eta luikara andija.

6. Eta zazpi aingeru, zazpi tronpetak eukezanak, prestatu ziran tronpetak joteko.

7. Eta lelengo aingerubak jo eban tronpetia, eta egin zan txingor, eta su, odolagaz naastauba, eta ezarriak izan ziran lurrera, eta lurraren iruga-

rran partia erre zan, eta zugatzen irugarren partia kiskaldu zan, eta bedar berde guztija erre zan.

8. Eta bigarren aingerubak jo eban tronpetia: eta mendi andi bat lako bat sugarretan jaurtigija izan zan itxasora, eta itxasuaren iru garren partia odol biurtu zan.

9. Eta ill zan itxasuan bizija euken krijaturetatik irugarren partia, eta ontzijen irugarren partia galdu zan.

10. Eta irugarren aingerubak tronpetia jo eban: eta jausi zan zerutik izar andi bat, su garretan zuzi bat legez, eta jausi zan ibaijen irugarren partera, eta iturri uretara:

11. Eta izarraren izena da Asentzijua; eta uren irugarren partia asentzijo biurtu zan: eta gizon asko ill zan ur areekaz, garrastu ziralako.

12. Eta laugarren aingerubak tronpetiari ots eragiten ziarduban: eta jua izan zan eguzkijaren irugarren partia, eta illargijaren irugarren partia, eta izarren irugarren partia, aillagiña ze illundu zan areen irugarren partia, eta ez eutsan oneen irugarren partiak argirik emoten egunari; ezta bardin gabari.

13. Eta ikusi neban, eta entzun neban zerubaren erditik egan joian arrano baten boza, zeñek diadar egiten eban sendo: zori-gaistokuak, zori-gaistokuak, zorigaistokuak, lurrian dagozanak, beste iru aingeru tronpetak jo biar ditubezanak gaitik.

BEDERATZIGARREN KAPITULUBA

1. Eta bostgarren aingerubak jo eban tronpetia: eta ikusi neban izar bat jausi zala zerutik lurrera eta emona izan jakon lezako pozubaren giltza.

2. Eta idigi eban lezako pozuba: eta igon eban pozuko keijak, su laba andi batenak legez: eta illunduba izan zan eguzkija, eta aizia pozuko keijagaz:

3. Eta pozuko keetik urten eben langostak lurrera, eta emona izan jaken ala, lurreko lupubak dauken lako ala:

4. Eta izan jaken aginduba ez egijuela kalterik egin lurreko bedarra-ri, ez berde zan gauzari, ez zugatz bati bere; ezipada bakarrik Jaungoikuaren señalía euren bekokijetan ez dauken gizonai:

5. Eta eskubidia emona izan jaken, ez eurak ilteko: baña oñazetuteko bost illez: eta areen miñak ziran lupubak gizona jaten dabenian lako miñak.

6. Eta egun areetan gizonak billatuko dabe erijotzia, eta ez dabe aurkituko: eta ill naiko dabe, eta erijotziak iges egingo deutse.



7. Eta langostak lako arek zirudijen zaldi gudarako prestaubak: eta areen burubetan egozan koroiak lako batzuk, urrezkoen irudikoak: eta euren arpegija gizon arpegija lakua zan.

8. Eta eukezan uliak emakumeen irudikuak; eta euren agiñak leoien agiñak zirudijen:

9. Eta eukezan lorikak burdiñazko loriken irudikuak, eta areen egüen abarrotsak zirudijan arin gudara doian zaldi aldra baten abarrotsa:

10. Eta eukezan buztanak lupuben irudikuak, eta eztenak egozan areen buztanetan: eta areen ala gizonai kalte egiteko bost illez: eta euken euren gañian

11. Erregetzat leza andiko aingeruba, zeñen izena da Ebreoz Abaddon, Grijeguz barriz Apollion, Latinez da Exterminans.

12. Zorigatx bat igaro da, eta orra nun datozan oraindik zorigatx bi areen ondoren.

13. Eta seigarren aingerubak jo eban tronpetia: eta entzun neban boz bat Jaungoikuaren Begijen aurrian dagan urrezko altariaren lau adarretatik,

14. Esaten seigarren aingeru tronpetadunari: Askatu egizak Eufratesko ibai andijan loturik dagozan lau aingerubak.

15. Eta askatubak izan ziran lau aingerubak, zeintzuben egozan prestatuak ordurako, eta egunerako, eta illerako, eta urterako: gizonen irugarren partia ilteko.

16. Eta zaldizko ejerzitubaren aldria ogei milla bidar amar milla. Eta entzun neban euren zenbata.

17. Eta onelan ikusi nituzan zaldijak ikusaldijan: eta areen gañian jarririk egozanak, eukezan suzko jazintozko, eta sufrezko lorikak, eta zaldijen burubak ziran leoien burubak lakuak: eta areen aotik urteten eban subak, eta kejjak, eta sufriak.

18. Eta illa izan zan gizonen irugarren partia iru izurri oneekin, areen aotik urteten eben su, eta ke, eta sufriaz.

19. Zerren zaldijen ala areen auan dago, eta areen buztanetan.

Zerren areen buztanak sierpeen irudikuak dira, daukez burubak, eta arekin kalte egiten dabe.

20. Eta izurri oneekaz illak izan ez ziran beste gizonak, ez eben artu euren eskuben egitaden damurik, eta ez eutsen itxi diabrubak, eta urrezko, eta zidarrezko, eta metalezko, eta arrizko, eta zurezko irudijak adoretari, zeintzuben ezin legijen ez ikusi, eta ez entzun, eta ezin leitekezan ibilli.

21. Eta ez eben egin penitentzija euren gizon ilte, ez satarritze, ez euren nasaikerija, eta ez euren lapurretakgaitik.

AMARGARREN KAPITULUBA

1. Eta ikusi neban beste aingeru sendo bat zerutik jatsiten odejez inguraturik, eta ustarku bat burubaren gañian, eta aren arpegija zan eguzkija legez, eta aren oñak suzko abe batzuk legez:

2. Eta eukan eskuban liburutxu bat zabaldurik: eta imiñi eban eskumako oña itxasuaren ganian, ezkerrekua barriz lurraren ganian:

3. Eta diadar egin eban sendo, leoiak egiten daben orroia legez. Eta diadar egin ebanian, zazpi trumonadak euren berbak adierazo zitubezan.

4. Eta adierazo zitubezarian zazpi trumonadak euren berbak, ni eskribietara niñoian: eta entzun neban boz bat zerutik niri esaten: Sillutu egizuz zazpi trumonadak adierazuak, eta ez dagizuzala eurak eskribidu.

5. Eta itxasuaren, eta lurraren ganian zutunik ikusi neban aingerubak, jaso eban bere eskuba zeruruntz:

6. Eta juramentu egin eban gizaldijen gizaldijetan, bizi dana gaitik, zeruba eta atan dagozanak, eta lurra eta atan dagozanak, eta itxasua eta atan dagozanak egin zituzana gaitik: Denporarik ez dala izango gejjago.

7. Ezpada zazpigarren aingerubaren bozaren egunetan, tronpetia asi dedinian adierazoten, kunpliduko dala Jaungoikuaren misterijua, ezagutueragin eban legez bere serbitzari profeten bitartez.

8. Eta entzun neban boz bat zerutik barriri niri berba egiten, eta esaten: Zuaz, eta artu egizu liburu zabaldua itxasuaren ganian, eta lurraren ganian zutunik dagan aingerubaren eskutik.

9. Eta jua nintzan aingeruba gana, eta esan neutsan, emon egidala liburuba. Eta esan eustan: Artu egizu liburuba eta iruntzi egizu: eta garraztueragingo deutsa zure sabelari, baña zure auan gozua izango da eztija leguez.

10. Eta artu neban liburuba aingerubaren eskutik, eta iruntzi neban: eta nire auan gozua zan eztija legez.

11. Eta esan eustan: Biar deutsezu oraindik egija adierazo erreinubai, eta errijai, eta mintzoerai eta errege askori.

AMAIKAGARREN KAPITULUBA

1. Eta emona izan jatan kañabera bat zigor baten irudikua, eta esana izan jatan: Jagi zaite, eta neurtu egizu Jaungoikuaren tenpluba, eta altaria, eta an adoretan diardubenak.

2. Ataija barriz, tenplutik kanpora daguana, bego kanpuan, eta ez dagizula a neurtu: zerren itxija jake arrotzai, eta erri santuba zapalduko dabe berrogeta bi illa betian:



3. Eta eskubidia emongo deutset neure autorgilla bijai, eta egija adierazoko dabe milla berreun eta irurogei egunian, zakuz jantzirik.
4. Oneek dira olibo bi, eta kandeleru bi, lurraren Jaunaren aurrian dagozanak.
5. Eta norbaitek gatzik egin nai badeutse, suak urtengo dau areen aotik, eta arrasauko ditu areen arerijuak: eta norbaitek min emon nai badeutse, onela arek illa izan biar dau.
6. Oneek dauke eskubidia zeruba itxiteko, egin ez dagijan euririk oneen profezijetako egunetan: eta eskubidia dauke uren ganian areek odol biurtuteko, eta lurra joteko nai daben guttijan.
7. Eta amaituten dabenian euren autorrerija, leza anditik igoten daben pistijiak, gudan jardungo dau oneen kontra, eta goituko ditu, eta illgo ditu.
8. Eta areen gorputzak etzunik egongo dira Sodoma, eta Egipto irudipenez deituten jakon erri andiko plazetan, nun areen Jauna bere izan zan kurutzian ultzez josija.
9. Eta tribu, eta erri, eta mintzoera, eta erreinubetako askok, ikusiko ditube areen gorputzak iru egun eta erdijan: eta ez dabe itxiko areen gorputza obijetan sartuten
10. Eta lurrian bizi diranak poztuko dira areen illtiagaz, eta olgauko dira: eta alkarri eskintsarijak bialduko deutsez, zerren igarla bi areek oñazetu zituezan lurrian bizi ziranak.
11. Eta iru egun, eta erdiren ondoan, bizitzako arnasia Jaungoikua-gandik sartu zan areetan. Eta zutundu ziran euren oñen ganian, eta izu andi batez artu zituban areen ikuslak.
12. Eta entzun eben boz andi bat zerutik, arei esaten: Igon egizube ona. Eta igon eben zerura odei baten: eta ikusi zitubezan areen arerijuak.
13. Eta ordu atan egin zan luikara andi bat, eta errijaren amargarren partia jausi zan: eta illak izan ziran luikaran zazpi milla gizon: eta bestiak izubak arturik egon ziran, eta gloriya emon eutsen zeruko Jaungoikuari.
14. Bigarren zoritxarra igaro da: eta orra irugarren zoritxarra laster etorriko dana.
15. Eta zazpigarren aingerubak jo eban tronpetia: eta boz andijak entzunak izan ziran zeruban, eta ziñuen: Mundu onetako nagusitasuna, gure Jaunarena, eta aren Kristorena egiña izan da; eta errege izango da gizaldijen gizaldijetan: Alan izan dedilla.
16. Eta ogeta lau zarrak, Jaungoikuaren aurrian euren jarlekubetan jarririk dagozanak, jausi ziran auzpaz, eta adorau eben Jaungoikua, ziñuela:

17. Eskerrak deutzuguz, Jaun Jaungoiko guztijala, zariana, eta ziñana, eta etorriko zariana: artu dozulako zure indar andija, eta jaubetu zarialako.

18. Aserratu dira erreinubak, baña zure aserraldija eldu da, eta denporia illak juzgetako, eta sariya emoteko zure serbitzari profetai, eta santubai, eta zure izenaren bildur diranai, txikijai eta andijai; eta lurra zikindu dabenak arrasatuteko.

19. Eta zabaldu zan Jaungoikuaren tenpluba zeruban, eta ikusi zan areen alkartasuneko utxia, eta egin zan oñaztu, eta diadar, eta luikara, eta arrite andija.

AMABIGARREN KAPITULUBA

1. Eta ikusgarri andi bat agertu zan zeruban: Emakume bat eguzkijaz inguraturik, eta aren oinpetan illargija, eta aren buruban amabi izarrezko koroe bat.

2. Eta seindun egonik, diadarrez zirauntzan seinmiñetan, eta oñazetuten zan seiña egiteko.

3. Eta ikusi zan beste ikusgarri bat zeruban: eta orra dragoe andi origorri bat, zeñek zituban zazpi buru, eta amar adar: eta aren burubetan zazpi koroe,

4. Eta aren buztanak ekarren zeruko izarren irugarren partia, eta jaurtigi zituzan lurrera, eta dragoia gelditu zan seimiñetan eguan emakumiaren aurrian: seiña egiten ebanian, aren semia iruntziteko.

5. Eta egin eban sein bat semia, zeñek zuzenduko ditu erreinu guttihak burdiñazko zigorragaz: eta eruana izan zan aren semia Jaungoikua gana, eta aren tronura.

6. Eta emakumiak iges egin eban eremura nun eukan leku bat Jaungoikuak prestaurek an azija izateko milla berreun eta irurogei egunian.

7. Eta izan zan guda andi bat zeruban: Migelek eta aren aingerubak gudan ziarduben dragoiaren kontra, eta dragoiak ziarduban gudan, eta aren aingerubak bere:

8. Eta ez eben goitu, eta ez zan aurkitu aren lekurik geijago zeruban.

9. Eta jaurtigija izan zan dragoe andi a, sierpe zarra, Diabruba, eta Satanas deituten jakona, mundu guztija engañetan dabena: eta jaurtigija izan zan lurrera, eta aren aingerubak aregaz jaurtigijak izan ziran.

10. Eta entzun neban boz andi bat zeruban esaten: Orain bete da salbaziñua, eta indarra, eta gure Jaungoikuaren erreinuba, eta aren Kristoren ala: jaurtigija izan dalako gure anajen salatzaillia, zeñek salatuten zituzan gure Jaungoikuaren aurrian gau ta egun.



11. Eta oneek goitu dabe a, Bildotsaren odolagaz, eta bere autorre-riaren berbiagaz, eta ez ditube euren bizitzak maitetu erijotziari iges egi-teraiño.

12. Agaitik poztu zaiteze, zerubak, eta an dagozanak. Zorigaistokuak lurra, eta itxasua, zuek gana jatsi dalako diabruba aserre andijagaz, jakiñik denpora gitxi daukala.

13. Ikusirik dragoiak jaurtigija izan zala lurrera, eraso eutsan semia egin eban emakumiari.

14. Eta emonak izan jakozan emakumiari arrano andi baten ego bi, egan egijan eremura bere egonlekura, nun azija dan denporan eta denpo-retain, eta denpora erdijan sierpiaren ikusbidetik.

15. Eta jaurtigi eban sierpiak bere aotik emakumiaren ondoan, ur ibai bat legez, ibaijak bera ekarrierazua izateko.

16. Eta lagundu eutsan lurra emakumiari, eta zabaldu eban lurra bere aua, eta irunsi eban dragoiak bere aotik jaurtigitako ibaija.

17. Eta aserratu zan dragoia emakumiaren kontra: eta jua zan gudan egitera aren odoleko besteen kontra, zeintzuek gordetan ditubezan Jaun-goikuaren agindubak, eta dauken Jesukristoren autorreria.

18. Eta gelditu zan itxasoko ondarran.

AMAIRU GARREN KAPITULUBA

1. Eta ikusi neban pistija bat itxasotik igoten, zazpi buru eukazana, eta amar adar, eta amar adarren ganian amar koroe, eta aren buruben ganian blasfemijazko izenak.

2. Eta ikusi neban pistijak zirudijan leoiarria, eta aren oñak artzaren erpiak lakuak ziran, eta aren aua leoiaren aua lakua. Eta dragoiak emon eutsan bere indarra, eta al andija.

3. Eta ikusi neban aren burubetatik bat jorik zirudijala iltera joiala: eta aren erijotzako zaurija sendatu zan. Eta lur guztija mirariturik jarri zan pistijaren ondoren.

4. Eta adorau eben dragoia, zeñek emon eutsan ala pistijari: eta ado-rau eben pistijia, ziñuela: Nor da pistijaren irudikua? Eta nok gudatu leike aregaz?

5. Eta emona izan jakon ao bat destaña eguiten eta blasfemijetan ebana: eta emon izan jakon dongaro egiteko ala berrogeta bi illa betian.

6. Eta idigi eban aua, Jaungokiua blasfemetako, eta aren izena, eta aren egolekuba, eta zeruban dagozanak blasfemetako.

7. Eta emona izan jakon santubai gerra egitia, eta areek goitutia. Eta eskubidia izan eban tribu, eta erri, eta berbakuntza, eta erreñu guztijen ganian,

8. Eta adorau eben lurrian egozan guztijak: zeintzuben izenak ez dagozan eskribidurik mundubaren asieratik illa izan dan Bildotsaren bizi- tzako Liburuban.

9. Iñok baldin badauka belarririk, entzun begi.

10. Besterik katigarijora daroiana, bera katigarijora juango da: ezpa- taz illtzalliak, biar dau izan ezpataz illa. Emen da santuben igaropena, ta fedia.

11. Eta ikusi neban beste pistija bat lurretik igoten, eta eukazan adar bi Bildotsaren irudikuak, eta berba egiten eban dragoiak legez.

12. Eta lelengo pistijaren al guztija egiten eban aurrian: eta lurriari, eta atan egozanai, adorau eragin eutsen lelengo pistijia, zeñen eri- jotzako zaurija sendatuba izan zan.

13. Eta egin zituzan gauza izugarri andijak, subari jatsi eragiteraño zerutik lurrera gizonen aurrian.

14. Eta engañau zituzan lurrian egozanak, pistijaren aurrian egitia gaitik emon izan jakon gauza miragarriak esanik lurrian bizi ziranai, egin dagijela ezpatiaren zaurija eukirik bizi dan pistijaren irudi bat.

15. Eta ala izan eban bizija emoteko pistijaren irudijari, eta pistijia- ren irudijari berba eragiteko: eta egiteko pistijaren irudija adoretan ez eben guztijak, illak izan ditezela.

16. Eta guztijai txikijai, eta andijai, eta aberatsai, eta ezeukijai, eta uga- zabai, eta menpekuai artu eragingo deutse señaile bat euren eskumako eskuban, edo euren bekokijetan:

17. Eta egingo dau iñok erosi, edo saldu ezin daikiala, ez baldin badauka pistijaren señailea, edo izena, edo aren izenaren zenbata.

18. Emen dago jakiturija. Daukanak adiña, kontau begi pistijaren zenbata. Zerren gizon baten zenbata da: eta aren zenbata seireun eta iru- rogeta sei.

AMALAU GARREN KAPITULUBA

1. Eta ikusi neban: eta orra Bildotsa eguan zutunik Siongo mendija- ren ganian, eta beragaz eun eta berrogeta lau milla, aren izena, eta aren Aitaren izena eruaten ebenak euren bekokijetan eskribidurik.

2. Eta entzun neban abarrots bat zerutik, ur andijen abarrotsaren irudikua: eta entzun neban abarrotsa zan, arpararijak arpan diardubenia lakua.



3. Eta kantetan eben kantu barri bat legez jarlekubaren aurrian, eta lau abereen, eta zarren aurrian, eta iñok ezin eukian esan kantia, <eta> eun eta berrogeta lau milla, lurretik erosijak izan ziran areek baño.

4. Oneek dira emakumiakin zikindu ez ziranak: zerren dontzellak dira. Oneek Bildotsari jarraituten deutse noranai jua dedilla. Oneek erosijak izan dira gizonetatik lenenak Jaungoikuarentzat, eta Bildotsarentzat,

5. Eta areen auan ez da aurkitu guzurrik: alan orbanik бага dagoz Jaungoikuaren tronubaren aurrian.

6. Eta ikusi neban beste aingeru bat zerubaren erdijaren ganetik egan, Ebangelijo betikua eukala, irakasteko lurrian egozanai, erreinu, eta tribu, eta berbakuntza, eta erri guztijai:

7. Esaten ebala diadar andijagaz: Jaunaren bildur izan zaiteze, eta emon egijozube ondria, zerren badator aren juizijoko orduba, eta adorau egizube, zeruba, eta lurra, eta itxasua, eta iturri urak egin dituzana.

8. Eta beste aingeru bat ondoren etorri zan, esaten ebala: Jausi da, jausi da Babilonija andi a: zeñek bere zikinkerijako kolerako ardaa edan eragin deutse erreinu guztijai.

9. Eta irugarren aingeru bat agertu zan areen ondoren, esaten ebala diadar andijagaz: Iñok adorauko baleu pistijia, eta aren irudija, eta señalía artu bere bekokijan, edo bere eskuban:

10. Arek bere edango dau Jaungoikuaren aserreko ardaotik, aren aserreko ontzijan garbi prestauba izan danetik, eta izango da tormentauba subagaz eta sufriagaz aingeru santuben aurrian, eta Bildotsaren aurrian:

11. Eta areen oñazeen keiak igongo dau gizaldijen gizaldijetan: eta ez dauke atsedenek gau ez egun, pistijia, eta aren irudija adorau ebenak, eta iñok aren izenaren señalía artu beban.

12. Emen dago, Jaungoikuaren agindubak eta Jesuen fedia gordetan daben santuben igaropena.

13. Eta entzun neban boz bat zerutik, niri esaten: Eskribidu egizu: Zorijonekuak illak, Jaunagan ilten diranak. Oraindanik diño Espiritubak, atsedek dagijela euren nekeetatik, zerren euren obrak jarraituten deutse.

14. Eta ikusi neban eta orra odei zuri bat: eta odeijaren ganian jarri-rik gizonaren semiaren irudiko bat, zeñek eukan urrezko koroe bat buruban, eta eskuban igitai zorrotz bat.

15. Eta beste aingeru batek urten eban tenplutik, diadar eguiñaz odeijaren ganian jarri-rik eguanari: Sartu egizu zure igitaija, eta igitaitu egizu, zerren etorrija da igitaituteko orduba, eldu diralako lurreko abuz- tubak.

16. Eta sartu eban odeijaren ganian jarri-rik eguanak, bere igitaija lurrian, eta ebagija izan zan lurra.

17. Eta beste aingeru batek urten eban zeruban daguan tenplutik, eukala arek bere igitai zorrotz bat.

18. Eta beste aingeru batek urten eban altaratik, arek eskubidia eukan subaren ganian: eta diadar egin eutsan sendo igitai zorrotza eukanari, ziñuala: Erabilli egizu zure igitai zorrotza, eta ebagi egizuz lurreko masti-ko morduak: zerren eldubak dagoz ango matsak.

19. Eta sartu eban aingerubak bere igitai zorrotza lurrian, eta batu zituzan lurreko matsak, eta jaurtigi zituzan Jaungoikuaren aserreko pozu andijan:

20. Eta zapalduba izan zan pozuba erritik kanpuan, eta urten eban odolak pozutik zaldijen bridetaraño milla eta seireun estaduren bidartian.

AMABOSTGARREN KAPITULUBA

1. Eta ikusi neban beste señalie andi, eta ikaragarri bat zeruban: zazpi aingeru, azkenengo zazpi izurrijak eukezanak: areetan amaituten da Jaungoikuaren aserria.

2. Eta ikusi neban biderijozko itxaso bat lakua subagaz nastaubak, eta pistijaren, eta aren irudijaren, eta aren izeneko zenbataren garaitzallak, egozala itxasuaren ganian Jaungoikuaren arpakin:

3. Eta kantetan eben Moises Jaungoikuaren serbitzariaren kantia, eta Bildotsaren kantia, ziñuala: Andijak eta miragarriak dira zure obrak Jaun Jaungoiko guztijala: zuzenak eta egjazkuak dira zure bidiak, gizaldijen Erregia.

4. Nor ez da zure bildur izango, Jauna, eta nok ez dau andituko zure izena? Zerren zu bakarrik zara bijotz biguna: erreiñu guztijak etorriko dira, eta adorauko dabe zure aurrian, agirijak diralako zure juizijuak.

5. Eta gero ikusi neban, eta orra nun idigi zan zeruban autorrerako bizilekuko tenpluba:

6. Eta urten eben tenplutik zazpi izurrijak eukezan aingerubak, liño-ko soñeko garbi, eta zuriz jantzirik, eta urrezko gerrikoz bularrak loturik.

7. Eta lau abereetatik batek emon eutsezan zazpi aingerubai zazpi urrezko ontzi, Jaungoiko gizaldijen gizaldijetan bizi danaren aserrez betiak.

8. Eta tenpluba keez bete zan Jaungoikuaren anditasuna gaitik eta aren ala gaitik: eta iñor ezin zatekian sartu tenpluban, zazpi aingeruben zazpi izurrijak igaro artian.



AMASEI GARREN KAPITULUBA

1. Eta entzun neban boz andi bat tenplutik, esaten zazpi aingerubai: zuaze, eta isuri egizubez Jaungoikuaren aserriaren zazpi ontzizak lurrera.
2. Eta juan zan lelengua, eta isuri eban bere ontzija lurrera, eta etorri zan zauri andi eta ezin dongagoa pistijiaren señalia euken gizonak gana, eta aren irudija adorau ebenak gana.
3. Eta bigarren aingerubak isuri eban bere ontzija itxasora, eta jarri zan ill baten odola legez: eta bizi ziran guztizak ill ziran itxasuan.
4. Eta irugarrenak isuri eban bere ontzija ibaijetara, eta iturri uretara, eta odol biurtu ziran.
5. Eta entzun neutsan uretako aingerubari esaten: Zuzena zara, Jauna, zariana, eta ziñana: Santuba, erabagi onak emon dituzuna:
6. Isuri ebelako santuben, eta profeten odola, emon deutsezu odola edaten: zerren merezi eban.
7. Eta entzun neutsan beste bati altaratik esaten: Bai, Jaun Jaungoiko guztijala, egijazkuak dira, eta zuzenak zure erabagizak.
8. Eta laugarren aingerubak isuri eban bere ontzija eguzkijaren ganian, eta emona izan jakon gizonak beruaz tormentetia, eta subaz.
9. Eta kiskaldu ziran gizonak bero andijagaz, eta blasfemau eban Jaungoikua, izurri oneek bialduteko eskubidia deukana, eta ez ziran damuban sartu ari glorija emoteko.
10. Eta bostgarren aingerubak isuri eban bere ontzija pistijiaren jarlekuban: eta aren erreinuba illundu zan, eta jan zitubezan euren miiñak miñez:
11. Eta blasfemau eban zeruko Jaungoikua euren miñ, eta zaurijen artian, eta ez ziran damutu euren egitadakaz.
12. Eta seigarren aingerubak isuri eban bere ontzija Eufratesko ibai andi atara: eta agortueraso eutsan aren urari, bidia egiteko eguzkijaren urteerako erregiai.
13. Eta ikusi nituzan dragoiaren aotik, eta pistijiaren aotik, eta igarla paltsuaren aotik iru espiritu zikin urtetan ugarasijuen irudijan.
14. Zerren eurak dira demoniuen espiritubak gauza ikaragarrijen egilliak, eta duaz lur guztiko erregeak gana, areek gudarako batutera, Jaungoiko guztijalaren egun andirako.
15. Orra nun natorren lapurra legez. Zorijonekua iratzarririk daguana, eta soñekuak gordetan dituzana, billosik ibilli ez dedin, eta ikusi ez dagijen bere itxustasuna.
16. Eta batuko ditu Ebreoz Armagedon deituten jakon lekuban.

17. Eta zazpigarren aingerubak isuri eban bere ontzija airera, eta adierazo izan zan boz andi bat tenplutik tronuko aldetik, ziñuana: Egin da.

18. Eta egin ziran oñaztubak, eta diadarrak, eta trumonotsak, eta luikara bat izan zan, iñoz gizonak lurraren ganian ziran ezkerero, izan ez dana alako luikara andirik.

19. Eta uri andija egin zan iru zatitan: eta erreinubetako erriyak jausi ziran. Eta Babilonija andija gogora etorri jakon Jaungoikuari, ari edaten emoteko bere aserre sumiñeko arduaren edanontzija.

20. Eta ugarte guztizak iges eban, eta mendizak ez ziran aurkitu.

21. Eta txingor andi bat talentuba lakua jausi zan zerutik gizonakgana: eta blasfemau eban Jaungoikua gizonak arrizko izurrija gaitik: zerren izugarriko andija zan.

AMAZAZPI GARREN KAPITULUBA

1. Eta etorri zan zazpi ontzizak eukazan zazpi aingerubetatik bat, eta berba egin eustan, ziñuala: Erdu, erakutsiko deusut ur andijen ganian jarririk dagoan bordion andijaren kondenaziñoia,

2. Zeñegaz nastau diran lurreko erregiak, eta orditu diran lurrian bizi diranak bere zikinkerijako ardauagaz.

3. Eta eruan ninduban gogoz eremu batera. Eta ikusi neban emakume bat jarririk pistija gorri baten ganian, zein eguan blasfemijazko izenez beterik, eta zeñek eukazan zazpi buru, eta amar adar.

4. Eta emakumia inguraturik eguan purpuraz, eta eskarlataz, eta urrez, eta arri baliotsuz, eta perlaz apaindurik, eta eukan bere eskuban edanontzi bat, itxuskerijaz, eta bere zikinkerijako gorrotagarri beterik:

5. Eta bere bekokijan izen bat eskribidurik: Misterijua: Babilonija andija, zikinkerijen, eta lurreko itxuskerijen ama.

6. Eta ikusi neban emakumia orditurik santuben odolagaz, eta Jesusen martirijen odolagaz. Eta izutu nintzan bera ikusijaz arrigarriro.

7. Eta esan eustan aingerubak: Zergaitik mirarrituten zara? Neuk esango deusut emakumiaren egija estalduba, eta bera daroian pistija zazpi buru, eta amar adar daukazanarena.

8. Ikusi dozun pistijia, izan da, eta ez da, eta igongo dau lezatic, eta iltera juango da: eta izutuko dira lurrian bizi diranak, zeintzuben izenak ez dagozan eskribidurik bizitzako Liburuban mundubaren asieratik, ikusijaz pistijia bazala, eta orain ez dala.

9. Eta au da esaeria, zeñetan daguan jakiturija. Zazpi burubak dira zazpi mendizak, zeintzuben ganian jarririk daguan emakumia, baita bere zazpi errege dira.



10. Bost jausi dira, bat badago, beste bat ez da oraindik etorri: eta etorri dedinian, biar dau arek gitxi egon.

11. Eta pistija zana, eta ez dana: bera da zortzigarrena: eta zazpiretatikua da, eta iltera dua.

12. Eta ikusi dituzun amar adarrak, amar errege dira, zeintzuek erreñurik ez dabe oraindik izan, baña eskubidia errege legez ordu baten izango dabe pistijaren ondoren.

13. Oneek asmo bat dauke, eta euren indar, eta ala emongo deutse pistijarai:

14. Oneek Bildotsagaz gudaduko dira, eta Bildotsak goituko ditu: zerren jaunen Jauna da, eta erregeen Erregia, eta aregaz dagozanak, deitubak, autubak, eta lejalak.

15. Eta esan eustan: Ur ikusi dituzunak, non bordiona jarririk dagan, erriak dira, eta erreinubak, eta berbakuntzak.

16. Eta pistijari ikusi deusazuzan amar adar: arek gorrotauko dabe zikiña, eta imiñiko dabe galduba, eta billosa: aren aragijak jango ditula, eta bera sutan erreko.

17. Zerren Jaungoikuak ezarri deutse bijotzian, egin dagijela arek nai dabena: emon dagijuen euren erreinuba pistijari, bete ditezen artian Jaungoikuaren esanak.

18. Eta ikusi dozun emakumia, da erri andija, zeñek daukan agintaritzia lurreko erregeen ganian.

AMAZORTZIGARREN KAPITULUBA

1. Eta gero ikusi neban beste aingeru bat, al andija eukana, jatsiten zerutik: eta lurra argituba izan zan aren glorijaz:

2. Eta diadar egin eban sendo, esaten ebal: Jausi da, jausi da Babilonija andija: eta egin da diabruben egontokija, eta espiritu loi guztijen igeslekuba, eta egazti zikin, ta gorrotagarri guztijen zuloa.

3. Zerren bere aserreko zikinkerijaren ardaotik edan eben erri guztijak: eta lurreko erregiak aregaz nastau ziran: eta lurreko merkatarijak aberastu ziran aren gozamen larregijaren kostuz.

4. Eta entzun neban beste boz bat, esaten: Urten egizu ortik, neure errija: ez zaitez izan aren gaistakerijetan partill, eta ez dagizun artu aren izurrietatik.

5. Zerren eldu dira aren pekatubak zerurano, eta gomutau da Jaungoikua aren gaiztakerijakaz.

6. Biurtu egjiozube emon deusuben legez: eta emon egjiozube birritan bere egitaden erara: eskiñi deusuben edanontzijan, edan eragin egjiozube birritan.

7. Zenbat goratu zan, eta gozatu, ainbeste gatx eta negarbide emon egjiozube: zerren esan dau bere bijotzian: jarriko nago erregiña: eta ez naz alarguna: eta ez dot ikusiko negarbiderik.

8. Orregaitik egun baten etorriko dira aren gatxak, erijotzia, eta negarrak, eta gosetia, eta sutan erreko da: zerren errutsuba da bera juzgauko daben Jaungoikua.

9. Eta negar egingo dabe, eta uluka jardungo dabe bera gaitik, bera-gaz nastau, eta atsegiñetan bizi izan diran lurreko erregiak, ikusten dabean aren erretieren keia:

10. Eta urrin dagozala aren oñazeen bildurrez, esango dabe: Zorigaistokua, zorigaistokua Babilonija uri andi a, uri sendo a: onelan ordu baten barruban etorri dok ire galdupena.

11. Eta lurreko merkatarijak negar egingo dabe, eta ulu aren ganian, zerren areen salgejjak iñok ez ditu erosiko gejjago:

12. Urrezko, eta zidarrezko, eta arri balijotzuzko, eta perlazko, eta liño meezko, eta purpurazko, eta sedazko, eta eskarlatazko salgejjak, eta usainonezko zur guztijak, eta marfillezko ontzi guztijak, eta arri balijotzuzko, eta brontzezko, eta burdiñazko, eta marmolezko ontzi guztijak,

13. Eta kanelia, eta usainonak, eta ugentubak, eta intzetzua, eta ardaia, eta orijua, eta urun loria, eta garija, eta zamarijak, eta ardijak, eta zaldijak, eta burdijak, eta esklabuak, eta gizonen arimak.

14. Eta ire arimiaren gogoko frutak jua dituk igandik, eta gauza gizen, eta ederrak, galdu jakazak, eta ez jitungek eurak gejjago aurkituko.

15. Oneen merkataria aberastubak, beragandik urrin egongo dira aren oñazeen bildurrez, negarrez, eta zizpuruz,

16. Esaten dabela: Zorigaistokua, zorigaistokua erri andi a, liño mez, eta purpuraz, eta eskarlataz estaldurik eguana, eta urrez, eta arri balijotzuz, eta perlaz apaindurik.

17. Zelan ordu baten barruban ezereztu ziran ainbeste aberastasun, eta piloto guztijak, eta itxasuan dabiltzan guztijak, eta mariñelak, eta itxasuan lanian diardubenak, urrun egon ziran,

18. Eta diadar egin eben ikusijaz aren erretieren lekuba, ziñuela: zein izan da uri andi onen bardin?

19. Eta jaurtigi eben autsa euren buruben ganera, eta deadar egin eben negar, eta ulubakaz, ziñuela: zorigaistokua, zorigaistokua uri andi a,



zeñetan aberastu ziran itxasuan ontzizak eukezan guztizak aren ondasunetik: zelan ordu baten barruban eremu egin zan.

20. Poztu zaite zeruba, eta apostolu santubak, eta profetak: zerren bengau eban Jaungoikuak zuben juizijua aren kontra.

21. Eta aingeru sendo batek jaso eban arri bat errotarri andi bat lakua, eta jaurtigi eban itxasora, ziñuala: Onelako bultzakadiagaz jaurtigi-ja izango da Babilonijako uri andija, eta ez da geijago aurkituko.

22. Eta arparijen, eta kantarijen, eta txilibitarijen, eta tronpetarijaren boza ez dok entzungo igan geijago: eta inñolazko ofizijoko langillarik ez dok igan aurkituko geijago: eta errotarijaren otsik ez dok geijago entzungo igan.

23. Eta argizagijaren argizak ez jok igan argi egingo geijago: eta senar emazteen bozik ez dok entzungo geijago igan: zerren ire merkatarijak jitian lurreko andijenak, zerren ire sorginkerijakaz engañaubak izan jitian erri guztizak.

24. Eta beragan aurkituko da profeten eta santuben odola: eta lurrian illak izan ziran guztijena.

EMERETZIGARREN KAPITULUBA

1. Oneen onduan entzun neban aldra andi baten boza lako bat zeruban esaten: Alleluia: Agurra, eta gloriya, eta indarra gure Jaungoikuarentzat dira:

2. Zerren egijazkuak dira, eta zuzenak aren juizijuak, juzgau ebalako bordion andija, bere zikinkerijan lurra usteldu ebana; eta bengau eban aren eskubetatik bere serbitzarijen odola.

3. Eta barrero esan eben: Alleluia. Eta aren keiak igoten dau gizaldijen gizaldijetan.

4. Eta lurreratu ziran ogeta lau zarrak, eta aberiak, eta adorau eben tronuban jarririk daguen Jaungoikua, ziñuela: Amen: Alleluia.

5. Eta boz batek urten eban tronutik, ziñuanak: Goratu egizube gure Jaungoikua, bere serbitzari guztizak: eta bere bildur zareenak, txikizak eta andizak.

6. Eta entzun neban aldra andi baten boza lako bat, ur andijen otsa zirudijana, eta trumonada andijen orroia lakua, esaten ebana: Alleluia: erreinau dabelako gure Jaun Jaungoiko guztizaljak.

7. Poztu gaitean, eta gozatu: eta emon dagijogun gloriya: zerren eldu dira Bildotsaren ezteubak, eta aren ezkongea prestatu da.

8. Eta emona izan jakon jantzija izatia liño me argitsu, eta zurijagaz. Zerren liño mezko jantzija santuben egitada zuzenak dira.

9. Eta esan eustan: Eskribidu egizu: Zorijonekuak Bildotsaren ezteubetako aparira deitubak diranak: Eta esan eustan: Jaungoikuaren berba oneek egijazkuak dira.

10. Eta jausi nintzan bere oñetara, bera adoretako. Eta esan eustan: Begira egizu ez dagizula egin: zure serbitzari laguna naz, eta Jesusen autorrerria dauken zure anaijena, Jaungoikua adorau egizu. Zerren Jesusen autorrerria da profezijako espirituba.

11. Eta ikusi neban zeruba idigirik, eta orra zaldi zuri bat, eta aren ganian jarririk eguanari, deituten jakon Leijala, eta Egijatija, eta zuzentagaz juzgetan dau, eta gudaduten da.

12. Aren begizak barriz ziran su garraren irudikuak, eta buruban eukazan koroe asko, eta eukan izen bat eskribidurik, inñok ez dakijana berak baño.

13. Eta jantzirik eguan soñeko odoldu bategaz: eta arek eban izena: Jaungoikuaren Berbia.

14. Eta zeruban dagozan ejerzitubak, jarraituten eutsen zaldi zurijetan, liño mezko soñeko zuriz, eta garbiz jantzirik.

15. Eta bere aotik urtetan eban ezpata batek alde bijetatik zorroztabak, aregaz errijak joteko. Eta berak zuzenduko ditu burdiñazko zigorragaz: eta Jaungoiko guztizalaren aserre sumiñeko dolaria berak zapalduten dau.

16. Eta dauka eskribidurik bere soñekuan, eta bere isterrian: Erregeen Erregia, eta jaunen Jauna.

17. Eta ikusi neban beste aingeru bat eguzkijan zutunik, eta diadar egin eban sendo, esaten eutsela zerubaren erdijaren ganian egan ebiltzan egazti guztizai: Erdube, eta batu zaiteze Jaungoikuaren aparti andira:

18. Jan dagizubezan erregeen aragizak, eta ejerzitubetako agintarijen aragizak, eta senduen aragizak, eta zaldijen, eta oneetan jarririk dagozanen aragizak, eta ugazaben, eta menpekuen, eta txikijen, eta andijen aragizak.

19. Eta ikusi nituban pistijia, eta lurreko erregeiak, eta areen ejerzitubak baturik, gudan jarduteko zaldijan jarririk eguanagaz, eta bere ejerzitubagaz.

20. Eta atrapauba izan zan pistijia, eta beragaz guzurrezko igarlia: bere aurrian gauza izugarrijen egillia, zeintzubekaz engañau zituzan pistijaren markiaren artzalliak, eta bere irudijaren adoratzalliak. Bizirik jaurtigizak izan ziran oneek bijok ishioturik dagan suzko pozura.

21. Eta bestiak illak izan ziran, zaldijan jarririk eguanaren aotik urtetan eban ezpatiagaz: eta egazti guztizak ase ziran areen aragizakaz.



OGEIGARREN KAPITULUBA

1. Eta ikusi neban aingeru bat jatsiten zerutik, zeñek eukan lezako giltza, eta kate andi bat bere eskuban.

2. Eta artu eban dragoia, sierpe antxiñakua, zein dan diabruba, eta Satanas, eta lotu eban milla urterako:

3. Eta sartu eban lezan, eta itxi eban, eta sillutu eban bere ganian ez egizan geijago erreinuban engañau, milla urte bete artian: eta gero azkatuba biar dau denpora piska baterako.

4. Eta ikusi nituzan jarlekubak, eta jarri ziran areen ganian, eta emona izan jaken juzgetako eskubidia: eta Jesusen autorrerria gaitik eta Jaungoikuaren berbia gaitik, buru moztubak izan ziranen arimak, zeintzuben ez eben pistijia adorau, ez da aren irudija, ez artu aren señalia euren bekokijetan, edo eskubetan, eta bizi izan ziran, eta erreñau eben Jesukristogaz milla urtian.

5. Beste illak ez ziran bizi milla urtiak bete artian. Au da lelengo biztuera barrija.

6. Zorijonekua, eta santuba, partill dana lelengo biztuera barrijan: areekgan bigarren erijotziak ez dauka eskubiderik: ezpada Jesukristoren sazerdote izango dira, eta errege izango dira aregaz milla urtian.

7. Eta bete ditezenian milla urtiak, azkatuba izango da Satanas bere presondegitik, eta urtengo dau, eta engañauko ditu lurraren lau egaletan diran erriak, Gog, eta Magog, eta batuko ditu gudarako; areen zenbata da itxasoko ondaria legez.

8. Eta zabaldu ziran lurraren zabaleran, eta inguratu eben santuben batzarlekuba, eta uri maitia.

9. Eta jatsi zan suba zerutik Jaungoikuagandik, eta irunsi zituzan: eta diabruba, areen engañatzallia, jaurtigija izan zan suzko, eta sufrezko pozura, nun pistijia bere,

10. Eta guzurrezko igarlia izango dira oñazetubak gau ta egun gizaldijen gizaldijetan.

11. Eta ikusi neban tronu andi zuri bat, eta atan jarririk eguana, zeñen aurretik iges egiten daben lurrak, eta zerubak, eta areen lekurik ez zan aurkitu.

12. Eta ikusi nituzan illak, andijak eta txikijak, tronubaren aurrian zutunik: eta liburubak zabalduak izan ziran: beste Liburu bat bere zabaldua izan zan, zein dan bizitzakua: eta juzgaubak izan ziran illak liburutubetan eskribidurik egozanetatik, euren egitaden erara.

13. Eta itxasuak emon zituzan atan egozan illak: erijotziak bere, eta infernubak emon zitubezan euren illak, areetan egozanak: eta juzgaubak izan ziran baktotxa bere egiteen erara.

14. Eta infernuba, eta erijotzia botaak izan ziran suzko pozura. Au da bigarren erijotzia.

15. Eta aurkitu ez zana bizitzako Liburuban eskribidurik, jaurtigija izan zan suzko pozura.

OGETA BAT GARREN KAPITULUBA

1. Eta ikusi nituzan zeru barrija, eta lur barrija. Zerren lengo zeruba eta lengo lurra juan ziran, eta itxasorik ez da geijago.

2. Eta nik Joanek ikusi neban uri santuba Jerusalem barrija zerutik jatsiten Jaungoikua gandik, jantzirik ezkonbarrija bere senarrentzat apainduten dan legez.

3. Eta entzun neban boz andi bat tronutik esaten: Orra Jaungoikuaren bizilekuba gizonakaz, eta egongo da arekaz. Eta eurak izango dira aren errija, eta Jaungoikua bera izango da areekin areen Jaungoikua:

4. Eta sikatuko ditu Jaungoikuak malko guztijak areen begijetatik: eta ez da izango geijago erijotzarik, ez bijotzmiñik, ez diadarrik, ez eta naibagerik ez da geijago izango, zerren lelenguak juan ziran

5. Eta esan eban tronuban jarririk eguanak: Orra, barrijak egiten ditut guztijak. Eta esan eustan: Eskribidu egizu, berba oneek osoro sinisgarrijak dira, eta egijazkuak.

6. Eta esan eustan: Egin da. Ni naz alfa eta omega: asiera eta amaija. Nik egarri danari emongo deusatz bizitzako uraren iturritik, duarik.

7. Goituten dabenak, oneek eukiko ditu, eta aren Jaungoikua izango naz, eta bera nire seme izango da.

8. Bildurtijak barriz, eta sinistebagiak, eta madarikatubak, eta gizon eralliak, eta zikiñak, eta satarriemolak, eta Jaungoiko paltsuen adoratzalliak, eta guzurti guztijak, oneek partill izango dira suz, eta sufrez ishioturiko pozuan: au da bigarren erijotzia.

9. Eta etorri zan ontzizak azken izurritz beterik eukazan zazpi aingerebetatik bat, eta berba egin eustan, ziñuala: Erdu, eta erakutsiko deusatz ezkonbarrija Bildotsaren emaztia.

10. Eta gogoz eruan ninduban mendi andi, eta goratu batera, eta erakutsi eustan erri santuba Jerusalem jatsiten zerutik Jaungoikuagandik,

11. Jaungoikuaren argijagaz ederturik: eta aren argija arri balijotsubaren irudikua jaspe arrijaren antzekua, kristala lakua.



12. Eta eukan muralla andi, eta altu bat, zeñek eukazan amabi ate: eta atetan, amabi aingeru, eta izenak eskribidurik, zeintzuk diran Israelgo semeen amabi tribuben izenak.

13. Eguzkijaren urteeratik iru ate: eta ifarraldetik iru ate: eta egoal-detik iru ate: eta sartaldetik iru ate.

14. Eta erriko muralliak eukazan amabi zimentu, eta amabi aretan, Bildotsaren amabi Apostoluben izenak.

15. Eta nigaz berba egiten ebanak, eukan urrezko kañaberazko neurri bat, urija, eta bere atiak, eta murallia neurtuteko.

16. Eta urija lau kantoitan eginik eguan, eta aren luzeeria zan zabale-ria edu: eta neurtu eban errija urrezko kañaberiagaz, eta aurkitu zituzan amabi milla estadu: eta luzeeria, eta altueria, eta zabaleria bardiñak dira.

17. Baita bere neurtu eban aren murallia, zeñek eukazan eun eta berrogeta lau beso, gizon neurrija, au da aingerubarena.

18. Eta muralla a eginik eguan jazpe<ren> arriz: urija bera barriz urre garbija biderijo argijaren irudikua.

19. Eta uriko murubaren zimentubak arri balijotsu guztiz edertubak ziran. Lelengo zimentuba zan jaspia: bigarrena, zafirua: irugarrena, kalzedoniua: laugarrena esmeraldia:

20. Bostgarrena, sardonika: seigarrena, sardiua: zazpigarrena, krisolitu-ua: zortzigarrena, berilua: bederatzigarrena, topaziua: amargarrena, krisopasiua: amaikagarrena, jazintua: amabigarrena, amatistia.

21. Eta amabi atiak, amabi perla dira, bakotxa bat: ate bakotxa perla bakotx bat zan: eta uriko plazia urre garbija zan, biderijo argi argi baten irudikua.

22. Eta tenplurik ez neban an ikusi. Zerren aren tenpluba da Jaun Jaungoiko guztijala, eta Bildotsa.

23. Eta urijak ez dauka eguzkijaren, ez illargijaren biarrik argituba izateko. Zerren Jaungoikuaren argitasunak argituten dau, eta aren argitzal- lia da Bildotsa.

24. Eta ibilliko dira erri guztijak aren argijan: eta lurreko erregiak eka- rriko deutse euren glorijs, eta ondria.

25. Eta aren atiak ez dira itxiko egunez, ez da bere izango an gaurik.

26. Baita ekarriko dabe ara errijen glorijs, eta ondria.

27. Ez da an sartuko ezer zikindurik, eta itxuskerijaren egillarik, ez guzur esalerik, ezpada Bildotsaren bizitzako liburuban eskribidurik dago- zanak.

OGETA BIGARREN KAPITULUBA

1. Eta erakutsi eustan ur bizijaren ibaija, kristala baxen argija, Jaun- goikuaren eta Bildotsaren jarlekutik urteten.

2. Ango plaziaren erdijan, eta ibaijaren alde bijetatik dago bizitzako zugatza, zeñek ekarten ditu amabi frutu, eta ill bakotxian emoten dau bere frutia, eta zugatzaren ostruak erreinubak osatuteko dira.

3. Eta madarikaziñorik ez da izango geijago: ezpada Jaungoikuaren, eta Bildotsaren jarlekubak an dira, eta aren serbitzarijak serbiduko dabe.

4. Eta ikusiko dabe aren arpegija: eta aren izena areen bekokijetan izango da.

5. Eta gaurik geijago ez da izango: eta ez dabe eukiko kandela argi biarrik, zerren Jaun Jaungoikuak argituko ditu, eta errege izango dira gizaldijen gizaldijetan.

6. Eta esan eustan: Berba oneek osoro sinisgarrijak dira, eta egijaz- kuak. Eta Jaunak igarlen espirituben Juangoikuak bialdu dau bere ainge- ruba erakustera bere serbitzarijak zek eldu biar daben laster.

7. Eta ona banator laster. Zorijonekua, liburu onetako profezijaren berbak gordetan dituzana.

8. Eta ni naz Juan oneen entzulia, eta ikuslia. Eta entzun, eta ikusi ondoan, lurreratu nintzan adoretako, oneek erakutsi eustazan aingeruba- ren oñetan:

9. Eta esan eustan: Begira egizu ez dagizula egin: zerren zure serbi- tzari laguna naz, eta zure anaija igarlana, eta liburu onetako profezijako berbak gordetan ditubezanena: Jaungoikua adorau egizu.

10. Eta esan eustan: ez sillutu liburu onen profezijako berbak: zerren urrian da denporia.

11. Gatx egiten dabenak, gatx egin begi oraindik: eta zikinkerijan daguana zikindu bedi oraindik: eta justuba dana, justutu bedi oraindik: eta garbija dana, garbitu dedilla oraindik.

12. Ona banator laster: eta nire sarija nigaz da, emoteko bakotxari bere egitaden erara.

13. Ni naz alfa eta omega, lelengua ta azkenengua, asieria eta amaija.

14. Zorijonekuak, euren soñekuak Bildotsaren odolian garbituten dituzanak eskubidia euki dagijen bizitzako zugatzian, eta ateetatik sartu ditezan urijan.

15. Kanpora txakurrak, eta satarriemolak, eta zikiñak, eta gizon era- lliak, eta Jaungoiko paltzuen adoratzalliak, eta guzurra maite, eta egiten daben guztijak.



16. Nik Jesusek bialdu dot neure aingeruba oneekaz zubei autorreria emotera Eleshetan. Ni naz Dabiden sustraija, eta jatorrija, izar argija, eta gosh izarra.

17. Eta Espiritubak, eta ezkongejak diñue: Erdu. Eta entzuten dabenak esan dagijala: Erdu. Eta egarri dana, etorri bedi: eta nai dabenak, artu begi bizitzako uretik, duarik.

18. Adierazoten deutsat liburu onetako profesijako berbak entzuten dituzan guztijari: iñok irasten badeutse oneei, Jaungoikuak ezarriko ditu bere gañera liburu onetan eskribidurik dagozan izurri guztijak.

19. Eta iñok kenduten badau liburu onetako profesijaren berbetatik, Jaungoikuak bera (sic) kenduko dau bizitzako Liburutik, eta uri santutik, eta liburu onetan eskribidurik dagozanetatik.

20. Diño autorreria onekaz emoten dabenak. Bai banator laster: Alan izar dedilla. Erdu, Jesus Jauna.

21. Jesukristo gure Jaunaren grazija zubekaz guztijokaz. Alan izan dedilla.

MARKIÑAKO APOKALIPSISARI ADIGARRIAK

(1) 1,5. Testigu leijala: emon eutsalako mundubari bere Aitaren testigantza egjajakua. Biztu zana lelengo, ez geijago ilteko, biztu zana berez.

(2) 1,18. Eta daukadaz erijotziaren eta infernuko giltzak: esan gura dau, nik goitu ditut erijotzia eta infernuba: ezin egin leikezube gatxik, zeubek gura ez badozube. Reg.2,6.

(3) 1,20. Zazpi elen aingerubetan, Obispo Jaunak aituten dira. II Corinth. 20.

(4) 2,17. Mana, au da, bijotzaren eta arimiaren barruko gozotasunak: arritxu zurijan adituten da zorijoneko epaija, bada antxiña arritxubetan emoten ziran epaijak. Izen barrija, Jaungoikuaren semiaren ta zeruko jau-begejaren izena.

(5) 2,28. Egusentiko izarra: esan gura dau, betiko bizitziaren bai eta adigarri ziurra.

(6) 3,8. Ate idigija, sartuteko asko, predikaurik ebanjelijua.

(7) 3,14. Amenak, esan gura dau, egija bera, guzurrik ezin esan leikiana.

(8) 3,15. Esan nai dau, gurago neuke baziña guztiz ona, edo guztiz txarra, ez erdi ona, edo epela. Erdi ona, edo epela nekezago ondu oi da, guztiz txarra baño. Kasiano. San Agustin.

(9) 3,18. Urre sutan garbitubak, esan gura dau karidadia.

(10) 3,20. Emen adituten dira, Jaungoikuak era askotara pekatariari egiten deutzan deijak.

(11) 4,6. Lau abere oneetan aditzen dira lau Ebanjelistak.

(12) 4,8. Sei eguak adierazoten dabe arintasuna prediketako Ebanjelijua: begijak, argitasuna, ezagututeko lege bijetako ezkutapenak.

(13) 5,6. Emen aitauten dan Bildotsa da, Jesus: alan adierazoten dabe Isaiasek eta San Juan Bautistak bere. Dago illik legez, ill bazan bere, biztu zalako: edo adierazoteke zelan daguan ostrija konsagraduban. Adarrak adierazoten dabe indarra: begijak ezagüera ta argitasuna.

(14) 6,2. Elexako Irakaslak adituten dabe zaldi ganeko onetan Jesus: zaldi zurijan Apostolubak eta ebanjelijuaren lelengo predikadoriak: uztai edo ballestan bere berba eragilla bijotzak zaurituten dituzana.

(15) 6,4. Zaldi zurijan aditzen da Elexa Santiaren lelengo denporia: gorrijan martirijena: bere ganian jarririk eguanagan diabruban zeñek zirikaturen zituzan Elexiaren ta kristiñauben persegitzallak.

(16) 6,5. Zaldi baltzian adituten dira herejiak, itxirik fedeko argija illuntasunian bizi diralako: zaldi ganekua da diabruba: eskuko pisubak esan gura dau, liburu santubak adituten ditubezala euren burutaziño ero ta griña dongeen erara.

(17) 6,6. Emen aditzen da gorputzeko ta arimako janariaren urritasuna; baña Jaungoikuak beti gordeko dabela Elexa santia.

(18) 6,8. Zaldi zurbil onen ganian daguanagan aditzen dabe Irakaslak Mahoma: infernubak jarraituten eutsan, au da, infernura juango ziranen aldra andi batek.

(19) 6,10. Santubak emen eskatuten dabena da, biztu ditezela euren gorputzak, osotuteko euren gloriya. Baita bere kastigau dagizala Jaungoikuak dongak, edolabere onelan itxi dagijuen onai esestiari. San Gregorio. Eta Jaungoikuak dirautse, itxaron dagijela denpora au etorri artian.

(20) 8,7. Onak dira Jaungoikuak dongen ganera ezarriko dituzan kastigubak.

(21) 9,7. Elexako Irakasla askok aditzen ditube emen Lutero ta bere jarraitzallak: diño daukezala koroia lakuak, euren mukertasuna gaitik, ez ditubezalako autortu gura Elexa santiaren irakutsijak, ziurrak dirala eza-gutu arren. Daukez gizonen irudiko arpegijak, daukelako onen irudija azaletik, ez izanik barrutik. Emakumeen uliak adierazoten dabe euren bizitza nasai eta gurari dongen erakua: burdiñazko loarikak euren bijotzeko gogortasuna: euren egüen otsak adierazoten dau alkarren artian daukezan errijerta eta ezbaijak; baña batuten dira esesteko Elexa santa Erromakuari.

(22) 10,10. Zan gozua, ikusten nituzalako beterik Jaunaren zemaijak; baña garratza ikusten nebalako ainbeste arimen betiko galdumendija.



(23) 12,1. Emakume au da Elexa santia: esaten da agertu zala zeruban, an daukalako bere bizilekuba: eguzkijagaz estaldurik, zerren Jesukristok, egijazko justizijako eguzkijak zuzendu ta gordetan dau: dauka oñazpijan illargija, au da, munduko gauza galdukorrak: igaroten ditu seña egiten diardubanaren penak irabazten arimak Jesusentzat: dragoia da demonioa: zazpi burubak zazpi pekatu kapitalak: buruko apaindurijak adierazoten ditube bere garaitzak: egin eban aria, au da, sendo ta errutsaba, zein dan Jesus arimetan sortuba: eruana izan zan zerura, an izateko gure bitartekua. San Agustin.

(24) 12, 6. Emen adierazoten da Jaungoikuak zainduten dabela beti Elexa santia bere persegitzallen esetsijen artian.

(25) 12,15. Baleiak, atrapetako igesi duazan arraiñak, botaten dau aotik ura ibai baten ugaritasunagaz: gero arnasiagaz beraganuntz erakarri eta zurrut egiten dau. Au da emen aitauten dan sierpiak egin ebana.

(26) 12, 16. Onak, au da, senduak lurra legez, lagundu eutsen Elexiari: idigirik euren aua eskatu eben zeruko laguntasuna eta goitu zitubezan arerijuen esetsijak. Beste batzuk aditzen dabe, idigirik lurra iruntziko dituzala Elexa santiaren persegitzallak.

(27) 12, 18. Asmetan zelan esetsiko eutsen onai itxasoz ta liorrez.

(28) 13,1. Pistija au da Antekristua: urteten dau itxasotik, au da, mundu onetako olatuben artetik.

(29) 13,3. Antekristuak bere asmaziño eta astruzijakaz sinistu eragin-go deutso askori, zauri andi bat daukala, ill, eta biztu dala, Jaungoikotzat adora dau dagijen.

(30) 13,7. Antekristuak goituko ditu santubak bizitzia eurai kendubagaz; baña ez pekatuben jausi eragiñaz.

(31) 13,11. Pistija onegan aditzen dabe geijenak Antekristuaren bideaurreko bat.

(32) 14,6. Ikuskizun onetan aitauten diran iru aingerubak dira iru sermolari sendo Jaungoikuak bialduko dituzanak denpora atan.

(34) 14,15. Santubak gura daben legez osotutia euren zorjontasuna zeruban, alkarturik gorputz eta arima, eskatuten deutse, Jesusi, ebaki dagizala ainbat lasterren dongen bizitzak, bete daben ezkeru euren pekatuben neurrija, eta salbaurik dagozan ezkeru salbauko diranak.

(35) 14,18. Mats mordo oneetan aditzen dira pekatarijak: eldu dira, au da, bete dabe euren pekatuben neurrija.

(36) 16,1. Au da Jaungoikuaren agindu bat, ezarteko bere aserriaren gogortasuna Antekristuaren jarraitzallen ganera.

(37) 18,6. Santubak mundu onetan ez deutse gatzik opa, ez egiten euren gaizkillai; baña bestian poztuko dira pekatarijen kastigubakaz.

(38) 18,7. Au da pekatarijen berbetia. Ederto bizi naz: olgetan naz: guztija daukat ugari: gerokua etorriko da, edo ez da: sisanistu gura leuke beti iraungo deutsela mundu onetako atsegiñak.

(39) 20,2. Milla urteetan adituten da Ebanjelijoko legeko denpora guztija Antekristua etorri artian.

(40) 20,3. Denpora gitxi onetan adituten dira iru urte eta erdi, zein dan Antekristuak agintauko daben denporia.

(41) 22,11. Ez da au iñori esatia pekatu egin legijala, edo dagijala, ezpada agiraka bat: esango baleu legez: Orainartekuakaz aspertu ez danak, jarraitu begiyo pekatu egitiari; baña jakin begi, laster dabela ganian kastiguba.



SALOMONEN KANTEN KANTIA

(Dial. Biscaina Marquinensi)

LELENGO KAPITULUBA

1. Mosu emon begit bere aoko mosubagaz: zerren zure (ire) bularrak ardaua baño obak dira (dituk).
2. Usaingozodunak ugenturik onenak legez. Orijo isuriya da (dok) zure (ire) izena: orregaitik neskatilla gaztiak maitetu zindubezan (induban).
3. Ekarri nagizu (nagik), zure (ire) ondoren arin egingo dogu (juagu) zure (ire) ugentuben usaiñera. Sartu ninduban (najinduban) erregek bere geletan: poztuko eta gozatuko gara (gaituk) zugar (igan) gomutaurik zure (ire) bularrakaz ardaua baño obak: zuzenak maite zaitube (aube).
4. Baltza naz baña ederra, Jerusalengo alabak. Zedarko dendak legez, Salomonen narrubak legez.
5. Ez konsiderau baltxerana nazala zerren eguzkijak deskoloretu ninduban; neure amaren semiak gudatu eben nire kontra, imiñi ninduben mastijen zain: neure mastija ez neban zaindu.
6. Erakutsi egidazu (egidak) zuk (ik) nire arimiak maite dabenak (juanak), nun larratuten dozun (duan), nun eguberdieria egiten dozun (duan), asi ez nadin (najadin) orron ibilten zure (ire) lagunen aldren ondoren.
7. Ez badakizu (badakin) ó emakumeen artian guztiz ederra, urten egizu (egiñan), eta zuaz (ua) aldren oñatzen ondoren, eta larratu egizuz (egizan) zeure (eure) aumak artzañen txabolen onduan.
8. Irudierazo zindudazan (indunadan), neure adiskidia, neure zaldijari Faraonen burdijetan.
9. Ederrak dira (ditun) zure (ire) matrallak, usatortoliarenak legez: zure (ire) iduna lepandiak legez.
10. Urrezko katetxubak egingo deusuguz (deunaguz), zidarrezko artxuz margandubak.
11. Errege bere etzintokijan eguan artian, nire narduak emon eban bere usaiña.
12. Mirrazko sortatxuba da nire maitia niretzat, nire bularren artian geratuko da.
13. Ziprozko mordua da nire maitia niretzat, Engadiko mastijetan.

14. Ai ze ederra zarian (azan), neure adiskidia, ai ze ederra zarian (azan!) Zure (ire) begijak usuenak dira (ditun).

15. Ai ze ederra zarian (azan), neure maitia, eta abegi samurrekua! Gure oia loratsuba da (dok).

16. Gure etxeen kapiñjuak zedrozkuak dira (dituk) goiaspillatubak zipresezkuak.

BIGARREN KAPITULUBA

1. Ni naz kanpoko loria, eta ibarretako lirijua.
2. Lirijua arantzen artian legez, alan nire adiskidia alaben artian.
3. Sagarrondua basuetako zugatzen artian legez, alan nire maitia semeen artian. Nai izan nebanaren keriziaren azpijan, jarri nintzan: eta aren frutuba gozua da nire eztarrijarentzat.
4. Sartu ninduban ardauren gelan, zuzendu eban nigan karidadia.
5. Sendotu nagizube lorakaz inguratu nagizube sagarrez: zerren amodijoz kordebagatuten naz.
6. Aren ezkerria nire burubaren azpijan, eta bere eskumiak laztanduko nau.
7. Erregututen deusubet Jerusalengo alabak, kanpuetako basauntzak, eta oreñak gaitik, arren ez dagizubela irakori, ez esnatu eragin bere maitia berak gura daben arteraño.
8. Nire maitiaren boza, orra emen nun saltoka datorren mendijetik, murubak igaroz!
9. Basauntzaren, ta oreinkumiaren antzekua da nire maitia: orra emen nun dagan gure ormiaren atzian, mentanetatik begira, zursareetik zelatan.
10. Orra emen neure maitiak berba egiten deust: Jagi zaitte (adi), arin egizu (egiñan), neure adiskidia, neure usua, neure ederra, eta erdu (ator).
11. Zerren onezkero neguba igaro zan (zonan), eurija juan zan (zonan), eta aldendu.
12. Lorak agertu ziran (ditunan) gure lurrian, podiaren eria etorri da (don): usatortoliaren boza entzuna izan da (don) gure errijan.
13. Pikonduak motatu zituban (jitunan) bere uztaipikuak: mastijak loretan emon eben (jonen) euren usaiña. Jagi zaitte (adi), neure adiskidia, neure ederra eta erdu (ator).
14. Nire usua arkatxeko zulueta, arriesiko utsunian, erakutsi egidazu (egidan) zure (ire) arpegija, soñu egin begi zure (ire) bozak nire belarrietan: zerren zure (ire) boza gozua da (don), eta zure (ire) arpegijua ederra.



15. Atrapau egiguzubez mastijak lurreratuten ditubezan azeri txiki-txubak: bada gure mastija loratu da.

16. Nire maitia niretzat, eta ni neure maitiarentzat lirijuen artian larratuten dan arentzat.

17. Eguna zabaldu, eta kerizak jausi ditezen artian. Biurtu zaitte (adi): iruditu zakijuez (akijue), neure maitia, basauntzari, eta oreinkumiari Beterko mendijien ganian.

IRUGARREN KAPITULUBA

1. Neure oian billatu neban gabetan neure arimiak maite dabena: billatu neban, eta ez neban aurkitu.

2. Jagiko naz, eta inguratuko dot errija: kaleetatik eta plazetatik billatuko dot neure arimiak maite dabena: billatu neban, eta ez neban aurkitu.

3. Aurkitu ninduben errija zainduten daben gordetzalliak: Ikusi badozube nire arimiak maite dabena?

4. Piskatxu bat igaro nitubanian, aurkitu neban neure arimiak maite dabena: eldu neutsan: eta ez deusatz itxiko, arik eta sartu dagidan artian neure amaren etxian, eta ni egin nindubenaren gelan.

5. Erregututen deusubet, Jerusalemgo alabak, kanpuetako basauntzak, eta oreiñak gaitik, arren ez dagizubela irakori, ez esnatuerazo bere nire maitia, berak nai daben arteraño.

6. Zein da igoten daben au eremutik mirrazko, eta intzentsozko, eta usaingozogilliarren auts guztiko aromen keezko zigortxuba legez?

7. Orra emen nun inguratuten daben Salomonen oia irurogei errutsuk Israelgo errutsubenetatikuak:

8. Guztijak daukezala ezpatak, eta gudetarako guztiz ondo ikasijak: bakotxaren ezpatia bere istarraren gañian gabetako bildurrak gaitik.

9. Bidekoe bat egin eban beretzat Salomon erregiak Libanoko zurakaz:

10. Bere abiak egin zituzan zidarrezkuak, etzintokija urrezkua, igoeria purpurazkua: erdikua ezkutau eban amodijoz Jerusalemgo alabak gaitik:

11. Urten egizube, eta ikusi, Siongo alabak, Salomon erregia bere amak imiñi eutsan koroiagaz, aren ezkontza berbako, eta bere bijotzaren pozeko egunian.

LAUGARREN KAPITULUBA

1. Ze ederra zarian (azan), neure adiskidia, ze ederra zarian (azan)! Zure (ire) begijak usuenak dira (ditun), barruban ezkutaurik daguana (jagonana) baga. Zure (ire) uliak, Galaadko menditik igon eben (jonenen) aunts aldraz lakuak.

2. Zure (ire) agiñak, garbilekutik igon eben (jonenen) artaldi mostubak lakuak, guztijak ume bikijakaz, eta umebagarik ez da (don) euren artian.

3. Zure (ire) ezpanak granazko lokarrija lakuak; eta zure (ire) berbaeria, gozua Granadiaren akatsa legez, alan dira (ditun) zure (ire) matralak, barruban ezkutaurik daguana (jagonana) baga.

4. Dabiden torria legez zure (ire) iduna, egiñik daguana (jagonana) baluartiakaz: milla ezkutu dagoz (jagozan) dingilizka beratatik, errutsuben arma aldraz guztija.

5. Zure (ire) bular bijak, lirijuen artian larratuten diran (ditunan) basauntzkume biki bijak lakuak.

6. Eguna argitu, eta kerizak alde dagijen (jagijen) artian, juango naz (non) mirrako mendira, eta intzentsuaren murura.

7. Guztijori zara (az) ederra, neure adiskidia, eta orbanik ez dago (jagon) zukan (igan).

8. Erdu (ator) Libanotik, neure ezkongeiya, erdu (ator) Libanotik, erdu (ator): izango zara (az) koronauba Amanako burubagaz, Sanir eta Ermongo tontorragaz, leoiaren kobauakaz, eta leoiarren mendijakaz.

9. Zauritu dozu (don) nire bijotza, neure arreba ezkongeiya, zauritu dozu (don) nire bijotza zure (ire) begijetatik bategaz, eta zure iduneko ule bategaz.

10. Ze ederrak diran (ditunan) zure (ire) bularrak, neure arreba ezkongeiya! Ederraguak dira (ditun) zure (ire) titijak ardauba baño, eta zure (ire) ugentuben usaiña aroma guztijen gañetikua.

11. Zure (ire) ezpanak, ezkongeiya, abau erijua daukenak (jaukenak): eztija eta ezniya zure (ire) miñaren azpijan: eta zure (ire) soñekuen usaiña intzentsuaren usaiña lakua.

12. Ortu itxija zara (az), neure arreba ezkongeiya, ortu itxija, iturri sillutuba.

13. Zure (ire) motiak granadazko berjela sagarren frutubakaz. Zipruak narduagaz.

14. Nardua eta azafraia, kañabera usaintsuba, eta kanelia, Libanoko zur guztijakin, mirria eta zabala ugenturik onen guztijakin.

15. Ortubetako iturrija: Libanotik bultzadaka duazan (juazanan) ur bizijen pozuba.

16. Jagi zaitte (adi) Ifarra, eta erdu (ator) Egoia, zabiltz (abil) nire ortutik, eta erijo beitez beraren aromak.



BOSTGARREN KAPITULUBA.

1. Betor nire maitia bere ortura, ta jan begi bere sagarren frutuba. Etorri naz (non) neure ortura, neure arreba ezkongejia, igitaitu dot (jonat) neure mirria neure aromakaz: jan dot (jonat) abaua neure eztijagaz; edan dot (jonat) neure ardaa neure ezniagaz: jan egizube, adiskidiak, eta edan egizube, eta orditu zaiteze, guztiz maitiak.
2. Ni lotan nago, eta nire bijotza esna dago: nire maite ots egiten dabenaren boza. Idigi egidazu (egidan), neure arrebia, neure adiskidia, neure usua, neure orbanbagia: zerren nire buruba dago (jagon) iruntzez beterik, eta nire kartzetak gabetako tantaz.
3. Erantzi dot (juat) neure tunikia, zelan jantziko dot (juat)? Garbitu ditut (jitubat) neure oñak, zelan zikinduko ditut (jitubat)?
4. Nire maitiak sartu eban bere eskuba zulotik, eta nire erraijak ikaratu ziran bere ukutubagaz.
5. Jagi nintzan, idigitera neure maitiari: nire eskubai erijen mirria, eta nire atzak mirra guztiz autuz betiak dagoz.
6. Idigi neutsan neure maitiari neure atiaren txingeta: baña berak alde egin eban, eta igaro zan. Nire arimia urtu zan, berba egin ebaneko: billatu neban, eta ez neban aurkitu: deitu neutsan, eta ez eustan erantzun.
7. Aurkitu ninduben errija inguratuten daben gordetzallak: jo ninduben, eta zauritu ninduben: eruan eusten neure mantuba murallen gordetzallak.
8. Erregututen deusubet, Jerusalemgo alabak, aurkituten badozube nire maitia, arren adierazo dagijozubela amodijoz kordebagatuten nazala.
9. Zelakua da (don) zure (ire) maitetuben maitia, ó emakumeen artian ederrena? zelakua da (don) zure (ire) maitetuben maitia, alako arrenakaz guri erregututeko?
10. Nire maitia da zurija, eta gorrija, millen artian autuba.
11. Bere buruba erre guztiz ona: bere uliak palmen motak legez, baltzak belia legez.
12. Bere begijak usuak ur errekatxuben gañian legez, zeintzube k dagozan ezniagaz garbituta, eta egoten diran ur ugari arin duazanen onduan.
13. Bere matrallak aromen larrintxu, usaingozogillak imiñitakuak legez. Bere ezpanak, lirijo mirrarik garbijena darijenak.
14. Bere eskubak urrezkuak tornutubak, jazintoz betiak. Bere sabela marfillezkua, zafiroz apainduba.
15. Bere anak marmolezko abiak, imiñirik dagozanak urrezko ondopeen gañian. Bere edertasuna Libanorena, autuba zedruak legez.

16. Bere estarrija guztiz gozua, eta guztija deseagarrija: alakua da nire maitia, eta bera da nire adiskidia, Jerusalemgo alabak.

17. Nora juan da (don) zure (ire) maitia, emakumeen artian ederrena? nora alde egin dau (jon) zure (ire) maitiak, eta billatuko dogu (jonagu) zeugaz (eugaz)?

SEIGARREN KAPITULUBA.

1. Nire maitia jatsi zan bere ortura usain gozozko larrintxura, ortubetan larratutera, eta lirijuak artutera.
2. Ni neure maitiarentzat, eta nire maitia lirijuen artian larratuten dabena, niretzat.
3. Ederra zara (az), nire adiskidia, biguna, eta abegi gozokua Jerusalemgo legez: ikaragarrija ejerzitu gertuba legez.
4. Aldendu egizuz (egizan) zure (ire) begijak ni gandik, zerren euran egin eragin eusten (jeusten). Zure (ire) uliak dira (ditun) Galaadtik agertu ziran (jitunan) auntzen aldria legez.
5. Zure (ire) agiñak garbilekutik igon eben (jonenen) ardijen aldria legez, guztijak ume bikijakaz, eta umebagarik ez da (don) euren artian.
6. Granadiaren azala legez, alan zure (ire) matrallak zure (ire) ezkutukuak бага.
7. Irurogei dira (ditun) erregiñak, eta larogei oe lagunak, eta neskatilla gazteen zenbatik ez da (don).
8. Bat bakarrik da nire usua, nire onosua, bakarra da bere amarena, egin ebanarentzat autuba. Ikusi eben alabak, eta guztiz zorijonekua predikau eben: erregiñak eta oe lagunak bere alabau eben.
9. Zein da doian au, egusentija jagiten dan legez, ederra illargija legez, autuba eguzkija legez, ikaragarrija ejerzitu gertuba legez?
10. Jatsi nintzan intxaurren ortura, ibarretako sagarrak ikustera, eta loratu ete zan mastija, eta motak urten ete eutsen granadai begiratutera.
11. Ez neban jakin: nire arimiak ikaratu ninduban Aminadaben burdijak gaitik.
12. Biurtu zaite (adi), biurtu zaite (adi), Sulamitia: biurtu zaite (adi), biurtu zaite (adi), begiratu dagizugun (daigunan).

ZAZPIGARREN KAPITULUBA.

1. Zer ikusiko dozu Sulamitiagan, gudarijen aldrak baño? Ze ederrak diran (ditunan) zure (ire) pausubak oñetaketan, Prinzipiaren alabia! Zure (ire) isterren giltzak, langilliaren eskuz egiñak izan diran (ditunan) eskuturrekuak legez.



2. Zure (ire) zila uraska tornuban egiña, edari baga iñoz ez daguana (jagonana). Zure (ire) sabela gari muntoia lakua, lirijoz inguratuba.
3. Zure (ire) bular bijak, basauntzkume biki bi lakuak.
4. Zure (ire) iduna marfillezko torria lakua. Zure (ire) begjjak Esebonen arrantzategijak legez, zeintzuk dagozan (jagozanan) aldriaren alabiaren atian. Zure (ire) surra Libanoko torre, Damaskoruntz begira daguana (jagonana) legez.
5. Zure (ire) buruba Karmelo lakua: eta zure (ire) buruko uliak, erregeren purpura erreketan lotuba legez.
6. Ze ederra zarian (azan), eta ze abegi gozokua, guztiz maitia, atsegiñetan!
7. Zure (ire) luzeeria irudituten jako (jakon) palmiarenari, eta zure (ire) bularrak morduai.
8. Esan neban (najonan): Igongo dot (jonat) palmara, eta artuko ditut (jitunat) beraren frutubak: eta izango dira (ditun) zure (ire) bularrak mastiko morduak legez: eta zure (ire) aoko usaiña sagarrena lakua.
9. Zure (ire) estarrija ardaorik onena lakua, nire maitiak edateko, eta beraren ezpan eta agiñakaz miazketako duiña.
10. Ni neure maitiarena, eta bere biurreria ni ganuntz.
11. Erdu (ator) neure maitia, urten dagigun (jagijagun) kanpora, bizi gaitian (gajaitian) baserrijetan.
12. Jagi gaitian (gajaitian) gosh mastijetarako, ikusi dagigun (jagijagun) mastija loratu ete dan (duan), lorak garautu, granadak loratu badira (badituk): an emongo deustudaz (deuadaz) neure bularrak.
13. Urriluak emon eben (juen) usaiña. Gure ateetan fruta guztijak dagoz (jagozak): barrijak eta zarrak, neure maitia, gorde deustudaz (deuadaz).

ZORTZIGARREN KAPITULUBA.

1. Nok emon ziñaike (einke) niri neure nebia neure amaren bularrak artuten, aurkitu zaidazala (aidala) kanpuan, eta mosu emon dagizudala (aijadala), eta onezkero ez naijala (najajala) iñok desprezijau?
2. Elduko deustut (deuat), eta eruango zaitut (aut) neure amaren etxera; an irakatsiko deustazu (deustak), eta emongo deustut (deuat) ardao ondubaren edarrija, eta neure granaden mostua.
3. Beraren ezkerra nire burubaren azpijan, eta aren eskumiak laztanduko nau.
4. Erregututen deustubet, Jerusalengo alabak, arren ez dagizubela irakori, ez esnatuerazo bere maitia, berak gura daben arteraño.

5. Zein da igoten daben au eremutik, gozotasunez beterik, bere maitiari itsatsirik? Sagarrondo baten azpijan esnatu zindudazan (indunadan): an izan zan (zonan) galduba zure (ire) ama: an izan zan (zonan) indarrez galduba egin zinduzana (indunanana) (sic).

6. Imiñi nagizu (nagin) silluba legez zure (ire) bijotzaren gañian, silluba legez zure (ire) besuaren gañian: zerren sendua da (don) amodijua erijotzia legez, gogorra zelua inpernuba legez: bere lanparak dira (ditun) suzkuak eta garrezkuak.

7. Ur askok ezin eben (jone) amatau karidadia, eta ibaijak bere ez dabe (jone) urpetuko: emongo baleu (balajon) bere gizonak bere etxeko izate guztija amodijua gaitik, utsa legez desprezijauko dau (jon).

8. Gure aitzia txikija da (dok), eta ez dauka (jaukak) bularrak. Zer egingo deustagu (jeutsagu) gure aitzari berba egingo jakon (jakuan) egunian?

9. Murallia bada (badon), egin dagiguzan (jagiguzan) bere gañian zidarrezko torretxubak: atia bada (badon) apaindu dagigun (jagigun) zedrozko olakaz.

10. Ni naz (nok) murallia: eta nire bularrak dira (dituk) torria legez, izan nazan (nuan) ezkerro bere aurrian bakia aurkitu dabena (juana) legez.

11. Baketsubak euki eban (juan) mastija, errijak daukazan (jaukazan) aregan: emon eutsen (jeutsen) gordetzallai; gizonak dakaz (jakazak) beraren frutuba gaitik milla diru zidarrezko.

12. Nire mastija nire aurrian dago (jagok). Zure (ire) millak baketsubarenak, eta berreun beraren frutubak gordetan ditubezanentzat (jitubezanentzat).

13. O zu (i) ortubetan bizi zariana (azana) adiskidiak aituten dabe (jone): entzun eragidazu (eragidan) zure (ire) boza.

14. Iges egizu (egik) neure maitia, eta iruditu zakijuez (akijue) basauntzari, eta oreinkumetxubari usain gozuen mendijen gañian.



MARKINAKO DOTRINA

Catecismo bascongado en el dialecto literal de Vizcaya,
lenguaje de la variedad de Marquina

Sarrerea

Kristiñau fiel guztiak
dagoz guztiz obligaurik,
deboziñoa artutera
euren biotz guztiatik,
Jesus gure argiaren
kurutze santuagaz,
nun ill gura izan eban
gu ateratearren
pekatuaren mendetik,
ta arerio deungetatik.
Orregaitik bada zu
ekandu bear zara
alan zeñatutera,
zelan Aitearen egitera;
iru kurutze egiñaz
lenengoa bekokian,
Jaungoikoak librau gaizan
pentzamentu txarretatik:
bigarrena aoan
Jaungoikoak librau gaizan
berba deungetatik:
irugarrena bularrean
Jaungoikoak librau gaizan
egite ta gogo deungetatik.
Onelan esanagaz:
Kurutze + santearen
señaleagaitik,
geure + arerioetatik
librau gaizuz

geure + Jauna ta Jaungoikoa.
Aitearen, + Semearen, ta
Espiritu Santu Jaungoikoaren
izenean. Amen.

Kredoa

Sinistuten dot Aita Jaungoiko, guztia daikean, zeruaren ta lurraren
Egilleagan, ta bere seme bakar Jesukristo gure Jaunagan, zein sortu zan
Espiritu Santuaren egitez, ta graziaz. Jaio zan Maria Birjiñeagandik; pade-
ziu eban Ponzio Pilatosen aginduaren bean; izan zan kurutzean josia, illa
eta enterradua, jatsi zan infernuetara, irugarren egunean biztu zan illen
artetik, igon eban zeruetara, an dago jarririk Aita Jaungoiko guztia dai-
keanaren alde eskumatatik: andik etorriko da biziak eta illak juzgetara:
sinistuten dot Espiritu Santuagan, Elexa santa katolikea, santuen komu-
niñoa, pekatuen parkaziñoa, aragiaren biztuera barria, betiko bizitzea.
Amen.

Fedeko artikuluak

Fedeko artikuluak dira amalau. Lenengo zazpirak dagokaz Jaungoi-
kotasunari; eta beste zazpirak Jesukristo gure Jaun, Jaungoiko ta gizon
egiazkoaren gizatasun santuari.

Jaungoikotasunari dagokazanak dira oneek:
Lenengoa sinistu Jaungoiko bakar, guztia daikean bategan.
Bigarrena sinistu dala Aita.
Irugarrena sinistu dala Semea.
Laugarrena sinistu dala Espiritu Santua.
Bostgarrena sinistu dala gauza guztien egillea.
Seigarrena sinistu dala Salbagillea.
Zazpigarrena sinistu dala gloria emolea.
Gizatasun santuari dagokazanak dira oneek:

Lenengoa sinistu Jesukristo gure Jauna, gizona danez, sortua izan
zala Espiritu Santuaren egitez ta graziaz.

Bigarrena sinistu jaio zala Santa Maria Birjiñagandik, geldituten zala
donzella semea jaio baño lenago, jaiotzan, ta jaio ezkeru.



Irugarrena sinistu artu zituzala eriotzea ta pasiñoa gu pekatariok salbetearren.

Laugarrena sinistu jatsi zala infernuetara, eta atera zituzala bere etorrera santuaren zain egozan Guraso Santuen arimak.

Bostgarrena sinistu irugarren egunean biztu zala illen artetik.

Seigarrena sinistu igon ebala zeruetara, eta dagoala jarririk Aita Jaungoiko guztia daikeanaren alde eskumatatik.

Zazpigarrena sinistu etorriko dala biziak, eta illak juzgetara, au da, onai emotera gloria bere agindu santuak gorde zituezalako, eta dongai betiko penak gorde ez zituezalako.

Aita gurea

Aita gurea, Zeruetan zagozana, santifikadu bedi zure izena, betor gugana zure erreinua, egin bedi zure borondatea, zelan zeruan, alan lurrean.

Egunean eguneango geure ogia gaur emon egiguzu, eta parkatu egiguz geure zorrak, geuk geure zordunai parketan deutseguzan legez, eta itxi ez egiguzu tentaziñoan jausten baña libradu gagizuz gatxetik. Amen.

Abe Maria

Abe Maria, graziaz betea, Jauna da zugaz, bedeinkatua zara zu Andra guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua. Jesus.

Santa Maria Jaungoikoaren Ama, erregutu egizu gu pekatariokgaitik, orain, eta geure eriotzako orduan. Amen.

Salbea

Jaungoikoak gorde zaizala Erregiña, errukiz beteriko Ama: bizitza, gozotasun, ta esperantza geurea: Jaungoikoak gorde zaizala. Zuri deiez gagoz Ebaren ume erbestetuok: zugana gagoz gu zizpuruz, ta negarrez negarrezko leku onetan. Ea bada, Andrea, bitarteko geurea, biurtu egizuz gudanantz zure begi errukitsu orreek; eta erbeste au igarota erakutsi egiguzu Jesus, zure sabeleko frutu bedeinkatua. O guztiz bigun! O errukior!

O Maria Birjiña gozoa! Erregutu egizu gugaitik Jaungoikoaren Ama Santa, izan gaitean, Jesukristoren agintsariak alkantzetako duin. Amen.

Jaungoikoaren legeko aginduak

Jaungoikoaren legeko aginduak dira amar. Lenengo irurak dagokaz Jaungoikoaren onreari: beste zazpirak projimuaren probetxuari.

Lenengoa, Jaungoikoa maite izatea gauza guztien ganean.

Bigarrena, bere izen santuagaitik ez juramenturik egitea alperrik.

Irugarrena domekak ta jaiak gordetea.

Laugarrena aita eta ama onretea.

Bosgarrena iñor ez iltea.

Seigarrena aragizko pekatuak ez egitea.

Zazpigarrena iñori ezer ez ostutea.

Zortzigarrena falso testimoniorik iñori ez eregitea, ta guzurrik ez esatea.

Bederatzigarrena lagunaren emazterik ez gura izatea.

Amargarrena iñoren ondasunen gurari bidebagakorik ez eukitea.

Amar agindu oneek sartuten dira bitan. Jaungoikoa serbiu, eta maite izatean gauza guztiak baño geiago, eta projimua geure burua legez. Amen.

Kristiñauen doktriñearen esplikaziñoa, itaune eta erantzueretan

ITANDUTEN DOT. Kristiñaua zara?

ERANTZUTEN DOT. Bai Jaungoikoaren graziaz.

I. Norgandik jatortsu kristiñauaren izen ori?

E. Jesukristo gure Jaunagandik.

I. Zer esan gura dau Kristiñauak?

E. Kristoren gizona.

I. Zer adituten dozu Kristoren gizonaz?

E. Jesukristoren fede, batioan artu ebana daukan gizona, eta bera serbietako eskiñirik dagoana.

I. Zeñ da Kristiñauaren señailea?

E. Kurutze santua.

I. Zergaitik?



E. Dalako Kristo kurutzean josiaren irudia, zeñetan erredimidu genduzan.

I. Zenbat modutan egiten dau kristiñauak señaile ori?

E. Modu bitan.

I. Zeintzuk dira?

E. Zeñatutea eta santigüetea.

I. Zer da zeñatutea?

E. Eskumako erpurubaz iru kurutze egitea. Lenengoa bekokian, bigarrena aoan ta irugarrena bularrean, Jaungoikoaz berba egiten dogula.

I. Erakutsi zelan?

E. Kurutze santearen + señaileagaitik, geure + arerioetatik, libradu gaizuz + geure Jauna ta Jaungoikoa.

I. Zegaitik zeñatuten zara bekokian?

E. Jaungoikoak librau gaizan pensamentu gaistoetatik.

I. Zergaitik aoan?

E. Jaungoikoak librau gaizan berba gaistoetatik.

I. Zegaitik bularrean?

E. Jaungoikoak librau gaizan egite, ta gurari gaistoetatik.

I. Zer da santigetea?

E. Da eskumako eskuko atzetatik bigaz kurutze bat egitea, bekokitik bularrera ta ezkerreko sorbaldatik eskumakora, Trinitade guztiz santeari gagokazala.

I. Erakutsi zelan?

E. Aitearen eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

I. Nos egin bear dogu kurutze ori?

E. Egite onen bat asten dogun guztian, edo premiña, tentaziño, edo arriskuren baten aurkituten gareanean. Batez bere oetik jagieran, etxetik urteeran, elexan sartzean, jatorduan, eta oera etzieran.

I. Zergaitik orrenbeste bidar?

E. Zergaitik eze denpora guztietan, eta leku guztietan gure arerioak esesten deuskuen, eta persegietan gaituezan.

I. Ze arerio dira orreek?

E. Demonioa, mundua, eta aragia.

I. Arerio orreek goituteko kurutzeak indarra al dauka?

E. Bai Jauna.

I. Nundik dauka kurutzeak indar ori?

E. Kristok bere eriotzeagaz antxe goitu zituzalako.

I. Kurutzea adoretan dozunean, zelan esaten dozu?

E. Adoretan zaituguz, Kristo, eta bedeinkatuten zaitugu, zeure kurutze santuagaz mundua erredimidu zendualako.

Kristiñauen dotriñiaren dibisiñoa

Ikusi dogu kristiñaua zareala alan izenean, zelan señailean: esan egidazu orain:

I. Zenbat gauza jakin bear ditu kristiñauak adiñera elduten danean?

E. Lau gauza.

I. Zeintzuk dira?

E. Zer sinistu, zer eskatu, zer egin, eta zer artu bear daben jakitea.

I. Zelan jakingo dau zer sinistu bear daben?

E. Jakiñaz Kredoa, edo Artikulu fedekoak.

I. Zelan jakingo dau zer eskatu bear daben?

E. Jakiñaz Aita gurea, eta beste elexako oraziñoak.

I. Zelan jakingo dau zer egin bear daben?

E. Jakiñaz Jaungoikoaren legeko mandamentuak, Elexa santearenak, eta obra miserikordiazkoak.

I. Zelan jakingo dau zer artu bear daben?

E. Jakinik Elexa Ama santearen sakramentuak.

Kristiñauen doktrinearen lenengo partea, zeñetan adierazoten direan kredoa, eta Fedeko artikuluak

Lenengotik asiten gareala:

I. Esan egidazu: Nok esan eban Kredoa?

E. Apostoluak.

I. Zetarako?

E. Guri fedeko gauzak irakasteko.

I. Eta zuk zetarako esaten dozu?

E. Kristiñauak daukagun fedea konfesetako.

I. Zer da Fedea?

E. Ikusi ez doguna sinistutea.

I. Ikusi zenduan jaioten Jesukristo?

E. Ez Jauna.



- I. Ikusi zenduan ilten, edo zerura igoten?
 E. Ez Jauna.
- I. Sinistuten dozu?
 E. Bai Jauna.
- I. Zegaitik sinistuten dozu?
 E. Jaungoikoak Elexa Ama Santeari alan agertu deutzazalako, eta onek alan erakusten deuskuzalako.
- I. Ze gauza dira kristiñaua legez daukazuzanak, eta sinistuten dituzanak?
 E. Erromako Elexa Ama Santeak daukazan, ta sinistuten dituzanak.
- I. Ta zertzuk dira orreek?
 E. Fedeko artikulua, kredoan dagozan legez.
- I. Ze gauza dira Fedeko artikulua?
 E. Dira Fedeko misteriorik andienak.
- I. Zetarako dira Fedeko artikulua?
 E. Geure Jaungoikoaren, eta Jesukristo gure Erredentorearen barri ta ezagera argiagoa emoteko.
- I. Zeñ da gure Jaungoikoa?
 E. Da esan ta asmau al deitekean izaterik andi ta miragarriena: Jaun bat amaibagarik ona, guztia daikeana, jakituna, zuzena, gauza guztien asiera ta azkena.
- I. Zer da Trinitate guztiz santea?
 E. Da Jaungoikoa bera, Aita, Semea, ta Espiritu Santua, iru persona banaak, ta Jaungoiko egiazko bakar bat.
- I. Aita Jaungoikoa da?
 E. Bai Jauna.
- I. Semea Jaungoikoa da?
 E. Bai Jauna.
- I. Espiritu Santua Jaungoikoa da?
 E. Bai Jauna.
- I. Iru Jaungoiko dira?
 E. Ez Jauna, ezpada Jaungoiko egiazko bakar bat.
- I. Aita Semea da?
 E. Ez Jauna.
- I. Espiritu Santua Aita, edo Semea da?
 E. Ez Jauna.
- I. Zergaitik?
 E. Iru personak banaak direalako, izan arren Jaungoiko egiazko bakar bat.

- I. Orreek orrelan direala zenbat izate, adin eta borondate dagoz Jaungoikoagan?
 E. Izate bakar bat, adin bakar bat, eta borondate bakar bat.
- I. Eta zenbat persona?
 E. Iru banak, Aita, Semea, ta Espiritu Santua.
- I. Jaungoikoa zelan da guztia daikeana?
 E. Bere esanbideagaz bakarrik nai daben guztia egiten dabelako.
- I. Zelan da Kriadorea?
 E. Gauza guztiak ezerezetik egin zituzalako.
- I. Zetarako egin eban Jaungoikoak gizona?
 E. Bizitza onetan bera serbietako, eta gero betikoan bera gozetako.
- I. Zelan da Salbagillea?
 E. Grazia emon eta pekatuak parkatuten dituzalako.
- I. Zelan da Gloriaemolea (sic)?
 E. Bere grazian irauten dabenari, betiko gloria emoten deutzalako.
- I. Jaungoikoak al dauka, guk legez, gorputzaren irudirik?
 E. Ez Jauna, Jaungoikoa danez, dalako Espiritu utsa, baña bai gizon danez.
- I. Jaungoikozko iru personetatik zein egin zan gizon?
 E. Bigarrena, zein dan Semea.
- I. Aita egin zan Gizon?
 E. Ez Jauna.
- I. Espiritu Santua egin zan Gizon?
 E. Ez Jauna.
- I. Zein bada?
 E. Bakarrik Semea, zeñi gizon eginik deritxan Jesukristo.
- I. Orrelan zein da Jesukristo?
 E. Da Jaungoiko biziaren semea, gu erredimietarren, eta guri bizi-modua erakustearren gizon egin zana.
- I. Eta zenbat izate, adin, eta borondate dagoz Jesukristogan?
 E. Izate bi, bata Jaungoikoa danez, eta bestea gizona danez: borondate bi, bata Jaungoikoa danez, eta bestea gizona danez: adin bi, Jaungoikoa danez bata, eta gizona danez bestea.
- I. Eta zenbat persona, eta memoria?
 E. Persona Jaungoikozko bakar bat, zein dan Trinitate guztiz santuko bigarrena; eta memoria bakar bat, bada Jaungoikoa danez ez dauka memoriarik.
- I. Zer esan nai dau Jesusen izenak?
 E. Salbadorea.



I. Zetatik salbadu genduzan?
 E. Geure pekatuetatik, eta diabruaren mendetik.
 I. Zer esan nai dau Kristok?
 E. Unjidua.
 I. Zegaz unjidua izan zan?
 E. Espiritu Santuaren graziaz ta doez.
 I. Jesukristo gure Jauna zelan sortu, ta jaio zan Amak donzella izatea galdu bagarik?
 E. Jaungoikoaren egiera miragarritzko ta geure ganetikoagaz.
 I. Zegaitik diñozu: «Egiera miragarritzko ta gure ganetikoagaz»?
 E. Jesukristo sortu ez zalako, ez jaio, beste gizonak legez.
 I. Zelan jazo zan Enkarnaziñoko misterioa?
 E. Lenengo: Ama Birjiñiaren errai garbietan formau eban Espiritu Santuak Andra onen odol garbiagaz gorputz guztiz eder bat. Bigarren: egin eban ezerezetik arima bat, eta sartu eban gorputz atan. Irugarren, orduantxe gorputz eta arima arekaz batu zan Jaungoikoaren semea. Eta laugarren, onelan len Jaungoiko bakarrik zana, Jaungoiko izateari itxi бага, gelditu zan gizon eginik, eta deritxa Jesukristo.
 I. Eta zelan jaio zan mirariz?
 E. Urteten ebalta Ama Birjiñaren sabeletik bere donzellatasunaren kalte бага, eguzkiaren argi errañua igaroten dan legez kristal batetik, kristala ausi, ez loitu bagarik.
 I. Eta bere Ama bizi izan ete zan gero beti donzella?
 E. Bai, Jauna, beti.
 I. Zergaitik kurutzean il gura izan eban?
 E. Gu libretarren pekatutik, eta betiko eriotzatik.
 I. Zergaitik geunkan betiko eriotzako sententzia?
 E. Pekatu egin ebalako gure lelen go guraso Adanek, zeñegan guztiok pekatu egin genduan.
 I. Zeñ da, Jesukristo, il ezkerro, jatsi zan infernua?
 E. Ez kondenaduen lekua, ezpada linboa, nun egozan justuak.
 I. Infernu bat baño geiago al dago?
 E. Bai, Jauna, dagoz lau lurraren barruan, eta deritxe kondenauen infernua, purgatorioa, seiñen linboa, justuen linboa, edo Abraham senoa.
 I. Eta, ze gauza dira orreek?
 E. Kondenaduen infernua da leku bat, zeñetara doazan pekatu mortalean ilten direanak, an beti beti penauak izateko. Purgatorioa da leku, zeñetara doazan grazian ilten diranen arimak, euren pekatuen zor guztia pagau bagarik, an pena ikaragarriakaz garbituak izateko. Seinen linboa da

leku bat, zeñetara doazan, batiatuak izan bagarik, adinera eldu baño lenago ilten diranen arimak. Eta Justoen linboa, edo Abrahamen senoa da leku bat, zeñetara joan oi ziran, Jesusek gu pekatutik atera baño lenago, Jaungoikoaren grazian ilten ziranen arimak, guztiz garbituak izan ezkerro; eta bera da, zeñetara Jesukristo egiaz eta benetan jatsi zan.

I. Zelan jatsi zan?
 E. Arimea Jaungoikotasunagaz baturik.
 I. Eta bere gorputza zelan gelditu zan?
 E. Jaungoikotasunagaz beragaz baturik.
 I. Zelan biztu zan irugarren egunean?
 E. Barriro batuten zirala bere gorputz, eta arima gloriak bete, oste-ra iñoz ez ilteko.
 I. Zelan igon eban Zeruetara?
 E. Berez.
 I. Zer esan gura dau Aita Jaungoikoaren alde eskumatatik jarrita ego-teak?
 E. Kristok, Jaungoikoa danez, Aitak edu gloria daukala eta gizona danez, beste edozeñek baño geiago.
 I. Noz etorriko da biziak, eta illak juzgetara?
 E. Munduaren genean.
 I. Eta orduan biztuko al dira illak guztiak?
 E. Bai Jauna, len euki zituezan gorputz eta arimakaz eurakaz.
 I. Eta munduaren azkena baño lenago juzgauak izango ete gara?
 E. Bai, Jauna, guztiok geure bizitzearen azkenean juzgauko gaitu Jaungoikoak, eta emongo deusku sententzia, onai zeruan bera beti goze-tako; eta dongai infernuan beti penetan egoteko.
 I. Zer sinistuten dozu esaten dozunean sinistuten dot santuen komuniñoa?
 E. Kristiñau fielak partill (sic) dirala besteen gauza oneetan, gorputz baten zatiak legez, gorputz au da Elexea.
 I. Zer da Elexea?
 E. Da kristiñau fiel guztiak batera arturik egiten dabeen gorputza, zeñen burua dan Aita Santua.
 I. Zein da Aita Santua?
 E. Da Erromako Sazerdote nagusi, lurrean Kristoren Ordeko, guz-tiok obedezidu bear deusaguna.
 I. Kredoz, ta Artikuluez ganetik, beste gauzarik sinistuten badozu?
 E. Bai Jauna, liburu santuetan dagoan guztia, eta Jaungoikoak bere Elexeari agerturik deusgan guztia.



I. Ze gauza dira orreek?

E. Ori ez niri itandu, jakituria bagea nazalako; baditu Elexa Santeak Erakuslak, erantzuten jakingo dabeenak.

IRAKASLEAK. Ondo diñozu: Irakaslai jaoke ta zuri ez fedeko gauzeen kontu ziatza emotea: asko da zuretzat jakitea Fedeko artikulua Kredoan dagozan legez, eta eurak sinistutea.

Kristiñauen Doktrinearen bigarren partea, zeñetan adierazoten dan zer eskatu bear dan, eta Elexa Santearen oraziñoak

Ikusi dogu zelan dakizun sinistu bear dana, zein dan lenengoa. Gatozan bigarrena, zein dan eskatu bear dana.

Esan egidazu.

I. Nok esan eban Aita gurea?

E. Jesu Kristok.

I. Zetarako?

E. Guri orazino egiten irakasteko.

I. Zer da orazino egitea?

E. Da Jaungoikoagana biotza jaso, ta mesedeak eskatutea.

I. Zenbat modutakoa da oraziñoa?

E. Modu bitakoa, mentala eta bokala.

I. Zer da oraziño mentala?

E. Da arimako almenakaz egiten dana: memoriagaz, gauza onen bat gogora ekarten dogula: adiñagaz, gauza ori goguan darabilgula: eta bere ganean pensetan dogula: eta borondategaz, asmo eta propositu sendoak egiten ditugula; konturako, leengo pekatuakaz damututeko, ez geiago pekatu egiteko, pekatu guztiak konfesetako, eta aurreruntzean bizitza on bat egiteko..

I. Zer da Oraziño bokala?

E. Da berbakaz, ta miiñagaz egiten dana, esaterako, «Aita gurea» errezetan dogunean egiten doguna.

I. Eta zelan egin bear da oraziñoa?

E. Atenziñoagaz, umiltasunagaz, itxaropenagaz, irauten dogula oraziñoan.

I. Aita gurea esaten dozunean, nogaz berba egiten dozu?

E. Geure Jaun eta Jaungoikoagaz.

I. Nun dago gure Jaun, eta Jaungoikoa?

E. Leku guztietan, batez bere Zeruan, eta Altarako sakramentu guztiz santuan.

I. Eta Jesukristo, gizona danez, nun dago?

E. Bakarrik zeruan, eta Altarako Sakramentu guztiz santuan.

I. Oraziño guztien artean onena, zein da?

E. Aita gurea.

I. Zergaitik?

E. Zerren Jesukristok esana dan, Apostoluen eskabidez.

I. Zergaitik geiago?

E. Daukazalako zazpi eskabide karidade osotik datozenak.

I. Zeintzuk dira?

E. Lenengoa, santifikadu bedi zure izena.

I. Zer eskatuten dozu eskabide orretan?

E. Ezagutua, ta onradua izan dedilla Jaungoikoaren izena mundu guztian.

I. Zein da bigarrena?

E. Betor gugana zure erreiñua.

I. Zer eskatuten dozu eskabide orretan?

E. Agintau dagiala Jaungoikoak, gure arimetan, emen lurrean graziaz, ta gero digula gloria.

I. Zein da irugarrena?

E. Egin bedi zure borondatea, zelan zeruan, alan lurrean.

I. Zer eskatuten dozu eskabide orretan?

E. Egin daigula Jaungoikoaren borondatea lurrean gagozanok, zeruan zorionekoak egiten dabeen legez.

I. Zein da laugarrena?

E. Egunean eguneango geure ogia emon egiguzu gaur.

I. Zer eskatuten dozu eskabide orretan?

E. Gorputzari dagokan janaria emon dagigula, arimearentzat grazia, ta Sakramentuak.

I. Zein da bostgarrena?

E. Parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parketan deutseguzan legez.

I. Zer eskatuten dozu eskabide orretan?

E. Parkatu dagiguzala Jaungoikoak geure pekatuak, guk geure gaiskilai parketan deutsegun legez.

I. Zein da seigarrena?

E. Itxi ez eiguzu tentaziñoan jausten.



- I. Zer eskatuten dozu eskabide orretan?
 E. Jaungoikoak itxi ez dagigula, diabruak, jausi eragiteko, dakarguzan pensamentu zital, ta tentazinoetan jausten, ta ez lekurik emoten.
- I. Zein da zazpigarrena?
 E. Baña librau gaizuz gatzetik.
- I. Zer eskatuten dozu eskabide orretan?
 E. Librau gagizala Jaungoikoak arimako ta gorputzeko gatx guztietatik.
- I. Zergaitik esan dozu asieran: Aita gurea zeruetan zagozana?
 E. Jasoteko biotza Jaungoikoagana, ta eskatuteko mesedeak humiltsunaz, ta ustebeteaz.
- I. Azkenean esaten dozun berbeak. Amen, zer esan gura dau?
 E. Alan izan dedilla.
- I. Zeintzuk dira Ama Birjineari erregututeko oraziñorik oneenak?
 E. Abe Maria, eta Salbea.
- I. Nok esan eban Abe Maria?
 E. Aingeru San Gabrieleak, Ama Birjineari barri onak emotera etorri zanean.
- I. Nok esan eban Salbea?
 E. Elexa Ama Santeak dauka beretuta.
- I. Zetarako?
 E. Ama Birjineari mesedeak eskatuteko.
- I. Abe Maria, edo Salbea esaten dituzunean, nori zagokaz?
 E. Geure Ama Birjiña guztiz onari.
- I. Zeñ da Ama Birjiña?
 E. Da birtutez beteriko Andra bat, Jaungoikoaren Ama, ta zeruan dagoana.
- I. Ta altaran dagoana, nor da?
 E. Zeruan dagoanaren irudi bat.
- I. Zetarako dago altaran?
 E. Gu, au ikusita, gomutau gaitian zeruan dagoanagaz, ta bere irudia dalako erreberentziau dagigun.
- IRAK.** Bada beste santuen irudi ta imajiñai bere, alan egin bear deustezu.
- I. Aingeruai ta santuai bere erregutu bear ete deustagu?
 E. Bai, Jauna, geure bitartekoai legez.
- I. Zer dira Aingeruak?
 E. Dira Jaungoikoa dakusen Espiritu Zorioneko batzuk.
- I. Zetarako egin zituzan Jaungoikoak?
 E. Bera beti alabau eta bedeinkatu dagien.

I. Zetarako geiago?

E. Bere serbitzariak legez, Elexea zuzendu eta gizonak zainduteko.

I. Beraz zuk bere badaukazu Aingeru jaolea?

E. Bai, badaukat, eta gizon bakoitxak dauka berea.

IRAKASLEAK. Bada debozinoe andi bat euki egiozu, eta egun oro berari errezau egiozu.

Irugarren parte, zeñetan adierazoten dan egin bear dana

Ikusi dogu sinistu, eta eskatu bear dozuna: dakuskun zelan dakizun egin bear dozuna. Esan egizu:

I. Zein da Jaungoikoaren legeko lenengo agindua?

E. Jaungoikoa maite izatea gauza guztiez ganean.

I. Nok maite dau Jaungoikoa?

E. Bere agindu santuak gordetan dituzanak.

I. Zer da Jaungoikoa maite izatea gauza guztiez ganean?

E. Gauza guztiak galdu gurago izatea bera ofendidu baño.

I. Zetara geiago obligetan gaitu agindu onek?

E. Gorputzeko ta arimako alegin guztiaz, bera bakarrik adoretara, beragan sinistu ta itxaroten dagula fede bizi bategaz.

I. Nok egiten dau pekatu onen kontra?

E. Idolo, edo guzurrezko Jaungoikoak adoretan dituzanak, edo eurakgan sinistuten dabenak; fedearen kontrako gauzaren bat sinistuten dabenak, edo fedeko misterioaren baten dudea daukanak; edo dotrinea bear dan legez ez dakianak; fede, esperantza eta karidadeko aktoak bear direanean egiten ez dituzanak; edo Jaungoikoaren errukiagan itxaroten ez dabenak, edo prestaera txarragaz sakramenturen bat artuten dabenak.

I. Nok geiago?

E. Aztuei sinistea emoten deustsenak, edo sorginkerietan dabiltzanak; edo okerreko gauzakaz, edo oker Jaungoikoa adoretan dabeenak.

I. Bigarren agindua zein da?

E. Ez juramenturik egitea alperrik.

I. Nortzuk alperrik juramentu egiten dabee?

E. Egia бага, premiña бага, edo gauza dongaren bat egiteko, juramentu egiten dabeenak.

I. Zer da egia bagarik juramentu egitea?



- E. Da juramentu egitia norberaren eretxiaren kontra, edo guzurragaz.
- I. Eta egia bagarik, edo dudan dagoala juramentu egitea, ze pekatu da?
- E. Pekatu mortala, juramentua gauza txikiaren ganean izan arren bere.
- I. Zer da zuzentasun bagarik juramentu egitea?
- E. Da juramentu egitea gauza bidebagako, eta dongaren bat egiteko, esaterako, projimuari gatzen bat egiteko.
- I. Eta ze pekatu da zuzentasun bagarik juramentu egitea?
- E. Juramentua gauza astunaren ganean bada, pekatu mortala; eta gauza ariñaren ganean bada, pekatu beniala.
- I. Zer da premiña бага juramentu egitea?
- E. Da juramentu egitea, egiteko premiña bagarik, edo utsa balio daben gauzaren batgaitik.
- I. Ze pekatu da au?
- E. Pekatu beniala, ez faltau ezkeru juramentuaren egiara, ez justiziara.
- I. Eta egiten dabenak juramentu, boto, edo promesen bat, gauza onen bat egiteko, kunplidu bear ete dau?
- E. Bai Jauna, eta ez kunplietea edo kunplidu bagarik luzaro eukitea, pekatu mortala da, gauza astunaren gañean izan ezkeru.
- I. Eta Jaungoikoak egiñiko gauzakgaitik alperrik juramentu egitea, pekatu ete da?
- E. Bai Jauna, zergaitik eurretan egiten jako euren Egilla Jaungoikoari.
- I. Ze modutan juramentu egiten da, Jaungoikoak egiñiko gauzakgaitik?
- E. Esaten dala, konturako, neure arimeagaitik, zeruagaitik, lurragai-tik, juramentu egiten dot au alan dala.
- I. Ze neurri artu giñaike juramentu alperrik ez egiteko?
- E. Artu ekandua, esateko: bai, edo ez, Jesukristok erakusten deuskun legez.
- I. Eta agindu onetan beste gauzarik eragozten ete da?
- E. Bai Jauna, eragozten bere da blasfemia, zein dan esatea berba txar-rak Jaungoikoagaitik, edo bere Santuakgaitik, zein dan pekatu mortala.
- I. Zein da irugarrena?
- E. Domekak eta jaiak gordetea.
- I. Nok gordetan ditu jaiak?
- E. Meza osoa entzun, eta premiña бага biarrik egiten ez dabeenak.
- I. Eta ze pekatu da domeka eta jaietan premiña бага biar egitea?

- E. Ordu bitik gora biar egiten bada, pekatu mortala; eta ordu bitik beerakoa bada, geienez pekatu beniala.
- I. Zein da laugarrena?
- E. Aita eta Ama onretea.
- I. Nok onretan ditu gurasoak?
- E. Euren esanak egiten dituenak, eurai langundu, ta lotsea gordetan deutsenak.
- I. Nortzuk egiten dabe pekatu mortala oneen kontra?
- E. Etxearen, eta arimearen onerako diran gauzetan gurasoen esanak egiten ez dituezan seme alabak; gurasoai euren premiñetan lagunduten ez deutsenak; biraoak botaten deutsezanak; burla egiten deutsenak; eskua jasoten deutsenak; eta ezkontzeko asmo ta neurrietan dabiltzanak, euren barri ta borondate bagarik.
- I. Nortzuk besterik adituten dira gurasoen izenagaz?
- E. Nagusiagoak edadean, onran, ta agintaritzan.
- I. Eta agindu onetan sartuten ete dira seme alabak gurasoakganako daukezan obligaziñoez ganera besteren batzuk?
- E. Bai Jauna, nagusiaguak mendekuak ganako daukezanak, eta gurasoak euren seme alabakganako.
- I. Zeintzuk dira orreek?
- E. Emotea janaria, irakatsi ona, kastigua, ejenplua, eta jaoken estadua bere denporan.
- I. Ze pekatu egiten dabe, onetan uts egiten dabeenak?
- E. Geienez pekatu mortala.
- I. Zein da bostgarrena?
- E. Ez iñor iltea.
- I. Zer aginduten da mandamentu onetan?
- E. Iñori ez gatzik egitea, ez egitez, ez esatez, ez gurariz bere.
- I. Nok egiten dau pekatu mortala agindu onen kontra?
- E. Bere buruari, edo iñori eriotzea, edo gatx andiren bat opa deutsanak; edo norbaiti gorroto deutsanak; norbait il, edo zaurituten dabe-nak; iñor joten dabenak; ordituten danak; osasunean gatx andia egingo deutsen gauzak jaten dituzanak; bere bizitzea galtzeko arriskuan jarten danak; edo norberaren burua ilten dabenak; eta norberari edo besteri birao egiten deutsanak.
- I. Zer da birao egitea?
- E. Da eskatutea gatzen bat norberarentzat, edo besterentzat, esango balitz legez: «Arren bada, ortxe illik jausiko al az».
- I. Ze pekatu da birao egitea?



E. Gatx andia opa bajako, pekatu mortala.

I. Eta gatx andirik opa ez bajako?

E. Beniala, beti ez bada bere.

I. Nortzuk pekatu mortala egiten dabe birao egiñaz gatx andirik opa izan baga?

E. Geienez gurasoak, eta nagusiagoak euren mendekoen aurrean biraoak botaten dituezanak; birao egiteko ekandua daukenak, eta kentze-ko aleginik egiten ez dabeenak.

I. Zergaitik ori?

E. Zerren euren esate eta ejenplu txarrakaz emoten deutseen bes-teari Jaungoikoa gauza astunean ofendietako bidea; eta oni deritxa eskandalua.

I. Zein da seigarrena?

E. Aragizko pekaturik ez egitea.

I. Zer aginduten jaku mandamentu onetan?

E. Izan gaiteala garbiak, gogo, esate, eta egiteetan.

I. Nortzuk egiten dabe pekatu mortala mandamentu onen kontra?

E. Jakiñaren ganera gozatuten diranak gogoraziño loietan, bete eta egiaztu ez arren; eta onetarako guraririk bere euki ez arren; berba loiak esan, edo kanta nabarmenak kantetan dituezanak; edo borondatez entzuten dituezanak; edo euren buruakaz edo besteakaz gauza zikiñak egiten dituezanak, edo egiteko gurariak daukezanak.

I. Zein da zazpigarrena?

E. Ez iñori ezer ostutia.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez dagigula kendu, ez euki, ez gura izan iñoren gauzarik, bere jau-bearen borondatearen kontra.

I. Nortzuk egiten dabe pekatu mortala onen kontra?

E. Oneetariko edozeinbere gauza egiten dabeenak, edo beste modu-baten baten, kalte egiten deutenak projimuari, dan moduan dala bere ondasetan gauza astunean.

I. Eta onetan kalte egiten deutenak projimuari, edozeinbere modutan, badauke ezer egin bearrik?

E. Bai Jauna, al bait lasterren biurto bear deutse jaubeari bere gauzea, eta osotu egin deutsezan kalte guztiak.

I. Zein da zortzigarrena?

E. Iñori falso testimoniorik ez eregitea, eta guzurrik ez esatea.

I. Zer aginduten da mandamentu onetan?

E. Ez egitea projimuagaitik juzgu txarrik arin, au da, bide ta errazoe baga; eta ez esatea, ez entzutea bere utsegiteak.

I. Nok austen dau agindu au?

E. Juzgu txarra egiten dabenak errazoearen kontra, au da, atarako bear dan besteko bide edo motiborik euki bagarik; iñori kleitua kenduten deutenak; gauza ixilla ta ezkutoa agertuten dabenak; edo guzurra esaten dabenak.

I. Eta projimuari kleitua gauza astunean kentzen deutenak, esan-gaz beragaitik egin ez daben gauza txarren bat; edo egindako gauzea, baña ezkutuan dagoana; edo arpegian emoten deutenak bere utsegiteakaz, zer egin bear dau?

E. Biurto bear deuta, kendu deutan onra eta kleitua.

I. Zer da eragozten dana bederatzigarren eta amargarren aginduetan?

E. Aragizko atsegiñen, eta iñoren ondasunen gurari bidebagakoak.

I. Zenbat dira Elexa Ama Santearen aginduak?

E. Bost.

I. Zeintzuk dira?

E. Lenengoa, meza osoa entzutea domeka eta jai guztietan.

Bigarrena, urtean bein edolabere konfesetea, edo lenago eriotzako peligrurik badago, edo komulgau bear badau.

Irugarrena, Garizumako Paskoetan komulgetea.

Laugarrena Elexa Ama Santeak aginduten dabenean, baru egitea.

Bostgarrena amarrenak eta primiziak Jaungoikoaren Elexeari pagetea.

I. Zetarako dira mandamentu oneek?

E. Jaungoikoaren legekoak obeto gordetako.

I. Eta lenengo agindua, zein dan meza entzuteko, nortzuk gorde bear dabe?

E. Adiñera eldu diran kristiñau guztiak.

I. Zelan entzun bear da mezea?

E. Egonik atenziño, errespeto, eta deboziño andiagaz, Jesukristo gure Jaunaren pasiñoan, edo beste gauza onen baten gogoa dogula, edo zerbait errezetan.

I. Eta eragozpen andirik euki baga mezea entzuten ez dabenak, edo dagoanak meza guztian, edo zati andian atenziño baga; edo mezarik ez entzuteko arriskuan jarten danak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala.

I. Eta bigarrena eta irugarrena, zeintzuk diran konfesetea, eta komulgetea, nortzuk gorde bear dituez?

E. Pekatu mortalaren bean, adiñera eldu diran kristiñau guztiak.



I. Eta pekatu mortalean komulgetan diranak, agindu oneek kunplietan ete dituez?

E. Ezelanbere ez Jauna; eta Sakramentu bi oneetatik bakotxa deungaro artzen dabenean egiten dabe pekatu mortala.

I. Ilteko arriskuan konfesorarik ez daukanak, zer egin bear dau?

E. Akto kontriziñoeko bat, konfesetako gogoagaz.

I. Eta laugarrena, zein dan baru egitea, nortzuk gorde bear dabe?

E. Ogeta bat urte kunplidu dituezanak.

I. Eta zelan egin bear da barua?

E. Eragotzirik ez dagozan janariakaz bazkaritan baño jaten ez dala, eta au egerdian.

I. Eta onetan utsik egin bagarik, artu ete leiteke ezer goxean?

E. Bai Jauna, artu leike ontza bat legez, motiburen bat badago, motibu au txikia izan arren.

I. Eta gabean?

E. Artu leike kolaziñotzat kristiñau onen artean oi dana, itundurik onen ganean, dudarik badago, konfessore jakitun bategaz.

I. Eta nortzuei jaoko eragotzirik, aragia jatea bijilia ta baru egunetan; oneetan naastutea aragia ta arraina jatordu baten; eta jatea arrautzak eta eznejakiak garizuman, buldarik euki бага?

E. Ezauerara eldu diran guztiai.

I. Eta ze pekatu egiten dabe, gordetan ez dituezanak?

E. Pekatu mortala, egun oneetan jaten dabeen guztian.

I. Zenbat dira Obra miserikordiazkoak?

E. Amalau: zazpi arimeari, eta beste zazpi gorputzari dagokozanak.

Arimeari dagokozanak dira oneek:

Lenengoa, ez dakianari irakastea.

Bigarrena, bear dabenari konseju ona emotea.

Irugarrena, uts egiten dabena zuzendutea.

Laugarrena, gatx egiñak parkatutea.

Bostgarrena, triste dagoana poztutea.

Seigarrena, projimuaren utsegite ta argaltasunak pazienziatz igarotea.

Zazpigarrena, biziak eta illakgaitik Jaungoikoari erregututea.

Gorputzari dagokozanak dira oneek:

Lenengoa, geixoak bisitetea.

Bigarrena, gose danari jaten emotea.

Irugarrena, egarri danari edaten emotea.

Laugarrena, katiguak askatutea.

Bostgarrena, billosak jantzitea.

Seigarrena, bidasti pobrei ostatu emotea.

Zazpigarrena, illak enterretea.

I. Zergaitik deritxe miserikordiazkoak?

E. Justiziaz zor ez direlako.

I. Noz dira obligaziñoekoak?

E. Gizon aituen eretxian premiña andikoak diranean.

I. Eta kristiñauak egiten dituzan miserikordiazko obra oneekgaitik, eta beste gauza onakgaitik, nai izan aginduak, nai borondatezkoak, zer irabazten dau?

E. Jaungoikoaren grazian badago, euren bitartez grazia ta gloria geituteko duin egiten da; eurakaz pagetan dau bere pekatuen zorra, eta alkantzetan ditu Jaungoikoagandik arimako onerak, baita gorputzekoak bere, arimearen kaltean izango ez badira.

I. Zetarako esaten dozu «Jaungoikoaren grazian badago?»

E. Pekatu mortalean dagozanak egiten dituezan obra onakaz, ez dagoalako irabazirik, ez pekatuen zorra pagetarik; baño alanbere euren bitartez, zelanbait alkantzau giñaikez Jaungoikoagandik mesederen batzuk.

Laugarren partea, zeñetan adierazoten diran, artu bear diran sakramentu santuak

Ikusi dogu zelan dakizun zer sinistu, zer eskatu, ta zer egin bear dozun: dakuzkun zelan dakizun zer artu bear dozun, zeñ dan azkenengoa. Esan egizuz Sakramentu Santuak.

Elexa Ama santearen sakramentu santuak dira zazpi. Lenengo bostak dira nai ta naiezkoak izatez edo borondatez, zeintzuk бага salbau ezin leitekean, itxiten baditu nagitasunez, edo ezetan ez eukiz: beste biak dira borondatezkoak.

Lenengoa, Bautismua.

Bigarrena, Konfirmaziñoa.

Irugarrena, Konfesiñoa.

Laugarrena, Komuniñoa.

Bostgarrena, Oleaziñoa.

Seigarrena, Ordia.



Zazpigarrena, Ezkontzea.

I. Ze gauza dira Sakramentuak?

E. Dira Jesukristok itxiriko señale agiri batzuk, euren bitartez emoteko guri bere grazia ta birtuteak.

I. Zer da grazia?

E. Da izate Jaungoikozko bat, zeñek egiten daben gizona Jaungoikoaren seme, ta zeruko herederu, edo jaubegei.

I. Eta zelan deritxa grazia oni?

E. Santututzallea.

I. Eta onezaz ganera, ete dago beste grazia muetarik?

E. Bai Jauna, badira beste batzuk, orduberekoak deitzen deutenak, edo laguntasun batzuk, edo argitasun batzuk, zeintzuk baga ezin giñaikean asi, eta ez giñaikean ere jarraitu, eta ez giñaikean amaitu, betiko bizitzarako gauzarik.

I. Zertzuk dira orreek?

E. Dira Jaungoikuak emoten deuskuzan laguntasun batzuk, gauza txarretatik aldendu, eta onak egiteko; esaterako, sermoiak entzutea, ejenplu onak ikustea, ustebagako eriotzen barri eukitea, eta argitasun batzuk, zeintzuekaz argituten dituzan Jaungoikoak gure adiñak; eta gurari santu batzuk, zeintzuekaz igitu eta mobietan dituzan onerako gure borondateak.

I. Ze birtute emoten dabe Sakramentuak graziagaz batera?

E. Batez bere iru jaungoikozkoak.

I. Zeintzuk dira?

E. Fedea, Esperantzea, eta Karidadea.

I. Zer da Fedea?

E. Ikusi ez doguna sinistutea, Jaungoikoak alan agertu dabelako.

I. Zer da Esperantzea?

E. Itxarotea zeruko gloria Jaungoikoaren laguntasunaren ta geure egite onen bitartez.

I. Zer da Karidadea?

E. Jaungoikoa maite izatea gauza guztien ganean, eta geure projimua geure burua legez, eurai egiten deutsegüela, eurai geuri egitea naiko gendukeana.

I. Zetarako da Bateoko Sakramentu Santua?

E. Kentzeko pekatu jatorrizkoa, eta bateatuten danak besterik baleuka bere.

I. Zer da pekatu jatorrizkoa?

E. Da jaiotzan dakarguna, zein jatorrun geure gurasoetatik.

I. Premiñako denporan, nok bateatu leike?

E. Edozeinbere gizakume, edo emakume, adiña daukanak.

I. Eta zelan bateatu bear da?

E. Botaten dala ura seiñaren buruaren ganera, eta onegaz batera esaten dala, bateatuteko gogoagaz: «Nik bateatuten zaitudaz Aitearen, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Amen».

I. Zetarako da Konfirmazinoeko Sakramentu Santua?

E. Bateoan artu genduan fedean indartu eta sendatuteko.

I. Adiñera elduta Sakramentu santu au pekatu mortalean artzen dabenak, ze pekatu egiten dau?

E. Pekatu mortala.

I. Bada zer egingo dau artuten dabenean, pekatu ez egiteko?

E. Aurrez prestau, eginik konfesiño on bat.

I. Zetarako da Konfesiñoeko Sakramentu Santua?

E. Bateatu ezker egiñiko pekatuak parkatuteko.

I. Ze pekatu dira orreek?

E. Mortalak, baita benialak bere.

I. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatea, egitea, pensetea, edo gura izatea zerbait, Jaungoikoaren legearen kontra, gauza astunean.

I. Zergaitik deritxa mortala, edo iltzallea?

E. Ilten dabelako egiten dabenaren arimea.

I. Noz artzen dogu Konfesiñoeko Sakramentu Santua?

E. Ondo konfesauta, absolutziñoa artzen dogunean.

I. Zenbat gauza bear dira konfesiñoa ona izateko?

E. Bost gauza Jauna.

I. Zeintzuk dira?

Lenengoa, Esaminea.

Bigarrena, Damua.

Irugarrena, Propositua.

Laugarrena, Pekatuen Konfesiñoa.

Bostgarrena, Satisfaziñoa.

I. Zer da Esaminea?

E. Da alegiñaz pekatuak gogora ekartea.

I. Nundik egingo da esaminea?

E. Jaungoikoaren legeko amar agindu santuetatik, bost Elexakoetatik, amalau obra miserikordiazkoetatik, pekatu kapitaletatik, eta bakotxak bere obligaziñoetatik.

I. Zer da esamiña aurrean egin bear dana?



E. Bakotzak bere pekatuak ezagututeko Jaungoikoari argitasuna eskatu.

I. Zer da damua?

E. Egin dan pekatuaren pena ta atsekabea biotzean artutea.

I. Zenbat modutakoa da damua?

E. Modu bitakoa.

I. Zeintzuk dira?

E. Amodiozko, edo kontriziñoekoa bata; eta bildurrezkoa, edo atriziñoekoa bestea.

I. Zer da amodiozko, edo kontriziñoekoa damua?

E. Da artutea damu bizi bat Jaungoikoa ofendidu dabelako izanik ain ona, konfesetako, onduteko, eta penitentzia kunplietako asmoagaz.

I. Zer da bildurrezko, edo atriziñoekoa damua?

E. Da eukitea damu bizi bat Jaungoikoa ofendidu dabelako, edo pekatuaren ezintasunagaitik, edo infernuaren bildurragaitik, edo zeruko gloria galdu dabelako, konfesetako, onduteko, eta

penitentzia kunplietako gogoagaz.

I. Damu bi oneetatik zein da oneena?

E. Amodiozko, edo kontrizinokoa.

I. Zergaitik?

E. Kontriziñoekoa datorrelako amodiotik, eta atriziñoekoa bildurretik, kontriziñoekoa damuagaz konfesau baño lenago parkatuten dira pekatu mortalak, eta jarten da Jaungoikoaren grazian; baño atriziñoekoa baka-rik, ez dira alkantzetan gauza oneek.

I. Konfesiñoa ona izateko asko ete da atriziñoekoa damua, ala kontriziñoekoa bear ete da?

E. Geienak diñoie asko dala atriziñoekoa, baño obeto eta ziurrago da kontrizinokoa, eta au eukiteko alegiña egin bear dau konfesetan danak.

I. Noz euki bear da damua?

E. Konfesoreak absoluziñoa emon baño lenago.

I. Zer da propositua?

E. Erabaki sendo bat, ez iñoz geiago pekatu mortalagaz Jaungoikoa ofendietako.

I. Zer da Konfesiñoa?

E. Da esatea ziaz Konfesoreari pekatu mortal guztiak, penitentzia kunplietako borondategaz.

I. Itxiten dabenak lotsaz konfesau baga pekatu mortalen bat, edo konfesetan dabenak egin ez daben pekatu andiren bat; edo konfesetan

danak damu baga, propositu baga, edo penitentzia kunplietako borondate baga, konfesiño ona egiten ete dau?

E. Ez Jauna, egiten dau sakrilejioko pekatu mortal andi bat, eta konfesau bear ditu barrero, len konfesauak, eta konfesau bagaak, baitabere egin daben sakrilejioko pekatua.

I. Nortzuk sinistu legie ez dabeela euki damurik, ez propositurik euren konfesiñoetan?

E. Pekatuko okasiñoetatik alde egiten ez dabeenak, eta konfesiño batetik bestera leengo pekatuetara biurtuten diranak.

I. Eta damu ta propositu egiazkoa artuten lagunduteko, zer egitea ondo izango da?

E. Konfesetara eldu baño lenago eskatu Jaungoikoari konfesiño on bat egiteko laguntasuna emon dagiola; erabilli goguan Jaunak egin deutzazan mesedeak, edo bere pasiñoa, ta eriotzea, edo bere ontasuna, eta esan bein, birritan eta geiagotan: Neure Jesukristo Jauna.

I. Zer da satisfaziñoa?

E. Da pagetea Jaungoikoari geure pekatuakgaitik deutzagun zorra, kunplietan dogula konfesorik iminten deuskun penitentzia.

I. Eta ze pekatu egiten dau, penitentzia kunplietan ez dabenak, edo kunplidu baga luzaro daukanak?

E. Pekatu mortala, penitentzia andia bada.

I. Pagau ete giñaikio Jaungoikoari geure pekatuen zorra, iminten jakun penitentiagaz ganera, beste gauzagaz?

E. Bai Jauna, Jaungoikoaren grazian gagozala egiño obra on guztiakaz, eta induljenziak irabaziaz.

I. Zertzuk dira Induljenziak?

E. Dira Elexa santeak emoten dituen grazia batzuk, zeintzuekgaitik parkatuten dan, pekatuakgaitik mundu onetan, edo bestean irago bearko litzatekean pena ta kastigua.

I. Zelan irabaziko dira?

E. Eginik Jaungoikoaren grazian, onetarako aginduten dana.

I. Mundu onetan euren pekatuen zorra pagau ez ebelako purgatoriora doazanai guk lagundu ete giñaikioe?

E. Bai Jauna, geure pekatuen zorra pagau giñaikio obrakaz eurakaz.

I. Eta norbait pekatu mortalean jausten dan guztian konfesau bear ete da laster; parkatua izan dagion?

E. Guztiz da ondo alan egitea; bada luzatuten bada pekatutik urtea, bildur izateko da, pekatuan gogortu, pekatuan il, eta betiko galduko dala. Pekatu mortalean lo egitea, da infernuko atetan lo egitea.



- I. Zer da pekatu beniala?
 E. Da esatea, egitea, pensetea, edo gura izatea zerbait Jaungoikoaren legearen kontra gauza txikiaren ganean.
- I. Zergaitik deritxa beniala?
 E. Arin, au da, erraz, gizona beratan jausten dalako, eta erraz parkatutun jakolako.
- I. Zenbat gauzagaitik parkatutun da, pekatu beniala?
 E. Bederatzigaitik.
- I. Zeintzuk dira?
 E. Lenengoa, meza entzuteagaitik.
 Bigarrena, Komulgeteagaitik.
 Irugarrena, Ni pekataria esateagaitik.
 Laugarrena, Obispo Jaunaren bendiziñoagaitik.
 Bostgarrena, ur bedeinkatuagaitik.
 Seigarrena, ogi bedeinkatuagaitik.
 Zazpigarrena, Aita gurea esateagaitik.
 Zortzigarrena, Sermoea entzuteagaitik.
 Bederatzigarrena, bularra joteagaitik,
 Jaungoikoari parka eske dagokala.
- I. Zergaitik esaten dozu: «Jaungoikoari parka eske dagokala?»
 E. Adierazoteko, pekatu benialen parkaziñoa alkantzauko bada gauza oneen bitartez, euki bear dogula euren damu santuren bat.
- I. Konfesau bear ete ditugu pekatu benialak?
 E. Ez da premiñazkoa, baña da gauza ona, ta mesedegarria.
- I. Eta azkenengo konfesiñotik ona, pekatu benialak baño ez daukanak, zer egin leike, damua ta propositua ziurrago eukiteko?
 E. Konfesau lenengo ontzubengo konfesiñotik onako pekatu benialak; eta gero leengo bizitzako pekatu mortalen bat.
- I. Zetarako da Sakramentu Santu Komuniñoakoa?
 E. Ondo pretauta artuten bada, izan dedin gure arimen janaria, eta geitu dagigun grazia.
- I. Zergaitik diñozu: Ondo pretauta artuten bada?
 E. Adierazoteko, Sakramentu Santu au ez dala izango gure arimen janaria, artuten ez badogu bear diran pretaerakaz, bai arimearen aldetik, eta bai gorputzaren aldetik.
- I. Ze prestaera bear da bada arimearen aldetik?
 E. Jaungoikoaren grazian egotea.
- I. Pekatu mortalean jausi dana, zelan pretauko da komulgetako?
 E. Konfesiño on baten bitartez.

- I. Eta konfesau ezkerro, pekatu mortalen bat gogoratuten jakonak, zer egin bear dau?
 E. Konfesau barrero komulgau baño lenago.
- I. Gorputzaren aldetik ze prestaera bear da?
 E. Barurik egotea (Komuniño santua ez danean Elexakoak artzeko) ezer jan, ez edan bagarik, igaro dan gabeko amabietatik aurrera.
- I. Komuniñoako Sakramentu Santuan, zer artuten dozu?
 E. Jesukristo Jaungoiko ta gizon egiazko, altarako Sakramentu Santuan dagoana egia guztiagaz.
- I. Nor dago ostrian konsagraziñoako berbak esan ezkerro?
 E. Jesukristoren gorputza, bere odol, arima, ta Jaungoikotasunagaz batera.
- I. Eta kalizan?
 E. Jesukristoren odola, bere gorputz, arima, ta Jaungoikotasunagaz batera.
- I. Onelan Jesukristo guztia dago ostrian, eta kalizan?
 E. Bai Jauna, Jesukristo guztia dago ostria guztian, guztia ostriaren edozein zatitan, eta bardin kalizan.
- I. Konsagraziñoako berbak esan ezkerro ete dago ostrian ogirik, edo kalizan ardaorik?
 E. Ez Jauna, ezpada ogiaren ta ardaoaren antz ta irudiak, zeintzuk diran usaiña, kolorea, gustua.
- I. Eta zatituten bada ostria, edo erdibitu kalizan dagoana, zaituten edo erdibituten ete da Jesukristo?
 E. Ez Jauna, guztia osorik geldituten da zati guztietan, eta bakotxean.
- I. Pekatu mortalean kolmulgetan danak, artzen ete dau Jesukristo?
 E. Bai Jauna; baña bere kaltean; bada egiten dau sakrilejioko pekatu mortal ikaragarri bat.
- I. Eta ondo pretauta artuten dabeenak, zer egin leie; onera andiagokak irabazteko?
 E. Komulgau baño lenago, gogoan erabilli; nor dan eurakgana datorren Jauna; egin sarri fede, esperantza ta karidadeko aktoak; komulgau umiltasun ta deboziño andiagaz, eta gero emon eskerrak Jesusi egin deustan mesede ain andiagaitik.
- I. Zetarako da Oleaziñoako Sakramentu Santua?
 E. Iru gauzatarako.
- I. Zeintzuk dira?
 E. Lenengoa, lenagoko bizitza gaistoko errastu ta enparauak kentzeko. Bigarrena sendatuteko arimea deabruaren asmo ta esetsien kontra.



Irugarrena, emoteko gorputzari osasuna arimearen kaltean izango ez bada.

I. Adiñera elduta, ilteko arriskuan geixorik dagozanak, artu bear ete dabe Sakramentu Santu au?

E. Bai Jauna, eta pekatu mortala egiten dabe, al dabeela, artuten ezpadabe, edo artuten badabe pekatu mortalean.

I. Zer egingo dau bada pekatu mortalean aurkituten danak, ondo pretauta artzeko?

E. Konfesiño on bategaz garbitu bere arimea, eta ezin bada konfesa, egin akto kontriziño bat, edo batzuk.

I. Zetarako da Sakramentu santu Ordeakoa?

E. Konsagretako eta ordenduteko elesgizon duiñak, zelan diran Sazerdote Jaunak, diakonuak, eta Subdiakonuak.

I. Eta elesgizonai, batezbere Sazerdote Jaunai, gorde bear ete jake berarizko lotsa, itzal eta erreberenzia?

E. Bai Jauna.

I. Zetarako da Sakramentu Santu Ezkontzakoa?

E. Ezkontuteko, eta emoteko grazia ezkonduai, euren artean bakean biziteko, eta seme alabak zerurako aziteko.

I. Eta Sakramentu Santu au ondo artuteko, ezkonduen diranak egon bear ete dabe Jaungoikoaren grazian?

E. Bai Jauna.

I. Jaungoikoaren grazian ez dagozanak zelan prestau bear dabe, ondo artuteko?

E. Konfesiño on bategaz.

PEKATU KAPITALAK DIRA ZAZPI

Lenengoa, Arrokeria. Bigarrena, Zekentasuna. Irugarrena, Loikeria. Laugarrena, Aserrea. Bostgarrena, Guleria. Seigarrena, Ondamua. Zazpigarrena, Nagitasuna.

I. Zergaitik deituten deutsezu kapitalak, geienean mortalak esaten jaken zazpi pekatuak?

E. Deituten jake kapitalak, diralako buruak, euretatik jaioten diran beste pekatuen iturri ta sustraiak legez; ez jatorke barriz ain ondo mortalen izena, bada askotan benialak baño ez dira.

I. Noz dira mortalak?

E. Jaungoikoaren eta projimuaren karidadearen kontra diranean.

I. Noz dira karidadearen kontrakoak?

E. Euren bitartez austen danean Jaungoikoaren legeko, edo Elexa santearen aginduren bat, gauza astunean.

I. Zer da Arrokeria?

E. Besteak baño geiago izateko gurari bidebagako bat.

I. Zer da Zekentasuna?

E. Da ondasunen gurari larregi bat.

I. Zer da Loikeria?

E. Da gorputzeko atsegin zikiñen gurari bidebagako bat.

I. Zer da Aserrea?

E. Da bengetako gurari donga bat.

I. Zer da Guleria?

E. Da jateko ta edateko gogo geiegi bat.

I. Zer da Ondamua?

E. Besteen ona ikusi eziña.

I. Zer da Nagitasuna?

E. Gauza onetarako gogo txar, ta narrastasuna.

ZAZPI PEKATU ONEEN KONTRA DAGOZ ZAZPI BIRTUTE

Arrokeriaren kontra umiltasuna.

Zekentasunaren kontra prestutasuna.

Loikeriaren kontra garbitasuna.

Aserrearen kontra pazienza.

Guleriaren kontra jan edanean begiratu izatea.

Ondamuaren kontra karidadea.

Nagitasunaren kontra prestatasuna.

IGES EGIN BEAR DEUTSEGUN ARIMAKO ARERIOAK DIRA IRU

Lenengoa, Mundua. Bigarrena, demonioa. Irugarrena, aragia.

I. Zein da Mundua?

E. Dira gizon mundutar; gaisto, ta dongak.

I. Zein da Demonioa?

E. Da Jaungoikoak zeruan egin eban aingeru bat; baña jarki jakola-ko Jaungoikoari berari beste askogaz, bota eban Jaungoikoak infernuetara bere gaistakeriako lagunakaz, zeintzuei deituten deutsegun demonioak.

I. Zein da Aragia?

E. Da geure gorputza bera, bere griña gaisto, ta etsikitasun dongakaz.

I. Zelan azpiratuten da mundua, ta iges egiten da beragandik?



E. Au azpiratu ta goituten da, beragandik iges egiten dala, ta bere andikeria, ta arrokerien ezikusiazagaz.

I. Zelan goituten da demonioa, ta iges egiten da beragandik?

E. Errezuakaz, oraziñoagaz, ta umiltasunagaz.

I. Zelan goituten da aragia, ta iges egiten da beragandik?

E. Au goituten da, ta oni iges egiten jako laztasunakaz, azoteakaz, zilizioakaz, ta baruakaz. Au da gure areriorik andiena, zerren aragia ezin geugandik bota giñaike; mundua ta demonioa bai.

Birtute Teologalak, edo Jaungoikoaganuntzkoak dira iru. Lenengoa, Fedea. Bigarrena, Esperantzea. Irugarrena Karidadea.

I. Zelan ez dogu utsik egingo oneen aktoak egiteko daukagun obligaziñoan?

E. Errezetan doguzala sarri ta deboziñoz (edozein kristinauk bear daben legez) Kredoa, Aita gurea, eta biotzetik esanaz: Neure Jesukristo Jauna.

BIRTUTE KARDINALAK DIRA LAU

Lenengoa, Prudenzia. Bigarrena, Justizia. Irugarrena Sendotasuna. Laugarrena Tenplanzia, edo begiratu izatea.

GORPUTZEKO ZENTZUNAK DIRA BOST

Lenengoa begiakaz ikustea.

Bigarrena belarriakaz entzutea.

Irugarrena aoagaz gusto artzea.

Laugarrena, surragaz usain egitea.

Bostgarrena, eskuakaz ukututea.

I. Zetarako emon euskuzan, Jaungoikoak zentzunak, eta gorputzaren beste zatiak?

E. Guztiakaz, ta gauza guztietan bera serbidu ginaian.

ARIMAKO ALMENAK, EDO POTENZIAK DIRA IRU

Gomuta, edo Memoria.

Adiña, edo Entendimentua.

Borondatea.

I. Zetarako emon eskun Jaungoikoak gomuta, edo Memoria?

E. Gomutau giñaitzean beragaz, ta bere mesedeakaz.

I. Zetarako emon euskun adiña, edo entendimentua?

E. Bera ezagutu, eta beragan pensau giñaian.

I. Zetarako emon euskun Jaungoikoak borondatea?

E. Maitetu dagigun ontasun osoa legez, eta projimua beragaitik.

I. Ze gauza da gure arimea?

E. Da espiritu ill ezin bat, Jaungoikoak ezerezetik, bere antz eta iru-dira egia.

ESPIRITU SANTUAREN DOEAK DIRA ZAZPI

Lenengoa, jakituriako Doea.

Bigarrena, Adiñeko Doea.

Irugarrena, Konsejuko Doea.

Laugarrena, Ezaiarako Doea.

Bostgarrena, Sendotasuneko doea.

Seigarrena Errukitasuneko Doea.

Zazpigarrena, Jaungoikoaren bildurreko Doea.

ESPIRITU SANTUAREN FRUTUAK DIRA AMABI

Lenengoa, Karidadea. Bigarrena, Bakea. Irugarrena biotzeko anditasuna. Laugarrena, Biguntasuna. Bostgarrena, Fedea. Seigarrena, Kontinenzia, edo Moderaziñoa. Zazpigarrena, Arimako Poza. Zortzigarrena Paziencia, edo Eruapena. Bederatzigarrena, Ontasuna. Amargarrena, Otsantasuna. Amaikagarrena, Modestia. Amabigarrena, Garbitasuna, edo Kastidadea.

ZORIONTASUNAK DIRA ZORTZI

1. Zorionekoak gogotik pobreak, euren dalako zeruetako erreinua.
2. Zorionekoak otsanak, eurak lurraren jaubeak izango diralako.
3. Zorionekoak, negar egiten dabeenak, eurak poztuak izango diralako.

4. Zorionekoak onaren gose ta egarri direanak; zerren eurak aseak izango diran.

5. Zorionekoak errukiorrak; zerren eurak errukia alkantzauko dabeen.

6. Zorionekoak biotz garbikoak, eurak Jaungoikoa ikusiko dabeelako.

7. Zorionekoak baketsuak, zerren Jaungoikoaren semeen izena emongo deuten.

8. Zorionekoak persekuziñoa igaroten dabeenak onak diralako, bada euren izango da zeruetako erreinua.

I. Zertzuk esan ditugu orain?

E. Zortzi zoriontasunak.

I. Ze gauza dira zortzi zoriontasun oneek?

E. Espiritu Santuaren birtute ta doien egitekorik oneenak.



- I. Nortzuk dira gogotik pobreak?
 E. Ez dabeenak gura, edolabere eraspengaz onrarik, ez ondasunik, ezta bere neurrikorik bere.
- I. Nortzuk dira otsanak?
 E. Aserrerik ez daukenak, apurrik bere,
 I. Zelan izango dira lurraren jaubeak?
 E. Euren buruen jaube izanagaz.
- I. Nortzuk dira negar egiten dabeenak?
 E. Atseginik laburrenak bere, itxiten dituezanak.
- I. Nortzuk dira onaren gosia ta egarria daukeenak?
 E. Alegiñaz ezetan bere utsik egin nai ez leuekenak.
- I. Nortzuk dira errukiorrak?
 E. Iñori bere ondo baño opa ez deutenak.
- I. Nortzuk dira biotz garbikoak?
 E. Euren gurari dongak ziatz eta osaro azpiratuten dituezanak.
- I. Nortzuk dira baketsuak?
 E. Euren buruen ta besteenen bakegillak.
- I. Nortzuk dira, onak diralako, persekuziñoa igaroten dabeenak?
 E. Gauza on guztietan sendo ta gogor dagozanak, persegiduak izan arren.
- I. Zergaitik deritxe onei zoriontasunak?
 E. Eurretan dagoalako bizitza onetakoa, eta bestekoaren itxaropena.
- I. Zenbat dira gizonaren azkenak?
 E. Lau: Eriotzea, Juizioa, Infernua, ta Gloria.
- I. Zer da Gloria?
 E. Da bizitza guztiz on bat, zeñetan aukituten diran, onera guztiak, gatxik bat bere baga: infernuan dagozan legez gatx guztiak, onerarik bat-bere baga.
- I. Infernura ez joateko, eta zerua irabazteko, zer egin bear dogu?
 E. Gorde agindu santuak.
- I. Eta ete dagoz beste neurriren batzuk errazago gordetako agindu santuak eta eurretan utsik ez egiteko?
 E. Bai Jauna.
- I. Zeintzuk dira?
 E. Sarritan konfesetea ta Komulgetea; egunero egun atako lan ta bearrak goxean goxean Jaungoikoari eskintzea; egunoro mezea entzutea; Ama Birjineari errosarioa errezetea, liburu onak irakurtea, oraziño egitea, gabetan konzienzia esamiñetea, eta baten asko esateko, artutea konfesore on, jakitun, eta begiratu bat, eta berak aginduten deustan guztia egitea.

IRAK. Ondo diñozu, bada San Franzisko Salesek diñuan legez, salbetako bear diran konseju guztiak dagoz sartuta, konfesore on bat artutean. Egizu bada zuk bere alantxe, bada bera izango da zuretzat. Aingeru bat legez, zuzenduko zaituzana neurri oneekaz, eta beste berari deritxanakaz jarraitu dakiozun sendo zeruko bideari, eta gero eldu zaitean Jaungoikoa ikustera betiko zoriontasunean, zeñetarako eginak izan giñan.

Jaungoikuak ara eruan gagizala guztiok. Alan izan dedilla.

NI PEKATARIA

Ni pekatari au konfesetan natxako Jaungoiko guztia daikeanari, Andra Maria beti Birjiña zorionekoari, San Migel Aingeruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Pablo Apostolui, Santu guztiak, ta zeuri neure arimako aita, egin dodala pekatu gogoz, berbaz eta obraz, neure erruz, neure erruz, neure erru andiagaz. Orregaitik erregututen deustat Andra Maria beti Birjiña zorionekuari, San Migel Aingeruari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Pablo Apostolui, santu guztiak, ta zeuri neure arimako aita, erregutu dagiozula nigaitik neure Jaun eta Jaungoikoari. Amen.

NEURE JESUKRISTO JAUNA

Neure Jesukristo Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, neure Egillea ta Salbagillea, zareana zarealako eta maite zaitudazalako gauza guztien ganean, damu dot Jauna, damu dot biotz guztitik zu ofendidua; artzen dot gogo sendo bat ez geiago pekatu egiteko; konfesetako iminten jatan penitenzia kunplietako, pekatuen bide guztietatik alde egiteko.

Opa deustudaz Jauna neure bizitza, egite, ta neke guztiak neure pekatu guztien satisfazinorako; eta uste dot zure ontasun, ta erruki amai-bagan, parkatuko deustazuala zeure odol guztiz baliotsu, pasiño, ta erio-tzeagaitik, eta emongo deustazuala grazia onduteko, eta zeu serbietan irau-terko neure eriotzako orduraño. Amen.



JESUKRISTOREN EBANJELIO SANTUBA SAN MATEOREN ERARA

LELENGO KAPITULUBA

Jesukristoren jatorrija aragjaren aldetik. Aingerubak agertuten deutsa Joseri zelan izan zan Jesus sortuba Marija Ama donzellien sabelian. Jesusen jaijotzia.

1. Jesukristoren Dabiden semiaren, Abrahamen semiaren jatorrijaren liburuba.
2. Abrahamgandik izan zan sortuba Isaak. Eta Isaakgandik izan zan sortuba Jakob. Eta Jakobgandik izan ziran sortubak Judas, ta bere anaijaak.
3. Eta Judasgandik izan ziran sortubak Fares eta Zara Tamargan. Eta Faresgandik izan zan sortuba Esron. Eta Esrongandik izan zan sortuba Aram.
4. Eta Aramgandik izan zan sortuba Aminadab. Eta Aminadabgandik izan zan sortuba Naason. Eta Naasongandik izan zan sortuba Salomon.
5. Eta Salmongandik izan zan sortuba Booz Bahabgan. Eta Boozgandik izan zan sortuba Obed Rutgan. Eta Obedgandik izan zan sortuba Jese. Eta Jesegandik izan zan sortuba Dabid erregia.
6. Eta Dabid erregiagandik izan zan sortuba Salomon aregan Briasena izan zanagan.
7. Eta Salomongandik izan zan sortuba Roboam. Eta Roboamgandik izan zan sortuba Abias. Eta Abiasgandik izan zan sortuba Asa.
8. Eta Asagandik izan zan sortuba Josafat. Eta Josafatgandik izan zan sortuba Joram. Eta Joramgandik izan zan sortuba Ozias.
9. Eta Oziasgandik izan zan sortuba Joatam. Eta Joatamgandik izan zan sortuba Akaz. Eta Akazgandik izan zan sortuba Ezekias.
10. Eta Ezekiasgandik izan zan sortuba Manases. Eta Manasesgandik izan zan sortuba Amon. Eta Amongandik izan zan sortuba Josias.
11. Eta Josiasgandik izan ziran sortubak Jekonias ta bere anaijaak Babilonijara Judatarrak eruanak izan ziran denporan.
12. Eta Babilonijara eruanak izan ziran ezkeru, Jekoniasgandik izan zan sortuba Salatiel. Eta Salatielgandik izan zan sortuba Zorobabel.

13. Eta Zorobabelgandik izan zan sortuba Abiud. Eta Abiudgandik izan zan sortuba Eliazim. Eta Eliazimgandik izan zan sortuba Azor.

14. Eta Azorgandik izan zan sortuba Sadok. Eta Sadokgandik izan zan sortuba Akim. Eta Akimgandik izan zan sortuba Eliud.

15. Eta Eliudgandik izan zan sortuba Eleazar. Eta Eleazargandik izan zan sortuba Matan. Eta Matangandik izan zan sortuba Jakob.

16. Eta Jakobgandik izan zan sortuba Jose, Marijaren senarra, zeñegandik (Marijagandik) jaijo zan Jesus, Kristo deritxana.

17. Eta alan Abrahamgandik Dabidrañoko gizaldi guztijak, amalau gizaldi: eta Dabidgandik Judatarrak Babilonijara eruanak izan ziran denporaraño, amalau gizaldi: eta Babilonijara eruanak izan ziranetik Kristoaraño amalau gizaldi.

18. Eta Kristoren sorreria onelan izan zan: Eguala ezkontzako berbia emonda bere ama Marija Josegaz, alkarganatu baño lenago, aurkitu zan sabelian ebalu Espiritu Santubagandik.

19. Eta Jose bere senarrak, zan legez justuba, ta ez eban legez nai desondrau, gura izan eban ixillik itxi.

20. Eta eguala bera gogoraziño oneetan, orra nun Jaunaren Aingeruba agertu jakon berari amesetan, zirautzala: Jose Dabiden semia, ez zaite bildur izan artuten Marija zeure emaztia: zerren beragan jaijo dana, Espiritu Santubarena da.

21. Eta egingo dau semia, eta deituko deutzazu bere izena Jesus: zerren berak salbauko dau bere errija euren pekatubetatik.

22. Eta au guztijau izan zan egiña betia izan zedin Jaunak bere Igarliaz esan izan ebana, ziñuala:

23. Orra donzelliak sabelian eukiko dau, eta egingo dau semia: eta deituko deutse bere izena Emmanuel, zeñek esan gura daben Gugaz Jaungoikua.

24. Eta jagirik Jose lotatik, egin eban agindu eutsan legez Jaunaren Aingerubak, eta artu eban bere emaztia.

25. Eta ez eban bera ezagututen egin eban artian bere seme lelen-sortuba: eta deitu eutsan bere izena Jesus.

BIGARREN KAPITULUBA

Maguak datoz eguzkijaren urteeratik Belena: adoretan dabe Jauna: eta eskintzen deutsez oparijak. Herodesen gogortasuna ill



eragitian Belenen eta alberri guztijetan urte biz beerako ume guztijak. Kristoren igestia Ejiptora: bere biurreria Israelgo errira.

1. Jaijo zanian bada Jesus Belen Judakuan Herodes erregiaren eguntan, orra nun Maguak Eguzkijaren urteeratik etorri ziran Jerusalem,
 2. Ziñuela: Nun da Judeguben errege jaijo dana? Zerren ikusi dogu bere izarra Eguzkijaren urteeran, eta gatoz bera adoretara.
 3. Eta entzunik Herodes erregiak, ikaratu zan, eta Jerusalem guztijak beragaz.
 4. Eta baturik Sazerdoteen nagusi guztijak, eta erriko Eskribaak, itanduten eutsen, nun jaijoko ete zan Kristo.
 5. Eta eurak esan eutsen: Belen Judakuan: zerren onelan dago eskribidurik Igarliaren bitartez.
 6. Eta zu Belen Judako errija, ezelan bere ez zara txikijena Judako nagusijen artian: zerren zugandik urtengo dau, Israelgo neure errija zuzenduko daben gijarijak.
 7. Orduban Herodesek, ixillik deiturik Maguai, arduraz jakin eban eurakgandik, ze denporatan agertu jaken izarra.
 8. Eta bialdurik eurak Belena esan eutsen: Zuaze, eta itandu egizube arduraz señagaitik: eta aurkitu dagizubenian, adierazo egidazube, neuk bere etorrita adorau dagidan.
 9. Eurak, entzunik erregeri jua ziran. Eta orra nun Eguzkijaren urteeran ikusi eben izarra, joian euren aurretik, ariketa eldurik seña eguan lekubaren ganera, gelditu zan artian.
 10. Eta ikusi ebenian izarra, poztu ziran poz guztiz andi bategaz.
 11. Eta sarturik etxian, aurkitu eben seña bere ama Marijagaz, eta auzpazturik adorau eben: eta idigirik euren utxaak, eskiñi eutsezan oparijak, urria, intzetzua, ta mirria.
 12. Eta arturik erantzueria lotan, ez biurtuteko Herodesgana, beste bide batetik biurtu ziran euren errira.
 13. Eurak jua ezker, orra nun Jaunaren Aingeruba agertu jakon lotan Joseri, ta esan eutsan: Jagi zaite, eta artu egizu umia, eta bere ama, eta iges egizu Ejiptora, eta egon zaite an neuk esan dagizudan artian. Zerren jazoko da Herodesek billatutia umia bera galduteko.
 14. Jagirik bera artu eban umia, ta bere ama gabaz, eta aldendu zan Ejiptora.
 15. Eta an egon zan Herodes ill zan artian: bete zedin Jaunak esan ebana Igarliaren bitartez, zeñek diñuan: Ejiptotik deitu neutsan neure semiari.

16. Orduban Herodesek, ikusirik Maguak burlauba izan zala, artu eban aserre andi bat, eta bialdurik ill eragin zituzan, Belenen ta bere alberri guztijetan egozan ume guztijak urte bitik beerakuak, Maguak gandik jakin eban denporiaren erara.

17. Orduban bete zan, esan zana Jeremias Igarliaren bitartez, zeñek diñuan:

18. Boza izan zan entzuna Raman, negarra, ta ulu andijak: Raket negarrez bere semiak gaitik, eta ez eban izan nai gozatuba, zerren ez diran.

19. Eta ill ezker Herodes, orra nun Jaunaren Aingeruba agertu jakon lotan Joseri Ejipton,

20. Zirautsala: Jagi zaite, eta artu egizu umia ta bere ama, eta zuaz Israelgo errira, zerren illak dira, billatuten ebenak umiaren arimia.

21. Bera jagirik artu eban umia ta bere ama, eta etorri zan Israelgo errira.

22. Eta entzunik Arkelaok agintetan ebala Judean Herodes bere aitararen lekuban, bildur izan zan ara juaten: eta izanik adierazua lotan, alden-du zan Galileako errietara.

23. Eta etorri bizi izan zan Nazaret deritxan uri baten: betia izan zedin Igarlen bitartez esana izan zana: Nazareua izango dala deituba.

IRUGARREN KAPITULUBA

San Juan Bautistiak, Jesukristoren Bideurrekuak, prediketan dau penitenzija eremuban, Igarlaak aurrez adierazo eben legez. Agraka egiten deutse Fariseuai ta Sadduzeuai. Batiatuten dau Kristo, zeñen ganera jatziten dan Espiritu Santuba; eta entzuten da zerutik Aitararen boza.

1. Eta egun areetan etorri zan Juan Bautistia prediketan ebala Judeako eremuban,

2. Eta ziñuala: Penitenzija egizube: zerren urreratu da zerubetako erreinuba.

3. Bada au da izan zana esana Isaias Igarliaren bitartez esaten ebala: Eremuban diadar egiten dabenaren boza: Prestau egizube Jaunaren bidia: zuzenak egizubez bere bide ziorrak.

4. Eta Juanek berak eukan ganbeluben ulezko soñekua, eta narruzko ugala bere gerrijan: eta bere janarija ziran langostaak, eta basaeztija.



5. Orduban urteten eban beragana Jerusalemek, eta Judea guztijak, eta Jordan inguruko erri guztijak.

6. Eta batiatubak ziran aren eskuz Jordanen konfesaurik euren pekatubak.

7. Eta ikusirik Fariseo ta Sadduzeo asko etozala bere bautismura, esan eutsen: Ziraunen kastia, nok erakutsi deustube iges egiten etorriko dan aserretik?

8. Egizube bada penitenzijaren diñako frutuba.

9. Eta ez egizube nai esan zeuben barruban: Abraham aita daukagu. Zerren dirautsubet, alsuba dala Jaungoikua arri oneetatik jasoteko semiak Abrahami.

10. Zerren onezkero imiñirik dago azkoria zugutzen sustraijan. Bada frutu ona egiten ez daben zugatz guztija, izango da ebagija ta sutara botia.

11. Nik egijaz batiatuten zaitubedaz urian penitenzijarako: baña nire ondorik etorriko dana, ni baño senduagua da, zeñen oñetakuak eruateko diña ez naz ni: berak batiatuko zaitube Espiritu Santuban ta suban.

12. Eskuban dauka bere sardia: eta garbituko dau ondo bere larriniña: eta batuko dau bere garija garitegijan, eta erreko ditu lastuak suban amatau ezingo danagan.

13. Orduban etorri zan Jesus Galileatik Jordana Juangana, onek batiatuba izateko.

14. Baña Juanek eragozten eutsan, esanaz: Nik izan biar dot zuk batiatuba, eta zu zatoz nigana?

15. Eta erantzunik Jesusek esan eutsan: Itxi egizu orain: zerren one-lan jaoku guri betetia zuzentasun guztija. Orduban itxi eutsan.

16. Eta batiatuba izanik Jesus, beriala igon eban uretik. Eta orra nun idigi jakozan zerubak: eta ikusi eban Jaungoikuaren espirituba jatziten zala usua legez, eta etorrela bere ganera.

17. Eta orra emen boza zerubetatik ziñuana: Au da nire seme maitia, zeñegan daukadan neure atsegin guztija.

LAUGARREN KAPITULUBA

Kristo aldunduten da eremura batiatuba izan ezkeru; eta baru eginiik berrogei egunetan eta berrogei gautan, goituten ditu demonioaren esetsijak. Entzunik imiñi ebela presondegijan Bautistia, alde egiten dau Kafarnauma, eta emoten deusta asieria predikaziñoiari. Deituten deusta Pedrori, Andresi, Santiagori, eta Juani. Adierazo-

ten deutse Ebanjelijua Galileatarrai; eta osatuten ditu makiña bat geixo mueta.

1. Orduban Jesus eruana izan zan espiritubak eremura, diabruak tentaua izan zedin.

2. Eta baru eginik berrogei egunetan, eta berrogei gautan, gero gose izan zan.

3. Eta eldurik beragana tentalarija esan eutsan: Baldin bazara Jaungoikuaren semia, esan egizu arri oneek ogi biurtu ditezela.

4. Berak erantzun ta esan eutsan: Eskribidurik dago: Ez da bizi gizona ogi bakarraz, ezpada Jaungoikuaren aotik urteten daben berba guztijaz.

5. Orduban artu ta eruan eban diabruak uri santura, eta imiñi eban elexako galjurrian (sic).

6. Eta esan eutsan: Baldin bazara Jaungoikuaren semia, bota zaite beera. Zerren eskribidurik dago: Agindu utsela bere Aingerubai zugaitik, eta esku-betan artuko zaitube estropezu egin ez dagizun arrijan zeure oñagaz.

7. Jesusek esan eutsan: Baitabere eskribidurik dago: Ez dozu tentauko zeure Jaun Jaungoikua.

8. Barriro artu eban diabruak ta eruan eban mendi guztiz altu batera: eta erakutsi eutsazan munduko erreñu guztijak, eta euren gloriya,

9. Eta esan eutsan: Oneek guztijok zeuri emongo deustudaz, baldin auzpazturik adoretan banozu.

10. Orduban esan eutsan Jesusek: Juadi Satanas: zerren eskribidurik jagok: Zeure Jaun Jaungoikua adoraiko dozu, eta bera bakarrik serbiuko dozu.

11. Orduban itxi eutsan diabruak, eta orra nun Aingerubak eldu ziran, ta serbietan eben.

12. Eta entzunik Jesusek Juan eguala presondegijan, aldendu zan Galileara.

13. Eta itxirik Nazaretko urija, etorri zan, ta bizi izan zan Kafarnaum itxasbazterreku, Zabulon ta Neptaliren mugetan.

14. Betia izan zedin Isaias Igarliak esan ebana:

15. Zabulongo errija ta Neptaliko errija, itxasorako bidia Jordango beste aldian Galilea jentillena.

16. Illuntasunetan jarririk eguan erriyak, ikusi eban argi andi bat, eta jarririk egozanai erijotziaren kerizako lurrian, argija jaijo jaken.

17. Ordutik asi zan Jesus prediketetan ta esaten: Penitenzija egizube: zerren urreratu da zerubetako erreñiuba.



18. Eta ebillela Jesus Galileako itxasuaren urrian, ikusi zituzan anaija bi, Simon, Pedro deritxana, eta Andres bere anaija, botaten saria itxasuan (zerren ziran arraintzallaak).

19. Eta esan eutsen: Erdube neure ondorik, eta egingo dot zeubek izan zaitezela gizonen arraintzallaak.

20. Eta eurak beriala itxirik sariak jarraitu eutsen.

21. Eta juanik aurrerago andik, ikusi zituzan beste anaija bi, Santiago Zebedeorena, eta Juan bere anaija txalupan Zebedeo euren aitagaz, ziar-dubela adabetan euren sariak: eta deitu eutsen.

22. Eta eurak bertatik itxirik sariak eta aita, jarraitu eutsen.

23. Eta inguratuten eban Jesusek Galilea guztija, erakusten ebal euren Sinagogetan, eta prediketean ebal erreñuko ebanjelijua, eta osatuten ebal gatx guztija, ta geiso guztija errijan.

24. Eta zabaldu zan bere entzulia Siria guztitik, eta ekarri eutsezan txarto egozan guztijak, gatx ta oñazen batzubekek artubak, eta demonio-ak eukezanak, eta alditsubak, eta perlesijadunak, eta osatu zituzan.

25. Eta jarraitu eutsen jente aldra askok Galileatik, eta Dekapolistik, eta Jerusalemdik, eta Judeatik, eta Jordanez beste aldetik.

BOSTGARREN KAPITULUBA

Zortzi zorijontasunak. Deituten deutse Jaunak Apostolubai gatza ta argija, erakusten eutsela zelakuak izan biar eben euren lanak. Jaungoikuaren legja da gatza ta argija, zeñegaz gura daben gazitu ta argitu dagijela munduba, adierazorik, ez dala etorri desegitera, ezpada bete ta osotutera: eta onetarako asiten da azaldetan bere zati nagusijetatik.

1. Eta ikusirik Jesusek jente aldraak, igon eban mendira, eta jarri ezkeru, urreratu ziran beragana bere ikaslaak.

2. Eta idigirik bere aia, irakasten eutsen, ziñuala:

3. Zorijonekuak espirituz pobriak, zerren euren da zerubetako erreñuba.

4. Zorijonekuak otsanak, zerren eurak menpetuko dabe lurra.

5. Zorijonekuak negar egiten dabenak, zerren eurak izango dira poz-tubak.

6. Zorijonekuak zuzentasunaren gosia ta egarrija daukenak, zerren eurak izango dira asiak.

7. Zorijonekuak errukiorrak, zerren eurak jaritxiko dabe errukija.

8. Zorijonekuak bijotz garbikuak, zerren eurak ikusiko dabe Jaungoikua.

9. Zorijonekuak baketsubak, zerren izango dira deitubak Jaungoikuaren semiak.

10. Zorijonekuak igaroten dabenak esetsija zuzentasunagaitik, zerren euren da zerubetako erreinuba.

11. Zorijonekuak zare, madarikatuten zaitubezanian, eta esetsiten deusubenan, eta esaten dabenian txar guztija zubek gaitik, guzurraz, nigaitik:

12. Poztu eta gozatu zaiteze, zerren zuben sarija ugarija da zerubetan. Bada onelan esetsi eutsen Igarlai, zubek baño lenago izan ziranai.

13. Zubek zare lurreko gatza. Eta baldin gatza gezatuten bada, zegaz izango da gazituba? Ez dau balijo ezetarako geijago, ezpada izateko botia kanpora, eta gizonak ostikopetuteko.

14. Zubek zare munduko argija. Ezin izan leiteke ezkutauba mendi-jaren ganian imiñirik daguan urija.

15. Ez dabe bere ixiotuten argija, iminteko imillaunaren azpijan, ezpada kandelueraren ganian, argi egin dagijuen etxian dagozan guztijai.

16. Onelan argi egin begi zuben argijak gizonen aurrian, ikusi dagijezan zuben egite onak, eta alabau dagijen zuben aita, zerubetan daguana.

17. Ez egizube uste izan, etorri nazala indargatutera legja, edo Igarlaak: ez naz etorri indargatutera, ezpada betetara.

18. Zerren egijaz dirautsubet, igaro artian zeruba ta lurra, jota bat, ez izpi bat ez dala igaroko legetik, guztija egin artian.

19. Orregaitik ausiten dabena agindu guztiz txiki oneetatik bat, eta erakusten deusena alan gizonai, guztiz txikija izango da deituba zerubetako erreinuban: baño egiten dabena ta erakusten dabena, au andija izango da deituba zerubetako erreinuban.

20. Zerren dirautsubet, ez bada ugarijagua zuben zuzentasuna Eskribuena ta Faresijuena baño, ez zare sartuko zerubetako erreinuban.

21. Entzun zenduben esan jakela antxiñakuai: Ez dozu ilgo, eta ilten dabena izango da auziepalliaren erabagijaren errudun.

22. Baña nik dirautsubet bere anaijagaz aserratuten dan guztija, izango da auziepalliaren erabagijaren errudun. Eta esaten deusana bere anaijari raka, izango da batzarraren errudun. Eta esaten deusana, erua: izango da suzko lekubaren errudun.

23. Baldin bada badiarduzu eskintzen zeure oparija altaran, eta an gomutauko balitxatzu zeure anaijak daukala zerbait zeure gaxian:



24. Itxi egizu an zeure oparija altariaren aurrian, eta zuaz lenago baketutera zeure anaijiagaz: eta orduban etorririk eskiñiko dozu zeure oparija.

25. Oben egjjozu zeure arerijuari laster zagozarian bidian beragaz: imiñi ez zagizan arerijuak auziepalliaren mendian, eta auziepalliak imiñi ez zagizan borrarubaren mendian: eta izan zaitian presondegijan sartuba.

26. Egijaz dirautsut, ez dozula urtengo andik, biurtu dagizun artian azkenengo zurikua.

27. Entzun zenduben esan jakela antxiñakuai: Ez dozu aragizko pekatuak egingo besteren emaztiagaz.

28. Bada nik dirautsubet: begiratuten deutsan guztijak emakumiari, bere gurari txarragaz, aragizko pekatuba egin dau beragaz bere bijotzian.

29. Eta baldin zeure eskumako begijak pekatuban jausi eragin nai badeutsu, atera egizu eta bota egizu zeugandik: zerren oba dozu galdu dedilla zeure zentzunetatik bat, zeure gorputz guztija botia izan baño infernura.

30. Eta baldin zeure eskumako eskubak pekatuban jausi eragin nai badeutsu, ebagi egizu, eta bota egizu zeugandik: zerren oba dozu galdu dedilla zeure zentzunetatik bat, zeure gorputz guztija juatia baño infernura.

31. Baitabere esan zan: Bere emaztia itxiten daben edozeñek, emon begijo itxijaren agirija.

32. Baña nik dirautsubet: Bere emaztia itxiten daben guztijak, ez iza-nik aragizko pekatubagaitik, eragiten deutsa aragizko pekatuba: eta artu-ten dabenak itxija, egiten dau aragizko pekatuba.

33. Onezaz ganera entzun zenduben esan jakela antxiñakuai: Ez dozu guzurragaz juramenturik egingo: eta beteko deutsazuz Jaunari zeure juramentubak.

34. Baña nik dirautsubet, ezelan bere ez egiteko juramenturik, ez zeruba gaitik, Jaungoikuaren jarlekuba dalako.

35. Ez lurragaitik, dalako bere oñen aulkija: ez Jerusalemaitik, dala-ko errege andijaren urija.

36. Ez egizu bere juramenturik egin zeure burubagaitik, zerren ezin ziñaike egin ule bat zurija edo baltza.

37. Izan bedi bada zuben berbetia, bai, bai; ez, ez: zerren onek baño ugarijago dana, txarretik datorrena da.

38. Entzun zenduben esan zala: Begija begijagaitik, ta agiña agiña-gaitik.

39. Baña nik dirautsubet ez jarkiteko txarrari: ezpada baldin iñok joten bazaitu zeure eskumako matrallan, emon egjjozu bestia bere.

40. Eta auzitan imiñi gura zaituzanari, eta zeure tunikia artu, itxi egj-jozu kapia bere.

41. Eta iñok bazaruaz kargaurik milla pausutan, zuaz beragaz beste millatan.

42. Emon egjjozu eskatuten deutsunari, eta gura deutsunari eskatu epian, ez egjjozu atzia emon.

43. Entzun dozube esan zala: Maitetuko dozu zeure lagun urkua, eta gorroto eukiko deutsazu zeure arerijuari.

44. Baña nik dirautsubet: Maitetu egizubez zeuben arerijuak, egijezu-be on gorroto deutsubenai: eta erregetu egizube esesten deutsubenak gaitik, eta guzur andijak asmetan deutsubezanak gaitik:

45. Izan zaitezen zeuben Aita, zerubetan daganaren semiak: zeñek bere eguzkijari jaijo eragiten deutsan onen, ta txarren ganera: eta eurija egiten dau onen eta txarren ganera.

46. Zerren baldin maitetuten badituzube maite zaitubenak, ze sari eukiko dozube? Ez al dabe egiten au publikanauk bere?

47. Eta agur egiten badeutsazube zeuben anaijai bakarrik, zer geijago egiten dozube? Ez al dabe au egiten jentillak bere?

48. Izan zaiteze bada zeubek guztiz onak, alan zelan zeuben Aita zerukua bere dan guztiz ona.

SEIGARREN KAPITULUBA

Ze modutan egin biar dan limosnia. Erregubaren ta barubaren ganian. Ez dirala batu biar ondasunak lurrian, ezpada zeruban: ezin izan gñaitkezala ugazaba biren otsein. Ez gaitzala geijegi larritu jatekua ta jantzitekua gaitik, geure Aita zerukuak daukalako artuta bere ganian ardura au.

1. Begiratu egizube ez dagizubela egin zeuben zuzentasuna gizonen aurrian, eurak ikusi zagijezan: bestelan saririk ez dozube eukiko zeuben Aita zerubetan daganagan.

2. Egiten dozunian bada limosnia, ez egizu tronpetia jo eragin zeure aurrian hipokritaak egiten daben legez sinagogetan ta auzotegijetan, gizonak ondrau dagijezan. Egijaz dirautsubet, artu eben euren sarija.

3. Baña zuk egiten dozunian limosnia, ez begi jakin zure ezkerak, zer egiten daben zure eskumiak:



4. Izan dedin zure limosnia ezkutuban, eta zure Aita dakusanak ezkutuban, biurtuko deutsu.

5. Eta erregu egiten dozubenian, ez zare izango hipokritaak legez, zeintzuek nai oi daben erregu egitia zutunik sinagogetan, ta kaleetako kantoietan, gizonak ikusi dagijezan: egijaz dirautsubet, artu eben euren sarija.

6. Baña zuk erregu egiten dozunian, sartu zaite zeure gelaan, eta itxi-rik atia, erregutu egijozu zeure Aitari ezkutuban, eta zure Aita dakusanak ezkutuban, biurtuko deutsu.

7. Eta erregubak egiten diarduzubenian, ez eikezube berba asko egin, jentillak legez. Zerren uste dabe berba asko egiñaz entzunak izango dirala.

8. Ez zaitekeze bada eurai iruditu. Zerren badaki zuben Aitak, zeren premiñia daukazuben, eskatu baño lenago berari.

9. Onelan bada zuek erregutuko dozube: Aita guria, zerubetan zagozana: santifikadu bedi zure izena.

10. Betor gugana zure erreñuba. Egin bedi zure borondatia, zelan zeruban, alan lurrian.

11. Geure ogi izatezganetikua emon egiguzu gaur.

12. Eta parkatu egiguzuz geure zorrak, geuk geure zordunai parketan deutseguzan legez.

13. Eta ez egiguzu itxi jausten tentaziñoian. Baña libradu gagizuz gatxetik. Alan izan dedilla.

14. Zerren parkatuten badeutsezubez gizonai euren pekatubak, parkatuko deustubez zeubei bere zeuben Aita zerukuak zeuben pekatubak.

15. Baña baldin ez badeutsazubez parkatuten gizonai: zeuben Aitak bere ez deustubez parkatuko zeuben pekatubak.

16. Eta baru egiten dozubenian, ez zaiteze egon triste hipokritaak legez. Zerren itxusituten ditube euren arpegijak, ikusi eragiteko gizonai baru egiten dabela. Egijaz dirautsubet, artu ebela euren sarija.

17. Barriz zuk baru egiten dozunian, untau egizu zeure buruba, eta zeure arpegija garbitu egizu.

18. Ez agertuteko gizonai baru egiten dozula, ezpada zeure Aita daguanari ezkutuban: eta zeure Aita ikusten dabenak ezkutuban, biurtuko deutsu.

19. Ez egizubez batu ondasunak zeubentzat lurrian: nun ugarrak, eta sitsak desegiten ditubezan: eta nun lapurrak ateraten ditubezan lurpetik, eta ostuten ditubezan.

20. Ezpada batu egizubez zeubentzat ondasunak zeruban: nun ez ugarrak, ez sitsak desegiten ditubezan: eta nun lapurrak ez ditubezan ateraten lurpetik, ez ostuten.

21. Zerren nun dagan zure tesora, an dago bere zure bijotza.

22. Zure gorputzaren argija da zure begija. Zure begija baldin balitz tolesbagia: zure gorputz guztija izango da argitsua.

23. Baña baldin zure begija balitz dongia: zure gorputz guztija illuna izango da. Bada baldin zagan dagan argija, illuntasunak badira: illuntasunak eurak zein andijak izango dira?

24. Iñok ezin leikez serbiu Jaun bi: zerren edo batari gorroto izango deutsa, eta bestia maitetuko dau: edo bata sufriuko dau, ta bestia desprezjau. Ezin ziñaijez serbiu Jaungoikua ta aberastasunak.

25. Orregaitik dirautsubet, ez zaitezela izan arazutubak zeuben arimiantzat zer jango dozuben, ez zeuben gorputzarentzat, zer jantziko dozuben. Ez al da arimia janarija baño geijago: eta gorputza soñekua baño geijago?

26. Begiratu egijezube zeruko egaztijai, zelan ez daben ereiten, ez ebagiten, ez galtegitetan pillatuten, eta zuben Aita zerukuak emoten deute janarija. Ez al zare zuek areek baño askozaz geijago?

27. Zubetariko zeñek asmaziñoiakaz iraatzi leikijo bere luzetasunari beso bat?

28. Eta jantzijagaitik zergaitik zagoze arazuz? Gogoratu egizubez kanpoko lirjuak zelan aziten diran: ez dabe biarrik egiten, ez iruten.

29. Bada nik dirautsubet, ez da Salomon bere, bere gloriya guztijan izan zala estalduba oneetariko bat legez.

30. Bada baldin kanpoko bedarra, gaur dana ta bijar dana labara botia, Jaungoikuak alan jantziten badau, zenbat geijago zubeek, fede gitxi-kuak?

31. Ez zaiteze bada estuturik egon, diñozubela: Zer jango dogu, edo zer edango dogu, edo zegaz estalduko gara?

32. Zerren oneek guztijok jentillak billatuten ditube. Zerren badaki zuben Aitak, oneen guztijoen premiñia daukazubela.

33. Billatu bada lelengo Jaungoikuaren erreñuba, eta bere zuzenta-suna: eta oneek guztijok izango jatsubez iratzijak.

34. Ez zaiteze bada egon bijarko kezka. Zerren bijarko egunak izango dau bere beretzat arduria. Askok da egunarentzat bere arazuba.



ZAZPIGARREN KAPITULUBA

Badarraiko Jaunak bere irakatzijari eragotzirik juzgu ariñak, eta esanaz, ez jakezala emon biar txakurrai gauza santubak. Igituten gaitu erregura, eta egitera geure lagun urkuagaz, geugaz egitia nai doguna. Diño estuba dala atia, zeñetatik sartuten dan bizitzara; eta zelan ezagutuko dogun, zeintzuk diran Igarla guzurrezkuak ta zeintzuk egjazkuak: zein dan arbola ona ta zein txarra. Etxe bat egiten diarduan gizon baten irudija, bardinduteko Jaunaren irakatsija entzuten daganagaz.

1. Ez egizube iñor juzgau, izan ez zaitezen juzgaubak.
2. Bada zeubek juzgetan dozuben juzgubagaz izango zare juzgaubak: eta zeubek neurtuten dozuben neurrijagaz, izango zare ostera neurtubak.
3. Zergaitik bada ikusten dozu samarra zeure anaijiaren begijan: eta abia zeure begijan ez dozu ikusten?
4. Edo zelan esaten deutzazu zeure anaijari: Itxi aterako dot samarra zeure begitik: eta orra nun abe bat dagan zeure begijan.
5. Hipokritia, bota egizu lelengo abia zeure begitik, eta orduban ikusiko dozu botateko samarra zeure anaijiaren begitik.
6. Ez egijozube emon santuba txakurrai, eta ez egizubez bota zeuben perlaak txarrijen aurrian: zapaldu ez dagijezen euren oñakaz, eta biurturik zeubekgana zatitu ez zagijezen.
7. Eskatu egizube ta emongo jatsube: billatu egizube ta aurkituko dozube: jo egizube, ta idigiko jatsube.
8. Zerren eskatuten daben guztijak, artuten dau: eta billatuten dabena, aurkituten dau: eta josten dabenari, idigiko jako.
9. Edo zubetatik zein da gizona, zeñi baldin eskatuko baleutsa bere semiak ogija, emongo deutzana arrija?
10. Edo baldin arraina eskatuko baleutsa, emongo al deutsa sierpia?
11. Bada baldin zubek, izanik gaistuak, badakizube emokai onak emoten zeuben semiak, zenbat geijago zuben Aita zerubetan daganak, emongo deutsez gauza onak, eskatuten deutsezana?
12. Eta alan gizonak zeubei egitia nai dozuben guztija, zeubek bere egijeze eurai. Zerren au da legia ta Igarlaak.
13. Sartu zaiteze ate estutik: zerren zabala da atia ta nasaija bidia, daruana galdumendira, eta asko dira sartuten diranak beratatik.
14. Ze estuba da atia, eta ze bedarra bidia, daruana bizitzara: eta gitxi dira aurkituten dabena!

15. Gorde zaiteze Igarla paltzuetatik, datozenetatik zubek gana ardi-jen jantzijakaz, eta barruban dira otso lapurrettagillaak.
16. Euren frutubetatik ezagutuko dituzube. Arantzetatik artuten al ditube maatsak, edo sasijetatik pikuak?
17. Alan arbola on guztijak egiten ditu frutu onak: eta arbola txarrak egiten ditu frutu txarrak.
18. Ezin leikez arbola onak frutu txarrak egin: ez arbola txarrak frutu onak egin.
19. Frutu ona egiten ez daben arbola guztija, izango da ebagija, eta sutara botia.
20. Alan bada euren frutubetatik ezagutuko dituzube.
21. Ez da sartuko zerubetako erreinuban, Jauna, Jauna, niri esaten deustan guztija: ezpada egiten dabena, nire Aita zerubetan daganaren borondatia, bera sartuko da zerubetako erreinuban.
22. Askok esango deuste egun atan: Jauna, Jauna, ez al genduban zure izenian profetizau, eta zure izenian demonioak bota genduzan, eta zure izenian mirari asko egin genduban?
23. Eta orduban autortuko deutset. Ez zendubedazan iñoz ezagutu: alde egizube nigandik, gaistakerija egiten dozubenak.
24. Bada nire berba oneek entzuten dituzan guztija, ta egiten dituzana, izango da irudituba gizon jakintsu bati, egin ebanari bere etxia atxaren ganian.
25. Eta jatzi zan eurija, eta etorri ziran ibaijak, eta putz egin eben axiak, eta esetsi eutsen sendo etxe ari, eta ez zan jausi: zerren eguan eginik atxaren ganian.
26. Eta nire berba oneek entzuten dituzan guztija, eta egiten ez dituzana, izango da gizon ero baten irudikua, zeñek egin eban bere etxia ondarraren ganian.
27. Eta jatsi zan eurija, eta etorri ziran ibaijak, eta putz egin eben axiak, eta esetsi eutsen sendo etxe ari, eta jausi zan, eta izan zan bere ondamendija andija.
28. Eta jazo zan: amaitu ezkerok Jesusek berba oneek, miraritu ziran jente aldraak bere irakatsijaren ganian.
29. Zerren erakusten eutsen eskubidia eukanak legez, eta ez euren Eskriba ta Faresijuak legez.



ZORTZIGARREN KAPITULUBA

Osaturen dau Jesukristok legendun bat, Zenturionen otseina, San Pedroren amaginarreba, eta beste geixo asko. Ez dau nai artu Eskriba bat, jarraitu gura utsana, eta aginduten deuta bere ikasleatik beste bati, jarraitu dagjola atzerapenik bago. Baretuten dau ekatx bat itxasuan, eta osaturen ditu gaizkindun bi Jerasenuen errijan.

1. Eta jatzi ezker menditik, jarraitu eutsen jente aldra askok.
2. Eta orra nun legendun bat etorririk, adoretan eban ziñuala: Jauna, baldin gura badozu, garbitu naikezu.
3. Eta luzaturik Jesusek eskuba, ukutu eutsan, esanaz: Gura dot. Garbiturik gelditu zaitte. Eta beriala izan zan garbituba bere legena.
4. Eta esan eutsan Jesusek: Begira, ez dagijozula esan iñori: ezpada zuaz, erakutsi zakijoz Sazerdotiari, eta eskiñi egizu, Moisesek agindu eban oparija, ezagungarritzat eurai.
5. Eta sarturik Kafarnaumen eldu zan beragana Zenturion bat, erre-gututen utsala,
6. Eta zirautsala: Jauna, nire otsein bat datza etxian perlesijagaz, eta txarto penaurik.
7. Eta esan eutsan Jesusek: Neu etorriko naz, ta osatuko dot.
8. Eta erantzunaz Zenturionak, esan eutsan: Jauna, ez naz ni diña sartu zaitian nire tellatuaren azpijan; baña esan egizu bakarrik berba bat, eta izango da osatuba nire otseina.
9. Bada neu bere naz gizon bat besteren mendian naguana, daukadazana neure agindura soldaubak, eta dirautsat oni: Zuaz, eta badua: eta bestiari: Erdu, eta badator: eta neure otseñari: Egizu au, eta egiten dau.
10. Entzunik au Jesusek miraritu zan, eta jarraituten eutsenai esan eutsen: Egijaz dirautsubet, ez dot aurkitu fede ain andirik Israelen.
11. Eta dirautsubet: etorriko dirala asko eguzkijaren Urteeratik, eta Sarreratik, eta jarriko dira Abrahamgaz, eta Isaakgaz, eta Jakobgaz zeru-betako erreinuban:
12. Eta erreinuko semiak izango dira jaurtigijak kanpoko illuntasunetara: an izango da negarra ta agin karraskotsa.
13. Eta esan eutsan Jesusek Zenturioni: Zuaz, eta sinistu dozun legez, jazo dagizula. Eta osatu zan otseina ordu atan.
14. Eta eldurik Jesus Pedroren etxera, ikusi eban bere amagiñarreba etzunik eguala, eta kalenturiagaz:

15. Eta ukutu eutsan bere eskubari, eta itxi eutsan kalenturiak, eta jagi zan, eta serbietan zituzan.
16. Eta eldurik arratsaldia, imiñi eutsezan aurrian asko demonioak eukezanak: eta botaten zituzan espiritubak berbiagaz: eta geixorik egozan guztijak osatu zituzan.
17. Bete zedin esan ebana Isaias Igarliak, esan ebanian: Berak artu zituzan gure gatxak, eta eruan zituzan bere ganian gure miñiak.
18. Baña ikusirik Jesusek jente aldra asko bere inguruban, agindu eban juateko itxasuaren beste aldera.
19. Eta eldurik beragana Eskriba bat, esan eutsan: Irakaslia, jarraituko deusut, noranai juan zaitiala.
20. Eta dirautsa Jesusek: Azerijak kobaiiak daukez, eta zeruko egaztijak abijak: baña gizonaren semiak ez dauka nun buruba etzin.
21. Eta bere ikasleatik beste batek esan eutsan: Jauna, itxi egidazu leleno juaten, eta obituten neure aita.
22. Baña Jesusek dirautsa: Jarraitu egidazu, eta itxi egijezu illai obituten euren illak.
23. Eta sarturik bera ontzixu baten jarraitu eutsen bere ikaslaak.
24. Eta orra nun ekatx andi bat jagi zan itxasuan, allagiña ze ontzixuba estalduten eben olatubak, eta bera eguan lotan.
25. Eta eldu ziran beragana bere ikaslaak, eta iratzartu eben, ziñuela: Jauna, salbau gaizuz, galdubak gara.
26. Eta dirautse Jesusek: Zeren bildur zare, fede gitxikuak? Orduban jagirik, agindu eutsen axiai, eta itxasuari, eta gelditu zan bare bare.
27. Eta gizonak miraritu ziran, zinuela: Zelakua da au, axiak eta itxasuak obeiduten deuten au?
28. Eta etorririk itxasuaren beste aldetik Jerasenuen errira, urten eutsen bidera bik eukezanak demonioak urteten ebela obijetatik, arrabijaurik guztiz, ain modutan ze iñor ezin igaro zatekian bide atatik.
29. Eta orra nun diadar egin eben, ziñuela: Zer daukagu guk zugaz, Jesus Jaungoikuaren semia? Etorri zara ona denporia baño lenago gu penetara?
30. Eta eguan euretatik urrin bago txarri askoren aldra bat jaten ziar-dubala.
31. Eta demonioak erregututen eutsen esaten ebela: Baldin botaten bagaituzu emendik, bialdu gagizuz txarrijen aldrara.
32. Eta esan eutsen: Zuaze. Eta eurak urtenik juan ziran txarrietara, eta orra nun arin juan zan aldra guztija amillategi batetik itxasora: eta ill ziran uretan.



33. Eta txarriñaak iges egin eben: eta etorri urira, esan eben guztija, baita bere demonioak euki zitubezanen jazoeria.

34. Eta orra nun uri guztijak urten eutsan bidera Jesusi: eta ikusirik bera erregututen eutsen, urten egjala euren mugarrietatik.

BEDERATZIGARREN KAPITULUBA

Osatuten dau Jaunak perlesijadun bat. Eskribaen gaiki esatiak. Mateo Publikuanaren deia. Erantzuten deutse Fariseoai guzurak asmetan eutsezana. Osatuten dau andra bat odol erijotik. Biztuten dau neskatilla bat, eta argtuten ditu itxu bi. Osatuten dau gaikindun mutu bat, eta egiten ditu beste mirari batzuk. Lanaren ta langillen irudija.

1. Eta igonik ontzitzura, igaro zan itxasbestaldera, eta etorri zan bere urira.

2. Eta orra nun imiñi eutsen aurrian perlesijadun bat etzunik oian. Eta ikusirik Jesusek euren fedia, esan eutsan perlesijadunari: Itxaron egizu ene semia, parkatuten jatzuz zeure pekatubak.

3. Eta orra nun Eskribaetatik batzuk esan eben euren artian: Onek gaiki esaten dau Jaungoikuagaitik.

4. Eta ikusirik Jesusek euren gogoraziñoiak, esan eban: Zergaitik gogoratuten dituzube gauza txarrak zeuben bijotzetan?

5. Zer da errazago esaten: Parkatuten jatzuz zeure pekatubak: ala esatia: Jagi zaite ta ibilli zaite?

6. Jakin dagizuben bada, gizonaren Semiak daukala eskubidia lurrian parkatuteko pekatubak, orduban esan eutsan perlesijadunari: Jagi zaite, artu egizu zeure oia, eta zuaz zeure etxera.

7. Eta jagi zan, ta jua zan bere etxera.

8. Eta ikusirik au jentia, bildurtu ziran, eta alabau eben Jaungoikua, emon eutsena alako eskubidia gizonai.

9. Eta igaroten zala andik Jesus, ikusi eban gizon bat, jarririk eguala alkabalaen majian, Mateo eritxana. Eta esan eutsan: Jarraitu egidazu. Eta jagirik, jarraitu eutsan.

10. Eta jazo zan egonik bera majian jarririk etxian, orra nun publikanu, ta pekatari asko etorri egozan jarririk Jesusegaz ta bere jarraitzallakaz.

11. Eta ikusirik Fariseuak, esaten eutsen bere jarraitzallai: Zergaitik zuben Irakasliak jaten dau publikuanakaz, ta pekatarijakaz?

12. Eta Jesusek entzunik, esan eban: Ez dauke osagillien premiñarik osuak, ezpada geixuak.

13. Juanik bada ikasi egizube zer dan: Errukija gura dot, eta ez oparrija: Zerren ez naz etorri deitutera justubai, ezpada pekatarijai.

14. Orduban eldu ziran beragana Juanen jarraitzallaak, eta esan eutsen: Zergaitik guk eta Fariseoak baru egiten dogu sarritan: eta zure jarraitzallaak ez dabe barurik egiten?

15. Eta esan eutsen Jesusek: Ezkonbarrijaren semiak negar egin al baleije, ezkonbarrija eurakaz dagan artian? Baña etorriko dira egunak kenduba izango jakena ezkonbarrija, eta orduban baru egingo dabe.

16. Eta ez deuta iñok iminten adobazain oijal lodizkua soñeko zarrari: zerren kenduten dau soñekotik bere betetasuna, eta txarrago egiten dau urratua.

17. Ez dabe bere botaten ardao barrija zaragi zarretan. Bestelan urratuten dira zaragijak, eta ardaia jausten da, eta zaragijak galduten dira. Ezpada ardao barrija zaragi barrietara botaten dabe, eta bitzube dira.

18. Berak gauza oneek zirautsezan artian, orra nun prinzipte bat etorri zan, eta adoretan eban, esanaz: Jauna, nire alabia oraintxe ill da: baña erdu, imiñi egizu zeure eskuba bere ganian, eta biziko da.

19. Eta jagirik Jesus, jarraituten eutsan, baitabere bere ikaslaak.

20. Eta orra nun andra bat, amabi urtian geixorik eguana odol eriuagaz, eldu jakon atzetik, eta ukutu eutsan bere soñekuaren ertzari.

21. Zerren ziñuan bere artian: Baldin ukututen badeutsat bakarrik bere soñekuari, osatuba izango naz.

22. Eta Jesus biurturik, eta bera ikusirik, esan eban: Itxaron egizu ene alabia, zeure fediak osatu zaitu. Eta osatuba izan zan andria ordu atatik.

23. Eta etorri zanian Jesus prinzipiaren etxera, eta ikusi zituzanian txilibiterubak, eta jendedija otska, esaten eban:

24. Alde egizube: zerren ez dago illik neskatillia, ezpada lotan. Eta burla egiten eutsen.

25. Eta botia izan zanian jendedija, sartu zan. Eta eldu eutsan bere eskutik. Eta jagi zan neskatillia.

26. Eta zabaldu zan onen entzutia inguru guzti atatik.

27. Eta igaroten zala andik Jesus jarraitu eutsen itxu bik, diadarrez, ta ziñuela: Errukitu zaite arren gugaz, Dabiden semia.

28. Eta eldurik etxera, etorri ziran beragana itxubak. Eta esaten deutse Jesusek: Sinistuten dozube au egin neikezubela? Esaten deutse: Bai, Jauna.



29. Orduban ukutu eutsen euren begijetan, esanaz: Zeuben fediarenerara izan dakizubela egiña.
30. Eta idigijak izan ziran euren begijak, eta zematu zituzan Jesusek, esanaz: Begiratu egizube, ez dagijala iñok jakin.
31. Barriz eurak, urtenik zabaldu eben inguru guzti atan.
32. Eta urtenik areek, orra nun ekarri eutsen gizon bat mutuba, demonioa eukana.
33. Eta bota ebanian demonioa, berba egin eban mutubak, eta miraritu ziran jente aldraak, ziñuela: Ez da iñoz ikusi onelako gauzarik Israelen.
34. Faresijuak barriz ziñuen: Demonioen agintarijaren eskubidiagaz botaten ditu demonioak.
35. Eta inguratuten zituzan Jesusek uri, ta erri guztijak, erakusten ebala euren Sinagogetan, eta prediketean ebala erreinuko Ebanjelijua, eta osatuten ebala min guztija eta geixo guztija.
36. Eta ikusirik jente aldraak, errukitu zan eurakaz: zerren egozan kantzaurik, eta etzunik, artzaiñik ez daukeen ardijak legez.
37. Orduban dirautse bere diszipulubai: Egijaz lan asko dago, eta langilla gitxi.
38. Erregutu egijozube bada lanaren Jaunari, bialdu dagizala langillaak bere lanera.

AMARGARREN KAPITULUBA

Jesusek deituten deutse amabi Apostolubai. Zelako ikasbidiak emoten deutsezan. Dirautse, ez dala etorri bakia ekartera, ezpada gudia: zelan autortu biar daben bera gizonen aurrian: zelan eruangor daben bere kurutzia: eta artuko dabela berari egiña legez, bere amodijoz bestiai egiten jakena.

1. Eta baturik bere amabi diszipulubak, emon eutsen eskubidia espiritulu loijen ganian, eurak botateko, eta osatuteko min guztija, eta geixo guztija.
2. Eta amabi apostoluben izenak dira oneek: Lelengua: Simon, Pedro deritxana, eta Andres bere anaija.
3. Santiago Zebedeorena, eta Juan bere anaija, Felipe, ta Bartolome, Tomas, eta Mateo Publikanua, Santiago Alfeorena, eta Tadeo.
4. Simon Kanaantarra, eta Judas Iskariotkua, zeñek saldu eban bera.

5. Amabi oneek bialdu zituzan Jesusek, aginduten eutsela, esanaz: Jentillen bidera ez zaitzeze juan, eta Samarijatarren urijetan ez zaitzekeze sartu.
6. Ezpada zuaze lenago, Israelgo etxeko ardi, galdu diranetara.
7. Eta juaten zarenian, predikau egizube, diñozubela: Urreratu dala zerubetako erreinuba.
8. Osatu egizubez geixuak, biztu illak, garbitu legendunak, bota demonioak: duarik artu dituzube, duarik emon egizubez.
9. Ez egizube euki urrerrik, ez zidarrik, ez dirurik zeuben gerrijetako ugaletan.
10. Ez zakutorik bidian, ez alkondara bi, ez oñetakuak, ez makillia: zerren langillia bere janarijaren diña bada.
11. Eta sartuten zareen edozein uri, edo erritan, itandu egizube, zein dan bertan diña: eta egon zaitzeze an urten dagizuben artian.
12. Eta sartuten zarenian etxian, agur egijozube, diñozubela: Bakia etxe onetan.
13. Eta baldin etxe á diña balitz, etorriko da zuben bakia bere ganera: baña diña ez baldin balitz, zeubek bakia biurtuko da zeubek gana.
14. Eta artuko ez bazindubez edozeñek, eta entzungo ez balitu zuben berbaak, urtenik kanpora etxetik, edo uritik, astindu egizube zeuben oñetako autsa.
15. Egijaz dirautsubet: Igarokarrijago izango jako Sodomatarren eta Gomorratarren errijari juizijoko egunian, uri ari baño.
16. Orra nun nik bialduten zaitubedazan ardijak otsuen erdijan legez. Izan zaitzeze bada zurrak sierpiak legez, eta tolesbagaak usuak legez.
17. Eta gorde zaitzeze gizonetatik. Zerren eruangor zaitube batzarretara, eta azotauko zaitube euren Sinagogetan:
18. Eta izango zare eruanak agintarijak eta erregiak gana nigaitik, eza-gungarritzak eurai, eta jentillai.
19. Eta zaruezanian, ez eikezube gogoratu zelan, edo zer berba egin-gor dozuben: zerren emongo jatsube ordu atan, zer berba egin.
20. Zerren ez zare zubeberba egiten dozubenak, ezpada zeuben Aitaren espirituba, zubeberba egiten dabena.
21. Eta eruangor dau anaijak anaija iltera, eta aita semia: eta jagiko dira semiak gurasuen kontra, eta ill eragingo ditube.
22. Eta guztijak gorroto izango deustube nire izena gaitik: baña irauten dabena azkeneraño, au izango da salbauba.



23. Eta esesten deutsubenian uri onetan, iges egizube beste batera. Egijaz dirautsubet, ez dituzubela amaituko Israelgo urijak, etorri artian gizonaren semia.

24. Ez da ikaslia irakaslia baño geijago, ez menpekua bere jauna baño geijago.

25. Asko da ikasliarentzat izatia bere irakaslia legez: eta menpekua-
rentzat, bere jauna legez. Baldin etxekojaunari Beelzebub deitu beutsen,
zenbat geijago bere etxekuai?

26. Ez zaitze bada euren bildur izan: Zerren ez dago gauza estaldu-
rik, agertuko ez danik: eta ezkukurik, jakingo ez danik.

27. Esaten deutsubedana illuntasunetan, esan egizube argitan: eta
belarrijan entzuten dozubena, predikau egizube tellatuben ganian.

28. Eta ez eikijezube bildurrik euki gorputza ilten dabena, eta arimia
ezin ill dabena: ezpada bildur izan zakijuez arimia ta gorputza galdu lei-
kezanari infernuban.

29. Ez al dira salduten txoritsu bi laumaraiko baten: eta euretatik bat
ez da jausiko lurraren ganera zuben aita bagarik?

30. Baitabere zuben buruko uliak guztijak dagoz zenbaturik.

31. Ez zaitze bada bildur izan: txori asko baño obaak zare zubek.

32. Gizonen aurrian bada ni autortuten naberen guztija, autortuko dot
neuk bere bera, neure Aita zerubetan daganaren aurrian.

33. Eta ukatuten nabena gizonen aurrian, ukatuko dot neuk bere
bera, neure Aita zerubetan daganaren aurrian.

34. Ez egizube uste izan etorri nintzala bakia ekartera lurrera: ez nin-
tzan etorri bakia ekartera, ezpada ezpatia.

35. Zerren etorri nintzan aldendutera gizona bere aitagandik, eta ala-
bia bere amagandik, eta erreña bere amagiñarrebagandik:

36. Eta gizonaren arerijuak, bere etxekuak.

37. Maite dabena aita, edo ama ni baño geijago, ez da nire diña. Eta
maite dabena semia edo alabia ni baño geijago, ez da nire diña.

38. Eta artuten ez dabena bere kurutzia, eta jarraituten ez deustana,
ez da nire diña.

39. Aurkituten dabena bere arimia, galduko dau: eta galduten dabe-
nak bere arimia nigaitik, aurkituko dau.

40. Zubek artuten zaitubezanak, neu artuten nau: eta ni artuten nabe-
nak, artuten dau ni bialdu nindubana.

41. Artuten dabena Igarlia Igarliaren izenian artuko dau Igarliaren
sarija: eta artuten dabena justuba justubaren izenian, artuko dau justu-
baren sarija.

42. Eta edozeñek emoten deutsanak edarija txikitxu oneetatik bati
baso bete ur otz bakarrrik diszipulubaren izenian: egijaz dirautsubet, ez
dau galduko bere sarija.

AMAIKAGARREN KAPITULUBA

*Bautistiak bialduten ditu bere ikasleetatik bi itanduten Jaunari,
bera ete zan Mesias: eta Jaunak aginduten deutse begiratu dagijela
bere egitadetara, eta adierazo dagijuezala Bautistiari. Jaunak
diñuana bere Bidaurrekuagaitik. Adoretan dau bere Aitaren
jakiturija, ukaturik arruai, agertu eta emoten jakelako umillai.
Igituten ditu guztijak berau jarraitutera.*

1. Eta jazo zan, amaitu ezkerro Jesusek emotia irakatsi oneek bere
amabi ikaslaai, igaro zan andik erakusteko, eta prediketako euren urijetan.

2. Eta Juanek entzunik lokarrijetan Kristoren egitadaak, bialdurik
bere ikasleetatik bi,

3. Esan eutsan: Zu zara etorriko dana, ala besterik itxaroten dogu?

4. Eta erantzunik Jesusek esan eutsan: Zuaze ta adierazo egijozubez
Juani entzun ta ikusi dituzubenak.

5. Itxubak ikusten dabe, errenak dabiltz, legendunak dira garbitubak,
gorrak entzuten dabe, illak biztuten dira, eta pobriai adierazoten jake
ebanjelijua.

6. Eta zorijonekua da, gatxerako bidia artuten ez dabena nigaz.

7. Eta eurak juan ta laster, asi zan Jesus esaten jendedijai Juangaitik:
Zer ikustera urten dozube eremura? Axiak darabillan kañaberaren bat?

8. Baña zer ikustera urten dozube? Soñeko bigun ta ederrakaz jan-
tziriko gizonen bat? Egijaz soñeko bigun ta ederrakaz jantzijak, erregeen
etxeetan dagoz.

9. Baña zer ikustera urten dozube? Igarlia? Baita dirautsubet, igarlia
baño geijago bere.

10. Zerren au da, zeñegaitik eskribidurik dagan: Orra emen neuk
bialduten dot neure Aingeruba zeure aurrian, zeñek prestauko daben
zeure bidia zeure aurretik.

11. Egijaz dirautsubet: Ez da jagi andretatik jaijotako gizakumeen
artian Juan Bautistia baño andijagorik: baña txikijena dana zerubetako
erreinuban, bera baño andijago da.



12. Eta Juan Bautistiaren egunetik orain artian, zerubetako erreinubari indar egin biar jako, eta gogoz jarkijak atrapetan dabe.

13. Zerren igarla guztijak, eta legiak Juaneraño adierazo zitubezan etorkizunak.

14. Eta artu gura badozube, bera da Elias, etorriko dana.

15. Belarrijak daukazanek entzuteko, entzun dagijala.

16. Zeñi baña dirudijala usteko dot gizadi onek? Da plazan jarrita dagozan mutillen antzekua: zeintzubez diadarrez euren idekuai:

17. Dirautsen: Kantau deusugube, eta ez dozube dantzan egin: zizpuruz egon gara, ta ez dozube negar egin.

18. Zerren etorri zan Juan ez ebalá jaten, ez edaten, eta diñue: Demonia dauka.

19. Etorri zan gizonaren Semia jaten dabela, ta edaten dabela, eta diñue: Orra emen gizon tripontzi, ta ardao edale bat, Publikanuen ta pekatarijen adiskidia. Baña jakiturija izan da garbituba bere semeen aldetik.

20. Orduban asi zan arpegijan emoten, bere mirari guztiz asko egiñak izan ziran urijai, ez ebelako egin penitenzija.

21. Ai zure errukarrija Korozain! Ai zure errukarrija Betsaida! Zerren baldin Tiron, eta Sidonen egiñak izan balira, zubetan egiñak izan diran mirarijak, antxiña egingo eben penitenzija zilizijuan, eta autsian.

22. Orregaitik dirautsubet: Tiro eta Sidon bigunago artubak izango dirala juizijoko egunian, zubek baño.

23. Eta zu Kafarnaum, izango al zara jasua zeruraño? Infernuraño jatziko zara. Zerren baldin Sodomán egin izan balira, zukan egiñak izan diran mirarijak, menturaz iraungo eben egun onetaraño.

24. Orregaitik dirautsubet: Sodomako errija bigunago izango dala artuba juizijoko egunian, zu baño.

25. Denpora atan erantzunik Jesusek esan eban: Eskerrak emoten deusudaz, Aita, zeruko eta lurreko Jauna, zerren ezkutau zenduzan oneek jakitunetik, eta aditubetik, eta agertu deusazuz txikijai.

26. Alan Aita: zerren onelan izan zan zure naija.

27. Nire aita emon eustazan niri gauza guztijak. Eta iñok ez dau ezagututen semia, ezpada aita: eta ez dau bere iñok ezagututen aita, ezpada semiak, eta semiak agertu gura deusanak.

28. Erdube nigana, nekaturik eta kargaurik zagozen guztijok, eta neuk arinduko zaitubedaz.

29. Artu egizube neure buztarrija zeuben ganian, eta ikasi egizube nigandik, bada otsana naz, ta bijotzez umilla: eta aurkituko dozube atsendena zeuben arimentzat.

30. Zerren nire buztarrija biguna da, eta nire kargia ariña.

AMABIGARREN KAPITULUBA

Fariseoak gaiski esaka diardube diszipulubak gaitik, zapatuban artuten zitubezalako galburubak. Jaunak berba egiten dau euren alde. Osatuten dau zapatuban esku bata sikaturik eukan bat, erakusteko ez dala pekatu zapatuban lagin urkuari mesede egitia. Sendatuten dau gaiskindun itxu ta mutu bat. Eskatuten eutsenai mirari bat egiteko, ontzat ezagututeko bere lantegija, erantzuten deuse, bere Biztuera barrija, Jonagan irudituba, izango dala eskatuten daben ezaugarrija. Erakusten dau, bere Aitaron borondatia egiten dabenak, izango dirala bere anaijaak, adiskidiak, eta senidiak.

1. Denpora atan jua zan Jesus garitzetik zapatuban: eta bere diszipulubak gose izanik asi ziran ebagiten galburubak, eta jaten.

2. Eta Fariseoak ikusirik, esan eutsen: Orra nun zure diszipulubak egiten daben ondo ez dana egitia zapatubetan.

3. Baña berak esan eutsen: ez dozube irakurri zer egin eban Dabidek, gose izan zanian bera ta beragaz egozanak?

4. Zelan sartu zan Jaungoikuaren etxian, eta jan zituzan ofrendako ogijak, zeintzubez ezin jan eukezan berak, ez beste beragaz egozanak, ezpada bakarrik Sazerdotiak?

5. Edo ez dozube irakurri legian, zapatubetan sazerdotiak elexan zapatuba ausiten dabela, eta pekatu bagarik dirala?

6. Bada dirautsubet, tenplua baño andijagua daguala emen.

7. Eta baldin bazenkije zer dan: Errukija gura dot, eta ez eskintzarrija: iñoz ez zendubezan kondenaiko errubagaak.

8. Zerren gizonaren semia da zapatubaren Jauna bere.

9. Eta andik aldendu ezkerro, etorri zan euren sinagogara.

10. Eta orra emen gizon bat eukana eskuba sikaturik; eta itanduten eutsen, ziñuela: Zapatubetan osatutia ondo al da? Salatutiarren bera.

11. Eta berak esan eutsen: Ze gizon izango da zubetatik, daukana ardi bat, eta baldin jausiko balitz au zapatuban lezara, ez leuskijona eskubagaz elduko, eta aterako?

12. Zenbat obiago ez da gizona ardi ja baño? Alan bada ondo da zapatubetan mesede egitia.



13. Orduban esan eutsan gizonari: Luzatu egizu zeure eskuba. Eta luzatu eban, eta biurtuba izan jakon osatuta bestia legez.
14. Eta urtenik Fariseoak, egiten eben batzaarra bere kontra, zelan galduko eben.
15. Eta Jesusek jakiñik aldendu zan andik: eta jarraitu eutsen askok, eta osatu zituzan eurak guztijak.
16. Eta agindu eutsen ez egijela agertu.
17. Betia izan zedin esana izan zana Isaias Igarliaren bitartez, diñuala:
18. Orra emen neure serbitzarija, autu nebana, neure maitia, zeñegan ondo gozatu dan nire arimia. Imiñiko dot neure espirituba bere ganian, eta adierazoko deutse zuzentasuna jentillai.
19. Ez dau eukiko ezbairik, eta ez dau egingo diadarrrik, eta ez dau iñok entzungo plazetan bere berbia:
20. Kañabera zartatua ez dau ausiko, eta keia darijon metxia ez dau amatauko, jaurtigi dagijan artian garaitzara zuzentasuna.
21. Eta bere izenian erreinubak itxarongo dabe.
22. Orduban ekarri eutsen demonioa eukan bat, itxuba, ta mutuba, eta osatu eban ain modutan ze berba egiten eban, ta ikusten eban.
23. Eta miraritutun ziran jendedi guztijak, eta esaten eben: Dabiden semia bai al da?
24. Barriz Fariseoak entzunik, esan eben: Onek ez ditu botaten demonioak ezpada Beelzebub demonioen agintarijagan.
25. Eta Jesusek jakiñik euren gogoraziñoiak, esan eutsen: Bere kontra zatituriko erreñu guztija, izango da ondatuba: eta bere kontra zatituro uri edo etxe guztijak ez dau iraungo.
26. Eta baldin Satanasek Satanas botaten badau, bera beragan dago zatiturik, zelan bada iraungo dau bere erreinubak?
27. Eta baldin nik Beelzebubgan botaten badituz demonioak, zuben semiak nogan botaten ditube? Orregaitik eurak izango dira zuben guzurtatzallaak.
28. Barriz baldin nik Jaungoikuaren espiritubaz botaten badituz demonioak, beraz eldu da zubetara Jaungoikuaren erreinuba.
29. Edo zelan sartu leiteke norbait senduaren etxian, eta ostu daukana, ezpadau lenago lotuten sendua? eta orduban ostu leike bere etxian daguana.
30. Nigaz ez dana, nire kontra da, eta nigaz batuten ez dabenak, zabalduten diardu.
31. Orregaitik dirautsubet: pekatu eta ernegu guztija izango jake parkatuba gizonai, baña espiritubaren erneguba ez da izango parkatuba.

32. Eta esaten daben edozeñi berbia gizonaren semiaren kontra, parkatuba izango jake: baña esaten dabenari Espiritu Santubaren kontra, ez jake parkatuko ez mundu onetan ez gerokuan.

33. Edo egizube zugatz ona ta bere frutuba ona: edo egizube zugatz txarra ta bere frutuba txarra: zerren frututik zugatz da ezagutuba.

34. Ziraunen kastia, zelan esan zinaijez berba onak, izanik zeubek gaistuak? Zerren aüak berba egiten dau bijotzaren ugaritasunetik.

35. Gizon onak gordeleku onetik ateraten ditu gauza onak: eta gizon gaistuak gordeleku gaistotik ateraten ditu gauza gaistuak.

36. Eta dirautsubet, gizonak esaten daben berba alper guztijaren kontuba emongo dabe juizijoko egunian.

37. Zerren zeure berbetatik izango zara ontzat ezagutuba, eta zeure berbetatik izango zara dongatzat ezagutuba.

38. Orduban erantzun eutsen Eskribaetik eta Fariseoetik batzubenek, ziñuela: Irakaslia, gura dogu ikusi zugandik ezagungarrija.

39. Berak erantzunik esan eutsen: Kasta gaisto eta siniste txarreko onek ezagungarrija billatuten dau: eta ezagungarriko emongo ez jake, ezpada Jonas Igarliaren ezagungarrija.

40. Zerren zelan egon zan Jonas baleiaren sabelian iru egunian, eta iru gautan; alan egongo da gizonaren semia lurraren bijotzian iru egunian ta iru gautan.

41. Ninibeko gizonak jagiko dira juizijuan gizaldi onegaz, eta kondenaiko dabe: zerren penitenziija egin eben Jonasen predikaziñoiagaz. Eta orra Jonas baño geijago leku onetan.

42. Egoeko erregiña jagiko da juizijuan gizaldi onegaz, eta kondenaiko dau: zerren etorri zan lurraren azkenetik entzutera Salomonen jakiturija, eta orra Salomon baño geijago leku onetan.

43. Espiritu loijak bada urten dabenian gizonagandik, dabil leku liorretatik, billatuten atsegiña, eta ez dau aurkituten.

44. Orduban diño: Biurtuko naz neure etxera, nundik urten neban. Eta datorrenian aurkituten dau utsa, giñarrakaz garbituba, eta apainduba.

45. Orduban badua, eta artuten ditu beragaz beste zazpi espiritu bera baño dongaguak, eta sarturik barruban bizi dira an. Eta egiten dira gizonaren azkenak lenagokuak baño dongaguak. Alan jazoko jake gizaldi guztiz donga oni bere.

46. Oraindik berak berbetan ziardubala jendedijari, orra nun bere ama, eta anaijaak egozan kanpuan, berba egin nairik berari.

47. Eta esan eutsan batek: Orra nun zure ama, eta zure anaijaak kanpuan dagozan billatuten zaitubela.



48. Eta berak erantzunik berba egiten eutsanari, esan eutsan: Zein da nire ama, eta zeintzuk dira nire anaijaak?

49. Eta luzaturik eskuba bere jarraitzallaak gana, esan eban: Orra emen nire ama ta nire anaijaak.

50. Zerren nire aita zerubetan daganaren borondatia egiten daberen edozein: au da nire anaija, eta arrebria eta ama.

AMAIRUGARREN KAPITULUBA

Ereinliaren, oluaren, mostaza garaüaren, labaduriaren, dirutegi ezkutubaren, perla balijo andikuaren, eta sariaren irudijak. Igarlia oztasunez begiratuba bere errijan.

1. Egun atan urtenik Jesusek etxetik, eguan jarrita itxaso onduan.
2. Eta batu zan beragana jenedi asko, ain modutan ze ontzitxu bate-ra igonik eguan jarrita: eta jenedi guztija eguan zutunik itxas bazterrian.
3. Eta esan eutsezan gauza asko irudijetan, ziñuala: Orra nun urten eban ereiten dabena, ereitera.
4. Eta ereiten diarduala, azi batzuk jausi ziran bidiaren onduan, eta etorri ziran zeruko egaztijak, eta jan zitubezan.
5. Beste batzuk barriz jausi ziran arritzetan, nun ez eukien lur asko: eta laster erne ziran, ez eukelako lur lodija.
6. Eta eguzkijak urtenik, erre ziran: eta ez eukelako sustrairik, sikatu ziran.
7. Beste batzuk barriz jausi ziran arantzetan: eta azi ziran arantzaak, eta ito zitubezan.
8. Beste batzuk barriz jausi ziran lur onian: eta emoten eben frutuba, batek eunka, bestiak irurogeika, bestiak ogetaamarka.
9. Daukazanak belarrijak entzuteko, entzun dagijala.
10. Eta eldurik jarraitzallaak esan eutsen: Zergaitik irudijetan berba egiten deutsezu?
11. Berak erantzunik, esan eutsen: Zerren zubei emona jatzube eza-gututia zerubetako erreinuko ezkutapenak: areei barriz ez jake emon.
12. Zerren daukanari, emongo jako, eta izango dau ugarijago: eta ez daukanari, daukana bere kenduko jako.
13. Orregaitik irudijetan berba egiten deutset: zerren ikusten dabela ez dabe ikusten, eta entzuten dabela ez dabe entzuten, ez adituten.

14. Eta betetan da eurakgan Isaias Igarliaren esana diñuanarena: Belarrijagaz entzungo dozube, eta ez dozube adituko: eta ikusten dozu-bela ikusiko dozube, eta ez dozube ikusiko.

15. Zerren loditu da erri onen bijotza, eta belarrijakaz astun entzun eben, eta euren begijak itxi zitubezan: ikusi ez dagijen begijakaz, eta belarrijakaz entzun ez dagijen, eta bijotzagaz aditu ez dagijen, eta biurtu ez ditezen, eta osatu ez dagidazan.

16. Zorijonekuak barriz zuben begijak zerren dakusen, eta zuben belarrijak zerren dantzuben.

17. Zerren egijaz dirautsubet: igarla ta on askok gura izan ebela ikus-tia dakutzubezanak, eta ez zitubezan ikusi: eta entzutia dantzuzubezanak, eta ez zitubezan entzun.

18. Zubez bada entzun egizube ereilliaren irudija.

19. Erreinuko berbia entzun, eta adituten ez daberen guztija, badator gaistua, eta atrapetan dau bere bijotzian errein zana: au da bide onduan errein zana.

20. Arritzen ganian errein zana barriz, au da, entzuten dabena berbia, eta beriala pozagaz artuten dabena:

21. Baña ez dauka beragan sustrairik, ezpada da iraupen gitxikua. Eta datorrenian naibagia ta esetsija berbiagaitik, laster artuten dau gatxerako bidia.

22. Eta errein zana arantzadijan, au da, entzuten dabena berbia; baña mundu onetako arduriak, eta aberastanunen engañubak itoten dau berbia, eta frutu бага geldituten da.

23. Erein zana barriz lur onian, au da entzuten dabena berbia, eta adituten dabena, eta frutuba daroiana: eta egiten dau batek eunka, bestiak barriz irurogeika, eta bestiak ogeta amarka.

24. Beste irudi bat imiñi eutsen, zirautsela: Zerubetako erreinuba da gizon baten irudikua, zeñek errein eban azi ona bere soluan.

25. Eta lotan egozala gizonak, etorri zan bere arerijua, eta errein eban olua garijaren erdijan, eta juan zan.

26. Eta azi zanian bedarra, eta frutuba egin ebanian, orduban agertu zan olua bere.

27. Eta eldurik etxejojunaren otseiñak, esan eutsen: Jauna, ez al zenduban errein azi ona zeure soluan? Nundik bada dauka olua?

28. Eta esan eutsen: Gizon arerijuak egin dau au: Eta otseiñak esan eutsen: Gura dozu, juan gaitian, eta batu daiguzan?

29. Eta esan eutsen: Ez: batuten dozubela olua, atera ez dagizuben batera eurakaz garija bere.



30. Itxi egizube bitzube azitezela garija ebagiteko denporaraño, eta garija ebagiteko denporan esango deutset galepallai: Batu egizube lelengo olua, eta lotu egizube eskutadetan erretako, garija barriz pillatu egizube neure galtokirako.

31. Beste irudi bat imiñi eutsen ziñuala: Zerubetako erreinuba da moztaza garaubaren antzekua, zein arturik gizonak erein eban bere soluan.

32. Zein egijaz da azi guztijetatik txikijena: baña aziten darian, andijagua da bedar guztijak baño, eta zugatz egiten da, allagiña ze, zeruko egaztijak etorri oi dira, ta bizi bere errametan.

33. Beste irudi bat esan eutsen: Zerubetako erreinuba da labadurien antzekua, zein arturik andra batek ezkutetan daben iru neurri urunetan, arik eta jagi artian guztija.

34. Oneek guztijok esan eutsezan Jesusek irudijetan jendedijai: eta irudijakaz бага ez eutsen berba egiten:

35. Bete zedin igarriak esan ebana ziñuanian: Idigiko dot irudijetan neure aia: agertuko ditut ezkutaurik egozanak munduba egin zanetik.

36. Orduban, itxirik jendedijak, etorri zan etxera: eta urreratu ziran beragana bere jarraitzallaak, ziñuela: Azaldau egiguzu soloko oluen irudija.

37. Berak erantzunik esan eutsen: Azi ona ereiten dabena, da gizonaren Semia.

38. Solua barriz, da munduba. Azi ona barriz, oneek dira erreinuko semiak. Eta olua, seme dongaak dira.

39. Eta erein zituzan arerijua, da diabrua. Barriz garija ebagiteko denporia, mundubaren azkena da. Galepallaak barriz, Aingerubak dira.

40. Zelan bada batuten dan olua, eta sutan erretan dan: alan izango da mundubaren amaijan.

41. Bialduko ditu gizonaren Semiak bere Aingerubak, eta batuko ditube bere erreinutik eskandalu guztijak, eta gaistakerija egiten dabena.

42. Eta botako ditube suzko labara. An izango da negarra ta agin karraskadia.

43. Orduban justubak argi egingo dabe eguzkijak legez euren Aitaren erreinuban. Daukazanak belarriak entzuteko, entzun dagijala.

44. Zerubetako erreinuba da kanpo baten ezkutauriko tesoruaren irudikua, zein aurkituten daben gizonak, estalduten dau, eta aren pozagaz dua, eta salduten ditu daukazan guztijak, eta erosten dau kanpo a.

45. Oстера zerubetako erreinuba da, gizon merkatari, perla oneen billa dabillenaren irudikua.

46. Eta aurkiturik balijo andiko perla bat, jua zan, eta saldu zituzan eukazan guztijak, eta erosi eban.

47. Barriro zerubetako erreinuba da, itxasora botariko sare, arrain mueta guztijak batuten dituzanaren irudikua.

48. Zein, bete darian, aterarik, eta itxasonduan jarririk, autu zitubezan onak ontzietarako, txarrak barriz kanpora bota zitubezan.

49. Alan izango da gizaldijaren amaijan: urtengo dabe Aingerubak, eta aldenduko ditube dongaak justuben erditik.

50. Eta sartuko ditube suzko laban: an izango da negarra eta agin karraskadia.

51. Aditu dituzube oneek guztijok? Dirautse: Bai.

52. Esan eutsen: Orregaitik Eskriba jakitun guztija zerubetako erreinuban da gizon etxeko jaun baten irudikua, zeñek ateraten dituzan bere gordelekutik barriak eta zaarrak.

53. Eta amaitu zituzanian Jesusek irudi oneek, jua zan andik.

54. Eta etorririk bere errira, emoten eutsezan irakatsijak euren sinagogetan, ain modutan ze mirarituten ziran, eta esaten eben: Nundik oni jakiturija au, eta miraarijak?

55. Ez al da au arotzaren semia? Ez al da bere ama Marija deritxana, eta bere anaijaak, Santiago, eta Jose, eta Simon, eta Judas:

56. Eta bere arrebaak, ez al dagoz guztijak geure artian? Nundik bada oni oneek guztijok?

57. Eta gatx bidia artuten eben beragan. Jesusek barriz esan eutsen: Ez dago igarlarik ondra бага, ezpada bere errijan, eta bere etxian.

58. Eta ez zituzan egin an mirari asko euren sinisgatxatasuna gaitik.

AMALAUAREN KAPITULUBA

Bautistiaren erijotzia. Kristok eremuban jaten emoten deitsa erriko jentedi bati bost ogigaz ta arrain bigaz. Itxasandi baten dua bere jarraitzallaak gana uren ganetik; eta San Pedro etorririk beraganuntz uren ganian, jarten da ondatuteko arriskuban federik ez eukalaka.

1. Denpora atan entzun eban Herodes Tetrarkak Jesusen ospia:

2. Eta esan eutsen bere otseiñai: Au da Juan Bautistia: bera biztu zan illen artetik, eta orregaitik mirarijak egiten dira beragan.



3. Zerren Herodesek atrapau eban Juan, eta lotu eban: eta imiñi eban presondegijan, Herodias bere anaijaren emaztia gaitik.
4. Zerren esaten eutsan Juanek: Ezin euki ziñaike bera.
5. Eta ill gurarik bera, errijaren bildur izan zan: zerren euken igarla legez.
6. Barriz Herodesen jaijotzako egunian dantzan egin eban Herodia-desen alabiak erdijan, eta gustau jakon Herodesi.
7. Orregaitik juramentubagaz eskiñi eutsan emotia eskatuten eutsan edozein gauza.
8. Eta arek bere amak aurrez adierazorik: Emon egidazu, esan eban, emen platerian Juan Bautistiaren buruba.
9. Eta tristetu zan errege: baña juramentubagaitik, eta beragaz bate-ra majan jarririk egozanak gaitik, agindu eban emoteko.
10. Eta bialdu eban eta ebagi eutsan buruba Juani presondegijan.
11. Eta ekarri eben bere buruba platerian, eta emon eutsen neskati-liari, eta onek eruan eutsan bere amari.
12. Eta etorri bere jarraitzallaak, artu eben bere gorputza, eta obitu eben: eta jua ziran adierazotera Jesusi.
13. Jesusek entzun ebanian au, aldendu zan andik ontzitzu baten, leku bakar urrin batera: eta entzunik jenedijak, jarraitu eutsen oñaz uri-jetatik.
14. Eta urtenik, ikusi eban jentedi asko, eta errukitu zan eurakaz, eta osatu zituzan euren geixuak.
15. Eta eldurik arratsaldia etorri ziran beragana bere jarraitzallaak, ziñuela: Bakarra da leku au, eta orduba onezkero igaro da: itxi egijezu jenedijai, juañik errijetara, erosi dagijezen eurentzat janarijak.
16. Eta Jesusek esan eutsen: Ez dauke juanaren biarrik: emon egije-zube zeubek jaten.
17. Erantzun eutsen: Ez daukaguz emen ezpada bost ogi eta arrain bi.
18. Berak esan eutsen: Ekarri egidazubez neuri ona.
19. Eta agindurik jenedijari jarteko bedarraren ganian, arturik bost ogijak, eta arrain bijak, begiraturik zerura bedeinkatu ta txikitu zituzan, eta emon eutsezan jarraitzallaai, eta jarraitzallaak jenedijai.
20. Eta jan eben guztijak, eta ase ziran. Eta ekarri zitubezan enpa-raubak, amabi zara zatiz beterik.
21. Eta jan ebenak ziran, bost milla gizon, andraak, eta umiak baga.
22. Eta beriala Jesusek igon eragin eutsen ontzitzura jarraitzallai, eta juañ zeitezala bere aurretik itxas beste aldera, arik eta bialduten zituzan artian jenedijak.

23. Eta bialdurik jenedija, igon eban mendira bakarrik erregututera. Eta gaba etorrita eguan bakarrik an.
24. Ontzitzuba barriz itxasuaren erdijan erabilen olatubak: zerren axia zan aurretikua.
25. Gox aldian, etorri zan eurak ganuntz ebillela itxasuaren ganian.
26. Eta ikusirik bera itxasuaren ganian ebillela, ikaratu ziran, ziñuela: Mamua da. Eta bildurraz asi ziran diadarrez.
27. Eta beriala Jesusek berba egin eutsen, zirautsela: Itxaron egizube: neu naz, ez zaiteze bildurto.
28. Eta erantzunik Pedrok esan eutsan: Jauna, baldin zu bazara, agin-du egizu etorri nadilla zugana uren ganetik.
29. Eta berak esan eutsan: Erdu. Eta jatzirik Pedro ontzitzutik ebi-llen uraren ganian etorteko Jesus gana.
30. Eta ikusirik axe sendua, bildurto zan: eta asirik ondatuten, diadar egin eban ziñuala: Jauna, balija zakidaz.
31. Eta beriala Jesusek luzaturik eskuba, eldu eutsan, ta esan eutsan: Fede gitxikua, zergaitik bildur izan zara?
32. Eta sartu ziranian ontzitzuban, gelditu zan axia.
33. Eta ontzitzuban egozanak, etorri ziran, eta adorau eben, ziñuela: Egijaz Jaungoikuaren semia zara.
34. Eta igarorik itxasuaren beste aldera, etorri ziran Jenesarko errira.
35. Eta ezagutu ebenian leku atako gizonak, adierazo eutsen inguru guzti atakuai, eta ekarri eutsezan geixorik egozan guztijak.
36. Eta eskatuten eutsen itxi egijuela ukututen edolabere bere soñe-kuaren egalari. Eta ukutu eutsen guztijak, osatu ziran.

AMABOSTGARREN KAPITULUBA

Eskriba ta Fariseoak deungaro esaten dabe Jaunaren jarraitzallaak gaitik, jaten jarten ziralako, lenago eskubak garbitu bagarik: Jaunak berba egiten dau euren alde. Osatuten dau Kananearen alabia, bere fede andijaren ezaugarrijak emoten dituzana. Ostera emoten deutsa jaten basamortuban jente aldra andi bati zazpi ogi ta arrain batzukaz.

1. Orduban eldu ziran beragana Jerusalemik Eskriba ta Fariseoak, ziñuela:



2. Zergaitik zure ikaslaak austen dabe zaarren irakatsija? Zerren ez ditube garbituten euren eskubak ogija jaten dabenian.
3. Berak barriz erantzunik esan eutsen: Eta zergaitik zubek austen dozube Jaungoikuaren aginduba zeuben irakatsijagaitik? Bada Jaungoikuak esan eban:
4. Honrau egizu aita eta ama. Eta: Madarikatuten dabena aita, edo ama, illa izan bedi.
5. Zubek barriz diñozube: Aitari edo amari esaten deutsan edozeñek: Nik egiten dodan edozein eskintzari, izango da zure onerako.
6. Eta ez dau ondrauko bere aita, edo bere ama: eta alperra egin dozube Jaungoikuaren aginduba zeuben irakatsijagaitik.
7. Irudiz bakarrik onak, ondo adierazo eban aurrez zubek gaitik Isaiasek, ziñuala:
8. Erri onek ezpanakaz ondretan nau: baña euren bijotza urrin dago nigandik.
9. Eta alperrik ondretan nabe, adierazoten ditubezala gizonen irakatsi ta agindubak.
10. Eta deiturik beragana jendedijai, esan eutsen: Entzun, ta aditu egizube.
11. Ez dau loituten gizona, aüan sartuten danak: ezpada aotik urteten dabena, onek loituten dau gizona.
12. Orduban eldurik bere ikaslaak, esan eutsen: Badakizu Fariseoak berba au entzun da, eskandalizau dirala?
13. Eta berak erantzunik esan eban: Nire aita zerukuak iminten ez daben landara guztija, izango da sustraitik ateria.
14. Itxi egijezube: itxubak dira, ta itxuben zuzentzallaak. Eta baldin itxuba bada itxubaren zuzentzallia, bijak jausiko dira lezara.
15. Eta erantzunik Pedrok esan eutsan: Azaldau egiguzu irudi au.
16. Eta berak esan eutsen: Oraindik zubek bere adin бага zagoze?
17. Ez dozube adituten, aüan sartuten dan guztija, Sabelera doiala, eta leku ezkutura botaten dala?
18. Baña aotik urteten dabena, bijotzetik datoz, eta oneek loituten dabe gizona.
19. Zerren bijotzetik datoz gogoraziño txarrak, gizon iltiak, aragizko pekatubak besteren emaziakaz, ezkontzakaz, lapurretaak, asmaziño guzurrezkuak, blasfemijak.
20. Oneek dira gizona loituten dabena. Barriz eskubak garbitu бага jatiak, ez dau loituten gizona.

21. Eta urtenik andik Jesusek aldendu zan Tiro, ta Sidongo aldeetaruntz.
22. Eta orra emen andra batek Kanaantarrak, muga areetatik urtenak diadar egin eban, zirautsala: Errukitu zaite arren nigaz Jauna Dabiden semia: nire alabia txarto penetan dau demonioak.
23. Berak ez eutsan erantzunik berbarik. Eta eldurik bere jarraitzallaak erregututen eutsen zirautsela: Bialdu egizu emonik nai dabena, zerren diadarrez dator geure ondorik.
24. Berak barriz erantzunik esan eutsen: Ez naz bialduba ezpada Israelgo etxeko ardi, galdu ziranetara.
25. Barriz bera etorri zan, eta adarau eban, zirautsala: Jauna, lagundu egidazu.
26. Berak erantzunik esan eutsan: Ez da ondo artutia semeen ogija, eta botatia txakurrai.
27. Eta berak esan eutsan: Baita ori bere Jauna: zerren txakurtxubak bere jan oi ditube, euren jaunen maitik jausten diran apurrak.
28. Orduban erantzunik Jesusek, esan eutsan: O andria, andija da zure fedia: egin dakizula gura dozun legez. Eta osatu zan bere alabia ordu atatik.
29. Eta urtenik andik Jesusek, etorri zan Galileako itxasuaren ondora: eta igonik mendira, eguan jarririk an.
30. Eta eldu ziran beragana jenedi asko, eukezanak eurakaz mutubak, itxubak, errenak, mantxuak, eta beste asko: eta bota zitubezan bere oñetara, eta osatu zituzan.
31. Ain modutan ze jendedijak miraritutun ziran ikusirik mutubak berbetan, errenak ebiltzala, itxubak ekusela: eta alabetan eben Israelgo Jaungoikua.
32. Jesusek barriz deiturik bere jarraitzallai, esan eutsen: Erruki ditut jendedijak, zerren iru egun dira onezkero dagozala neugaz, eta ez dauke zer janik: eta ez ditut gura bialdu barurik, gosiak ill ez dagizan bidian.
33. Eta dirautse jarraitzallaak: Nundik bada izan ginaikez eremuban ainbeste ogi, asetako jenedi ain andija?
34. Eta esan eutsen Jesusek: Zenbat ogi daukazubez? Eta eurak esan eutsen: Zazpi, eta arraintxu gitxi batzube.
35. Eta agindu eutsan jendedijari, jarri zedilla lurraren ganian.
36. Eta arturik zazpi ogijak, eta arraiñak, eta eskerrak emonik, txikitu zituzan, eta emon eutsezan bere jarraitzallaai, eta jarraitzallaak emon eutsezan errijari.



37. Eta jan eben guztijak, eta ase ziran. Eta gelditu ziran zatijetatik, eruan zitubezan zazpi otzara betiak.

38. Ziran barriz jan ebenak, lau milla gizon, ume ta andra baga.

39. Eta, bialdurik jendedija, igon eban ontzitzura: eta etorri zan Majedan ingurubetara.

AMASEIGARREN KAPITULUBA

Fariseoak eskatuten deutse barriro Jaunari egin dagijala mirari bat, eta berak erantzuten deutse len legez Jonasenagaz. Kontuban iminten ditu bere jarraitzallaak gorde ditezen euren irakatsitik. San Pedrok egiten dau Jesukristoren Jaungoikotasunaren aurrerera agiri bat, eta bere saritzat eskintzen deutsa Jaunak izango zala bere Elexiaren zimentu arrija. Adierazoten deutse bere erijotzia eta agraka egiten deutsa Pedrori, jarkiten jakolako. Dirautse guztijai artuteko kurutzia ta jarraitu dagijuela.

1. Eta eldu ziran beragana Fariseoak, eta Saduzeoak esetsitera: eta erregutu eutsen erakutsi egijuela zerutik ezagungarriren bat.

2. Eta berak erantzunik esan eutsen: Eldu danian illuntzija diñozube: Aterri egingo dau, zerren gorrija dago zeruba.

3. Eta goxian: Gaur ekatxa, zerren gorri ta illun dago zeruba.

4. Badakizube beraz ezagututen zerubaren itxuratik ze denpora egingo daben, eta ezin dozubez jakin nire etorreriaren denporen ezagungarri argijak? Kasta gaisto ta siniste okerrekuak ezagungarrija billatuten dau: eta ezagungarririk ez jako emongo, ezpada Jonas Igarliaren ezagungarrija. Eta itxirik areek, juan zan.

5. Eta etorririk bere jarraitzallaak itxasuaren beste aldera, aztu jaken ogijak artutia.

6. Berak esan eutsen: Begiratu egizube, ta gorde zaiteze Fariseoen ta Saduzeoen labaduratik.

7. Eta eurak gogoratuten eben euren artian ziñuela: Ogirik ez dogu artu.

8. Jakinik barriz Jesusek esan eutsen: Zergaitik gogoratuten dozube zeuben artian fede gitxikuak, ogirik ez daukazubela?

9. Ez dozube aituten, eta ez zare gogoratuten bost ogijakaz bost milla gizonentzat, eta zenbat zarakada batu zendubezan?

10. Ez zazpi ogijakaz lau milla gizonentzat, eta zenbat otzarakada batu zendubezan?

11. Zelan ez dozube adituten, ez neutsubela berba egin ogjagaitik, esan neutsubenian: Gorde zaiteze Fariseoen, ta Saduzeoen labaduratik?

12. Orduban aditu eben ez ebala esan gordetako ogijen labaduratik, ezpada Fariseoen, ta Saduzeoen irakatzitik.

13. Etorri zan barriz Jesus Zesarea Filipoeneko aldeetara: eta itanduten eutsen bere jarraitzallai, zirautsela: Nor dala diñue gizonaak gizonaren Semia?

14. Eta eurak esan eben: Batzuk Juan Bautistia, batzuk barriz Elias, eta bestiak Jeremias, edo Igarletatik bat.

15. Dirautse Jesusek: Zubek barriz nor nazala ni diñozube?

16. Erantzunik Simon Pedrok esan eutsan: Zu zara Kristo Jaungoiko bizijaren semia.

17. Eta erantzunik Jesusek, esan eutsan: Zorijonekua zara Simon Juannen semia: zerren aragijak eta odolak ez deutsu zuri erakutsi, ezpada nire Aita, zerubetan daganak.

18. Eta nik dirautsut zuri, zu zariala Pedro, eta arri onen ganian egingo dot neure Elexia, eta infernuko atiak ez dabe geijago egingo bere kontra.

19. Eta zuri emongo deutsudaz zerubetako erreiñuko giltzak. Eta lurraren ganian lotuten dozun guztija, izango da lotuba zerubetan bere: eta lurraren ganian askatuten dozun guztija, izango da askatuba zerubetan bere.

20. Orduban agindu eutsen bere jarraitzallai ez egijuela esan iñori bera zala Jesus Kristua.

21. Ordutik asi zan Jesus agertuten bere jarraitzallai, berak juan biar ebala Jerusalem, eta asko igaro zaarren, Eskribaen, eta sazerdoteen agintarijen aldetik, eta izan biar ebala illa, eta biztu biar ebala irugarren egunian.

22. Eta arturik bera Pedrok bakarrik, asi jakon agiraka egiten, zirautsala: Urrin zugandik, Jauna: ez jatsu zuri au gertauko.

23. Bera bihurturik Pedroganuntz esan eutsan: Kendu akit aurretik, Satanas: eskandaluba emoten deustak: zerren ez dazauzak Jaungoikuarenak dituan gauzak, ezpada gizonenak dituanak.

24. Orduban Jesusek esan eutsen bere jarraitzallai: Baldin iñok gura badau nire ondorik etorri, ukatu begi bere buruba, eta artu begi bere kurutzia, eta jarraitu begit.

25. Zerren gura dabenak salbau bere arimia, galduko dau. Eta galduen dabenak bere arimia nigaitik, aurkituko dau.



26. Zerren, zer balijo deutsa gizonari, irabaztiak mundu guztija, galduten badau bere arimia? Edo zer emon leike gizonak bere arimiaren ordian?

27. Zerren gizonaren Semia etorriko da bere Aitaren glorijan, bere Aingerubakaz: eta orduban emongo deutsa bakotxari bere egitadaen sarija.

28. Egijaz dirautsubet, badirala emen dagozanetatik batzuk, ilgo ez diranak, ikusi artian gizonaren Semia datorrela bere erreinuban.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUBA

Jesussek iminten dau bere gorputza glorijaz beterik Taborko mendijan. Osatuten dau gaiskiñak eukazan bat. Emoten deutsa Zesarri jaokana.

1. Eta igaro ezkerro sei egun artu zituzan beragaz Jesussek Pedro, eta Santiago, eta Juan bere anaija, eta eruan zituzan mendi altu bakar batera.

2. Eta beste irudi bat artu eban euren aurrrian. Eta argi egin eban bere arpegijak eguzkijak legez: eta bere soñekuak gelditu ziran zurijak edurra legez.

3. Eta orra nun agertu jakezan Moises, eta Elias beragaz berbetan ziardubela.

4. Eta asirik berbetan Pedro, esan eutsan Jesusi: Jauna, ondo da gu emen egotia: baldin gura badozu, egin daiguzan emen iru bizileku, zuretzat bat, Moisesentzat bat, eta Eliasentzat bat.

5. Oraindik berak berbetan ziardubala, orra nun odei argitsu batek estaldu zituzan. Eta orra emen boz bat odeitik ziñuana: Au da nire seme maitia, zeñegan ni asko gozatu nazan: berari entzun egijozube.

6. Eta entzunik ikaslaak, jausi ziran auzpaz, eta euki eben bildur andija.

7. Eta urreratu zan Jesus, eta ukutu eutsen, ta esan eutsen: Jaigi zaitze, eta ez zaitze bildur izan.

8. Eta jasorik euren begijak, ez eben iñor ikusi, ezpada bakarrik Jesus.

9. Eta jatziten zirala menditik, agindu eutsen Jesussek, zirautsela: Ez eikijozube esan iñori ikuskizuna, gizonaren semia illen artetik biztu dedin artian.

10. Eta itandu eutsen jarraitzallaak, ziñuela: Zergaitik bada Eskribak diñue Eliasek etorri biar dabela lenago?

11. Eta berak erantzunik esan eutsen: Elias egijaz etorriko da, eta imiñiko ditu jaoken lekubetan gauza guztijak.

12. Dirautsubet barriz, Elias onezkero etorri dala, eta ez eben ezagutu, ezpada egin zitubezan beragaz gura zitubezan gauza guztijak. Alan eurak padeziu eragingo deutse gizonaren semiari bere.

13. Orduban aditu eben jarraitzallak, Juan Bautistiagaitik berba egin eutsela.

14. Eta eldu zanian jendedira, etorri zan beragana gizon bat eta belaniko jarririk bere aurrrian, zirautsan: Jauna, errukitu zaitte nire semiagaz, zerren alditsuba da, eta asko igaroten dau: bada sarri jausten da sutara, eta askotan uretara.

15. Eta eruan deutset zure jarraitzallai, eta ezin izan dabe osatu.

16. Eta erantzunik Jesussek, esan eutsen: O kasta sinisgatx ta gaistua, noiz artian egongo naz zubekaz? Noiz artian sufriuko zaitubet? Ekarri egidazube ona.

17. Eta agiraka egin eutsan Jesussek, eta urten eban beragandik demonioak, eta osatu zan mutilla ordu atatik.

18. Orduban urreratu ziran ikaslaak Jesusgana ixillian, ta esan eutsen: Zergaitik guk ezin izan dogu bota?

19. Esan eutsen Jesussek: Zeuben fede laburragaitik. Zerren egijaz dirautsubet, baldin bazeunke fedia, moztaza garau bat lakua, esango deutzazube mendi oni: Igaro zaitte emendik ara, eta igaroko da, eta ez da izango zubentzat ezinik.

20. Kasta au barriz ez da botaten ezpada erregubaren, ta barubaren bitartez.

21. Eta egozala eurak Galilean, esan eutsen Jesussek: Gizonaren Semia izango da iminija gizonen eskubetan:

22. Eta illgo dabe, eta irugarren egunian biztuko da. Eta atsakabe guztiz andi bat artu eben.

23. Eta etorririk Kafarnauma, eldu ziran drakma bijak batuten zitubezanak, Pedrogana, eta esan eutsen: Zuben Irakasliak ez ditu pagetan drakma bijak?

24. Esan eutsen: Bai. Eta sarturik etxian, aurreratu jakon Jesus, zirautsala: Zer deritxazu zuri Simon? Lurreko erregiak nortzukandik artuten dabe tributuba edo zentzua? Euren semiak gandik, ala arrotzakgandik?

25. Eta berak esan eutsan: Arrotzakgandik. Esan eutsan Jesussek: Beraz ez dabe zor semiak.

26. Baña gatzbiderik emon ez dagijeguben, zuaz itxasora, eta bota egizu amuba: eta artu egizu, lelengo atrapetan dozun arraiña: eta idigirik bere aia, aurkituko dozu lau drakmako bat: arturik, emon egijezu zeugaitik, eta neugaitik.



AMAZORTZIGARREN KAPITULUBA

Jaunak erakusten dau humiltasuna dala gltza sartuteko zerubeta-ko erreinuban. Azaldetan dau ze pekatu andija dan ta ze kastigu gogorraren duiña eskandaluko pekatuba. Iminten dau Artzain onaren irudija, zeñi, itxirik larogeta emeretz ardiak, dua bat bakarraren aldendu zanaren billa. Erakusten dau ze modutan zuzenduko dan geure anaija oker doiana. Adierazoten deusa San Pedrori, beti parkatu biar deusagula irainen bat emoten deuskunari; zein sendatuten dau irudi guztiz eder bategaz.

1. Ordu atan eldu ziran ikaslaak Jesusgana, ziñuela: Zein deritxazu, andijagua dala zerubetako erreinuban?
2. Eta deiturik Jesusek ume bati, imiñi eban euren erdijan,
3. Eta esan utsen: Egijaz dirautsubet, ez bazare biurtuten, eta egiten umiak lakuak, ez zare sartuko zerubetako erreinuban.
4. Ume au legez bada umilduten dan edozein, au da andijagua zerubetako erreinuban.
5. Eta artuten dabenak onelako ume bat neure izenian, neu artuten nau.
6. Eta eskandalizetan dabenari, nigan sinistuten daben, txikitxu oneetatik bat, oba litzakijo imintia dingilizka bere idunetik asto errota arri bat, eta botako balebe itxasuaren ondora.
7. Ai mundubaren zorigaistokua eskandalubak gaitik! Zerren premiñazkua da eskandalubak etortia: baña zorigaistokua arako gizona, zeinen bitartez datorren eskandaluba.
8. Orregaitik baldin zeure eskubak, edo zeure oñak pekatu eragin gura badeutsu, ebagi egizu, eta bota zeugandik: zerren oba dozu sartu bizitzan mantxu, edo erren, esku bi edo oin bi dituzula botia izan baño betiko sutara.
9. Eta baldin zeure begijak pekatu eragin gura badeutsu, atera egizu, eta bota zeugandik: zerren oba jatsu begi bakar bategaz bizitzan sartutia, zein da begi bi daukazuzala izan jaurtigija suzko lekura.
10. Begiratu egizube dagizubela gitxitan euki txikitxu oneetatik bat: zerren dirautsubet, euren Aingerubak zerubetan beti ikusten dabela, neure aita zerubetan daganaren arpegija.
11. Zerren etorri zan gizonaren semia salbetara galdu zana.

12. Zer deritxazube? Baldin baleukaz norbaitek eun ardi, eta galduko balitz euretatik bat, ez al ditu itxiten larogeta emeretzijak mendijetan, eta ez al dua billatutera galdu zana?

13. Eta baldin jazoten bada aurkitutia: Egijaz dirautsubet, geijago poztuten dala beragaz, beste larogeta emeretz galdu ez ziranakaz baño.

14. Alan ez da zuben Aita zerubetan daganaren borondatia, galdua txikitxu oneetatik bat.

15. Eta baldin pekatu egiten badau zure kontra zure anaijak, zuaz, eta agiraka egijozu zeure, eta bere artian bakarrik. Baldin entzuten badeutsu, irabazi izango dozu zeure anaija.

16. Eta baldin entzuten ez badeutsu, artu egizuz zeugaz oraindik bat, edo bi, testigu biren, edo iruen aoz agertu dedin berba guztija.

17. Eta baldin ez badeutse entzuten eurai, esan egijozu Elexiari. Eta baldin Elexiari entzuten ez badeutsa, izan bedi zuretzat jentilla, eta publikanua legez.

18. Egijaz dirautsubet, lurraren ganian lotuten dozuben guztija, izango da lotuba zeruban bere: eta lurraren ganian askatuten dozuben guztija, izango da askatuba zeruban bere.

19. Barriro dirautsubet, baldin zubariko bi alkartuten badira lurraren ganian, eskatuten daben gauza guztija egingo deutse nire aita zerubetan daganak.

20. Zerren nun dagozan bi, edo iru baturik nire izenian, an nago euren erdijan.

21. Orduban eldurik Pedro beragana, esan utsan: Jauna, zenbat bidar parkatuko deusat neure anaijari, bidebagatasunen bat egiten badeust? Zazpi bidererraño?

22. Esan utsan Jesusek: Ez dirautsut zazpi bidarreraño, ezpada irurogeta amar bidar zazpiraño.

23. Orregaitik zerubetako erreinuba da irudituba gizon errege bati, gura ebanari kontubetan sartu bere otseiñakaz.

24. Eta asirik kontubak artuten, ekarri utsen bat, zor eutsazana, amar milla talentu.

25. Eta ez eukirik zegaz pagau, agindu eban bere Jaunak izan zedilla salduba bera, ta bere emaztia, eta semiak, eta eukan guztija, eta pagau ekijola.

26. Eta auzpazturik otseña, erregututen utsan, zirautsala: Itxaron egidazu, eta pagauko deusut guztija.

27. Eta errukiturik Jauna otsein aregaz, itxi utsan, eta zorra parkatu utsan.



28. Urtenik barriz otsein arek aurkitu eban bere otsein lagunetatik bat, zeñek zor eutsazan eun diru: eta eldurik ito gura eban, zirautsala: Pagau egidak zor deustana.

29. Eta auzpazturik bere otsein laguna, erregututen eutsan, zirautsala: Itxaron egidazu, eta guztija pagauko deustut.

30. Berak barriz ez eban gura: ezpada juañ zan, eta imiñi eragin eban presondegijan pagau artian zorra.

31. Ikusirik barriz bere otsein lagunak igaroten ziranak, naibagetu ziran asko: eta etorri ziran, eta adierazo eutsezan euren Jaunari igaro ziran gauza guztijak.

32. Orduban deitu eutsan bere jaunak, eta esan eutsan: Otsein dongia, zor guztija parkatu neuan erregutu eustalako.

33. Ez al enduban bada euk bere errukitu biar eure otsein lagunagaz, neu bere eugaz errukitu noan legez?

34. Eta aserraturik bere jauna imiñi eban borerreruben eskubetan, pagau artian zor guztija.

35. Alan egingo deustube nire Aita zerukuak bere, baldin ez badeu-tsazube parkatuten bakotxak bere anaijiari zeuben bijotzetatik.

EMERETZIGARREN KAPITULUBA

Erakusten dau Jaunak ezin urratu leitekiala ezkontzako lokarrija, eta gauza bat gaitik bakarrrik bata bestiagandik aldendu leitekizala. Ostera iminten ditu umiak, zeruko erreinuban sartuko diranen iruditzat. Erakusten dau onak izateko ta zerurako bidia, eta ze eragozpen andija diran aberastasanak baterako ta besterako. Amaituten dau esanaz, bere izena gaitik gauza guztijak itxiten ditubezanak izango daben sari bardiñik bagia.

1. Eta jazo zan, amaitu ezkeru Jesusek berbaldi oneek, aldendu zan Galileatik, eta etorri zan Judeako mugetara Jordanen beste aldetik.

2. Eta jarraitu eutsen jenedi askok, eta osatu zituzan an.

3. Eta eldu ziran beragana Fariseoak esesten berari, eta zirautsela: Itxi ete leike gizonak bere emaztia, edozein gauza gaitik?

4. Berak erantzunik esan eutsen: Ez dozube irakurri, egin ebanak gizona asieratik, aarra ta emia egin zituzala? eta esan eban:

5. Onegaitik itxiko ditu gizonak aita, eta ama, eta batzanduko da bere emaztiagaz, eta izango dira bi aragi batian.

6. Alan bada onezkeru ez dira bi, ezpada aragi bat. Jaungoikuak bada batu dabena, gizonak ez begi aldendu.

7. Dirautse eurak: Zergaitik bada Moisesek agindu eban emoteko alendubaren agirija, eta itxiteko?

8. Esan eutsen: Zerren Moisesek zeuben bijotzeko gogortasunagaitik itxi eutsuben botaten zeuben emaztiak: asieratik barriz ez zan alan.

9. Eta dirautsubet, bere emaztia itxiten daben edozeñek, ez izanik aragizko pekatuba gaitik, eta beste bategaz ezkonduen danak, aragizko pekatuba egiten dau: eta itxijagaz ezkonduen danak, aragizko pekatuba egiten dau.

10. Esaten deutse bere jarraitzallaak: Baldin orrelan bada gizonak emaztiagaz egin biar dabena, ezin ezkondu leiteke.

11. Berak esan eutsen: Guztijak ezin daikee gauza au, ezpada emon jakenak.

12. Zerren badira irendubak, amaren sabeletik alan jaijo ziranak: eta badira irendubak, gizonak egiñak: eta badira irendubak eurak euren burubai ebagijak zerubetako erreinuba gaitik. Egin daikianak, daijala.

13. Orduban imiñi eutsezan aurrian ume batzuk, eskubak imiñi egijuezan, eta erregutu egijan. Jarraitzallak barriz agiraka egiten eutsen.

14. Jesusek barriz esan eutsen: Itxi egijezube umiai, eta ez egijezube eragotzi nigana etortia: zerren alakuena da zerubetako erreinuba.

15. Eta imiñi ezkeru euren ganian eskubak, juañ zan andik.

16. Eta orra nun bat eldurik, esan eutsan: Irakasla ona, zer on egingo dot jaritxiteko betiko bizitzia?

17. Berak esan eutsan: Zergaitik itanduten deustazu onaren ganian? Bat da ona, Jaungoikua. Baldin gura badozu barriz bizitzara sartu, gorde egizuz agindubak.

18. Esan eutsan: Zeintzuk? Jesusek barriz esan eutsan: Ez dozu iñor illgo: Ez dozu aragizko pekatu egingo: Ez dozu lapurretarik egingo: Ez deustazu iñori guzurrik asmauko.

19. Onrau egizu zeure aita, eta zeure ama, eta maitetuko dozu zeure lagun urkua zeure buruba legez.

20. Esan eutsan zaldunak: Oneek guztijok gorde ditut neure gazte denporatik, zer palta jat oraindik?

21. Esan eutsan Jesusek: Baldin gura badozu osaro ona izan, zuaz, saldu egizu daukazuna, eta emon egijozu eskekuai, eta eukiko dozu ondantegija zeruban: eta erdu, jarraitu egidazu.

22. Entzunik barriz zaldunak berba au, juañ zan motz: zerren zan ondasun andijen jaubia.



23. Eta Jesusek esan eutsen bere jarraitzallai: Egijaz esaten deustubet, aberatsa nekez sartuko dala zerubetako erreinuban.

24. Eta geijago dirautsubet: Errazago da ganbelu bat jostorrazaren zulotik igarotia, aberats bat sartutia baño zerubetako erreinuban.

25. Entzunik barriz oneek, jarraitzallaak mirarrituten ziran asko, ziñuela: Nor bada salbau leiteke?

26. Eta begiraturik Jesusek, esan eutsen: Gizonak au ezin egin leije: baña Jaungoikuak guztijak egin leikez.

27. Orduban erantzunik Pedrok, esan eutsan: Orra nun guk itxi ditugu gauza guztijak, eta jarraitu deustugu: ze sari bada izango dogu?

28. Eta Jesusek esan eutsen: Egijaz dirautsubet, zubek, jarraitu deustazubenok, gizaldi barrijan jarten darian gizonaren Semia bere anditasuneko aulkijan, jarriko zarela zubek bere amabi jarlekuren ganian, juzgetako Israelgo amabi etxadijak.

29. Eta edozeñek, itxiten dabenak etxia, edo anaijaak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo emaztia, edo semiak, edo lurra nire izenagaitik, bakotxagaitik eun artuko dau, eta betiko bizitzian jaube izango da.

30. Askok barriz izango dira lelekuak azkenak, ta azkenak lelekuak.

OGEIGARREN KAPITULUBA

Mastiko langillen irudija. Jesusek aurrez berba egiten dau bere pasiñoiaren ganian. Jerikoko itxu bijak.

1. Zerubetako erreinuba da gizon etxeko jaun baten irudikua, zeñek urten eban goxian gox artutera langillaak bere mastirako.

2. Eta gelditurik alogerekuakaz emoteko eguneko diruba, bialdu zituzan bere mastira.

3. Eta urtenik bederatzijetaruntz, ikusi zituzan beste batzuk egozala plazan alperrik.

4. Eta esan eutsen: Zuaze zubek bere nire mastira, eta jaotsubena emongo deustubet.

5. Eurak barriz jua ziran. Ostera bere barriz urten eban egüerdiruntz, eta iruretaruntz, eta bardin egin eban.

6. Eta urten eban arratsaldeko bostetaruntz, eta aurkitu zituzan beste batzuk an egozala, ta esan eutsen: Zergaitik zagoze emen egun guztijan alperrik?

7. Esaten deutse: Iñok ez gaituzalako eruan alogerian. Dirautse: Zuaze zubek bere neure mastira.

8. Gaba egin zanian bada, esaten deutsa maastijaren jaubiak bere otsein nagusijari: Deitu egijezu langillai, eta emon egijezu alogera, asirik azkenengüetatik lelengüetaragiño.

9. Etorri ziranian bada arratsaldeko bostetaruntz etorri ziranak, artu zitubezan bakotxak diru bana.

10. Etorririk bada lelekuak bere, uste izan eban geijago artuko ebela: artu eban barriz eurak bere diru batna.

11. Eta artuten ebela txarto esaten eban etxeko jauna gaitik,

12. Ziñuela: Oneek azkenenguk ordu batian egin eban, eta eurakaz bardin egin gaituzu, eruan dogunok egunaren ta beruaren pisuba.

13. Baña berak erantzunik eurretari bati, esan eutsan: Adiskidia, ez deustut egiten bidebagatasunik: ez al ziñan gelditu neugaz diru batian?

14. Artu egizu zeuria dana, ta zuaz: gura dot oni azkenengo oni bere emon zuri beste.

15. Edo ez al daiket nik gura dodana, egin? Zure begija gaistua al da, ni ona nazalako?

16. Alan izango dira azkenenguk lelekuak, eta lelekuak azkenengo. Zerren asko dira deitubak, barriz gitxi autubak.

17. Eta igoten ebala Jesusek Jerusalem, artu zituzan amabi jarraitzallaak ixillian, ta esan eutsen:

18. Orra nun igoten dogun Jerusalem, eta gizonaren Semia izango jake saldua sazerdoteen nagusijai, ta Eskribaai, eta emongo deutse ilteko epaija.

19. Eta emongo deutse jentillai destañak egin dagijuezan, eta azotau, eta kurutzian josi, eta irugarren egunian biztuko da.

20. Orduban eldu zan beragana Zebedeoren semeen ama bere semiakaz, adoretan ebala eta eskatuten eutsala zerbait berari.

21. Berak esan eutsan: Zer gura dozu? Esan eutsan: Esan egizu neure seme bi oneek jarri ditezela, bata zeure eskumako aldian, ta bestia ezkerreko aldian zeure erreinuban.

22. Erantzunik barriz Jesusek esan eban: Ez dakizube zer eskatuten dozuben. Edan bai al ziñaije, neuk edango dodan kalizia? Esaten deutse: Bagiañaike.

23. Esan eutsen: Edango dozube egijaz nire kalizia: baña jartia nire eskumako aldian, edo ezkerrekuan ez jaot niri zubei emotia, ezipada nire Aitak prestau deustena.

24. Eta entzunik amarrak, aserratu ziran anaija bijakaz.



25. Jesusek barriz deitu eutsen beragana, eta esan eutsen: Badakizube erreinubetako agintaririk menpian eukiten ditubezala eurak: eta nagu-sijaguak diranak, eskubidiagaz aginduten deutsela eurai.

26. Ez da izango alan zuben artian: ezpada zuben artian andijago iza-tia gura daben edozein, izan bedi zuben otseina:

27. Eta gura dabena zuben artian lelengua izan, izango da zuben ser-bitzarija.

28. Gizonaren Semia ez zan legez etorri otseiñak eukitera, ezpada otsein izatera, eta emotera bere bizitzia askoren arimen erospenerako.

29. Eta urteten ebela eurak Jerikotik, jarraitu eutsan jendedi askok,

30. Eta orra nun itxu bik jarririk egozanak bidiaren onduan, entzun eben Jesus igaroten zala: eta diadar egin eben, ziñuela: Jauna, Dabiden Semia, errukitu zaitte gugaz.

31. Jendedijak barriz agiraka egiten eutsen ixildu zitezen. Baña eurak diadar andijaguak egiten zitubezan, ziñuela: Jauna, Dabiden Semia, erru-kitu zaitte gugaz.

32. Eta gelditu zan Jesus, eta deitu eutsen, eta esan eutsen: Zer gura dozube egin dagizubedan?

33. Dirautse eurak: Jauna, idigijak izan ditezela gure begijak.

34. Errukiturik barriz eurakaz Jesus, ukutu eutsen euren begijai. Eta beriala ikusi eben, eta jarraitu eutsen berari.

OGETA BAT GARREN KAPITULUBA

*Jesusen sarrerria Jerusalemen. Botaten ditu Elexatik saltzallaak.
Ze eskubideguz egiten dituzan bere miraririk. Seme biren, maasti-
zañen, ta etxeburuko arrijaren irudijak.*

1. Eta urreratu ziranian Jerusalem, eta eldu ziranian Betfajera Oli-beteko mendira: orduban Jesusek bialdu zituzan jarraitzalla bi,

2. Esaten eutsela: Zuaze zeuben aurrian daguan errira, eta beriala aurkituko dozube astaeme bat loturik, eta umia beragaz: askatu egizube, eta ekarri egidazube neuri:

3. Eta baldin iñok ezer esaten badeutsube, esan egjjozube Jaunak euren premiñia daukala: eta beriala itxiko ditu.

4. Au guztijau barriz egin zan, bete zedin Igarliak esan ebana ziñua-nian:

5. Esan egjjezube Siongo alabari: Orra nun zure Erregia jatortzun otsana, jarririk astaemiaren ganian, eta ume bat buztarripien daguanaren semia.

6. Juanik barriz ikaslaak egin eben Jesusek eurai agindu eutsen legez.

7. Eta ekarri zitubezan astaemia, ta umia: eta imiñi zitubezan oneen ganian euren soñekuak, eta berari ganian jarri eragin eutsen.

8. Jendedi andi batek barriz zabalduen zituzan bere soñekuak bidian: eta beste batzuk ebagiten zitubezan aretxen arramaak, eta zabalduen zitubezan bidian:

9. Barriz aurretik juazan ta ostetik jarraituten eutsen jente aldraak, diadar egiten eben, ziñuela: Hosanna Dabiden semiari: bedeinkatuba datorrena Jaunaren izenian: Hosanna goi goijetan.

10. Eta sartu zanian Jerusalem, uri guztija jarri zan itantzen, ziñua-la: Zein da au?

11. Errijak barriz ziñuen: Au da Jesus igarlia Nazaret Galileakua.

12. Eta sartu zan Jesus Jaungoikuaren elexan, eta botaten zituzan ellexan salduten eta erosten egozan guztijak, eta jaurtigi zituzan diru trukalarijen maijak, eta saltzallen jarlekubak.

13. Eta esaten deutse: Eskribidurik dago: Nire etxia erreguko etxia izango da deituba: zube barriz egin dozube lapurren kobaua.

14. Eta etorri ziran beragana itxubak, eta errenak elexan: eta osatu zituzan.

15. Ikusirik barriz Sazerdoteen Nagusijak, eta Eskribak egin zituzan miraririk, eta umiak ziardubela diadarrez elexan eta ziñuela: Hosanna Dabiden semiari: aserre andi bat artu eben,

16. Eta esan eutsen: Entzuten dozu zer esaten daben oneek? Jesusek barriz esan eutsen: Bai. Ez dozube iñoz irakurri: Umeen, eta ugatzeta-kuen aotik atera zendubala alabantza osua?

17. Eta itxirik areek, juan zan kanpora uritik Betanijara: eta an egon zan.

18. Eta goixian biurturik urira, gose izan zan.

19. Eta ikusirik piko ondo bat bidiaren albu, urreratu zan beragana: eta ez eban ezer aurkitu beragan ezpada orrijak bakarrik, eta esan eutsan: Ez dok sekula geijago pikorik izango. Eta igartu zan beriala piko ondua.

20. Eta ikusirik ikaslaak, miraritu ziran, ziñuela: Zelan beriala sikatu da?

21. Erantzunik barriz Jesusek, esan eutsen: Egijaz esaten deusubet, baldin bazenduke fedia, eta eukiko ez bazendube ezbaierik, ez bakarrik



gingo dozube pikuarena, baita bere esango bazeunskijue mendi oni: Alde egik, eta bota adi itxasora, egiña izango da.

22. Eta eskatuten dozuben edozein gauza erreguban sinistuten dozubela, artuko dozube.

23. Eta etorririk elexara, eldu ziran beragana erakusten eguala sazerdoteen Nagusijak, eta erriko zaarrak, ziñuela: Ze eskubidegaz egiten dituzu oneek? Eta nok emon deutsu zuri eskubide au?

24. Erantzunik Jesusek esan eutsen: Neuk bere itanduko deustubet berba bat: baldin au esaten badeustazube, neuk bere esango deustubet ze eskubidegaz egiten ditudazan oneek.

25. Juanen bautismua nundikua zan? Zerutikua, ala gizonetatikua? Eta eurak gogoratuten eben euren artian, ziñuela:

26. Baldin esango bagendu, zerutikua, esango deusku: Zergaitik bada ez zeuntzen sinistu berari? Baldin barriz esango bagendu, gizonetatikua, jendedijaren bildur gara: zerren guztijak euken Juan igarlia legez.

27. Eta erantzunik Jesusi, esan eben: Ez dakigu. Esan eutsen berak bere: Neuk bere ez deustubet esaten ze eskubidegaz egiten ditudazan oneek.

28. Zer barriz deritxazube: Gizon batek eukazan seme bi, eta eldurik lelunguagana, esan eutsan: Semia, zuaz gaur, biar egizu neure maastijan.

29. Berak barriz erantzunik, esan eutsan: Ez dot nai. Gero barriz damaturik, jua zan.

30. Eldurik barriz bestiagana, bardin esan eutsan. Eta berak erantzunik, esan eutsan: Banua, Jauna, eta ez zan jua.

31. Bijetatik zeñek egin eban aitaren borondatia? Eurak esaten deuste: Lelenguak. Esaten deuste Jesusek: Egijaz esaten deustubet, Publikanuak, eta emakume galdubak juango dirala zuben aurretik Jaungoikuaren erreinura.

32. Zerren etorri zan zubekgana Juan zuzentasuneko bidian, eta ez zeuntzen sinistu. Publikanuak barriz, eta emakume galdubak sinistu eutsen: zubek barriz ikusirik bera ez zenduben egin penitenzijarik bere gero, sinistuteko berari.

33. Beste irudi bat entzun egizube: Bazan gizon Etxekojaun bat, zeñek imiñi eban maastija, eta esi batez inguratu eban eta atxurturik egin eban bertan dolara bat, eta jaso eban torre bat, eta emon eutsen errentan nekazarijai, eta urrin jua zan.

34. Urreratu zanian bada maatsen denporia, bialdu zituzan bere otseiñak nekazarijak gana, artu egijezen aren maatsak.

35. Eta nekazarijak, atrapaurik bere otseiñak, bata zauritu eben, bata ill eben, batari barriz arrika egin eutsen.

36. Barriro bialdu zituzan beste otsein batzuk lelunguak baño geijago, eta bardin egin eutsen.

37. Azkenian barriz bialdu eban eurak gana bere semia, ziñuala: Lotsia gordeko deuste nire semiari.

38. Nekazarijak barriz, ikusirik semia, esan eben euren artian: Au da jaubegeija, erdube, ill daigun, eta eukiko dogu bere senipartia.

39. Eta eldurik berari bota eben maastitik kanpora, eta ill eben.

40. Datorrenian bada maastijaren Jauna, zer egingo dau nekazari areekaz?

41. Dirautse eurak: Dongaak dongaro galduko ditu: eta bere maastija emongo deuste errentan beste nekazari batzubei, pagauko deustenai frutuba euren denporetan.

42. Esaten deuste Jesusek: Ez dozube irakurri iñoz Eskrituretan: Etxegillaak bazterrera bota eben arrija, au izan da iminija kantoiaren buruban? Jaunak egin eban au, eta da miragarrija gure begijetan:

43. Orregaitik esaten deustubet, kenduba izango jatzubela Jaungoikuaren erreinuba, eta emona izango jakola bere frutubak egiten dituzan erreinubari.

44. Eta jausten dana arri onen ganera, izango da zatituba: eta berau barriz ganera jausten jakona, izango da puskatuba.

45. Eta entzunik sazerdoteen Nagusijak, eta Fariseoak bere irudijak, ezagutu eben eurak gaitik berba egiten ebal.

46. Eta billaturik zelan elduko eutsen, jendedijen bildur izan ziran: zerren euken bera igarlia legez.



OGETA BI GARREN KAPITULUBA

*Eztegien irudipena. Eztegetako soñekua. Jaungoikua ta Zesar.
Illen biztuera. Zein dan agindubetatik nagusijena ta lelengua.
Kristo Dabiden seme ta Jauna.*

1. Eta erantzunik Jesusek, barriro berba egin eutsen irudijetan, ziñu-
la:
2. Zerubetako erreinuba da gizon errege baten antzekua, egin eutsa-
zanarena eztegubak bere semiari:
3. Eta bialdu zituzan bere otseñak deituta konbidaubai eztegebe-
tara, eta ez eben etorri gura izan.
4. Barriro bialdu zituzan beste otsein batzuk, esanaz: Esan egijezube
konbidaubai: Orra emen neure bazkarija prestaurik daukat, neure zeze-
nak, eta abere gizendubak illik dagoz, guztija dago prestaurik: erdube
eztegetara.
5. Eurak barriz ez eutsen jaramonik egin: eta jua ziran, bata bere
solara, bestia barriz bere artuemonetara:
6. Enparaubak barriz eldu eutsen bere serbitzarijai, eta destañaz bete
ezkero ill zitubezan.
7. Erregeri barriz, entzun ebanian, aserratu jakon: eta bialdurik bere
soldautegijak, galdu zituzan eralla areek, eta euren urijari su emon eutsan.
8. Orduban esan eutsen bere otseñai: Eztegubak egijaz prestaurik
dagoz, baña konbidaurik egozanak, ez ziran duiñak.
9. Zuaze bada bideen urteeretara, eta aurkituten dituzuben guztijai,
dei egijezube eztegetara.
10. Eta urtenik bere otseñak bideetara, batu zitubezan aurkitu zitu-
bezan guztijak, dongaak eta onak: eta bete ziran eztegetako saletako
maijak konbidaduz.
11. Sartu zan barriz errege ikustera maijan jarririk egozanak, eta ikusi
eban an gizon bat ezteguko jantzijaz jantzi baga.
12. Eta esan eutsan: Adiskidia, zelan ona sartu zara euki bagarik ezte-
guko jantzija? Bera barriz mututu zan.
13. Orduban esan eutsen erregek serbitzarijai: Loturik bere eskubak,
eta oñak, bota egizube kanpoko illuntasunetara: an izango da negarra ta
agin karraskadia.
14. Zerren asko dira deitubak, eta gitxi autubak.
15. Orduban juanik Fariseoak, aditu ziran euren artean, atrapetako
bera berban.

16. Eta bialduten deutsez euren ikaslaak Herodestarrakin, ziñuela:
Irakaslia, badakigu egijatija zariala, eta Jaungoikuaren bidia erakusten
dozula egijan, eta ez deusula iñoren ardurarik: zerren ez dozu begiratu-
ten gizonetan nornor dan.

17. Esan egiguzu bada, zer deritxazu, ondo da zentsua emotia Zesa-
rri, ala ez?

18. Ezagaturik barriz Jesusek euren gaistakerija, esan eutsen: Zergai-
tik esesten deutzazube irudi utsez onak?

19. Erakutsi egidazube zentzoko diruba. Eta eurak eskiñi eutsen
zidarrezko diru bat.

20. Eta esan eutsen Jesusek: Norena da irudi au, eta ganian eskribi-
durik daguana?

21. Esaten deutse: Zesarrena. Orduban esan eutsen: Emon egijeju-
be bada Zesarri, Zesarrena, eta Jaungoikuari, Jaungoikuarena.

22. Eta entzunik miraritu ziran, eta itxirik bera jua ziran.

23. Egun atan eldu ziran beragana Sadduzeuak, zeintzuben diñuen ez
daguala biztuera barririk, eta itandu eutsen,

24. Ziñuela: Irakaslia, Moisesek esan eban: Baldin iñor ilgo balitz
euki baga semerik, ezkondu dedilla bere anaija aren emaztiagaz; eta biztu
begijo jatorrija bere anaijari.

25. Baziran bada gure artian zazpi anaija: eta lelengua, ezkondu ezke-
ro, ill zan: eta ez eukirik jatorririk, itxi eutsan bere emaztia bere anaijari.

26. Bardin bigarrena, eta irugarrena zazpigarneragiño.

27. Eta guztijen azkenian andria bere ill zan.

28. Biztuera barrijan bada zazpiretatik zeñena izango da emaztia?
zerren guztijak euki eben bera.

29. Erantzunik barriz Jesusek, esan eutsen: Uts egiten dozube ez jaki-
nik Eskriturak, ez Jaungoikuaren indarra.

30. Zerren biztuera barrijan ez dira ezkonduko, ez ezkontzeko emo-
nak izango: ezpada izango dira Jaungoikuaren Aingerubak zeruban legez.

31. Illen biztueriaren ganian barriz ez dozube irakurri Jaungoikuak
esan ebana esaten deusubela:

32. Ni naz Abrahamen Jaungoikua, eta Isaaken Jaungoikua, eta Jako-
ben Jaungoikua? Ez da illen Jaungoikua, ezpada bizijena.

33. Eta entzunik jendedijak, mirarituden ziran bere irakatsijan.

34. Fariseuak barriz entzunik ixildu eragin eutsela Sadduzeuai, egin
eben batzaarra:

35. Eta itandu eutsan euretariko batek Legetsubak, zirikatuten ebala:

36. Irakaslia, zein da agindu andija legian?



37. Esan eutsan Jesusek: Maitetuko dozu zeure Jaun Jaungoikua zeure bijotz guztitik, eta zeure arima guztijagaz, eta zeure gogo guztijagaz.
38. Au da agindubetan nagusijena ta lelengua.
39. Bigarrena barriz da onen antzekua: Maitetuko dozu zeure lagun urkua, zeu zeurori legez.
40. Agindu bi oneetan dago sarturik Lege guztija, ta Igarlaak.
41. Eta egozala baturik Fariseoak, itandu eutsen Jesusek,
42. Ziñuala: Zer deritxazube Kristo gaitik? zeñen semia da? Esaten deutse: Dabidena.
43. Esan eutsen: Zelan bada Dabidek espirituban deituten deutsa Jauna, diñuala:
44. Esan eutsan Jaunak nire Jaunari: jarri zaite nire eskumatatik, imiñi dagidazan artian zeure arerijuak zeure oñen aulkitzat.
45. Baldin bada Dabidek deituten badeutsa Jauna, zelan da bere semia?
46. Eta iñok ezin eutsan erantzun berbarik: eta ez zan azartu iñor egun atatik berari geijago itandutera.

OGETA IRU GARREN KAPITULUBA

Moisesen jartokijaren ganian dagozan Eskriba ta Fariseoak erakusten dituben gauza onak egin biar dirala, baña ez jarraitu euren ekandubai dongaak diranian. Euren ontasun irudi utsekua ta arrokerija. Jarkiten jake Jesus. Igarlen erijotzia. Jerusalemen ondamentija.

1. Orduban Jesusek berba egin eutsen jente aldraai, ta bere jarraitzaillai,
2. Zirautsela: Moisesen irakastokijaren ganian jarri ziran Eskribaak ta Fariseoak.
3. Esaten deustuben guztija bada, gorde egizube, ta egin: baña ez egizube egin euren egitadeen erara: zerren esaten dabe, ta ez egin.
4. Zerren lotuten ditube karga astunak ta eruan eziñak, ta iminten ditube gizonen bizkarretan: baña ez deutse nai zirkinik bere eragin euren atzamarragaz.
5. Euren egitada guztijak barriz egiten ditube gizonak ikusi dagije-zan: zerren darabillez narruzko ugal zabaletan nire legeko agindubak, edertuten ditube egalak.

6. Maite ditube barriz lelengo lekubak aparijetan, eta lelengo jartokijak Sinagogetan.
7. Eta agurrak egin dagijuezala plazan, eta Irakasleen izenagaz deitu dagijuela gizonak.
8. Zubek barriz ez egizube nai izan deitubak izatia Irakaslaak: zerren bat bakarra da zuben Irakaslia, zubek guztijok barriz anaiaak zare.
9. Eta ez egjizube deitu iñori zeuben aita lurraren ganian: zerren bat da zuben Aita, zerubetan daguana.
10. Eta ez egjizube alkarri deitu Irakaslaak: zerren bat da zuben Irakaslia, Kristo.
11. Zuben artian andijena dana, izango da zuben serbitzarija.
12. Zerren goratuten dana, izango da beeratuba: eta beeratuten dana, izango da goratuba.
13. Baña ai zuben errukarrijak Eskriba ta Fariseoak irudiz bakarrik onak: zerren itxiten dozube zerubetako erreinuba gizonen aurrian. Zerren zeubek ez zare sartuten, eta sartutera duazanai ez deutzazube itxiten sartuten.
14. Ai zuben errukarrijak, Eskriba ta Fariseo irudiz bakarrik onak: zerren jaten dituzube alargunen etxiak, errezu luziak errezaurik: augaitik artuko jatzubez kontu estubaguak!
15. Ai zuben errukarrijak Eskriba ta Fariseo irudiz bakarrik onak: zerren inguratuten dozube itxasua, ta lurra, zeuben legera norbait ekarteko: eta ekarri dagizubengan, egiten dozube infernubaren seme zeubek baño birritan geijago.
16. Ai zuben errukarrijak, zuzentzalla itxubak, esaten dozubenak: Juramentu egiten daben guztijak tenplubagaitik, ez da ezer: baña juramentu egiten dabenak tenpluko urriagaitik, zor dau.
17. Eruak, ta itxubak! Zerren zer da andijago, urria, ala tenpluba, urria santututen dabena?
18. Eta altariagaitik juramentu egingo baleu edozeñek, ez da ezer: baña altariaren ganian dagan eskintsarijagaitik juramentu egingo baleu edozeñek zor dau.
19. Itxubak! Zer da barriz andijago, eskintsarija, ala altaria, santututen dabena eskintsarija?
20. Juramentu egiten dabenak bada altariagaitik, juramentu egiten dau beragaitik, eta bere ganian dagan guztija gaitik.
21. Eta juramentu egiten daben edozeñek elexiagaitik, juramentu egiten dau beragaitik, eta bertan bizi danagaitik:



22. Eta juramentu egiten dabenak zerubagaitik, juramentu egiten da Jaungoikuaren jartokijagaitik, eta bere ganian jarten dana gaitik.

23. Ai zuben errukarriak Eskriba ta Fariseo irudiz bakarrik onak, egiten dozubenak amarrena mendatik, millutik, eta kominotik, eta itxi dituzube legiaren gauza astunaguak diranak, zuzentasuna, eta errukija, eta fedia. Oneek biar ziran egin, eta areek ez itxi egin baga.

24. Zuzentzalla itxubak, iraziten dozubenak eltxua, ganbeluba barriz iruntzi.

25. Ai zuben errukarriak Eskriba ta Fariseo irudiz bakarrik onak, garbituten dituzubenak ontzizak ta platerak kanpotik, barruban barriz zagoze lapurretaz ta loikerijaz beterik.

26. Fariseo itxuba, garbitu egik lelengo ontzizaren ta plateraren barruba, garbitua izan jadin kanpotik daguana.

27. Ai zuben errukarriak Eskriba ta Fariseo irudiz bakarrik onak, zerren zare obi zurituben antzekuak, zeintzube kanpotik begitanduten jakez gizonai ederrak, barrutik barriz dagoz illen azurrez ta zikinkerija guztijaz beterik.

28. Alan zube bere kanpotik egijaz agertuten zatxakez gizonai onak: barruban barriz zagoze guzurrez ta gaistakerijaz beterik.

29. Ai zuben errukarriak Eskriba ta Fariseo irudiz bakarrik onak, zeintzube egiten dituzuben igarlen objiak, eta apainduten dituzuben oneen egitaden gomutagarriak,

30. Eta diñozube: Baldin izan bagiña geure gurasuen egunetan, ez giñan izango euren lagunak igarleen odolian.

31. Eta alan emoten dozube agirija zeuben zeuroen gatxian, zareela, igarlaak ill zitubezanan semiak.

32. Eta zube bete egizube zeuben gurasoen neurrija.

33. Sierpiak, ziraun kastaak, zelan iges egingo deutzazube infernura-ko epaijari?

34. Orregaitik orra nun nik bialduten ditudazan zube gana igarlaak, eta jakitunak, eta erakuslaak, eta euretatik ilgo dituzube, eta kurutzian josiko dituzube, eta euretatik azotauko dituzube zeuben sinagogetan, eta persegiduko dituzube uritik uri:

35. Etorri dedin zuben ganera odol errubagako guztija, izan zana isurija lurraren ganian, Abel errubagiaren odoletik, Zakarias Barakiasen semiaren odolera giño, zein ill zenduben elxiaren eta altariaren artian.

36. Egijaz dirautsubet, etorriko dirala oneek guztijok gizaldi onen ganera.

37. Jerusalem, Jerusalem, ilten dituzuna igarlaak, eta arrika egiten deutzazuna zeugana bialdubak diranai, zenbat bidar gura izan neban batu zure semiak, olluak batuten dituzan legez bere txitaak egoen azpijan, eta ez zenduban gura izan?

38. Orra nun geldituko jatsube zeuben etxia iñor baga.

39. Zerren esaten deutzubet, ez nozubela ikusiko oraindexek, esan dagizuben artian: Bedeinkatuba, datorrena Jaunaren izenian.

OGETA LAUGARREN KAPITULUBA

Zelan izango dan Jerusalem desegña. Zetatik ezagutuko dan desegitera doiala. Zer igaroko dan lurrian Ebanjelijua prediketandanetik mundubaren azkeneraño. Zer egin biar daben guzurrezko Kristuak engañau ez dagjezan. Zur ta kontuban egoteko, uste baga etorri ez dedin Jesus bigarren aldijan.

1. Eta urtenik Jesusek elextatik, bajoian. Eta urreratu jakozan bere jarraitzallaak, erakusteko berari ze andi ta ederra zan elexia.

2. Berak barriz erantzunik esan eutsen: Badakutsubez oneek guztijok? Egijaz esaten deutzubet, ez dala geldituko emen arririk arrijaren ganian, botia izango ez danik.

3. Eguala barriz bera jarririk Olibeteko mendijaren ganian, eldu ziran beragana jarraitzallaak ixillian, ziñuela: Esan egiguzu, noiz izango dira oneek? Eta zer izango da zure etorreraren, ta mundubaren amaijaren eza-gungarrija?

4. Eta erantzunik Jesusek esan eutsen: Begira ez zagijezala iñok engañau.

5. Zerren asko etorriko dira nire izenian diñuela: Ni naz Kristo: eta asko engañauko ditube.

6. Zerren entzungo dituzube gerraak, eta gerren otsak. Begira ez zaitzela ikaratu. Zerren oneek egiñak izan biar dabe, baña oraindik ez da azkena.

7. Zerren jagiko da jentia jentiaen kontra, eta erreinuba erreinubaren kontra, eta izango dira izurrijak, eta gosiak, eta luikaraak lekubetatik.

8. Oneck guztijok barriz miñen asierak dira.

9. Orduban emongo zaitube naibagetuak izateko, eta illgo zaitube: eta jente guztijak gorroto izango deutzube nire izena gaitik.



10. Eta orduban gatxerako bidia artuko dau askok, eta alkar salduko dabe, eta alkarri gorroto izango deutse.
11. Eta guzurrezko igarla asko jagiko dira, eta engañauko ditube asko.
12. Eta ugarituko dalako gaistakerija, otzituko da askoren karidadia.
13. Barriz irauten dabena azkenera giño, au izango da salbaüa.
14. Eta predikaduba izango da erreinuko ebanjelijo au mundu guztijan, jente guztijen ezagungarritzat: eta orduban etorriko da amaija.
15. Ikusten dozubenian bada ondamedijaren igüüña, Daniel igarliak esana, daguala leku santuban, irakurten dabena, aditu dagijala:
16. Orduban Judean dagozanak, iges egin dagijela mendijetara:
17. Eta tellatuan daguana, ez bedi jatzi artutera zerbait bere etxetik:
18. Eta kanpuan daguana, ez bedi biurtu artutera bere tunikia.
19. Baña ai seindun dagozanen, ta seña aziten daukenen errukarriak egun areetan!
20. Erregutu egizube bada, jazo ez dedin zuben igesa neguban, edo zapatuban.
21. Zerren izango da orduban naibage andija, zelakua izan ez dan mundubaren asieratik orain artian, ta izango bere ez dan.
22. Eta laburtubak izango ez balira egun areek, ez litzateke iñor salbauko: baña autubak gaitik laburtubak izango dira egun areek.
23. Orduban baldin iñok esango baleutsube: Begira, emen dago Kristo, edo an: ez egijozube sinistu.
24. Zerren jagiko dira guzurrezko kristuak, eta guzurrezko igarlaak: eta egingo ditube ezagungarri andijak, eta mirarijak, allagiña ze siniste txarrera ekarriko litukez (baldin al balitz) autubak bere.
25. Begira aurrez esan deustubedala.
26. Baldin bada esango baleutsube: Orra nun eremuban dago, ez egizube urten: orra nun etxeko lekuri ezkutubenetan, ez egijezube sinistu.
27. Zerren oñaztubak urtetan dabena legez eguzkijaren Urteeratik, eta ikusten dan sarrerarañotik: alan izango da gizonaren semiaren etorreria bere.
28. Nunnai daguala gorputza, an batuko dira arranuak bere.
29. Beriala barriz egun areetako naibagiaren ondorik Eguzkija illunduko da, eta Illargijak ez dau emongo bere argija, eta izarrak jausiko dira zerutik, eta zerubetako birtutiak zirkin egingo dabe.
30. Eta orduban agertuko da gizonaren Semiaren ezagungarrija zeruban: eta orduban negar egingo dabe lurreko etxadi guztijak, eta ikusiko dabe gizonaren Semia datorrela zeruko odejetan eskubide askogaz, ta anditasunagaz.

31. Eta bialduko ditu bere Aingerubak tronpetiagaz ta boz andijagaz: eta batuko ditube bere autubak lau axeetatik, zeruben güenetatik euren barrenengo amaijetaraño.
32. Jako aretxetik barriz ikasi egizube bardinkuntzia: bere erramia ija samurra daguanean, eta orrijak urtenak, badakizube urrian dala udia:
33. Alan zubek bere ikusten dituzubenian oneek guztijok, jakin egizube urrian dala atetan.
34. Egijaz dirautsubet, ez dala igaroko giza aldi au, oneek guztijok jazo ditezen artian.
35. Zeruba ta lurra igaroko dira, nire berbaak barriz ez dira igaroko.
36. Egun ta ordu aren barririk barriz iñok ez daki, ez da zerubetako Aingerubak bere, ezpada bakarrik Aitak.
37. Noeren egunetan legez barriz, alan izango da gizonaren Semiaren etorreria bere.
38. Zerren ujolia baño lenagoko egunetan egozan legez jaten ta edaten, ezkontuten ta ezkontzarako emoten, Noe utxan sartu zan egun ataragiño,
39. Eta ez eben ezagutu etorri zan artian ujolia, ta eruan guztijak: alan izango da gizonaren Semiaren etorreria bere.
40. Orduban bi egongo dira kanpuan: bata izango da artuba, eta bestia itxija.
41. Emakume bik jardungo dabe eijoten errotan: bata izango da artuba, eta bestia itxija.
42. Zagoze bada iratzarririk, zerren ez dakizube ze ordutan zeuben Jauna etorriko dan.
43. Jakin egizube bada au, baldin baleki Etxekojaunak ze ordutan lapurra etorriko dan, iratzarririk egongo litzateke egijaz, eta ez leuke itxiko zulatuten bere etxia.
44. Orregaitik zubek bere egon zaiteze pretaurik, zerren ez dakizuben orduban gizonaren semia etorriko da.
45. Zein, uste dozu, dala otsein leijal, ta zurra, bere jaunak bere familiaren ganian imiñi ebana, emoteko eurai jaten denporaz?
46. Zorijonekua otsein a, bere jaunak, datorrenian, aurkituten dabena, alan egiten dabela.
47. Egijaz dirautsubet, imiñiko dabela bere onera guztijen ganetik.
48. Eta baldin esango baleu otsein gaisto arek bere bijotzian: Nire jaunari belututen jako etortia:
49. Eta asiko balitz jotzen bere otsein lagunak, jaaten barriz, ta edaten ordijakaz:



50. Etorriko da otsein aren jauna, itxaroten ez daben egunian, eta ez dakijan orduban:

51. Eta kenduko dau, eta imiñiko dau partill eginik otsein gaistuakaz. An izango da negarra, ta agin karraskadia.

OGETA BOSTGARREN KAPITULUBA

Amar birjiñen irudipena. Diruen irudipena. Azkenengo juizijua.

1. Orduban zerubetako erreinuba izango da, amar birjiñen antzekua, zeintzube arturik euren argiontzijak urten eutseen bidera Ezkonbarrijai.

2. Euretatik bost barriz ziran eruak, eta bost zurrak.

3. Baña bost eruak, arturik argiontzijak, ez eben eruan orijorik eurakaz.

4. Zurrak barriz artu eben orijua euren ontzijetan argiontzijakaz.

5. Luzaturik barriz Ezkonbarrijaren etorreria, loguratu ziran guztijak eta luak artu zituzan.

6. Gabaren erdijan barriz entzun zan diadar bat: Orra nun Ezkonbarrija datorren, urten egjezube bidera.

7. Orduban jagi ziran birjiña guzti areek, eta prestau zitubezan euren lanparak.

8. Eruak barriz zurrai esan eutsen: Emon egiguzube zeuben orijotik, zerren gure lanparaak amatetan dira.

9. Erantzun eben zurrak ziñuela: Badezpadan asko izan ez dedin guretzat, ta zubentzat, oba da jua zaitezela saltzallaak gana, ta erostia zeubentzat.

10. Erosten ziran artian barriz, etorri zan Ezkonbarrija: eta prestau ta egozanak, sartu ziran beragaz eztegetetara, eta itxi zan atia.

11. Azkenik bada badatoz beste neskatillak bere ziñuela: Jauna, Jauna, idigi egiguzu.

12. Barriz berak erantzunik, esan eutsen: Egijaz dirautsubet, ez zaitubedaz ezagututen.

13. Iratzarririk egon bada, zerren ez dakizube eguna, ez orduba.

14. Zerren zelan gizon batek urriñera doianak, deitu eutsen bere serbitzarrijai, eta emon eutsezan bere ondasunak.

15. Eta batari emon eutsazan bost talentu, bestiari barriz bi, eta bestiari bat, bakotxari bere indarraren erara, eta jua zan beriala.

16. Jua zan bada bost talentu artu zituzana, eta jardun eban artue-monian eurakaz, eta irabazi zituzan beste bost.

17. Bardin bi artu zituzanak bere, irabazi zituzan beste bi.

18. Bat artu ebanak barriz, jua egin eban zulo bat lurrian, eta ezku-tau eban bere jaunaren diruba.

19. Igarorik barriz denpora asko etorri zan otsein areen jauna, eta artu eutsezan kontubak.

20. Eta etorririk bost talentu artu zituzana, eskiñi eutsazan beste bost talentu, ziñuela: Jauna, bost talentu emon zeustazan, orra emen beste bost irabazi dituzanak arez ganetik.

21. Esan eutsan bere Jaunak: Ederto, otsein on ta leijala, gitxijan leijala izan zarialako, imiñiko zaitut askoren ganian, sartu zaite zeure Jaunaren atsegiñian.

22. Eta eldu zan talentu bi artu zituzana bere, eta esan eban: Jauna, talentu bi emon zeustazan niri, orra emen beste bi irabazi dituduzanak.

23. Esan eutsan bere Jaunak: Ondo dago, otsein on ta leijala, gitxijan leijala izan zarialako, imiñiko zaitudaz askoren ganian, sartu zaite zeure Jaunaren atsegiñian.

24. Eldurik barriz talentu bat artu ebana bere, esan eban: Jauna, badakit gizon gogorra zariala, ebagiten dozu erein ez zenduban lekuban, eta batuten dozula zabaldu ez zenduban lekuban:

25. Eta bildur izanik jua nintzan, eta ezkutau neban talentuba lurrian: orra emen nun daukazun zeuria dana.

26. Erantzunik barriz bere Jaunak, esan eutsan: Otsein gaistua ta nagija, baenkijan ebagiten juadala ereiten ez juadan lekuban, eta batuten juadala zabaldu ez juadan lekuban:

27. Biar eñan bada imiñi nire diruba irabazijan, eta etorririk ni artuko najuan egijaz neuria duana geituta.

28. Kendu egjezube bada berari talentuba, eta emon egjezube amar talentu daukazanari:

29. Zerren daukan guztijari emongo jako, eta eukiko dau ugarijago: barriz, ez daukanari, daukala dirudijana bere, kenduko jako.

30. Eta otsein alperra bota egizube kanpoko illuntasunetara: an izango da negarra ta aginen karraskadia.

31. Datorrenian barriz gizonaren semia bere anditasunian, eta Aingeru guztijak beragaz, orduban jarriko da bere anditasunaren jarlekuban:

32. Eta batubak izango dira bere aurrian jente guztijak, eta aldenduko ditu alkargandik, artzañak aldenduten dituzan lege ardiak aumeetatik:

33. Eta imiñiko ditu ardiak bere eskumatatik, aumiak barriz ezkerretatik.



34. Orduban esango deutse erregek bere eskumatatik egongo diranai: Erdube neure aitaren bedeinkatubok, gozau egizube mundubaren asieratik zubentzat prestaurik daguan erreinuba:

35. Zerren gose izan nintzan, ta emon zeusten jaten: egarri izan nintzan, ta emon zeusten edaten: bidastija nintzan, ta artu ninduzuben ostatu:

36. Billosik, ta estaldu ninduzuben: geixorik, ta bisitau ninduzuben: presondegijan nenguan, ta etorri ziñen nigana.

37. Orduban erantzungo deutse justubak, diñuela: Jauna, noiz ikusi zinduguzan gosez, ta jaten emon geuntzun: egarriz, ta emon geuntzun edarija?

38. Noiz barriz ikusi zinduguzan arrotz, ta artu zinduguzan ostatuz: edo billosik, eta estaldu zinduguzan?

39. Edo noiz ikusi zinduguzan geixorik, edo presondegijan, eta etorri giñan zugana?

40. Eta erantzunik erregek, esango deutse: Egijaz esaten deustubet, egin zeuntzenian neure anaija txiki oneetatik bati, neuri egin zeusten.

41. Orduban esango deutse ezkerretatik egongo diranai bere: Alde egizube nigandik madarikatubok betiko sutara, prestaurik daganera diaruarentzat, ta bere Aingerubentzat.

42. Zerren gose izan nintzan, eta ez zeusten emon jaten: egarri izan nintzan, ta ez zeusten emon edaten:

43. Bidastija nintzan, ta ez zeusten emon ostatuba: billosik nenguan, ta ez ninduzuben estaldu: geixorik, ta presondegijan, ta ez ninduzuben bisitau.

44. Orduban erantzungo deutse eurak bere diñuela: Jauna, noiz ikusi zinduguzan gosez, edo egarriz, edo bidastiz, edo billosik, edo presondegijan, eta ez geuntzun lagundu?

45. Orduban erantzungo deutse, esanaz: Egijaz esaten deustubet: ez zeuntzenian egin txikitxu oneetatik bati, niri bere ez zeusten egin.

46. Eta juango dira oneek betiko peneetara; justubak barriz betiko bizitzara.

OGETA SEIGARREN KAPITULUBA

Jesukristoren azkenengø Paskua. Judeguben batzaarra Jesus ilteko. Azkenengø aparija. Salduten dau Judasek. Fundetan dau altarako Sakramentu Santuba. Jeteamaniko erreguba Aitari. Atrapetan

dabe ta darue Kaifasen aurrera. Ukatuten dau Pedrok. Onen damu ta negarrak.

1. Eta jazo zan amaitu ezkerø Jesusek berbaldi guzti oneek, esan eutsen bere jarraitzallaai:

2. Badakizube egun bi barru izango dala Paskua, eta gizonaren semia izango da salduba, kurutzian josija izateko.

3. Orduban batu ziran sazerdoteen nagusijak, eta erriko zaarrak, sazerdoteen nagusijaren, Kaifas eritxanaren, ataijan:

4. Eta batzaarra egin eben atrapetako Jesus marroz, eta ill eragiteko.

5. Ziñuen barriz: Jai egunian ez, jagi ez dedin matxinadaren bat errijan.

6. Eguala barriz Jesus Betanijan Simon legentijaren etxian,

7. Eldu zan beragana emakume bat eukala alabastrozko ontzi bat ujentu balijozkoz betia, eta isuri eban bere burubaren ganian egoala maijan jarririk.

8. Ikusirik barriz jarraitzallaak, aserratu jaken ziñuela: Zetarako alperrik galdu au?

9. Zerren saldu zatekian au karu, eta emon eskekuai.

10. Jakinik barriz Jesusek, esan eutsen: Zergaitik zare gogaikarrijak emakume onentzat? zerren egite ona egin dau nigan.

11. Zerren beti daukazubez eskekuak zeubekaz: ni barriz ez naukazube beti.

12. Zerren isuririk onek ujentu au nire gorputzian, ni obituteko egin dau.

13. Egijaz esaten deustubet, edonun Ebanjelijo au predikauba dan mundu guztijan, esango da bere onek egin dabena, bere gomutarako.

14. Orduban juan zan amabijetatik bat, Judas Iskariote eritxana, sazerdoteen nagusijak gana:

15. Eta esan eutsen: Zer gura deustazube nire emon, eta neuk iminiko dot zuben eskubetan? Eta eurak eskiñi eutsezan ogeta amar diru zidarrezko.

16. Eta ordutik billatuten eban eria iminteko bera areen eskubetan.

17. Azimoen lelengo egunian barriz eldu ziran jarraitzallaak Jesus gana, ziñuela: Nun gura dozu prestau daizugun Paskua jateko?

18. Eta Jesusek esan eutsen: Zuaze urira urlijagana, eta esan egijozube: Irakasliak diño: Nire denporia urrian da, zeure etxian egiten dot Paskua neure ikaslakaz.



19. Eta egin eben ikaslaak Jesusek agindu eutsen legez, eta prestau eben Paskua.
20. Etorririk barriz arratsia, eguan maijan jarririk bere amabi ikasla-kaz.
21. Eta jaten ziardubela eurak, esan eban: Egijaz dirautsubet, zubeta-tik batek salduko nabela.
22. Eta eurak naibage andi batez beterik, asi zan bakotxa esaten: Ni ete naz Jauna?
23. Eta berak erantzunik esan eban: Sartuten dabenak nigaz eskuba platerian, onek salduko nau.
24. Gizonaren semia badua egijaz, beragaitik eskribiduta daguan legez: baña ai errukarrija gizon arena, zeñen bidez salduba izango dan gizonaren Semia: oba zan beretzat, baldin jaijo ez balitz gizon á.
25. Erantzunik barriz Judasek, saldu ebanak, esan eban: Ni al naz Ira-kaslia? Erantzun eutsan: Zeuk esan dozu.
26. Apaltzen ziardubela barriz eurak, artu eban Jesusek ogija, eta bedeinkatu eban, eta ebagi, eta emon eutsen bere jarraitzallai, eta esan eutsen: Artu egizube, eta jan egizube: au da nire gorputza.
27. Eta arturik kalizia eskerrak emon zituzan: eta emon eutsen, esa-naz: Edan egizube onetatik guztijok.
28. Zerren au da nire odola testamentu barrikua, askogaitik isurija izango dana pekatuben parkaziñorako.
29. Esaten deusubet barriz: ez dodala edango gaurtik geijago maa-tsaren frutu onetatik arako egun atara artian, edan dagidanian zubekaz barrija neure Aitaren erreinuban.
30. Eta eskerrak emonik, urten eben Olibeteko mendiruntz.
31. Orduban esan eutsen Jesusek: Zubek guztijok gatxerako bidia artuko dozube nigan, gau onetan. Zerren eskribidurik dago: Zaurituko dot artzaña, eta egabanatuko dira artaldiko ardijak.
32. Barriz barriro biztu ezkerro, juango naz zuben aurretik Galileara.
33. Erantzunik barriz Pedrok, esan eutsan: Baldin guztijak gatxerako bidia artuten badabe bere zukan, nik ez dot iñoz gatxerako biderik artuko.
34. Esan eutsan Jesusek: Egijaz esaten deusut, gau onetan ollarrak jo baño lenago, iru bidar ukatuko nozula.
35. Esan eutsan Pedrok: Zugaz ill biar baneu bere, ez zaitut ukatuko. Bardin esan eben beste ikasla guztijak bere.
36. Orduban etorri zan Jesus eurakaz Jetsemani deritxan barruti batera, eta esan eutsen bere ikaslaai: Jarri zaitze emen jua naitian artian ara ta erregu egin dagidan arte.

37. Eta arturik Pedro ta Zebedeoren seme bijak, asi zan atsakabetu eta larrituten.
38. Orduban esan eutsen: Estu dago nire arimia ill arteraño: itxaron egizube emen, eta egizube gaubela neugaz.
39. Eta juanik aurreratxua, auzpaztu zan, erregututen ebala, ta ziñuala: Aita neuria, baldin al bada, igaro bedi nigandik kaliza au. Baña ez nik gura dodan legez, ezpada zuk legez.
40. Eta etorri zan bere ikaslaak gana, eta aurkitu zituzan lotan ego-zala, eta dirautsa Pedrori: Beraz ezin egon izan zare ordu batian gaubelan neugaz?
41. Zagoze iratzarririk, eta erregu egizube sartu ez zaitzen tentazi-noian. Espirituba egijaz prest dago, aragija barriz argala.
42. Barriro bigarrenez juan zan, eta erregu egin eban, ziñuala: Aita neuria, baldin ezin bada kaliz au igaro nik edan бага, egin bedi zure borondatia.
43. Eta etorri zan ostera, eta aurkitu zituzan lotan egozala: zerren euren begijak egozan astunak.
44. Eta itxirik eurak, barriro juan zan, eta erregu egin eban irugarrenez, leengo berbaak eurak esaten zituzala.
45. Orduban etorri zan bere ikaslaetara, eta esan eutsen: Lo egizube onezkerro, eta atsedan egizube: orra nun urreratu dan orduba, eta gizonaren Semia izango da imiñija pekatarijen eskubetan.
46. Jagi zaitze, guazan: orra urreratu da salduko nabena.
47. Oraindik berak berbetan ziardubala, orra nun Judas amabijetatik bat etorri zan, eta beragaz jenedi andija ezpatakaz, ta makillakaz, sazer-doteen nagusijak eta erriko zaarrak bialdubak.
48. Saldu ebanak barriz, emon eutsen ezagungarrija, ziñuala: Nik mosu emoten deusadana, bera da, eldu egijozube.
49. Eta beriala eldurik Jesus gana, esan eutsan: Agur Irakaslia. Eta mosu emon eutsan.
50. Eta esan eutsan Jesusek: Adiskidia, zetara etorri zara? Orduban eldu ziran, eta ezarri eutsezan eskubak Jesusi, eta atrapau eben.
51. Eta orra nun Jesusgaz egozanetatik batek, luzaturik eskuba, atera eban bere ezpatia, eta jorik sazerdoteen Nagusijaren otseña, ebagi eutsan bere belarrija.
52. Orduban esan eutsan Jesusek: Biurtu egizu zeure ezpatia bere lekura: zerren ezpatia artuten daben guztijak, ezpataz illgo dira.
53. Uste al dozu, ezin neikijola erregutu neure aitari, eta emongo leuskedazala niri orain amabi Aingeru aldra baño geijago?



54. Zelan bada beteko dira Eskrituraak, gauzaak onelan egiñak izan biar dabela?
55. Ordu atan esan eutsen Jesusek jendedijai: Lapurra gana legez urten dozube ezpatakaz, ta makillakaz ni atrapetara: egunoro zubekaz nenguan jarrirek irakasten elexan, eta ez ninduzuben atrapau.
56. Au guztijau barriz egin zan, bete zeitezan Igarlaak eskribidu zitu-bezanak. Orduban ikasla guztijak, itxirik bera, iges egin eben.
57. Eta areek eldurik Jesusi, eruan eben Kaifas Sazerdoteen Nagusi-jagana, nun Eskriba ta Fariseoak batu ziran.
58. Pedrok barriz jarraituten eutsan urriñetik Sazerdoteen Nagusijaren atairaño. Eta sarturik barrura, eguan jarrita otseñakaz, ikusteko azkena.
59. Sazerdoteen Nagusijak, eta batzaar guztijak barriz billatuten eben guzurrezko asmazinoia Jesusen kontra, bera erijotzarako emoteko.
60. Eta ez eben aurkitu, testigu guzurrezko asko ekarri arren. Azkenik barriz etorri ziran guzurrezko testigu bi;
61. Ta esan eben: Onek esan dau: Bota neike Jaungoikuaren elexia, eta iru egun barru barru egin.
62. Eta jagirik Sazerdoteen Nagusija, esan eutsan: Ez dozu ezer erantzuten, oneek zugaitik esaten ditubezan gauza txarretara?
63. Jesus barriz ixillik eguan. Eta Sazerdoteen Nagusijak esan eutsan: Jaungoiko bizijaren izenian itanduten deusut, esan dagiguzula zu bazara Kristo Jaungoikuaren semia.
64. Esaten deusa Jesusek: Zeuk esan dozu. Alanbere esaten deusubet, oraindik ikusiko dozube gizonaren semia jarrirek Jaungoiko indartsu-baren ezkumatatik, eta datorrela Zeruko odeijetan.
65. Orduban Sazerdoteen Nagusijak urratu zituzan bere soñekuak, ziñuala: Blasfemau dau: zetarako ditugu onezkero salatsallaak? Orra emen orain entzun deusazube blasfemija:
66. Zer deritxazube? Eta eurak erantzunik esan eben: Erijotziaren errudun da.
67. Orduban txistu urtika jardun eutsen bere arpegira, eta ukabilka ezarri eben, beste batzuk barriz esku zabalakaz emon eutsezan bere arpegijan,
68. Ziñuela: Igarri egiguk, Kristo, nor dok zauritu abena?
69. Pedro barriz eguan jarrita kanpuan ataijan: eta eldu zan beragana otsein neskatilla bat, zirautsala: Zu bere Jesus Galileakuagaz zengozan.
70. Baña berak ukatu eban guztijen aurrian, ziñuala: Ez jakiñat zer diñonan.

71. Urtenik barriz berak atera, ikusi eban beste otsein neskatilla batek, eta esan eutsen an egozanai: Au bere eguan Jesus Nazarenuagaz.
72. Eta barru ukatu eban juramentubagaz: Ez ebalaz ezagututen alako gizonik.
73. Eta gerotxuago eldu ziran an egozanak, eta esan eutsen Pedrori: Egijaz zu bere euretaria zara: zerren zure berbetiak bere agertuten zaitu.
74. Orduban asi zan biraoka ta juramentuka ez ebalaz ezagututen alako gizonik. Eta beriala ollarrak jo eban.
75. Eta gomutau zan Pedro Jesusen berba, esan eutsanagaz: Ollarrak jo baño lenago, iru bidar ukatuko nozu. Eta urtenik kanpora, egin zituzan negar mingotxak.

OGETA ZAZPI GARREN KAPITULUBA

Judeguben batzaarra Jesus galduteko. Judasen erneguba ta erijotzia. Jesus Pilatosen aurrian. Azotetan dabe: iminten deutse arantzazko koroia: egiten deutsez destaiñaak. Darue Kalbarijora ta kurutzian jositen dabe. Lurra illuntasunez betetan da. Jesus ilten da: lurra ikaratuten da: ill asko biztuten dira. Obituten dabe Jauna: iminten deutsez jaolaak.

1. Eldurik barriz goxa, egin eben batzaarra Sazerdoteen Nagusi guztijak, eta erriko zaarrak Jesusen kontra, bera ill eragiteko.
2. Eta loturik eruan eben, ta emon eutsen Ponzio Pilatos Gobernarriari.
3. Orduban ikusirik Judasek, bera saldu ebanak, ilteko epaija emon eutsela; damuturik, biurtu eutsezan ogeta amar diru zidarrezkuak Sazerdoteen Nagusijai, ta zaarrai,
4. Zirautsela: Pekatu egin dot, saldurik odol errubagia. Eta eurak esan eutsen: Zer jeuskuk guri? Euk begiratu biar eban.
5. Eta jaurtigirik zidarrezko dirubak elexan, aldendu zan, eta juanik urkatu zan.
6. Sazerdoteen Nagusijak barriz, arturik zidarrezko dirubak, esan eben: Ez dira bota biar atabakara, odolaren sarija dalako.
7. Emonik barriz euren eretxijak onen ganian, erosi eben areekaz lapikogin baten landia, arrotzak obituteko.



8. Au gaitik izan zan deituba landa a, Hazeldama, au da, odol landia, gaurko eguneragiño.
9. Orduban bete zan Jeremias Igarliak esan ebana, ziñuanian: Eta artu zitubezan ogeta amar zidarrezko diru, zeintzubez diran salduba izan danaren sarija, zeñetan erosi jaken Israelgo semiai.
10. Eta emon zitubezan ontzigin baten landiagaitik, Jaunak agindu eustan legez.
11. Jesus barriz izan zan eruana Gobernarijaren aurrera, eta itandu eustan Gobernarijak, zirautsala: Zu zara Judeguben Erregia? Esaten deutsa Jesusek: Zeuk diñozu.
12. Eta salatuten beben bere Sazerdoteen Nagusijak eta zaarrak, ez eban ezer erantzun.
13. Orduban esaten deutsa Pilatosek: Ez dantzuzu zenbat gauza diñuezan oneek zure gatxian?
14. Eta ez eustan erantzun berba batera bere, allagiña ze Gobernarija miraritu zan guztiz asko.
15. Paskuako egun andijan barriz, Gobernarijak emon oi eustan erri-jari askatuta, eurak nai eben katigu bat.
16. Eukan barriz orduban loturik, Barrabas eritxan entzute andiko bat.
17. Baturik bada eurak, esan eusten Pilatosek: Zein gura dozube emon dagizubedan? Barrabas, ala Jesus, Kristo deritxona?
18. Zerren bekijan ondamuz ekarri eutsela.
19. Eguala barriz jarririk bere epai aulkijan, bialdu eban beragana bere emaztiak, esatera: Ez zaite sartu errubagako orren gauzetan. Zerren asko igaro dot gaur amesetan beragaitik.
20. Sazerdoteen Nagusijak barriz, eta zaarrak burutan imiñi eusten errija, eskatu egijela Barrabas, Jesus barriz galdu eragijela.
21. Erantzunik barriz Gobernarijak, esan eusten: Bijetatik zein gura dozube askaturik emon dagizubedan? Eta eurak esan eben: Barrabas.
22. Esaten deutse Pilatosek: Zer bada egingo dot Jesus, Kristo deritxanagaz?
23. Diñue guztijak: Izan bedi kurutzian josija. Esaten deutse Gobernarijak: Ze gauza txaar bada egin dau? Eta eurak geijago diadar egiten eben, ziñuela: Izan bedi kurutzian josija.
24. Ikusirik barriz Pilatosek ez ebalu ezer aurreratuten, ezpada geitubaz joiala matxiñadia; arturik ura, garbitu zituzan eskubak erriaren aurrian, ziñuala: Errubagarik nago ni justu orren odoletik: begira zeubek.

25. Eta erantzunik erri guztijak esan eban: Bere odola gure ganera, ta gure semeen ganera.
26. Orduban itxi eutsen Barrabas: Jesus barriz azotaurik emon eusten kurutzian josija izan zedin.
27. Orduban Gobernarijaren soldadubak arturik Jesus jauregirako, batu eben beragana aldra guztija:
28. Eta billosturik bera, granazko mantu bat imiñi eutsen,
29. Eta ijorik koroia arantzakaz, imiñi eutsen bere burubaren ganian, eta kañberia bere eskuman. Eta belaunikoturik bere aurrian, destañaak egiten eutsezan, ziñuela: Agur Judeguben erregia.
30. Eta txistuka jardunik berari, artu eben kañberia, eta zaurituten eutsen bere buruba.
31. Eta destañak egin ezkerro berari, erantzi eutsen mantua, eta jantzi eutsezan bere soñekuak, eta eruan eben kurutzian jositera.
32. Urtenik barriz aurkitu eben gizon bat Zirenekua, Simon izena ebana: oni artu eragin eutsen Jesusen kurutzia.
33. Eta etorri ziran Golgota deritxan leku batera, au da Kalbarijoko lekura.
34. Eta emon eutsen edaten ardaia beztunagaz naastaurik. Eta probaurik, ez eban gura izan edan.
35. Kurutzian josi ezkerro barriz, partiu zitubezan bere soñekuak, botarik suertia: bete zedin Igarliak esan ebana ziñuanian: Partiu zitubezan nire soñekuak, eta nire soñekuaren ganian bota eben suertia.
36. Eta jarririk zainduten eben.
37. Eta imiñi eben bere burubaren ganian bere kausia eskribidurik: Au da Jesus Judeguben Erregia.
38. Orduban izan ziran kurutzian josijak beragaz lapur bi: bata esku-matetik, ta bestia eskerretatik.
39. Andik igaroten ziranak barriz gaiski esaka ziarduben beragaitik eraginik euren burubai,
40. Eta ziñuela: Ia i botaten duana Jaungoikuaren elexia, ta iru egun barru barrero egiten duana: salba adi: Jaungoikuaren semia baaz, jatsi adi kurutzetik.
41. Bardin Sazerdoteen Nagusijak bere destañaak egiñik Eskribaakaz, eta zaarrakaz ziñuen:
42. Beste batzuk salbau jituk, bera ezin dok salbau: Israelgo errege badok, jatsi jadilla orain kurutzetik, eta sinistuten jeutsagu.
43. Itxaron juan Jaungoikuagan: librau jaijala orain, baldin gura bajok: zerren esan juan: Jaungoikuaren semia zuala.



44. Gaiski oneek eurok esaten eutsezan beragaz kurutzian josirik egozan lapurrak bere.
45. Eguberditik barriz iruretaraño illundu zan mundu guztija.
46. Eta irurak urrian ziranian diadar egin eban Jesusek boz andi bategaz, ziñuala: Eli, Eli, Lamma sabaktani? Au da: Neure Jaungoikua, neure Jaungoikua, zergaitik itxi nozu?
47. An egozan batzuk barriz, eta entzunik oneek, ziñuen: Eliasi deituten jeutsak onek.
48. Eta beriala juanik arin euretatik bat arturik esponja bat bete eban binagrez, eta imiñi eban kañabera baten, ta emoten eutsan edaten.
49. Bestiak barriz ziñuen: Itxi, dakuskun ete datorren Elias berau libretara.
50. Jesusek barriz bigarrenez diadar andi bat eginik, emon eban azkenengo arnasia.
51. Eta orra nun elexako estalkija urratu zan zati bitan goitik beerañi. Eta luurra ikaratu zan, eta arrijak zatitu ziran.
52. Eta illen objak idigi ziran, eta ill ziran santuben gorputz asko, biztu ziran.
53. Eta urtenik objetatik bere biztuera barrijaren ondoren, etorri ziran uri santura, ta agertu jakezan askori.
54. Zenturionek barriz, eta beragaz egozanak zainduten Jesus, ikusirik luikaria, eta jazoten ziran gauzaak, bildur andi bat artu eben, ziñuela: Egijaz Jaungoikuaren semia zan au.
55. Egozan barriz an emakume asko urriñetik, jarraitu eutsenak Jesusi Galileatik, serbietetan ebela:
56. Zeintzuben artian eguan Maria Magdalena, eta Maria Santiagoren ta Joseran ama, eta Zebedeoren semeen ama.
57. Eldurik barriz arratsaldia, etorri zan gizon aberats bat Arimateakua, Jose eritxana, zein bere zan Jesusen jarraitzallia.
58. Au eldu zan Pilatos gana, eta eskatu eutsan Jesusen gorputza. Orduban Pilatosek agindu eban emon ekijola gorputza.
59. Eta arturik gorputza, Josek batu eban izara garbi baten.
60. Eta imiñi eban bere obi barri, atxian idigi ebanian. Eta itxi eban arri andi bategaz objaren sarrerria, eta juan zan.
61. Eguan barriz an Maria Magdalena, eta beste Marija, jarririk objaren aurrian.
62. Beste egunian barriz, zein dan Paraszeberi darraikona, batu ziran Sazerdoteen Nagusijak ta Fariseoak Pilatosen aurrian.

63. Ziñuela: Jauna, gomuta gara, guzurti arek esan ebala oraindik bizirik eguala: Iru egun igarorik barriro biztuko naz.

64. Agindu egizu bada zaindu dedilla obja irugarren eguneragiño: etorri ez ditezen bere jarraitzallaak, eta ostu ez dagijen, eta esan errijari: Biztu zan illen artetik: eta izango da azkenengo errakuntzia lelengua baño dongagua.

65. Esan eutsen Pilatosek: Badaukazubez jaolaak, zuaze, zaindu egizube dakizuben legez.

66. Eurak bada juanik, inguratu eben obja, silluturik arrija, jaolakaz.

OGETA ZORTZIGARREN KAPITULUBA

Jesusen biztuera barrija. Agertuten jake emakume onai, Apostulu-bai, ta jarraitzallaai, ta eskintzen deutse bere laguntasuna.

1. Zapatubaren arratsaldian barriz, astiaren lelengo egunaren egun-sentijan, etorri zan Maria Magdalena, eta beste Marija ikustera obja.
2. Eta orra nun izan zan luikara andi bat. Zerren Jaunaren Aingeruba jatsi zan zerutik: eta urreraturik kendu eban arrija, eta eguan jarririk bere ganian.
3. Zan barriz bere itxuria oñaztuba lakua: eta bere soñekua edurra lakua.
4. Bere bildurrez barriz ikaratu ziran jaolaak, eta gelditu ziran illik legez.
5. Asirik barriz berbetan Aingeruba esan eutsen emakumiai: Ez egizube bildurrik euki zubek: zerren badakit billatuten dozubela Jesus, kurutzian josija izan zana.
6. Ez dago emen zerren biztu zan, esan eban legez. Erdube, ta ikusi egizube, Jauna imiñirik eguan lekuba.
7. Eta laster juanik, esan egijezube bere jarraitzallai biztu dala. Eta orra nun juango dan zuben aurretik Galileara: an ikusiko dozube. Orra nun aurrez adierazo deustubedan.
8. Eta urten eben beriala obitik bildur ta poz andijagaz, arin ibillirik adierazoteko bere jarraitzallai.
9. Eta orra nun Jesusek bidera urteteten deuten, dirautsela: Agur guztijoi. Eurak barriz urreratu ziran beragana, eldu eutsen bere oñetatik, eta adarau eben.



10. Orduban esan eutsen Jesusek: Ez zaiteze bildur izan: zuaze, adierazoz egijezube nire anaijai jua ditezela Galileara, an ikusiko nabe.

11. Eurak juanik, orra nun jaola batzuk etorri ziran urira, eta adierazoz eutsen Sazerdoteen Nagusijai igaro zan guztija.

12. Eta baturik zaarrakaz, alkar aiturik, diruba ugari emon eutsen soldadubai,

13. Zirautsela: Esan egizube, bere jarraitzallaak etorri ziran gabaz, eta ostu eben gu lotan gengozala.

14. Eta baldin au elduko balitz Gobernarijaren belarrijetara, geuk sinistu eragingo deusagu, eta ez dozube buruko miñik izango.

15. Eta eurak arturik diruba, egin eben erakutsi eutsen legez. Eta zabaldu zan berba au Judeguben artian eta dirau gaurko eguneraño.

16. Amaika jarraitzallaak barriz jua ziran Galileara, Jesusek agindu eutsen mendira.

17. Eta ikusirik bera adorau eben: batzuk barriz euki zitubezan ezbaijak.

18. Eta eldurik Jesus berba egin eutsen, zirautsela: Emon jat niri eskubide guztija zeruban, ta lurrian.

19. Juanik bada, irakatsi egijezube jente guztijai, batiatuten dituzubela Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren izenian.

20. Erakusten deutsezubela gordetan, zubei agindu deusubedazan gauza guztijak. Eta orra nun ni zubekaz naguan egun guztijetan mundubaren amairagiño.

SAN MATEOREN EBANJELIJUARI ADIGARRIJAK

(1) C. I v. 18. Alkarganatu baño lenago. Ez dau iñor emendik atera biar, gero aragiaz alkartu zirala, zerren beti garbi bizi izan ziran. San Jeron.

(2) C. I v. 23. Emendik bere ezin atera leike, gero aragiz alkartu zirala San Jeron.

(3) Lelengo sortuba. Berba onek adierazoten eban Judeguben artian, lenago besterik izan bagia.

(4) C. III v. 12. Larrinia. Elexia da larrin bat aotsa ta garija, au da onak eta deungak nastaurik dagozana. Egunen baten izango dira aldendubak. San Agustin.

(5) C. V v. 19. Esan gura dau, ez dala sartuko zeruban. San Agustin.

(6) C. V v. 29. Adituten da, eskumia ta begija baisen gauza biarra. San Hilario. San Jeronimo.

(7) C. VI v. 34. Au da, egija, zuzentasun ta premiña бага. Jerem. C. 4 v.2.

(8) C. VI v. 25. Emen eragozten da ardura larregija. S. Tomas.

(9) C. 8 v. 9. Eskriba onek jarraitu gura eutsan Jesusi mundu onetarako ondasunen itxaropenagaz. San Juan Krisostomo.

(10) C. 9 v. 16. Irudi onegaz adierazoz eutsen Jesusek bere ikaslak, ez zirala oraindik zeruko bidian aurreraturik da gozanen irakatzijen duin. Krisost.

(11) C.9 v. 24. Esan gura dau, Jesusek biztu leikiala, lo daguan bat iratzartuten danaren erraztasunagaz. Krisost.

(12) C. 10 v. 34. Ezpatia: ilteko norberaren amodijo bidebagia, mundu dongea, eta aragijaren grinaak. San Juan Krisostomo.

(13) C. 12 v.3. Esan gura dau, nekezago pekatuba izango dala. San Juan Krisostomo.

(14) C. 12 v. 46. Anaijak: au da, senide urrekuak. Calmet.

(15) C. 13 v. 12. Asko artu eta ondo erantzuten deusenai, ugarituko jake: gitxi artu eta txarto erantzuten deusenak barriz, urritu. S. Agust.

(16) C. 15 v. 11. Aituten da, auan sartuten dana ez danian Jaungoikuaren legiak edo Elexa santiak eragotsija. Duhamel.

(17) C. 15 v. 24. Etorri zan guztijen onera, baño Israeltarri bakarrik izan jaken eskiña. S. Agustin.

(18) C. 16 v. 19. Giltzak: au da pekatubak parkatu edo ez parkatuteko eskubidea. Natal. Aexandro.

(19) C. 16 v. 23. Satanas. Galerazoten deustazu Jaungoikuak gura dabena egitia. Duhamel.

(20) C. 17 v. 12. Bijetan diño egija: zerren baten aitatuten dau Bautistia eta bestian Elias.

(21) C. 18 v. 10. Esan gura dau, euren aingerubak salatuko ditubezala Aita zerukuaren aurrian. Natal Alej.

(22) C. 18 v. 22. Irurogeta amar bidar zazpiraño: aditzen da beti. San Jeron. San Agustin.

(23) C. 19 v. 12. Irendubak ez gorputzak, ezpada gurari loijak. S. Agust.

(24) C. 21 v. 44. Arri au Jesukristo da. San Agustin.

(25) C. 27 v. 3. Judaren damua ez zan izan ona, zeren ez eutsan lagundu itxaropenak. S. Agustin.



BENEDICITE

Marquines

1. Bedeinkatu egizube Jaunaren egite guztijak Jauna: alabau egizube eta guztiz asko goratu egizube bera beti beti.
2. Jaunaren Aingerubak... zerubak...
3. Zeruben gañian dagozan ur guztijak... Jaunaren birtute guztijak.
4. Eguzkija eta illargija... zeruko izarrak...
5. Euri guztija eta iruntza... Jaungoikuaren espiritu guztijak...
6. Suba eta berua... otza eta berua...
7. Iruntzak eta iruntz gogortuba... izotza eta otza...
8. Ur izoztuba eta edurrak... gabak eta egunak...
9. Argija eta illuna... oñaztubak eta odeijak...
10. Bedeinkatu begi lurak Jauna: alabau begi eta guztiz asko goratu begi bera beti beti.
11. Mendijak eta murubak... lurrian ernetan diran guztijak...
12. Iturrijak... itxasuak eta ibaijak...
13. Baleiak eta uretan dabilzazan guztijak... zeruko egazti guztijak...
14. Pistija guztijak eta aberiak... gizonen semiak...
15. Bedeinkatu begi Israelek Jauna: alabau begi eta guztiz asko goratu begi bera beti beti.
16. Jaunaren sazerdotiak... Jaunaren serbitzarijak...
17. Espiritubak eta justuben arimaak... santubak eta bijotzez umillak...
18. Anania, Azaria, Misael... alabau egizube eta guztiz asko goratu egizube bera beti beti.

CANTICUM TRIUM PUERORUM

Canticum trium Puerorum Vasconice,
dial. Biscaina Litterali Marquinesi

1. Jaunaren obra guztijak, bedeinkatu egizube Jauna: alabau eta guztijen gañian goratu egizube beti.
2. Jaunaren Aingerubak,
3. Zerubak,
4. Zeruben gañian dagozan ur guztijak,
5. Jaunaren birtute guztijak,
6. Eguzkija ta illargija,
7. Zeruko izarrak,
8. Euri eta iruntz guztijak,
9. Jaungoikuaren espiritu guztijak,
10. Suba eta berua,
11. Otza eta berua,
12. Iruntzak eta intzierra,
13. Izotza eta otza,
14. Izotza eta edurrak,
15. Gabak eta egunak,
16. Argija ta illuna,
17. Oñaztubak eta odeijak,
18. Lurak bedeinkatu begi Jauna: alabau eta guztijen gañian goratu begi beti.
19. Mendijak eta murubak,
20. Lurrian ernetan diran guztijak,
21. Iturrijak,
22. Itxasuak eta ibaijak,
23. Baleiak eta uretan dabilzazan guztijak,
24. Zeruko egazti guztijak,
25. Pistija guztijak eta aberiak,
26. Israelek bedeinkatu begi Jauna:
27. Jaunaren sazerdotiak,
28. Jaunaren serbitzarijak,
29. Espiritubak eta justuben arimak,
30. Gizonen semiak,
31. Santubak eta bijotzez umillak,
32. Ananias, Azarias, Misael.